ARROSAREN IZENA

2025eko maiatzaren 26an -Ermuko Santa Luzia egunean--
euskaratzen bukatua.

ESKUIZKRIBU BAT, NOSKI

1968ko agorrilaren 16an, Vallet izeneko[1] *abadeak idatzitako eskuizkribu bat eskuetara zitzaidan:* Le manuscript de Dom Adson de Melk, traduit en français d'après l'édition de Dom J. Mabillon (Aux Presses de l'Abbaye de la Source, Paris, 1842). *Liburua, ohar historiko kaskar xamar batzuekikoa, XIV. mendeko eskuizkribu baten kopia zehatza zela zioen, Melk-eko monasterioan aurkitua baitzen, beneditarren baldernako*[2] *historialariek hainbat zor dioten ikastun handi XVII.eko batek aurkitua, hain zuzen.* Trouvaille *jakituriatsu hak (aldi haretan niretzat hirugarrena) atsegin-une ugari eskaini ukan zidan, Pragan maite nuen lagun baten zain nengoelarik. Sei egun geroago errusiar gudarosteak hiri zorigaiztoko hura inbaditu zuen. Nola edo hala*[3]*, Austriarekiko muga zeharkatu ahal izan*

1 V. izeneko: (H. "un tal V.") (H.: Hemen eman diodan esan-nahia)
2 Balderna: Comunidad, congregación, asociación; SP. "Assemblée, communauté ou commune basque avant 1789" (Orotariko Euskal Hiztegitik hartua)
3 Nola edo hala: (H, "azarosamente")

nuen, Linz-en, eta Vienara jo, itxarondako lagunarekin bat egite aldera, eta elkarrekin Danubio ibaian gora joan ginen.

Gogoz zeharo aztoratua nengoen giro haretan, Melk-eko Adsoren historia izugarria irakurri nuen, liluraturik, eta hain hala harrapatu ninduen, ezen, abantzu[4] *bertatik bertara, kuaderno handi batzuetara itzuli nuen,* Papeterie Joseph Gibert *zelakoan saltzen eta idazluma bigunez hain idazteko atsegingarri ziren kaier haietariko batzuk, barren*[5]*. Bizkitartean, Melk aldera hurreratu ginen, non eta, errekako bihurgune baten gain-gainean, oraindik Stijt eder-ederra, mendeetan hainbat aldiz berreraikia, goititzen baita. Irakurleak irudikatua izango duenez, monasterioko liburutegian ez nuen Adsoren eskuizkribuaren zantzurik aurkitu.*

Salzburg-era iritsi aurrez, ondikozko[6] *gau batez ostatu-etxe tiki batean, Mondsec ondoan, nirekin zegoen lagunarekiko harremana zakarki eten zen, eta hura itzaldu*[7]

4 Abantzu: ia (-nz- L, BN, S); abantxu (AN-egüés-arce, L-sar, BN baig, S, R-uzt) Casi. "Presque, sur le point de".

5 Barren: (V-gip, G-azp) se emplea para dar más fuerza a cualquier confirmación.

6 Ondikozko: trágico, infeliz, desgraciado (Zorigaiztoko...)

7 Itzaldu: ocultar; desaparecer; hacer sombra. / Itzali: apagar (N-: nik asmatua edo eratua)

zen, Vallet abadearen liburua berekin zeramala, ez gaizki egin nahiz baina gure artekoa nola eten zen, brast[8] eta hala-hola, eta honegatik. Halatan bada, nire eskuz idatzitako kaiertto[9] andana batekin eta bihotzean hutsune handirekin geratu nintzen.

Il batzuk geroago, Parisen, sakonkiro ikertzea erabaki nuen. Frantsesezko liburutik idoki[10] ukan nituen erreferentzia gutien artean iturriarena zen bat, oso xehe-xehetua eta zehatza, zorionez:

«Vetera analecta, sive collectio veterum aliquot operum & opusculorum omnis generis, carminum, epistolarum, diplomaton, epitaphiorum, &, cum. itinere germanico, adnotationibus aliquot disquisitionibus R. P. D. Joannis Mabillon, Presbiteri ac Monachi Ord. Sancti Benedicti e Congregatione S. Mauri. – Nova Editio cui accessere Mabilonii vita & aliquot opuscula, scilicet Dissertatio de Pane Eucharistico, Azymo et Fermentato, ad Eminentiss. Cardinalem Bona. Subjungitur opusculum Eldefonsi Hispaniensis Episcopi de eodem argumento Et Eusebii Romani ad Theophilum Gallum epistola. De cultu

8 Brast: onom. indica “ruptura brusca de algo”
9 Kaier: kuaderno
10 Idoki: extraer, sacar (Atera; Erauzi: arrancar)

sanctorum ignotorum, Parisiis, apud Levesque, ad Pontem S. Michaelis, MDCCXXI, cum privilegio Regis.»

Vetera Analecta *zirelakoak laster Sainte Geneviève liburutegian ediren*[11] *nituen, baina, ustebage handiz, ediren liburuki haietan bi ñabardura besteak ez bezalako aurkitu*[12] *nituen: bata, argitaratzailea*, Montalant, ad Ripam P.P. Augustinianorum (prope Pontem S. Michaelis) *baitzen*[13]*; eta bestea, data urte bi geroagokoa.* Analecta *horiek Melk-eko Adso edo Adson-en eskuizkriburik bat ere ez zedukatela esan beharrik ez; alderantziz, nork-nahi egiazta dezakeenez, idazki labur edo ez luze batzuen bilduma baino ez da, ordea, Vallet-ek idatzaldaturiko*[14] *historia ehunka orrialdetan hedatzen zen. Orduan, garai zaharretako gaietan aditu, hots, Erdi Arolari*[15] *batzuei galde egin nien, Etienne Gilson maitagarri eta ahantzezinari, besteak beste; baina argi zegoen* Vetera Analecta *bakarrak Sainte Geneviève-n ikusi nituenak zirela. Abbaye de la Source-ra, Passy aldean bururatu eta ikusketan joan nintzen. Eta Dom Arne Lahnestedt adiskidearekin hitzaspertu bat nahikoa izan zen, inolako Vallet abadek ezein liburu argitaratu ez*

11 Ediren: encontrar lo que se busca, hallar (Ediro, idoro, eriden...)
12 Aurkitu: encontrar, descubrir (lo no buscado) (Kausitu: hallar...)
13 Bait-: batzuetan erlatibozkoa; besteetan, kausala; edo, lokarri hutsa.
14 Idatzaldatu: transcribir (N)
15 Erdi Arolari: medievalista (N)

zuela uste izaiteko, ez abadiako prentsetan behinik behin (gainera hanakorik ez zegoen). Frantziako jakituriadunek[16]*, jakina da, erreferentzia bibliografikoak, sinesgarriak gutienez, emaiterakoan ez ohi dute ahaleginik asko egin, honela ere harako haretan gertatzen zena arrazoizko edo bidezko etsipen guztien gainetik zihoan. Idazki apokrifo batekin tupust*[17] *egin nuela pentsatzen hasi nintzen. Ezin nuen berriro eskuratu, gainera, Vallet-en liburua (edo ez nintzen ausartzen eraman zuen lagunari eskatzera). Nire oharrak besterik ez nedukan, eta hauetaz ere ordurako zalantzan hasita nengoen.*

Badira une miragarriak, gorputzaren nekeaz eta ernetasun[18] *eragingarriez beteak, zeinetan lehenaldian ezagutu lagunen ikuspenak baititugu (*“en me retraçant ces details, j’en suis à me demander s’ils sont réels, ou bien si je les ai rêvés*”). Geroago, Abbé de Bucquoy-ren liburuxka politean irakurrita jakin nuenez, idatzi bageko liburuen ere ikuspenak izan daitezke.*

Ezer berririk gertatu ez balitz, oraindik Melk-eko Adsoren historiaren jatorriaz galdetzeari eragongo[19] *nion; baina 1970ean, Buenos Aires-en, Corrientesko liburu*

16 Jakituriadun: erúdito, que tiene la sabiduría. (Jakituriatsu) (N)
17 Tupust: encuentro, tropezón, de improviso
18 Ernetasun: excitación, vigilancia, atención

zaharretako tegi tikiko mahaietan ikuskatuz, hiriarte eskerge[20] *horretako* Patio del Tango *ospetsutik gertu, Milo Temesvar-ren* Del uso de los espejos en el juego del ajedrez *liburuttoaren gaztelerazko bertsioarekin tupust egin nuen, aurreko batean nire* Apocalittici e integrati *aipatu ukan nuena (bigarren eskutik) beraren beste geroagoko lan batez,* Los vendedores del Apocalípsis *alegia, jardun nuelarik. Jatorrizkoaren itzulpena zen, egun galdurik dagoena, georgierazkoa (Tibilisi, 1934): bertan, ustebage handiz, Adsoren eskuizkribuko aipamen ugari aurkitu nuen: hala ere, iturria ez zen Vallet ez Mabillon, aita Athanasius Kircher baizik (beronen lanetarik zein, ordea?). Geroago, jakile batek –izena aipatzeari ez deritzot egoki– ziurtatu zidan (eta buruz aurkibide guztiak zekizkien) josulagun handiak Melk-eko Adsoz hitzik inoiz egin ez zuela. Alabaina, Temesvar-en orrialdeak nire begien aurrean neduzkan, eta aipatzen zituen gertakariak Vallet-en liburutik itzulitako eskuizkribuan agertzen zirenen guztiz berdinak ziren (labirintoaren deskripzioak, bereziki, zalantza-malantzak oro uxatzen*[21] *zituen). Geroago, Beniamino*

19 Erago(n): insistir / seguir / instar (Zer-nori-nork – deragoiote-) (Erago: crónica / Erago labur: cronicón) (Erago: orden / comodidad)

20 Eskerge: enorme (Esker + -ge /-ga (bage, baga 'sin'), litm. 'ingrato'. Ukaondoa hur da baia mun egiten eskerga. "Cerca está el codo, más difícil de besar"."Ingente" , "desmedido", "desmesurado",

21 Zalantza…: (H. “disipaba toda duda”)

Placidok idatziko zuena gora-behera, Vallet abadea bizi, bizi izan zen, eta Melk-eko Adso ere bai, zalantzarik ez.

Bilaki[22] *hauek guztiok zera pentsatzera ekarri ninduten, hots, Adsoren oroitzapenak eta jaulkitako gertaerak izaera berekoak zirela, misterio asko eta lausoen barruan bilduak, hasi egilea nor den eta buka abadia non zegoen, beronetaz Adsok aipu zehatzik bat ere egiten ez baitu, eta, beraz, Pomposa eta Conques arteko leku ezezagun batean edo zegoela susma daiteke, soilki, Apenino mendietako gailurralde batean zegokeela uste izanik, Piamonte, Liguria eta Frantzia artean (Lerici eta Turbia esatea bezala). Gertaerak noiz eta 1327ko azaroaren hondarretan, eiki; egileak noiz idatzi zuen, aldiz, ez dakigu ziur. 1327an apaizgai zela dioelako eta bere oroikiak idazten dituenean, hil hurran dagoela dioela kontutan hartzen badugu, eskuizkribu hau XIV. mendearen azkenengo hamar-hogei urteetan osatu zuela aierutu*[23] *ahal daiteke.*

Ondo pentsaturik, XIV.aren azkenealdian lekaide alemaniar batek latinez idatzitako lan baten XVII.ean eginiko bertsio neogotiko frantziar ilunaren nire bertsio

22 Bilaki: zirkunstantzia (?)
23 Aierutu: conjeturar (Aieru: conjetura, sospecha /...)

italiar hau argitara emaiteko iradoki[24] *ahal ziezadaketen arrazoiak ugari ez ziren.*

Oroz gain[25]*, zelako idaztankera erabil? Garaiko italiarren ereduei uko egin nien, guztiz bidebage zirelakoan: Adsok latinez idatzi zuelako, bai eta era berean haren kultura edo jakintza askoz zaharragoko aldi batekoa zelako ere, (edo abadiako kultura, beraren baitan eragin nabarmena baitu, idatz-garapenari begiraturik argiro ikus daitekeenez); mende askotako jakiturien eta idazteko ohituren batuketa da, nabariki, Erdi Aro zaharrean bizirik zegoen ekandu*[26] *latindarrari lotua. Adsok herri-hizkera arruntaren iraultzatik bazter iraun duen padarraren*[27] *antzera pentsatzen eta idazten du, deskribatzen duen liburutegiko liburuei datxekiela, idazki patristiko eta eskolastikoetan ikas eta hezia; bere historia, hizkeragatik eta dituen aipamen jakituriatsukatik, XII edo XIII. mendeetan idatzia zitekeen (XIV.eko gertaerei buruzko*

24 Iradoki: persuadir

25 Oroz gain: ante todo, sobre todo.

26 Ekandu: costumbre, hábito, tradición. RS de 1596. Ekandu gextoa belu anztu doa. Ekandu gaxtoari bernea ausi.

27 Padar: . (V-arr-oroz-m-gip), pader (G), pater, fadar (V-gip), fader. Ermitaño. "Monje" "Anacoreta". "Moine, religieux". Parrau: "Hermitaño" Iazkereak parraua <-hua> egite ez du. RS 220. Perrau neuen gogoa, axeak bestera naroa.

aipuengatik ez balitz, Adsok mila zalantzaz eta beti omenka ekarten zituenak).

Beste aldetik, Adsoren latinetik bere frantsera neogotikora itzuli zuenean Vallet-ek askatasun batzuk hartu zituen, ez beti idazkera-taxuari mugaturik. Adibidez: une batez, pertsonaiek belarren onurez hitz egiten dute, zeratan, Alberto Magnorena ei zen sekretuen harako liburuan bermatuz, noski, mendeetan hainbat bider berrosatua izan zena. Adsok, enurarik[28] ez, ezagutu zuen, baina aipatzen duenean, batzuetan, Paracelsoren zeinbait errezetarekin bat-etorte oso zehatzak hautemaiten[29] ditugu, eta, halaber, Albertoren lanaren edizio baten interpolazio nabariak, zalantza bagerik tudor-garaikoa baita. Beste aldetik, geroago jakin nuenez, Vallet-ek Adsoren eskuizkribua idatzaldatu zuenean, Parisen Grand eta Petit Albert-en edizio hamazortzikoa[30] bazebilen, ordurako, ezinbestela, kaskartua. Hala ere, Adsok erabili zuen testua, edo fraideek erabilitakoa, berauen hitzak erregistratu baitzituen, glosa, iruzkin[31] eta eranski[32] batzuekin nahasirik, geroagoko

28 Enura: "Duda" , "perplejidad" (AN-larr).
29 Hauteman: (AN-ulz, L, BN, Sal, S, R), ateman (B; VocB), haiteman (S), autzeman (G-to) Darse cuenta, advertir, notar, sentir, percibir.
30 Hamazortziko: (H. “dieciochesca”)
31 Iruzkin: (H. “escolio”)
32 Eranski: apéndice

garaietako jakintzan eragingarri izan zitezkeen zeinbait ohar edukiteko gauza izaitea baliteke.

Azkenik, ene buruari galdez, garai haren espiritua gordetzeko ea ez ote zen egoki Vallet abadeak itzuli ez zituen idatz-zatiak latinean uztea. Honela egiteko arrazoi bakoitza, nire iturriarekin kirmen[33] izaiteko nahia da, beharbada okerra… Alperrekoa ezabatu dut, zerttobait utzirik, baina. Eleberrigile txarren antzera jokatu ote dudan ahalge naiz, arialdi batean pertsonaia frantziar bat sartzen dutenean, «parbleu!» eta «la femme, ah! la femme!» oihu eginarazten baitiote.

Beraz,[34]: zalantzez beterik nago. Ez dakit, benetan, zergatik erabaki dudan zezenari aderretatik eutsi eta Melkeko Adsoren eskuizkribua egiazkoa bailitzan aurkeztea. Agian, maiteminezko keinu izan daiteke. Edo, nahiago bada, nire hisi[35] ugarietarik askatzeko era bat.

Gaur-egungo arazoez kezkarik ez dudala, transkribitzen dut. Vallet abadearen idazkia aurkitu nuen garaian, bazen eritzi[36] bat, orainaldikoaz ardura harturik edo mundua aldatzeko asmoz idatzi behar zelakoa. Orain,

33 Kirmen: (V-ple-arr-oroz), kirrimen (V). "Fiel, leal" A.
34 Beraz: por tanto, asi que, en conclusión...
35 Hisi: Obstinación, terquedad, porfía, contumacia. (G, L, S, R).
36 Eritzi: (H. “convencimiento”)

hamar urte baino gehiagoko tarterekin, idazlea (bere duintasun goren-gorenean berrezarria[37]) idaztearen gozamen hutsagatik ere idatz daitekeela pentsatuaz soleitu[38] ahal daiteke. Hala, bada, Melk-eko Adsoren historia jaulkitzeko aske sentitzen naiz, erasi gozoaren[39] hutsagatik, eta garai urrunetakoa dela ikusirik, indarberritzen nau eta atsegin hartzen dut (arrazoiaren indarrak haren ametsak sorrarazi munstro guztiak ohildu dituen garai honetan), gure garaiotatik aldendua baita, gure itxaropenez eta gure ziurtasunez kanpokoa delarik.

*Liburuen historia baita, ez egunoroko beharruneena[40], eta hura irakurririk, Kempis imitatzaile handiak esana berriro esatera bultza gintzake, hots: «*In omnibus requiem quaesivi, et nusquam inveni nisi in angulo cum libro.[41]»

1980ko urtarrilaren 5ean.

37 Berrezarri: restituir.
38 Soleitu: consolarse (Fr. soulager)
39 Erasi: narrar -fabular – erasi gozo –. (Derasa...)
40 Egunoroko beharrune: (H. “miserias cotidianas”)
41 «Atsedena orotan bilatu nuen eta txoko batean liburu batekin baino ez nuen ediren.»

OHARRA

Adsoren eskuizkribua sei egunetan bananduta dago, eta haietako bakoitza liturgia-ordukal. Azpitituluak, hirugarren pertsonan, Vallet-ek erantsiak dira, eskierki. Honela ere, irakurleari bide erakusle zaiolakoan, eta garai haietako idazkirik askotan, herri hizkuntzetan ohikoa zenez, ez zait egoki iruditu haien ezabatzea.

Adsok ordu kanonikoei egindako aipamenek apur bat zalantzan jarri naute; zeren, horien ezagutzea sasoian sasoikoa eta lurraldean lurraldekoa izan ohi baita, alde batetik; eta bestetik, XIV. mendean, beharbada, Jaun Done Benitok ezarritako arauak zehatz-zehatz betetzen ez zirela litekeena baita.

Hala ere, irakurleak bide har dezan, eta testua irakurrita deduzitu ahal denaz, bai eta Edouard Shneider (bere *Les heures bénédictines*. Paris, Grasset, 1925) idazleak monasterioetako bizitzan arautegi arrunta haintzat hartuta ere, nolabaiteko zehaztasun hau egin dezakegu:

Matutiak (batzuetan Adsok *Vigiliae* ere esaten die, antzinan ohi legez). Gaueko 2:30etatik 3etara.
Laudeak (antzina zaharretan *Matutini* ere zeritzenak). Goizaldeko 5etatik 6etara, arturratzean amaiturik.

Prima. Egunsentia baino lehenttoago, 7:30ak aldean.
Tertzia. 9ak aldean.
Sesta. Eguerdia. (fraideek lurra lantzen ez zuten abadietan, neguan, bazkalordua zen)
Nona. Arratsaldeko ordu 2etatik 3etara.
Bezperak. 4:30ak aldean, eguzkia sartzerakoan (arautegiak dioenez erabat gautu baino lehen abaldu behar da).
Konpletak. 6ak aldean (fraideak 7ak baino lehen oheratzen dira)

Kalkulu hau egiteko funtsa da Italiako iparraldean, azaroaren hondarraldian, eguzkia 7:30ak irian sortzen dela, eta arratsaldeko 4:40ak irian sartzen dela.

HITZAURREA

Hasieran Hitza zen eta Hitza Jainkoarengan zen eta Hitza Jainkoa zen. Hau hasieran zen, Jainkoarengan, eta fraide kirmenak egun oroz izaera aldaezin hori berrizkatu behar du, xuxurla apalean[42], zinez ziurtasun ezin

42 Xuxurla apalean: (H. “salmodiante humildad”)

eztabaidatuaz[43] baiezta daitekeen egia bakarra baita. Baina *videmus nunc per speculum et in aenigmate*[44] eta egia, agerian agertu aurretik, zatikitan[45] azaleratzen da (ala[46], zein irakurtezinak!) mundu honetako okerrarekin nahasirik, halako moldez, ezen, haren zantzu[47] kirmenak hizkika esan[48] behar baititugu, ilunak eta gaizkirantz guztiz alderatutako nahikunde batek ia landuak iruditzen zaizkigun haretan ere bai.

Nire bekatari honexen bizitza honen azkenean, urdindua eta zaharkitua mundua bezala, jainkotasun mortu eta isilaren leze hondo bagean amilduz gal nadin unearen zain nagoen bitartean, aingeruen adimenen argi adiarazezina[49] hartzen ari naizela, Melk-eko monasterio honetako gela honetan, nire gorputz astun eta gaisoak atxikiten nauen lekuon, pergamino honen gainean nire gaztaroan ikusi behar ukan nituen gertaera harrigarri eta lazgarrien egia jasorik uztera[50] gertutzen[51] naiz, *verbatim*[52]

43 Ezin eztabaidatuaz: incontrovertible
44 «orain ispilutik eta enigmaz» ikusten dugu. J. D. Paulen esaera da.
45 Zatiki: fragmento
46 Ala: partícula exclamativa: oh! Ay! / disyuntiva /… (Hala / Ala)
47 Zantzu: (H. “signáculo”)
48 Hizkika esan: (H. “deletrear”)
49 Adiarazezin: (H. “inefable”)
50 Jasorik utzi: dejar constancia (N)
51 Gertutu: disponerse (Apailatu, prestatu...)
52 Verbatim: hitzez hitz

ikus eta entzun nuen oro berrizkatuz, inolako interpretaziorik aurreratzeke, nolabait, gure atzetik datozkeenei (lehenago Antikristo baldin ez baletor) zuinen zuinak[53] uztearren, hauen gainean deszifratzeko eske-otoitz[54] egin ahal izan dezaten.

Jaunak garazia eman dit orain izena bera ere isilpe errukitsuan estalirik uztea komeni den abadian gertatu ziren zera haien lekukotza zehatza ager dezadan, Jaunaren 1327. urtearen amai aldean, Ludoviko enperadorea Italiara sartu zenean, Erromako Aginterri[55] Sakratuaren duintasuna berrezarri asmoz, Goi-goikoaren gurarien[56] araura eta Avignon-en apostoluaren izen santua belztu zuen heresiarka usurpatzaile doilor[57] simoniakoaren kaltetan (Jacques de Cahors-en arima bekatariaz ari naiz, fedebageek Joan XXII izenarekin gurtzen dutena).

Tartean sarturik[58] egon nintzen gertaera haiek hobeki ulertzearren, hamarraldi haretan zer jazo izaiten zen oroitzea egoki da, eiki, orduan igini[59] nuen bezalaxe, bizi izan

53 Zuinen zuinak: (H. “signos de signos”)
54 Eske-otoitz: (H. “plegaria”)
55 Aginterri: inperio
56 Gurari: (H. “designio”)
57 Doilor: (H. “infame”)
58 Tartean sartu: implicar(se)
59 Igini: ulertu – comprender (?) Aunza igarota oñatza agiri, batak dagiana bestek igini. "Lo entiende" . RS

bainuen, eta orain nola gogoratzen dudan, geroago haretaz entzun ukan dudanaz joritua, beti ere nire oroimenak orduko gertaera haietako hari guztiak, hainbat eta hain korapilatuak, lotu ahal balitu.

Mende haretako lehen urteetan, jadanik, Klemente V.a aitasantuak apezpiku-egoitza Avignon-era eramana zuen, Erroma bertako jauntxoen handinahikerien mende utzirik, eta guttika-guttika kristaugoaren hiri santu-santua zirku edo putetxe bilakatuz joan zen. Boteredunen arteko liskarrek pitzatuta, eli[60] iskiludunen gatibu, indarkeria eta lapurkeria nagusi, Erromak errepublikaren izena besterik ez zuen. Herri-agintaritzatik[61] lokabe zeinbait elizgizon buru zutela, gaizkin-eliek[62], ezpatak eskuetan, zein-nahi lapurreta, harrapakeria[63] egiten zuten, eta, gainera, prebarikazioaz salerosketa saskarrak[64] eratzen zituzten. Nola ekidin *Caput Mundi* berriz ere, justizia osoz, Erromako Inperio Sakratuko koroa nahi zuenaren helmuga izan zedin, lehenago zesarrena izan zen menderri[65] haren duintasuna berrezarteko gogoarekin baitzen?

60 Eli: banda, manada (Iskilu: arma – Eli iskiludun: banda armada)
61 Herri-agintaritza: (H. “brazo secular”)
62 Gaizkin-eli: banda de facinerosos
63 Harrapakeria: rapiña
64 Saskar: deshonesto, grosero (lizun, zantar)
65 Menderri: dominio

Alta bada,[66] 1314an bost printze alemaniarrek Frankfurt-en Bavariako Ludoviko inperioko jaurlari goren hautetsi zuten. Egun berean, Main ibaiaren beste aldean, Rin-go konde jauregitarrak[67] eta Koloniako artzapezpikuak kargu beretarakoxe Austriako Frederik hautatu zuten. Bi enperadore, beraz, jaurgo bakarrerako eta Aitasantu bakarra bitarako: egoera honek, doike[68], nahaskeria larriak sorraraziko zituen…

Bi urte geroago, Avignon-en Aitasantu berria hautatua izan zen, Jacques Cahors-ko, hirurogeita hamabi urteko zela, Joan XXII.a izenekoa, eta Jainkoak ailiotsa[69] beste ezein aitasantuk inoiz ere hain gizaki onek arbuiatua den izen hori har ez dezan. Frantziarra eta Frantziako erregearen deboziotsua (herrialde ustel horretako gizonak beti bere herrikideen zuduen[70] alde eginak ohi dira eta ez dira gauza euren aberri espirituzkoa mundu osoa dela aitortzeko), Felipe Ederraren aldekoa izan zen, zaldun tenplarioen aurka, beronek (injustuki, nik uste) delitu laidogarrien egiletzat salatu baitzituen, haien ondasunez

66 Alta bada: (H. “pues bien”) (Hasierako lokarri, “or, donc” /...
67 Jauregitar: palatino
68 Doike: enura bage, zalantzarik bage
69 Jainkoak ailiotsa: ojála que le plugiere a Dios (Dios lo quiera)
70 Zudu: interés . "Il se prend par métaphore pour l'intérêt, hain handiz doakun gero, puisqu'il nous y va d'un si grand intérêt O-SP.

jabetzearren, harako elizgizon arnegatzaile haren gaizkidetasunaz[71]. Bien bitartean, nahaspila horretan Napoliko Roberto sartu zen, italiar penintsula gaineko bere nagusigoari eustearren Aitasantuari alemaniar bi enperadore haietarik bat ere haintzatets[72] ez zezan eskatu zitzaiona, hala, beraz, Eliza-estatuko kapitain orokor izenburua beretzat atxikirik.

1322an Ludoviko Bavariarrak Frederik bere aurkaria mendean hartu zuen. Bi enperadorek mehatxu egiten ziotela uste bazuen, Joanek are bat bakoitza arriskugarriago zukeela pentsatu zuen, eta eskumikatu egin zuen; Ludovikok, bere aldetik, Aitasantua heretikotzat jo zuen. Esan ere behar da urte haretan berean, Perusan, fraide frantziskotarren eta haien buruzagi nagusi Cesenako Michelen kapitulua batzartu zela, «espiritualek» (geroago berriz ere aipatuko ditudanak) galdaturik[73], eta fedearen egiatzat Kristoren txirotasuna aldarrikatu zuen, zeren, beronek zerbait eduki[74] bazuen, apostoluekin batera, *usus facti*[75] legez, eta ez bestez, eduki baitzuen. Erabaki zuzena, baldernaren onbidea eta

71 Gaizkidetasun:complicidad
72 (H)aintzatetsi: reconocer como… (N)
73 Galdatu: eskatu (Galdetu, galde egin: itaundu) (N)
74 Eduki: tener, contener, poseer (objeto) (Ukan: tener (inmaterial)
75 Usus facti: egitez erabilia.

araztasuna[76] gordetzearen alderakoa, baina Aitasantuari nahibage izan zitzaiona, zeren, ausaz, bere xedea betetzea galbidean ezarriko baitzuen: hots, Elizako buru zen aldetik, inperioari apezpikuen hautatzeko eskubidea ukatu nahi zion eta Aitasantuak, berak alegia, ordea, enperadorea koroatzeko eskubideari atxikiko zion. Arrazoi hauek edo beste batzuk zirela eta, Joanek 1323an frantziskotarren proposizioak kondenatu zituen, *Cum inter nonullos* izeneko dekretu-idazki batez.

Orduan pentsatuko ahal zuen Ludovikok, nik uste, frantziskotarrak, ordurako Aitasantuaren etsai, bere aldeko ahaltsuak izan zitezkeela. Kristoren txirotasuna baietsirik, nolabait, Paduako Marsilio eta Giandunoko Joan inperioko teologoen aburuak berresten zituzten. Azkenik, honako gertaera hauek baino lehenagoko ez il asko, Ludoviko, mendean harturiko Frederikekin itun eginda, Italiara sartu zen, Milanen koroa eman zioten, Visconti-tarrei aurka egin zien –hauek abegi on egin bazioten ere–, Pisa inguratu zuen, setiatu alegia, inperioko bikario Castruccio izendatu zuen, Luka eta Pistoiako dukea bera (nire eritziz oker egina, izan ere, Uguccione della Faggiola kendurik, inoiz nik ezagututako gizonik ankerrena zen) eta Erromarantz

76 Aratz: puro

abiatzeko prestatzen, apailatzen ari zen, Sciarra Colonna izen zuen bertako jaunak deiturik.

Egoera honelakoa gure aitak, Ludovikoren ondoan borrokan, eta haren baroien artean ez garrantzi ttipiko karguan, Melk-eko monasterio beneditarretik ni idokitea egokietsi zuen –ni orduan nobizio– berarekin joaiteko eta Italiako miresgaiak[77] ikus ahal nitzan, eta Erromako enperadorearen koroa emaitean bertan izan nendintzat. Hala ere, Pisako setioak gudu-jardueretan eragoarazi[78] zion. Nik egoera hura «egitez erabilia[79]» beste zerbait egiteko onuratu nuen, hots, bai aisiladian legez[80] bai ikasi guran, Toskanako hiriak ibili[81] nituen, eta biziera lasaiari lotu[82] nintzaion, aise eta nolanahi biziz, nire gurasoek bizitza geldikoiari[83] eman zen nerabe bati ez zegokiona zela eritzi baitzuten. Halatan, bada, Marsiliok iradokita, onerizko ukan[84] baitzidan, anaia Baskerville-ko Gilenekin lagun joan nendin erabaki zuten, frantziskotar jakintsu hau orduan eginkizun bat hastear baitzen, eta haretan hainbat hiri

77 Miresgai: maravilla
78 Eragoarazi: retener en la tarea.
79 Egitez erabili: (H. “aproveché”) (Onuratu: baliatu, profitatu...)
80 Legez: bezala, laso, gisa, “lez”
81 Ibili: recorrer
82 Lotu: (H. “entregándome”) (Atar / aferrar / vincularse /...)
83 Geldikoi: contemplativo (N)
84 Onerizko ukan: (H. “tomar cariño”)

ospetsu eta antzin-antzinako abadia ikuskatuko zituelarik. Halaxe, beraz, haren idazmutil[85] eta dizipulu bihurtu nintzen; eta ez zitzaidan damutuko, zeren, harekin idatzirik geroratzea[86] merezi zuten gertakizun batzuetako lekuko izan bainintzen, orain eta hemen idazten ari naizenak, geroago etorriko direnek jakin ditzatengatik.

Orduan ez nekien anaia Gilenek zer bilatzen zuen eta, egia esateko, oraintxe ere ez dakit eta berak ere ez zekiela susmatzen dut, zeren, egia baino ez baitzuen nahi, eta –harengan beti nabaritu nuen– susmoa zuela, ezen, egia ez zela orainaldian aurkitzen uste zuena. Badaiteke orduko urte haietan mende haretako ardurek haren ikaskuntza kutunetatik lekoratu[87] izaitea. Joanaldi osoan haren gain utzi eginkizun haretaz deus ez nuen jakin; Gilenek, behintzat, ez zidan harean[88] hitzik egin. Ibilian-ibilian monasterio batzuetan gelditzen joan ginen eta beraietako abadeekin ukan zituen elkarrizketa batzuen zeinbait zati entzunik haren egiteko atazaren nondik-norakoez jabetu izan nintzen, nolabait. Hala ere, geroago esango dudanez, zertaz ari zen zehazkiro gure jarduerako helmugara iristean ulertu nuen, ez

85 Idazmutil: amanuense (N) (Eskuordeko, esku-idazle...)
86 Geroratu: (H. “registrar”) (Diferir—llevarlo a la posteridad (N)
87 Lekoratu: distraer / apartar… (Lekora: kanpora, atera, landara)
88 Harean: ezer, deus (Ezezkoetan) (Harean-- ha+rean: de ello, de él / ella)

lehenago. Iparralderantz jo genuen, baina ez ginen zuzenean joan, hainbat abadiatan geldituz baizik. Hala, bada, medebalderantz bihurtu ginen, gure muga ekialdean bazegoen ere, mendien hegiari jarraikiz, Pisa eta Donejakue bidea lotzen duen mendilerroa baita, zertan[89] batera heldu ginen arte. Eskualde haretan geroago gertatuko ziren lazgarrikeriak direla eta lekua zehazkiago non den ez agertzea erabaki dut, baina hango jaunak inperioari atxikiak ziren eta hango abade guztiak, gure baldernakoak, aitasantu heretiko eta ustelaren aurka bat zetozen. Joanaldia, gora-behera[90] bagea ez, bi astebetekoa izan zen eta joanarte[91] haretan nire maisu berria ezagutzeko aukera ukan nuen (dena dela, gero eta gero nahikoa ezagutu ez nuela etsiago eta sinetsiago nago)

Hurrengo orrialdeotan ez dut pertsonen deskripzio zehatzik egiteko asmorik –begitarte baten eitea[92] edo aieru bat, beti ere isileko keinu adiarazgarririk ez bada– zeren, Boeciok dioenez, ez dago ezer iheskorragorik ageriko itxura

89 Zertan: eskualde. Zona; región. "Divídese la provincia de Guipuzcoa, en tres climas y partes principales, que los naturales suyos en commun hablar dizen certanes". "Dividitur Ipuscoa in tres preipuos pagos seu Regiones quas Certanes incolae vulgaris sermone appellant".

90 Gora-behera: vicisitud(es)

91 Joanarte: intervalo de ida (eginarte, ekinarte, janarte…?) (en el transcurso de...)

92 Eite: expresión, aspecto...

baino, zimeltzen eta aldatzen baita, udazkena heldurik landako loreak bezala. Beraz, ba ote du zentzurik Abbone abadeak begirakune zorrotza eta belarrondo zurbila zituela esateak, bai bera bai bere ingurukoak hauts bihurturik dagozenean, eta hautsetan haien gorpuek margo arrea eta hil-karakoa dutenean?, (ailiotsa Jainkoari, haien arimak, ez besterik, inoiz iraungiko ez den argiaz distiragarri izaitea). Hala ere, Gilenez behin hitz eginen dut, zeren, haren hazpegi bereziek ere erasan[93] baitzidaten, eta gazteak gizon senton[94] eta jakintsuk erakarri ohi baititu, hitz-jarioagatik eta adimenaren zoliagatik ez ezik, soinaren itxura agerikoagatik ere bai, aitaren itxurarekin gerta ohi bezala, onerizte sakonez begiratzen baitiote, keinuak-eta behatuz, nahibagezko aieruei edo pariztei[95] soz, irriak barrandatuz[96], eta luxuria itzal zipitzek[97] ere ez ohi du gorputz maitasun mota hori (agian zinez aratza[98] den bakarra) kutsatzen.

Lehengo gizonak handi-ederrak ziren (oraingoak ume eta epotxak), baina hau proba askoren artean bat, gure mundu irol[99] hau zein egoera negargarrian dagoen erakusten

93 Erasan: impresionar /...
94 Senton: anciano.
95 Parizta: mueca
96 Barrandatu: espiar.
97 Zipitz: cantidad pequeña, lo más mínimo -ezezko esaldietan-
98 Aratz: puro, casto, limpio..
99 Irol: caduco. . . ("Caduc, passager, périssable" / retrete, estercolero.)

duena. Gazteek ez dute ezer ikasi nahi, zientzia maldan behera doa, mundua hankaz gora, itsuak itsu-mutil, eta amildegietara ohi daramatzate, txoriak hegan hasi baino lehen euren burua iraizten ibiltzen dira, astoak lira joiten du, idiak dantzan, Mariak ez du, honez gero, bizitza geldikoia maite, ez Martak bizitza eginkorra, Lea antzua da, Errakel lizunkeriaz blai dago, Katon emagalduen lekuetan barrena maiz, Lukrezio emazteki bihurtu da. Oro girbinduta[100] dago. Demaizkiogun Jainkoari eskerrak, garai haietan nire maisuak ikasteko guraria sorrarazten jakin izan baitzuen eta biziera zuzeneko zentzua, orobat, bide-zidorra okerka-mokerka joan arren galtzen ez den zentzua.

Hala, bada, anaia Gilenen itxurak edonoren arreta erakar zezakeen, ikusle ez jakin-mintsua izanik ere. Luzeran gizonik gehienak baino luzeagoa zen eta, iharra[101] oso zelako, are luzeago zirudien. Begirada zorrotza zuen, sarkorra; sudur mehe eta makotuak[102] begitarteari halako erne-anzkera[103] emaiten zion, lozorro[104] aldietan izan ezik,

100 Girbindu: descarriar /poner del revés… (Binper-binpertu)
101 Ihar: enjuto.
102 Makotu: encorvar… “aguileña” -nariz-.
103 Anzkera: aspecto.
104 Lozorro: letargo.

geroago aipatuko ditudanez. Kokotsak ere borondate errimea[105] agerrarazten[106] zuen, aurpegi luze orinez[107] josiak, ostera –Hibernian eta Northumbrian jaiotako lagunen artean ohiz ikusia– sarritan zalantzak eta ezbaiak susmarazi arren. Geroago, zalantza ez zela ohartu nintzen, jakin-min hutsa baizik, baina hasieran ez nekien deusik onbide[108] horretaz, gainera, halako izaera hari, izaitez, arimaren grina irrikatsua[109] erizten nion, eta, beraz, arima arrazoidunarentzat jaki ezegokia zela uste nuen, horrentzat eliku[110] bakarra egia izan behar zen, berehala (nik uste) ezagunetsi izaiten dena.

Harriturik nire mutilko-begiek ikusi zuten lehenengoa belarrietatik ateratzen zitzaizkion ile xerlo[111] orixta batzuk izan ziren, eta bekain sarriak[112] eta ileoriak. Berrogeita hamar bat udaberri izango zuen eta orduan beraz oso zaharra zen, baina bere gorputz nekaezina neuk ere ez nuen arintasunez higitzen zuen. Jardunari ekin beharrean

105 Errime: firme, fuerte
106 Agerrarazi: delatar, hacer aparecer.
107 Orin: peca (Orezta: lunar)
108 Onbide: virtud
109 Irrikatsu: concupiscente
110 Eliku: sustento, alimento
111 Xerlo: mechón
112 Sarri: tupido/ enseguida/ a menudo

zenean, haren kalipua[113] ahiezina[114] zela zirudien. Baina noizean behin, haren bizi-gogoa karramarroaren antzekotsua balitz bezala, atzera egin eta inertzia-egoeran gelditzen zen, eta batzuetan haren logelan, lastaira gainean etzanik ikusten nuen silababakarrak nekez ahoskatzen ari zela, aurpegiko gihar bat ere endurtu[115] bage. Halakoetan, haren begirada hutsa zen, galdua, joana bezala, eta, haren ohituretan gartxu[116] eta urriti zela jakin ez banu, eta honegatik zeinbait susmo baztertu beharra nuenez, landarerean baten eraginpean, amets-irudipenen sortzaile horietariko baten, egoiten zela pentsatuko nuen. Hala ere, esan beharra ere dut, ezen, joanaldi haretan behin baino gehiagotan larre baten ertzean, basoaren mugan, gelditu izan zela, belarrerean bat biltze aldera (beti bera, nik uste) eta mamurtzen[117] hasten zen, begiak galdurik. Belar poxi bat gordetzen zuen, eta tentsio handieneko uneetan jaten zuen (ez baitziren uneok guti abadian egon ginen bitartean). Behin, zer zen galdetu nion, eta, irribarrez, kristau onak batzuetan fedebagekoengandik ere zerbait ikas dezakeela erantzun

113 Kalipu: (L-ain, BN-arb; Dv, H) Energía, ánimo; fuerza. "Courage". "Force, énergie physique ou morale"
114 Ahitu: agotar – acabar – ... (Ahiezin: inagotable)
115 Endurtu: mermar, contraer...
116 Gartxu: (G-azp-to, AN-larr-ulz), gartzu (V-ger; Añ), Sobrio, parco Comedor “ruin”: (V) jan gartzua, yan txarrekoa. (Urriti...)
117 Mamurtu: masticar (Murtxikatu),

zidan. Dastatzen laga ziezadan eskatu nintzaionean, hitzaldietan ere gerta bezala,, xaloen artean orobat *paidikoi*, *ephebikoi*, *gynaikeioi*[118] eta besteak dagozela erantzun, eta gainera, frantziskotar zaharrarentzat on diratekeen belarrak ez direla on beneditar gaztearentzat.

Elkarrekin egon ginen guztian, ezin biziera oso ohikoa egin: abadian berean ere, lo egin bageko gauak, eta egunean nekaturik hagitz, eta, ohiz, ez ginen elizkizun sakratuetara joaiten. Hala ere, joanaldian ez ohi zen esna egoiten konpletak[119] egin eta gero, eta haren ohikerak[120] xuhurrak ziren. Batzuetan, abadian jazo zena legez, egun osoa baratzean hara-horra emaiten zuen, landareen azterketan krisopazioak edo esmeraldak bailiran, eta altxorreko kriptan zehar ere ikusi izan nuen eta esmeralda-krisopazioez jositako kofre bati begira, estramonio-mulua[121] balitz bezalakoa. Beste batzuetan, egun osoa liburutegiko areto handian, eskuizkribuen ikusketan emaiten zuen, itxuraz, atsegin hutsagatik (gure inguruan lazki erahilak, erhoak[122] izandako fraideen hilotzak ugaritzen ziren

118 Hitz grekoak dira: infantiles, juveniles, mujeriles
119 Konpleta(k): eguneko azken otoitzaldia (Azken otoitza)
120 Ohikera: hábito, modo de actuar de costumbre
121 Mulu: mata (de plantas) (Landare multzo edo mordoa)
122 Erho: erahil, ero (Matar. Azkue trae tbn. las formas erain y erhain, deducidas erróneamente a partir de er(h)aiten de Axular y RS. (Otsailgo euria[k] eraiten dituz onzoeriak. " Mata a los logrs" . RS

bitartean). Egun batean loretegian barrena ikusi nuen zutibiltzean[123] besterik bage, bere eginak Jaungoikoaren aurrean aurkeztu behar ez balitu legez. Gure baldernan aisia[124] oso bestelako eraz emaiten irakatsi zidaten, eta esan nion. Erantzuna hauxe: kosmosen edertasuna ez dela soilki batzutasunean[125] batasun izaitetik eratorten, batasunean batzutasun izaitetik ere baizik. Erantzuna enpirismo zakarrean iradokia zela uste nuen, baina geroago jakin nuenez, haren lurraldeko gizonek gauzak zehazten dituztenean ez diote arrazoimenduaren indar argitzaileari eginkizun nabaririk uzten.

Abadian egon ginen aldian, haren eskuak beti liburuetako hautsez estaliak ikusi nituen, miniatura eginberrien urreaz ere bai, Severinoren eritokian ukitzen zituen sustantzia orixkez orobat. Eskuez ez bestez pentsatzen zekiela zirudien, eta hau orduan mekanikarien zera iruditzen zitzaidan (zeren, irakatsi zidatenez, mekanikaria *moechus*[126] da eta adulterio jaukiten du, bizitza intelektualaren kaltez, zeinarekin garbi-garbiro ezkonduta

---

La forma del sustantivo verbal es eraite- (cf. tbn. erak y erezan < *era (z)ezan)

123 Zutibili: pasear

124 Aisia(ldia): ocio, comodidad, tiempo libre (Asti...)

125 Batzutasun: diversidad (N) (Batasunaren antonimoa)

126 Moechus: adúltero. Hitza jatorriz grekoa da, eta latinak hartu zuen.

egon behar bailitzateke). Baina, are haren eskuek gauza apur-apurkorrak ukitzen zituztenean ere, zeinbait kodize, orduan artean miniaturak eginberri zirelarik, edo aldiaren joanak hortzikatu[127] orrialde bigun-hauskor ogi-otila[128] bezalakotsuak, esaterako, bazuen, ene irudiko, ukimen-leuntasun bat ohiz gainekoa, makinak erabiltzean ere baliatzen zuena. Bada, gizon berezi honek bere bide-zorroan nik orduan inoiz ikusiak ez nituen tresna batzuk zeramatzala esan behar dut, berak bere makina miresgarriak zirela esaten baitzuen. Makinok, zioen, antzeak[129] ekoitzi ditu, izadiari imitatuz, beronen molde hutsak ez ezik egiera bera ere birsortzeko gai baitira. Honela azaldu zidan erloju, astrolabio eta imanaren mirakulua. Hala ere, hasieran sorginkeriak ote zirelakoan nengoen, eta ni lokartuarena eginik geratzen nintzen, harek gau oskarbi, zohardietan[130] izarrei begiratzen jarduten zuen bitartean (hiruangeluko tresna bakan[131] bat erabiliz). Italian eta nire lurraldean ezagutu nituen frantziskotarrak gizon xaloak[132] ziren, maiz ikasibageak, eta Gilenen jakinduriak harritu ninduen. Berak, ordea, irribarrez azaldu zidanez, bere uharteetako

127 Hortzikatu : corroer, roer, morde (Karraskatu)
128 Otil: pán ácimo, mal cocido (Ot:ogi + hil) (Ailis...)
129 Antze: habilidad, destreza, talento. "Industrie, adresse". Arte
130 Zohardi: cielo sereno (Oskarbi)
131 Bakan: escaso, raro, no frecuente, excepcional.
132 Xalo: sencillo, simple

frantziskotarrak beste molde[133] batekoak ziren: «Roger Bacon-ek, maisutzat gur egiten diodanak, irakatsi digunez egunerean baten jainko-xedea makinen zientziatik iragoko duk, sortzezko magia santua baita. Eta egun batez, izadiaren indarraren indarrez itsas-ibilketarako tresnak ekoitzi ahal izango dituk itsasontziak *unico homine regente*-ren gidaritzapean ibil daitezen, eta haize-oihalez edo arraunez bultzaturik ibiltzen diren baino arinago, azkarrago, ibiliko dituk; eta gurdiak ere izango dituk '*ut sine animali moveantur cum impetu inaestimabili, et instrumenta volandi et homo sedens in medio instrumenti revolvens aliquod ingenium per quod alae artificialiter compositae aerem verberent, ad modum avis volantis*'. [134]Eta lanabes ttiki-ttikiak ere izanen dituk pisu eskergeak jasotzeko gauzak, eta itsas hondaleraino[135] jaisteko ibilgailuak orobat.»

Halako makinak non ote ziren galdetu nionean, antzinatean eginak izan zirela erantzun zidan, eta halako batzu-batzuk gure garaietan ere eginak izan zitezkeen: « Hegan egiteko tresna izan ezik, nik ez baitut ikusi eta ez inor

133 Molde: (H. "cuño")
134«Abererik bage higitzen direnak, kemen handi-handiz, eta hegan egiteko aparailuak ere bai eta bertan eserita gizon bat, nola-halako tramankulu batez hegoek, eskuz-eta eginak hauek, airea astinduko dutela, hegaztiaren antzera»
135 Hondale: fondo del mar, sima profunda...

ikusi duenik ere, nahiz eta asmatu duen jakintsu bat ezagutu. Zubiak ere eraiki ahal dituk ibaiaren alde batetik bestera luze erdian inolako zutaberik bagekoak, eta beste sineskaitzeko gauza batzuk ere bai. Ez duk zertan kezkatu oraingoz izan ez direlako, izango ez direla ez baita. Eta Jaungoikoak nahi dituela dioat nik, eta Haren gogoan behintzat izan, badirela, Occam nire adiskideak ideiak hala izan daitezkeela ukatzen duen arren, eta ez jainko-izaeraz erabaki dezakegulako, alderantziz baizik, hain zuzen, izaera horri mugarik ezar ezin diezaiokegulako.» Hau ez zen izan haren ezpainetatik entzun nuen kontraesan bakarra: hala ere, oraindik egun, zahar eta orduan baino jakinsuago, ezin uler dezaket nola zuen hainbesteko usteona[136] Occam bere adiskidearengan, eta aldi berean Baconen hitzengatik zin egin, askotan bezala. Baina egia ere bada, ezen, orduko haiek garai ilunak zirela eta gizon jakintsuak elkarren kontraesankor ziren gauzak pentsatu behar zituen.

Alta bada[137], baliteke gauza inkoherenteak esan izaitea nik anaia Gilenez, orduan eragin zidan zirraraz izandako inkongruentzien agerrarazteko. Agian zuk, irakurle maite horrek, nor zen eta zer egin zuen aurki ahal

136 Usteon: konfiantza
137 Alta bada: pues bien...

zenezake, abadian egon ginen egunetan izan zuen jokaeraz hausnarturik. Han gertatu zenaz azalpen zehatzik eginen dizudanik ere ez dizut hitz eman, gertatutakoez biltze huts bat baizik (hori bai: gertaera harrigarriekin[138] izugarriak).

Hala bada, egunetik egunera nire maisua hobeto ezagutuz nindoan, ibilaldi luzeko elkarrizketa luze-luze eginik, berauetaz egoki den aldian hitz eginen baitut, eta hala abadia eraikita zegoen mendiaren magalera iritsi ginen. Ordu da, beraz, gu orduan bezala, nire jaulkipen[139] hau haretara hurbil dadin, eta ez ailedi[140] nire eskua dardarka has, harik hara zer gertatu zen jaulkitzen hasterakoan.

LEHENENGO EGUNA

138 -(r)ekin…: eta (+Harrigarriekin izugarriak: asombrosos y terribles)
139 Jaulkipen: narración… (N)
140 Ailedi…: ojalá que...

LEHENENGO EGUNA

PRIMA

Abadia dagoen ondora iristean, Gilenek bere zorroztasun handia erakutsi duenekoa.

Azaro azkeneko goiz ederra zen. Gauean elur pixka bat egin zuen, baina lurra estaltzen zuen geruza hozpila ez zen bizpahiru hatz baino lodiagoa. Ilunetan, laudak[141] egin eta gero, haraneko baserri batean meza entzuna genuen. Ondoan, eguzkia agerturik, mendietarantz hasi ginen, bidean goiti.

Mendian zeharka-meharka zihoan inda[142] malkartsuan gora gindoazela, abadia urkusi[143] nuen. Haren inguruko harresiak ez ninduen harritu, kristau-munduan ikusitako beste batzuen antzekoa baitzen; bai, ordea, harritu Eraikinaren handiak, geroago zer zen jakingo nuena. Zortziaurkiko[144] eraikina zen, urrundik lauaurkiko zirudiena (itxura egin-egina Jaungoikoaren Hiriaren tinkotasuna eta

141 Laudak: laudes (Goizeko zazpiak aldean egin ohi zituzten otoitzak)
142 Inda: vereda. D'otra part al camyno Yturgoyindea. (1200) Pero d'indaco. Senda, camino. "Sentier, chemin étroit à travers les champs"
143 Urkusi: divisar, ver de lejos (Larr.)
144 Zortziaurkiko: octogonal (Aurki:anverso-parte delantera / pronto...)

hobezintasuna[145] erakusteko), eta haren mendebaldeko aldeak abadia zegoen ordeka gainetik nabaritzen ziren, iparraldekoak, berriz, mendiaren magaletik sortuak bezalakoak ziren, bertan erroturik eta amildegi antzo goraturik. Alegia[146], leku batzuetan, behetik begira, harkaitza ortziraino luzatzen zela zirudien, margoa ez ekaia[147] aldatu bage, eta, han goian, gotorleku[148] eta dorretzar bihurtzen zela (erraldoien lana, lurrarekin bezala ortziarekin jarduteko ohituak). Hiru leiho-lerro, halako moldez, ezen, lurrean lauki zena ortzian espiritualki hiruki zela. Hurrerago eta, angelu bakoitzean, laukiko itxurak dorretzar zazpiko bat agerarazten zuela ikusten zen, eta angelu haietako bost kanpoaldera nabaritzen ziren; beraz, zortziaurki nagusiko lau aldek lau zazpiko tiki osatzen zuten, kanpoaldera bostaurkiko ziruditenak. Agerikoa eta miresgarria hainbat zenbaki sakratuzko harmonia, bakoitza zentzu espiritual sotil-sotilez[149] gaineztua[150]. Zortzia lauaurkiko guztietan bikaintasunaren zenbakia da; laua, ebangelioen zenbakia; bosta, munduaren zatien zenbakia; zazpia, Espiritu Santuaren dohainen zenbakia. Handitasunagatik eta

145 Hobezintasun: perfección (Hobe+ezin) (Egin-egina)
146 Alegia: quiero decir, es decir, o sea...
147 Ekai: materia
148 Gotorleku: fortaleza (H. “burche”)
149 Sotil: sutíl
150 Gaineztu: recubrir

moldeagatik Eraikina' Castel Urbino edo Castel dal Monteren itxurakoa zen, geroago penintsula italiarreko hegoaldean ikusiko nituena, baina haren leku gaitzagatik haiek baino eskergeagoa zen, eta haretara emaro-emaro[151] hurbildu ahala edozein etorleri[152] beldurra sartzeko modukoa. Zorionez, neguko goiz oskarbi zen eta ez nuen ikusi eraikintzar hura ekaitz egunetan ohi duen tankerarekin.

Hala ere, ez dut esango pozezko sentimenduak erakarri zizkidala. Kikildurik[153] sentitu nintzen, kexka batez gatibu bezala. Ez ziren, eta Jainkoak ongi daki, nire gogoaren mamuak, eta badaki zuzenki ulertu nituela erraldoiek landu zuten harrian gainidatzita[154] utzi zituzten zantzuak[155], lekaideen nahikari ameskoiak[156] eraikin ha jainko-hitza jagon[157] zezan hautatu zuten baino lehen.

Gure mandoak mendiaren azken aldapetan goiti nekez zihoazela, bide nagusia hirubide[158] bihurtzen zen lekuan, alboetatik bi zidor hastean, nire maisua une batez

151 Emaro: emeki, despaciosamente, poco a poco
152 Etorle: jile (S ap. Lrq ; VocBN) "Qui vient, arrivant" Dv. Bi yoaile, bi yile eta beti oiuka.
153 Kikildu: amedrentar, acojonar.
154 Gainidatzi: inscribir, escribir encima de algo.
155 Zantzu: (H. "presagio")
156 Ameskoi: iluso
157 Jagon: zaindu, gorde, custodiar
158 Hirubide: trivio

gelditu zen eta alde batera-bestera buruz behatu eta, bideei begira, eta bidearen gainetik pinuak ikus, osto iraunkorreko haiek, bide zati labur batean, sabai bezala egiten baitzuten elurrak zuritua.

— Abadia aberatsa –esan zuen–. Abade nagusiari itxura ona erakustea atsegin zaiok, jendearen aurrean.

Gauza harrigarriak esaten zituela entzunez ohitua nintzelako, ez nion ezer galdetu. Harik gutira, zarata batzuk entzun genituelako ere ez, eta, bihurgune batean, lekaide[159] eta sehi[160] talde aztoratu bat agertu zelako. Gu ikustean, haietako bat guregana eta adeitasun handiz:

— Ongi etorri, jauna. Ez harritu nor zaren asmatzen baitut, zure etorreraz abisu igorri digute eta. Ni Varagine-ko Remigio nauzu, monasterioko sehiburu.[161] Uste dudanez, Bakersville-ko Gilen anaia bazara, Abade nagusiari zure berri eman behar zaio. Hi –taldeko bati aginduz–, igo hadi gure ikuskaria barrutira sartzera doala esatera!

— Eskertzen dizut, sehiburu jaun –nire maisuak adeitsuro–, eta zure adeitasun hori are eskertzenago dut, agur egiteko

159 Lekaide: fraide
160 Sehi: servidores, criado, paje (Sein: ume -Bizk.) Criado, sirviente; empleado.
161 Sehiburu: mayordomo, jefe de servidores.(Hemen, “cillerero”)

zuen jazarpena[162] eten baituzue. Ez lotsatu, hala ere, zeren zaldia hemendik irago baita, eta eskumako zidorra hartu du. Ez da urrun joanen, simaurtegira iritsirik gelditu beharko. Maldan behera joko ez du, buru onekoa baldin da…

— Noiz ikusi duzu? –sehiburuak galde.

— Ikusi? Ez dugu ikusi, ez da, Adso?–Gilenek erantzun, nire aldera burua bihurtuta, irri antxean–. Baina Brunello bilatzen baduzue, kabalea nik esandako lekuan ez bestetan egon daiteke.

Sehiburua zalantzan. Gileni begiratu zion, gero zidorrari eta, azkenik, galde egin:

— Brunello? Nola dakizu...?

— Tira, bada! –Gilenek–. Argi dago Brunelloren bila zabiltzatela, Abadearen zaldirik kutunena, zuen ukuiluko zamaririk[163] onena: ile beltz, bost oin goi, isats eder, apatx tiki biribilak baina asapalan[164] beti hala-hala ohi dabilena, burua ttiki, belarriak bigun, begiak handi. Eskuinetatik joan da, esan bezala, eta, dena dela, albaitzabiltzate[165] arin.

162 Jazarpen: persecución
163 Zamari: acémila, corcel
164 Asapala: galope
165 Albaitzabiltzate: ya podéis andar… (Albait-: prescriptivo, consejo)

Sehiburuak, zalantza uneaz gero, bereei aieru[166] bat egin zien eta eskumako bide-zidorretik behera jo zuen eta gure mandoak berriro gorantz. Jakin-minak minduta nengoen haretan, Gileni galdeka egitekotan, berak igurikitzeko[167] keinu egin zidan. Hala zen:[168] minutu batzuen ondorean, poz-oihuak entzun genituen eta, bidearen bihurgunean lekaideekin sehiak berragertu ziren, zaldia ahoko-hedetik zekartzatela. Gure ondotik irago ziren, guri beti begira txundituxerik bezala, eta haia-haia[169] abadiarantz zuzendu ziren. Susmo dut, ezen, Gilenek bere zamariaren ibilera pitin bat motelarazi zuela, haiek gertatutakoa jaulki zezatengatik. Nik ordurako ikasia nuen, bai, nire maisua, orotan onbide oneko eta orotarako gai zela, eta bere zorroztasuna erakutsi guran harro ere bazela, hauxe txarbide, eta haren diplomaziarako dohain sotilak ezaguturik, ikasi nuen, bai, gindoazen helmugara jakintsu-ospe sendoz jantzirik heldu nahi zuela. — Eta orain esaidazu –galdetu nion bestela ezinean–. Nola jakin ahal ukan duzu?

— Ene Adso maite hori –erantzun zidan–, ibialdi osoan lorratzak irakasten jardun diat, beraien bidez munduak

166 Aieru: seña, guiño. "Signifie semblant ou signe qu'on fait de l'œil".
167 Iguriki: itxaron
168 Hala zen: en efecto
169 Haia-haia: arin-arin, bixkor-bixkor...

liburu handi batek egin legez hitz egiten baitigu. Alain de l'Ille-k zioena:

omnis mundi creatura

quasi liber et pictura

nobis est in speculum[170]

Jainkoak, bere sorkarien bitartez, betiereko bizitzaz hitz egiteko dituen hainbat eta hainbat ikur-multzo amaiezinaz pentsatzen zuela. Hala ere, unibertsoa are ele-jariotsuago duk Alainek uste baino, eta ez dik hitz egiten azkenengo uneko gauzez soilik (hala eginez gero, era ilunez egiten baitu beti), hurbileko gaiez ere egiten dik hitz eta honetan argi-argitsu duk. Inoren lotsa, abantzu, zemaidak jakin behar hukeena berriz ere esan beharrak. Bideburuan,[171] elur egin berrian, zaldi baten oinatzak nabarmen irarrita egon dituk, gure ezkerreko biderantz zuzendurik. Zantzu horiek, tarte handi eta beti-batekoak haien artean, apatxak tiki-biribilak zirela esan zigutek, eta asapalan hala-hala zihoala, ez nola-hala zaldi basa bezala, izuz edo zoro. Pinuek halako estalpe naturala osatzen duten lekuan, adar batzuk hautsi berririk zagozak, lurretik bost oin gora, doi. Lahar batek oraindik,

170 «munduaren sorkari oro, / liburu edo margo-lan esaterako/ guretzat ispilu da, miraila».

171 Bideburu: bide-gurutze, encrucijada, inicio de caminos

arantzen artean, ile izpi beltz luze batzuk zaduzkak, kabaleak bira egitean isats ederra astinduko zian, nonbait, harrokiro… Azkenik, ez didak esango ez dakiala zidor horrek simaurtegira daramala, ikusi ere, aurreko bihurgunetik sats[172] pila maldan behera ikusi diagu, amildegiratuz, ekialdeko dorretzarraren azpitik elurra satsutuz, eta bide-gurutzea nola zidorrak harantz jo behar, ezinbestera.

— Bai –esan nuen–, baina burua tiki, belarriak bigun, begiak handi...

— Ez zakiat hala den, lekaideak, ostera, baietzean zagozak, aurki. Sibiliako Isidorok zioenez, zaldi baten edertasunak «*ut sit exiguum caput et siccum prope pelle ossibus adhaerente, aures breves et argutae, oculi magni, nares patulae, erecta cervix, coma densa et cauda, ungularum soliditate fixa rotunditas*» behar ditik.[173] Nik iragaitean asmatu dudan zaldia ukuiluko onena izan ez bailtz, ez nikek jakingo azaltzen zergatik haren atzetik sehiak ez ezik sehiburua bera ere joan den. Eta zaldia bikaina dela uste duen lekaidek, haren berezko itxurak gora-behera,

172 Sats: simaur, zarama, samats

173 «burua [zaldiarena] tikia eta iharra, larrua hezurrari itsatsia, abantzu, belarriak motz-meheak, begiak handiak, sudurra zapala, lepoa goitua, adatsa eta isatsa sarriak, apatxak biribilak bezain sendoak».

*autorictate*ek deskribatu duten bezalaxe ez bestela ikus dezakek, –eta niri irrikaitz eginez–, jakilea beneditarra bada, batez ere…

— Tira –nik hari–, baina, zergatik Brunello?

— A, Espiritu Santuak eman albailiezaa gatz apur bat gehiago hire burutzar horretan, ene seme! –erauntsi[174] zidan–. Zein izen ezarriko ote hion heuk, Buridan handiak ere, Parisen erretore izaitekotan dagoenak, beste izen hoberik ediren ez bazuen zaldi eder batentzat?

Halakoa nire maisua. Izadiaren liburu handian ez ezik, lekaideek hizkizko liburuetan irakurri eta hauen bitartez pentsatu bezala, haien erara ere irakurten zekiena. Bada, honelako dohainak, ikusiko dugunez, hurrengo egunetan oso baliagarri izango zitzaizkion. Gainera, haren azalpena, azkenean, ageri-agerikoa iruditu zitzaidan, eta aurretik nik igarri ez nuelako apaldurik sentitu nintzen, nahiz eta harekin orain ikasi eta haren ikasbidea neuretu nuelako harrotasunak lehengo apaltasuna ezabatu, nire zorroztasunaz poztutzeraino. Egiaren indarra, hain da handia, ontasuna bezala, berez hedatzen da. Orduan izan

174 Erauntsi: acometer de palabra, decir (Erauntsi /…) (Irautsi)

nuen agerkari[175] eder honengatik, biz[176] goretsia Jesukristo gure jauna.

Baina, ez gal haria, oi jaulkipen, zeren lekaide zahar hau bazterretan sarriegi gelditzen baita. Esazu, hobeki, abadiako atari handira iristen ari garela, eta atalasean Abade nagusia, bi abadegairekin, urrezko pazia[177] bat ur eskuetan. Gure zamarietatik jaitsitakoan, Gilenen eskuak ikuzi zituen, eta ondorean besarkatu zuen ahoan musu emanik, eta bere ongi-etorri santua eman zion, sehiburua nitaz arduratzen zen bitartean.

— Eskerrik asko, Abbone –Gilen mintzo–, niretzat alaibide handia da, zure monasterioa zapaltzea, mendiok zeharkatu dituen ospea duen monasterio hau. Ni erromes antzera nator Gure Jaunaren izenean, eta honegatik ohore egin didazu. Honela ere, lur honetako gure jaunaren izenean ere banator, emanen dizudan gutun honek azalduko dizunez, eta haren izenean ere zure abegi[178] ona eskertzen dizut.

Abadeak gutuna hartu zuen, inperioko zigiluak zeramatzana, eta, zena zela, Gilen etorri aurretik bere baldernako anaia batzuek beste mezu batzuk igorri zituztela

175 Agerkari: revelación.
176 Biz: izan bedi (Hala biz: hala (izan) bedi)
177 Pazia: bacín, caldero, olla
178 Abegi: acogida.

esan zuen (begira, ene baitan esan nik, ez pitin bat harrotu bagerik, zaila da, antza, abade beneditar bat ustebagean atzemaitea), gero sehiburuari gure etzatokietara[179] gida gintzan erregutu zion, sehiek zamarien ardura hartzen zuteino. Abadeak geroago bisita eginen zigula agidu zuen, zerbait jan eta gero, eta abadiako eraikinak zegozen barruti handira sartu ginen, ordoki[180] edo goiri zabal[181] hura mendiaren gaina leuntzen zen aldean baitzegoen, eta bertan eraikinak han-hor-hemen inguruan banatuak.

Abadia nola eratua zegoen, geroago behin baino gehiagotan zehazteko aukera izanen dut, eta xehe-xehe azalduko. Ataritzar haren ondoan (harresia zeharkatzeko leku bakarra) zuhaizpeko etorbide moduko bat zabaltzen zen elizarainokoa. Bide haren ezker aldean baratze sail batzuk zegozen eta, geroago jakingo nuenez, loretegia bien baranoan[182] –garbitokiak eta eritokia eta belartokia[183]– harresiaren bihurgunearen arauz ipiniak. Sakonean, elizaren ezker aldean, Eraikina zegoen, elizatik alderatua eta bien

179 Etzatoki: aposento, alojamiento.
180 Ordoki: ordeka, planicie, llanada.
181 Goiri zabal: llano ancho junto a la cima
182 Barano(an): en torno a, alrededor de (inguru(an)
183 Belartoki: herboristeria – belar-denda –.

artean hilobiz ihaurritako[184] zabaltza bat. Elizaren iparraldeko ataria Eraikinaren hegoaldeko dorretzar aldera zegoen; Eraikinak aitzinean ikuslearen begietara mendebaldeko dorretzarra agertzen zuen, eta hau ezker aldetik hedatzen zen harresia ukitzeraino, eta bere dorreekin amildegirantz luzatzen zen, eta amilburuan[185] iparraldeko dorretzarra jaikitzen zen, zeharretara ez bestetara ikusgai. Elizaren eskuin aldean beste eraikin batzuk haren babespean, kalostra[186] inguruan eta, aurki, Abadearen etxea eta lotokia eta erromesentzako etxea ziren; gu beronetarantz gindoazen loretegi polit batean barrena. Eskuin aldetik, zabaltza handi baten beste aldean, harresiaren hegoalde osoan eta eliza ostetik ekialderantz luzaturik, bizitoki multzo bat zegoen sehientzako[187], ukuiluak, errotak, tresnategiak[188], bihitegiak, upategiak, eta, nire irudiz, lekaidegaien etxea izan zitekeena. Lurgunea hala-halakoa zen, ia-ia leuna, eta honegatik eraikile zaharrek inguru sakratu haren orientazioa behar bezala eratu zuten, zehatz-zehatz, Honorio Augustoduniense edo Gilen Durando txunditzeko eraz. Une haretantxe eguzkia non eta ataldea doi-doi sartalderantz

184 Ihaurri: cubierto - esparcer.
185 Amilburu: parte alta del precipicio.
186 Kalostra: claustro (Kalostrape)
187 Sehientzako(ak) : sehientzat (Sehientzako bizitoki…)
188 Tresnategi: (H. “trapiches”: piedras de molino.)

zuzendua zegoela ikasi nuen, eta, horregatik, kortxila eta aldarea sortalderantz, eta, goizean goizik, eguzkiak arturratzean[189] lekaideei logeletan bezala abereei ukuiluetan iratzarteko[190] argi egiten zien. Ez nuen inoiz ikusi abadia ederragorik eta hain orientazio hobezinik zukeenik, geroenean San Gall, Cluny, Fontenay eta beste batzuk ikusteko abagunea[191] ukan badut ere, agian handiagoak baina ez hain harmoniatsuak. Hala ere, honako hau, beste edozein abadiaren aldean, Eraikinaren handitasun eskergeagatik zen nabarmen. Ni ez nintzen eraikuntzan aditua, baina berehala ohartu bai inguruko beste eraikin guztiak baino zaharragoa zela, hagitzez.[192] Agian, beste zerbaitetarako eraikia zen eta ondorean abadiako beste toki guztiei atxikia, elizaren orientazioari egokitua, edo alderantziz. Izan ere, arkitektura, antzeen artean, unibertsoaren ordenaren erritmoa birsotzen saiatuena da, unibertso antzinatarrek *kosmos* esaten ziotena, hots, apaingarri, zeren abere handi baten antzekoa baita, zeinetan bikaintasuna agertzen den eta bere soin-atal guztiak behar bezala egin-eginak diren. Laudatua izan dadila Gure

189 Arturratu: amanecer (argi+urratu).
190 Iratzarri: despertar (Ira+itzarri) esnarazi.
191 Abagune: abagadune, aukera, ereti
192 Hagitz: oso, txit, biziki… / Hagitzez : mucho más

Sortzailea, Agustinek dioen bezala, gauza guztien zenbakia, pisua eta neurria ezarri baititu.

LEHENENGO EGUNA

TERTZIA

Gilenek Abadearekin elkarrizketa irakasgarria[193] *ukan duenekoa.*

Sehiburua gizon gizena zen, itxuraz arrunta baina alaia, ile urdineko baina artean sendo, txikir bezain arin. Gure geletara gidatu gintuen, erromesen etxean. Hobeki esateko, nire maisuari egokitu ziotenera joan[194] gintuen, eta hitz eman niri hurrengo egunerako niretzat beste gela bat hustuko zutela, zeren, lekaidegai izan arren, ni ere abadiako apopilo bainintzen eta, beraz, ohore guztiez hartu beharrekoa ni. Gau haretan hobi luze-zabal batean lo egin nezakeen, gelako horma baten barruan, eta haretarako galtzu[195] edo lasto berria ipini zuten. Batzuetan hala egin ohi zen, esan zuen, zaldunak lo bitartean bere morroiak beilatua izan nahi zuenean.

193 Irakasgarri: (H. “instructiva”)
194 Joan: eroan, eraman (H. “nos condujo”) (Joan /...)
195 Galtzu: paja de trigo

Gero, lekaideek ardo, gazta, olibak eta mahats ona ekarri zizkiguten, eta alde egin, guk jan-edan ahal genezan. Gogo handiz egin ere guk. Nire maisuak ez zuen beneditarren ekandu andurra,[196] eta ez zuen isilean jatea gogoko. Alta bada,[197] beti gauza onez eta jakingarriz hitz egiten zuenez, lekaideak santu baten bizitzaren irakurtzea bezala egiten zuen.

Egun haretan nire jakin-minari ezin eutsi eta, berriz ere, zaldiaren istorioaz galde egin nion.

— Hala ere –esan nuen–, elurrean oinatzak irakurri zenituenean, eta adarretan zuinak[198], ez zenuen Brunello ezagutzen. Nolabait ere, zantzu horiek zaldi guztien berri zemaiguten, edo mota haretakoxe zaldiez, behintzat. Ez genuen esan behar, bada, teologo ohoretsurik askok irakatsi bezala, izadiaren liburuak esentziez eta ez bestez hitz egiten digula?

— Ez zehazki, Adso maite –erantzun zidan–. Halako zantzuak[199], zalantzarik ez, zaldiaz, nahi baduk, *verbum mentis* bezala hitz zegidaan, eta haretaztxe hitz egingo zidaan non nahi aurkitu ere. Baina zantzua ha lako lekuan

196 Andur: ruin, mezquino, (H. “austero”)
197 Alta bada: por lo demás, así es que...
198 Zuin: marca, señal (Zegun…)
199 Zantzu: indicio, señal, (H.“impronta”)

eta ha lako unean, ahal ziren zaldi guztietarik bat, gutienez, handixe irago zelako ezagugarria zuan. Halako moldez, ezen, alde batetik, zaldiaren izaera edo adigaia[200] zein den ulertu beharra, eta bestetik, zaldi bakan edo bakoitz baten ezaguera eta bien bitarteko bidearen erdian nengoela. Eta, zena zela, zaldiaz, orohar, nekiena oinatz batetik jasoa nian, berezia baitzen. Une haretantxe, bada, oinatzaren berezitasunak eta nire etxakintasunak[201] atxilotua nengoela esan nezakek, ideia orokorra edo unibertsalaren itxura nahiko gardena hartzen baitzuen. Hik urrundik zerbait ikusten baduk, zer den ez jakinik, gauza zabal bat dela zehaztearekin aski izanen duk. Hurbiltxeago egoiten haizenean, abere dela esanen duk, zaldi edo asto ote den ez jakin arren. Hurbilago eta zaldi dela esan hezake, Brunello edo Favello den ez jakinagatik. Azkenik, tarte egokian hagoelarik, Brunello dela ikusiko duk (edo zaldi hori eta ez beste bat, eman nahi dioan izena gora-behera). Jakinduria guztizkoa horixe, berezi edo bakanaren intuizioa. Halatan, duela ordubete, ni zaldi guztiengan pentsatzeko prest egon nauk, ez nire adimenaren hedaduragatik, nire intuizioaren esturagatik baizen. Eta nire adimenaren gosea hala ase duk, lekaideek uhaletik eraman duten zaldi bakarra ikusi

200 Adigai: concepto, tema de reflexión
201 Etxakin: ezjakin (Etxakinkeria / etxakintasun) (N)

dudanean. Orduantxe jakin diat, jakin ere, nire aurretiazko arrazoimenduak zinez egiaren ondora eroan nauena. Beraz, lehenago ikusi bageko zaldia irudikatzeko erabili ditudan aburuak ezagugarri hutsak izan dituk, zaldiaren ideiaren ezagugarriak, halaber, elur gaineko oinatzak: gauzak ez daduzkagunean, ezagugarriak erabiltzen ditiagu, eta ezagugarrien ezagugarriak.

Beste bider batzuetan, ideia unibertsalez eszeptizismo handiz hitz egiten entzun ukan nion eta norbanekoen gauzez ere begirune handiz, eta are, geroago, bere jaidura[202] zuelako edo bitrainiarra zelako ote zen pentsatzen hasi nintzen, edo, ausaz, frantziskotarra zelako. Baina egun haretan ez nuen eztabaida teologikoez ihardukitzeko[203] indarrik. Alta bada,[204] uzkur-uzkur[205], eman zidaten zoko haretan, burusi batean bildu eta lozorro gelditu nintzen.

Sar zedin[206] edonork pardeltzat[207] har nintzakeen. Abadeak, aurki[208], hala egin zuen, tertzia ordua zenean Gilen

202 Jaidura: inclinación, tendencia (Joera)
203 Iharduki: disputar, debatir, discutir /...
204 Alta bada: conjunción continuativa // Hala ere...
205 Uzkur: acurrucado, encogido
206 Sar zedin…: … que hubiera entrado...
207 Pardel: (H. “bulto”)
208 Aurki: probablemente / enseguida /...

ikuskatzera etorririk. Halatan bada, haien lehen elkarrizketa entzun ahal izan nuen, inork ni ikusi bage. Eta maltzurkeriarik ez, zeren, etorri zenari, bat-batean, agertzea apal-apal ezkutaturik egoitea baino nabarmenkeria[209] handiagoa izango baitzen.

Hala bada, Abonne jin[210] zen. Sartu zelako barkamena eskatu, berriz ere ongietorria eman eta Gileni hitz egin behar ziola, gai nahiko larrí batzuez, bikarka.[211]

Zorionak eman zizkion, lehenengo eta behin, zaldiaren gertaera hura hain trebero erabili zuelako, eta galdetu ere nola jardun ote zuen hain ziur-ziur inoiz ere ikusi bagekoa zuen zaldiaz. Gilenek, gaingiroki eta ezaxola bezala, egin zuen arrazoimendua, eta Abadeak haren zorroztasuna biziki ospatu zuen. Gutiago uste ez zuela ez zukeela[212], esan zion, zorroztasuna hain entzutetsua zuen gizonarengandik. Farfako abadeak igorritako gutun bat jaso zuela esan zion, eta enperadoreak Gileni peskizan[213] emandako eginkizunaren berri ez ezik (hurrengo egunetan

209 Nabarmenkeria: descortesía, gesto de mala educación
210 Jin: etorri (H. “heldu”) : acudir
211 Bikarka: (H. “en privado”) (N-?)
212 Gutiago uste : espera menos (no esperaba / esperaría menos de...)
213 Peskizan eman: dar en confinza, encargarle, confiarle (?)

honetaz hitz egingo zuten) nire maisua Ingalaterran eta Italian inkisidore eta zein zirkunstantziatan izan zen ere azaltzen zion, eta hainbat auzitan nola haren zorroztasunagatik nabaritu zen, gizatasun handiari muzin egiteke.

— Atsegin handia izan da –gehitu Abadeak– hainbat auzitan salatua errubagetzat jo ukan duzula jakitea. Sinesten dut, eta inoiz baino are bizikiago egun ilun-ilunotan, giza-arazo guztietan gaiztoa beti dabilela –eta bere ingurura so egin zion, ia ikusi ez zen aieru batez, horma haien barruan etsaia bailegoan–, alta, sinetsi ere egiten dut sarritan gaiztoak gaiztakeria bere ondoko gauzekin gauzatzen duela. Eta bere biktimei gaizkia egin lezaten eragin ahal die, eta halako moldez ezen errua errugearen gainera egozten baita, bere sukubuaren[214] lekuan zintzoa errea izaiteaz gozatuz. Sarritan inkisidoreek, eurak erdotsak[215] direla, hots, langile garbiak edo direla erakustearren akusatuari zein edo zein aitortza erauzten diote, nola edo nola, zeren, beraien eritzian inkisidore onak auzia burutzeko beti petxero[216] bat aurkitu behar baitu…

214 Sukubu: súcubu, súccubus (Deabru emea edo antzeko mitoa zena)
215 Erdots: esmerado, prope, laborioso
216 Petxero: (H. “chivo expiatorio”) (Petxa: zerga)

— Inkisidoreak ere tusuriak zirikaturik[217] joka dezake –esan zuen Gilenek.

— Baliteke –Abadeak zuhurtasun larriz–, Gorenaren asmoak azterrezinak[218] dira eta, baina ez naiz ni hainbat gizon ongileren[219] gainera susmo-itzalik egotziko duena. Alderantziz, horrelakoa zarelakoan gaur zugana heldu naiz. Abadia honetan, zu bezalako gizon zorrotz eta zuhurraren ardura eta aholkua behar duen zerbait gertatu da. Zorrotza edireiteko eta zuhurra (hala behar balitz) ezkutatzeko. Zinez, usu[220] santu handitzat hartu izan ledin gizonaren errua frogatzea baitezpadakoa da, baina gaiztakeriaren zioa ezabatzea legokeen eran egin beharko litzateke, erruduna besteek arbuiaturik agertu bage. Artzain batek makur eginez gero, beste artzainengandik alde eragin behar zaio, honela ere, ai ardiak artzainenganako zaio[221] gaixtoz hasiko balira!

— Ulertzen dut –Gilenek esana. Horren adeitsuki eta prestuki[222] jardun duzunean ohartu naiz, askotan ezkutatzen

217 Zirikatu: (H. “instigar”) (Zihükatü, kitzikatu)
218 Azterrezin: inescrutable
219 Ongile: ongin, benemérito, bienhechor, benefactor
220 Usu: maiz, sarri(tan), ohiz, batzuetan, askotan, heuragitan...
221 Zaio: recelo, sospecha (Susmo…) (H. “desconfiar”)
222 Prestuki: solícitamente

ari izan zarela, zintzoro, zure gandura[223] edo zure bat ez etorte hori.

— Horregatik –berriro Abadeak–, artzain baten makurrak nahasarazten[224] dituen arazoetan, zu bezalako gizonei ez beste inori ardura eman beharra dagoela uste dut, ongia eta gaizkia bereizten ez ezik egokia eta ezegokia zer den ere jakiten baitute. Atsegingarri zait jakitea zuk ez duzula kondenatu...

— ...salaturik errudun izan ez denik, delituzko egitadarik, pozoinketarik, ume xaloen usteltzerik eta beste zerbait gorrotagarririk[225] nire ahoak aipatu nahi ez duenik egin ez duen errudunik…

— ...bai, kondenatu duzula –Abadea aurrera mintzo Gilenen etenaz gain eginez– deabruaren presentzia hain agerikoa zenez, ororentzat, bestelako era batera jokatzea ezinezko zenean baizik ez, indulgentzia delitua bera baino gaizpidekoiago[226] izango baitzen.

223 Gandura: harridura, perplejidad (Gandu: niebla / … (Larr.)
224 Nahasarazi: involucrar (?)
225 Gorrotagarri: abominable
226 Gaizpidekoi: que promueve el escándalo

— Norbait erruduntzat adiarazi nuenean –Gilenek azalduz– egiaz krimen larriak egin zituelako izan zen, beraz, damurik bage herri-agintaritzaren esku uzteko bezain larriak.

Abadeak zalantza lipar bat ukan zuen:

— Zergatik –galde egin zuen– hitz dagizu beti delituzko egitadez eta ez duzu deabruaren esku hartzerik aipatzen?

— Bada, kausez eta efektoez hitz egitea zail samarra delako, Jaungoikoak ez bestek egin dezake horretaz eritzi[227], nire ustez. Guri zail egiten zaigu, esaterako, kiskalitako zuhaitz baten eta erre duen txistmist baten arteko efekto-lotura egitea, agerikoa bada ere, eta kausen eta efektoen arteko katea han luze-luzeak izan litezkeenak lotzea zentzugekeria handia iruditzen zait, zeruraino hel ledin dorre bat eraikitzea bezala.

— Akino doktoreak –Abadeak gogora ekarri[228] antzo– bere arrrazoiaren indar hutsez Gorenaren izaitea erakusteko ahalgerik[229] ukan ez du, kausarik kausa atzera joanez, lehenbiziko kausara iristeraino, ezein kausaren efektua izan ez zena, hain zuzen.

227 Eritzi egin: hacer juicio (de valor) (N)
228 Gogora ekarri (antzo): sugeriri, insinuar
229 Ahalge: vergüenza (H. “no ha temido”)

— Nor naiz ni –Gilenek apalkiro– Akinoko doktoreari jarkitzeko?[230] Gainera, harek Jaungoikoaren izaitea erakusteko froga beste hainbaten lekukotzaz bermatzen da, haren frogabideen baliozkotasun horren sendogarri. Jaungoikoa gure arimaren barruan mintzatu egiten da, Agustinek zekien bezala, eta zu, Abbone, Jaungoikoaren presentzia ageri-agerikoa goretsiz eta eresiz[231] mintzatuko zinen Tomasek, zera, ez… –mintzoa eten, eta gehitu zuen–: Uste dut.

— A, bai, zalantzarik ez! –berehala berretsi zuen Abadeak, eta era dotore horrezaz nire maisuak eztabaida eskolastiko hura moztu zuen, oso gogoko ez baitzuen, ageri zenez.

— Itzul gaitezen auzietara –nire maisua aurrera–. Demagun gizon bat pozoindu eta hil dela. Hau datu enpirikoa da. Zantzu enura[232] bageko batzuk direla eta, pozoinketa egin duena beste gizon bat izan dela irudika dezaket. Honela ere, nolatan nahas dezaket arazoa egitada zital horrek giza-kausa bat ez ezik deabruarena ere duela irudikatuz? Ez diot ezinezko denik, baina tusuriak[233] ere bere oinatzak uzten ditu, zure Brunello zaldiak bezala. Baina, zergatik bilatu

230 Jarki: oponerse
231 Eresi: endecha, canto fúnebre; lamentación, elegía.
232 Enura bage: inequívoco (Enura: duda)
233 Tusuri: diablo (deabru, txerren)

behar dut halako frogarik? Ez ote da nahikoa erruduna gizon hori dela jakitea eta herri-agintaritzaren esku utz dezadan? Edonola ere, haren zigorra heriotza izango zen, Jaungoikoak barka dezala.

— Hala ere, Kilkenny-n gauzaturiko auzi batean, orain hiru urte, pertsona batzuk delitu bihozke[234] batzuk egiteaz salatu izan ziren, eta zuk ez zenuen deabruaren esku hartzea ukatu, errudunak kausitu[235] ondorean.

— Baina ez nuen era garbiz ere baieztatu. Dena dela, ez nuen ukatu, egia. Nor naiz ni gaiztoaren trikimailuez ebazteko? Guztiz ere –gehitu zuen eta hau argi utzi nahi zuela zirudien– auzia hasi zutenek, apezpikuek, hiriko magistratuek, herri guztiak, eta beharbada salatuek berek ere, tusuriaren eskua kausitu nahi baitzuten. Beharbada, horren egiazko esku-hartzearen froga bakarra haiek guztiek hori kausitzeko zuten grina[236]…

— Beraz –Abadea kezkatuxerik mintzo–, zer diostazu, zera, hainbat auzitan deabruak errudunarengan ez ezik epaileengan ere esku hartzen duela?

234 Bihozke: infame / cobarde (bihotz+ge-gabe-bage) (+ egiteke...)
235 Kausitu: encontrar / ...
236 Grina: pasión, deseo vehemente (H.“intensidad”)

— Horrelakorik baiezta ote nezake? –galdetu zuen Gilenek, eta itauna Abadeak baieztatu ezin zezakeen eran egin zuela ohartu nintzen, eta Abboneren isilaldian hizpideaz bestera egiteko aukera lortu zuen–. Alabaina, sakonean urruneko gauzak dira… Orduko eginkizun mazal[237] hari utzi nion, eta hala egin banuen Jaunak hala nahi ukan zuelako izan zen…

— Bai, noski –onartu Abadeak.

—… Eta orain –berriz ere Gilen–, beste eginkizun minbera batzuez jarduten dut. Eta zuri atsebage emaiten dizun horretaz jardun nahi nuke, azaldu nahi bazeniezat.

Ene irudiko, Abadea poztu zen elkarrizketa hura amaitu eta bere arazora itzulirik. Hasi zuen, bada, hitzak zuhurkiro hautatuz, eta itzul-inguru luxeak eginez, egun guti batzuk lehenago gertatu berezi baten jaulkitzea, lekaideak zeharo aztoratu[238] zituen gertaera. Esan zuenez, Gileni jaulkitzen zion gizakiaren arimaren ezagutzaile ona zela uste zuelako, eta, halaber, bai gaiztoaren trikimailuen jakile ere, eta hain enigma mingarri hura argitzeko beta izango zuela uste zuelako, beta balio-baliotsu zuen haretarik zati bat,

237 Mazal: 1. (V-ple-arr-oroz-m ap. A) "Afable, de buen carácter, noble"

238 Aztoratu: turbar, perturbar, preocupar mucho, azorar

bederen. Izan ere,[239] Otrantoko Adelmo lekaide orduan gazte baina miniaturan idazteko antzean[240] ospe handiko maisu zena, liburutegiko eskuizkribuak irudi eder-ederrez apaintzen zituena, goiz batez ahuntzain batek Eraikinaren ekialdeko dorretzar azpian dagoen arroan[241] hilotz aurkitua izan zen. Beste lekaideek konpletetan koruan ikusi zuten, baina matutietara ez zen joan, beraz, gaueko ordu beltzenetan eroriko ahal zen, bisuts[242] edo indriska gogorreko gau batean, elur-maluta aizto bezain zorrotz eta ia txingortuak[243] hegoa[244] oldartsu batek bultzaturik erortzen zirenean. Elur hura lehenik erori eta urtu zen eta geroago izoztu, eta lei-karraldo[245] gogor bihurtu zen haretan gorpua amildegi barrenean aurkitu zuten, harkaitzez harkaitz amildurik, zanpatekoakatik,[246] zafratua,[247] zarrastatua[248] baina bigun zegoena. Gauza hilgarri gaxo eta hauskorra, Jaungoikoa erruki dakiola. Eroraldian hainbatetan, zinpiti-zanpata[249], jo han jo hor egin zuenez, ez zen erraza nondixe

239 Izan ere: en efecto, es que, de hecho...
240 Antze: arte (antzoki, antzerti, antzesle...)
241 Arro: barranco (Arru?)
242 Bisuts: ventisca / Indriska: chubasco...
243 Txingortu: hacerse granizo (Txingor, babazuza, kazkabar...)
244 Hegoa: viento sur (Hegoalde) (Hemen “austro”)
245 Lei-karraldo: costra de hielo
246 Zanpateko: costalada, golpe de caída.
247 Zafratu: golpear, destrozar a golpes
248 Zarrastatu: desgarrar
249 Zinpiti-zanpata: zinpi-zanpa (Onom. de golpes varios en caída...)

amildu zen, zehazki, esatea. Dorrretzarrak, amildegi aldean, hiru alde zuen eta hiruna leiho-lerro, eta haietako batetik eroriko zen, esan beharrik ez.

— Nor ehortzi duzue gorpu gaxoa? –Gilen itaunetan.

— Hilerrian, noski –Abadeak erantzun–. Zerorrek ikusiko ahal zenuen, eiki; elizaren iparraldean Eraikinaren eta baratzearen artean.

— Badakusat –Gilenek–, eta zure arazoa hauxe dela dakusat. Zorigaiztokoak, Jaungoikoari nahi ez dakiola, bere burua hil balu (berez eror zitekeela burutan har ezin daiteke eta) hurrengo egunean leiho haietako bat zabalik aurkitu zenukeen, denak itxirik ordea aurkitu, eta haien inguru aldean ur-aztarrenarik ere ez.

Esan dudanez, Abadea gizon beltzuntzea[250] eta urguria[251] zen oso, baina orduko haretan ezin gorde ukan zuen ustebageko keinu bat, eta beronek eratasun-zantzu[252] guztiak ezabatu zituen, Aristotelesen arauera, pertsona bihotzandi[253] eta bulurra[254] denari dagokion eratasuna:

250 Beltzuntze: serio (H.“circunspecto”)
251 Urguri: discreto, delicado (H. “diplomático”)
252 Eratasun: decoro, formalidad (Eratasun-zantzu: huella del decoro)
253 Bihotzandi: magnánimo / de gran valor humano (Bihotz handiko)
254 Bulur: serio (H. “grave”) muy formal/ irascible (Er-uzt) (?)

— Nork esan dizu?

— Zerorrek esan didazu. Leihoa zabalik egon balitz, berehala, bertatik bere burua egotzi zuela uste ukan zenukeen. Kanporean ikusi dadanez, leiho handiak dira beirate opakurekikoak[255], eta honelako leihotzarrak, halako eraikin handietan, ez ohi dira gizon baten garaierako neurrian izaiten. Beraz, hara, zabalik egon balitz, zorigaiztokoa hurbildu eta bere burua atera eta oreka huts egin balu, hau guzti hau albora utzirik, buru-hilketaren hipotesia baizik ez zegoen. Eta hala izanez gero, ez zenukeen lur bedeinkatu pean sartzerik onetsi. Honela ere, kristau legez eta legeaz ehortzi zenutenez, leihoak itxita egongo ahal ziren. Eta itxirik egonda, eta sorginkeria-auzietan hildakoa, ez Jaungoikoaren ez tusuriaren baimenez, bere krimenaren lorratzak ezabatzeko amildegian gora igo dela inoiz ere entzun ez dudanez, argi dago bere buruaz beste egin zuena, ustez, nahiz giza-esku batek nahiz deabru-indar batek bultzatua izan zela. Eta zuk galde, ea nork, ez dut esango amildegirantz bultzatu, baina, nahi bagerik, barlasairaino[256] jaso ote zuen, eta zu aztoratua, abadia

255 Opaku: opaco (Opakurekiko: con... opacos)
256 Barlasai: alféizar (Leiho-ertz)

inguruan ibil litekeen gaizto-indar bategatik, deabruzkoa, dela naturazkoa dela naturaz gainekoa.

— Horrelaxe...–esan zuen Abadeak, eta ez zegoen argi hitzoz Gilenen esanak baieztatzen ote zuenentz[257], edo beronek hain zehatz-zehatz azaldu arrazoimenduaren zuzentasuna aurkitua ote zuen–. Horrela eta guztiz ere, nola jakin duzu leiho ondoetan ur-notarik[258] ez zegoena?

— Iparrak putz zegiela esan didazulako, eta ura ezin zen erori sortalderantz dagozen leihoen aldera.

— Zure bertuteez esan zidatena asko ez zen –Abadeak–. Zuzen zagoz, ez zegoen urik, eta orain badakit zergatik. Zera, zuk esan bezala gertatu zen. Uler ezazu, bada, nire larritasuna[259]. Larria izango zen, hala, nire fraideetako baterean bat buru-hilketa bezalako bekatu nardagarriaz[260] zikindu izan balitz. Honela ere, arrazoiak baditut beste baterean bat ha bezain izugarriko hogenaz[261] zikindu dela pentsatzeko. Eta hori baino ez balitz...

— Dena den, zeren fraideetako bat? Abadian beste lagunik asko dago, ukuiluko morroiak, ahuntzainak, sehiak…

257 -entz: ...edo ez (egia denentz… den edo ez)
258 Nota: mancha, rastro
259 Larritasun: angustia
260 Nardagarri: abominable, repugnante
261 Hogen: bekatu, culpa, pecado, falta, injuria... (Hoben)

— Bai, abadia tikia baina aberatsa da –nolabaiteko harrotasun pittin batez onartu Abadeak–. Ehun eta berrogeita hamar sehi[262] hirurogei fraiderentzat. Alta bada, dena Eraikinean gertatu zen. Badakizu, eiki, beheko solairuan sukaldeekin jatokia dagoela, eta goiko bi estaietan *scriptorium* eta liburutegia dagozela. Abariaz[263] gero, Eraikina ixten da, eta arau zorrotz batek lagun orori sartzea debekatzen dio –eta, berehala, Gilenen itauna igarririk, zera gehitu zuen, ez, itxuraz, gogo onez–, fraideei ere bai, noski, baina…

— Baina?

— Baina, zeharo baztertzen dut, bai zeharo, sehirean bat hara gauez sartzera ausartuko zela. –Haren begietatik halako irrixka axut-koi[264] bat iragan zen, txinparta bezain arina, izar iheskor baten antzo–. Beldurrak jo zukeela esan dezakegu, zeren, badakizu… jende xeheari emaiten zaizkion arauak, maiz, zemai indargarriz heltzen dira, hala nola, adibidez, araua ez betetzeak zigor lazgarri edota naturaz gaindiko zerbait izugarri ekar lezakeela iragartea. Lekaideak, aldiz...

— Ulertzen dut.

---

262 Sehi: criado-a, sirviente, paje
263 Abari: afari, apari, aihari… (Abari-zor, Nafaroako Foruetan agertua)
264 Axut: interj. de desafío. (H. “desafiante”)

— Gainera, lakaideak debekaturiko lekura sartzera ausartzeko beste zeinbait arrazoi ukan lezake, arrazoi, esan nahi dut… nola esan?, arrazoizko, arauaren aurka izanagatik ere…

Gilenek Abadearen aztoramendua nabaritu zuen, eta galdera bat egin zuen, beharbada, hizpideaz beste egiteko xedez, baina aztoramendua gutitu ez.

— Balizko gizahilketaz hitz egin duzunean «eta hori baino ez balitz» esan duzu. Zer ukan duzu buruan?

— Hori esan dut? Bada, inork ez du hiltzen arrazoirik bage, zital izan arren. Eta fraideak bere laguna hiltzeko ukan ahal izan zituen arrazoien zitalkeriaz pentsatzeak larritzen nau. Hauxe nahi izan dut esan.

— Besterik ez?

— Esan diezazukedan besterik ez.

— Niri esan diezadakezuna baino gehiago ez dagoela esan nahi duzua?

— Mesedez, anaia Gilen, Gilen ene anaia –eta Abadeak anaia biak nabarmendu[265] zituen.

Gilen lotsagorritu zen eta dirautso:

265 Nabarmendu: (H. “recalcar”) (?)

— *Eris sacerdos in aeternum*.[266]

— Eskerrik asko –Abadeak.

Oi, ene Jainko, zein misterio lazgarria igurtzi zuten orduan nire nagusi zuhurrezek[267], bata larri zegoelako eta bestea jakin-mindua! Ni, orduan, lekaidegai Jaungoikoaren zerbitzu santutan diren misterioetan hasi berria, mutilko apala, ohartu nintzen ohartu, ezen, Abadeak zerbait zekiela, baina aitorpen-sekretua zela. Norbaitek zerbait aitortuko ahal zion, bekatuzko zertto bat, Adelmoren azken izugarriarekin zerloturik[268] zukeenik. Agian horregatik Gilenek kausi zezan nahi zuen, berak aurretik zekiela uste baitzuen, baina inori aitortu ezin ziezaiokeena. Nire maisuak adimenaren indarrez argituko zuen itxaropena zuen Abadeak, berak errukimenduaren indar goitarrez[269] arazo hura itzalez estali behar baitzuen.

— Tira, bada –Gilenek orduan–, itaundu ahal izango diet fraideei?

— Ahal dukezu.

266 “Betirako apaiza zara”
267 Zuhurrez: imprudente
268 Zerlotu: algo que lo relaciona (zer+lotu / zer+ikusi /...)
269 Goitar: sublime

— Abadian tokiz toki neuregain[270] ibili ahal izango naiz?

— Egiteko nire baimena duzu.

— Nire egiteko hau *coram monachis*[271] gomendatuko duzu?

— Gaueon bereon.

— Horrela ere, egun hasiko naiz, fraideek ikerketa hau niri peskizan eman didazula jakin lezaten baino lehen. Gainera, ni honatzeko zio nagusi bat zuen liburutegia ikusteko irrika izan da, kristaugoan diren abadia guztietan izen handikoa.

Abadeak hasperen bat egin zuen, eta begitartea, bat-batean, atezuan[272].

— Abadia guztitik ibil zaitezkeela esan dut. Alta bada, ez Eraikineko goiko estaitik, liburutegitik.

— Zer dela eta?

— Lehenago azaldu behar izango nizun. Bazenekiela uste nuen. Zuk badakizu gure liburutegia ez dela besteen antzekoa...

— Badakit kristaugoan beste nongo-nahi liburutegik baino liburu gehiago dadukana. Badakit, zuenarekin alderatuz,

270 Neuregain: (H. “libremente”)
271 “fraideen aurrean”
272 Atezuan: en tensión

Bobbioko edo Pomposa, Cluny, edo Fleuryko armairuak ume baten logela legezkoak direna, abako[273] jokoan hasi ume batena. Badakit Novalesak[274] sei mila kodize zedukala eta honegatixe harro zegoena, duela ehun urte baino gehiago, baina zuenekin alderaturik guti dira, eta haietako batzuk orain hemen egon daitezke, agian. Badakit zuen abadia Bagdad-eko hogeita hamasei mila liburutegien aurrean kristaugoak ipin dezakeen argi bakarra dena, eta Ibn al-Alkami bisiraren hamar mila kodizeen aurrean orobat, eta zuen bibliak Kairo harrotzen duten bi mila eta laurehun koran adina direna, eta zuen armairuak fedebageen kondaira harrokeriatsuaren aurka ebidentzia argitsuak direna. Fedebageek baieztatzen zutenez (haiek, gezurraren printzearekin trebetasun handiko haiek) Tripoliko liburutegiak sei milioi ale zedukan eta laurogei mila iruzkingile[275] beste berrehun mila kopiatzailerekin[276] omen zegozen bertan.

— Horrela da, dugun zerua gur[277].

273 Abako: äbaco (Zenbakiekin jolasteko tresna bat)
274 Novalesa: Italiako herria
275 Iruzkingile: comentador.
276 Kopiatzaile: escribiente.
277 Dugun zerua gur: gur(tu) dezagun zerua

— Badakit hemen bizi diren lekaiderik asko munduko beste hainbat lekutako abadietarean etorritakoak direna. Batzuk aldi labur baterako etorri dira, hemen zuen liburutegian, eta ez beste inon, dagozen eskuizkribuak kopiatzeko bezainbesteko aldi, eta gero euren lekuetara itzultzen dira, kopia horiek daramatzatela. Bidenabar, beste izkriburean bat edo bat ekarri ohi dute, zuek kopiatzearren eta zuen altxorrari gehitzeko. Beste batzuk hemen luzaroan egoiten dira, hil arte ere batzuk, euren ikasketak argitzeko gai diren idazkiak hemen baizik ez dagozelako. Hala bada, zuen artean germaniarrak, daziarrak, hispaniarrak, galiarrak eta greziarrak dagoz. Badakit, orain aspaldi-aspaldi, Perderika enperadoreak Merlin-en profeziei buruzko liburu bat konpilatzeko agindu zizuna, eta gero arabierara itzultzeko, Egiptoko sultanari oparitu nahi baitzion. Badakit, azkenik, garai ilun-ilunotan, Murbach-eko abadia loriatsuak kopiatzaile bakar bat ere ez dadukana, San Gall-en idazten dakiten fraide guti batzuk geratu direna; orain hirietan sortzen dira, bai, laikoen elkargo eta erkidegoak[278], unibertsitateentzat lan egiteko, eta zuen abadia da egunez

278 Erkidego: comunidad (H., “corporación”)

egun berpizten den bakarra, zer diot?, zuen baldernaren loriak tai[279] bage goratzen dituena...

— *Monasterium sine libris* –aipatu zuen Abadeak goiargiturik[280]– *est sicut civitas sine opibus, castrum sine numeris, coquina sine suppellctili, mensa sine cibis, hortus sine herbis, pratum sine floribus, arbor sine foliis*...[281] Eta gure baldernak, lanarekin otoitza[282] aginduari atxikirik hazi denak, mundu ezagun guztiari argi egin zion, jakintzaren gordeleku izan zen, hainbat sute, arpilaketa[283] eta lurrikarez suntsitzeko arriskuan zegoen dotrina zaharraren salbazioa, idazki berrien ola[284] eta zaharren zaintoki… Oi, ongi dakizu garai ilunetan bizi garena, oso goibeletan, eta lotsa emaiten dit, ezen, duela ez urterik asko, Vienako kontzilioak gogorarazi behar ukan zuela lekaide den orok ordenatu, hots, baldernatu beharra duela… Zenbat gure abadietarik, duela berrehun urte handitasun eta santutasun toki distiratsuak zirenak, gaur egun nagien babestoki bihurtu

279 Tai: (BN, S) "Suspension d'une action. Ce mot n'est guère en usage que dans le sens négatif". "Plazo, interrupción, reposo, cesar"
280 Goiargitu: inspirar, inspirado.
281 «Libururik bageko monasterioa, baliabiderik bageko hiri, zuzkidurarik bageko gaztelu, baxera bageko sukalde, janaririk bageko mahai, landarerik bageko loretegi, lilirik bageko belardi, orririk bageko zuhaitza bezalakoa da.»
282 Lanarekin otoitza: lana eta otoitza (-rekin : eta)
283 Arpilatu: saquear (Arpilaketa: saqueo)
284 Ola: fábrica, ferería...

diren. Balderna oraindik ahaltsua da, honela ere gure toki sakratuetaraino hirietako kiratsa heltzen da, Jaungoikoaren herria sal-erosketara lerratzen[285] da eta leinuen[286] arteko guduetara, han, hiri jendetsu handietan, santutasun gogoak estalperik ez duenetan, non mintzatu ez ezik (zer gehiago eska lekieke ezikasiei?[287]) idatzi ere hizkuntza arruntean egiten baita, ez ailedi[288] halako liburuetarik bat gure harresitik irago, zeren, ondikoz[289] herexiaren pizgarri[290] bilakatzen baitira! Gizakien bekatuengatik, mundua amildegi ertzean dago, leze beltzari deika dagokion lezearen aho sakon irekiaren hegian[291]. Eta bihar, Honoriok esan izaiten zuen eran, gizonen gorputzak gureak baino tikiagoak izanen dira, gureok antzinateko haienak baino txikirragoak diren bezala. *Mundus senescit*.[292] Bada, Jainkoak gure baldernari peskizan egitekorik eman badio, horixe da, hots, amildegirantz doan lasterketa horri jarkitzea, hain zuzen, gure aitasabek utzi altxorra zainduz, berrizkatuz, iraunaraziz. Probidentzia jainkotiarrak xedatu duenez,

285 Lerratu: derrapar-deslizar (H. “inclinarse a”)
286 Leinu: linaje-tribu… (H. “facción”)
287 Ezikasi: ignorante (H. “lego”)
288 Ailedi: (ez) ailedi irago : ojalá que (no) pase.
289 Ondikoz: zoritxarrez (H. “fatalmente”)
290 Pizgarri: incentivo (H. “pábulo”)
291 Leze… (nik moldaturiko esaldia) (Lezebaltz, Gorbeian) (!)
292 «Mundua zahartuz doa».

munduaren hasieran ekialdean zegoen gobernu unibertsala mendebalderantz mugitzen da, aldia hurbildu ahala, munduaren amaia gerturatzen ari dela jakinaraztearren, gertaeren bilakaera unibertsoaren mugara iritsi delako. Baina milurtekoa behin betirako hel ez dadin bitartean, aldi laburrerako baledi ere, piztia nazkagarria, Antikristo, garai ez ledin arte, gure egitekoa mundu giristinoaren altxorra jagoitea[293], Jaungoikoaren hitza bera ere halaber, profetei eta apostoluei hedatu[294] zien bezala, aitasabek, aditz bakar bat ere aldatzeke, berrizkatu izan zutena legez, eskoletxeetan glosatu nahi zuten era berean, nahiz eta egun eskoletan beretan harrokeria, bekaizkeria eta tentelkeriaren[295] sugeak habia egin. Ilunabar honetan oraindik zuziak gara, hodeiertzean nabaritzen den argia. Harresi honek euts dezan bitartean, Jainkoaren Hitzaren jagole garateke.

— Biz horrela –Gilenek mintzaira elizkoiaz–. Horrela eta guztiz ere, zer du horrek liburutegiaren ikusteko debekuarekin?

293 Jagon: custodiar, defender (Zaindu, begira, babestu...)
294 Hedatu: zabaldu… (H. “comunicar”) (Desplegar...)
295 Tentelkeria: estulticia.

— Begira, anaia Gilen –Abadeak dirautso–, murru[296] haiek gordetzen duten eginkari[297] eskerge bezain santua burutzeko –eta Eraikin handi hari so eragin zion[298], alde bat gelako leihotik ikusgai baitzegoen, abadiako eliza bera baino garaiagoa zena– gizon fededunek mendeetan lan egin dute, burdinazko arau batzuk betez. Liburutegia eraiki zen egitamua[299] mendeetan ostendurik, ezkutaturik egon da, eta ezein lekaidek ez du ikusteko eskurik.[300] Liburuzainak ez bestek daki sekretu, isilki hori, aurreko liburuzainagandik ikasia, eta, harek bere ondokoari irakatsiko dio, noiz eta, heriotzak ustebagean harrapa lezan baino lehen, anaikidegoa[301] jakingai horretaz peiturik[302] gera ez ledin. Eta bien ala bien ezpainak isilpeko hori ez hedarazteko[303] zinak ixten ditu. Liburuzainak, jakin ez ezik, liburuen arteko labirintotik ibiltzeko ere baimena du, beste inork ez, berak daki non ediren eta non eduki, beraz beste inor ez da haien, liburuen izaitearen arduradun. Beste fraideek *scriptorium*-en lan egiten dute eta liburutegiak daduzkan liburukien

296 Murru: muro / Muru: colina, collado
297 Eginkari: obra, lo realizado.
298 So eragin: begirarazi, señalar (So egin: begira, behatu) (N)
299 Egitamiu: plano (de una construcción, etc.)
300 Esku: mano / derecho, facultad, poder… (Eskubide)
301 Anaikidego: comunidad de cofrades (N) (H. “conunidad”)
302 Peitu: privado, falto, carente. (Peitu izan)
303 Hedarazi – hedatu: divulgar, propagar, difundir, expandir..

zerrenda ikus dezakete. Izenburu zerrenda batek, ordea, ez du asko adiarazten: liburuzainak bakarrak daki, liburukia non dagoen, aise hartzeko lekuan dagoen, zelako sekretuak, egiak edo gezurrak daduzkan liburu bakoitzak. Berak bakarrak erabakitzen du nola, noiz, on baderitzo, eske datorkion lekaideari uztea edo ez uztea, batzuetan nire aholkua jaso bage ez. Izan ere, egia guztiak ez dira on entzule guztientzat, gezur guztiak ez dira beti edozein arima sinesberarentzat egoki, gezurtzat joiten ez jakinki, eta, azkenaz goiti, fraideak *scriptorium*ean eginkizun zehatza burutzekotan[304] dagoz, eta honetarako liburu batzuk irakurri eta bestetzuk ez irakurri behar dituzte, ez jakin-min txepela asetzeko edo histutzeko[305], ez haien gogoen ahuleriagatik, ez arrandiagatik[306] edo deabruaren xarmapenagatik[307].

— Beraz, liburutegian gezurrak dituzten liburuak ere badagoz…

— Munstroak xede jainkozkoaren zati bat direlako dira, eta munstroen hazpegi izugarriak ere Sortzailearen ahalmenaren ezagugarriak. Era berean, jainkozko xedeen artean dira

304 Burutu: llevar a cabo, finalizar – realizar.
305 Histu: satisfacer / venganrse
306 Arrandia: soberbia
307 Xarmapen: sugestión, fascinación (Xarmatu)

magoen liburuak, juduen kabalak, olerkari jentilen alegiak[308] eta fedebageen gezurrak. Abadia hau mendeetan maite eta irozo[309] izan dutenak errime eta santuki sinetsarazita zegozen, ezen, gezurrak dituzten liburuetan ere irakurle zoliak jainkozko jakintzaren distira hits bat suma dezakeela. Horregatik, halako liburuak ere badagoz tegian. Uler dezakezu, berriz, horregatixe ezin daitekeela nor edo nor sar. Gainera, –gehitu zuen Abadeak azkenengo argudio horren ahuleriagatik aitzakiaz edo estakuruz[310] bezala–, liburua gauza hauskorra da, aldiak higatzen du, hortzikarien[311] beldur da, aterpetik at gaizki heltzen da[312], eta trebatu bageko eskuetan erorita nozitzen[313] du, pairatzen eta min hartzen du. Mendeetan gure liburuok nork-nahi ukitu ahal ukan balitu, haietako gehienak egun ez lirateke. Beraz, liburuzainak gizakietatik begiratzen dituen bezala, naturatik ere bai, eta bizitza osoa gudu horretan emaiten du, ahanzturaren indarren aurka, hori egiaren etsaia baita.

— Horrelatan bada, bi lagun izan ezik, beste inor ez da sartzen Eraikinaren azken estaira...

308 Alegia: fábula.
309 Irozo: sostener, sustentar.
310 Estakuru: pretexto, disculpa.
311 Hortzikari: roedor.
312 Aterpetik at…: a la intemperie resiste mal...
313 Nozitu: pairatu: sufrir

Abadeak irri egin zuen:

— Inork ez du egin behar. Inork ezin du egin. Nahi balu ere, ez luke erdietsiko.[314] Liburutegia berez zaintzen da, bertan bizi den egia bezain aztergaitz[315], gordetzen duen gezurra bezain zilibokari[316]. Labirinto espirituala, eta bai labirinto lurtarra[317] ere. Sartzea erdiets bazeneza, irtetea, beharbada, ez zenezake ediren. Hau guzti hau argiturik, abadiako arauak errespeta ditzazun nahi nuke.

— Horrela ere, ez duzu baztertu, zera, Adelmo liburutegiko leihoetako batetik erori izaitea. Nola azter nezake haren heriotza, Heriok[318] bere egitekoa egin ahal zuen lekua ikusteke?

— Anaia Gilen –Abadeak mintzaira adiskidekorraz[319] diotso–, nire zaldia, Brunello, ikusi bagerik sogiztu[320] duena, eta Adelmoren heriotza orobat ezer jakin bagerik, ez da nekez hasiko iritsi ezin duen lekuaz arrazoitzen.

Gilenek gur egin zuen.

---

314 Erdietsi: lortu, jadetsi, eskuratu
315 Aztergaitz: insondable
316 Zilibokari: engañoso
317 Lurtar: terrenal
318 Herio: Txerren, Balbe (Heriotzaren pertsonifikazioa, izakitzea)
319 Adiskidekor: (H. “conciliador”)
320 Sogiztu: describir (?)

— Jakintsua zara, hertsi[321] agertu arren, zorrotz alegia[322]. Nahi duzun eran egingo da.

— Jakintsua banintz, zorrotz agertzen dakidalako izango litzateke –ihardetsi[323] Abadeak.

— Azkenengo zera[324] –eta Gilenek galde–. Ubertino?

— Hemen dago. Zure begira, zain. Elizan jarrugiko[325] duzu.

— Noiz?

— Beti –Abadeak irrimurri[326]–. Badakizu, oso jakilea[327] izan arren, ez du biziki maite liburutegia. Mendeko… axukaldi[328] bat, zirikada dela uste baitu betarik gehienean otoitz eginaz eta elizan gogoetan egoiten da.

— Oso zahar dago, ala? –Gilenek zalantzan galde degio.

— Zenbat urte ikusi ez duzula?

— Heuragi[329].

---

321 Hertsi: estricto (H. “severo”)
322 Alegia: es decir, o sea,
323 Ihardetsi: replicar (Erantzun, iharduki)
324 Azkenengo zera: una última cosa (zer, zertu, zera, zeretik...)
325 Jarrugi: ediren, aurkitu, kausitu, topatu
326 Irrimurri: sonrisa (muy ligera)
327 Jakile: (H. “docto”)
328 Axukaldi: tentación, provocación (Axut!: grito de desafío)
329 Heuragi: asko, anitz, beredin, ugari.

— Nekatua dago. Mundu honetaz ez du kezka handirik, harean ez, esateko. Hirurogeita zortzi urte du. Oraindik, aldiz, gaztaroko garra[330] dario.

— Aurki[331] ikustera joango natzaio. Eskerrik asko.

Abadeak galdetu zion ea nahi ez al zuen erkidegoan bazkaldu, seigarrenaz[332] gero. Jan berri zegoela erantzun zion Gilenek eta ondo janda, eta Ubertino ikusi nahiago zuela, laster. Abadeak agur egin zion.

Gelarean ateratzen ari zela, oihu lazgarri bat entzun zen, aldabetik[333] zetorrena, Heriok jotako lagun batena bailitzan, eta ondorean beste garrasi edo zinkurin batzuk, aurrena bezain[334] ikaragarriak.

— Zer gertatzen da? –Gilenek asaldatua[335] galdetu zuen.

— Ezer ez –Abadeak irribarretsu erantzun zion–. Zerri-garaia da, hots, hiltzekoa. Urdezainentzat,[336] lana. Odol mota honek ez gaitu kezkatu behar.

330 Gar: llama / entusiasmo
331 Aurki: laster / seguranente, probablemente /...
332 Seigarren: sexta (H. “sexta” oración de los frailes)
333 Aldabe: (H. “patio”) (lugar abrigado, lugar cercado junto a la casa)
334 Bezain: (H. “no menos...”)
335 Asaldatu: sobresaltado
336 Urdezain: txerizain, porquerizo.

Irten zuen, eta zoli[337] ospea izan arren, ez zuen hala jokatu, zeren, hurrengo goizean… Baina, hago, ezinegonean[338], hago ene mingain lotsabage hori. Egun haretan bertan, eta gautu aitzin, hainbat gertakari izan zen, aipatu beharrekorik.

LEHENENGO EGUNA

SESTA

Adso elizako ataldeaz miretsirik eta Gilenek Casale-ko Ubertino jarrugi duenekoa.

Eliza ez zen maiestatezkoa, geroago Estrasburgu, Chartes, Bamberg edota Paris-en ikusiko nituenak ez bezala. Italian ikusitakoen antzekoa, zerurantz zut-zutik goratzeko

337 Zoli: sagaz
338 Ezinegon(a): impaciencia, incomodidad...

joranik[339] bagekoak, sendoak eta lurrean ondo tinkatuak, garaiak baino zabalagoak maiz, eta honako honetan ezberdintasuna hauxe: gotorleku antzo, elizak lehenengo estaian almena karratuak zeduzkan, eta hauen gainean bigarren eraikin bat, dorre baino gehiago beste eliza bat zena, behekoa bezain sendoa, sabaia tini[340] zorrotzekoa, eta leiho andana bat lerro-lerrotuaz josia. Eliza abadiar[341] sendorra[342], gure arbasoek Proventzan eta Languedoc-en eraikitzen zituzten bezalakoa, tankera modernoetako filigranen gehiegikeria eta ausarkeriatik aldendua, eta, uste dudanez, azkenengo garaietan, korutik gora, ortzirantz, zut-zutik luzatzen den orratz batez apainberritua.[343]

Sargua[344], lehen begiradaz, arku handi bakar bat zela zirudien, bi zutabe zuzen eta leundu ziren nabari, eta haietatik bi barlasai ateratzen ziren, eta gainetik, arku andana[345] batetik begirada sarturik, amildegi bihotz batera bezala, benetako ataldea ikusgai, itzalean lausotua[346],

339 Joran: afán, ahínco (H. “propensa”)
340 Tini: (BN, S) cima, punta, extremo superior. "Sommité".
341 Abadiar: abacial
342 Sendor: robusto, firme
343 Apainberritu (H. “enriquecida”)
344 Sargu: (S, R-vid); sargia (BN, S) sargo (L, BN, S, Sal) Entrada, lugar por donde se entra. (Sar+gu / etzan+gu / jan+gu...)
345 Andana: (H. “multitud”)
346 Lausotu: ensombrecida (H. “vislumbrar)

gainean tinpano[347] bat nabarmen, albo banatan bi harroin[348] zeduzkana, eta erdian zutarri[349] zizelkatua, sargua bi aldetan banatzen zuena, eta hauek harizkizko[350] atetzar burdinazko iltzez-eta sendotuak. Une haretan eguzkia gingan[351], sabai gainera ia zutik goitik behera erortzen, eta argiak zeharretara aitzinaldea[352] joiten, tinpanoa ilun zegoelarik. Halaxe, bada, bi zutabeen artetik irago ondoan, bertatik bertara[353], kupula azpian gengozen, baso bat zirudiena, abantzu, barlasaiak tinkatzeko mailaz maila loturiko zutabe tiki batzuetatik ateratzen ziren arkuek eginiko basoa. Begiak behingoan ilunpera ohituxerik, harri historiaz bete haren esan-nahi isilak, ikusmenari eta asmamenari natxekiela, edonoren fantasiaren heldueran baitzegoen, (zeren *pictura est laicorum literatura*)[354] itsu-liluratu[355] ninduen, bat-batean, eta mingainez ozta-ozta, ezin adiaraz dezakedan ikuspen batean murgildu nintzen.

347 Tinpano: arkitekturan hiruangeluko zati bat frontoian.
348 Harroin: pie de piedra (Errugbian: “pilier”)
349 Zutarri: pilastra
350 Harizki: de materia de roble (haritz+ki / pago+ki/...)
351 Ginga: zénit. Lo más caluroso del sol.
352 Aitzinalde: fachada
353 Bertatik bertara: bat-batean, dzanpez, berehalakoan...
354 «Margogintza laikoen literatura da»
355 Itsu-liluratu: (H. “deslumbrar”, cegar y maravillar)

Jargoi[356] bat zeruaren erdian ikusi nuen, eta jargoian bat jarria. Jarriaren begitartea zorrotza zen, ikaragaitza[357] zen, begi zabal-zabalak argi-xirrintak[358] aurtikiz, zeren gainera eta mundu honetako bizitza amaiturik zuen gizateriaren gainera, ilea eta bizarra aurpegi-bularretan beheti harrokiro, ibaiko urak laso[359], xirripak[360] osatuz, oro berdin eta bi zatitan banatuak, simetrikoki. Buruan esmaltez eta harribitxiez estali koroa bat zeraman; txabusina[361] inperiala zuen, purpuraz margotua, parpailez[362] eta bordatuez apaindua, urre-zilarrezko filigrana aberatsa osaturik, eta kiribil[363] zabalez belaunetaraino jaisten zen. Hantxe esku ezkerra, eta honen ahurrean liburu zigilatu bat, eskuina, berriz, gorantz, ez dakit bendeinkaziozko edo mehatxuzko keinua eginez. Begitarteari argi emanez gurutz itxurako argi-koroa[364] loretsu eder-ederra, eta jargoiaren inguruan Jarriaren buruaren gainean esmeraldazko ortzadar bat distiratsu ikusi nuen. Jargoiaren aurrean, Jarriaren oinen

356 Jargoi: trono
357 Ikaragaitz: impasible
358 Xirrinta: rayo
359 Laso: bezala, legez, gisa
360 Xirripa: riachuelo muy pequeño (H. “reguero”)
361 Txabusina: túnica, bata
362 Parpail: encaje (oihaletan)
363 Kiribil (H. “voluta”)
364 Argi-koroa: nimbo

ondotik, berinazko[365] itsaso bat zerion, eta Jarriaren baranoan[366] jargoiaren aldamenean eta gainetik lau piztia izugarri ikusi nituen… Izugarriak niretzat, liluraturik, estasi betean begiratzen ari bainintzaien, otzanak zitren, ordea, eta maitagarriak, Jarriarentzat, beronen gurpenean[367] eten bage kantuan zirelarik.

Zinez[368], ez diot denak izugarriak zirenik, izan ere, nire ezkerrean (Jarriaren eskuinean) liburu bat zedukala zegoena dohainez[369] eta edertasunez betea iruditu zitzaidan. Aitzitik, beste aldean zegoen arranoa beldurgarri, mokoa zabaltzen ari, lumak hartzirik[370], lazturik lorika[371] moldean ipiniak, erpe[372] indartsuekin hego handi hedatuak. Eta Jarriaren oinetan, itxura haien azpian, beste bi, zezena eta lehoia, eta haien apatx-hatzaparretan liburu bana zedukaten gorputzak kanpo-aldera ipiniak eta buruak jargoirantz, idun eta bizkarraldeak okertuak izuzko oldarretan antzo,

365 Berina: cristal (Beira: vidrio/ leiar: cristal)
366 Barano: (En casos locales de decl. Sing. Alrededor.) (Inguru)
367 Gurpen: adoración (H. “alabanza”)
368 Zinez: egiaz, benetan (H. “en realidad”)
369 Dohain: virtud, cualidad (H. “gracia”) /...
370 Hartzi: erizar / fermentar
371 Lorika: loriga (vestimenta guerrera)
372 Erpe: (h)atzapar

saihetsak taupadatsu[373], hankak zurrunduak[374] hil-hurran[375] dagoen piztiaren antzera, ahoak zabal-zabalak, isatsak[376] kiribildurik sugeak bezala eta suzko mihiak bailiran. Biak hegodunak[377], biak argi-koroez apainduak, itxura beldurgarri hura kenduta[378], ez ziren inpernuko izakiak, zerukoak baizik, eta ikaragarriak ziruditen arren, Etorleari[379] gur eginaz egiten zuten orro[380], hilen eta bizien epaitzera etorriko zen Haren gurpenez.

Jargoiaren inguruan, lau piztien alde bietan eta Jarriaren oinetan, leiarrezko[381] itsas-uren azpian transparentziaz ikusi bezala, ikus-toki ia guztia betez, tinpanoaren egitura hiruangelukoaren moldera ipiniak, lehenengo zazpi gehi zazpi, gero hiru gehi hiru eta gero bi gehi bi, hogeita lau agure zegozen, jargoi ondoan, eseririk, hogeita lau jargoittotan, txabusina zuriez jantzi eta urrez koroaturik. Batzuek lauteak zeduzkaten; beste batzuek, lurrindun kopak; baina batek bakarrik joiten zuen, besteek estasian, begitarteak Jarriarengana zuzentzen zituzten

373 Taupadatsu: palpitante
374 Zurrun: rígido, firme...
375 Hil-hurran: hil-zorian, hil-agin(ik-ean)
376 Isats: cola (Buztan) / retama (Erratz, iñarra)
377 Hegodun: alado
378 Kenduta: a pesar de, quitado lo de...
379 Etorle: (H. “el Venidero”)
380 Orro egin: rugir (Marru egin, marruma...)
381 Leiar: berin, kristal

bitartean, kantuz goretsiz, beso-bizkarraldeak ere gibelerantz okerturik, piztia haien antzera, orok Jarria ikusi nahiz, ez, ordea, piztia-jarrera batekin, dantza estatiko higiduretan gelditurik legez baizik –David-ek arkaren inguruan dantzan egin zuena bezalakoa, eiki[382]–, halako moldez, ezen, nola-nahi jarriak ere begi-niniek, gorputzen jarrera ezarten zuen legea errespetatu bage, distira distiratsuaren puntu berean joko zuten. Oi, zelako harmonia emaite eta oldartze, jarrera behartu baina dohainez bete haietan, gorputz-ekaiaren[383] pisutik mirakuluz askatuak, halako jendetza santua haize zakar batek bultzaturik ikaratzen[384] balitz bezala, bizi-putza[385], gozamen-frenesia, aleluia pozez gainezkatua, irudi bihurtzearren harrigarriro isildua, mintzuldua![386]

Espiritua bizi den gorputz eta besoak, agerkundeak[387] argiztaturik, txundidurak[388] izuturik eta ezustean harturik, azkortasunak[389] handietsitako[390] begiradak, maitasunak

382 ...egin zuena bezalakoa, eiki : “como la que debió bailar...”
383 Ekai: materia
384 Ikaratzen balitz: como si temblara -orain- / Ikaratuko balitz -gero-
385 Bizi-putz: soplo de vida
386 Mintzul: mudo (Mintzuldu: enmudecer)
387 Agerkunde: revelación
388 Txundidura: estupor
389 Axkortasun: entusiasmo
390 Handietsi: exaltar

piztutako masailak, dohatsutasunak[391] handitu begi-niniak, bata gozo bihurtutako harridurak joa[392], bestea harridura bihurtutako gozoak zehartua[393], miresmenak itxuraldatua bata, gozamenak gaztetua bestea, eta oro xaramelan[394] begitarteen adiarazpenaz, txabusinen izurrez[395], besoen aieru[396] eta atezuez[397], kantu ezezagun bat, ezpainak erdirekirik[398] goresmenezko irri hilezkorrarekin.[399] Han, lurreko eta zeruko lorategiak apaintzen dituzten belar guztien loreak, ostoak, aldaskak[400], kiribilak[401] eta ganboilak[402] elkarlotzen ziren, gordetxa[403], erratz[404], xarlatx[405], lirio, binorri[406], akara[407], kolokasi[408], malorri[409], ziguin[410], mirra eta baltsamuak.

391 Dohatsu: beato (Dohatsutasun: beatitud)
392 Jo(a): (H. “fulminado”)
393 Zehartu: (H. “traspasado”)
394 Xaramela: canto/… (H. “entonando”)
395 Izur: pliegue; dobladillo; frunce; arruga.
396 Aieru: (H. “ademán”)
397 Atezu: tensión (Atezuan: en tensión)
398 Erdireki: entreabierto (Erdi+ireki)
399 Hilezkor: imperecedero.
400 Aldaska: renuevo de plantas (H. “macolla”)
401 Kiribil: (H. “zarcillo”)
402 Ganboila: (H. “corimbo”-- umbella)
403 Gordetxa: viola, violette
404 Erratz: codeso (H.“citiso”)
405 Xarlatx: serpol (apio, erle-belhar..)
406 Binorri: (H. “alheña”)
407 Akara: nardo (H. “Narciso”)
408 Kolokasi: colocasia
409 Malorri: acanto
410 Ziguin: malva (ziga, mamukio…) (H. “malobatro”)

Baina nire arima, munduko edertasun eta naturaz gaindikoen zantzu arranditsuen[411] kontzertu harek txunditua[412], pozkidazko kantu batez lehertzear zegoenean, begiak, agureen oinetan kokatu arrosa-leiho[413] loratuen erritmo harmoniatsuari jarraikiz, elkarri lotuta, erdiko zutarriarekin, tinpanoa bertan bermatua, bat egiten zuten irudiei begiratu zien. Zer irudikatzen zuten eta zelako mezu sinboliko komunikatzen zuten gurutze antzera elkarloturik hiru lehoi- bikote haiek? Zeharturik[414], zutiturik[415] eta makoturik[416] jarriak, atzeko hatzaparrak lurrean finkaturik, aurrekoak, berriz, lagunaren bizkarrean bermaturik[417], kalparrak[418] nahaspilaturik[419], xerloak sugeen antzera kiribildurik, ahoak zabalik, zemaigarri[420], orrokari[421], zutarriaren gorputzari berari kibiril-mordo[422] sarri batek bildurik zegozen. Nire adorea lasaitzeko, agian baita lehoi haien izaera deabruzkoa hezteko ere, eta goiko gauzen

411 Arranditsu: (H. “majestuoso”)
412 Txunditu(a): (H.“arrobado”)
413 Arrosa-leiho: rosetón
414 Zeharturik: transversalmente
415 Zutiturik: rampante
416 Makoturik: arqueado
417 Bermatu: apoyarse / garantizar /...
418 Kalpar: adats, txima, sapa
419 Nahaspilatu: (H. “enmarañar”)
420 Zemaigarri: mehatxugarri, amenazante (Zemaitu)
421 Orrokari: rugiente
422 Kiribil-mordo: (H.”masa de zarcillos”)

aipamen sinboliko bihurtzeko, zutarriaren alboetan bi giza-irudi zegozen, garaiera antinaturalekoak, zutabekoak, beste birekin bikotea osatzen zutenak, bakoitzaren aurrean simetrikoki kokatuak, kanpoko aurpegiek historiatutako oin zuzenetan, harizkizko bi ateetako ate-zangoak zegozen lekuan: lau irudi, beraz, agure agurgarrienak. Hauen parafernaliak Petiri eta Paul, Jeremias eta Isaias zirela ezagutarazi zidan, haiek ere dantza-urrats batean bezala iraulita, esku hezurluzeak jasorik, hatzak hego gisa zabalduta, eta hegoak bezala haize profetiko batek herrestatu[423] bizarrak eta adatsak, haien txabusina luzeen tolesturak hanka luze-luzeek astindurik, uhin eta kiribilak bixi-bixi bailegozan, lehoien beste aldean baina harrizko ekai berezkoak. Eta begirada kentzean, kide sakratuen eta inpernuko abortuen polifonia misteriotsu harek liluratuta, begiesteko[424] ikaragarriak ziren beste ikuskari[425] batzuk sumatu nituen ataldearen alboetan eta sakontasunean mailakatzen ziren arkuen azpian, batzuetan, kontrahormetan irudiztaturik[426], eusten eta apaintzen zituzten zutabe meheen arteko guneetan, eta zutabe bakoitzeko kapitelen landaredi

423 Herrestatu: arrastrar
424 Begietsi: contemplar
425 Ikuskari: visión, cosa vista
426 Irudiztatu: (H. “historiar”)

trinkoan orobat[427], bertatik arku askodun oihan gisako kupularantz adarkatuz, beste ikuspen beldurgarri batzuk, eta leku haretan haien indar paraboliko eta alegorikoagatik edo haien irakaspen moralagatik ez bestegatik aitzakiatua[428]: emakume lizun bat ikusi nuen, biluzik eta pikarrai[429], kunkun[430] higuingarriz inguratua, sugeek zurrupatua[431], sabel puztu eta grifo hankekiko satiro batekin larru joiten ari zen emea, zangoak ile laztuez estaliak zituena, eta eztarri likitsa[432] bere kondenazioa ahots gora aldarrikatzen zuena. Eta zikoitz[433] bat ere ikusi nuen, Heriok ohi bezala zurrundua[434] legez ohatze batean etzanik, berau zutabez handi-handikiro[435] apaindua, eta deabru-eli[436] batek atxilo ezindurik[437] zedukan. Deabru haietako batek, hilzoriko ahotik haurtto itxurako arima erauzten zion (ai, inoiz ere betiereko bizira jaioko ez baitzen!). Harroputz bat ere ikusi nuen lepoan igorik tusuri bat zedukana, atzaparrak begietan

427 Orobat: halaber, ere bai...
428 Aitzakiatu: justificar, pretextar
429 Pikarrai: desnudo (H.“descarnado”)
430 Kunkun: apo, zapo, txantxiku
431 Zurrupatu: chupar, succionar
432 Likits: obsceno
433 Zikoitz: avaro
434 Zurrundu: . (G-to, L); zurruntu (S); zurruindu (Sal) Dejar, quedar(se) rígido, entumecido. "Devenir dur, sans flexibilité dans ses membres, lourd, lent en ses mouvements".
435 Handi-handikiro: (Hemen, “suntuosamente”)
436 Eli: rebaño, manada (Hemen, “cohorte”)
437 Ezindu(a): impotente

sartzen zizkiona, bi mizkin[438] elkar larrutzen[439], soinez soin[440] nazkagarritan ari zireino. Beste ume batzuk ere ikusi, buruak aker[441] irudi, adatsa[442] lehoiarena, ahutzak[443] panterarenak, oro gar-oihan[444] batean gatibu, eta bertatiko putz[445] sutsuak erretzen ninduen, ia. Irudi horien inguruan, nahasirik, gainetik eta oinetan, beste aurpegi eta beste hazpegi[446] batzuk, tximetatik[447] tira gizon-emakume bi, kondenatu baten begiak zurrupatzen ari ziren suge bi, maltzurki[448] irri egiten zuen gizaseme bat, bere eskuak makoturik[449] hidra baten ahutzak zabalik irozoten[450] ari zelarik, eta Satanasen piztiateriako[451] piztia guztiak, kontzilioan baturik, eta beraien aurrean goititzen zen jargoia inguratuz, jagonez, koroatuz, euren porrotaz hura loriatuz[452]:

438 Mizkin: goloso
439 Larrutu: desollar, despellejar (H.“desgarrar”)
440 Soinez soin: hombro con hombro. "Tocándose, apoyándose uno en otro como los bueyes. (H. “cuerpo a cuerpo”)
441 Aker: ahuntzaren arra.
442 Adats: cabellera
443 Ahutz(ak): fauces
444 Gar-oihan: selva de llamas
445 Putz: soplido
446 Hazpegi: facciones, rasgos, miembros del cuerpo.
447 Txima: greña, pelos -en sentido negativo-.
448 Maltzurki: malignamente
449 Makotu: arquear(se), encorvar(se), torcer(se). "Sudurra m.: arquearse la nariz"
450 Irozo: aguantar, soportar, sobrellevar; sustentar(se), sostener(se)
451 Piztiateria: bestiario.
452 Loriatu: glorificar

faunoak, sexu biko izakiak, sei hatzeko eskudun piztiak, itsas-lamiak, zentauroak, gorgoiak[453], harpiak, inkuboak, drakontopodoak, minotauroak, lintzeak, lehoinabarrak, kimerak, zakur-muturreko zinopero sudurretik garrak iraizten[454] zituztenak, dentotinaroak, polikaudadoak, suge iletsuak, harruliak[455], zerastak[456], kelonioak, sugeak, hortz-bizkardun biburuak, hienak, igarabak[457], beleak, krokodiloak, zerra antzeko adardun hidropoak, igelak, grifoak, tximuak, zakurburuak[458], leukrokotak, mantikorak, saiak, parandrioak, erbinudeak, herensugeak, argi-oilarrak[459], hontzak, basiliskoak, hipnalak, presteroak, espektafikoak, arrabioak, saurioak, zetazeoak, eskitalak, anfisbenak, jakuloak, dipsadoak, muskerrak, erremorak, polipoak, itsas-sugeak eta dortokak. Atari, oihan iluna, itxaropenik bageko bazterkeriaren basamortu, eta bertan inpernuko bizilagun guztiak, Jarriaren agerpena, tinpanoaren erdian, iragarteko bilduak zirela ziruditenak; Jarriaren begitarteak aldi berean eskainitza[460] eta mehatxua erakusten

453 Gorgoia: gorgona (?)
454 Iraitzi: arrojar, echar
455 Harruli: salamandra // (Arrabio: escorpión)
456 Zerasta: suge adarduna
457 Igaraba: nutria
458 Zakurburu: (H. “cinocéfalo”)
459 Argi-oilar: abubilla (H. “upupa”)
460 Eskainitz: promesa

zuelarik, haiek, Armagedon-go azpiratuak, bizien eta hilen bereiztera etorriko denaren aurrean. Ikuspen haregatik zorabiaturik (ia), leku lasaian edo azken epaiketako haranean ote nengoen ez nekiela, sarrakioa[461] sartu zitzaidan, eta ozta-ozta eutsi ahal izan nion negarrari, eta ahotsa entzun nuela uste nuen (edo, agian, entzun ote nuen?), eta fraidegai izan nintzeneko nire haurtzarodanik neurekin neramatzan ikusitako haiek ikusi nituen, liburu santuak lehenbiziz irakurri nituenekoak, eta Melk-eko korrtxilan gauezko meditazioak egiten nituenekoak, eta nire sen ahul-ahul eta malkalduen eldarnio[462] haretan, ahots sendo bat aditu nuen, turuta batena lakoa, zioena «ikus dezazun oro, idatz ezazu liburu batean» (eta oraintxe ari naizena da), eta zazpi urrezko argiontzi ikusi nituen eta argiontzien erdian gizakiren ume bezalako Bat, bularrean urrezko zerrenda bat lotua, burua xuria[463] eta adatsa artile xuria laso, begiak gar gorien antzekoak, oinak sutegian[464] urturiko brontze antzo, ahotsak uholdeko ur-burrrunba zirudien, eskuineko eskuan zazpi izar eta aho biko ezpata ahorean ateratzen zitzaiona. Eta zeruan ate bat zabalik ikusi

461 Sarrakio: pavor, terror
462 Eldarnio: delirio
463 Xuri: (H. “cándida”)
464 Sutegi: fragua

nuen eta haretan eserita zegoen Hura jaspe[465] eta sardonizezko bezala iruditu zitzaidan, eta ortzadar batek jargoia inguratzen zuen, eta jargoirean txismistak eta ihurtzuriak sortzen ziren. Eta Jarriak igitai zorrotz bat hartu zuen eta oihu egin: «Iraitz ezazu igitaia eta moztu egizu, moztaldia iritsi da, lurreko uzta heldurik dago eta.» Eta eserita zegoen Harek igitaia lurrera iraitzi zuen eta lurra moztua geratu zen.

Orduan ulertu nuen, ezen, ikuspen hak abadian gertatzen zenaz, hala egia[466], ele egiten zuela, Abadeak orduantxe esan zigunaz jakin genuenaz, hain zuzen… Eta zenbat aldiz, hurrengo egunetan, atalde hura begiestean, bertantxe jaulkitzen ziren gertakariak berrikusten nituen. Eta zertarako eta zeruko sarraski[467] sekulako baten lekuko izaiteko haratu ginela ulertu nuen.

Ikaratu nintzen, dardaratu nintzen, neguko euri hotz-hotzak bustirik bezala. Eta beste ahots bat entzun nuen, nire ikuspenaren erdialde itsugarritik[468] ez zetorkidana hau, nire bizkarraldetik baizen eta ez zen bestea lakoa, lurrerrean

465 Jaspe: nabarri, mármol / Sardonize: sardonice (harribitxia) (H. “sardónica”)
466 Hala egia: efectivamente, ciertamente
467 Sarraski: matanza (H. “carnicería”) (+Hau itzultzen ari naizela sarraskia Gazan gertatzen ari da, Israelgo naziek egina)
468 Itsugarri: (H. “deslumbrante”)

sortzen zen, eta, areago, ikuspena urratzen zuen, zeren, Gilenek berak ere (orduan berriz ere hantxe zegoela ohartu nintzen) ordura arte begiestean galdurik zegoenak, nik egin legez, burua bihurtu zuen.

Gure gibelean zegoen izakiak fraide zirudien, tunika zikin-urratuak eskekoaren[469] itxura zemaion arren, eta haren aurpegiak nik kapiteletan[470] ikusi berri nituenen oso bestelakoa ez zirudien. Nire anaiarik askok ez bezala nik ez dut inoiz deabruaren ikustaldia ukan, alabaina noizbait ager balekit, agindu jainkotiarragatik bere izaera guztiz estali ezinean, gizaki-itxuran agertu nahi balu ere, orduantxe gure gibelean zegoen haren hazpegiak eta ez besteak erakutsiko lizkidakeela uste dut. Burua soildua, zeharo murritza, ez, ordea, penitentziagatik, sakoneko ekzema likatsu baten ondorioagatik baizen, bekokia hain laburra buruan ilerik ukan balu bekaineko ilearekin nahasian ukan zukeen, bekain lodi eta iletsuak bai harenak, begiak biribilak, ninikak[471] ttiki bezain urduriak eta begirada ez dakit iñoxoa edo gaixtoa, edo, beharbada, batzuetan iñoxo eta beste batzuetan gaiztakeriaz betea. Sudurra, honela esatearren, begien artean hezur bat nabarmentzen zitzaiolako, batean aurpegian

469 Eskeko: vagabundo (eskale, alderrai...)
470 Kapitel: capitel
471 Ninika: pupila, betsein

azaleratzen bestean barreneratzen zitzaion, eta bi zulo beltz besterik ez zen, leze antzo, ilez estalita. Ahoa, sudur-zuloei orbain antzeko arrail[472] batez lotua, haundia eta xatarra[473], eskuin aldean ezker aldean baino zabalagoa, beheko ezpainik ez, goiko ezpaina, aldiz, lodi, mardul, irtena, eta bien artean, hortxe-hantxe, hortz beltz zorrotz batzuk agerian-estalian, zakurrarenak bezalakoxeak.

Gizon hak irri egin zuen (edo nik hala uste) eta, admonizio batean bezala hatza goraturik, esan zuen:

—Penitenciágite! ¡Vide cuando draco venturus est a rodegarla el alma tuya! Herio gu baitan dago! ¡Ruega que vinga lo papa santo a liberar nos a malo de tutte las peccata! ¡Ah, ah, vos pladse ista nigromancia de Domini Nostri Iesu Christi! Et mesmo jois m'es dols y placer m'es dolors… ¡Cave il diablo! Semper m'aguaita en algún canto para adentarme las tobillas. ¡Pero Salvatore non est insipiens! Bonum monasterium, et qui si magna et si ruega dominum nostum. Gainerakoak ez du fitsik balio. Et amen. Ez?

Nire jaulkipen honetan geroago ere, eta heuragitan, gizaki hori aipakatu beharko dut, eta horren hitzak transkribatu, hitzaldatu. Aitor dut hori egiteko zailtasun

472 Arrail: raja (H."cicatriz") (Orbain)
473 Xatar: (H. "grosera")

handia dudala, zeren, ezin baitut orain azaldu eta orduan ere gauza izan ez bainintzen harek ziharduen hizkuntza zelako ote zen ulertzeko. Latina ez zen, abadiako gizon landuek erabilitakoa, alta bada, ez zen, halaber, lurralde haietako hizkuntza arrunta, ez nik inoiz entzundako beste bat ere. Aurreko zati hori, orduan entzun nizkion lehen hitzak bildu ditudan hori (gogoratzen dudan bezala), nire ustez, haren hizkera mordoiloaren lagin[474] xume bat baizik ez da. Geroago haren bizitza zorigaiztokoa jakin nuenean, eta bizi izan zen hainbat lekuren, inon sustrairik egin bage, berri jasorik, Salbatorek hizkuntza guztiak bai eta bakar bat ere ez zekiela ulertu nuen. Beraz, berak aldamenean entzun eta erabilitako hizkuntzen adabakiez[475] bere hizkuntza bera asmatu zuela… Eta, behin[476], beraren hizkuntza adam-darra, mundua sortu zenaz geroztik eta Babel Dorrera artean gizateria guztiak, hizkuntza bakarraz baturik zoriontsu, egin izan zuena ez zela pentsatu nuen, ez eta lehenbiziko eguneko babeldarra ere, bananketa deitoragarria[477] gertatu berri zenekoa, alderantziz, hasierako nahasmen aldiko hizkuntza bera, hain zuzen, baizen. Gainerantzean[478], ezin

474 Lagin: muestra
475 Adabaki:: remiendo, petacho
476 Behin: una vez (H. “en cierta ocasión”)
477 Deitoragarri: deplorable (H. “funesta”)
478 Gainerantzean: por lo demás

esan dezaket Salbatoreren mintzaira hizkuntza zenik, zeren, giza-hizkuntza orok bere arauak baititu, eta hitz bakoitzak *ad placitum* zera bat esan nahi du, hots, gizakiak zakurrari orain zakur eta gero katu ezin diezaioke dei, eta ezin dagike hots bat jendeak itunduriko esanahi edo zentzu jakin bat ez badu, adibidez norbaitek «blitiri» esango balu bezala, inork zer den ez jakinki. Hala ere, gaizki edo ongi, bai nik bai besteek Salbatorek esan nahi zuena ulertzen genuen. Argi zegoen, beraz, hizkuntza bakarra ez guztiak baizik erabiltzen zituena, eta zuzenka bakar bat ere ez, hitzak behin hor behin han hartzen zituelarik. Ohartu ere banintzen, geroago, gauza bat batzuetan latinez esaten zuela eta beste batzuetan proventzeraz, eta ulertu ere ez zuela esaerarik asmatzen, inoiz entzundako beste esaera batzuetako *disiecta membra*[479] erabiltzen zituela, egoera nolakoa eta zer noiz-nola esan nahi zuen, janari batez, esaterako, mintzatzean janari hori jandako lagunek erabili hitz ber-berak egin ahal balitu bezala, edo bere alaitasuna adiaraztearren lagun alaiei entzuniko hitzez mintza ahal balitz bezala, bera pozaldian egonik. Elestatzean[480], bere hizkera bere aurpegieraren heinekoa eta berau besteen aurpegien zatiez osatua bailitzan, edo lekurean batzuetan ikusi nituen erlikia oso bitxi batzuk

479 Disiecta membra: «dislocados miembros» “Atal trokatuak”.
480 Elestatu: platicar, hablar, conversar

beste gauza sakratu batzuen zatiez eginak bezala (*si licet magnis componere parva*[481], edo deabruzkoak jainkozko gauzekin). Lehen aldiz ikusi nuenean, nahiz aurpegieragatik nahiz mintzaeragatik, Salbatore ez zitzaidan ezberdin iruditu, ataldean ikusi berri nituen izaki nahasien aldean, ileez eta azkazalez beteak. Geroago, gizon hura agian bihotz on eta asmo onen peitu[482] ez zela ulertu nuen. Eta are geroago… Goazen, alta, banan-banan. Izan ere, hitz egiten amaitu zuenean, nire maisuak jakin-min larriz itaunketan egin zion, briu-brau[483].

— Zergatik esan duzu penitenciágite? –galde egin zion.

— Domine frate magnificentisimo –erantzun Salbatorek gurpen antzeko zerbait egiteaz batera–. Jesús venturus est et los homines debent facere penitentia. Ez?

Gilenek adi-adi begiratu zion:

— Honatu aurretik fraide tikien komentuan egon al zinen?

— No intendo.

481 «tikia handiarekin erkatzea zilegi bada». Virgilioren lehen Eglogako esaldi baten antzekoa, Mantuako eta Erromako olerkariak erkatzean, baina hemen aldatuxea dago: «sic parvis componere magna solebam», «hala handia tikiarekin erkatzen zuen». Eta, doi-doi berdina, beste era batez ordea, Virgilioren beraren esaldi batean Georgikoak-en IV, 176: «si parva licet componere magnis».

482 Peitu: falto, carente (ad.- diruren peitu da)

483 Briu-brau: rápida y decididamente (H. “se apresuró a”)

— Frantzisko Deunaren lekaideen artean bizi al zinen galdetzen dizut, ea apostoluak edo bidaliak ezagutu al dituzun.

Salbatore zurbil-zurbil jarri zen, edo, hobeki esanda, haren begitarte beltxarandua eta piztia-karakoa[484] nabartu zen, arre bihurtu zen. Erreberentzia sakon bat egin zuen, ia-ia entzun ez zen *vade retro* bat ahoskatu, aitaren egin zuen, debozioz, eta ihes, txitean-pitean[485] gibelera soz, kokotsa lepoan[486].

— Zer galdetu diozu? –itaundu nik. Gilen gogoetan geldi, une batez.

— Ez ziok axola, geroago esango. Orain, sar gaitezen. Ubertino ikusi nahi diat.

Sesta zeritzon orduaz gerotto zen. Eguzkia, zurbil, ekialdetik sartzen, beraz, leiho guti eta estu batzuetatik. Argi-sorta mehe batek aldare nagusia joiten zuen, eta beronen aitzinaldeak urrezko dirdira bat islatzen zuela zirudien. Alboetako sarguak ilunpetan murgildurik zegozen.

---

484 Piztia-karakoa: aspecto de animal fiera (H.“animalesco”)
485 Txitean-pitean: a cada paso, de tanto en tanto.
486 Kokotsa lepoan (Euskal esaera zaharrak “bizarra lepoan” dio, beldurrez atzera begira doanaz.)

Azkenengo kaperaren ondoan, aldarera baino lehen, ezkerreko habeartean[487] zutabe segail[488] bat goititzen zen, eta honen gainean harrizko birjina bat, tankera modernoz zizelkatua, irribarre adiarazezina[489], sabel irtena[490], haurra besoetan, txukun[491] jantzia, bularraldea gorontz[492] argal[493] batez lotua. Birjinaren oinetan, otoitzetan, ahuspeztua abantzu, balderna klunitarreko[494] janzkera zuen gizon bat zegoen.

Hurbildu gintzaizkion. Gure oinotsak entzunik, gizonak begitartea goratu zuen. Senton[495] agurgarria zen, aurpegi bizarge[496], ia burusoil, begi urdin handiak, ezpain mehe gorriak, azal xurixta[497], kaskezur hezurtsu azal itsatsia esnetan gorderiko momia laso[498]. Eskuak zuriak zeduzkan, hatz luze eta meheekin. Heriotza goiztiarrak zimeldu neskatxa zirudien. Gugan begirada pausatu zuen, galdua

487 Habearte: nave
488 Segail: gracil, esbelto
489 Adiarazezin: inefable, inexplicable
490 Irten: prominente / salir
491 Txukun: (H. “graciosamente”)
492 Gorontz: corpiño
493 Argal: delgado, fino, tela transparente...
494 Klunitar: cluniacense (Borgoñako Cluny herriko balderna edo komentua, Benito Deunaren arauak betetzen zituztenena).
495 Senton: agure
496 Bizarge: (H. “lampiño”) (Bizar+bage)
497 Xurixta: (H. “nívea”)
498 Laso: bezala(ko)

hasieran, lilurazko ikuspen bat eten bagenio bezala, eta gero begitartea arraitu[499] zitzaion, alaitasunez argitu.

— Gilen! –hots egin zuen–. Anaia maite-maite hori! –Nekez jaiki zen eta nire maisuarengana jo zuen, besarkatu zuen eta ahoan musu eman zion–. Gilen! –esan zuen berriro, eta malkoek haren begiak busti zituzten–. Aspaldiko! Oraindik, baina, ezagunesten[500] zaitut! Zeenbat denbora, zeenbat gauza gertatu izan den! Zeenbat proba ezarri digun Jaunak!

Negar egin zuen. Gilenek besarkada itzuli zion, nabarmen hunkitua[501]. Gure aurreko gizon ha Ubertino da Casale zen.

Haretaz entzuna nintzen, eta askotan, Italiara baino lehenago ere bai, eta are gehiagotan gorte inperialeko frantziskotarretan usu ibili izan nintzenaz[502] gero. Norbaitek esan zidanez, gainera, garaiko olerkaririk gorena zen Dante Alighieri, Florentziakoa, urte guti lehenago hildakoa, olerki bat (nik irakurri ezin nuena Toskanako herri hizkera arruntean idatzita baitzegoen) zeruko eta lurreko gaiak hartuz osatuta zegoen, eta beronen bertsoetarik asko Ubertinoren *Arbor vitae crucifixae*-ko perifrasi batzuen

499 Arraitu: iluminarse por alegría, animarse (Alaitu)
500 Ezagunetsi: reconocer (N)
501 Nabarmen hunkitua: (H. “visiblemente conmovido”)
502 NintzenAz gero: … eta gero / NintzenEz gero: nintzelako (N)

zatiak omen ziren. Eta hau ez zen gizon ospe handiko harek erakusten[503] zuen meritu bakarra. Alta bada, irakurle horrek agian hobeki uler dezakezu, une haren garrantzia hala egia, urte haietan gertatutakoa berriz ere gogorarazten badut, Italiako erdialdean laburraroan egon nintzeneko oroitzapenak oinarri, orduan nire maisuak behin edo behin esandakoak gomutan, eta gure ibilaldi luzean abade-fraideekin izan zituen solasaldietan entzun ukan nuen oro burutara ekarriz.

Ulertu nuena azaltzen ahaleginduko naiz, gai horietaz ele egiteko nire gaitasunaz zalantzan jarrita banago ere. Melk-eko nire maisuek maiz esanda, zaila omen zen ipartarrentzat[504] Italian jazoriko erlijio zein politika arazoen ongi ulertzea.

Penintsula haretan, non erlijiosoen ahalgoa beste inon baino nabarmenagoa baitzen, eta elizgizonek beste ezein herrialdetan baino askoz botere eta aberastasun handiagoa erakusten zutenean, bi mendetan guttienez biziera txiroago baten aldeko gizonen mugimendua sortua zen, apez ustelekin liskarretan. Hauengandik sakramanturik ere jaso nahi ez zuten eta euren arteko elkargo burujabeak osatu

503 Erakutsi: (H. “ostentar”)
504 Ipartar: nórdico

zituzten, herri-jaunek, inperioak eta hirietako nagusiek gaizki ikusten zituztenak.

Azkenik, Jaun Done Frantzisko iritsi zen, eta txirotasunari maitazarre[505] predikatu zuen, Elizaren agintzen[506] aurkesana[507] ez baitzen; haren lanari esker, Elizak ohituretan zorroztasun larriagoa onartu zuen, aurreko mugimenduek galdatu[508] bezala, eta gai eztabaidagarri batzuk xahutu[509] zituen. Hala, bada, garai berri bat sortuko zen, barealdi eta santualdi modu bat, baina frantziskotarren balderna handituz eta gizonik onenak erakarriz zihoanez, ahaltsuegi bihurtu zen, eta lurreko arazoei atxikiegi, eta, ondorioz, frantziskotar ugarik hasierako araztasun jatorrizko haretara itzultzeko beharra erabatzi[510] zuen. Erdiestea zaila zen, ni abadian nengoen garai haretan, pentsa, baldernak hogeita hamar mila lagun baino gehiago zedukan, mundu osoan barreiaturik. Alabaina, halakoak hala[511], eta Frantzisko Deunaren elkargoko fraiderik askok baldernaren arauari uko egiten zion, edo ihardetsi[512], zergatik eta, bere eritziz,

505 Maitazarre: maitasun (Gora+zarre, bat+zarre...)
506 Agintza: mandato (H. “precepto”)
507 Aurkesan: (aurka+esan)
508 Galdatu: eskatu (Eskatu naiz/natzaio… Euskara zaharrean ohikoa)
509 Xahutu: garbitu (H. “purificar”)
510 Erabatzi: proponer a solucionar, hacer decidir (H. “plantear”) (N) (ikusi-erakutsi / egotzi-eragotzi / jauzi-erau(t)zi /...)
511 Halakoak hala: así estaban las cosas
512 Ihardetsi: contestar, replicar (H. “impugnar”)

hasieran berriztatu nahi zituen erlijio-erakunde haien antzera jarduten zuelako. Eta Frantzisko bizi zela ere, halako makurra gertatua izan zela esaten zuten, eta haren hitzak zein asmoak salduak izan zirela. Orduan haietako askok eta askok liburu bat berraurkitu zuten. XII. mendearen hasieran, lekaide zistertar batek, Joakin izenekoak, profezia-gaitasuna zuela ziotenak idatzi zuena. Zinez[513], lekaide harek garai berri baten etorrera igarri zuen, Kristoren espirituan, berau orduan aspaldi apostolu faltsuengatik usteldua baitzen, kutsatua baitzen, eta berriz ere lurbiran nagusituko zela iragarri zuen. Eta iragarri zituen epeak aditurik, argi zirudien frantziskotarren ordenari zegozkiokeela, ezagutu ez arren. Honek frantziskotar ez guti alaitu zuen, beharbada gehiegi, zeren, mendearen erdialdean, Parisen, Sorbonako doktoreek Joakin abade haren esanak kondenatu baitzituzten. Dirudienez, hala ere, frantziskotarrak (eta domekatarrak) ahaltsuegi bilakatzen ari zirelako izan zen, jakintsuegi, Frantziako unibertsitatean batik bat, eta deuseztatu nahi zituzten, herexetzat salatuaz. Ez zuten lortu, eta Elizarentzat hobe, zeren, hala Akinoko Tomasen eta Bagnoregioko Buenaventuraren idazkiak hedatu ahal izan baitziren, fedetsai edo heretikorenik zipitzik ez zutenak biak. Ikus

513 Zinez: egiaz, benetan (H. “en efecto”)

daitekeenez, bada, Parisen ere eritziak oker, edo norbaitek okertu nahi bere onurarako. Hauxe, beraz, fede galdukeriak herri giristinoari egiten dion kaltea: eritzien nahas eta uhertzea[514], eta guztiak inkisidore izaitera bulkatzea, nor bere onurarako. Izan ere, geroago abadian ikusi nuenak (dagiokionean esango dudana) pentsarazi dit, ezen, sarritan inkisidoreek berek dituztela heretikoak sortzen. Ez direnean irudikatzen dituztelako ez ezik, herexe ustezkoen ustelari jazarteko usatzen duten indarkeria edo larderia hain lazgarria izanik pairatzen dutenak herexeekin nahastera bultzatzen dituztelako ere bai, jazarleei hartzen dieten gorrotoagatik. Benetan tusuriak, deabruak ez luke hobeto asmatuko, Jaungoikoak lagun gaitzala!

Alta bada, heresiaz ari izan naiz (baldin inoiz ba ote zen) joakindarraz[515] zehazki. Toskanan frantziskotar bat bazen Gerardo da Borgo San Donnino, Joakinen iragarpenak berrizkatzen joan zena, fraide tikien artean hunkidura handia sorraraziz. Hala hauen artean lege zaharrari eusten zion talde bat bazegoen, Buenaventura handiak egin nahi zuen berrantolakuntzari aitzi[516]. Berau geroago ordenako nagusi orokor izaitera iritsiko zen. Aurreko mendearen azken

514 Uhertu: enturbiar / corromper
515 Joakindar: joaquinista
516 Aitzi: aurka

herenaldian, Lyon-go kontzilioak frantziskotarren baldernak erabiltzen zituen ondasun guztien jabetza eman zion, balderna ezabatu nahi zutenen aitzinean hura salbatu zuelako, beste balderna zaharragoek eskubide bera zuten arren. Orduan, Marka batzuetako lekaide batzuk asaldatu ziren eta matxinatu, zergatik eta, hala eginez ordenaren arautegia, espiritua bederen, behin eta betiko galduaraziko[517] zela uste zutelako; izan ere, frantziskotar batek ezin dezake beretzako ezer eduki, ez berak, ez komentuak, ez baldernak. Matxino haiek bizitza osorako kartzeleratu zituzten. Nire ustetan, ez zuten ebangelioaz besteko deusik predikatu, baina lurreko ondasunen jabegoa jokoan denean, zaila da gizonek zuzentasunez arrazoi dezaten. Esan zidatenez, urte batzuk geroago, baldernako nagusi berriak, Raimondo Gaufredi, preso haiek Anconan aurkitu zituen, askatu egin zituen eta esan omen zuen: «Nahi zukeen Jaungoikoak gu guztiok eta balderna guztia horrelako erruaz zikindu izan bagina». Honek argiro darakutsa heretikoek esaten dutena egia ez dela, eta Elizan oraino bertute handiko gizonak dagozela.

Askaturiko preso haien artean Angelo Clareno, geroago Proventzako fraide Pietro di Giovanni Olivirekin

517 Galduarazi: echar a perder (H. “traicionar”)

bat egin zuena, beronek Joakinen profeziak hedatzen baitzituen, eta are geroago Ubertino da Casalerekin, eta hala espiritualen mugimendua sortu zen. Garai haietan Pietro da Marrone, padar[518] santu-santua jargoi gorenera[519] igo zen, eta Zelestin V.a izeneko Aitasantu izan zen, eta espiritualek lasaigarri handiz hartu zuten: «Santutzar bat agertuko da, esana zegoen, Kristoren irakaspenei jarraikiko zaiena; haren biziera aingeruzkoa izanen da, ikara zaitezte, bada, elizjaun[520] ustelak.» Agian Zelestinen bizimodua aingeruzkoegia zen edo inguruan zeduzkan elizjaunak ustelegiak edo bizialdia luzeegia enperadore eta Europako beste erregeekin gudukatzeko. Nola nahi zen ere, Zelestinek Aitasantugoa utzi zuen eta harzara[521] parrau bizitzera baztertu zen. Hala ere, haren erregealdi laburrean, urtebetera luzatu ez zena, espiritualen itxaropen guztiak askietsita[522] geratu ziren: berarengana ziren eta haiekin *fratres et pauperes heremitae domini Celestini*[523] izeneko erkidegoa osatu zuten. Beste aldetik, Aita Santuak Erromako kardinal ahaltsuen artean bitartekari[524] egin behar zuenean, haietako

518 Padar: parrau, eremita
519 Jargoi goren: (H. “solio pontificioa”)
520 Elizjaun: (H. “prelado”)
521 Har(t)zara: atzera, berriz ere, beste behin, berriro...
522 Askietsi: satisfacer, dar por suficiente (Nahikoetsi...)
523 «Zelestin jaunaren anaia eta padar txiroak».
524 Bitartekari: intemediario, mediador

batzuek, Colonna edo Orsini besteak beste, isilpetik, joera berriak babestu zituzten, txirotasunaren aldekoak –jarrera harrigarri samarra hainbat aberastasun eta erosotasunen artean bitsaren gainean[525] bizi ziren gizon ahaldunen baitan–, eta inoiz ez dut jakin ahal ukan espiritualak beren zuduak erdiesteko erabiltzen ote zituzten, soilik, edo espiritualen aldeko jarrera nolabait beren bizimodu lizun gehiegikeriaz asea txurizkatzeko[526] era bat ote zen… Beharbada, bietarik zerttobait, nik italiarren arazoak ulertzeko gaitasuna dudanez. Adibide on bat, Ubertino, hain zuzen: espiritualen artean pertsonarik nabariena bilakatu zelako herexiagatik salatua izaiteko arriskuan zegoenean, Orsini kardinalak bere jauretxeko erremusinari[527] izendatu zuen. Kardinal berak Avignon-en lehen ere babestu zuen.

Hala ere, gerta ohi bezala, Angelok eta Ubertinok dotrinari atxikiz predikatzen zuten, alde batetik, eta beste aldetik, ments[528] andana handiek prediku horiek jaso eta herrialdean zehar hedatzen zuten, inolako ganora[529] bage. Honela, beraz, Italia *fraticelli*z edo bizitza txiroko fraide esaten zietenez lepo bete zen, jenderik askok arriskugarritzat

525 Bitsaren gainean: esne mamitan, “a todo placer”
526 Txurizkatu: justificar
527 Erremusinari: limosnero
528 Ments: falto de (inteligencia), carente, defecto... (H.“simple”)
529 Ganora: fundamento, seriedad (H. “sin control”)

hartu zituenak. Zaila zen, bada, bereiztea, alde batetik maisu espiritualak, Elizako agintariekin harremanak zituztenak, eta beste aldetik haien jarraitzaile burugeenak[530], beti baldernatik at bizi zirenak, ordurako, amoin eskean eta egunean-egunean haien eskuzko lanez jasoten zutenaz bizi zirenak, ezelako[531] jabetzarik bagekoak. Eta jendeak honelakooi *fraticelli* esaten zien, begardo[532] frantsesak bezalakoak ziren, Pietro di Giovanni Oliviren baitan aburu harturik[533].

Zelestin V.a Bonifacio VIII.ak ordezkatu zuen, eta Aita Santu honek laster oso larderiatsu[534] hartu zituen bai espiritualak bai *fraticelli*ak oro har: mendea amaitzerakoan, hain zuzen, bulda bat izenpetu zuen, *Firma cautela*, eta frantziskotarren inguruan zebiltzan tertziarioekin noharroin[535] eskaleak kondenatzen zituen, ukaldi[536] batez, eta espiritualak berak ere bai, baldernako bizitzatik parrau bizitzera bazterreratzen zirenak ere halaber.

530 Buruge: buru+bage (burubako, ments, ganorabako)
531 Ezelako: inolako (Zelako: nolako / Ezela(n) ez: inola ez /...)
532 Begardo: begino (lekaide txiro batzuen mota bat)
533 Aburu hartu: inspirarse en (ideia hartu) (N)
534 Larderiatsu: oso zorrotz (H. “etxrema severidad”)
535 Noharroin: vagabundo, menesteroso
536 Ukaldi: kolpe

Handik hara, espiritualek beste Aita Santu batzuengandik, Klemente V.a bat, baldernatik ateratzeko eta ez era mutiritsuz[537], baimena erdietsi nahi ukan zuten. Lortuko zutela uste dut, Joan XXII.a iritsi ezean, beronek haien itxaropen guztiak galarazi[538] baitzituen. 1316an hautatutakoan, Siziliako erregeari idatzi zion honen lurretan babes harturik zegozen fraideak kanpora bidal zitzan. Halaber, Angelo Clareno eta Proventzako espiritualak atxilotzeko agindu zuen.

Ez zen egiteko erraza izan, antza, eta kurian berean ere oztopoak aurkitu zituen. Azkenik, Ubertinok eta Clarenok balderna uzteko baimena lortu zuten, hala egia[539], eta beneditarrek hartu zuten, lehena, eta zelestindarrek bigarrena. Joanek, ordea, ez zuen gupidarik ukan bizitza askea zeramaten haiekin: inkisizoak jazar zitzan bultzatu zuen eta haietako beredin su-metan azkendu zen.

Hala ere, *fraticelli*en belar gaiztoa erauztearren, Elizaren nagusitasuna azpitik jaten baitzuten, beraien fedearen oinarri ziren proposizioak ezabatu edo kondenatu behar zituela ulertu zuen. Haien esanetan, ez Kristok ez apostoluek zuten inoiz eduki, ez elkarrenik ez norbererik

537 Mutiri: violento, agresivo
538 Galarazi: impedir, frustrar
539 Hala egia: así es que, lo cierto es que / Alegia

inolako jabetzarik, eta Aita Santuak aburu hau kondenatu zuen, heresia zelakoan. Harritzekoa baita, zeren, nolatan eritz diezaioke gaizto Aita Santuak' Kristo txiro izan zelako aburuari? Urtebete lehenago, baina, Perusan frantziskotarren kapitulu orokorra bildu izan zen, eta aburu hori, hain zuzen, onartu zuten; beraz, lehenak kondenatzeaz Aita Santuak azken hau ere kondenatzen zuen. Esan dudan bezala, kapituluaren erabaki harek kalte handia egiten zion enperadorearen aurkako borrokan. Harez geroztik, bada, *fraticelli* ugari, inperioaz edota Perusakoaz ezer ez zekitenak kiskalita hil ziren.

Ubertinori begira nengoen bitartean, kondairazko pertsonaia hari, horretaz guztiaz gogoeta nengien. Nire maisuak aurkeztu nindukion[540] eta agureak masaila ferekatu zidan, esku berotsuaz, ia erregarriaz. Esku haren ukituak harako gizon santu haretaz entzundako hainbat gauza ulertzera eman zidan, eta *Arbor vitae*-ko orrialdeetan irakurri beste batzuk ere bai. Ulertu nuen gaztetatik kiskali zuen su mistikoa, Parisen oraino orduan ikasle zelarik, aburuketa[541] teologikoetatik baztertu baitzen, Madalena

540 Nindukion: ni hari hark (N)
541 Aburuketa: (H. "especulaciones") (N)

penintentziagile bihurtzen zela uste izanik; eta Angela da Foligno andere santuarekin ukan zituen harreman sakonak ere ulertu nituen, andere horrek biziera mistikoko altxorretan barrena eta gurutzearen gurtzapenetan hasarazi[542] batzuen; eta ulertu ere nik zergatik haren gainekoek[543], haren predikuaren sutsuagatik kezkatuak, atzera Vernara bidali zuten.

Hazpegi[544] leun-leunezko[545] begitarte hura azterkatu[546] nuen. Izan ere, hazpegi haiek harako andere santu harenak bezalakoak ziren, zeinarekin hain sutsu-sutsuki[547] espiritualak ziren sentimenduen harreman haurridezkoak[548] ukan zituen. Senak eman zidan[549], ezen, hazpegi hagitz gogorragoa agerrarazten jakinen zuela, noiz eta, 1311n, Vienneko kontzilioak *Exivi de paradiso* hedatzera eman[550] zuenean, beronek espiritualen etsaiak ziren frantziskotar buruzagiak kentzen baitzituen, baina espiritualoi baldernaren barruan baketan bizitzeko

542 Hasarazi: iniciarle, hacer le que empiece… (Hasi+arazi)
543 Gaineko: superior -agintari, buruzagi-
544 Hazpegi: rasgos faciales
545 Leun: (H. “delicado”)
546 Azterkatu: escrutar, examinar
547 Sutsu: (H. “exaltadamente”)
548 Haurride: hermano (H. “fraternales”)
549 Senak eman: intuir
550 Hedatzera eman: emitir (erabaki bat, e.a.)

beharkizuna ezarten zielarik. Ukapenaren garaitzaile[551] harek ez zuen onartuko harako ebazpen zentzuzko hura eta balderna burujabe baten osaketaren alde borroka egin zuen, araurik zorrotzenetan oinarritua. Orduko eraldi[552] haretan borrokalari handi harek borroka galdu zuen, zeren, orduantxe Joan XXII.ak Pietro di Giovanni Oliviren jarraikileen aurkako gudutara deitu baitzuen (horien artean hura sartua zuten) eta Narbona eta Béziersko fraideak kondenatzen zituen. Alabaina, Ubertinok bere adiskide haren oroitzapena defendatzeko zalantzarik ez zuen izan Aita Santuaren aitzinean, eta berau, haren santutasunagatik xoratua[553], ez zen kondenatzera ausartu (geroago besteak kondenatu zituen arren). Orduko eraldi haretan ihes egiteko bide bat eskaini zion, klunitarren baldernan sar zedin aholkatuz, eta geroago aginduz. Ubertino, antz[554] ahul eta babesge[555] izanagatik ere, iaio-iaioa izango ahal zen Aita Santuaren gorteko zeinbait pertsonaiaren geriza[556] eta gogaidetasuna[557] bereganatzeko, eta Flandriako Gemblacheko monastrioan sartzea onartu zuen; nik uste dudanez,

551 Ukapenaren garaitzaile: (H. “campeón de la renuncia”)
552 Eraldi: (H. “ocasión”)
553 Xoratu: (H. “subyugado”)
554 Antz: aspecto (itxura)
555 Babesge: desprotegido (nik)
556 Geriza: sombra / amparo
557 Gogaidetasun: complicidad (buena), sintonía ideológica

baina, ez zuen inoiz zapaldu eta Avignon-en geratu zen, Orsini kardinalaren gerizpetan, frantziskotarren alde egiteko asmoarekin.

Azkenaldian, hala ere, soilik (niri heldu zurrumurru illunen arauera) haren egoera, gortean, hala-holakatu[558] zen eta Avignon-dik aldendu beharrean izan zen, zeren, Aita Santuak gizon menderaezin hari jazarteko agindua baitzuen, heretiko zelakoan, *per mundum discurit vagabundus*. Haren lorratza galdu omen zuten. Arratsalde haretan, Gilen eta Abadearen arteko elkarrizketa aditurik, abadia honetan ostendua zegoela jakin nuen. Eta orduantxe nire aurrean.

— Gilen –zioen–, gauaren beltzetan ihes egin behar ukan nuen, zeren, dakizunez, ni hil aginean baitzegozen.

— Nork ikusi nahi zintuen hilik? Joanek?

— Ez. Joanek ez nau inoiz maite izan, baina beti begirune izan dit. Sakonean, bera izan zen, duela hamar urte, auzia ekiditeko[559] aukera eskaini zidana, beneditarretan sartzera behartuz, honela nire etsaiak isilarazita. Zurrumurru ugari ibili zen, ironia ere erruz, isekak hala egia, txirotasunean nagusi zena Orsini kardinalaren gortean bizi zen balderna

558 Hala-holakatu: (H. “volverse precaria”)
559 Ekidin: (H. “eludir”)

oparo[560,] aberats batera sartzen zela eta… Gilen, zuk badakizu zein axola zaizkidan niri lurbira honetako gauzak! Hala, bada, Avignonen geratzea izan nuen eta nire anaiak defendatzea. Aita Santua Orsiniren beldur da; ez zen ausartuko niri eskurik ezartera. Orain dela hiru urte baino ez, Aragoiko erregearen aurreko mandatu[561] bat egiteko agindu zidan.

— Nork galdu[562] nahi zintuen, bada?

— Orok. Kuriak. Birritan ni erhaiten[563] saiatu ziren. Niri ahoa ixten saiatu. Badakizu zer gertatu zen duela bortz urte. Bi urte lehenago Narbonako begardoen kondena izan zen, eta Berengario Tallonik, auzitegiko kide izan arren, Aita Santuari hel egin zion. Une zailak ziren. Joanek espiritualen aurka bi bulda hedatzera[564] emanak zituen, eta Michele da Cesena bera amor[565] emanda zegoen… A, eta[566], noiz helduko da?

— Bi egun barru hemen izanen da.

---

560 Oparo: opulento
561 Mandatu: (H. “misión”)
562 Galdu: (H. “eliminar”)
563 Erho: matar, asesinar (Erhaile: asesino) (Erahil, hilarazi...)
564 Hedatzera eman: promulgar (N)
565 Amor eman: (V-oroz-m, G-to, L, BN-baig) (amorra). Cesión Condescendencia; consentimiento. "Fléchissement,
566 A, eta: por cierto

— Michele... Hain aspaldi ikusi ez baitut! Orain damutu zaio, zer nahi genuen ulertzen du, Perusako kapituluak arrazoi eman digu. Baina orduan, 1318an, Aita Santuari amor eman zion eta Proventzako bost espiritual, burua mendera eman nahi ez zutenak, atzemaitera[567] eman zizkion. Kiskaliak, Gilen… Oi, izugarria da!

Burua eskuen artean ostendu zuen.

— Baina, zer gertatu zen zehazki Tallonik hel egin[568] eta gero? –galdeka Gilen.

— Joanek eztabaida atzera ireki behar zuen, ulertzen? Egin behar zuen, zeren, kurian bertan ere ezbaian zegozen gizonak, izan, baitziren, kuriako frantziskotarrak ere hala… fariseoak, hilobi zuriztatuak, prebenda baten truke beren burua saltzeko gertuak, baina zalantza egiten zuten. Orduan eskatu[569] zitzaidan Joan niri txirotasunaz oroitidazki[570] bat egin nezan. Ederra izan zen, Gilen, Jaungoikoak barka diezadala harrokeria…

— Irakurri egin dut, Michelek erakutsi eta.

567 Atzeman: harrapatu, hatzitu... (Atzemaitera eman: (H. “entregar”)
568 Hel egin: apelar (Helegite: apelación)
569 Eskatu: euskara zaharrean, nor-nori (Eskatu zait: galdatu dit)
570 Oroitidazki: memoria, informe

— Batzuk ezbaian, enurarekin, gutarren artean ere bai, Akitaniako probintziala, San Vitaleko kardinala, Caffako gotzaina…

— Ergela –Gilenek esana.

— Har dezala atseden baketan, duela bi urte Jainkoak bere ondora deitu zion.

— Jaungoikoa ez zen hain errukitsu izan. Gezurrezko albistea zen, Konstantinoplatik etorria. Oraindik gure artean dago eta, diotenez, legazioko kide izanen da. Jainkoak zain gaitzala!

— Alabaina Perusako kapituluaren aldekoa da –Ubertinok.

— Bai, horixe. Bere etsaien defendatzaile sutsuak diren gizon mota horretakoa da.

— Egia erraiteko –aitortu zuen Ubertinok–, orduan ere arazorako[571] biziki eragingarria ez zen izan. Gainera, oro ezerezean geratu zen, baina aburua heretikoa zela ez zen ebatzi, bederen, eta hau garrantzizkoa zen. Besrtzeek, aldiz, ez zidaten inoiz barkatu. Alderdi guztietatik[572] niri kalte egiten saiatu izan dira. Sachsenhausen-en izan nintzela esan dute, duela hiru urte Ludovikok Joan heretikotzat aldarrikatu

571 Arazo: (H. “causa”)
572 Alderdi guztietatik: (H. “por todos los medios”) (N)

zuenean. Hala ere, uztailean Avignonen Orsinirekin nengoela denek zekiten... Enperadoreak esan zituenetarik batzuk nire aburuen isla zirela esan zuten, nolako zorakeria!

— Ez horrenbeste –Gilenek esan zuen–. Aburuak nik eman nizkion, zuk Avignonen esandakoa eta Oliviren zeinbait orrialde oinarri.

— Zuk? –hots egin zuen, harriturik eta pozik, Ubertinaok–. Baina horrela arrazoi niri demaidazu!

Gilenek nahasirik zirudien:

— Aburu onak ziren enperadorearentzat une haretan –esan zuen, iheskor antxo.

Ubertinok susmoz edo so egin zion:

— Ha!, beraz, zuk ez duzu uste egiazkoak direnik, ez da?

— Segi jaulkitzen –Gilenek berriro–, azal iezadazu nola atera zinen gaitz bage zakur haiengandik.

— Oi, bai, Gilen, zakur amorratuak! Bonagraziarekin berarekin borroka egin behar izan nuen, badakizu?

— Baina Bonagrazia da Bergamo gurekin dago!

— Orain, elkarrekin luzaz solastatu eta gero. Orduan soilik hartu zuen burutan[573] eta *Ad conditorem canonum*-en aurka protesta egin zuen, ixkurdu[574] egin zuen. Eta Aita Santuak urtebeteko kartzelara kondenatu zuen.

— Entzun dudanez, orain oso harreman onak ditu kurian dagoen nire adiskide batekin, Occam-go Gilenekin.

— Gutti ezagutu nuen. Ez dut gogoko. Ez du gogo bizirik[575], dena buru, bihotzik ez –Ubertino mintzo.

— Buru ederra, hala ere.

— Beharbada; inpernura eramanen duena, ziur aski.

— Horrela izanki, han behean jarrugiko dut, bai, eta logikaz eztabaida egingo dugu.

— Isildu, Gilen –Ubertinok atzera, irribarretsu eta maitakor–, zu zerorren filosofoak baino hobea zara. Zuk nahi izan bazenu…

— Zer?

— Gogoratzen duzu elkar ikusi genuen azken aldia, Umbrian? Ni neure gaisotasunetatik sendatuta atera berri

573 Burutan hartu: convencerse / Burutan eman: persuadir
574 Ixkurdu: contestación, disputa
575 Gogo bizi: (H. “fervor”)

nintzen harako emazteki liluragarri hari esker… Chiara da Montefalco... –aurpegia argiturik erasian[576] mintzo–, Chiara. Eme-izaera, berez maltzurra, santutasunez goresten denean, garaziaren ibilgailurik goren bihurtzen da. Zuk badakizu, Gilen, nola nire bizitza osoa kastitaterik huts eta aratzenak iradoki duen –mintzatzeaz batera besotik heldu zion, dardarati–, zuk badakizu zein… basa, bai, horixe da hitza, zein penitentzia egarri basaz saiatu izan naiz hiltzen beti niregan haragiaren taupadak, Jesus Gurutziltzatuaren maitasunean guztiz eta erabat garden[577] izan nadintzat… Honela ere, nire bizitzan hiru emazteki izan dira niretzat zerutiko mezulariak, Angela da Foligno, Margherita da Citta di Castello (nire liburuaren bukaera aurretik asmatu zidana, heren bat, ez gehiago, idatzita nuenean) eta, azkena, Chiara da Montefalco. Zeruaren oparia izan zen nik, nik neronek honen zuzen, haren mirarien ikertzea ene gain hartu beharra, eta haren santutasuna giza-oste[578] handien aurrean aldarrikatu beharra, Eliza ama santua higi[579] zedin baino lehenago. Eta zu hantxe zengozen, Gilen, eta egiteko santu haretan lagundu ahal izan zenidan, eta ez zenuen nahi ukan…

576 Erasian mintzatu: hablar murmurando
577 Garden: transparente
578 Giza-oste: muchedumbre humana (Gudari+oste/...)
579 Higitu: mugitu

— Baina ni gonbidatu ninduzun egiteko santu hura Bentivenga, Jacomo eta Giovannuccio sutara bidaltzea zen – Gilenek mintzo bareaz esan zion.

— Haien maltzurkeriez Chiararen oroitzapena lausotzen zuten. Eta zu inkisidore zinen!

— Eta orduantxe, haretan ere[580], nire eginkizun horietatik jaregin[581] nintzaten galdatu nuen. Arazoa ez nuen atsegin. Egiati izango natzaizu: Bentivengari bere makurrak aitorrarazteko baliatu zenuen aribidea[582] ere ez nuen atsegin. Beraren sektan sartu nahi zinelako itxurak egin zenituen, baldin sekta bazegoen, eta haren isilpekoak erauzi zenizkion eta atxilotzeko agindu zenuen.

— Kristoren etsaiekin horrela jokatu beharra dago eta! Heretikoak ziren, sasiapostoluak, sufre dultzindarraren[583] kiratsa[584] zerien!

— Chiararen adiskideak ziren.

— Ez, Gilen, ez ezazu zikin itzal battoz[585] ere Chiararen oroitzapena.

---

580 Haretan ere: precisamente
581 Jaregin: soltar, librar (Askatu)
582 Aribide: procedimiento (modu...)
583 Dultzindar: dulcinista
584 Kirats: hedor, mal olor
585 Batto: bat (tikigarriarekin)

— Bada, horren taldearen barruan ibiltzen ziren…

— Fraide tikiak ziren, berek espiritualak zirela erraiten zuten baina erkidegoko fraideak ziren. Zuk ongi dakizu ikerketaz gero argi geratu zena Bentivenga da Gubbiok bere burua apostolutzat zuela eta Giovannuccio da Bevagnarekin batera serorak limurtzen[586] zituela, inpernurik ez zegoela erranez, Jaungoikoa iraindu bage haragiaren irritsa[587] ase daitekeela, Kristoren gorputza (Jaunak barka!) lekaimerekin etzan ondorean har daitekeela, Jaunak Madalena' Ines birjina baino maiteago zuela, herri xeheak Txerren[588] esaten diona Jainkoa bera dela, zeren, Txerren jakintza da eta jakintza, hain zuzen ere, Jainkoa baita. Eta Chiara dohatsua izan zen, harako halakokeriak entzun zizkienaz gero, Jaungoikoaren ikuspena ukan zuena, non Jaunak berak esan baitzion ezen gizon haiek *Spiritus Libertatis*-en jarraikile gaiztoak zirela!

— Fraide tikiak ziren gogoa pizturik zutenak, Chiararen ikuspenek berek pizturik, eta askotan liluramenduzko[589]

586 Limurtu: seducir (limuri)
587 Irrits: deseo lascivo
588 Txerren: tusuri, demonio, deabru
589 Liluramendu : (H. "extasis", "visión extática")

ikuspenetik bekatuzko nasaikeriara[590] urrats llabur batto baino ez da –ihardetsi zion Gilenek.

Ubertinok eskuak estutu zizkion eta bere begiak berriz ere malkoz lanbrotu[591] ziren:

— Ez erran hori, Gilen. Nolatan nahas ditzakezu liluramenduzko maitasun unea, erraiak erretzen dizkizuna, eta intsentsu edo kedatsaren lurrina[592] eta zentzuen aztoramendu[593] sufre zaporea duena? Bentivengak gorputz biluziak ukitzera kitzikatzen[594] zuen, honela eta ez bestela zentzuen inperiotik aska ahal gintezen, *homo nudus cum nuda iacebat*…

— *Et non commiscebantur ad invicem*...[595]

— Gezurrak! Atseginkeria bilatzen zuten! Haragiaren ziria[596] sumatzen zenean, baretzearren gizon-emakumeek elkarrekin etzatea, eta elkar ukika eta alde orotan musuka egitea, eta bataren sabel biluzia bestearen sabel biluziarekin batzea ez zuten bekatutzat hartzen!

590 Nasaikeria: (H. “desenfreno”)
591 Lanbrotu: gandutu, lausotu (H. “velar”)
592 Lurrin: urrin : perfume
593 Aztoramendu: (H. “desarreglo”)
594 Kitzikatu: incitar
595 «gizonezko biluzia emazteki biluziarekin zetzan… eta ez ziren elkarrekin nahasten»
596 Ziri: (H. “estímulo”)

Aitor dut: Ubertinok besteen grina gaixtoak nola laidoztatzen zituen ikusteak ez ninduen gogoeta onetara, haretan ere, eraman. Nire maisuak, neure asalduraz oharturik, eiki, senton santu haren mintzaldia eten zuen.

— Gogo sutsua zurea, Ubertino, Jaungoikoaren maitazarrean bezala gaizkiaren gorrotoan ere bai. Nik esan nahi nuenez, Serafinen grinatik Luziferren grinara tarte motxa dago, izan ere, biak ala biak, nahikeriaren sutze erabatekotik[597] sortzen dira.

— Oi, bada diferentziarik, eta nik ezagutzen dut! – Ubertinok, goiargitsu[598]–. Zuk bertzerik erran nahi duzu, hots, gaizkia nahi eta ongia nahi izaitearen artean urrats motx batto dagoela, batean zein bestean nahikunde bera gauzatu behar da eta. Horixe baietz. Diferentzia edo aldea helburua da, eta helburu hori erraz da ezagutzen. Alde batean Jaungoikoa; bertze aldean Txerren.

— Beldur naiz, Ubertino, honez gero bereizten ez dakidala. Ez al zen izan zure Angela da Foligno egun batean, bahitura espiritual batez, Kristoren hilobia ikustera joan zela esan zuena? Ez al zuen esan lehenbiziz bularrean muin eman ziola eta gero etzanik begia itxita ikusi zuela, eta gero

597 Erabateko: (H. “extremo”)
598 Goiargitsu: inspirado

ezpainetan musu eman ziola eta ezpain haietatik hats egiten zuen leuntasunaren lurrin esanezinezko bat sumatu zuela, eta gero, geldiunetto baten ondoan, bere masaila Kristoren masailarri itsatsita ipini zuela, eta Kristok eskuz masaila ukitu eta bere masailaren ondora estutu zuela, eta, hala, esan zuen, bere atsegintasuna orduan goren-gorena izan zela?

— Zer du horrek zentzuen nasaikeriarekin? –galde Ubertinok–. Esperientzia mistikoa izan zen, eta gorputza Gure Jaunarena zen.

— Beharbada Oxford-era ohituegi nago, han esperientzia mistikoa bera ere bestelakoa zen.

— Oro buruan –esan zuen irribarretsu Ubertinok.

— Edo begietan. Jainkoa argitzat sentitua, eguzkiaren izpietan, ispiluetako irudietan, materiaren zatietan margoen hedaduran, osto hezeen gainetako argiaren isletan… Maitasun honek ez ote du Frantziskorenaren antz handiago, Jaungoikoa goresten duenean haren izaki, lore, belar, ur, aire goresten dituelarik? Ez dut uste honelako maitazarreak inolako zemairik dukeenik. Alderantziz, nik haragiaren ukiduretan sumatzen diren zarradak[599] Goi-goikoarekiko elkarrizketara daramatzan maitasunaz susmatzen dut…

599 Zarrada: (H: “estremecimiento”)

— Biraoak, Gilen! Ez da berdin, jauzi eskerge dago, beheranzkoa, Jesus Gurutziltzatua maite duenaren bihotzaren estasi eta Montefalcoko sasiapostoluen liluramendu ustelaren artean…

— Ez ziren sasiapostoluak, Espiritu Askeko anaiak ziren, zerorrek esana.

— Eta zelako aldea dago? Prozesu haretan zuk inoiz ez jakindako gauzak egon ziren. Ni nerau ere ez nintzen ausartu zeinbait aitorpen agirietan idaztera, zergatik eta nahi ez nuelako inondik inora hango egoera santua, Chiarak sorrarazia, zikintzerik. Baina, zelako gauzak jakin nituen, Gilen, nik jakin halako gauzak! Gauez etxabe batean elkartzen ziren, haur jaio berri bat hartzen zuten, eta batak besteari iraizten[600] zion, eta batak bertzeari, eta ukaldiz ukaldi… edo bertze zera batzuekatik, umea hil arte. Eta bizirik jasotzen zuen azkena, bere eskuetan hilotz, sektako nagusi bilakatzen zen… Eta haurraren gorpua urratzen zuten, larrua erazten[601] zuten, oro zarratatzen[602] zuten, eta irinarekin nahasten zuten, ostia biraotsuak ekoiztearren!

600 Iraitzi: lanzar, aurtiki
601 Eratzi: desgarrar la piel
602 Zarratatu: urratu

— Ubertino –esan zuen Gilenek amorrik eman bage–, horrelakoxe gauzak esan ziren, duela hainbat mende, apezpiku armeniarrez, pauliziarren[603] sektaz, eta bogomiloez ere bai.

— Zer axola? Deabrua txit baldarra da, bere zelatak eta liluramenduak beti era batera egiten ditu, menderik mende bere errituak berrizkatzen ditu, beti berdin, beti bera da. ¡Horregatik, bada, etsaia dena dakigu! Zin degizut kandelak isiotzen zituztela, Bazko gauean, eta neskatxak etxabera eramaiten zituztela. Gero kandelak iraungitzen zituzten, itzaltzen, eta neska haien gainera jauzi egiten zuten, beren artean odol-lotura izan arren… Eta besarkada haretatik haurrik jaioz gero, inpernuko erritu hura berriz ere hasten zen, guztiak upela bete ardoren inguruan, barrikaño[604] esaten ziotena alegia, oro hordirik[605], eta haurra zatika ebakitzen zuten, eta honen odola txola[606] batera isurtzen, eta haur biziak sutara egozten zituzten, eta odola umearen errautsekin nahisirik edaten!

603 Pauliziar: pauliciano (sekta bat)
604 Barrikaño: (H. “barrilete”)
605 Hordi: mozkor
606 Txola: copa (Akeita, txola eta txokorra)

— Hori, horixe, orain hirurehun urte direla Michele Psellok idatzi zuen, deabruen egitekoen liburuan! Nork esan dizkizu horrelakoak?

— Haiek, Bentivengak eta bertzeek, estira[607] egiten zietenean, zipert[608] ikusitakoan!

— Bada gauza bat bakarra animaliari atsegintasunak baino kitzika gehiago egiten diona: mina. Estira egiten dizutenean eta ikuspenak eragiten dizkizuten belarren ondoriopean zagozenean berdina sumatzen duzu. Esaten aditu diezun guztia, irakurri duzun guztia, zure burutara itzultzen da, kordegeturik[609] bazengoz bezala, baina ez zeruak liluratuta inpernuak baizik. Estira egiten dizutenean inkisidoreak nahi duena ez ezik honi atsegin egiten diola iruditzen zaizuna ere aitortzen duzu, zeren, zure eta haren artean lokarri bat sortzen baita (hau benetan bai deabruzkoa)… Ondo dakizkidan zerak dira, Ubertino, izan ere, ni neu elkarte horietariko gizona izan nintzen, egia burdina goriaz lor daitekeela uste dutenetarikoa. Alta bada, egiaren goritasuna gar oso ezberdin batetik etor daitekeela jakin albaizeneza. Zipert egiten ziotenean, Bentivengak gezurrik zentzugeenak

607 Estira: tortura
608 Zipert egin / ikusi: gran sufrimiento
609 Kordege: kordebage (H. “arrobado”)

esan zitzakeen, ez baitzen bera mintzo zena, beraren luxuria baizen, haren arimaren tusuria mintzo zen.

— Luxuria?

— Bai, bada luxuriarik minetan, bai eta gurtzapenean ere, eta apaltasunaren luxuria ere bai. Aingeru matxinoek euren gurtzapen eta apaltasunaren grina harrokeria eta asaldamenduaren[610] grina bihurrarazteko[611] hain guti behar izan bazuten, zer esan liteke gizakiaz? Bada, ondo, badakizu, horixe nuen aurkitu, berehalakoan, inkisidore izan nintzenean. Eta horrexegatik nion uko egin izaiteari. Gaizkinen ahulguneetan haztakatzeko[612] adorerik ez nuen, zeren, orduan ikasi bainuen, ikasi, santuen ahuleriak haienak bezalakoak direla.

Ubertinok Gilenen azkenengo hitzok zer ziotson ulertu ez balu legez aditu zituen. Haren aurpegia errukitasun[613] amultsuaz[614] histu[615] zen, eta ulertu nuen, ezen, Gilenen arauera sentimendu maltzur-maltzurrez mintzatzen

610 Asaldamendu: rebeldía
611 Bihurrarazi: (H. “transformar”)
612 Hazta(ka)tu: (H. “hurgar”)
613 Errukitasun: conmiseración
614 Amultsu: afectuoso, cariñoso
615 Histu: decolorarse, ajarse (H. “embargarse”)

zen arren, hain maite zuelako barkatu egiten zizkiola. Eten zion eta mindura[616] larrixkorekin esan:

— Ez du axola. Hori sentitzen bazenuen, ondo egin zenuen baztertzea. Tentazioiei jarki[617] behar zaie. Horrela eta guztiz ere, nik zure laguntza beharko nuen. Harako gaizkin eli[618] hura amaitzear[619] egon nintzen. Badakizu zer gertatu zen, alderantziz: ni nerau haiekin bigunegi izaiteaz salatu ninduten, eta heretiko nintzela esan zuenik ere egon zen. Zerori orobat gaizkiaren aurkako borrokan makalegi izan zinen. Gaizkia, Gilen, ez ote da inoiz amaituko kondena hau, itzal hau, iturbururaino iristea galarazten digun lupetza[620] hau? –Gilengana hurreragotu zen, norbaitek aditzeaz beldurrak jo balu bezala–. Hemen ere, otoitzetara kontsakratu horma zaharron artean ere, badakizu?

— Badakit. Abadeak zerataz hitz egin dit, eta zeinbait jazoera argitzen lagun diezaiodan, urgatzi[621] alegia, eskatu zait.

616 Mindura: amargura, acritud
617 Jarki: hacer frente
618 Eli: manada (Saldo, talde, aralde...)
619 Amaitu: (terminar con, acabar con, *-rekin amaitu- txarto dago)
620 Lupetza: lokatz asko dagoen lekua
621 Urgatzi: lagundu (Sorotsi)

— Beraz, haztaka[622] ezazu, mia eta barranda ezazu, so egizu lintze-begiz alde bitara, luxuria eta harrokeria...

— Luxuria?

— Baia[623], luxuria. Hil zen mutilaren baitan bazegoen… emezko[624] zerttobait, hots[625], deabruzko beraz. Inkubo[626] batekin haragiz batu[627] nahi lukeen neskaren begiak zeduzkan. Harrokeriaz ere mintzo natzaizu, gogoaren harrokeriaz, hitzaren harrokeriara kontsakratua den monasterio honetantxe, jakintzaren ametsari emaniko…

— Ezer baldin badakizu, lagundu egidazu.

— Ezer ez dakit. Ez dago nik ezer jakiterik. Badira, ordea, zerak, bihotzez sumatzen direnak. Utziozu zeure bihotzari mintzatzen, itaundu begitarteei, ez aditu mingainei… Baina, tira!, zergatik elestatu[628] hain mingarriak diren gaiez eta gure adiskide gazte hau beldurtu? –so egin zidan bere begi urdinez, igurtzi zuen nire belauna bere hatz luze-zuriez, eta

622 Haztakatu: (H. “hurgar”) (Palpar…) (Miatu: escudriñar, examinar)
623 Baia: bai, ba
624 Emezko: (H. “de femenino”)
625 Hots: o sea
626 Inkubo: incubo (emakumezkorekin larru joiten zuen deabrua edo)
627 Haragiz batu: (H. “buscar comercio con”)
628 Elestatu: platicar, conversar

atzera egiteko agin[629] egon nintzen senak[630] eraginda bezala; gelditu nintzen eta ondo egin nuen, bestela irainduko nuen eta haren asmoa garbia zen–. Hobe, mintza zakizkit zeutaz –esan zuen berriro atzera Gileni begira–. Zer egin izan duzu ordudanik? Joan ere… urte...

— Hamazortzi urte joan dira. Nire lurraldera itzuli nintzen. Oxford-en berrikasten hasi nintzen. Izadia ikasi nuen.

— Izadia ona da Jaungoikoaren umea baita –Ubertinok.

— Eta Jaungoikoa on izan behar da, izadia sortu badu –Gilenek irribarretsu–. Ikasi dut, lagun oso jakintsuak aurkitu ditut. Geroago Marsilio ezagutu nuen, haren aburuek inperioari buruz, herriaz, lurbirako erresumentzako lege berri batez, erakarri ninduten, eta hala enperadorearen aholkulari ziren gure anaien arteko izan nintzen. Hau guztiau badakizu, noski, nire gutunengatik. Bobbion zu hemen zengozela erran zidatenean poz-poztu nintzen. Galdutzat emana zintugun. Orain, gure artean zagozelako, egun batzuk barru oso lagun on izango zatzaizkigu, Michele etorri eta gero, oso baliagarri. Norgehiagoka[631] handia izanen da.

---

629 Agin: -teko agin(ik/ean) : a punto de, en un tris de
630 Sen: (H. “instinto”)
631 Norgehiagoka: (H. “confrontación”)

— Orain dela bost urte Avignonen esan nuenari ez diot beredin[632] gehituko. Nor etorriko da Michelerekin?

— Perusako kapituluan egon ziren batzuk, Akitaniako Arnaldo, Hugo Newcastle-koa.

— Nor?

— Hugo Novocastrokoa, barkaidazu, latin onean ari naizela ere nire hizkuntza darabilt. Gilen Alnwick ere etorriko da. Avignongo frantziskotarren aldetik Girolamo egongo dela uste izan behar da, Caffa kirtena[633] halaber, eta beharbada Berengario Talloni eta Bonagrazia da Bergamo ere bai.

— Gure itxaropena Jainkoagan –Ubertino mintzo–. Azkenengo horiek ez dute Aita Santuarekin gehiegi etsaitu nahi izanen. Nork defendatuko ditu kuriaren eritziak bihozkogorren artean?

— Jaso ditudan gutunengatik, Lorentzo Decoalcone izango dela uste dut…

— Gizon gaiztoa..

— Jean d'Anneaux...

— Hori teologian biziki sotila da. Kontuz.

632 Beredin: asko, heuragi, anitz
633 Kirten: (H. "cretino")

— Kontuz arituko gara. Azkenik, Jean de Baune ere badate.

— Berengario Tallonirekin buruz buru beharko du horrek.[634]

— Bai, horixe, eta gozotan egongo[635] garela uste dut – erantsi zion nire maisuak gogogozaturik.[636]

Ubertinok irribarretsu begira zion, zalantzan bezala:

— Inoiz ez dakit ingelesek noiz hitz egiaz egiten duzuen. Zelako gozorik egon liteke hain larria den zeratan? Baldernaren biziraupena jokoan dago, eta zu horretako kide zara, eta bihotzaren barrenean ni ere oraindik kide naiz. Micheleri Avignorera joan ez dadin burutan eman[637] behar diot. Joanek nahi du, bilatzen du, sarriegitan gonbidatzen du. Susma[638] ezazue zahar frantses horretaz. Oi, Jauna, nolako eskutan erori den zure eliza! –esan eta burua aldarerantz biratu zuen–. Emagaldu bilakatua, luxuaz bizioak joa, luxurian kiribildua[639], suge emea arreske[640] bezalakoa![641] Belengo estalpe hutsetik, zurarekin zura izan zen gurutzeko *lignum vitae*, urre-harrizko bakanaletara. Begira, hemen

634 Buruz buru…: (H. “tendrá que vérselas con...”)
635 Gozotan egon: (H. “nos divertiremos”)
636 Gogogozaturik: (H. “muy animado”) (N)
637 Burutan eman: persuadir
638 Susmatu: sospechar / Zaiotu: recelar, desconfiar
639 Kiribildu: enroscar
640 Arreske: animal en celo
641 Lako: bezalako, legezko, gisako,

berean ere, ataldea[642] ikusi duzu, ezin egon irudien harrokerietatik at! Azkenik hur[643] dagoz Antikristoren aldiak, eta beldur naiz, Gilen! –bere baranoan[644], inguruz inguru so egin[645] zuen, eta begiak, zabal-zabalak, habearte ilunetan josi bezala ziren, berehalakoan Antikristo bera agertuko bailitzan, eta itzalpetik sortzen ikusiko genuela uste nuen–. Haren ordezkariak[646] badagoz hemen, haren mezulariak[647], Kristok munduan zehar bidali zituen apostoluen antzekoak!Jainkoaren Hiria laidoztatzen[648] dute, zilibokatzen[649] dute, iruzurraz, hipokrisiaz eta bortizkeriaz. Helduko da eguna, Jaungoikoak bere morroi Elias eta Enok bidaliko dituena, lur paradisuan bizirik iraunarazi baititu, Antikristo nahastera etor litezen, eta zakuzko txabusinez jantzirik datozke, profetizatzera, eta euren ereduz eta hitzez penitentzia predikatuko dute…

— Heldu dira, dagoeneko, Ubertino –Gilenek bere soingaineko[650] farntziskotarra erakusteaz batera esan zuen.

---

642 Atalde: portada
643 Huŕ: hurbil, gertu, hurran (hullan) (Huŕ: jateko fruitua)
644 Baranoan: inguruan
645 So egin: begiratu, behatu
646 Ordezkari: (H. “lugarteniente”)
647 Mezulari: emisario, mensajero
648 Laidoztatu: vilipendiar
649 Zilibokatu: engañar, seducir con el engaño
650 Soingaineko: sayo

— Oraindik, ordea, ez dute irabazi. Orain, oraintxe Antikristok, suminki, Enok eta Elias hiltzeko aginduko du, eta berauen gorputzak ere hilko dituzte, orok ikus lezan eta oro haiek bezala izaiteaz beldur ledintzat. Nerau hil nahi ninduten gisan…

Ni izuturik nengoen, zeren, Ubertino halako zerutiko zoroak jota zegoela uste bainuen, haren zentzua galdua, nonbait. Orduantxe hala pentsatu nuen. Orain, tarte luzea joanda, dakidana jakinik, hau da, urte batzuk geroago hiri alemaniar batean misteriotsuki hil zela, eta nork erho zuen inoiz jakin ez dela, nire izua handiagoa da, sarrakioa da, zergatik eta orduko haretan, ezbairik ez, Ubertinok bere etorkizuna profetizatzen, iragarten ziharduelako.

— Zuk badakizu –aurrera mintzo–, Joakin abadeak egia esan zuen. Giza historiako seigarren aldian gagoz, bi Antikristo agertuko direnekoa, Antikristo mistikoa eta benetako Antikristo bera[651]. Hauxe seigarren aldian gertatzen dena, Frantzisko bere soinean Jesus Gurutziltzatuaren bost zauriak haragitzeko agertu zenaz gero. Bonifazio' Antikristo mistikoa izan zen, eta Zelestinoren abdikazioa ez zen zilegi[652]. Bonifazio

651 Benetan...bera: (H. "propiamente dicho")
652 Zilegi: (H. "válida")

itsasorean ateratzen den piztia izan zen, zeinaren zazpi buruek bekatu larrien irainak irudikatzen[653] baitituzte, eta hamar adarrek mandamentuen irainak, eta inguratzen zuten kardinalak otiak[654] ziren, eta haren gorputza Appolyon da. Baina, haren izena hizki grekoetan irakurriz gero, ikus dezakezu, ezen, piztiaren zenbakia *Benedicti* dela! –begiak niregan josi zituen ulertu ote nion antzemaitearren[655] edo, eta hatz bat jasorik ohartarazi ninduen–. Benedikto XI.a benetan Antikristo bera zen, lurrerean sortzen den piztia! Jainkoak laga[656] dio harako munstro, bizio eta makurkeriazko[657] munstro horri bere eliza jaur[658] dezan, bere oinordekoaren bertuteak aintzaz gailen[659] litezen!

— Baina, aita santu hori –akometatu[660] nion ahots mehe[661] batez, adoreturik–, haren oinordekoa Joan da!

Ubertinok eskuaz bekokia igurtzi zuen, amets gaizto bat ezabatu balu bezala. Arnas-estuka zegoen, nekatua.

---

653 Irudikatu: representar
654 Oti: langosta (de campo) larrepetit, larrepote / Ot+arrain)
655 Antzeman: percatarse, advertir… (Antz) (Atzeman: harrapatu)
656 Laga: permitir (utzi)
657 Makurkeria: iniquidad
658 Jaurri: gobernar
659 Gailendu: (H. “respalndecer”)
660 Akometatu: alegar, objetar
661 Ahots mehe: (H. “un hilo de voz”)

— Bai. Kalkuluak okerrak ziren, oraindik aingeruzko aitasantuaren[662] zain gagoz… Bitartean, ordea, Frantzisko eta Domeka agertu dira –begiak zerurantz goratu zituen eta otoitz laso esan zuen arren, bere liburu handiko orrialde bat errezitatzen ari zela ohartu nintzen, bizitzakoa–. *Quorum primus seraphico calculo purgatus et ardore celico inflammatus totum incendere videbatur. Secundus vero verbo predicationis fecundus super mundi tenebras clarius radiavit*…[663] Bai, promesak hauek izan badira, aingeruzko aitasantua helduko da.

— Hala biz, Ubertino –Gilen mintzo–. Bien bitartean hemen nago giza-enperadorea egotzia[664], abaztorratua izan dadin eragozteko.[665] Dultzinok ere zure aingeruzko aitaz hitz egiten zuen…

— Ez aipa beste behin suge horren izena! –Ubertinok oihuz, eta lehenbiziz antzaldaturik ikusi nuen, atsebagetik sumindurara iragorik–. Gizon horrek Kalabriako Joakinen

662 Aingeruzko aita: (H. “papa angélico”)

663 «haietarik lehena [Asisko Frantzisko deuna] harri serafiko batez araztua eta zerutiko karrez sutua oro sutzen ari zela zirudien. Bigarrena [Guzman-dar Domeka deuna], ordea, predikuetan hitz-jariotsua, munduko ilunpeez argiroago zabaldu baitzen... [Predikatzaileen Balderna irasi baitzuen].

664 Egotzi: (H. “expulsar”) /Abaztorratu: expulsar con violencia

665 Eragotzi: impedir (galarazi, ekidin, saihestu)

hitza zikindu zuen, Herioren eta likiskeriaren[666] pizgarri[667] bihurtu zuen! Antikristoren mezulari bai hori. Baina zuk, Gilen, ez duzu Antikristoren etorrera sinesten eta horregatik hola mintzo zara, eta Oxfordeko zure maisuek arrazoimendua idolotzen[668] irakatsi dizute, zure bihotzean profezia-gaitasuna iraungita![669]

— Oker, zagoz, Ubertino –ihardetsi zion oso gorgots[670] Gilenek–. Badakizu maitetsien[671] dudan maisua Roger Bacon dela…

— Bai, hegaz egiten zituzten makina batzuez eldarnioak zituena, ameskaiztoak hala egia –iseka garratzez Ubertinok gehitu zuen.

— Antikristoz argiro eta garbiro mintzatu izan zena, haren zantzuak munduko ustelkerian eta jakintzaren ahulerian erakutsi zituena. Baina haren etorrerako prest egoiteko era bakarra dagoela irakatsi zuen: izadiaren sekretuak ikertzea, jakintza gizakiaren izaera hobetzeko erabiltzea. Antikristoren aurka borrokatzeko landareen onbideak ikertzeaz presta zaitezke, harrien izaerak ezagutzeaz, eta

666 Likiskeria: inmundicia
667 Pizgarri: (H. “pábulo”)
668 Idolotu: idolatratu (idolo bihurtu)
669 Iraungi: apagar, extinguir
670 Gorgots: serio / Beltzuntze: serio, grave
671 Maitetsi: (H. “venerar”)

zuri barregura eragiten dizuten hega-makina horiek asmatzeaz ere bai.

— Zure Bacon horren Antikristo arrazoimenduaren harrotasuna lantzeko estakuru[672] zen.

— Estakuru santua.

— Ez dago estakuru santurik. Gilen, maite zaitudana badakizu. Zugandik entzindu[673] egiten dudana badakizu. Zigor ezazu zure adimena, zeha ezazu, ikas ezazu Jaunaren zaurien gainean negar egiten, bota itzazu zure liburuak.

— Zurea baino ez dut gordeko –irribarretsu Gilenek. Ubertinok ere irribarre egin zuen, eta hatz batez mehatxu:

— Ingeles kokolo. Ez egin barre gehiegi zure kidekoez[674]. Maite ezin dituzunei hobe beldur. Eta kontuz abadia honekin. Toki hau ez dut gogoko.

— Horregatixe,[675] hobeki ezagutu nahi dut –Gilenek, agurtzeaz batera–. Goazen, Adso.

—Ai ene! Ona ez dela diotzut eta ezagutu nahi duzula diozu –iruzkin egin zuen Ubertinok, eta burua higitu zuen.

672 Estakuru: aitzakia
673 Entzindu: confiar, fiarse
674 Kideko: camarada.. (H. “semejante”)
675 Horregatixe: (H. “precisamente”)

— A, eta –atzera, Gilenek, habearteko[676] erdialdetik– nor da piztia dirudien fraide hori Babelgo hizkuntzaz mintzatzen dena?

— Salbatore? –galdetu zuen Ubertinok gureganantz bihurturik, ordurakoxe berriz ere belauniko baitzegoen–. Abadia honetara nik bidali nuela uste dut… Sehiburuarekin. Frantziskotarren soingainekoa erantzi nuenean, aldi batez Casaleko nire komentu zaharrera itzuli nintzen, eta han beste fraide batzuk larrimindurik aurkitu nituen, zergatik eta erkidegoak nire sektako espiritualak zirela eta salatzen zituelako… Hala erraiten zuten. Lagundu nahi ukan nien eta nire eredura egiteko baimen eman ziezaieten erdietsi nuen. Honatutakoan, iaz, haietarik bi hemen aurkitu nituen, Salbatore eta Erremigio. Salbatore… Egiaz piztia dirudi. Oso lagunkoia da, ordea.

Gilen, lipar[677] batez, zalantzan izan zen:

—*Penitenciágite* esan zuela aditu nion.

Ubertino isildu zen. Eskua astinduxe[678] zuen, pentsamendu gaitzigarri[679] bat saihestu nahi bezala.

676 Habearte: nave de iglesia entre columnas
677 Lipar: instante
678 Astindu(xe): agitar un poco
679 Gaitzigarri: molesto, enojoso (Gaitzitu)

— Ez, ez dut uste. Badakizu nolakoak diren anaia laikook. Landatarrak dira, hara-hona ohi dabilen predikarirean bati entzunda, beharbada, zer dioten ez dakitenak. Nik Salbatoreri ez nioke hori aurpegiratuko. Piztia jatuna eta haragikoia da, luxuriakoia, hots. Ortodoxiaren aurka ezer ez. Ez, abadia honetako gaitza bertzelakoa da, bila ezazu gehiegi dakitenen artean, ez harean ez dakitenen artean. Ez eraiki susmozko gaztelurik hitz bakarra oinarri.

— Ez dut inoiz egingo –Gilenek irautsi[680] zion–. Horrela ez egitearren, hain zuzen, utzi nion inkisidore izaiteari. Alabaina, hitzen aditzea ere gogo dut, eta gero horietaz gogoetaren egitea orobat.

— Asko pentsatzen duzu. Mutil –eneganantzat bihurturik–, ez albaitzeneza[681] adibide txarrik asko har zure maisuagandik. Gauza batez bakarrez pentsatu beharra dago, orain nire bizialdiaren hondarrean[682] ulertzen dut, heriotzaz, hain zuzen ere. *Mors est quies viatoris, finis est omnis laboris*.[683] Orain, utz nazazue nire otoitzetan.

680 Irauntsi – erauntsi – : esan… (dirautso – derauntso) (?)
681 Albaizeneza: (Ahal* bait+ zeneza(n)) (consejo, no orden)
682 Hondar: lo último
683 «Heriotza bidaiariaren atsedenaldia da, lan ororen azkena».

LEHENENGO EGUNA

NONARANTZ[684]

Gilenek Seberino belar-biltzailearekin[685] elkarrizketa jakintia[686] izan duenekoa.

Erdialdeko habeartetik joan ginen eta sartzean zeharkatu genuen ataldetik atera ginen. Ubertinoren hitzak, guztiak, buruan burrunbaka zebilzkidan, artean.

— Gizon bakana[687] da –esatera ausartu nintzen.

684 Nonarantz: Hacia nona (Nona: egunaren laugarren zatia edo)
685 Belar-biltzaile: herbolario
686 Jakinti: erúdito
687 Bakan: (H. “extraño”)

— Izan, baduk, edo izan duk, alde askotatik, gizon handia –Gilenek niri–. Baina horregatixe duk bakan. Gizon tikiek ziruditek arrunt edo ohiko. Ubertino berak bultzaturik sutara bidali izan zituzten heretiko haietarik bat izan zitekean, edo Eliza santu erromatarreko kardinal. Eta bi perbertsiootatik oso hurbil egon zuan. Ubertinorekin hitz egiten dudanean inpernua beste alde baterean ikusitako paradisua dela iruditzen zaidak.

Ez nion ulertu zer esan nahi zuen.

— Norean[688], zein aldetarean? –nik hari galde.

— Bada, bai –Gilenek onartu zuen–, alderik ba al dagoen edo dena bat bakarra den jakitea duk arazoa. Baina ez ezak adi diodana. Ez begira atalde horri –esan zuen, kokoteko[689] batzuk zemaizkidan bitartean, begirada berriz ere hango harlandu[690] liluragarriei zuzentzen niela–. Gaurkoz aski duk izuz. Orok izutu hau.

Atzera irtengura itzuli nintzen eta nire aurrean beste lekaide bat ikusi nuen. Adinaz, Gilenen antzekotsua edo. Irribarre egin zigun eta adeitsuki agur. Seberino da Sant'Emmerano zela esan zuen, belar-biltzailea zela,

688 Norean: nondik, norik (Non+rean: desde…) (Baterean: batetik)
689 Kokoteko: golpecitos en el cogote
690 Harlandu: esculturas, piedras labradas

garbitokiak, erietxea eta baratzeak zaintzen zituela, eta abadia barrenetik gure gidari nahi bagenu gure esanetara jarri zatekeela.

Gilenek eskerrak eman zizkion eta sartzean baratze eder-ederraz ohartu zela esan zion, elurrean ikus zitekeenez, jateko landareak ez ezik senda-belarrak ere zeduzkana.

— Udan edo udaberrian, belar ezberdinez, bakoitza bere loreaz apaindurik, baratze honek Sortzailearen aintza hobeto kantatzen du –esan zuen aitzakia legez Seberinok–. Baina urtaro honetan ere belar-biltzailearen begiek adar ihartuetan zehar gero haziko diren landareak ikus ditzakete, eta esan diezazuket, ezen, baratze hau zein-nahi belar-liburu[691] baino joriago[692] dela, eta margoanitzago[693], halako liburuk daduzkan miniaturak eder-ederrak izanagatik. Gainera, neguan ere belar onak hazten dira, eta ikertokian[694] beste batzuk daduzkat, bil eta bil eta flaskoetan gordeak. Hala, barrabas-belarren[695] sustraiez marranta sendatzen da, eta gloriatsiaren[696] sustrai egosiez larru-azaleko gaisotasunak

691 Belar-liburu: herbario
692 Jori: ugari, “aberats”
693 Margoanitz: multicolor
694 Ikertoki: laborategi
695 Barrabas-belar: acederilla (Hiruorri mingotxa)
696 Gloriatsia: malvavisco (Gimauba)

sendatzeko txaplatak[697] egiten dira, amanuaz[698] ekzemak orbaintzen[699] dira, basapiper-aietak[700] ttikituz eta mazeratuz beherakoa[701] sendatzen da eta emakumezkoen zeinbait gaisotasun ere bai, pipermina[702] txegosgarri[703] ona da, mandarrosa[704] berriz eztulerako ona, eta txegosteko errosta[705] ona dadukagu, eta orozuza[706] eta orrea[707] infusio onak egiteko, eta intsusaren[708] azalaz gibelerako on den egoskia[709] egiten dugu, eta marrantarako onak diren xaboi-lilien[710] erroak ur hotzetan beratzen[711] direnak, eta suhar-belarra[712] ere biltzen dugu, ziur asko ondo ezagutzen dituzuen ongaiak[713] dituena.

697 Txaplata: emplasto, compresa
698 Amanu: lampazo (Lapa-belar, lapaitz)
699 Orbaindu: cicatrizar / zakartu
700 Basapiper-aieta: rizoma de bistorta (Oto-piper) // erro, zain
701 Beherako: diarrea (Kakeri, meharreri, kaka-pirri...)
702 Pipermin: pimienta
703 Txegosi: digerir / Txegosgarri: digestivo
704 Mandarrosa: fárfara (Ersukai)
705 Errosta: genciana
706 Orozuz: orozuz (Arabieratiko hitza)
707 Orre: enebro (Ipuru -juniperus)
708 Intsusa: saúco
709 Egoski: materia de cocción (N)
710 Xaboi-lili: saponaria
711 Beratu: remojar (H. “macerar”)
712 Suhar-belar: valeriana
713 Ongai: útil-utilidad (H. “virtudes”)

— Oso ezberdinak diren belarrak daduzkazu eta aro[714] ezberdinetakoak ere bai. Nola da hori?

— Alde batetik, Jaunaren errukitasunari zor diot, zeren, gure goi-ordeka[715] hau hegoaldeko maldan itsasoari begira ipini baitzuen, haize berotsuak jasoten ditu eta iparraldeko mendilerroa, aurrekoa baino garaiagoa, beste aldean babesgarri du, basa-usainak igorten dizkiona. Beste aldetik, nire maisuei esker eta merezi bagerik jaso dudan belar-antzerako[716] jaidurari[717] zor diot. Zeinbait landare, aroa txarra izanagatik, inguruan dadukan lurra, haren elikadura eta garapena zainduz gero hazi ahal da.

— Horrela ere, jateko belarrak besterik ez dadukazu? – galdetu nuen nik.

— Jakizu, txiko[718] goseti, ez dagoela jateko belar onik sendatzeko ere on ez denik, beti ere neurri onean harturik. Gehiegiak ditu gaitz-belar bihurtzen. Adibidez, kuia. Berez, hotz-hezea da, egarria kentzeko ona, baina lirindua[719] denean kaka-pirria eragiten du, eta zure erraiak idortu[720]

714 Aro: clima / tiempo atmosférico
715 Ordeka: llano, campo plano
716 Belar-antze: arte de hierbas
717 Jaidura: afición, tendencia
718 Txiko: potro (moxal)
719 Lirindu: madurar demasiado, “pasarse”
720 Idortu: (H.“astringir”)

behar dituzkezu ziapearekin[721] gatzuna[722] nahasiz. Eta tipulak? Bero eta hezeak, guti, izkepota, koitoa alegia, bizkortzeko onak, gure botoak zin egin ez dituzten haiengan, noski. Gehiegi janez gero burua astuntzen[723] dute, eta ondorioak edekitzeko[724] esne-ozpina edan behar. Hauxe dela eta beraz,[725] –gehitu zuen, maltzurki– fraide gaztek beti neurriz jan behar dituzke. Baratxuria, aldiz, jan dezakezu. Bero eta idor, pozoinen aurka ona da. Baina ez bapikatu[726], burmuinetiko[727] humore gehiegi itzurtzen[728] du eta. Babarrunek, berriz, gernua[729] eragiten dute eta gizendu ere egiten dute, biok ala biok onak. Honela ere, amets gaiztoak eragiten dituzte. Ez, ordea, beste belar batzuek bezainbat, izan ere, badira batzuk ikuspen gaiztoak eragiten dituztenak.

— Zeintzuk? –galdetu nuen.

— Ea, ea[730], gure lekaidegai honek gehiegi jakin nahi du! Gauza hauek belar-bilatzaileak ez bestek jakin beharra du;

721 Ziape: mostaza (Mustarda)
722 Gatzun: salmuera (Gesal)
723 Astundu: hacer pesado (H. “pesadez”)
724 Edeki: kendu (H. “contrarestar”)
725 Hauxe dela…: razón de más...
726 Bapikatu: exagerar (bat+bi+ka+tu)
727 Burmuin: cerebro (Garun)
728 Itzuri: derramar, soltar, librar, escapar
729 Gernu: orina
730 Ea: (H. “vamos”) /(venga! /a ver...)

bestela, edozein ardurabage joan liteke handik-hortik ikuspenak zuzkituz[731], hots, belarrekin gezurrak banatuz.

—Alabaina, asun[732] pixka bat asko –Gilenek orduan–, edo *roybra* edo *olieribus*, ikuspen horietatik babestearren. Zure baratzean honelako belar onak dagozela uste dut.

Seberinok maisuari zeharka so egin zion:

— Badakizu belarrez?

— Ez asko –Gilenek apaltasunez erantzun–. Behin eskuetan *Theatrum Sanitatis* Baldach-eko Ububchasym-ena...

— Abdul Asan al Muchtar ibn Botlan.

— Edo Ellucasim Elimittar, nahi duzun bezala. Hemen haren aldakirik[733] ba ote dagoen jakin nahi nuke.

— Bai eta ederrenetarik, ilustrazio bikainekin.

— Laudatua izan dadila zerua. Eta *De virtutibus herbarum* Platearius-ena?

— Hori ere badago, eta Aristotelesen *De plantis* eta *De vegetalibus*, Alfredo Sareshel-gok itzulia.

731 Zuzkitu: hornitu (H. “suministrar”)
732 Asun: ortiga
733 Aldaki: copia

— Entzun dudanez benetan ez omen da Aristotelesena –sartu zuen iruzkina Gilenek–, *De causis* ere ez den bezala.

— Dena dela, liburu handia da –Seberinok bere eritzia eman zuen, eta nire maisuak berbera uste zuela esan zion, baina ez zion galdetu *De plantis*-ez edo *De causis*-ez ari zen, nik ezezagun nituen liburuak biak garrantzitsuak zirela haien elkarrizketa entzunda jakin nuen arren.

— Atsegin izango nuke –Seberinok azkenik– zurekin belarrez zinez elestatzea.

— Niri are atseginago –Gilenek–, baina, zuen baldernan ezarrita dagoen isil-araua ez ote dugu hala urratuko?

— Araua –esan zuen Seberinok– menderik mende moldatzen eta egokitzen joan izan da erkidego ezberdinek behar dutenari atxikiz. Arauak *lectio divina* aurrikusten zuen, ez ikaskuntza. Honela ere, zuk badakizu gure baldernak zenbateraino garatu duen ikerkuntza jainkozko gaiez eta gizakizko gaiez. Arauak, halaber, logela denena izaitea agintzen du, baina batzuetan, hemen bezala, fraideek gauez ere hausnartzea zuzena da, eta beraz bakoitzak bere gela daduka. Araua, isiltasunaz den bezainbatean[734], txit zorrotza da eta hemen ere anaien artean mintzatzea

734 …-z den bezainbatean: por lo que respecta a...

debekatua dago, esku-lanak egiten dituenak ez ezik idatzi edo irakurri egiten duenak ere debeku du. Honela ere abadia, oroz gain[735], ikastunen elkargo da eta, maiz, jasoten dituzten dotrina-altxorren berri elkarri emaitea on da. Gure ikaskuntzazko zein-nahi elkarrizketa zilegi eta onuragarri dugu, jatokian[736] egiten ez bada edo otoitz-lan sakratuetako orduetan ez bada.

— Adelmo da Otrantorekin asko hitz egiteko aukera izan zenuen? –galdetu zion bertan Gilenek.

Seberino ez harritu, antza.

—Dakusadanez, Abadeak zerbait esan dizu –esan zuen–. Ez. Horrekin ez nintzen mintzatzen. Beta[737] miniaturak margotzen emaiten zuen. Noizbait beste lekaide batzuekin, Benantzio Salvemec-eko edo Jorge Burgosko besteak beste, eztabaidan entzun izan nuen, bere lanaz. Gainera, ni ez naiz egun osoan *scriptorium*ean egoiten, nire ikertokian baizik –eta erietxea begirarazi zion[738].

— Ulertzen dut –Gilenek berriro–. Beraz, ez dakizu Adelmok ikuspenak zituenentz[739].

735 Oroz gain: ante todo, sobre todo
736 Jatoki: jangela (H. “refectorio”)
737 Beta: tiempo de hacer algo (– aldi, asti, epe...)
738 Begirarazi: señalar (N)
739 Zituene(n)tz: zituen edo ez

— Ikuspenak?

— Belarrek eragiten dituztenak bezalakoak, esaterako.

Seberino zurrundu[740] zen:

— Esan dizut, bada, belar arriskutsuak hagitz[741] zaintzen ditudala.

— Ez naiz horretaz ari –berehala Gilenek ihardetsi–. Ikuspenez ari naiz, orokorki.

— Ez dut ulertzen –berriz ere Seberinok.

— Pentsatu dut, zera, gauez Eraikinetik ibilian dabilen lekaide batek, gertatu ere, Abadeak aitortu didanez, debekuzko orduetan zera lazgarriak gerta ahal diren lekuan, zera, pentsatu dut beharbada deabruzko ikuspenak izan ote dituen, amildegira bultzatu dutenak.

— Esan dizut, bada, ez naizela maiz joaiten *scriptorium*era, libururean[742] bat behar dudanean izan ezik, baina nire neure belar-liburuak daduzkat, erietxean gordeak. Esan dizudan bezala, Adelmo askotan Jorgerekin egoiten zen, Benantziorekin eta, jakina[743], Berengariorekin.

740 Zurrundu: ponerse rígido
741 Hagitz: biziki, oso, txit (H. “mucho”)
742 Libururean bat: libururen bat, liburu zeinbait (-rean: atzizki zaharra)
743 Jakina: (H. “desde luego”)

Nik ere Seberinoren ahotsean dar-dar pittin bat sumatu[744] nuen. Nire maisuari ikaratto hura ez zitzaion itzuri[745]:

— Berengario? Zergatik, “jakina”?

— Berengario da Arundel, liburuzainaren laguntzailea. Adin berekoak, fraidegai elkarrekin egondakoak, zer mintzaturik ukaitea bidezko. Hauxe esan nahi izan dut.

— Beraz, horixe esan nahi ukan duzu –Gilenek irautsi zion, eta harritu nintzen gaiaz tematu[746] ez baitzen. Alderantziz, dzanpez[747] gaiaz beste egin zuen–. Baina agian badugu ordu Eraikinera sar gaitezen. Gidatu nahi al gaituzu?

— Atsegin handiz –erantzun zion Seberinok, eta lasaitu bat hartu zuela nabari.

Baratze albotik[748] eroan gintuen Eraikinaren mendebaldeko alderaino.

— Baratzerantz dagoen aldean sukaldeko atea dago –esan zuen–, baina sukaldea beheko solairuko erdia, mendebaldekoa, baino ez da, beste erdian jatokia dago.

744 Sumatu: (H. “advertir”) (Antzeman)
745 Itzuri: (H. “escapar”)
746 Tematu: (H. “insistir”) (Dalitu)
747 Dzanpez: bruscamente
748 Albo: costado

Ekialdean beste bi ate dagoz sukalde-jatokira bidean, eta elizako kortxilaren atzetik heltzen da. Sar gaitezen, ea, honetatik, sukaldetik jangela barrura ahal dugu eta.

Sukalde handira sartutakoan, erdian, Eraikinak bere garai[749] osoan, zortzialboko[750] barla[751] bat egiten zuela antzeman nion. Geroago ulertu nuenez, putzu oso handi bat zen, itxuraz, sargurik[752] ez zuena, eta estaiez estai[753], leiho zabalen saihera[754] bana zedukan kanpoaldera zegozenen antzera. Sukaldea gorape[755] handi-handia zen, kez betea, eta bertan morroi ugari abaritarako janariak prestatzen ari. Mahai zabal-handi batean haietarik bi barazkizko pastel bat egiten, garagar, olo[756] eta zekalez[757], eta arbi, xanpora[758], erredilla[759] eta zainoriz tikiki[760] bat egiten ari ziren. Ondoan, beste sukaldari batek arrain batzuk egosi berri zituen, ur-ardotan, eta saltsa batez estaltzen ari zen, sobi[761], perrexil,

749 Garai: alto, altura
750 Zortzialboko: octogonal
751 Barla: patio, corral
752 Sargu: sarrera /Irtengu: irteera (-gu/-gia: lekua)
753 Estai: piso (Solairu)
754 Saihera: 1. (BN-ciz-baig ap. A ; VocBN) Grupo, fila. " se dit pour des êtres qui se suivent et mulzo pour ceux qui sont réunis")
755 Gorape: (H. “atrio”)
756 Olo: avena
757 Zekale: centeno
758 Xanpora: berro de campo (?)
759 Erredila: rábano
760 Ttikiki: picadillo (N) (Xeheki)
761 Sobi: salvia

ezkai[762], baratxuri, pipermin eta gatzezko saltsaz. Mendebaldeko dorretzarrekoa zen horman ogi-labe handitzarra zegoen, eta bertatik leinuru[763] gorrixtak sortzen ziren. Hegoaldeko dorretzar ondoan, kezulo ohizgainekoa, eta berton pertz[764] batzuk irakitean eta burruntzi[765] handi batzuk iraulka. Eliza osteko larrainerako atetik une haretantxe urdezainak sartzen ari, hildako txerrien haragia zekartelarik.

Ate haretatixe irten genuen eta larrainera sartu, goi-ordekako alderik ekialdeenean, eta harresi ondoan eraikin batzuk. Seberinok azaldu zidanez, aurrenak ukuiluak[766] zeduzkan: batean, zalditegiak, beste batean, itegia idiak edukiteko; oilotegiak eta artegia ziren beste tokiak. Ukuilu aurrean urdezainek upa handi bete zerri-odol irabiatzen zihartuten, hil berri zituzten urdeen odola gatza[767] ez zedin. Ondo eta laster irabiatuz gero, egun batzuk iraungo zituen, aro hotzagatik, eta odolesteak egitekoa zen.

Atzera Eraikinera sartu ginen, eta jatokiari so bat egin genion, barruan zehar gindoazela, ekialdeko

762 Ezkai: tomillo
763 Leinuru: resplandor, rayo
764 Pertz: caldero
765 Burruntzi: asador
766 Ukuilu: (H. “chiquero”)
767 Gatzatu: coagular, cuajar

dorretzarrerantz. Jangela bi dorreetarantz zabaltzen zen: iparraldekoa, kezulo handia zegoen bertan, eta ekialdekoa, berton eskailera kiribil bat, *scriptorium*era, hots, bigarren estairakoa zegoen. Fraideak egunoro lanera handik joaiten ziren; eta beste bi eskaileratatik ere bai, iristeko zailagoak baina ondo berotuak, kezulo eta sukaldeko labe ostetik goiti.

Gilenek galdetu zuen ea, igande izanik, *scriptorium*ean inor jarrugiko[768] al genuen. Seberinok irri, eta lekaide beneditarrentzat lana otoitza dela erantzun zion. Igandeetan ofizioak luzeagoak ohi ziren, baina liburuei emanak ziren fraideak goian orduetan egoiten ziren, eta haien artean ohar jakintsuak, aholkuak, gogoetak banatzen zituzten, idazkun sakratuei buruzkoak.

LEHENENGO EGUNA

NONAZ GERO

768 Jarrugi: aurkitu, ediren

Scriptoriuma *ikustera joan eta beredin ikastun, kopialari eta otoitz-araulari*[769] *eta era berean Antikristoren zain dagoen zahar itsu bat ezagutzen dituztenekoa.*

Igaiten ginen bitartean, nire maisuak eskailera argitzen zuten leihoei begira zihoala ohartu nintzen. Itxuraz, ni hura bezain sumati[770] bihurtzen hasia nintzen, zeren, berehala konturatu bainintzen, ezen, haiek leihoak ipinita nola zegozen ikusirik, haietara iristea norentzat-nahi ere oso zaila zela, gatxa. Beste alde batetik, jangelan zegozen leihoak ere (lehenengo estaian amildegira buruz zegozen bakarrak) ez ziren iristerrazak, haien azpietan ez baitzegoen ezelako altzaririk bat ere.

Eskailera burura iritsita, ekialdeko dorretzarretik *scriptorium*era sartu ginen. Ikusi eta bertan, harridurazko oihuxka bat itzuri zitzaidan. Lehenengo estaia ez zegoen behekoa bezala bitan banatua, eta, ondorioz, nire begien aurrean hango gune zabal-handia bete-betean. Gangak[771]

769 Otoitz-araulari: (H. “rubricante”)
770 Sumati: sagaz
771 Ganga: bóveda

makotuak[772] eta ez oso garaiak (edozein elizatakoak baino apalagoak, hala ere, nik ikusi ditudan kapitulu-geletakoak baino garaiagoak) harrizko zutabe sendoetan bermatuak[773], eta argi eder-ederrean murgildutako gunearen estalgarri; egon ere, horma zabal bakoitzean hiru leiho handi-handi zegozen, eta kanpoaldeko hormetan, berriz, bosna leiho tikiago dorretzarretan; eta, azkenik, barreneko zortzialboko putzutik ere argia sartzen zen, zortzi leiho garai-estutatik.

Hainbat leihoren egoite horrek beti argi taibagea[774] eta berdina ekarten zuen gela handira, hura bezalako neguko arratsean orobat[775]. Beirateak[776] ez ziren margoztatuak, elizetan ohikoak bezala, eta berunezko[777] zerrendak margobageko[778] laukien irozogarriak[779] ziren, honela, beraz, argia ahalik eta gardenen, garbien sartzen zen, eta bere berariazko[780] helburua lortzen zuen, hots[781], idatz-irakurketan behar egiten zutenei argitzea. Beste batzuetan eta beste leku batzuetan *scriptoria* ugari ikusi izan nuen,

772 Makotu: curvar, curvado
773 Bermatu: (H. “soportar, sostener”) (Irozo)
774 Taibage: contínua, ininterrumpida (tai+ba+ge)
775 Orobat: halaber, ...ere bai
776 Beirate: vidriera
777 Berun: plomo
778 Margobageko: incoloro (Margoge)
779 Irozogarri: sostenedor (Irozo)
780 Berariazko: (H. “específico”)
781 Hots: o sea, es decir...

baina inon ez argiak hain naroro[782] argitzen zuen lekurik eta hain distiratsuro ikusarazi argiaren benetako argitasunik, *claritas* alegia, edertasun eta jakindasun ororen iturria baita. Gela haretan nabari zen izari[783] zuzenaren izaite baitezpadakoak[784] biak. Edertasuna hiru zeretik dator: lehenik, osotasun edo bikaintasunetik, honegatik osorik ez dagoena itsusitzat joiten dugu; bigarrenik, izari zuzenetik, hots, kontsonantziatik; hirugarren eta azkenik, argitasunetik, eta margo gardeneko[785] gauzak ederrak direla esan ohi dugu. Eta edertasunari begiratzea bakebide denez, eta gure nahiari baketan edo ongitan edo edertasunetan begiratzea berdin zaionez, atseginezko sentsazio batek jo ninduen, hantxe eta bertan, eta ha lako lekuan lan egitea zein atsegingarri izan zitekeen gogora zitzaidan.

Nire begien aurrean agertu zen bezala, arratseko ordu haretan, leku ha jakintzaren lantegi alai iruditu zitzaidan. Geroago, San Gall-en, haren neurri berdintsuko *scriptorium*a ikusi nuen, berau ere liburutegitik bereizita (beste leku batzuetan fraideek liburuak gorderik dagozen toki berean lan egiten dute) ez, hala ere, honako honen

782 Naroro: profusamente, naroki
783 Izari: (H. “proporción”) (Neurri, hein)
784 Baitezpadako: (H. “inseparable”) (Ezinbesteko)
785 Garden: (H. “nítido”)

egotoki ederrean. Zaharkinzale[786], kopialari, otoitz-araulari eta ikastun, nork bere mahaia zedukan, eta mahai bakoitza leiho baten azpian zegoen. Leihoak berrogei zirenez, (zenbaki zinez egin-egina, laualbokoa[787] hamarkoiztetik[788] sortzen dena, hamar aginduak lau birtute kardinalez handietsiak[789] izan balira bezala), berrogei lekaidek behar egin[790] ahal zuten aldi berean, orduko egun haretan hogeita hamar bat edo zegozen arren. Seberinok azaldu zigunez, *scriptorium*ean lan egiten zuten lekaideak tertzia, sesta eta nonako otoitzetara ez joaiteko sori[791] ziren, beraien lanari ez uztearren, argi-orduetan, eta bezperako ofiziotarako, soilik, ilunabarrean egitekoa eteten zuten.

Lekurik argitsuenak miniaturistarik adituenentzat, otoitz-araularientzat eta kopiagileentzat hautzatuak[792] ziren. Mahai bakoitzean ilustratzeko zein kopiatzeko behar zen guztia zedukaten: tinta-adarrak, luma meheak fraide batzuek aizto oso argal batzuez zorrozten zihardutenak, pergaminoa, larrukia alegia, leuntzeko apar-harriak[793], gero gainean

786 Zaharkinzale: anticuario (N)
787 Laualboko: cuadrágono
788 Hamarkoiztu: decuplicar
789 Handietsi: magnificar
790 Behar egin: lan egin
791 Sori: permiso (H. “dispensados de”) (Haizu, zilegi)
792 Hautzatu: (H. “reservados”) (Hautzatu, hautatu...)
793 Apar-harri: piedra pómez

idazteko ziren lerroen marratzeko[794] erregelak. Eskribau bakoitzaren ondoan, edo mahaiaren goiko aldean, mahaiak pendiz[795] pitin bat zuenez, atril bana zegoen eta berton kopiatzen ari zen kodizea ipinirik, eta orduantxe transkribaten ari zen lerroa koadratzeko maskarillez orrialdea estalita. Zeinbait fraidek urre eta beste margo batzuetako tintak zedutzan. Beste zeinbaitek, aldiz, liburuak irakurten zituen eta bere koaderno edo oholtxetan[796] oharrak idazten, beste bagerik.

Ez nuen haien lana behatzeko[797] astirik ukan, liburuzaina guregana zelako; Malaquías Hildesheim-go zen, eta lehenago berataz hitz egindakoak ginen. Haren begitarteak nolabait ongietorri baten itxura eman nahi zuela zirudien, baina haren karantza[798] hain bakana[799] ikustean ezin zarrada[800] ekidin izan nuen. Luzea zen, eta iharra izanagatik ere, haren beso-zangoak handiak eta baldarrak[801] ziren. Oinkada handiz aurreratzen zen, baldernako soingaineko beltzean bildua, eta haren itxuran kezkagarri

794 Marratu: trazar (linea)
795 Pendiz: (H. “inclinación”)
796 Oholtxa: tablilla
797 Behatu: (H. “observar”)
798 Karantza: aspecto, fisonomía
799 Bakan: (H. “extraño”
800 Zarrada: (H. “estremecimiento”)
801 Baldar: (H. “sin gracia”)

zen zerbait zegoen. Txapiloak[802] –kanpotik zetorrenez jasoa zekarren– haren aurpegi zurbilean itzala zegien, eta haren begi damorriati[803] handiei ez dakit zer mingarri eransten[804] zien. Haren aurpegiak hainbat grinak utzitako arradiza[805] zuen, eta haren borondateak haiek grina haiek zebatu[806] zituen arren, izan zituenen aztarrenak geratzen zitzaizkion. Begitarteak gorgostasuna[807] eta atsebagetasuna zerakusan, begiek hain zorrozki so egiten zutenez, behako[808] bat nahikoa zuen hizkidearen arima baitaraino[809] iristeko, eta beronen pentsu edo asmo ezkutukoa irakurteko gai izaiteko. Eta halako begirada hain zen onartezina, ezen, berriro haren ikuste harekin tupust ez egitea nahi baitzen.

Liburuzainak orduan hantxe lanean zihardute fraideetarik batzuk aurkeztu zizkigun. Malakias haietarik bakoitzak esku artean zuen lana zelakoa zen azalduz joan zitzaigun, eta haien guztien artean igarten[810] zen jakintza-nahia eta Jainkoaren hitzaren ikasi nahi sakona miretsi nuen. Hala, Benantzio Salvemec-eko ezagutu nuen, greziera eta

802 Txapilo: capucha
803 Damorriati: melancólico
804 Erantsi: (H. “conferir”)
805 Arradiza: marca de una enfermedad, etc.
806 Zebatu: (H. “disciplinar”) domar, educar
807 Gorgostasun: (H. “gravedad”) (Gorgots: serio, inflexible)
808 Behako: so, begirada
809 Baitaraino: ...ganaino
810 Igarri: (H. “percibir”)

arabieraren itzultzailea, Aristoteles-en jaieratsua[811] zena, berau gizonetan jakintsuena izan baitzen, zalantzarik ez. Berengario Arundel-go, liburuzainaren laguntzailea ere ezagutu. Aymaro d'Alessandria ere hantxe liburutegian mailegutan utzirik il batzuetan soilik zegozkeen liburu batzuk kopiatzen ari. Argitzaile[812] talde bat, hainbat herrialdetako, halaber: Patrizio Clonmacnois-ko, Rabano Toledoko, Magnus Ionako, Waldo Hereford-eko.

Aipuka-aipuka aurrera joan ninteke, noski, eta aipatzea baino ederragorik ez deusik, izan ere, hipotiposis[813] egin-eginak[814] osatzeko tresna berebizikoa[815] da. Baina orduan jo genituen gaiak[816] ekarri behar ditut, fraideen artean hegan bezala zebilen kexka sotila ulertzeko oso erabilgarriak diren oharrak orobat hizpidera ekarri. Esan edo adiarazi ez arren, haien hitz guztietan agerian zegoen zera.

Nire maisua Malakiasekin eleketan hasi zen, *scriptorium*ean arnasten zen lan giro eta edertasuna goretsi zuelarik, eta han egiten ziren lanen berri eskatu zitzaion, zeren, zuhurtasun handiz esan zuenez, leku orotan harako

811 Jaieratsu: (H. "devoto")
812 Argitzaile: (H. "iluminadores")
813 Hipotiposis: Grezierako hitza: "deskribapen bizia eta eraginkorra".
814 Egin-egin(a): perfecto
815 Berebiziko: (H. "privilegiado")
816 Gaia jo: tocar un tema (N)

liburutegiaz asko aditua baitzuen, eta hango liburuetarik beredin jakingarri eskuratu nahi baitzuen. Malakiasek lehenago Abadeak esanikoa azaldu zion: lekaideak aztertu nahi zuen liburua zainari galdatzen zion, berau goiko estaian zegoen liburutegira joaiten zen, bila beti ere eskaera zuzena eta jainkotiarra[817] bazen. Gilenek galde egin zion nola jakin ahal zuen goiko armairuetan gorderik zegozen liburuen izenik, eta Malakiaasek kodize mardul-mardul bat erakutsi zion, zerrenda estu-estu batzuekikoa, bere mahaiari urrezko kateatto batez lotua zedukana.

Gilenek eskuak bularraldean bere soingainekoan zegoen zarpara[818] sartu zituen, eta gauza bat atara zuen, gure bidaldian behin edo behin hartu eta begien aurrean ipinten zuela ikusi izan nion gauza. Urkila[819] itxurako bat zen, gizon baten sudurraren gainean ipinteko modukoa (harenaren gainean, batez ere, zorrotz eta mako zuen eta) zaldi baten bizkarrean laso edo txoria bere erlaxean[820] gisa. Alde bietatik, urkilak bi eraztun biribilkara metalezko zedukan, eta begien aurrean bana ipinita, eraztunen barruan beirazko arbendola antzeko zerbait, edalontzi baten azpialdea bezain

817 Jainkotiar: (H. “pío”)
818 Zarpa: bolsillo, bolsa, pochette
819 Urkila: horquilla
820 Erlax: repisa, saliente

lodia. Hura begien aurrean, Gilenek irakurten zuen eta, berak esana, gauza haretaz gorputzak berak sortzez zituen tresna batzuez baino hobeto ikusten zuen, edo, izaitekotan[821] ere, bere adin zaharrak, egunaren argia urritzean batez ere, ahalbidetzen zion baino hobeto. Ez zuen erabiltzen urrun ikusterako, ikusmena artean[822] oso ona baitzuen, hurrerean[823] ikusteko baizik. Gauza haretaz oso hizki ttiki-ttikiz idatziriko eskuizkribuak irakurri ahal zituen, nik neronek ere nekez irakurten nituenak. Berak behin jakinarazi zidanez, gizakiak bere bizialdiaren erdia gainditu eta gero, ordura arte ikusmen ona ukan arren, begia gogortzen da eta, beraz, betseina[824] egokitzeko gaitasuna galtzen du; honelatan bada, jakintsurik asko, berrogeita hamar udaberriak bete ondorean, hiltzen zen, nolabait esatearren, irakur eta idazterako. Zoritxar latza oraindik orduan heuragi[825] urtetan euren adimenetik onena eman zezaketen gizonentzat. Honegatik Jaunari eskerrak eman beharra zegoen halako gauza edo tresna asmatu eta ekoitzi zuen gizonagatik. Eta niri esateaz bere Roger Baconen aburuak goretsi nahi zituen, izan ere,

821 Izaitekotan (ere): en todo caso, en cualquier caso
822 Artean: todavía entonces
823 Hurrerean: desde cerca (hur+rean: hurretik, hurbildik)
824 Betsein: pupila (Ninika)
825 Heuragi: asko, anitz, beredin, ugari

haren eritziz zientziaren helburuetako bat giza-bizitza luzatzea zen.

Beste fraideek Gileni jakin-nahi handiz begiratu zitoten, galdetzera, ordea, ausartu ez. Ha lako leku hain harrokiro eta maitekiro irakurketa zein idazketara emana zen haretara halako tresna harrigarri hura artean sartzeke zegoela ulertu nuen. Harro nengoen ni orduan, zergatik eta haien jakituriagatik hain ospetsuak ziren haiek harritu zituen gauza bat zedukan gizon baten ondoan nengoelako.

Harako gauza ha begien aurrean, Gilenek kodizean irarrita[826] zegozen zerrendetara burua makurtu zuen. Nik ere begiratu nion, eta liburu ezezagun batzuen izenburuak aurkitu genituen, eta guztiz entzutetsuak ziren batzuenak ere bai, liburutegiak zeduzkanak.

—*De pentagono Salomonis, Ars loquendi et intelligendi in lingua hebraica, De rebus metallicis* Roger Hereford-ekoarenak, *Algebra* Al Kuwarizmirena, latinara Roberto Anglicok itzulia, Silio Italicoren *Punica*-k, *Gesta francorum*, eta *De laudibus sanctae crucis* Rabanus Mauru-renak, eta *Flavii Claudi Giordani de aetate mundi et hominis reservatis singulis litteris per singulos libros ab A*

826 Irarri: inscribir, grabar

usque ad Z –irakurri zuen ene maisuak–. Idazlan bikainak. Baina, zein hurrenkeratan dagoz erroldaturik? –nik ezezagun nuen baina Malakiasek ondo buruan zedukan testu batetik aipatu zuen–. *Habeat Librarius et registrum omnzum librorum ordinatum secundum facultates et auctores, reponeatque eso separatum et ordinate cum signaturis per scripturam applicatis*[827]. Nola egiten duzue liburu bakoitza non dagoen jakiteko?

Malakiasek izenburu bakoitzaren ondoan zegozen oharrak erakutsi zizkion. Irakurri nuen: iii, IV gradus, V in prima graecorum; ii, V gradus, VII in tertia anglorum, e.a. Lehenengo zenbakiak liburua zein lekutan zegoen zioen, eta bigarrenak zein arasatan[828] edo "gradus"-ean, hirugarrenak, berriz[829] armairua adiarazten zuen, eta beste ikurrak liburutegiko gela edo iraganguen[830] adiarazgarriak zirela ulertu nuen. Azkenengo bereizgarri hauetaz zertzelada[831] gehiago eskatzera ausartu nintzaion eta Malakiasek biziki zorrotz so egin zidan.

827 «Eduki beza [fraideak] liburuzainak liburu guztien errolda bat, gaiez eta egilez antolatua, eta ipin bitza bereizirik eta eraz izenpeak idatzirik».
828 Arasa: anaquel
829 Berriz: (H. "mientras que")
830 Iragangu: pasillo
831 Zertzelada: detalle (Ñabardura)

— Beharbada ez dakizu, edo ahantzi zaizu, liburutegira sartzeko baimena liburuzainak ez bestek duela. Beraz, honelako gauzen deskodetzea liburuzainak ez bestek jakin dezan zuzen eta nahikoa da.

— Baina, zein ordenatan dagoz erroldaturik liburuak zerrenda honetan? –galdetu zuen Gilenek–. Gaika[832] ez, nik uste.

Ordenaz ez zuen esan nahi alfabetoko hizkien hurrenkera, izan ere, modu hau azkenengo urteetan bai baina orduko garai haretan oso ez ohikoa zen, bakana.

— Liburutegiaren etorkiak[833] antzin-antzinako ilunbeetan galtzen dira –Malakíasek esan–, eta liburuak hona etorri ahala dagoz zerrendaturik, erdietsi, dohaintzan[834] hartu edo sartu ziren hurrenkeraren arauera, hain zuzen ere.

— Aurkitzeko zailak –ohar egin[835] zuen Gilenek.

— Liburuzainak buruz ezagutu eta liburu bakoitza zein garaitan iritsi zen jakinez gero, nahikoa. Beste fraideak, berriz[836], haren oroimenaz fida daitezke.

832 Gaiak: por temas
833 Etorki: origen
834 Dohaintza: donación
835 Ohar egin: observar (hacer una observación) (?)
836 Berriz: (H. “en cuanto a...”)

Eta beste pertsona batez mintzo zela zirudien; ulertu nuen, ulertu, berak une haretan doilorki[837] betetzen zuen eginenaz[838] ari zela, baina beste hainbat fraidek lehenago egindakoa. Haiek, ordurako joanak ziren, haien jakituria, hala ere, batzuengandik besteengana iragaiten joan izan zen.

— Ulertzen dut –Gilenek–. Bada, nik ezer bilatuko banu, adibidez, Salomonen pentagonoaz zehazki zer jakiteke, zerorrek jakinen zenuke oraintxe izenburua irakurri dudan liburuaren izaeraz, eta goiko estaian ediren ahal zenuke.

— Bai benetan Salomonen pentagonoaz zerbait ikasi behar bazenu –Malakiasek–. Alabaina, horixe eman ezin niezazukeen liburu da, aurretik Abadeari galdetu ezik.

— Jakin dudanez, zuen miniaturagilerik onenetako bat –atzera Gilenek– orain guti hil zen. Abadeak haren antzeaz[839] ondo hitz egin zidan.

— Adelmo da Otranto –esan zuen Malakiasek, Gileni goganbehartsu[840] so eginik–, gazte zelako, *marginali*etan[841] baino ez zuen lanik egiten. Irudimen biziki bizia zuen, eta ezagun diren gauzez gauza ezezagunak osatzen zekien, eta

837 Doilorki: (H. “indignamente”)
838 Eginen: (H. “función”)
839 Antze: arte (ik. Antzeztu, antzerki...)
840 Goganbehartsu: desconfiado, suspicaz
841 Marginalia: (testuen alboetan geratzen ziren zuriuneak)

harrigarriak, esate baterako, giza-gorputz batekin zaldi baten bizkarra konbinatuz. Alta bada[842], haren liburuak hantxe dagoz. Inork ez du oraindik haren mahaia ukitu.

Adelmok lan egiten zuen lekura hurbildu ginen, artean salterio[843] bateko orriak han, miniatura bikainez apaindutakoa baitzen. *Vellum* leun-leunezko *folia* ziren –larrukien artean lehenak, hots, onenak–, eta azkena, artean, mahaiari itsatsita zegoen. Apar-harriz igurtzita, igeltsuz bigunduta, lauaz[844] leundua zegoen eta, ertzetan[845] zikai[846] oso meheaz egindako txulo ttiki-ttikien artean, antzegilearen eskua gidatzeko izango ziren marrak eginak zegozen. Lehen erdia idazkiz betea zegoen, eta lekaideak bazterralboetako irudiak zirriborratzen[847] hasiak zituen. Beste orriak[848], ordea, bukaturik zegozen, eta ikustean, bai niri bai Gileni harridurazko oihuxka bat ez egitea ezinezko izan zitzaigun. Salterio bat zen, eta bazterralboetan buruz beherako lurbira[849] ikus zitekeen, ohikoa ez bezala. Hitzaldi bateko alartzean[850], berez egiari buruzko hitzaldia baita, beste

842 Alta bada: no obstante / ...
843 Salterio: liburu mota bat, otoitzak eta antzekoak dadutzana.
844 Lau: plana (N) (Inprentako aparailu bat)
845 Ertz: (H. “borde”)
846 Zikai: punzón (H. “estilo”) (zi+gai –Larr.)
847 Zirriborratu: bosquejar
848 Orri: (H. “folio”)
849 Lurbira: mundu, mapa mundi
850 Alartze: umbral (Atalase, atari, ataurre)

hitzaldi bat barreiatu[851] balitz bezala, harekin sakonki lotua *in aenigmate*-ko aipu[852] harrigarriez, hitzaldi gezurti hankaz gorako mundu batez mintzatzen zena, non zakurrek erbiei ihes egiten baitzieten eta oreinek lehoiak ehizatzen baitzituzten. Txori-erpeekiko[853] buruttoak, bizkarretik ateratako giza-eskuak zeduzkaten animaliak, adatsetik[854] sortzen zitzaizkien oinekiko buruak, zebra itxurako herensugeak, lepoetan korapilo ezinaskatuzko sugeak zeduzkaten lauhankakoak, orein-adarrekiko tximuak[855], hegazti itxurako eta bizkarrean josirik mintzezko[856] hegoak zeduzkaten itsas-lamiak, besorik bageko gizonezkoak eta atzealdetik beste giza-gorputz batzuk, konkor[857] bezala, jaiotzen zitzaizkiola, eta hortz-haginez beteriko ahoa urdailean zedukaten irudikiak[858], zaldi-burureko gizakiak eta giza-zangoekiko zaldiak, txori-hegoak zeduzkaten arrainak eta arrain-itsasa zedukaten txoriak, soin bakar eta buru biko bidutziak[859] edo buru bakarreko soin birekin, oilar-isatsekiko behiak tximeleta-hegoekikoak, arrainaren

851 Barreiatu: (H. “desplegar”)
852 Aipu: (H. “alusión”)
853 Erpe: atzapar
854 Adats: cabellera
855 Tximu: tximino
856 Mintz: membrana (H. “membranosa” : mintzezko)
857 Konkor: joroba
858 Irudiki: figura (?)
859 Bidutzi: munstro

bizkarra bezala ezkatadun buruko emakumeak, sugandila-muturreko mariorratzekin[860] txirikordaturiko[861] kimera[862] burubikoak[863], zentauroak, herensugeak, elefanteak, mantikorak[864], oin erraldoiak zeduzkaten izakiak zuhaitz adarretan etzanak, grifoi batzuk eta berauen buztanetik eraso-itxuran zegozen arkulari bana, idun[865] bukaezineko sorkari[866] deabruzkoak, gizaitxurako[867] piztiak multzoka eta epo[868] abereitxurakoak[869] haiekin nahasirik, batzuetan, orrialde berean, landa-eszena batean, hain biziro irudiztatua, ezen, irudiek bizirik ziruditen, landako bizitza guztia bertan irudikatua, hots, luginak[870], igali[871]-biltzaileak, uzta-biltzaileak, iruleak[872], ereileak[873], eta haien aldamenetan azeriak baleztez armatu lepazuriekin[874], tximinoek defenditzen zuten hiri bateko harresietan gorantz zihoazela.

860 Mariorratz: libélula (Mariburruntzi, sorgin-orratz...)
861 Txirikordatu: (H. “entrelazar”)
862 Kimera: Munstro bat, lehoi buru, ahuntz sabel eta herensuge buztana zedukana, su garrak egozten zituena.
863 Burubiko: bicéfalo
864 Mantikora: Pertsiako mitologiako munstro bat
865 Idun: lepo, sama
866 Sorkari: criatura
867 Gizaitxurako: antropomorfo
868 Epo: epotx -enano
869 Abereitxurako: zoomorfo
870 Lugin: labrador (Lurgin)
871 Igali: fruto/a
872 Irule: hilandera (Irun: hilar)
873 Erein: sembrar
874 Lepazuri: garduña

Hemen L bat, hasierakoa, eta beheko adarrean jaiorik herensuge bat; han V bat, «verba»-koa, eta bere enborrretik egotzirik mila kiribileko[875] suge bat, eta kiribiletatik beste suge batzuk sortzen ziren, aihenak[876] eta korinboak[877] bezala.

Salterioaren ondoan ordu-liburu bikain bat zegoen, zuela guti bukatua antza[878], hain ttiki-ttikia neurriz ahurrean [879] edenen[880] zen. Hizkiak oso-oso ziren txikirrak eta alboetako miniaturak ia-ia ikusi ezin ziren, ikuste hutsez[881]: begia haietara hurbildu behar zen haien edertasun betea mirestearren (bat-bederak[882] bere buruari galde zein tresna gizagandikoz[883] egina ote zen miniaturagileak margotzeko erabili zuena, hain leku ttiki-ttikian halako bizitasun ha erdiesteko). Liburuaren bazterralboak irudiki nimiñoz bete-beteak ziren, berez bezala, hizkien marrazki bikainean bukatzen ziren kiribiletatik sortzen zirenak: itsas-lamiak, orein izuak, kimerak, beso bageko giza-soinak, zizare[884] bezala, bertsikuluen soinetik beretik sortzen zirenak. Leku

875 Kiribil: (H. “voluta”)
876 Aihen: (H. “pámpano”)
877 Korinbo: corimbo (loreak dituen kimu luzea edo)
878 Antza: (H. ”evidentemente”)
879 Ahur: palma de la mano
880 Eden: caber -da-/ contener-du- (Itzuki) (Ede: pozoin /...)
881 Ikuste hutsez: a simple vista
882 Bat-bedera: (H. “uno” -mismo)
883 Gizagaindiko: sobrehumano
884 Zizare: lombriz

batean, «Sanctus, Sanctus, Sanctus» hiruen jarraipena balitz bezala hiru lerro ezberdinetan, hiru ehizi-itxura[885] giza-buruak zeduzkanak zegozen, haietarik bi okerturik gorantz bata eta beherantz bestea, musu batean elkartzeko. Musu hau zalantzarik bage lotsagetzat[886] hartu nukeen, nabaria ez izan arren, han ager zedin ziorean[887] bat edo bat zegokeela uste ukan ez banu, irudi hura hango haretan egoiteko aitzakia espiritual sakona, alegia.

Orrialde haiek aztertu nituen, miresmenez hitz bage eta barre egin aginik[888], zeren, testu sakratuen iruzkinak[889] ziren arren, irudikiek ezinbestela barre-gura eragiten baitzuten. Anaia Gilenek, berriz[890], irriz begiratzen zien, eta iruzkin hau egin zuen:

— Babewyn, nire uharteetan honela deritze.

— Babouins, deritze Galietan –Malakiasek–. Eta, egiaz, Adelmok bere antzea zuen herrialdean ikasi zuen, geroago Frantzian ere ikasi arren. Babuinoak, hots, tximu afrikarrak. Erroz gorako[891] mundu bateko irudikiak, non etxeak orratz-

885 Ehizi: animal (E.-itxura: animalesco)
886 Lotsage: (H. “inverecundo”) (Lotsa+ge: bage)
887 Zio: motivo
888 Agin(ik) : a punto de (zorian, hurran, -tzear)
889 Iruzkin: comentario
890 Berriz: (H. “por su parte”)
891 Erroz gora: patas arriba (H. “invertido”)

zietan[892] eraikita dagozen eta lurbira ortziaren gainean agertzen den.

Nire lurraldeko hizkuntzan entzundako bertso batzuk gogoratu nituen, eta erasten[893] hasi eta ezin gelditu:

Aller Wunder si geswigen,

das herde himel hât überstigen,

daz sult ir vür ein Wunder wigen.

Eta Malakias jarraiki zitzaion, testu bera aipatuz, honela:

Erd ob un himel unter

das sult ir hân besunder.

Vür aller Wunder ein Wunder.

— Bai, Adso maite –liburuzainak aurrera–, irudiki hauek lurralde haretaz mintzo zaizkigu, antzara[894] urdin baten gainean itzegoz[895] heltzen den haretaz; han lats errekasto batean arrantzan saiak, ortzian mirotzei[896] jazarten[897] dieten

892 Zi: punta (Orratz-zi)
893 Erasi: (H. “recitar”) (?)
894 Antzara: ganso, oca
895 Itzego: cabalgar
896 Mirotz: gavilan (Gabirai...)
897 Jazarri: perseguir, acosar

hartzak, usoekin hegan ibiltzen karramarroak, eta hiru erraldoi segada batean harrapatuak oilar batek mokoka erasoten dielarik.

Haren ezpainetan irri hits[898] bat islatu zen. Orduan, beste fraideek, elkarrizketa entzunda, ordura arte jarrera herabetian[899], barre egin zuten, gogoz ere egin, liburuzainaren baimenaren zain egon balira bezala. Hura berriz ere illundu zen, besteak barreka bitartean, Adelmo gaixoaren trebetasuna goresten zuela, eta haiek euren artean batak besteari irudikirik itxurageenak[900] erakusten zizkioeino. Orduantxe, oro barrez, gure gibelaldean ahots larri eta arranditsu[901] bat entzun genuen:

— *Verba vana aut risui apta non loqui*[902].

Burua itzuli genuen. Mintzatzailea fraide urteen pisuagatik makur-makurtua zen, elurra bezain zuria; ilea ez ezik begitartea ere bai eta begi-niniak are zurituagoak. Itsu zela ohartu nintzen. Gorputza adinagatik uzkurtua[903] izan arren, ahotsa hotsandiko[904] zuen, artean, eta esku-besoak

898 Hits: (H. “pálida”)
899 Herabe: timido / timided
900 Itxurage: inverosímil
901 Arranditsu: (H.“solemne”)
902 «Ez ahoskatu hitz hutsalik edo barre eragingarririk.»
903 Uzkurtu: encoger / ...
904 Hotsandiko: (H. “majestuosa”)

ahaldunak, zaintsuak[905] alegia. Begiak gu baitan josten zituen, iltzatzen, gu ikusten bezala, eta beti, harik hurrengo egunetan halaber[906], ikusteko dohaina artean bailuan ibiltzen eta mintzatzen ikusi nuen. Alta bada, ahotsaren tonua profeziaren dohainaz betea zegokeen norbaitena zen.

— Dakusazuen gizona, adinagatik zein jakintzagatik gurgarria –Malakiasek Gileni etorberriari so eragiteaz batera esan zuen–, Burgosko Jorge da. Alinardo da Grottaferrata kendurik, monasterio honetan bizi den lagunik zaharrena da, eta hainbat lekaidek bere bekatuen zama haren gainean utzi ohi du aitorpen-sekretupean –sentonaren[907] aldera itzuli zen eta esan zuen–. Zure aitzinean duzun hau Baskervilleko Gilen anaia duzu, gure arrotza[908].

— Nire hitzok ez sumintzea gura nuke –esan zuen agureak xakarto–. Barregarrikeriez barre egitean batzuk aditu ditut eta gure arauetako bat gogorarazi diet. Eta salmogileak dioenez, fraideak hitz ona beretzat gorde behar badu, isiltasun-botoagatik, are arrazoi handiagoz isildu behar du hitz gaiztoa. Hitz gaiztoak diren bezala, irudi gaiztoak ere badira. Berauek dute gezurra esaten sorreraren moduaz eta

905 Zain: vena (zaintsu: nervudo / de muchas venas)
906 Halaber: ere bai, ere ez, orobat, berebat...
907 Senton: anciano
908 Arrotz: huesped / extranjero

mundua behar ez den legez, alderantziz erakusten dute, beti izan denaz bestela, eta mendez mende aldien azkenera arte beti izango denaz bestera. Zuek, ordea, beste balderna batetik zatozte, zalapartarik[909] ezegokiena ere errukitasunez[910] onartzen den batetik.

Beneditarrek Asisko Jaun Done Frantziskoren erabagekeriez esaten zutena aipatzen bide-zuen, hitz-erdika, eta beharbada *fraticelli*-ei egozten zitzaizkienez ere bai, eta mota guztietako espiritualei orobat, frantziskotarren baldernako kimu berri eta gaitzigarrienak[911] baitziren. Gilen anaiak, ostera, hitz-erdia[912] alegia eta ez ulertu egin zuen.

— Alboetako irudikiak irribarrea eragin bai baina asmo onekoak[913] izan ohi dira –erantzun zuen–. Predikuetan, halaber, fededun jende-ostearen[914] irudimena zirikatzearren *exempla* sartzen diren bezala, maiz barregarri, irudikien maintzaeran ere *nugae*[915] horiek haizu dira, sori dira. Onbide bakoitzak eta gaizpide bakoitzak piztiterian[916] adibide bat

909 Zalaparta: (H. “alborozo”)
910 Errukitasun: indulgencia, conmiseración
911 Gaitzitu: molestar, incomodar
912 Hitz-erdia: (H. “insinuación”)
913 Asmo on: (H. “finalidad edificante”)
914 Jende-oste: muchedumbre de gente
915 Nugae: txantxak edo txisteak
916 Piztiateria: bestiario

du, eta piztiek, ehiziek alegia, gizakien mundua irudizta[917] dezakete.

— Ho[918], bai! –iseka antxo agureak, ez irririk, ordea–, edozein irudiki on da onbidea, hots, bertutea sustatzearren, gure sorrerako lan sekulakoa, hankaz gora ezarrita, barrebide izan dadintzat. Hala, beraz, hara! Jaungoikoaren hitza astoa lira joiten ari denean agertzen da, erredolaz[919] lurra lantzen duen urubiarengan[920], goldeari euren kabuz uztartzen diren idiengan, gorantz doazen ibaietan, suak hartzen duen itsasoan, parrau[921] bilakatzen den otsoarengan! ¡Jalgi zaitezte ea, erbitara[922] idiekin, irakats diezazuela hontzak[923] gramatika, ausiki ditzatela zakurrek arkakusoak[924], ikus ditzatela itsuek gorrak eta gorrak eska daitezela ogia, atera dezala inurriak txahala larrera, hegan erretako oilaskoak, handi daitezela pamitxak[925] sabaietan, papagaioek irakats dezatela erretorika edo elederra edo mintza-antzea, oiloek

917 Irudiztatu: (H. “representar”)
918 Ho!: ¡Oh! / ¡Bueno!
919 Erredola: escudo redondo, ¿“rodela”?
920 Urubi: cárabo
921 Parrau: monje eremita
922 Erbitara: a por liebres
923 Hontza: lechuza
924 Arkakuso: pulga
925 Pamitxa: (H. “hogaza”)

oilarrak ernal[926] ditzatela, ipin albaitzenezate[927] gurdia idien aurrean, zakurrak ohean lo eta guztiok zangoak goiti ibil albailitez! Zer nahi dute *nugae* hauek guztiok? Erroz gorako lurbira, Jaungoikoak asmatu duenaz bestelakoa, goibeheratua, Jaungoikoaren aginduak irakats estakuruan[928]!

— Alabaina, Areopagitak irakasten duenez –Gilenek apalkiro– Jainkoa gauzarik ezain[929] eta marketsenez[930] soilki izenda daiteke. Eta Hugue de Saint Victor-ek gogorarazten zigun, ezen, erkaketa[931] zenbat eta ezberdinago orduan eta egia ageriago itxura zantar[932] eta izugarrien estal-mihise[933] azpian, eta orduan irudimenak haragi-irritsean[934] are atsegin guttiago duela, eta ondorioz orduan irudien baldarraren[935] azpian estaltzen diren misterioak agerrarazi beharrean da…

— Argudio hori ezaguna dut! Lotsarren onartzen dut, bai, gure baldernaren argumentu funtsezkoa izan dela abade klunitarrek zistertarrekin borroka egiten zuten garaian. Baina Jaun Done Beñat zuzen zegoen: apurka-apurka

926 Ernaldu: fecundar (Izorratu)
927 Albaitzenezate: prescriptivo (poned -consejo-) (Albait+zenezaten)
928 Estakuru: pretexto (Aitzakia, txutxu...)
929 Ezain: feo, por defecto.
930 Markets: deforme /...
931 Erkaketa: comparación (Erkatu, alderatu,
932 Zantar: (H. “indecoroso”)
933 Mihise: lienzo (Estal-mihise: velo, (N)
934 Haragi-irrits: (H. “goce carnal”)
935 Baldar: torpe / torpeza

munstroak eta izaki izukariak[936] irudiztatzen dituenak, Jaungoikoaren gauzak gorestearren *per speculum et in aenigmate*[937], munstrokeria horien izaeraz atsegin hartzen du, haiekin gozartzen[938], eta azkenean haien bidez eta ez bestez ikusten du. Ikus zuek, ikusmena oraindik duzuen zuek, zuen kalostrako[939] kapitelak –eta eskuaz leihotik at so eragin zuen, eliza alderantz–, zer dira munstrokeria barregarri haiek edertasun markestu haiek eta markestasun[940] eder haiek, isil-otoitzari[941] emaniko fraideen begien aitzinean hedatuak[942]? Tximu narras[943] haiek. Lehoi haiek, zentauro haiek, ahoa sabelean duten izaki erdigizaki[944] haiek, oin bakarreko eta belarri zi-zorrrotzeko[945] haiek. Nabarri[946] karako larrua duten lehoinabar haiek, borrokan ari diren gudakari haiek, adarrari putz degioten ehiztari haiek, buru bakarreko gorputz mordo haiek eta gorputz bakarreko buru mordo haiek. Suge-isatsa duten lauhankako haiek, lauhankakoren burua dadukaten arrain haiek, eta han

936 Izukari: (H. “portento”)
937 «ispilutik eta enigma batekin».
938 Gozartu: gozo hartu, gozatu (Onartu...)
939 Kalostra: claustro
940 Markestasun: deformidad
941 Isil-otoitz: (H. “meditación”)
942 Hedatu: (H. “desplegar”)
943 Narras: (H. “sórdido”)
944 Erdigizaki: semihumano
945 Zi-zorrotz: punta afilada (H. “en punta”)
946 Nabarri-karako: (H. “jaspeada”) (Nabarri: jaspe)

aurrealdetik zaldi eta atzealdetik aker dirudien abere hura, eta hanago zaldizko adardun ha, eta, tira!, hala bada, fraideari eskuizkribuak baino harri haietan irakurtea atseginago zaio, doike[947], eta Jaungoikoaren legeez gogoeta egin[948] beharrean gizonaren lana miresten du. Lotsa behar zenukete zuen begien nahikeriengatik eta zuen barreengatik!

Agure itzaltsu[949] ha gelditu zen, itokarrean[950], arnasa estu. Hainbeste urtez itsu eta hala ere han deskribatzen zituen irudi markestu haiek nola gogora ahal zituen harrigarria zen. Susmo ere hartu nion, susmo, haietaz hain grinatsuro mintzatzen zenez, beharbada, ikusi ahal zituen garaietan ez ote zen haiekin liluratu. Sarritan, bekatuaren irudikapenik liluragarrienak gizonik bertutetsuenen orrietan ikusi izan ditut, haretan ere[951], haien lilura eta beronen ondorioak kondenatzen zituzten gizonenetan. Izan ere, gizon hain sutsu haiek, egia azaltzearren, Jaungoikoari zioten maitazarreagatik, gaizkia estaltzen duten atsegingarri guztiei gaitz guztiak egozten zizkieten, deabruak gizonak liluratzeko erabili ohi dituen trikimailu guztiak gizonek

947 Doike: zalantzarik ez, enurarik bage
948 Gogoeta egin: meditar
949 Itzaltsu: (H. “imponente”)
950 Itokarrean: arnasestuka, albetan, hatsanka
951 Haretan ere: precisamente (Hain zuzen...)

ezagut ditzaten. Eta, benetan[952], Jorgeren hitz haiek, nigan, kalostrako tigreen eta tximuen ikusteko irrika[953] piztu zuten, oraindik orduan aztertuak ez bainituen. Jorgek, aldiz, nire asmo haiek behingoan eten zituen, baretuxeago, berriz ere hitz egiten hasirik.

— Gure Goiko Jaunak bide zuzena erakusteko ez zuen hainbesteko tentelkeriarik behar izan. Haren paraboletan ez dago barrerik ez beldurrik lekarkeen deus. Adelmo, orain zuek beraren heriotzagatik negar, margotzen zituen munstrokeria haiekin atsegin harturik, irudiztatu behar zituen benetako gauza egiazkoak burutik galduta aritzen zen, azkenean. Eta munstrokeria guztietako, bai, guztietako zidor eta inda[954] guztietatik ibili izan zen –ahotsa hotsandi eta zemaigarri bihurtu zitzaion–. Jaungoikoak, bada, zigortzen badaki, jakin.

Hantxe gengozenen artean, isiltasun eragozgarria[955] erori zen. Benantzio Salvemec-ekok eten zuen ausarki[956].

— Jorge gurgarri hori –irautsi zion–, zure bertuteak, on-nahiak injustu bihurtzen zaitu, etzuzen[957]. Adelmo hil baino

952 Benetan: (H. “en efecto”)
953 Irrika: gran deseo (Irrikatan...)
954 Inda: vereda, sendero (Zidor, bide-zidor...)
955 Eragozgarri: (H. “embarazoso”)
956 Ausarki: atrevidamente
957 Etzuzen: injusto (ez+zuzen / ezjakin, ezordu, ezdeus...)

bi egun lehenago, *scriptorium* honetantxe, eztabaida jakintsu[958] baten lekuko izan zinen. Adelmo, halako izaki bitxiak[959], izugarriak[960] irudiztatzen zituena, bere antze mota harek Jaungoikoaren aintza gorets zezan arduratzen zen, hala eta guztiz ere; zeruko zerak ezagutarazteko tresnak izan zitezen nahi baitzuen. Arestian anaia Gilenek Areopagita aipatu du, markestasunaren bidez jakituriara hel daitekela eta. Adelmok orduko haretan beste jakintsu guzti-guztizkoa[961] aipatu zuen, Akinoko doktorea alegia, zeren, beronek esan zuenez, jainkozko gauzak gorputz zintzoez baino gorputz doilorrez irudiztatzea komenigarriago baita. Lehenik, hala eginez giza arima okerretik errazago askatzen delako. Benetan, zeinbait ezagugarri[962] ezin ezar[963] dakieke jainkozko gauzei, eta gorputz zintzoez irudiztatzeaz, horrelako ezintasun hori ez litzateke hain agerikoa izango. Bigarrenik, honelako irudiztapena lurbira honetan dugun Jainkoaren ezagutzari komenigarriago zaiolako: benetan, ez denaren baitan denaren baitan baino gehiago agertzen zaigu, eta honegatik Jainkoagandik urrunago dagozen zerekin alderatzeak Haren izaeraren ideia zehatzago batera iristea

958 Jakuntsu: (H. “erudito”)
959 Bitxi: (H. “extravagante”)
960 Izugarri: (H. “fantástico”)
961 Guzti-guztizko: (H. “eminentísimo”)
962 Ezagugarri: (H. “propiedades”)
963 Ezarri: (H. “atribuir”)

errazten digu, zeren, horrela esaten dugun eta pentsatzen dugunaren gainetik dagoela bai baitakigu. Eta, hirugarrenik, hala eginez Jainkoaren zerak pertsona ezduinengandik[964] gordeago direlako. Azkenik, gure eztabaida hauxe: nola ediren daitekeen egia irudi harrigarri, asmotsu[965] eta misteriotsuen[966] bitartez. Nik erantzun nion, ezen, Aristoteles handiaren irakats-lanetan horretaz hainbat hitz nahiko argi aurkitu nuela…

— Ez dut gogoratzen –eten zion lakarto[967] Jorgek–, oso zaharra naiz. Ez naiz oroitzen. Beharbada, zorrotzegi izan naiz. Orain berandu da, joan behar dut.

— Handi[968] da zuk ez baituzu gogoratzen –Benantziok berriro–. Eztabaida txit jakintsua eta biziki ederra izan zen, eta Bentziok zein Berengariok hitz hartu[969] zuten. Benetan, olerkariek atsegin emaitearren[970] soilik asmatzen dituzten metaforak, hitz-jokoak eta misterioak zirikagarri gerta ote litezkeen jakin nahi genuen, zera guztiez beste era bateko gogoeta harrigarririk egon ledin, eta nik jakintsuak ere

964 Ezduin: indigno (N)
965 Asmotsu: (H. “ingenioso”)
966 Misteriotsu: (H. “enigmatico”)
967 Lakar: (H. ”sequedad”)
968 Handi: (H. “extraño”)
969 Hitz hartu: tomar parte de palabra / Esku hartu/ (N)
970 Atsegin eman: deleitar

bertute hori ukan behar duela nioen… Eta Malakias ere hantxe zegoen…

— Jorge gurgarria oroitzen ez bada, euzu[971] begirune haren adinagatik eta haren gogoaren nekeagatik… gainera, beti hain bizia gogoa –sartu zuen hitz[972] eztabaidan adi zegozen lekaideetako batek.

Esaldia oso hizkera urdurian ahoskatu zuen, hasieran bederen, zeren, Jorgeren gurgarritasuna haintzat hartzearren, esaleak, nahi bage, agure haren ahultasun bat agerian utzi baitzuen, eta bere hizkeraren[973] indarrari galga[974] ezarri zion, eta azkenean ia txutxu-mutxu bihurtu zen, desenkusa bezalatsu[975]. Mintzatzaile hura Berengario da Arundel zen, liburuzainaren laguntzailea. Gazte zen, zurbila zen, eta begiratu nionean Ubertinok Adelmoz esan zuena etorri zitzaidan burutara: haren begiak emazteki lizunarenak ziren. Han ginen guztion begiradek kikildua[976], orduantxe guztiak berari soz, eskuetako hatzamarrak bihurtzen[977] ari zen,

971 Euzu begirune: ukan errespetu
972 Hitz sartu: inervenir de palabra (N) (Esku sartu) (inter+venir)
973 Hizkera: (H. “tono”)
974 Galga: freno
975 Desenkusatu: excusarse, pedir excusas
976 Kikildu: (H. “amedrentar”)
977 Bihurritu: (H. “retorcer”)

atezuan[978] antzo, tentsio barren-barrenekoa[979] lasaitzen saiatuko balitz bezala.

Benantzioren erreakzioa oso harrigarria izan zen. Berengariori so egin zion eta bai honek begiak apaldu ere:

— Ondo, anaia –esan zuen–, oroimena Jaungoikoaren dohaina bada, ahanzteko gaitasuna ere goraipagarri[980] izan daiteke, eta begirunez hartu behar da. Eta nik hitz egin dudan anaia zaharrarengan begirunez hartzen dut. Zugandik, aldiz, hemen zure adiskide maite-maitearekin gertatutakoaz oroitza biziagoa uste nuen…

Ez nekike esaten orain Benantziok «maite-maitea» hanpaduraz[981] ahoskatu ote zuen. Ohartu, bai, ohartu nintzen han zegozen guztien ondoezaz, ezeroso sentsazio gisa batez. Bakoitzak alde batera begira eta inork ez Berengariori; eta berau lotsagorri. Halako baten, bertatik bertara Malakiasek, eta agintari-hizkera antzean, hitz beste bezala[982]:

— Zatoz, ea, anaia Gilen, zudu handiko beste liburu batzuk erakusteko dizkizut.

978 Atezuan: en tensión, titrante
979 Barren-barreneko:(H. “íntima”)
980 Goraipagarri: (H. “encomiable”)
981 Hanpadura (H. “énfasis”)
982 Hitz beste: cambiar de tema

Taldea banandu zen. Berengariok Benantziori suminezko begitada iraitzi[983] zion, eta Benantziok berdin itzuli zion, hitzik ez baina axut[984], eta nik ikusi. Jorge agure zaharra harean batera[985] bazihoan, eta begirunez agur egin nion, eskuan muin[986] egitearren makurturik. Harek muin hartu eta eskua nire buruaren gainean ipini zuen eta nor nintzen galdetu zidan. Izena esan nionean, begitartea argitu zitzaion.

— Izen handia eta biziki ederra duzu –esan zuen–. Ba al dakizu nor zen Adso Montier-en-Der-ko? –galdetu zidan. Ez nekien, aitor dut. Jorgek berak erantzun zuen–: Liburu larri eta izugarri[987] baten egilea: *Libellus de Antichristo* izenburukoa, non gertatuko zena iragarri baitzuen… ez zioten merezi legez aditu, baina.

— Liburu hori milurtealdia[988] baino lehenago idatzia izan zen –zehaztu zuen Gilenek– eta gertakizun haiek ez ziren gertatu…

983 Iraitzi: aurtiki, egotzi, bota
984 Axut: Erronka egiteko hitza (Axut!)
985 Harean batera: de allí alguna parte (Bizk.) (Norabait, nora edo nora)
986 Muin: / aurpegian: musu, ma, pa, pot
987 Izugarri: (H. “tremendo”)
988 Milurte(aldi) : milenio

— Ikusteko begirik ez duenarentzat –irautsi zion itsuak–. Antikristoren bideak baratzak[989] eta bihurriak[990] dira. Uste ez dugunean heltzen da; apostoluak kontuak txarto egin ez zituen, ez, baina kontuok nola egin zituen ikasi ez dugu –eta oso ozengi oihu egin zuen, aurpegia aretorantz itzulirik eta hain ozen *scriptorium*eko gangetan burrunba egin zuen–. Badator! Ez gal azkenengo egunok bidutzien antzera barreka, larru nabar eta buztan okerreko munstrottoen antzera! Ez lardaska[991] alperrik hondarreko zazpi egunok!

989 Baratz: motel, geldo
990 Bihurri: (H. “tortuoso”)
991 Lardaskatu: estropear, desperdiciar, echar a perder

LEHENENGO EGUNA

BEZPERAK

Abadiako beste gainerakoa ikustera joan zenekoa. Gilenek Adelmoren heriotzetik ondorio batzuk idoki[992] *ditu, eta anaia beiragilearekin*[993] *eleka*[994] *aritzen da, irakurteko diren beirez eta gehiegi irakurri nahi dutenentzako mamuez hitz eginez.*

992 Idoki: atera
993 Beiragile: vidriero (Beira: vidrio)
994 Ele: hitz, berba (Eleka ari: hitz egin, mintzatu)

Une haretan bezperak deitu zituzten, arratseko otoitzak alegia, eta fraideek euren mahaiak bertan utzi zituzten. Malakiasek nolabait guk ere alde egin behar genuela ulertzera eman zigun[995]. Bera eta bere laguntzaile Berengario hantxe geratuko ziren, oro behar bezala ipintearren, eraz[996] (hala esan zuen) eta liburutegia gauerako antolatzearren. Gilenek galdera egin zion, ea gero ateak itxiko al zituen.

— Ez dago aterik *scriptorium*era sukaldetik zein jatokitik sartzea debeka lezanik, ez liburutegira *scriptorium*etik. Edozein ate baino Abadearen galarazpena[997] indartsuago izan behar da. Fraideek sukaldearekin jatokia konpletak izan arte gaiondu[998] behar dute. Horrezaz gero, Eraikinera arrotz edo abererik sar ledin eragoztearren[999], debekua nahikoa ez baitute berauek, neronek beheko ateak ixten ditut, sukalde-jatokirakoak, eta ordu horretaraz gero Eraikina bakarturik geratzen da, isolaturik.

Jaitsi ginen. Lekaideak kortxilarantz zihoazen bitartean, nire maisuak erabaki zuen, erabaki, Jaunak gu

995 Ulertzera eman: dar a entender (N)
996 Eraz: (H. “en orden”)
997 Galarazpen: (H. “interdicción”)
998 Gaiondu: utilizar (Lar.) (?)
999 Eragotzi: impedir

ofiziora joan ez gintezen barkatuko zigula (Jaunak hainbat zera barkatu behar izango zuen hurrrengo egunetan!) eta ingurualdeko ordokian[1000] ibil gintezen aurrezarri zidan, lekua ezagutze aldera.

Sukaldetik irten genuen eta hilerria zeharkatu: hilarri batzuk han berri samarrak eta beste batzuk aldiaren aldiz higatuak[1001], mende batzuk lehenago hildako fraideen bizitzez mintzo zirenak. Hilobiak, gainean harrizko gurutzeak, izenik bagekoak.

Aroa[1002] itsusten hasi zen. Haize hotza zebilen eta ortzia laino geruza zikin batek estali zuen. Baratze-ortuen atzeko aldetik ilunabarra susmatzen zen, ekialdea ilun eta gu harantz, elizako koru ondotik, ordeka barrenera heltzeko asmoz. Bertan, harresi ondo-ondoan abantzu, Eraikinean ekialdeko dorretzarrari erantsita zegoen harresian ukuiluak, eta urdainak[1003] ikusi genituen, zerrien odola isuri zuten upela baldiaz[1004] ixten ari zirela ikusi genuen. Ukuilu edo urdandegi[1005] haien ostean harresia askoz tikiagoa zela ohartu ginen, eta kanpo aldera burua ateratzea bazegoela.

1000Ordoki: (H. “meseta”)
1001Higatu: desgastar
1002Aro: tiempo, clima (Eguraldi)
1003Urdain: zerrizain, txerrizain
1004Baldi: tapa (Estalki, alperti)
1005Urdandegi: txerritoki, zerritegi

Harresi-oinean, lurrartea[1006], aldapa zorrotza oso, elurraren azpian egonagatik ere lur-multzoa[1007] zela nabaria zen. Sastegia[1008] edo simaurtegia zela argi zegoen, eta gu gengozen lekutik satsak-eta egozten zituztela, eta zidorra[1009] hasten zen bihurguneraino heltzen eta zabaltzen zirela. Zidor haretatixe zuen ihes egin Brunello zaldiak. Sats esan dut, simaur, gai[1010] satsuaz[1011] beteriko egoztoki[1012] handia zelako, eta kiratsa ni burua aterata nengoen lekuraino igaiten zen. Inguruko baserritarrak simaurtegira beheko aldetik iristen ziren, eta simaur hura euren soroetara eramaiten zuten. Abereen eta gizonen gorotzak-eta ez ezik beste gauza zikin batzuk ere bazegozen, abadiatik isurtzen ziren ur-hilak eta. Abadia eta mendialde hura garbi uztekotan, zerua bezain garbi nahi baitzuten, eiki, zikinak norabait bota behar eta haraxe.

Ondoko ukuiluetan mandazainek kabaleak[1013] asketara[1014] zeramatzaten. Ukuiluz ukuilu joan ginen, harresi ondoko bidetik, eta, eskuinetara, kortxilaren atzean

1006Lurrarte: terreno
1007Lur-multzo: (H. “terrado”)
1008Sats: simaur, zarama
1009Zidor: bide-zidor, inda
1010Gai: materia
1011Satsu: asqueroso, hediondo (Sats+tsu)
1012Egoztoki: vertedero
1013Kabale: abere
1014Aska: pesebre

lekaideen lotokietatik, eta gero, iroldegietatik[1015]. Harresiaren hegoalderanzko lekuan, angeluan zehazki, errementeria[1016] zegoen. Arotzak[1017] han lanabesak antolatzen ari, orduantxe sutegiak iraungitzen, ofizio jainkotiarrera joaiteko asmoz. Gilenek, jakin-ninez, lantoki haiek ikusi nahi zituen, beste lekuetatik lekora[1018] baitzegozen, eta hango batean azken fraide bat bere lanabesak adiutzen[1019] ari zen. Haren mahaian margo askotako beirak, bilduma ederra. Neurriz txikirrak, baina horma ondoan xafla handiagoak. Gizon haren aurrean erlikia-ontzi bat, bukatzeke, baina zilarrezko armazoian beirakiak sartu berriak zituena, beste harribitxi batzuekin batera, gema baten neurrira tikitzeko tresnak erabilirik.

Halaxe, bada, ezagutu genuen, abadiako beiragile maisu Nicola da Morimondo. Aroztegi[1020] ostean ere beira puzten[1021] zutela azaldu zigun, aurreko aldean, berriz, arotzak aritzen ziren lekuan beirategiak egiteko beira zatiak berun-zerrendez lotzen zituztela. Gehiago esan zigun: beirategiko lan nagusia, eliza eta Eraikina apaintzen zituena,

1015Iroldegi: letrina (Irol, atzula, “komun”)
1016Errementeri: herrería (Aroztegi, burdindegi)
1017Arotz: herrereo-trabajador manual-artesano
1018Lekora: kanpoan
1019Adiutu: preparar herramienta /… (Aiotu...)
1020Aroztegi: herrería
1021Puztu: soplar

bi mende lehenago egina zela. Bere garaian lan tikiak, edo urteen urtez egin beharreko konponketak baino ez.

— Eta ozta-ozta –gehitu zuen–, zeren, ezin baitira lortu lehengo margoak, urdina guztiz ere, koruan mirets dezakezuena, izan ere, hain da gardena eta gardentasunean egin-egina, eguzkiak goi-goian dagoenean barrualde osora argi paradisuarra isurtzen du. Barrualdean sartaldeko beirakiak, ez aspaldi berrituak, ez dira hain kalitate handikoak, udako egunetan ikus daitekeenez. Alperrik da: antzinarren jakituria ez dugu, amaitu da erraldoien aldia!

— Epoak gara –ongi hartu zuen Gilenek–, alabaina erraldoi haien sorbaldetan igoriko epoak, eta txikirrak izan arren, sarritan haien hodeiertza baino harago ikustea erdiets dezakegu.

— Erraidazu zertan garen gorago! –Nicolak ozendo, axut[1022]–. Elizako kriptara jaisten zarenean, abadiako altxorra gordetzen den lekuan erlikia-ontzi hain bikainki eginak ikusiko dituzu, nik egiten dudan zatarkeria[1023] hau –eta mahai gainean zedukan berak egindako esku-lana

1022Axut: erronka, desafiozko hitza.
1023Zatarkeria: (H. “adefesio”) (Arramako)

beharazi[1024] zion– imitazio zakarra, faltsukeria trauskila[1025] irudituko zaizu!

— Ez dago idatzita beiragile maisuek leihoak egiten segitu behar dutenik eta urregileek[1026] erlikia-ontziak, iraganeko maisuek hain ederrak eta hainbat mendez irautekoak egiten jakin badute. Bestela, lurbira erlikia-ontziz beteko litzateke, santu guti dagoen sasoi honetan erlikien biltzea zail delarik –Gilenek txantxetan aurtiki zion–. Ez da sekuletan[1027] beti leihoetarako beirarik soldatuko. Alabaina, zeinbait herrialdetan beiraz eginiko gauza berriak ikusi ditut, eta honek iradoki didanez, etorkizuneko munduan beira ez da soilik jainkozko ofizioetarako izanen; gizakiaren ahulerietan laguntzeko ere erabiliko dela burutara eman dit. Gure garai honetako zera bat ikus dezazun nahi dut, nik hementxe ale bat baitadukat, hagitz baliagarria.

Eskuak soingaineko barrura zituen eta bere betaurrekoak idoki, bai eta gure hizkidea[1028] harriturik geratu ere bertan.

1024Beharazi: señalar (Behatu+arazi)
1025Trauskil: tosco, burdo
1026Urregile: urregin, bitxigin -orfebre-
1027Sekuletan: (H. “eternamente”)
1028Hizkide: interlocutor

Nicolak' Gilenek eskaintzen zion urkila[1029] hartu zuen. Begira-begiratu zion, batetik eta bestetik, eta ahots gora:

— *Oculi de vitro cum capsula*![1030] Frai Giordano Pisan ezagutu nuenak haietaz ele egin[1031] zidan! Orduan bi hamarraldi baino gehiago ez zen asmatuak zirela. Orduko elkarrizketa haretatik hona, berriz, beste bi joan dira.

— Askoz lehenago asmatu zirela uste dut –Gilenek–, baina ekoizteko zailak, beiragile maisu adi-adituak behar dira eta. Beta[1032] luzea eta lan handia behar dira. Duela hamar urte, *vitrei ab oculis ad legendum*[1033] hauetariko bi Bolonian sei soldataren[1034] truke saldu ziren. Orain dela hamarraldi bat baino gehixeago Salvirio degli Armati maisu handiak biko[1035] bat oparitu zidan, eta urteotan guztiotan arduratsuki[1036] gorde ukan ditut, nire neure gorputzaren zati balira bezala, eta badira, direnez.

1029Urkila: horquilla (H. "lente" da)
1030"Beirazko begi fundaduna"
1031Ele egin: comentar, hablar (Ele, eleberri, elezahar...)
1032Beta: tiempo (para hacer algo) (aldi, asti, epe, denbora...)
1033Irakurteko beirak edo betaurreko leiarrak
1034Soldata: (H. "sueldo")
1035Biko: (H. "par")
1036Arduratsuki: (H. "celosamente")

— Egunon batean aztertzeko utz diezazkidazun nahi dut. Antzeko batzuk egin nahi nituzke –Nicolak hunkiturik esan zuen.

— Bai, noski –ontzat emanik Gilenek–, baina euzu kontutan beiraren lodiera begi bakoitzari egokitu behar zaiola, eta, beraz, betaurreko hauetarik batzu-batzuk behin eta behin probatu behar direla begi gaisoaren heinekoak[1037] izan daitezen arte.

— Hau zoragarria! –Nicolak berriro hunkiturik–. Honela eta guztiz ere, norbaitek sorginkeriaz edota deabruaren azpijokoz[1038] ele eginen luke…

— Jakina, honelakoetan aztikeriaz hitz egin dezakezu, doike –Gilenek onartu–. Baina bi magia mota dagoz. Bata, deabruaren lana da, gizakia orain aipatzea haizu ez diren trikimailuez hondatu nahi duena. Bestea, jainkozko magia da gizakiaren zientziaren bidez agertzen dena, izadia eraldatzeko eta, besteak beste, gizakiaren bizitza bera luzatzeko xede baitu. Honako magia hau santua da, eta jakintsuek honetan gehiago jardun behar dukete, gauza berriak aurkitzeko ez ezik, izadiaren hainbat sekretu berraurkitzeko ere bai, Jainkoaren jakituriak hebrearrei,

1037Hein: neurri, izari
1038Azpijoko: (H. “manipulación”)

grekoei eta antzinateko beste herri batzuei, eta are egungo egunetan jentilei ere azaldu baitie (hauen liburuetan ez dizut esango zenbat gauza zoragarri, bai optikaz bai ikusmen-zientziaz, dagoen!) Kristau zientziak jentilek zituzten eta fedebageek dituzten jakituria haiek guztiak berreskuratu behar lituzke, *tamquam ab iniustis possessoribus*.[1039]

— Baina, zientzia hori dutenek zergatik ez diote Jaungoikoaren herri guztiari jakinarazten?

— Jaungoikoaren herri guztia hainbat sekretu jasotzeko gerturik ez dagoelako; maiz zientziadun horiek deabruarekin hitz hartutako aztitzat jo izan dira, eta haien jakituria besteekin ukan[1040] nahi izan dutenean euren biziaz ordaindu dute. Nik neronek ere, inor deabruarekin harremanik zuela salatzen nuen auzietan, betaurrekook erabiltzeari uko egin behar nion, eta ikasi behar nituen idazkiak irakurteko laguntzaileak hartzen nituen, idazkariak, zeren, bestela, tusuriaren presentzia hain halako zen, ezen, guztiek, nolabait esatearren, haren usain sufrezkoa irensten zutenez, ni nerau salatutakoen adiskidetzat hartuko baininduten. Gainera, Roger Bacon handiak ohartarazten zuen bezala, zientziako sekretu guztiak ez dira ororen esku egon behar, batek edo

1039“Jabe injustuak direnez”
1040-ekin ukan: compartir (N) (?)

batek gaizkirako erabil lituzkeela eta. Jakintsuak, inoiz, zeinbait liburu magiazko dela eman behar du ulertzera, inola ere ez izanagatik, liburu horrek zientzia ona baizik ez baitu, baina zuhur ez den behakotik ondo begiratu behar du liburua, zaindu behar du.

— Beldur al zara sekretu horiek gaizki erabil ote litzaten zentzubageek? –galdetu zion Nicolak.

— Zentzubageez den bezainbatean[1041], uxatuko[1042] ote diren beldur naiz soilik, zeren, beharbada sermoilariek sarriegitan irudikatzen dituzten deabruzko lanekin nahasiko baitituzte. Entzun: Sendagile oso iaioak ezagutu ditut gaisotasun bat bet-betan sendatzeko sendagaiak destilatu dituztenak. Baina ukendua edo infusioa zentzubageei emaiten zietenean, hornitzeaz batera hitz sakratuak edo otoitz itxurako esaldiak ahoskatzen zituzten. Ez zuten hala egiten otoi-hitz haiek sendatzeko gai zirelako, aitzitik: zentzugeek, otoitza sendabide zelakoan, infusioa irents zezatentzat baizik, edo ukendua igurtz, eta hala, sendagaiaren benetako indarraz konturik egiteke senda zitezengatik. Gainera halaxe gogoa, fedezko hitzez susperturik, sendagaia gorputzean hartzeko prestago egon zedin. Maiz, zientziaren altxorrak, aldiz,

1041..- z den bezainbatean: por lo que se refiere a...
1042Uxatu: ahuyentar, espantar

zentzugeengandik ez baina jakintsuengandik babestu behar izaiten dira. Egungo egunetan, makina miresgarriak asmatzen dira, noizbait haietaz mintzatuko naiz, eta haien bitartez izaeraren nondik-norakoa, eta bai nolakoa ere, egiazki, bidera daiteke. Alabaina, ai bere botere eta bere nahikeria lurtarrak handitzeko eta asaskatzeko[1043] grina duten gizonen esku eror balitez! Catayn jakintsu bat dagoela esan didate, hauts mota bat nahasi eta suak ukituz gero lehertzen duena, eta inguruan dagoen guztia, tarte zabal-zabalean, eztandaz dena porroskatzen duela. Asmakari miragarria erreka oihertu[1044] behar balitz edo lur berriak lantzeko haitza tikitu behar balitz erabiliz gero. Baina, inork erabil baleza bere etsaiei kalte egiteko?

— Agian ona izan liteke, Jaungoikoaren herriaren etsaiez ari bagina –ihardetsi zuen, fedez, Nicolak.

— Agian –Gilenek onartu–. Horrela ere, nor da egun Jaungoikoaren herriaren etsaia? Ludoviko enperadorea ala Joan Aitasantua?

— Ho, jauna! –Nicolak ikaran esan–, ez nuke nik bakarrik erabaki nahi horren arazo mingarriz!

1043Asaskatu: (H. “saciar”)
1044Oihertu: desviar

— Ikusten? Batzuetan sekretuak isilpean gera daitezen hobe da, hitz ilunez estalirik. Izadiaren sekretuak ez dira ardi edo ahuntz larruz garraiatzen. Aristotelesek zioenez, sekretuen liburuan izadiaren eta antzearen isilpeko[1045] gehiegi azalarazten[1046] denean zeruko zigilu bat hausten da, eta honen ondorioz kalterik asko agi[1047] daiteke. Honek ez du esan nahi sekretuak inoiz ere ezagutarazi[1048] behar ez direnik, noiz-nola jakintsuek erabaki behar dutela baizik.

— Horregatik beretik, hau bezalako lekuetan liburu guztiak ororen eskumenean egon ez daitezen on da –esan zuen Nicolak.

— Hori beste kontu bat da –Gilen mintzo–. Eletsuegi[1049] izaiteagatik egin daiteke bekatu edo egin daiteke isilkor[1050] izaiteagatik. Ez dut esan nahi ukan jakintzaren iturriak estali behar direnik. Areago, hori egiteari erabat gaizki deritzot. Besterik esan nahi dut[1051], hots, isilpeko sekretuak onerako nahiz gaiztorako gaitasuna badu, jakintsuak hizkera iluna ahal eta behar duela erabili, bere kidek ez bestek uler

1045Isilpeko: (H. “arcano”)
1046Azalarazi: (H. “comunicar”, hacer aparecer)
1047Agitu: gertatu, jazo (Gauzatu)
1048Ezagutarazi: (H. “revelar”) (Agerrarazi, jakinarazi...)
1049Eletsu: locuaz
1050Isilkor: (H. “reticente”)
1051Besterik…: ...lo que he querido decir es que...

lezakeena. Zientziaren bidea zaila da, eta horretan ona edo gaitza bereizten zaila. Askotan garai berriotako jakintsuak epotxak dira beste epo batzuen lepoan igoak.

Nire maisuaren mintzaldi amultsuak[1052], antza, Nicola nolabait erakarri zuen[1053] eta beregana zuen, isilpeko egiak edo konfidentziak elkarri adiaraztearren, zeren, begi-kliska[1054] bat eginaz (esateko bezala: ni eta hi gai berez mintzatzen garelako elkar ulertzekoak gara), aipamen legez esan baitzuen:

— Horrela eta guztiz ere, han –Eraikina begirarazi[1055] zuen–, zientziaren isilpekoak ongi zainduta dagoz, artifizio magikoen bidez…

— Bai-a? –Gilenek ezaxola irudi–. Ateak faratuak[1056], atalagak ipinita, debekuak zorrotzak, zemaiak[1057], uste dut.

— Ho, ez! Hori baino gehiago...

— Zer, esaterako?

1052Amultsu: cariñoso, afectuoso, amable
1053Erakarri: (H. “predisponer”)
1054Begi-kliska: guiño
1055Begirarazi: señalar (N)
1056Faratu: trangatu (??)
1057Zemai: mehatxu

— Tira, zehatz ez dakit, ni ez naiz liburuz arduratzen, beiraz baizik, baina abadian zurrumurru harrigarriak entzuten dira...

— Zelako zurrumurruak?

— Harrigarriak. Esaterako bat: Gauez liburutegira sartu nahi ukan zuen lekaide batez, Malakiasek eman nahi ez zion liburu baten bila ausartu baitzen, eta sugeak, bururik bageko eta buru biko gizakiak ikusi omen zituen. Ia-ia zoraturik atera zen labirintotik…

— Zergatik, bada, mintzatzen zara aztikeriaz eta ez deabruzko agerkariz[1058]?

— Ni beiragile maisu hutsa naizen arren hain kokolo[1059] ez naizelako. Deabruak edo tusuriak edo dena delakoak (Jainkoak zain gaitzala!) ez du zirikatzen fraiderik sugez eta burubiko[1060] gizakiz. Egitez gero[1061], ikuspen lizunez egiten du, basamortuko aitasoak[1062] aztoratzen zituztenak bezala. Gainera, zeinbait liburu hartzea gaizto bada, zer dela eta eragotzi behar lioke deabruak lekaideri gaizki egitea?

1058Agerkari: aparición / revelación (?)
1059Kokolo: tonto, ignorante
1060Burubiko: bicéfalo
1061Egitez gero: (H. “en todo caso” de hacerlo)
1062Aitaso: (H. “padre”)

— Horrixe entimema[1063] ona deritzot –onetsi zuen ene maisuak.

— Azkenik, erietxeko beirateak doitu[1064] nituenean, Seberinoren liburu batzuk orri-pasa ikusten[1065] ari izan nintzen. Bazegoen liburu bat, isilpekoez, eta Alberto Magnok idatzirik, nik uste. Miniatura bitxi batzuek ikusmina piztu zidaten, eta zeinbait orrialdetan zera irakurri nuen: giriseilu[1066] bateko mukia[1067] nola gantzutu[1068] itzuriko den keak ikuspenak eragin ditzantzat. Ohartuta egonen zara, dagoeneko, edo oraindik ez, monasterio honetan zagozen lehenbiziko eguna duzulako, gauez Eraikineko goiko estaia argiztaturik dagoela. Leku batzuetan leihoetatik argi oso ahula[1069] nabaritzen da. Heuragik[1070] galdetu izan dio bere buruari ea zer ote den, eta su memelez[1071] ele egin da, edo fraide liburuzainen arimez, hil eta gero bere erresuma berrikustera itzultzen baitira. Hemen beredinek azalpen hori onartzen du. Nire ustez giriseilu haiek ikuspenen eragiteko

1063Entimema: (Hitz grekoa, gogoeta edo “silogismo” esateko)
1064Doitu: ajustar
1065...orri-pasa…: me entretuve hojeando...
1066Giriseilu: kriseilu: lámpara de aceite
1067Muki: mecha de la lámpara de aceite
1068Gantzutu: untar (con “gantz”: manteca)
1069Ahul: (H. “tenue”)
1070Heuragi: asko, beredin, anitz, ugari
1071Memel: fatuo (Euri-memel)

adiutuak[1072] dagoz. Badakizu, zakur baten belarriko koipea eta mukia igurtzitzen baduzu, giriseilu horretatiko kea arnasten duenak zakur-burua dadukala uste duke, eta ondoan dagoenak zakur-burureki ikusi duke. Beste ukendu[1073] bat ere bada, giriseilu ondoan dagoenari elefante bezain handia dela sentiarazten diona. Eta saguzarraren begiez, eta izena gogoratzen ez dudan bi arrainenez, eta otsoaren behazunarekin[1074], mukia piztean errez, erabilitako animalia horien ikuspenak ukan dituzkezu. Sugandilaren isatsaz[1075] oro zilarrezkoa dela ikusarazi dukezu, eta suge beltz baten gantzaz[1076] eta hil-jantzi[1077] zati batez gela sugez beterik iruditu zaizuke. Ziur naiz. Liburutegian bada norbait biziki maltzur[1078]…

— Baina, ez ote litezke liburuzainen arimak deabrukeria horiek egiten dituztenak?

Nicola txunditurik eta urduri gelditu zen:

1072Adiutu: (H. “preparado”)
1073Ukendu: ungüento
1074Behazun: hiel
1075Isats: buztan
1076Gantz: manteca, grasa
1077Hil-jantzi: mortaja
1078Maltzur: (H. “astuto”)

— Horretaz ez dut pentsatu. Beharbada horrela da. Jainkoak babes gaitzala. Berandu da, arratseko ofizioa hasita dago. Agur.

Elizarantz jo zuen.

Gu aurrera joan ginen ibilian hegoalderantz: eskuinaldean, erromesen aterpetxea eta loretegiarekin kapitulu-gela[1079]; ezkerraldea eiherak[1080], errota, bihitegiak, biltegiak, fraidegaien[1081] etxea. Eta guztiak, tipi-tapa, iradu[1082] elizarantz.

— Zer uste duzu Nicolak esan duenaz? –galdetu nion.

— Ez zakiat. Liburutegian zerbait gertatzen duk, eta ez diat uste hildako liburuzainen arimak direnik...

— Zergatik?

— Bada, nik uste, hain bertutetsuak izan direnez orain zeruetako erresuman Jainkoaren aurpegia begiestean[1083] dagozelako, hik erantzun hau nahikoesten baduk. Giriseiluez den bezainbatean[1084], baldin badagoz, ikusiko ditiagu.

1079Kapitulu-gela: sala capitular (?)
1080Eihera: (H. “trapiche”) (Errota, bolu...)
1081Fraidegai: novicio
1082Iradu: prisa (?) (Azkar, arin…) (V-arc) "Yrado, enojadua. Iradu noa naira: "Apriesa voy a lo que deseo" .
1083Begietsi: contemplar
1084… den bezainbatean: En cuanto a...

Ukenduak aipatu ditik, gure beiragileak, eta ikuspenak eragiteko beste era errazagoak ere bazagozak, eta Seberinok ongi ezagutzen ditik, arratsaldeon berton egiaztatu ahal ukan duanez. Beraz, abadian nahi duk, nahi denez, gauez liburutegira inor sar ez dadin, eta, aitzitik, heuragi saiatu izan duk edo izaiten.

— Eta zer zerikusi du gure krimenak arazo horrekin?

— Krimen? Pentsa eta pentsa, eta Adelmok bere buruaz beste egin zuela pentsatzenago diat.

— Zergatik egin zuen?

— Gogoratzen duk goiz honetan simaurtegiaz ohartu naizenean? Ekialdeko dorretzarraren azpitik doan bide-zidorrean gora, bihurgunean luizi[1085] baten lorratza, sats pila maldan behera eroria ikusi diagu, dorre barreneraino. Honegatik, arratsalde honetan, goitik ikusita, simaurra elurrez pittin bat estalixea, atzo eroritakoaz, eta ez aurreko egunetakoaz, doi-doi zapalduxea ikusi diagu. Adelmoren gorpuaz Abadeak esan digunez, harkaitzez hautsia zegoan, birrindua[1086], eta dorretzar haren barrenean pinuak eraikina

1085Luizi: derrumbamiento (Lurbizi)
1086Birrindu: destrozar, hecho polvo

bukatzen den lekuan berean[1087] hazten dituk. Alta bada[1088], harresia bukatzen den lekuan harkaitzak zagozak: maila modu bat osatzen ditek, ezponda[1089] antzo, eta beronetatik satsa erortzen duk.

— Beraz?

— Beraz, pentsa ezak ez ote litzatekeen… heldubada[1090]… nola esan?… gure buruarentzat ez hain nekagarri oldoztea[1091], ezen, oraindik ez dakizkigun arrazoiengatik, Adelmok bere burua *sponte sua* amilarazi[1092] zuela, harresiko hormatik, hairkaitzetan punpa egin zuela eta hilik edo zauriturik simaurtzara isuri[1093] zela. Gero, gau haretako haize-zurrunbiloak luizia eragin zian, satsarekin lurra eta gizaxoaren[1094] gorpua ere lerraraziz[1095], ekialdeko dorretzar azpiraino.

— Zer dela eta diozu arrazoi hori gure buruarentzat ez hain nekagarria?

1087Berean: (H. “justo...”) (Bertan)
1088Alta bada: (H. “en cambio”)
1089Ezponda: talud (Muna...)
1090Heldubada: beharbada
1091Oldoztu: pentsatu (?)
1092Amilarazi: (H. “arrojarse”)
1093Isuri: verter (liquido,etc.) (H. “precipitarse”)
1094Gizaxo: gizagaixo
1095Lerrarazi: (H. “arrastrar”)

— Adso maite, ez duk komeni azalpenen biderkatzea, ez, beharrezko ez delarik, zio edo motiboen[1096] ugaritzea ere. Adelmo sortaldeko dorrerean erori bazen liburutegira sartua behar zian, baterean batek jo behar zian, aurrenik, jarkiko[1097] ez bazitzaion, honek gorputza jaso eta lepoan leihoraino, ireki eta gizaxoa leihotik egotzi behar zian. Nire hipotesian, aldiz, Adelmo, bakarra, nahikoa duk, eta luizia. Oro zio ahalik eta gutien erabiliz azaltzen duk.

— Baina, zergatik hil behar zuen bere burua?

— Baina, zergatik hil behar zuten? Bi kasuetan, arrazoiak bilatu behar dituk. Eta ziur nagok, guztiz, izan, arrazoiak badirela. Eraikinean igerro[1098] kirats pittin bat arnasten duk, orok zerbait ezkutatzen ziguk. Hasteko[1099], aieru[1100] batzuk bildu ditiagu, zinez ahul xamarrak, zertaz eta Adelmo eta Berengarioren artean ei zen zeinbait harreman bakanez. Beraz, liburuzainaren laguntzaileari begi eman[1101] behar zioagu.

Eleketan ari gineino, arratsaldeko otoitzaldia bukatu zen. Zerbitzariak euren bizitokietara itzultzen ziren,

1096Zio: (H. “causa”)
1097Jarki: oponer, hacer frente
1098Igerro: recelo (H. “reticencia”) (?)
1099Hasteko: (H. “por de pronto”)
1100Aieru: (H. “insinuación”)
1101Begi eman: (H. “vigilar”)

abaritarako[1102]; lekaideak jatokirantz. Ortzia ilun zegoen, zegoeneko, eta elurra egiten hasia. Mara-mara ari, elur-pikorta, txingo bigunez, eta gau osoan ari izango zuela uste dut, zeren, biharamunean ordeka guztia, nola esan, estalki zuri batez estalia baitzen.

Ni gose nintzen eta Gilenek jatokira joaitearena adiarazi zidanean ondo hartu nuen.

LEHENENGO EGUNA

1102Abari: apari, afari, aihari...

KONPLETAK

Gilen eta Adso Abadearen abegi[1103] maitekorraz gozatzen ari direnekoa eta Jorgerekiko elkarrizketa sutsuaz[1104].

Jatokia zuzi handiek argitzen zuten. Lekaideek mahai-herronka[1105] luze batean, eta Abadearena buru, oholtza zabal baten gainean, perpendikularrean. Beste aldean pulpitua, eta abaritakoan irakurle izango zen fraidea zegoen. Abadea gure zain; ondoan erretilutto[1106] bat zedukan, eta lehor-zapiño zuri bat, ikuzi eta eskuak lehortzekoa, Jaun Done Pakomiok antzina-antzinan aholkatu zuena egitearren.

Abadeak Gilen bere mahaira gonbidatu zuen, eta gau haretan, ni ere etorri berri nintzenez, onune[1107] beraz gozartzeko[1108] nuela esan zuen, fraidegai beneditarra nintzen

1103Abegi: (H. “hospitalidad”)
1104Sutsu : (H. “airada”)
1105Herronka: erreskada, ilara...
1106Erretilutto: (H. “fuentecilla”)
1107Onune: beneficio, ventaja (H. “privilegio”) (“Gallaldi” ?)
1108Gozartu: disfrutar, gozar (Gozo+hartu)

arren. Hurrengo egunetan, hizkera aitatiarrez[1109], lekaideen ondoan jar nintekeela esan zidan, edo, nire maisuak atazarean[1110] bat edo egiteko agintzen bazidan, otorduen aurretik zein atzetik sukaldetik irago nintekeela, eta sukaldariak nitaz arduratuko zirela.

Lekaideak zutik mahaien ondoan zegozen, geldi, txotinoak[1111] bekainetan eta eskuak eskapulario azpian. Abadea bere mahaira hurbildu zen eta *benedicte*[1112] ahoskatu zuen. Pulpiturean, eresleak[1113] *Edent pauperes*[1114] doinutu[1115] zuen. Abadeak bedeinkatu zuen eta zirenak oro eseri ziren.

Gure irasle[1116] zenaren arauak otordu urri[1117] samarra agintzen du, baina Abadeari erabakitzeko esku demaio lekaideek zenbat janari behar duten. Bestalde, gure abadietan, mahaiko gutiziez den bezainbatean, tolerantzia handia dago. Ez diot ezer, ondikoz, sabelkoi-zulo[1118] bihurtu diren abadiez; alabaina, penitentziarekin onbidea oinarri dutenetan ere, beti buru-lan gogorretan jarduten duten

1109Hizkera aitatiar: (H. “tono paternal”)
1110Ataza: tarea, ocupación
1111Txotino: txolet, txano, txapilo (H. “capucha”)
1112Bendedicte: bedeinka ezazue
1113Eresle: (H. “cantor”)
1114Edent pauperes: jan dezatela txiroek
1115Doinutu: (H. “entonar”)
1116Irasle: fundador
1117Urri: (H. “sobrio”)
1118Sabelkoi-zulo: (H. “cuevas de glotones”)

fraideei elikadura ez oso fina bai mamitsua emaiten zaie. Bestalde, abadearen mahaiak beti halako “gallaldi” modu bat du, eskubide berezia alegia, besteak beste garrantzi handiko arrotzei noiz edo noiz abegi egin behar baitie, eta abadia guztiak beren lurren emaitzez, ukuiluetakoez, eta sukaldarien trebetasunaz harrro bai harro dagoz.

Lekaideek otordua isilik egin zuten, ohi legez, eta batak bestearekin, zerbait aditzera eman beharrean, eskuetako hatzen alfabetoa erabiliz jarduten zuen. Guztientzako txalinak[1119] Abadearen mahaitik iragota, aurrenik fraidegai eta fraiderik gazteenak ziren zerbitzatuak.

Abadearen mahaian gurekin jarrita Malakias, sehiburua, eta bi lekaiderik zaharrenak, Jorge Burgosko, *scriptorium*ean ezagutu nuen senton itsua, eta Alinardo da Grottaferrata, zahar-zaharra: ia ehun urteko, herren, ahul itxurako, burua galdurik zegoela irudi zidan. Abadeak esan zigunez, fraidegaitza[1120] abadian egina zen eta orduz geroztik bertan bizi izandakoa, beraz, larogei urte lehenago, gutienez, gertaturiko gauzak gogoratzeko gai zen. Hau hasieran esan zigun, ahots apalean, ondorean, gure

1119Txalin: plater
1120Fraidegaitza: elnvciado

baldernan ohi denez, isil-isilik irakurketa entzun baitzuen. Hala ere, lehenttoago esan bezala, Abadearen mahaian zeinbait “gallaldi” edo askatasun zegoen, eta eskaini zizkiguten jakiak goresteko aukera izan genuen, eta Abadeak bere olio edo bere ardo haren kalitatea handiesten[1121] zuen. Une batez, edaria eman zigunean, gure arauetako bat ere gogorarazi zigun, non gure santu irasleak fraideei ardoa komeni ez zaiela emaiten baitu aditzera, baina gure garaiotako lekaideei edaria debekatzerik ez dagoenez, ase arte edan dezaten, behintzat, galarazi behar zaie, zeren, ardoak jakintsuak berak ere apostata bihurtzen baititu, Eklesiastikok esan bezala. Benitok «gure garaietan» zioen, eta bereei buruz ari zen, ordurako hain urrutikoak. Irudika ditzagun abadian egin zen abari haretako garai haiek, hainbat urtetako dekadentzia moralaz gero (eta ez diot ezer nire garaioz, historia hau idazten ari naizen garaioz, izan ere, aldea hemen, Melk-en, hara-horra gehien dabilena garagardoa dela!): beraz, edan genuen bai baina ez lar[1122], ez gehiegi, gutiziari muzin[1123] egiteke, ordea.

1121Handietsi: (H. “celebrar”)
1122Lar: gehiegi
1123Muzin egin: hacer ascos, repugnar (H. “privarse del gusto”)

Haragi errea jan genuen, txerri hil berriak, eta ohartu nintzenez, beste jakietarako ez zen gantzik[1124] ez koltza-oliorik emaiten, oliba-olio ona baizik, mendi barrenean, itsaso aldean, abadiak zeduzkan olibondoetan sortua. Abadeak oilaskokia dastarazi zigun (bere mahairako baino ez baitzen) nik sukaldean prestatzen ikusitakoa. Ohartu nintzen, harrigarri xamarra zertzelada[1125], metalezko urkila bat zedukala, itxuragatik nire maisuaren betaurrekoak irudi: sortzez handiki askazikoa[1126], gure anfitrioiak, antza, ez zituen janariaz eskuak zikindu nahi, eta bere tresna hura eskaini ere egin zigun, erretilu[1127] handitik har eta gure kotxorrera[1128] haragia ekarteko, behintzat. Nik ez nuen hartu, Gilenek, ordea, bai, eta gogo onez, eta bai jaunen tresna hura iaioki[1129] erabili ere, agian Abadeari erakustearren, ezen, frantziskotarrak ez zirela, halabeharrez, gizabide[1130] gutiko eta etorki apaleko[1131] lagunak.

1124Gantz: manteca (H. “grasa de animal”)
1125Zertzelada: detalle
1126Askazi: familia, linje
1127Erretilu: fuente, bandeja
1128Kotxor: "Escudilla pequeña provista de asa”
1129Iaioki: (H. “con desenvoltura”)
1130Gizabide: (H. “educación”)
1131Etorki apaleko: (H. “de baja extracción”)

Hainbeste eta hain jaki onez gogoberoturik[1132], (egun batzuetako bidaldian[1133] aurkitzen genuenaz elikatu ondorean), adigetu[1134] nintzen eta irakurketaren haria galdu nuen, debozioz aurrera joan baitzen. Orduan, Jorgek halako kurrinka[1135] bizkorra egin zuen, baiespenez[1136], eta nik entzutean berriro adi jarri nintzaion, irakurgaiari. Araudiko[1137] atal bat irakurri ohi den unera heldu zela konturatu nintzen. Arratsalde haretan esan zuena gomutaturik[1138], ez nintzen txunditu haren pozaldi ha aditu eta. Egiaz, irakurleak honela zioen: «Imita dezagun profetaren eredua, dioena: erabaki dut, nondik-nora noan begiratuko[1139] dut, nire mingainaz bekatu ez egitearren, nire ahoan zildaia[1140] ipini dut, mozala hala egia, isiltzeaz apaldu naiz, gai zuzenez ere mintzatzeari uko egin diot. Eta esaldi honetan profetak erakusten digu, ezen, sarritan isiltasuna maite delako hizpide garbiez ere mintzatu behar ez litzatekeela, eta, hara!, are hizpide zikinez ere areago behar ez litzatekeela, honelako bekatuagatiko zigorra saihestuko

1132Gogoberotu: entusiasmar
1133Bidaldi: (H. “viaje”)
1134Adigetu: distraer (N) (Adi+ge+tu)
1135Kurrinka: (H. “gruñido”)
1136Baiespenez: de consentimiento
1137Araudi: (H. “Regla”) (?)
1138Gomutatu: oroitu, gogoratu
1139Begiratu: /diot: mirar / dut: cuidar, vigilar
1140Zildai: (H. “mordaza”) (Candado /...)

badugu!» Eta gehitu zuen: «Alta bada, arrunkeriak, ergelkeriak eta barregarrikeriak[1141] leku guztietan bizi osoko zigorrera kondenatzen ditugu, eta hauek lako hitzik ez elerik ahoskatzeko[1142] ahoa ireki dezan ez diogu ikasleri onartzen.»

— Eta izan dadila hau baliagarri egun aipatu ditugun *marginalia* haientzat –Jorgek, ahopetik, egin iruzkina–. Joan Krisostomok ‘ Kristok inoiz ere barre egin ez zuela esana du.

— Bada, beronen giza-izaerak ez zion eragozten –Gilenek ohartarazi[1143]–, zeren, teologoek irakasten bezala, barrea gizakiari baitagokio[1144].

— *Forte potuit sed non legitur eo usus fuisse*[1145] –esan zuen Jorgek, tipilki[1146] Petrus Cantor-en hitzak harturik[1147].

— *Manduca, jam coctum est*[1148] –Gilenek xuxurlatu[1149] zuen.

— Zer? –galdetu zuen Jorgek, zerbitzatu berri zioten janariaz ari zela uste izanik.

1141 Barregarrikeria: (H. “bufonada”)
1142 Ahoskatu: (H. “proferir”)
1143 Ohartarazi: (H. “observar”)
1144 ...dagokio: (H. “es propia de...”)
1145 «egin zezakeen, heldubada, baina egin zuenik [barrea] ez da irakurten.»
1146 Tipilki: (H. “escuetamente”)
1147 ..-ren hitza hartu: (H. “citando”)
1148 «Jan, egosita badago eta.»
1149 Xuxurlatu: (H. “susurrar”)

— Hitzok, Anbrosiok zioenez, San Lorentzok egin omen zituen, parrilan zegoela, bere borreroei iraul zezaten agindu zienean; Prudentziok ere Peristephanon-en berdin dio –esan zuen Gilenek, santuarena egiteaz batera–. San Lorentzok bazekien, bada, barre egiten eta barregarriak esaten, bere etsaiak lotsarazi nahi zituenean, bederen.

— Horrek erakusten du, beraz, berrea Heriogandik hurbil xamar dagoela, eta gorputzaren ustelduratik ere gerturik – ihardetsi zion kurrinkarekin Jorgek, eta beronen logika akaskea[1150] zela aitor dut.

Une haretan Abadeak amultsuro[1151] isiltzeko keinu egin[1152] zigun. Bestenaz[1153], abaria bukatzear zegoen. Abadea zutitu zen eta Gilen aurkeztu zuen. Honen jakituria goraipatu zuen, ospea ere aipatu, eta lekaideei jakinarazi zien Adelmoren heriotza iker zezan erregutu ziola, eta haren galderei erantzun ziezaioten esan zien, eta abadia osoko bere otsein[1154] guztiei halaxe egin zezaten ohartazteko. Haren ikerketa errazteko ere agindu zien, beti ere, gehitu zuen,

1150Akaske: (H. “irreprochable”) (Akats+ge) (N)
1151Amultsuro: (H. “amablemente”)
1152Keinu egin:(H. “invitó”)
1153Bestenaz: (H. “por lo demás)
1154Otsein: (H. “subalterno”)

monasterioko arauak hauts ez balitza. Honelakoan[1155], bestela, bere baimen berezi berarizkoa behar bailuke.

Abaria bukatuta, fraideak korurantz joaiteko prestatu ziren, konpletako ofizioan esku hartzeko asmoz[1156]. Berriro txotinoak bekainetaraino jantzi zituzten eta ate aurrean erreskadan[1157] jarri ziren. Une batez geldi eta berehala korurantz, iparraldeko atetik sartuz, hilerria eta beti ter-ter-ter[1158] zeharkatutakoan.

Gu Abadearekin.

— Orain Eraikineko ateak itxiko dira? –Gilenek.

— Zerbitzariek jatokia eta sukaldeak garbitu ondorean, liburuzainak berak ate guztiak itxiko ditu, barruko langaz faratuz.

— Barrukoak? Eta harek nondik irteiten du?

Abadeak, lipar batean, begiak Gilenengan josi zituen, mokorkiro[1159]:

— Jakina, ez du lo sukaldean egiten –zakarto esan eta urratsa bizkortu zuen.

1155Honelakoan: (H. “en cuyo caso”) (N)
1156Esku hartu: (H. “asistir”)
1157Erreskada: ilara, lerro, herronka...
1158Ter-ter: en fila /despacio
1159Mokorkiro: (H. “con gesto adusto”)

— Hara, hara![1160] –Gilenek xuxurlatu niri–, beraz, beste sarbide batto zagok, guk, ordea, ez diagu jakin behar –nik, harroxko, irkaitz[1161] egin nuen, haren igarmenagatik[1162], baina harek lotsageri egin[1163] zidan–. Ez egik barre, toki honetan barreak izen onik ez duela ikusi duk eta.

Korura sartu ginen. Giriseilu bakarra suz, gizon biren garaiera edo zuen hiruoineko[1164] sendo baten gainean. Isilean, fraideak jarlekuetan gomondu[1165] ziren, egokitu alegia, irakurleak Jaun Done Gregorioren predikuaren atal bat irakurten zueino.

Ondorean, Abadeak keinu egin zuen eta eresleak *Tu autem Domine miserere nobis* doinutu zuen. Abadeak *Adjutorium nostrum in nomine Domini* erantzun zion, eta han ziren guztiek, aho batez, *Qui fecit coelum et terram*[1166] ahoskatu zuten. Orduan salmoen eresketa[1167] hasi zen: Dei egiten dudanean, erantzun egidazu, oi nire justiziaren Jaunak! Ene bihotz osoz eskertuko dizut, Jauna; bedeinka

1160Hara!: (H. “vaya”)
1161Irkaitz: sonrisa forzada, irónica
1162Igarmen: (H. ”deducción”) (Capacidad de adivinar)
1163Lotsageri egin: regañar
1164Hiruoineko: trípode
1165Gomondu: acomodarse
1166«baina zuk, Jaunak, euzu gutaz gupida». «Gure laguntza Jaunaren izenean.» «Zerua eta lurra egin zituena.» (Salmoeetako atalak dira)
1167Eresketa: (H. “canto”)

ezazue Jauna, Jaunaren otseinok orok. Gu artean esertzeke gengozen. Gure lekurean, habearte nagusiaren sakonaldean Malakias ikusi genuen, bat-batean itzalen artetik agertu baitzen, alboko otoiztokitik zetorrela.

—Ez gal begietatik leku hori –esan zidan Gilenek–. Hor egon litekek Eraikinerako sarbiderean[1168] bat.

— Hilerri azpitik?

— Zergatik ez? Ongi pentsaturik, nonbait hezurtegirean bat egon behar duk, ezinezkoa mendeetan hildako lekaide guztiak lur-sailtto horretan ehortzi izana.

— Horrela eta guztiz ere, ben-benetan sartu nahi ote zara gauez liburutegira? –nik ikaran galde.

— Non dagoz hildako fraideak eta sugeak eta argi misteriotsuak, ene Adso on? Ez, mutil. Egun, egitea bururatu zaidak, eta ez jakin-minagatik, Adelmoren heriotzaren auzia argitu nahi dudalako baizik. Orain, berriz, esan diadan bezala, azalpen bidezkoago baten bila noak, eta, azken batean, ez nikek toki honetako araurik hautsi nahi.

— Hara, beraz, zergatik jakin nahi duzu?

1168Sarbide: (H. “pasaje”)

— Zergatik eta, zientziak behar dena edo egin daitekeena soilik jakitea ez delako, eta egin litekeena ere, egin behar ez balitz ere, jakitean datzalako. Horregatik esan zioat lehen beiragileari jakintsuak aurkitzen dituen sekretuak begiratu behar dituela, nolabait, beste zeinbaitek haiek gaiztoto erabil ez litzantzat. Honela ere, halako sekretuak agerrarazi behar dituk, eta hemengo liburutegian, nire irudiz, sekretuak isilpean eta ezkutuan zaduzkatek.

Hori esanda, irtengu[1169] aldera jo zuen, ofizioa bukatu eta. Biok neke-neke eginda gengozen eta gure etzangura[1170] joan ginen. Kukurtu[1171] egin nintzen, Gilenek, txantxetan, nire «loculo»[1172] esan zion loleku honetan, eta berehala loak hartu ninduen.

1169Irtengu: salida (ilkhigia, irteera…) (Etzangu, ikasgu...)
1170Etzangu: (H. “celda”) (logela…) (Sargu, langu...)
1171Kukurtu: acurrucar / Uzkurtu: acurrucarse por miedo, frío...
1172Loculo:”loculus” (leku ttikia)

BIGARREN EGUNA

BIGARREN EGUNA

MATUTIAK

Zoriontasun mistikoan ordu guti batzuk emanik, gertaera latz odoltsu batek eten duenekoa.

Oilarra baino aldakorragorik ez dago abereetan, batzuetan tusuriaren ikur, bestetzuetan Kristo berpiztuaren. Gure baldernan nagiak izan ziren batzuk, eguzkiak arturratzean[1173] kukurruku egiten ez baitzuten. Beste aldetik, neguko egunetan batez ere, matutietako ofizioa gaua dela egin ohi da, eta izadia lo dago, jaiki ere, lekaideak ilunean jaiki behar izaiten dira, eta otoitz ilunpean luzaro egin behar,

1173Arturratu: amanecer, despuntar el día (argi+urratu)

egundu arte, ilunpeak deboziozko garraz argitzen dituela. Honegatik, ohitura da, eta jakintsua, lekaide batzuk beren anaiak bezala ez etzatea, eta gaua beilan[1174] emaiten dute, eta salmoak errezitatzen dituzte, beti ere erritmo ber-berdinean, kopuruaz aldia neurtzeko adinean, besteek lo egiteko orduak beterik, iratzarteko dei egitekotan.

Halatan bada, gau haretan lotegiak[1175] eta erromesen etxea txintxarria joz zeharkatzen zituztenek iratzarri gintuzten. Haietako bat etzangurik ezangu zihoan oihuz *Benedicamus Domino* aldarrikatzen, eta besteek *Deo gratias* erantzuten zioten, hurrenez hurren[1176].

Gilen eta biok beneditarren ohikuntzari[1177] egokitu eta, ordu erdi bagerik[1178], egun berriari aur[1179] egiteko gerturik gengozen, eta korurantz; lekaideak hantxe zoruan belauniko, lehenengo hamabost salmoen errezitatzean, fraidegaiak, maisua aitzindari, sar zitezen artean. Ondorean, bakoitza bere lekuan eseri zen eta koruak doinuz: *Domine labia mea aperies et os meum annuntiabit laudem tuam*[1180].

1174Beilan: (H. “velar”)
1175Lotegi: dormitorio
1176Hurrenez hurren: (H. “sucesivamente”)
1177Ohikuntza: uso, costumbre, hábito
1178… bagerik: sin llegar a..., en menos de...
1179Aur: aurre (Gain--*gane / hur--*hurre / atz--*atze /...
1180«Jauna, nire ezpainak irekiko dituzu eta nire ahoak zure gorespena iragarriko du»

Oihua elizako gangetaraino igo zen, haurren[1181] otoitz legez. Bi lekaidek pulpitura eta laurogeita hamalaugarren salmoa doinutu zuten, *Venite exultemus*, eta jarraian agindutako besteak. Orduan, berriztaturiko fedearen sua[1182] sumatu nuen.

Fraideak euren jarlekuetan, hirurogei itxura soingaineko eta txotinak jantzirik ziren guztiak berdinak, hirurogei itzal hiruoineko baten gainean zegoen giriseiluak ozta argiturik, hirurogei ahots Gorenaren[1183] goresteko kontsakratuak. Eta halako harmonia liluragarri hura aditzean, paradisuko gozaldiaren[1184] preludio, ene buruari galde ea egiaz abadia ostenduriko[1185] misterioen leku ote zen, eta berauen argitzeko saiakera makurrak[1186] eta zemai[1187] ilunak izaiteko leku ote. Uste ere, nik orduan hala zela uste nuen, hots, santuen babestoki, bertuteen bilgune, jakintzaren erlikiontzi, zuhurtasunaren kutxa, jakituriaren

1181Haurren: HauRRen (mugabage – súplica de niño)
1182Su: (H. “ardor”)
1183Goren: (H. “Altísimo”)
1184Gozaldi: (H. “delicia”)
1185Ostendu: ezkutatu, altxatu
1186Makur: (H. “ilícito”)
1187Zemai: mehatxu

dorre, otzantasunaren[1188] barruti, zintzotasunatren gotorleku[1189], santutasunaren intsentsu-ontzi[1190].

Salmoen ondoan, irakurgai sagaratua irakurten hasi zen. Lekaide batzuk loguragatik zanbuluka eta aurreko gauean beila egindako haietako bat hara-horra zebilen lokartuak iratzarteko argiontziño batekin. Hau eginda, *in fraganti* atzeman fraideak, bere hutsa ordaintzearren, argia hartu behar zuen eta zelatatzen hasi. Gero, beste sei salmo eresi[1191] ziren. Jarraian[1192] Abadearen bedeinkapena. Astekariak[1193] otoitzak oguzi[1194] zituen, eta guztiak aldarera buruz makurtu ziren, takada[1195] bateko barrenbiltze[1196] guztiz gozoa. Hau su mistiko eta barruko bake sakoneko une bat behin batean bizitu duenak ez bestek uler dezake. Azkenean, txotinoak berriz ere begitartean jantzirik, oro eseri eta *Te Deum* ospe handikoa doinutzen hasi. Nik ere Jauna goretsi nuen, nire zalantzak edeki[1197] zizkidalako, eta lehenengo egunean abadian hartu ninduen kezka sentsazioa gainerean

1188Otzantasun: mansedumbre
1189Zintzotasun…: (H. “bastión de entereza”)
1190Intsensu-ontzi: turíbulo
1191Eresi: (H. “cantar”)
1192Jarraian: (H. “a los que siguió”)
1193Astekari: semanero
1194Oguzi: ahoskatu (?)
1195Takada: momento breve (H. “minuto”) / golpecito
1196Barrenbiltze: rocogimiento (N)
1197Edeki: kendu (H. “haberme librado”)

kendu zidalako. Izaki ahulak gara, esan nion neure buruari, fraide jakintza handiko eta fede sutsuko hauen artean ere deabru gaizkinak[1198] bere bekaitz ttipiak ihaurri, etsaigoak zabaldu zabaltzen ditu, baina kea baizik ez da fedearen haize azkarrak berehala barreiatzen duena, guztiak Aitaren izenean biltzen direlarik Kristo haiekin dagoenean suntsitzen baita.

Matutiak eta laudeak direla eta, fraidea ez ohi da bere gelara itzuli, gau betea izanda ere. Fraidegaiak maisuarekin kapitulu-gelara joan ziren, salmoen ikastera; lekaide batzuk elizan geratu ziren liturgiako gauzak dagozkien lekuetan ipintearren; gehienak kalostra aldera ziren eta, isilean, bakoitza bere gogoetan murgildu zen, eta Gilenek eta biok halaxe egin genuen. Zerbitzariak, artean, lo zeutzan, eta lo, ortzia ilun zegoela, korura laudeak egiteko itzuli ginenean.

Berriz ere salmoak doinutu, eta bat bereziki, astelehenerako prestatuak zirenen artean, eta harek harzara[1199] lehengo kezketara eraman ninduen: «Hogena fedebagekoaz jabetu da, haren bihotzaren sakonaz, haren begietan ez dago Jaungoikoaren beldurrik, beronekin

1198Gaizkin: (H. “el maligno”)
1199Harzara: otra vez, de nuevo, me devolvió a...

iruzurrez jarduten du, eta, beraz, haren hizkera gorrotagarri bilakatzen da.» Zori[1200] txarra zela pentsatu nuen, egun haretantxe, hain zuzen ere, araudiak halako admonizio hain lazgarriaren xedatzea[1201]. Laudoriozko salmoen ondoan, Apokalipsiaren irakurketa ohikoa, eta honek ere ez zuen baretu nire kezka. Bihotza taupaka. Eta atzera ataldeko irudiak etorri zitzaizkidan, ene bihotza eta ene begiak hain lazki jo zituztenak, aurreko egunean. Baina errespontso, ereserki eta bertsetaren[1202] ondorean, ebangelioaren eresia hastean, koruko leihoetatik, aldare gainean, argi hits[1203] bat sumatu nuen, beirategiko margo askotarikoak pizten baitzituen, ordura artean ilunbeak hildurik[1204] egonak. Egunsentia ez zen, prima bitartean gailenduko[1205] zena, *Deus qui est sanctorum splendor mirabilis* eta *Iam lucis orto sidere*[1206] erestean doi-doi. Neguko goiztiri ahularen iragarpena baizik ez, baina nire bihotz hila suspertzeko nahikoa izan zen, habeartean argiantz[1207] ahulak gaueko ilun beltza suntsituko baitzuen.

1200Zori: (H. “augurio”)
1201Xedatu: (H. “prescribir”
1202Bertset: versículo
1203Hits: (H. “pálida”)
1204Hildu: mortificar
1205Gailendu: (H. “triunfar”)
1206«Jainkoa santuen distira miresgarria dena» «Eguzkiak irten du».
1207Argiantz: penumbra

Jainko-liburuko eleak eresten genituen bitartean, honela jendearen argitzera etorritako Aditzaren testimonio emaiten genuela, egunaren argi urratzaileak tenplua bere leinuru[1208] guztiez estaltzen zuen. Argia, oraino orduan ageri ez, eresiko hitzetan distiragarri zela iruditu zitzaidan, sabai-gangetako gurutzetan zabaltzen zen lili mistikoa irudi. «Eskerrik asko, Jauna, ezinesaneko atsegin-une honegatik», egin nuen apalkiro otoitz, eta nire bihotzari: «Eta, hi, lelo, zeren beldur haiz?»

Halako baten, iparraldeko ate aldetik deiadar[1209] batzuk. Nik neure buruari galdeka, ea nolatan, zerbitzariak euren lanari ekiteko gertu eta han eta bertan ofizio sagaratua nahasarazi eta zalagardatu[1210]. Orduantxe hiru urdain sartu ziren, izua begitartean, eta Abadearengana, eta zerbaiten xuxurlaka. Hatsean[1211], honek baretzeko, lasai zitezen keinu egin, ofizioa eten[1212] ez zedin edo, antza, baina berehalakoan beste otsein batzuk sartu eta oihuak are larriagoak: «Gizon bat, gizon hila!», esan zuen norbaitek, eta besteek: «Fraide bat, ez dituzu zapatak ikusi?

1208Leinuru: rayo (H. “fulgor”)
1209Deiadar: (H. “clamor”)
1210Zalagardatu: estropear, echar a perder (H. “perturbar”)
1211Hats: hasiera, hatsarrean /
1212Eten: interrumpir

Otoitzetan ari zirenak isildu. Abadeak iradu irten zuen, sehiburuari keinu atzetik jarrai zekion. Gilen haiei jarraiki, eta beste lekaideak jarlekuetatik alde eta elizaren kanpora ziren, arrapaladan.

Oskarbi zegoen, eta lurraren gaineko elur geruzak ordekaren argitasuna areagotzen[1213] zuen. Ukuiluen aurrean, hantxe aurreko egunetik nabarmen, zerrien odola batzeko upel handia zegoen, eta hantxe ontzi barrurean ateraturik, gurutze baten antzo, lurrean jositako bi makila irudi, zapi batzuek estalirik, txorimalo bailitzan.

Bi giza-hanka ziren, ordea, odolez beteriko upelean buruz behera jositako gizonaren hankak.

Abadeak gorpua isurkai likits haretatik ateratzeko agindu zuen (izan ere, halako modu likitsean[1214] inor bizirik egoitea ezinezko zen). Zalantzan baina urdainak hurreratu ziren, eta, ez lohitzeke, harako gauza odoltsu ha idoki zuten. Nik ikasia nuenez, urdea hiltzean odola ondo irabiatuz[1215] gero, eta hotzetan utzirik, odola ez zen mamitzen, ez zen gatzatzen[1216], baina gorpua estaltzen zuen geruza gogortzen

1213Areagotu: (H. “realzar”)
1214Likits: sucio, asqueroso, obsceno
1215Irabiatu: revolver, batir
1216Gatzatu: cuajar, coagular (Mamitu)

hasia zen, soinekoa basitzen[1217] eta aurpegia ezagutzen zailtzen. Otsein batek pertz bete ur ekarri zuen eta gorpu zarpail haren aurpegira iraitzi[1218] zuen. Beste batek zapi batez begitartea ikuzi zion, makurturik. Eta gure begien aurrean aurpegi zurbil bat agertu zen, Benantzio Salvernec-eko genuen, arratsaldean Adelmoren kodizeen ondoan hizkide izan genuen grekoz aditua.

— Heldubada[1219], Adelmok bere buruaz beste egin zuen –Gilenek begitarte hari adi-adi begira eta iruzkin egin– baina, honek ez, aurki. Eta ez da erraz pentsatzen hau, halabeharrez, upelaren gainera igo eta ezbeharrez erori izango zenik[1220].

Abadea hurbildu zitzaion:

— Dakusazunez, anaia Gilen, abadian zerbait gertatzen da, zure jakituria guztiaren beharra duen zerbait. Honelatan, bada, arren, ekin lehen bai lehen!

— Ofiziokoan[1221], kortxilan egon al da? –Gilenek hilotza begirarazi[1222] eta.

1217Basitu: empapar, embadurnar
1218Iraitzi: lanzar, arrojar
1219Heldubada: beharbada
1220Erori izango zen: que se hubiera caído
1221Ofiziokoan: durante el oficio
1222Begirarazi: señalar (So eragin) (N)

— Ez. Haren jarlekua hutsik egon dela ohartu naiz.

— Ez da egon beste inoren hutsunerik?

— Ezetz uste dut. Ez dut harean ikusi.

Gilenek zalantza egin zuen hurrengo itauna egiterakoan, eta gero xuxurlaka, inork entzun ez zezangatik kontuz:

— Berengario bere lekuan egon al da?

Abadeak miresmen urduriaz so egin zion, nolabait harriturik edo nire maisuak halako susmoa zuela eta, zeren, une batez berak ere halakoxea izan baitzuen, beste arrazoi ulergarriago batzuekatik. Gero, bat-batean, esan:

— Egon da. Haren jarlekua aurreneko lerroan dago, nire eskuin aldean, abantzu.

— Jakina[1223], –Gilenek–, honek guztionek ez du ezer esan nahi. Ez dut uste inor, korura sartzearren, abside ostetik irago denik, beraz, gorpua hemen ordu batzuk lehenagotik egon izan daiteke[1224], berdin[1225] guztiak lotara joan zirenaz geroztik.

1223Jakina: (H. “desde luego”) (Noski)
1224Egon izan daiteke: ha podido estar (N) (?)
1225Berdin: quizás, a lo mejor / peor

— Egia da, lehenengo zerbitzariak goiztirian jaiki ohi dira, eta honegatik oraintsu aurkitu dute.

Gilen gorpuaren gainera makurtu zen, hilotzekin ohitua balitz bezala. Han ondoan zegoen zatarra[1226] upeleko ur gainean busti zuen eta Benantzioren aurpegia hobekixe garbitu. Bizkitartean[1227], beste lekaideak izu-izu eginda biltzen ziren, bil-bil eta dena hitzaro[1228], eta Abadeak isilarazi nahi. Haien artetik Seberino agertu zen, bera abadiako gorpuen arduraduna, eta nire maisuaren ondoan makurtu zen. Haien elkarrizketa aditzearren eta Gileni laguntzeko asmoz, uretan bustiriko beste zapi garbi bat behar baitzuen, haiengana nintzen, nire izua eta nire nazka gainditzeko ahalegina eginik.

— Inoiz ikusi al duzu itorik? –galdetu zuen Gilenek.

— Askotan –Seberinok erantzun zion–. Eta zer esan nahi duzun txarto ulertzen ez badut, itotakoaren aurpegia ez da honena lakoa; hazpegiak[1229] handituak dituela dirudi.

— Beraz, gizon hau upelera norbaitek egotzi aitzin hilda zegoen.

1226Zatar: trapo /...
1227Bizkitartean: (bien) bitartean (H. “entre tanto”)
1228Hitzaro: berbaro (ruido confuso de voces)
1229Hazpegi: facciones /...

— Zergatik egin behar zuen?

— Zergatik hil behar zuen? Gogo[1230] zitalaren[1231] lana dugu hau. Baina orain ikusi behar da ea gorpuak zauriak edo ubeldurak[1232] daduzkan. Garbitokira[1233] eraman behar dugula uste dut, biluztu, ikuzi eta aztertu behar dugula. Berehala nago zurekin.

Abadearen baimenarekin, Seberinok gorpua zerrizainei garraiatzeko agindu zien, eta orduan nire nagusiak beste eskaera bat egin zion, hots, fraide guztiak etorritako bide beretik korura itzul zitezen, zirbitzariak ere berdin, lekua hustutzeko. Arrazoia galdetzeke, Abadeak onartu zuen. Halaxe, upelaren ondoan gu bakarrik geratu ginen. Odola isurita zegoen, ez guztia, han egiteko latza egina, eta inguruko elurra gorritu zuen, eta lekuan-lekuan gesaldua[1234] zegoen, beraz gu bakarrik gorpua etzanik egondako lekuan odol-mataza[1235] ondoan.

— Nahaste polita –Gilenek niri, han inguruan fraideek eta zerbitzariek utzitako oinatzak elurrean begiraraziz–. Elurra, Adso, pergamino miresgarria duk, eta beronetan gizakien

1230Gogo: (H. “mente”)
1231Zital: (H. “perversa”)
1232Ubeldura: makadura, mailatu, ubel (H. “contusión”)
1233Garbitoki: (H. “baños”)
1234Gesaldu: elurra urtu
1235Odol-mataza: cuajarón de sangre

gorputzek argiro idazten ditek. Honela eta guztiz ere, hau palimpsesto txarki igurtzia duk eta, beharbada, ez dikeagu interesgarriko ezer idatzirik irakurri. Hemendik elizara, fraideak trumilka irago dituk, hemendik ukuilu eta zerritokietara, zerbitzari mordo bat, halaber. Ukitu bageko gune bakarra zerritokietatik Eraikinera doana duk. Goazen, ea ezer zudugarririk[1236] edireiten[1237] dugun.

— Baina, zer ediren nahi duzu? –galdetu nuen.

— Berak berez bere burua odolontzira bota ez bazuen, norbaitek ekarri zian honaino hil eta gero, nik uste. Eta beste baten gorpua garraiatzen duenak elurrean oinatz sakona uzten dik, lorratza. Ea, beha ezak, ea inguruan lorratzik edireiten duzun, gure pergaminoa hondatu duten fraide hitzontzi horiek utzi dituztenak ez bezalako hatzik.

Hala egin genuen. Eta, oraintxe esango dut esango ni izan nintzela, Jainkoak barka nire harrokeria, zerbait ediren zuena upel eta Eraikinaren artean. Giza-oinen aztarrenak[1238] ziren, sakon samarrak, inor irago bageko aldean, eta, nire maisuak berehala ohartarazi bezala, fraideekin[1239]

1236Zudugarri: interesgarri
1237Ediren: encontrar algo que se busca (Idoro, ediro ---aurkitu)
1238Aztarrena: (H. “impronta”)
1239Fraideekin zerbitzariek: fraideek eta zerbitzariek

zerbitzariek utzitakoak ez bezain garbiak[1240], hau da, elurra haien gainean eroria zen, beraz, lehenagokoak ziren. Axola handiago, aldiz, beste zera batek zuela iruditu zitzaigun: aztarrena haien artean lorratz luzeago bat zegoen, etenik ez zuena, zerbait tatarrez edo herrestan eramana legez. Hots, upelerean jatokiko ateraino zihoan lorratza, nondik eta hegoaldeko eta iparraldeko dorreen artean zegoen Eraikinaren aldetik.

— Jatoki, *scriptorium*, liburutegia –Gilenek–. Beste behin liburutegia. Benantzio Eraikinean hil zuan, eta ziur aski liburutegian.

— Zer dela eta liburutegia zehazki?

— Hiltzailearen lekuan jarten saiatzen nauk. Benantzio jatokian, sukaldean edo *scriptorium*ean hil balitz, balu, zergatik ez utzi bertan? Baina liburutegian hil bazen, beste leku batera eroan behar zuan, nahiz liburutegian inoiz aurkituko ez zutelako (eta erhaileak[1241], eiki[1242], aurki zezaten nahi zian), nahiz hiltzaileak arreta liburtegian ezar dadin nahi ez duelako.

1240… ez bezain garbi: (H. “menos nítidas”)
1241Erhaile: asesino –Erho: asesinar // Erahil – erahiltzaile
1242Eiki: seguramente, probablemente

— Eta zergatik nahi izango zuen hiltzaileak gorpua aurki zezaten?

— Ez zakiat. Hipotesiak dituk. Nork esan diezaake erhaileak Benantzio gorrotatzen zuelako hil zuela? Beste bat hil bezala, beste gauza bategatik edo baterako hil zezakean.

— *Omnis mundi creatura, quasi liber et scriptura*[1243]… –ahopeka nik–. Alabaina, zer-nolako zantzua-edo[1244] izan zitekeen?

— Hori ez zakiat. Ez dezagun ahantz, ordea, zentzurik bageko zantzuak ere badirela, "*blitiri*" edo "*bu-ba-baff*" bezalakoak…

— Ikaragarria izango litzateke gizon baten hiltzea "*bu-ba-baff*" esateko!

— Ikaragarria izango lukek –ihardetsi zuen Gilenek– gizon bat erahiltzea *Credu in unum Deum.*… esateko.

Une haretan Seberino heldu zen. Gorpua txukun ikuzi eta aztertua zuen: Zauririk ez, buruan ubelik ez. Aztikeriaz bezala[1245] hila.

— Jaungoikoaren zigorra bezala ote? –itaunetan Gilen.

1243«munduko edozein izaki liburu eta idazkia bezalakoa da».
1244Zantzu: (H. "signo")
1245Aztikeriaz bezala: como por encanto (nik)

— Beharbada –Seberinok.

— Edo pozoin zeinbaitegatik?

Seberino zalantzan:

— Hori ere izan zitekeen

— Ikertegian pozoinik dadukazu? –Gilenek berriro itaunka, erietxerantz gindoazela.

— Bai, badaduzkat. Hori pozoina zure hitzetan zer den. Gaiki[1246] batzuk badira dosi tikietan osasungarri direnak, eta dosi handietan hilgarri. Edozein belar-biltzailek dadukan bezala, nik badadutzat eta zuhurki erabiltzen ere baditut. Nire baratzean, esaterako suhar-belarra[1247] hazten dut. Tanta gutti batzuk, beste belar batzuetako infusioan, bihotzaren baregarri dira, zurruburruka[1248] pilpiratzen[1249] denean. Gehiegizko dosiak, ordea, sorgortu[1250] eta hil ahal du.

— Eta ez duzu ikusi gorpuan pozoin edo eden baten[1251] zantzurik?

1246Gaiki: (H. “sustancia”)
1247Suhar-belar: valeriana (Bot.)
1248Zurruburruka: desordenadamente, confusamente
1249Pilpiratu: taupadak egin (bihotzak)
1250Sorgortu: (H. “entumecimiento”)
1251Pozoin baten…: de algún veneno en particular

— Bat ere ez. Baina, pozoinik askok ez du aztarrenarik uzten.

Erietxera iritsi ginen. Benantzioren gorpua, garbitokian ikuzia, hara eramana zegoen eta Seberinoren ikertokiko mahai handiaren gainean zetzan[1252]. Alanbikeak eta beirazko zein toskazko[1253] beste tresna batzuk han eta gogoratu niri (haretaz zeharkako ideia baizik ez izan arren) hura alkimista baten ikertegia zela. Horman josita zegoen arasa luze batean ontzi, pitxer, murko[1254], flasko andana ikusi nuen eta barruetan margo askotariko gaikiak.

— Gai bilduma ederra –esan zuen Gilenek–. Denak zure baratzetik ekarriak ote?

— Ez –erantzun zion Seberinok–. Gaiki guztiok, bakanak eta inguru hauetan hazten ez direnak, urteen urtez ekarri izan dira, lurbira osoko fraideek ekarri, hain zuzen. Gai bakan-bakanak eta bitxiak daduzkat, eta ondoan hemen edozein bazterretan hazten diren beste gaiki batzuk orobat. Begiratu… alghalingho pesto, Cataytik ekarria, jakintsu arabiar batek eman zidana. Aloe sucotrino, Indietatikoa,

1252Etzan: yacer
1253Toska: (H. “loza”) (buztin finezko gauzak)
1254Murko: (H. “vasija”)

orbaintzeko[1255] belar ezinobea[1256]. Ariento bizia, hilak berpizten dituena, hobeki esateko, konortea[1257] galdu duena iratzarten du. Artsenikoa: arrisku-arriskugarria, irentsi duenarentzat hilgarri. Borraia, birika gaisotuentzako landare ona. Otondo-belarra[1258], buruan egin zauri edo hausturak sendatzeko ona. Likalea[1259], biriketako jarioak[1260] geldiaraztekoa, eta marranta unagarria[1261] kentzekoa. Mirra...

— Magoena? –galdetu nuen nik.

— Magoena, baina hemen hilaurtzeak[1262] ekiditekoa da, eta Balsamodendron myrra deritzon zuhaitzetik jasoten da. Beste hau numia da, oso-oso bakana, momiaturiko[1263] gorpuen usteltzetik sortua, eta ia mirarizkoak diren sendagaiak egitekoa da. Mandragora officinalis, lotarako ona...

— Bai eta haragiaren irritsa suspertzeko ere ona –nire maisuak iruzkin egin zuen.

1255Orbaindu: cicatrizar
1256Ezinobe: hobezin (H. “óptimo”)
1257Konorte: sentido, conocimiento
1258Otondo-belar: sasibelar, sugeri (Betónica)
1259Likale: (H. “almáciga”) (?)
1260Jario (H. “flujo”)
1261Unagarri: (H. “molesto”) (Unatu: cansar-aburrir)
1262Hilaur: aborto / hilaurtze: acto de abortar (Haur-galtze, ekotx, ekort...)
1263Momiatu: momificar (N)

— Hori omen. Hemen, ordea, ez da horrela erabiltzen, pentsa dezakezunez –Seberino irri zuriz–. Begira beste hau –flasko bat hartu eta–, tuzia, begientzat mirarigina[1264].

— Eta hau zer da? –Gilenek galdetu jakin-min handiz apal[1265] batean zegoen harri bat ukiturik.

— Hori? Aspaldian oparitu zidaten. Lopris amatiti edo lapis ematitis esaten diote. Sendatzeko onbide[1266] batzuk omen ditu, nik, aldiz, oraino ez kausitu. Ezagun duzu?

— Bai –Gilenek–. Ez sendagai, ordea.

Soingaineko barrurean[1267], labanatto bat idoki zuen eta emeki-emeki harriari hurreratu zion. Labanattoa, eskuaz polliki-polliki eroanaz, harritik hur[1268], eta orduantxe, nik ikus, sorbatzak[1269], hots aiztoaren ahoak, zirkin[1270] zakar bat egin zuen, Gileni pultsua edo eskuko tintina[1271] gelditu balitzaio bezala, ezinezko zena, oso errimea[1272] baitzuen. Eta

1264Mirarigin: mirarigile
1265Apal: (H. “estante”)
1266Onbide: virtud
1267Barrurean: de(sde) dentro (-rean: desde : -tik -atzizki zaharra-)
1268Huŕ: hurbil, gertu, hüllan
1269Sorbatz: filo de instrumento cortante (Aho, ahopil, ahobizar)
1270Zirkin: pequeño movimiento
1271Tintin: eskumuturreko pultsua
1272Errime firme

sorbatza harriari itsasi zitzaion, metalezko hots-tto bat eginda.

— Ikus? –Gilenek niri–. Burdina erakarten dik.

— Eta zertarako da?

— Azalduko diat, baina gauza batzuetarako. Orain jakin nahi nuke, Seberino, hemen gizona hiltzeko gauza denik ba ote dagoen.

Seberinok lipar[1273] batez gogoetan, luzettoa irudi niri, erantzuna garbia behar baitzen:

— Gauzarik asko. Esana dizut pozoinaren eta sendagaien arteko muga oso mehea[1274] dela, greziarrek biei esateko hitz bakarra zuten, *pharmacon*.

— Eta ez dago ezer azken aldian ostu[1275] dizutenik?

Seberino berriz ere gogoetan. Gero, hitzak ia neurtuz bezala, esan:

— Azken aldian, ezer ez.

— Eta lehenago?

1273Lipar: instante
1274Mehe: (H. “tenue”)
1275Ostu: (H. “sustraer”)

— Beharbada. Ez dut gogoratzen. Duela hogeita hamar urte nago hemen abadian, eta erietxeon hogeita bost.

— Gehiegi giza oroimen batentzat –onartu zuen Gilenek. Gero, bat-batean honela esan zuen–: Atzo-o, ikuspenak eragin ditzaketen landareez mintzo ginen. Zein dira?

Sino-minoka[1276] hasi zen, dena imintzio eta keinu, eta hala Seberinok hizpidea maite ez eta hitzez beste[1277] egin nahi zuela eman zuen ulertzera:

— Adizu, zera, pentsatu behar nuke, izan ere, hemen daduzkadan gaiki mirariginak hainbeste dira eta. Alabaina, Benantzioz mintza bagintez, hobe. Zer diostazu berataz?

— Pentsatu behar nuke –erantzun zion Gilenek.

BIGARREN EGUNA

1276Sino-mino: gesticulaciones, ademanes
1277Hitzez beste egin: cambiar de conversación

PRIMA

Bentzio da Upsalak gauza batzuk agerrarazten ditu, Berengario da Arundel-ek beste batzuk, eta Adsok benetako pemitentzia zer den ikasi duenenekoa.

Zorigaiztoko ezbehar[1278] harek erkidegoko bizitza asaldatu zuen. Hilotza aurkituz geroko nahasmenduak ofizio sagaratua eten zuen. Abadeak berehala fraideei kortxilara itzultzeko agindu zien, hildako anaiaren arimaren alde otoitz egitearren.

Lekaideek mintzoak erdizka ebakitzen zituzten. Gu haien hazpegiak ikusteko eran jarri ginen, orduan, liturgiaren arau, txotinak janzteke zegozen eta. Sarri[1279], Berengarioren aurpegia begiztatu genuen. Zurbil, uzkur[1280], izerdiz brist-brist[1281] egina. Aurreko egunean birritan hari buruzko zurrumurruak entzun genituen eta Adelmorekin

1278Ezbehar: (H. “incidente”)
1279Sarri: berehala / Sarritan: maiz, usu, askotan
1280Uzkur: (H. “retaraído”)
1281Brist-brist e. : (H. “reluciente”)

zituen harreman bereziak, bereziki. Adinkideak zirela eta, deigarrria ez zen adiskideak izaitea, adiskidetza haretaz egiten zen hizkera iheskorra baizik, itzulika aipatzen baitzen.

Haren ondoan Malakias ikusi genuen. Ilun, beltzuri[1282], sargaitz[1283]. Malakiasen ondoan Jorge itsuaren begitarte harena bezain sargaitza. Gure arreta, berriz, Bentzio Upsalakoren urduritasunak hartu zuen; erretorika-ikasle aurreko egunean *scriptorium*ean ezagutu genuena hantxe eta halako baten, dzanpez[1284], Malakiasi so azkar bat egin ziola ohartu ginen, otoz otoan[1285].

— Bentzio urduri zagok; Berengario, lauorrian[1286] –ebatzi[1287] zuen Gilenek–. Itaundu behar zaiek lehen baino lehen.

— Zerengatik? –galdetu nik xalo-xalo[1288].

— Gure eginkizuna gogorra duk. Inkisidorearena lan gogorra; ahulenak jo behar ditik, eta ahalik ahulen dagozenean jo.

1282Beltzuri: (H. “ceñudo”)
1283Sargaitz: (H. “impenetrable”) (?)
1284Dzanpez: de bruces, repentinamente
1285Otoz otoan: inesperadamente, de improviso
1286Lauorrian: laborrian, espantado, aterrado
1287Ebatzi: resolver, dirimir (H. “observó”)
1288Xalo-xalo: (H. “ingenuamente)

Halaxe beraz[1289]: otoitzaldia bukatutakoan Bentziorengana gu, liburutegirantz. Gilenek dei egin zion eta gazte zen ha entzutean gaitziturik[1290] bezala geratu zen, eta lan egin behar zuela eta estakuruz[1291] hasi zen apalki. *Scriptorium*era iristeko lehiaz zirudien. Nire maisuak, berriz, Abadeak ikerketa egin zezan agindu ziola gogorarazi eta kalostrara joan[1292] zuen. Barruko bularkai[1293] batean eseri ginen, zutabe biren artean. Bentzio begira, Gilen noiz mintzatuko begira eta, txitean-pitean, Eraikinari begiratzen zion.

— Beraz –Gilenek galde–, zer esan zen Adelmo, zu, Berengario, Benantzio, Malakias eta Jorge *marginalia* haietaz eztabaidan aritu zinetenean?

— Atzo entzun zenuen. Jorgeren eritziz ez da zilegi egia dadukaten liburuak irudiki barregarriez apaintzea. Benantziok esan zuenez, Aristotelesek berak txisteez eta hitz-jokoez hitz egin zuen, egia hobeki ezagutzeko tresnak zirelakoan, eta, beraz, barrea ez zela gauza gaiztoa, egiaren eramangailu[1294] izan bazitekeen. Jorgek, gogoan zuena

1289Halaxe beraz: (H. “en efecto”) (N)
1290Gaitzitu: molesto (H. “contrariado”)
1291Estakuru: aitzakia, desenkusa
1292Joan: eroan, eraman (H. “le condujo”)
1293Bularkai: (H. “parapeto”) (?)
1294Eramangailu: (H. “vehículo”)

gogoraturik, Aristotelesek gai horietaz *Poetica* liburuan hitz egin zuela esan zuen, metaforei buruz ari zelarik. Eta haiek biak zirkunstantzia kezkagarriak zirela: lehenik, *Poetica*, urte luzez kristauen artean atzendua[1295], agian jainko aginduz, mairu fedebageen bidez heldu zaigulako…

— Baina latinera Akinoko doktore aingeruzko haren adiskide batek itzuli zuen –Gilenek zehaztu zuen.

— Horixe nion nik esan –irautsi zion Bentziok, hitzetik hortzera azkorturik–. Grekoz guti dakit, eta liburu handi horretara Moerbekeko Gilenek itzuli zuenagatik hurbil nintekeen, hain zuen ere. Honela esan nion. Jorgek bigarren zio bat gehitu zuen, kezkatzeko, eta zera zen: Estagirita poesiari buruz ari zela, garrantzi handirik bageko antzea dena, *figmenta*z egina, hots, lokatzez. Benantziok iharduki[1296] zuen, ezen, salmoak ere poesia-lanak direla eta metaforak erabili ohi dituztela, eta Jorge sumindu zen txit, zeren, esan zuenez, salmoak jainkozko argialdiaren[1297] lanak baitira, eta metaforak egia jakinarazteko erabili ohi dituzte, poeta jantilek ez bezala, berauek gezurren barreiatzeko eta

1295Atzendu: (H. “ignorada”)
1296Iharduki: debatir-hablar-disputar
1297Argialdi: (H. “inspiración”)

atsegin izaiteko baizik ez dituzte; honela esan zuen eta niri gaitzitu zitzaidan, tint[1298]…

— Zergatik?

— Nik erretorikaz jarduten, eta poeta paganorik asko irakurten dudalako, eta badakit… hobeto esateko, uste dut haien elez egiak hedatu[1299] izan direla, *naturaliter cristiane*... Azken baten, une haretan, ondo gogoratzen badut, Benantziok liburu batzuk aipatu zituen eta Jorge biziki sumindu zen.

— Zein liburu?

Bentzio durduzatu[1300] zen, erantzun aurrez:

— Ez dut gogoratzen. Zer axola, ostera, zein liburuz hitz egin zen?

— Axola handia, zeren, gizonen artean gertaturiko zerbait ulertzen saiatzen baikara, liburu artean, libururekin, liburuz bizi diren gizonen artean, eta, ondorioz, liburuez zer dioten jakitea ere axola handikoa.

— Egia da –Bentziok, lehen aldiz irribarretsu eta begitartea ia argitua zuela–. Liburuentzat bizi gara. Eginkizun gozoa,

1298Tint: (H. “sobremanera”)
1299Hedatu: (H. “transmitir”
1300Durduzatu: vacilar, dudar, turbarse

nahasmenduak eta gainbeherak[1301] jotako mundu honetan. Beraz, egun haretan zer gertatu zen agian uler zenezake. Benantziok, grekoa ondo ezagutzen duen… zuenak esan zuen, ezen, *Poetica* delako bigarren liburua bereziki barreari eskaini ziola eta ha bezalako filosofo hain handiak liburu oso bat barreari eskaini bazion, barrea garrantzi handiko zerbait bide-zela[1302]. Jorgek esan zuenez fraiderik askok liburu osoak bekatuari eskainiak egin zituen, eta garrantzitsua da baina oso gaiztoa, eta Benantziok iharduki zion, zekienez, Aristotelesek barrea gauza ona zela esan zuela eta egia hedatzeko bide egokia orobat, eta, orduan, Jorgek galde egin zion, axut bezala[1303], ea Aristotelesen liburu hori irakurri ote zuen, eta Benantziok artean inork irakurterik izan ez zuela erantzun zion, inoiz agertu bagerik zegoelako eta, beharbada galdurik. Zinez, *Poetica* liburuaren bigarrena inork ez du irakurri, Moerbeke-ko Gilenek inoiz ere ez zuen eduki eskuetan. Orduan Jorgek esan zuen ediren ez bazuten inoiz ere idatzi ez zutelako zela, probidentziak ez zuelako arinkeriak[1304] loriatuak izaitea nahi. Ni hango tira-birak, haien gogoak baretzen saiatu nintzen, lasaitzen, Jorge erraz sumintzen baita eta

1301Gainbehera: (H. “decadencia”)
1302Bide-: (H. “debía de ser”) (Al parecer era...)
1303Axut bezala: (H. ”desafiante”)
1304Arinkeria: (H. ”cosas frívolas”)

Benantziok hitzez zirikatzen zuen. Nik zera esan nuen, hots, ezagun dugun *Poetica*ren zatian, eta erretorikan, ohar oso jakintsuak agertzen direla, enigma asmotsuei buruzkoak. Benantzio nirekin bat zetorren. Dena den[1305], gurekin Pacifico da Tivoli zegoen, poeta paganoak ondo xamar ezagutzen dituena, eta enigma edo igarkizun asmotsuez den bazainbatean nagusiak poeta edo olerkari afrikarrak zirela esan zuen. Sinfosioren arrainaren igarkizuna ere aipatu zuen:

Est domus in terris, clara quae voce resultat.

Ipsa domus resonat, tacitus sed non sonat hospes.

Ambo tamen currunt, hospes simul et domus una.[1306]

Orduan Jorgek esan zuen Jesusek gomendaturik gure hitzak baiezkoak edo ezezkoak izan behar zirela, eta gainerako guztia gaizkinarena zela. Eta arrain esatea nahikoa zela arraina izendatzeko, adigaia[1307] hots

1305Dena den: (H. “ahora bien”)

1306«Bada lurrean gauza bat ahots garbiz burrunba egiten duena. Etxeak berak hots egiten du, baina arrotz isilak ez du hotsik egiten. Biek, hala ere, aldi berean, arrotzak eta etxeak lasterka egiten dute.» Burrunba egin: retumbar / Hots egin: resonar / Arrotz: huésped-extranjero

1307Adigai: concepto

atzipegarriz[1308] ezkutatu bagerik. Afrikarrak eredutzat hartzea zuhur ez zela ere gehitu zuen… Eta orduan...

— Orduan?

— Orduan ulertu ez nuen zerbait jazo zen. Berengariok barre egin zuen. Jorgek agiraka[1309] egin zion eta harek ihardetsi, zera, barre egin zuela afrikarren artean beste mota batzuetako enigmak aurki zitezkeela bururaturik, arrainarena bezain errazak ez zirenak ere bai. Malakias, bertan baitzegoen, sumin-suminik jarri zen, Berengariori ia oratu zion txotinatik, eta haren atazetara itzul zedin agindu zion… Berengario, badakizu, haren laguntzaile da...

— Eta gero?

— Gero Jorgek eztabaida amaitu zuen, eta aldendu zen. Guztiok geure eginkizunetara itzuli ginen, baina, lanean ari gineino Benantzio ikusi nuen, lehenik, gero Adelmo Berengariorengana hurbiltzean eta beroni zerbait galdetzen bezala ziotela. Urrundixe ikusita, iskin[1310] egin nahi ziela konturatu nintzen, egunean zehar[1311], ostera, biak ala biak beste behin hurreratu zitzaizkion. Eta arratsalde haretan

1308Atzipegarri: engañoso, fraudulento
1309Agiraka egin: (H. “reconvenir”) (Errieta, lotsageri egin...)
1310Iskin egin: (H. “zafarse”)
1311Egunean zehar: (H. “a lo largo del día”)

bertan Berengario Adelmorekin kalostrapean, elkarrekin mintzo[1312] ikusi nituen, biak jatokira baino lehenttoago. Hauxe, bada, besterik ez dakit.

— Beraz, oraintsu hil berri, eta modu misteriotsuan hil diren bi lagunak Berengariori zerbait galdetzera joan zitzaizkiola dakizu –esan zuen Gilenek.

Bentziok ezeroso erantzun zuen:

— Ez dut hori esan! Egun haretan zer gertatu zen esan dut, eta zerorrek galdetu didazulako… –Hausnartu zuen lipar batez eta gero bat-batean gehitu–: Nire ustea nahi baduzu, hala ere, Berengariok liburutegian dagoen zertazbait hitz egin zien. Han bilatu behar zenuke.

— Zergatik use duzu liburutegian? Zer esan nahi zuen Berengariok afrikarren artean bilatzeaz hitz egin zuenean? Ez zuen esan nahi, ote, afrikar poetena hobeki irakurri behar zela?

— Agian, hori esan nahi zuela zirudien, baina orduan zergatik sumindu zen hain biziki Malakias? Sakonean, berak du baimendu behar edo ez afrikarren poetaren libururik irakurtea, berak esan dezake haizu denentz. Nik, aldiz, zerbait dakit: Liburuen zerrenda gaingiroki begiz jota,

1312Elkarrekin minzatu: (H. “confabular”)

liburuzainak ez bestek dakien ohar bat sarritan agertzen dela nabari izan zait, «Afrika» dioena, eta are, beste bat ere aurkitu ukan dut, hau da, «finis Africae». Behin, honako zuin[1313] hau zedukan liburu bat eskatu nintzen, ez dut gogoan zein, izenburuak nire jakin-mina piztu baitzidan. Malakiasek, zera, zuin hori zedukaten liburuak galduak zirela adiarazi zidan. Hauxe dakit. Honegatik diotzut: ondo, begira iezaiozu Berengariori, eta liburutegirean irteten duenean, adi. Inoiz ez dago jakiterik.

— Inoiz ez dago jakiterik –bukatu zuen Gilenek eta agur egin zion.

Gero biok elkarrekin kalostrapean ibilian hasi ginen ibiltzen, eta hauxe zuen aditzera eman: lehenengo eta behin, Berengario berriz ere bere anaien zurrumurruen jomuga, itua[1314] zela; eta begarrenik, Bentziok gu liburutegirantz joanarazi nahi gintuela, nola edo hala. Nik esan nuen agian guk zerbait ediren genezan nahi zuela berak ere ikusi nahi zuelako, eta Gilenek honela izan zitekeela onartu zidan, baina besterik ere bazitekeela, hots, liburutegirantz bultzatzeaz gu beste leku batetik alden gintezen nahi ote zuen. Zein leku?, galdetu nion nik. Eta Gilenek ez zekiela

1313Zuin: marca (H. “signo”)
1314Itu: blanco de tiro (“hito”?)

erantzun, agian *scriptorium*a, sukaldea, korua, lotokia, erietxea. Nik esan nion aurreko egunean bera zela liburutegiaz liluratua, eta haren erantzuna berak maite zituen gauzez liluratua izan nahi zuela, ez beste inork gomendatu gauzaz. Hala eta guztiz ere, liburutegia zelatatu behar izanagatik, gertatutakoak gertaturik[1315], hara sartzeko bidea edo era edireiten hasi bagina ere txarto ez. Izan ere, izan ziren zerak izan zirelako, jakin-mina sentitzea haizu[1316] zen, beti gizalegearen barruan eta abadiako arau-ohiturei begirunez atxikirik.

Kalostratik hara gindoazen. Zerbitzariak eta fraidegaiak elizatik irteiten ari, meza bukatu eta. Tenpluaren sartaldeko alderantz bihurtutakoan, Berengario urkusi[1317] genuen, transeptoko[1318] atetik ateratzean Eraikinera bidean, hilerrian barrena zihoala. Koruan ikusi genuen baino are aztoratuago[1319] zegoen, eta Gilenek haren gogo-egoeraz baliatu nahi izango zuela igarri nuen, Bentziogaz egin zuen bezala.

1315Gertatuak gertaturik: (H. “a la altura de las circunstancias”)
1316Haizu: (H. “lo autorizaba”)
1317Urkusi: begiztatu, urrundik ikusi
1318Transepto: Habearte nagusia alderen alde zeharkatzen duen beste habeartea, elizari gurutze itxura emaiten diona.
1319Aztoratu: (H. “turbado”)

— Beraz[1320], agidanean, Adelmo bizirik ikusi zuen azkena zu izan zinen –irautsi zion.

Berengario zalantzan, zorabitu aginik[1321] bezala: «Ni?», egin zuen galdera ahots mehe-mehe batez. Gilenek galdera halabeharrez bezalatsu aurtiki zion, ziur aski Bentziok haiek biak ezkutuan legez elkarrekin mintzatzen ari izan zirela jakinarazi ziolako, kalostrapean bezperakoa amaiturik. Baina, itxuraz[1322], itua jo[1323] zuen. Berengariok beste elkar-une bat zuen gogoan, nabari zuen, izan, azkena izan zena bera, zeren, hitz erdika edo mintzatzen hasi baitzen.

— Nolatan esan dezakezu hori? Lotara joan baino lehen ikusi nuen, beste guztiek bezala!

Orduan Gilenek estutzea[1324] merezi zuela erabaki zuen:

— Ez, zuk geroago ikusi zenuen, eta darakutsazun baino gehiago dakizu. Alabaina, honez gero bi hil badagoz dantzan eta ezin egon zaitezke gehiago isilik. Badakizu, ondo jakin

1320Beraz: (H. “de modo que”)
1321Aginik: agin (a punto de) (Zorian, hurran,-tzear)
1322Itxuraz: (H. “debía haber dado en el...”
1323Itua jo: (H. “dar en el blanco”)
1324Estutu: (H. “acosar”)

ere, lagun bati erasan[1325] eta hitz eragiteko modurik asko dagoena!

Gilenek niri behin baino gehiagotan esan zidan, inkisidore izan zen garaian ere, inoiz ez zuela torturarik edo estirarik erabili, baina Berengariok orduan, esan bage ere, hura aipatzen zuela pentsatu zuen (edo Gilenek hala pentsa zezan bide eman[1326] zion, edo burutan ezarri[1327]). Zena zela, amarrukeriak[1328] ondorio.

— Bai, bai –Berengariok, eta negarrari eman zion hitz egiteaz batera–; gau haretan Adelmo ikusi nuen, hilik zegoela, baina!

— Nola? –Gilenek itaunka–. Arro[1329] barrenean?

—Ez, ez, hilerrian. Hilobien artetik nenbilen, espektroen artean espektro ni. Ikusi eta bertan ohartu nintzen bizien artetik joana zela, aurpegia hilotz, haren begiek betiereko zigorra begiztatzen zuten. Jakina, hurrengo goizean, hila zena jakin nuenean, haren mamuarekin topo egin nuela konturatu nintzen. Orduan ere, baina, ikuspen bat nuela ohartu ni, neure begiek kondenaturiko arima bat zekusatela,

1325Erasan: atacar de palabra, hacer efecto /… (Jasan—erasan?)
1326Bide eman: (H. “dar pie”)
1327Burutan ezarri: sugerir, insinuar
1328Amarrukeria: (H. “estratagema”) (Ondorio “dio resultado”)
1329Arro: barranco

inguma[1330] bat. Oi, Jauna, zein hilobiaz haraindiko[1331] ahotsez mintzo zitzaidan!

— Zer esan zuen?

—«Kondenaturik nago!»; hauxe esan. «Hau dakusazun hau inpernurean etorri eta inpernura itzuli behar duena da». Hauxe esan. Nik oihuz galdetu nion: «Adelmo! Benetan inpernurean zatoz? ¿Nolakoak hango zigorrak?» Bizkitartean[1332], ni ikara lauorrian, konpletako ofiziotik irten berri, Jaunaren suminaz irakurritako lazgarria entzun ondorean. Orduan honela esan zidan: «Inpernuko zigorrak gure hizkuntzak adiarazi ahala baino asko-askoz handiagoak dira. Ikus?», esan zuen, «orain arte jantzita egon naizen sofisma-geruza hau? Bada, astun zait, zapaltzen nau Parisko dorrerik handiena sorbaldetan banerama bezala, edo munduko mendirik larriena lepoan baneduka bezala. Eta inoiz ere, sekula, ez dut ene gainetik kendu ahal izanen. Zigor hau jainko-justiziak ezarri dit hoilatu[1333] naizelako, harro-harrotu, nire gorputza atsegin-toki bat zela uste izanik, gozamen-leku, beste inork baino gehiago nekiela uste nuelako, gauza ikaragarriekin atsegin hartzeagatik, eta nire

1330Inguma: (H. “lemur”) (Mamu, iratxo)
1331Hilobiaz haraindi: (H. “ultratumba”) (Beste mundu...)
1332Bizkitartean: (H. “entre tanto”)
1333Hoilatu: vanagloriar

irudimenean tirriatu[1334] nituenez gero are ikaragarriago bilakarazi[1335] nituelako, nire arimaren barruan. Eta orain haiekin guztiekin beti eta beti bizi behar, eternitate guztian. Ikus? Soingaineko honetako forroa, dena sugar eta txingar da, su bizi, eta su honek dit soina kiskaltzen, eta zigor hau haragiaren bekatu likitsagatik ezarri zait, guztiz hari emana bainintzen, eta orain su honek sutzen nau, tai bage[1336] erretzen eta errausten nau! Ekar ezazu zure eskua, maisu polit horrek!», gehitu zuen, «elkartze honetatik ikasgai baliagarri bat eskura dezazuntzat, zugandik nik jasotako hainbaten ordain, hurbil iezadazu zeure eskua maisu polit horrek!» Eta bere eskuko hatz bat astindu zuen, sutan baitzegoen, eta izerdi ttantta bat nire eskura erori zen, eta zulatu balit bezala sumatu nuen, halako moldez, ezen, egunik askotan ezkutaturik eraman nuen, orbaina[1337] ikus ez zedingatik. Hura esanda, hilobien artetik suntsitu zen eta hurrengo goizean ni hain ikara handia eragin zidan gorputza gorpu zena jakin nuen, dorretzar azpian hilotz zetzala.

Berengario itokarrean[1338] eta negarretan. Gilenek galdetu zion:

1334Tirriatu: (H. “anhelar”) (Irrikatu...)
1335Bilakarazi: hacer que se convierta
1336Tai bage: (H. “sin cesar”)
1337Orbain: (H. “marca”) (cicatriz...)
1338Itokarrean: jadeando, ahogándose

— Eta zer zela eta esan zizun maisu polit? Adinkideak zineten. Ezer irakatsi ote zenion, ala?

Berengariok aurpegia txotinoaz estali zuen, belaunikatu zen, eta Gilenen zangoak besartetu zituen, eta zioen:

— Ez dakit, ez dakit zergatik deitu ninduen hala, nik ez bainion deus irakatsi! –Eta negar zotinka lehertu zen–: Aita, beldur naiz, zurekin konfesatu nahi dut, erruki zakizkit, deabruak erraiak[1339] jaten dizkit!

Gilenek beregandik aldera zuen eta eskua luzatu zion, jaiki zedin.

— Ez, Berengario, ez eska niri konfesatzerik. Ez itxi nire ezpainak zureak irekiz. Zugandik jakin nahi dudana beste era batera azalduko didazu. Eta zuk esan ez badiezadazu, nire kasa kausituko dut. Eska zakizkit errukimendua, nahi baduzu, baina ez eska niri isiltasuna. Abadia honetan isilik dagozenak gehiegi. Esaidazu, esaterako, nolatan ikusi zenuen haren begitartea zurbil, gau iluna zelarik, nolatan erre zure eskua euria, txingorra edo elurra ari zuelarik, zer

1339Errai: entraña

zenegien, zertan ari zinen hilerrian. Ea! –Eta sorbaldak inarrosi[1340] zizkion, zakarto– Esaidazu hori behintzat!

Berengariori soin osoa ikaran zebilkion:

— Ez dakit zer nengien hilerrian, ez dut gogoratzen zertan ari nintzen. Ez dakit nola ikusi nuen haren aurpegia, agian nik argia neraman… Ez, harexek zeraman argi bat, kandela bat, agian suaren garren argiz ikusi nuen...

— Nola zeraman argi bat euri eta elurpean?

— Konpletak bukatu eta gero zen, bukatutakoan ez zuen elurrik ari, geroxeago hasi zuen… Lehenengo tantak ni lotokira ariniketan nindoanean hasi ziren. Ariniketan logelara ni eta mamua beste alderantz zihoan… Gero, besterik ez dut gogoratzen. Otoi, ez egin niri itaun gehiago, aitortzan entzun nahi ez badidazu.

— Tira, ba –Gilenek–, orain zoaz, ea, korura, zoaz Jaunarekin hitz egitera, gizonekin nahi ez duzunez, edo zoaz fraide baten bila zure aitortza entzun diezazuntzat. Izan ere, gau haretatik hona zure bekatuak aitortu ez badituzu, sakramentuetara gerturatu zaren bakoitzen sakrilegio egin duzu. Zoaz, ea. Elkar ikusiko dugu.

1340Inarrosi: astindu

Berengario ziztu bizian urrundu zen. Gilenek eskuak igurtzi zituen, nik maiz ikusi bezala, beti zerbaitegatik nahikoetsia zegoenean.

— Ondo –esan zuen–, orain gauza batzuk argitu dituk.

— Argitu, maisu? Argitu orain Adelmoren mamua ere dugunean?

— Adso maite, mamu hori susmagarri xamarra zaidak, eta nolanahi ere, nik libururean baten irakurritako orrialde batekoa errezitatu dik, sermoilarientzat idatzia dena. Lekaide hauek asko irakurten dutela uste diat, eta gero, asaldatzen direnean, irakurtean ikusitakoa berriz ere ikusten bezala ditiztek. Ez zakiat egiaz Adelmok horiek gauza horiek esan ote zituen edo Berengariok entzun ote, entzun beharra zuelako. Dena dela[1341], historia honek nik lehenago formulaturiko hipotesi batzuk baieztatzen ditik. Adibidez: Adelmok bere burua hil zian, eta Berengariok azaldu digunak, hil aitzin, itzuli-mitzuli ibili zela adiarazten ziguk, asaldura bete-betean[1342], egindako zerbaitegatik damutu eta. Bere bekatuengatik asaldaturik, ikaraturik zegoan, norbaitek ikararazita, beharbada inpernuko gertaera hori ere, agerkera hori norbait horrek jaulki zioan, geroago Berengariori

1341Dena dela: (H. “El hecho es que...”)
1342Asaldura betean: (H. “presa de gran excitación”)

errezitatu, hain maisuki eta ele ederrez errezitatu diguna legez errrezitatu zionak berak. Eta hilerritik korurean zetorrelako irago zuan, bertan hitz egin (edo aitortu) norbaitekin hitz egin zian, ikara eta izua, sarrakioa[1343] sartu zion norbaitekin. Eta handik alde egin zian, Berengarioren istorioak argitzen duen bezala, lotokietara ez bestalderantz. Hots, Eraikinerantz, baina harresirantz ere (beharbada) izan zitekean, ukuiluen aldera, eta bertatik bere burua amildu[1344] zian. Ekaitza baino lehen amildu zian, harresiaren oinean hil zuan, eta geroago luiziak gorpua beheragotu, eta bi dorreen arteko leku bateraino herrestatu zian, iparraldeko eta ekialdekoen artean.

— Baina, eta suzko[1345] izerdi ttantta?

— Hori harek entzundako istorioan, gero berrizkatu[1346] zuenean bazegoan, edo Berengariok bere asalduran eta zapaltzen zuten kezken azpian asmatu zian. Entzun duk, bada, nola mintzatu den: Adelmok zuen bihotz-zimikoa[1347] eta Berengarioren kezka, antistrofak[1348] bezala, bat dituk. Eta, Adelmo korurean bazetorren, kandela ekartea izan

1343Sarrakio: pavor
1344Amildu: despeñar
1345Suzko: (H. “ardiente”)
1346Berrizkatu: repetir
1347Bihotz-zimiko: remordimiento / kezka
1348Antistrofa: Poesia grekoko zera bat.

zitekean, eta bere adiskidearen eskura erori zen ttantta ezkottantta bat izan zitekean. Hala ere, Berengariok sumatu zuen erredura, doike, are erregarriago izan zuan, askoz, Adelmok maisu esan ziolako. Hau duk, zera, Adelmok zerbait aurpegira egotzi zioan, zerbait irakatsi baitzion orduan etsipen hilgarrira eraman zuena. Eta Berengariok bazakik, eta oinazez zagok, zergatik eta, egin behar ez zuena eginaraziz Adelmo heriotzarantz bultzatu zuelako. Eta, Adso maite, gure liburuzainaren laguntzaileaz zer esaten den entzun ondorean, ez duk zail irudikatzen zer izan zitekeen.

— Bien artean zer agitu[1349] zen ulertzen dudala uste dut. – esan nuen nire ernetasunaz[1350] lotsaturik–, baina, ez ote dugu sinesten guztiok Jaungoiko errukibera[1351]? Adelmo, eiki, aitortu berri zela esan duzu: zergatik zigortu nahi ukan zuen bere lehenengo bekatua beste bekatu larriago batez, edo, aurrekoa bezain larriaz, bederen?

— Norbaitek etsipenera[1352] eraman zuten gauza batzuk esan zizkiolako, etsi gaiztora. Esan diadanez, Adelmo izutu zuten eleak, eta gero beronek Berengario ikaratzeko berrerabili zituenak, liburu batetik hartu zituan, egungo sermoilariek

1349Agitu: gertatu, jazo
1350Ernetasun: sagacidad (ernasun?)
1351Errukibera: misericordioso
1352Etsipen: desesperación (Etsi gaizto)

usatzen dituzten liburuetatik. Azken urteetan, inoiz ez bezala, prediku egileek halako hitz izugarriak erabiltzen ditiztek, herriko jende xeheari sarrakioa sartzeko asmoz, bai, eta haren fedea suspertzearren (bidenabar, giza- eta jainko-legeak begirunez eta lotsaz har ditzantzat), hitz edo ele hain asaldagarri[1353], hain lazgarri[1354] eta hain heriozkoiak[1355]. Gure garaion bezala inoiz ez, esaterako, Kristoren eta Birjinaren oinazeetan irudikatuak hain laudorio sutsuak prozesioetan, zigor-ukaldiz euren gorputzak hain heriosuharrez zauritzen eta hebaintzen[1356] dituztenei. Jende xehearen fedea piztearren inpernuko zigor jasanezinak inoiz ez bezala gure egunotan zehatz eta mehatz jaulkitzen ditiztek.

— Beharbada, penitentzia egin beharragatik –esan nuen.

— Adso, inoiz ez diat entzun orain bezainbeste penitentzia eta ez sermoilariek ez gotzainek, ez nire anaiek, espiritualek, ditek lortzen, ditek erdiesten egiazko penitentziaren sustatzea.

— Horrela ere, hirugarren adina, aingeruzko aitasantua, Perusako kapitulua...–esan nuen, nahasirik.

1353Asaldagarri: (H. “perturbadora”)
1354Lazgarri: (H. “truculenta”)
1355Heriozkoi: (H. “macabro”) (N)
1356Hebaindu: lisiar-mancar-hacer agujetas

— Antzin-minak[1357]. Penitentziaren garai handia amaitu duk. Honegatik baldernako kapitulu nagusiak ere penitentziari buruz hitz egin zezakek. Duela ehun edo berrehun urte, berriztapen haizeak putz egin zian. Orduan penitentziaz mintzatzea aski zuan su-meta[1358] irabazteko, santu izan nahiz heretiko[1359] izan. Orain nork-nahi egiten dik haretaz hitz. Nola bait[1360], Aitasantuak berak ere egiten dik. Ze egik entzindu[1361] harean, ez hadi fida kurietan eta gorteetan iruzkintzen[1362] diren giza-berriztapenez.

— Baina frai Dultzino... –ausartu nintzen esatera, aurreko egunean behin baino gehiagotan entzun nuen haretaz haboro[1363] jakin guraz.

— Hil zuan, eta bizian bezala hilean ere, hots, gaizki, zeren, bera orobat beranduegi heldu baitzen. Gainera, zer dakik hik haretaz?

— Ezer ez, honegatik galdetzen dizut…

— Haretaz nik nahiago ez mintza inoiz. Haren apostolu esaten zieten batzuetaz ardura hartu behar ukan nian, eta

1357Antzin-min: nostalgia (N)
1358Su-meta: hoguera
1359Heretiko: hereje
1360Nolabait: (H. “en cierto sentido”)
1361Entzindu: fiarse, confiarse (Hordiaganik ze egik entzindu arean)
1362Iruzkindu: comentar
1363Haboro: gehiago

hurbildik behatu ahal izan nitian. Kondaira goibela. Nahasmenduan jarriko hintzateke. Niri, behintzat, hala gertatu zitzaidaan. Eta nahasiago hintzateke jakinen bahu, ezen, nik haien eginak epaitzeko gauza izan ez nintzela. Gizon baten historia duk, hainbat santuri predikuetan aditu izan zizkion zera batzuk berak egin egiteko[1364] zentzugekeria jauki[1365] zuenarena. Halako une batera heldurik, ezin jakin nik nork zuen errua… nolabait, elkarren aurkako bi aldeetan zebilen askazi-haizeak lausotua bezala sentitu ninduan: batean, penitentzia predikatzen zuten santuak; bestean, penitentzia gauzatzen zuten bekatariak, askotan besteen lepotik… Baina, beste zera batez hitz egiten ari izan nauk. Edo, agian ez, agian beti gauza beraz ele egin diat: penitentziaren garaia amaituta, penitentziaren beharra egileentzat hil beharra bihurtu zuan. Egiazko penitentzia, heriotzaren ekarle, mendean hartze aldera, zoraturiko penitentziagileak hil zituztenek, Heriori heriotza itzuliz, arimaren penitentzia irudimenezko penitentziaz ordezkatu zitean, naturaz gaindiko ikuspen odoltsu eta oinazezkoak aldarrikatzen baitzituzten, beraien eritziz egiazko penitentziaren ispilu direnak. Ispilu horrek, bizitzan,

1364Egin egiteko: (H. “poner en práctica”)
1365Jauki: (S; SP, Lar. Cometer (una mala acción) /...

inpernuko kabak[1366] islatzen ditik, eta jende xeheari nahiz batzuetan jende landuari ezarten zizkiek. Diotenez, inork bekaturik egin ez dezantzat. Horrela beldurrak arimei bekatutik alde eragingo diela uste ditek, eta horrela beldurrak bihurrikeria[1367] ordezkatuko duela.

— Baina; egia ote horrela bekaturik eginen ez dutela? – galdetu nuen antsiatsu[1368].

— Hori, bekatu zeri esaten dioan, Adso. Ez diat gozakaitz[1369] izan nahi hemengo jendearekiko, hemen bertan bizi naizela urte batzuk badituk eta, honela eta guztiz ere, italiarren bertute txikirra, nire ustez, argi ikusten duk, zertan eta bekaturik egiten ez badute, idolo edo jainkoaizun baterean bati dioten beldurrean, santu dela dioten arren. Sebastian Deuna dela Andoni Deuna dela, Kristok berak baino beldur handiagoa sartzen zietek haiek. Norbaitek lekua garbi nahi badu, herrialde honetan inork gernuz[1370] zikin ez dezan, zeren zakurren antzeko baitira italiarrak honetaz den bezainbatean, gubil[1371] batez lurretik gorattoago Andoni Deunaren irudia marrazten dik, eta hauxe nahikoa leku

1366Kaba: tormento, sufrimiento extremo (Zipar?, zipert?)
1367Bihurrikeria: (H.”rebeldía”
1368Antsiatsu: ansioso
1369Gozakaitz: (H. “injusto”)
1370Gernu: orina
1371Gubil: buril

horretan gernua egingo zuenari alde eragiteko. Honelako moldez, bada, italiarrak, sermoilariek bultzatuak, antzinako sineskerietara itzultzeko galbidean zagozak. Eta, dagoeneko, ez ditek sinesten haragiaren pizkundea; gorputzeko zauriei eta atsebageei beldur zietek, soilki, eta honegatik beldurrago Andoni Deunari Kristori baino.

— Berengario, baina, ez da italiarra –ni jarki[1372] nintzaion.

— Ez ziok axola, elizak eta sermoilariek penintsula honetan hedatu duten giroaz ari nauk, eta hemendik nora-nahi barreiatzen baita. Eta heldu, honelako abadia gurgarri lekaide jakintsuok bizi diren honetaraxe heltzen duk.

— Baina, bekaturik, behintzat, ez dute eginen –irautsi nion, horrekin asko bainuen.

— Abadia hau *speculum mundi* balitz, erantzuna izango huke.

— Baina, ba al da?

— Munduaren ispilu egoiteko munduak molde bat behar dik –Gilenek bukatu zuen, nire gaxte-gogo honetarako filosofoegia baitzen.

1372Jarki: oponerse, hacer frente, acometer

BIGARREN EGUNA

TERTZIA

Lagun arrunt batzuen arteko liskarra jazo, Aymaro d'Alessandriak aipamen batzuk egin eta Adsok santutasunaz eta deabruaren simaurraz gogoeta egiten du. Gero Gilen Adsorekin scriptoriume*ra, eta Gilenek interesgarriko zerbait ikusi du, barrearen zilegitasunaz hirugarren elkarrizketa egiten du, baina, azkenik, ezin nahi zuen lekuan arakatu.*

*Scritorium*era baino lehen, sukaldetik irago ginen, zerbaiten jateko, esnatordutik ordura arte deusik jateke gengozen eta. Katilu bete esnez “neurehala” bizkortu nintzen. Hegoaldeko horma ondoko sutondo handian sua arragoan[1373] bezala zegoen, eta labean eguneko ogia erretzen. Artzain bik ardi baten soina, hil berri zutena, hantxe uzten ziharduten. Sukaldarien artean Salbatore ikusi nuen, eta bere otso-ahoaz irribarre egin zidan. Mahai baterean aurreko gaueko oilaki puxka bat hartu zuela ikusi nuen, eta eskupetik artzainei eman ziela, bai hauek irisita[1374] legez aieru[1375] egin eta sakelara sartu ere. Alabaina sukaldari buruak ohartu eta Sabaltoreri ahakar[1376] egin zion:

— Sehiburu, sehiburu –erauntsi[1377] zion–, abadiako onak hobeto kudeatu behar dituk, gero, ez zarrastelkiro[1378] barreiatu!

— Filii Dei son! –ihardetsi zion Salbatorek–. Jesusek agindu zuen beragatik facite, pueri hauetarik bati facite!

1373Arragoa: fragua, crisol
1374Irisi: (H. “satisfacción”) (Irisita: satisfecho) (?)
1375Aieru: (H. ”guiño”)
1376Ahakar: (H. “regañar”) (Agiraka, lotsageri, errieta...)
1377Erauntsi: atacar de palabra, echar en cara?/...euri erauntsi-gran lluvia /...
1378Zarrastel: despilfarrador (H. “despilfarrarlos”)

— Nire galtzetako[1379] *fraticello*, frantzikotar uzkerti! –oihu egin zion sukaldariak–. Dagoeneko ez hago heure fraide eskaleen artean! Jainkoaren umeei jaten emaiteaz Abadearen errukimendua arduratuko duk!

Salbatoreren aurpegia ilundu zen, eta suminak harturik, astindu eta ozendo:

— Ni ez naiz fraticello frantziskotarra! Sancti Benedictiren fraide naiz! Merdre à toy, bogomilo kakatsu!

— *Bogomila* gauez heure zakil heretikoaz izorratzen duan emagaldua, zerria halakoa! –oihuka sukaldariak ihardukiz.

Salbatorek artzainak handik azkar aterarazi zituen eta, gure ondotik iragaitean, guri begira, kezkati:

— Lekaide –Gileni–, defenda ezazu zure balderna, nirea ez baita, eta azal iezaiozu filios Francisci non ereticos esse! –Eta, gero belerrira mintzo, txutxumutxuka–: Ille menteur, pufff– eta lurrera tu[1380] egin zuen.

Sukaldariak era txarrez bota zuen eta atzetik atea itxi zion.

1379Galtza: (H. “de mis calzones”)
1380Tu egin: escupir

— Lekaide –Gileni begirunez–, ez dut gaizki hitz egiten zure baldernaz, ez osatzen duten gizon santu-santuez. Holako sasi-frantziskotar eta sasi-beneditar den horretaz esan diot, ez haragi ez arrain den horretaz.

— Badakit nondik datorren –Gilenek hizkera bakekoiaz– Alta bada, zu bezalako fraidea da eta anaiazko begirunea zor diozu.

— Sudurra, ordea, behar ez duen lekura sartu daroa, sehiburuak babesten duelako, eta bera sehiburu dela uste duelako. Abadia berea bailitzan jokatzen du, egun argiz bezala gauez!

— Zer dela eta gauez? –Gilenek itaundu zion.

Sukaldariak keinu, zeraz zertu nahi ez zuela edo adiaraziz. Gilenek ez zion berriro galde egin, eta esnea edan zuen.

Nire jakin-mina gero eta gero handiagoa. Ubertinorekiko tupust[1381] egitea, Salbatoreren iraganaldizko esamesak[1382], sehiburuari buruzkoak, *fraticelli*-ak gero eta aipatzenago, frantziskotar heretikoen ingurukoak, nire maisuak anaia Dultzinoz ezer esan nahi ez zidana… Nire

1381Tupust egin: encontratse de improviso, chocarse
1382Esamesa(k): (H. “rumores”) (Erran-merranak)

gogoan irudi andana batzuk osatzen hasi ziren. Esate baterako, gure etorraldian, birritan[1383] guttienez, zartailukarien[1384] prozesioekin topo egin genuen. Batzuetan, jendeak santutzat hartzen zituen; besteetan, aitzitik, heretikoak zirelako zurrumurruak ibiltzen ziren. Hala ere, beti berak ziren. Biko erreskadetan ibili ohi ziren hiriko karriketan zehar, lotsariak ez besterik estalita, lotsa edo ahalgea galdurik, nonbait. Nork bere zartailu larruzkoa eskuan, bizkarra odoldu arte eta gero ere jo eta jo, oinazearen oinazez malko ugari isuriz, Salbatzailearen pasioa jasaiten bezala, eresi negargarri batez Jaunaren erruki eta Jaungoikoaren Amaren laguntza eske. Egun argiz ez ezik, gau ilunez ere, kandelak pizturik, negu minaren minez ere, elizetara joaiten ziren, saldoka[1385], eta aldareen aurrean belaunikatzen ziren, eta aurrenak bereterrak[1386] argizariekin[1387] eta ikurroihalekin[1388], eta herri xeheko gizon-emakumezkoak ez ezen, aitonalaba handiki eta salerosle eta… ere bai. Orduan penitentzia ekitaldi larriak egin ohi ziren. Lapurrek ostutakoa itzultzen zuten eta beste batzuek euren krimenak aitortzen zituzten.

1383Birritan: bi aldiz, bider bi
1384Zartailukari: flagelante (N) (Zartailu: látigo)
1385Saldo: (H. “multitud”)
1386Bereter: acólito
1387Argizari: (H. “cirio”)
1388Ikurroihal: (H. “estandarte”)

Gilenek begirada hotzez so egiten zien eta hura benetako penitentzia ez zela esaten zidan. Orduantsu hala esan zidan, beste behin: penitentziazko garbiketa handiaren garaia joana zen, amaitua zen, eta ikusten genuen ha sermoilarien beren lana zen jende-osteen[1389] debozioa edo jaiera antolatzen baitzuten, horiek beste penitentzia nahikeria baten gatibu izan ez zitezen… Hau bai heretiko, eta orok honi beldur. Nik, ostera, aldea baldin bazegoen, ezberdintasuna alegia, ezin nuen hauteman[1390]. Aldea, nire gardiz[1391], ez zen batzuek edo besteek egiten zutena, Elizak batzuen eta besteen egierak nola ikus eta epaitzen zituen baizik.

Ubertinorekiko eztabaida etorri zitzaidan gogora. Gilenek, esan bage doa, bere argudioak ondo erabili zituen, fede mistikoaren (eta ortodoxo) eta fede maltzur heretikoenaren artean alde handirik ez zegoela azaldu nahi ukan zion. Ubertinori gaitzitu[1392] zitzaion, harek esan harek haserrarazi zuen, bere aburuz haien arteko aldea garbi-garbi, nabari zegoelakoan. Eta nik' zinez ezberdin zena Ubertino zela uste nuen, aldea hautemaiteko gai baitzen. Gilenek

1389Jende-oste: muchedumbre
1390Hauteman: percibir, notar
1391Gardiz: ustez, eritziz, aburuz, "opinionez"...
1392Gaitzitu: (H. "indignarse")

Inkisizoaren atazak alde bat utzi zituen halako aldea antzemaiteko gai ez zelako. Honegatik ez zidan hitzik esaten anaia Dultzino bakan eta harrigarri haretaz. Beraz (ene buruari niotson) Gilenek Jaunaren laguntza galdua zuela argi zegoen, zeren, Honek aldea hautemaiten irakasten baitu, eta, halaber, nolabait esateko, bere hautatuei bereizteko gaitasuna emaiten baitie. Ubertino eta Chiara da Montefalco (emazteki hau bekatariez inguratua izan arren) ezberdintasunen bereizteko gai izan zirelako, hain zuzen, santutasunez beteak ziren. Horixe zen santutasuna, ez besterik.

Baina, zergatik Gilen ez zen bereizteko gauza? Hala eta guztiz ere, gizon zorrotza zen, eta gertaera naturalei dagokienez ezberdintasunik ttikiena hautemaiteko gai zen, eta gauzen arteko ahaidetasunik ttikiena orobat…

Honelako gogoetan murgildurik nengoen, Gilenek bere katilu bete esne edaten zueino, eta orduan agur bat entzun genuen. Aymaro d'Alessandria zen, *scriptorium*ean ezagutu genuena. Honen aurpegiak nire arreta hartu zidan: isekazko irkaitz beti-batekoa, gizakien tentelkeriak[1393], antza, ez zuen zilibokatzen[1394], tentelkeria hori beretzat

1393Tentel: fatuo
1394Zilibokatu: engañar, engatusar

hutsala bailitzan, tragedia kosmikoa beretzat garrantzirik bagekoa bailitzan.

— Beraz, anaia Gilen, ohitu zarea dagoeneko zoro haitzulo honetan?

— Gizon miresgarriak bizi diren lekua deritzot honi, haien santutasunari nahiz haien dotrinari gagozkiela –esan zuen Gilenek arduratsu[1395].

— Zen. Hala zen. Abadeak abade zirenean eta liburuzainak liburuzain. Orain, ikusi duzue zer jazoten den han goian –eta lehenengo estaiari begirarazi zion–, alemaniar erdi-hil hori, itsuen begidun hori… horrek-e belarriak espainiar itsu horren eldarnioak[1396] debozioz beterik aditzeko baino ez daduzka, hildakoren begiak dituen itsu horrenak. Badirudi irudi, Antikristo bihar bertan etorteko dela, pergaminoak igurtzi eta igurtzi bai baina liburu berririk ez da sartzen. Hemen horretan ari garen bitartean, han behean, hirietan, egin egiten da, jardun egiten da… Behiala[1397], mundua gure abadietarean jaurten[1398] zen, zuzentzen eta eraentzen zen. Gaur den egunean, ikus dezakezu, enperadoreak gu erabiltzen gaitu bere adiskideak bere etsaiekin elkar daitezen

1395Arduratsu: (H. “cauto”)
1396Eldarnio: delirio
1397Behiala: (H. “hubo un tiempo...”)
1398Jaurri: gobernar (Eraendu)

(zure eginkizunaz zerbait jakin dut, lekaideok hitz eta pitz ari dira, beste egitekorik ez dute eta), baina badaki herrialdea hirietatik jaurten dena. Guk uzta bil eta oiloak hazten ditugu, eta han behean liho[1399] zatiak zeta[1400]-oihalen truke eta liho zatiak zorro bete espezieren truke hara-honatzen dira, eta oro diru ugariren ordainetan. Guk geure altxorra zaintzen dugu, baina han behean altxorrak bil eta bil biltzen dira. Liburuak ere bai. Gureak baino ederragoak.

— Munduan gertatzen da, bai, gauza berririk asko. Alabaina, zer dela eta uste duzu errua Abadearena dela?

— Liburutegia atzerritarren esku utzi duelako, eta abadia liburutegia defendatzeko gotorleku balitz bezala kudeatzen du. Abadia beneditarra, Italiako zertan[1401] batean eraikia, italiarrak nagusi eta italiarren erara erabaki lezaten lekua izan behar litzateke. Zer egiten dute egungo egunetan italiarrek, aitasanturik ere ez badute eta? Saldu-erosi egiten dute, eta ekoitzi[1402], eta Frantziako erregea baino aberatsagoak dira. Beraz, dagigun berdin guk: liburu ederrak egiteko gai bagara, ekoitz ditzagun unibertsitateetarako, eta

1399Liho: lino
1400Zeta: seda
1401Zertan: comarca, “baillara”
1402Ekoitzi: (H. “fabricar”)

har dezagun ardura[1403] han behean gertatzen denaz. Ez diot enperadoreari buruz, zure eginkizunaz begirune handiz, anaia Gilen, boloniarrek eta florentziarrek egiten dutenari buruz baizik. Hemendik erromesen joan-etorriak begirape[1404] genitzake, eta halaber Italiatik Proventzara eta alderantziz joan ohi diren salerosleak, merkatariak. Ireki dezagun liburutegia herri xehearen hizkuntza arruntean idatziriko liburuentzat, eta latinez idazten ez dutenak ere honaino igoko dira. Alta bada, atzerritar talde batek mendean gaitu, azpiraturik, eta liburutegia Clunyn oraindik abade Odilon onbera balitz legez kudeatzen dute.

— Baina Abadea italiarra da –ihardetsi zion Gilenek.

— Hemen Abadea ezertarako eza da, ezmezean[1405] beti –Aymaro betiko iseka-irkaitzarekin mintzo–. Buruaren ordez liburutegiko armairu bat daduka, pipiak[1406] janda. Aitasantuari gaitzitzeko, abadia *fraticelli*z bete-bete dadin uzten du… Zeri nagokio, fraide, harako heretikoei nagokie, zure balderna santu-santutik ihes eginikoei. Eta enperadoreari atsegin egitearren, iparraldeko monasterio guztietarean fraideak etorrarazten ditu, hemen kopialari

1403Hartu ardura: (H. “interesémosnos”)
1404Begirapetu: controlar (N) (Begipetu?)
1405Ezmez: (H. “ni cuenta para nada”) (Ezmezean: indeciso)
1406Pipi: sits, zizka, zerren, gardamu... (Polilla, carcoma…?

bikainik ez bailegoan, eta greziera zein arabaiera dakiten gizonak ez bailiran, Florentzian edo Pisan merkatarien, aberats eta eskuzabal, semerik, abadiara sartzeko prestik ez balego bezala, baldernak haren aiten izen ona[1407] eta boterea emendatzeko, handitzeko eta berretzeko[1408] aukerarik eskain baliezaio. Hemen, aldiz, indulgentzia, zera, soil-soilik mundu honetako gauzetan alemaniarrei utzi behar zaien… Oi, Jauna, moztu nire mingaina, ezegokikeriak esatear nago eta!

— Abadion behar ez diren zerak agitzen[1409] ote dira? –galdetu Gilenek, bestela-baitakoan[1410], esne gehiago hartzen[1411] zuen bitartean.

— Lekaidea ere gizon da –Aymarok ebatzi zuen. Baina hemen beste leku batzuetan ez bezain[1412] gizon –gehitu zuen–. Eta gera bedi argi, ezer esan badut, nik ez dudala ezer esan.

— Interesgarria, hagitz[1413]. Eta aburuok zure zeureak ditugu edo bada beste askorik zuk bezala pentsatzen duenik?

1407Izen on: (H. “prestigio”)
1408Berretu: acrecentar (Emendatu)
1409Agitu: gertatu, jazo
1410Bestela-baitakoan: como si nada (Ezarian bezala)
1411Esnea hartu: (H. “servirse”) (Esnea edan: tomar leche) (N)
1412… ez bezain: (H. “menos que...”)
1413Hagitz: oso, guztiz, txit, biziki…

— Asko, asko. Adelmo gaixoaren ezbeharra deitoratzen duenik asko, amildegian eroritakoa beste inor izan balitz dolurik ez arrangurarik ukan ez zukeenik, liburutegi inguruan behar baino maizago ibiltzen den bat balitz, esaterako.

— Zer esan nahi duzu?

— Gehiegi hitz egin dut. Hemen gehiegi hitz egin ohi dugu, dakizunez. Hemen, alde batetik, inork ez du isiltasuna zaintzen; eta beste alde batetik, gehiegi zaintzen da, zaintzenegi da. Hemen, isildu ala mintzatu beharrean, egin egin beharko litzateke. Gure baldernaren garai urrezkoetan, abadeak abade-senik ez bazuen, kemenik alegia, txola bete ardo zital[1414] eta kito, hots, pozoina, edena, eta amaitua, harik hara ondoreangoa hautatu. Esan beharrik ez[1415], anaia Gilen, zerok guztiok Abadearen kaltetan edo beste anaiez gaizki esaka nahi ez ditudala. Jaungoikoak bazter nazala hori egitetik. Gaizki-esaka jarduteko hogenik ez dut, zorionez. Honela ere, ez nuke nahi Abadeak nitaz edo beste fraide batzuetaz ikertzerik zuri agindu izaitea, Pacifico da Tivoliz edo Sant'Albanoko Pietroz, esaterako. Guk ez dugu zer ikusirik liburutegian gertatzen denaz. Nahiz eta zer ikusi

1414Zital: veneno-so /… (Pozoin, eden)
1415Esan beharrik ez: (H. "desde luego")

pittin bat ukanen bagenu nahi izan. Orain, estalge[1416] ezazu zuk suge-habia honetan estalian[1417] dagoena, hainbeste heretiko erre izan duzun zeuk.

— Inoiz ez nuen inor erre –ihardetsi zion garrazki[1418] Gilenek.

— Esateko modu bat izan da –aitortu zuen Aymarok, irria zabal–. Ehiza on, anaia Gilen, baina kontuz gauez.

— Zergatik ez egunez?

— Egunez gorputza belar onez sendatzen da, gauez gogoa belar gaiztoz gaisotzen da. Ez pentsa Adelmo beste inoren eskuk bultzatuta amildu zenik, ez beste inoren eskuk Benantzio odoletan irato[1419] zuenik. Hemen bada norbait fraideek eurek nora joan, zer egin eta zer irakur erabaki dezaten nahi ez duenik. Eta inpernuko indarrez, edo inpernuko nekromante adiskideenez baliatzen da, jakinminak jorik dagozenen gogoak nahaste aldera...

— Aba[1420] belar-biltzaileaz ari zara?

1416Estalgetu: estalgabetu, (H. “destapad”)
1417Estali: oculto / (Ageri-- agerian)
1418Garrazki: (H. “secamente”)
1419Irato: itoarazi
1420Aba: aita (Hizperria)

— Seberino da Sant'Emmerano lagun ona da, nordin[1421] ona. Jakina[1422], bera alemaniarra, Malakias alemaniarra...

Inortaz gaizki hitz egin nahi ez zuela beste behin erakutsi eta Aymarok langelara[1423] igo zen.

— Zer esan nahi ukan ote digu? –galdetu nuen.

— Dena eta ezer ez. Abadia, edozein, beti lekaideek elkarren artean borrokan egiten duten lekua duk, erkidegoko nagusitza erdietsi nahiz. Melken ere gertatzen duk, nahiz eta hi, oraindik sarberri, hori hautemaiteko gai ez izan edo astirik ez ukan. Hire herrialdean abadia bateko nagusi edo jaurlari izaiteak enperadorearekin berarekin harremanak ukaitea zakarrak. Herrialde honetan, aldiz, egoera bestelako duk, enperadorea urrun, Erromara jaisten denean ere bai[1424]. Gorterik ez zagok, eta orain ez eta Aitasanturik ere. Hirietan zer dagoen ikusita hago, dagoeneko.

— Bai, eta oso harritu naiz. Italian hiria ez da nire lurraldean bezalakoa… Bizitzeko leku ez ezik erabakitzeko ere bada eta. Beti guztiak plazan, hiriko nagusiak

1421Nordin: notin, pertsona (Hizperria)
1422Jakina: (H. "desde luego")
1423Langela: langu (H. "sala de trabajo")
1424Ere bai: (H. "incluso") (Halaber, orobat)

enperadore edo aitasantu baino gehiago dira… Zera[1425]… zein bere gaineko erresumak dira.

— Eta merkatariak errege dituk. Haien iskilua[1426] dirua. Diruak Italian ez dik hire herrialdean edo nirean duen eginkizuna[1427]. Dirua nora- eta nondik-nahi ibiltzen duk, baina han bizitza ondasunen trukez egin ohi duk, gehienbat, oraingoz, oiloak edo gari-azaoak[1428], igitai bat edo gurdi bat, eta dirua horrelako ondasun horiek erosteko duk. Italiako hirietan, alderantziz, ikusi duanez, ondasunak dirua irabazteko dituk. Eta bai apezek bai apezpikuek, eta are erlijio-baldernek ere, diruaz egin behar ditiztek kontuak. Honela uler daitekek boterearen aurkako matxinada txirotasunaren aldarria izaitea, diruarekiko harremanetatik bazter dagozenak dituk boterearen aurka jaiki direnak, eta txirotasuna aldarrikatzen den bakoitzean liskarrak eta ikamikak lehertzen dituk, eta hiri guztia, hasi apezpiku eta buka herri-nagusi[1429], bere burua erasopean ikusten hasten duk, zuzenka[1430], norbaitek txirotasuna gehiegi predikatzen badu. Norbait deabruaren satsaren kiratsagatik mindurik sentitzen

1425Zera…: (H. “Son...”)
1426Iskilu: arma
1427Eginkizun: (H. “función”)
1428Azao: gavilla, manojo
1429Herri-nagusi: (H. “magistrado”)
1430Zuzenka: directamente

den lekuan, inkisidoreek deabruaren hatsa usaintzen ditek. Orain ulertuko duk Aymarok gogora zekarrena orobat. Baldernaren urrezko garaietan, beneditarren abadian artzainek fededun-artaldea zaintzen zitean. Aymarok orduko ohikunde haretara itzultzea nahi dik. Baina artaldearen bizimodua aldatu duk, eta ohikundera itzultzeko (lehengo garaietako aintza[1431] eta boterera, alegia) abadiak fededun-taldea aldatu dela onartu behar dik, eta honetarako bera aldatu behar duk. Eta gaur-egun artaldea ez duk menderatzen iskiluez ez erritu ospe handikoez, diruaren kontrolaz baizen, eta Aymarok abadia osoa, liburutegia ere bai, lantegi bihur dadin nahi dik, diru-fabrika hain zuzen.

— Eta zelako lotura du horrek krimenekin, edo krimenarekin?

— Oraindik ez zakiat. Orain igo nahi nikek. Hator, ea.

Fraideak ordurako lanean ari ziren. *Scriptorium*ean oro isil, ez, ordea, bihotzen bake sakonetik sortzen den isiltasun ha. Berengario, gu baino lehenttoago irisita, gu ikustean urduri edo jarri zen, itxuraz. Beste fraideek euren buruak mahaietatik jaso zituzten. Bazekiten gu han Benantzioren inguruko zerbait aurkitzekotan gengozana, eta

1431Aintza: gloria

haien begiradak berak leku huts batera zuzendurik gure arreta ere bertaratu zen, leku berera, erdialdeko oktogonora emaiten duten leihoetako baten azpiko lekura, doiki.

Eguna hotza zen arren, *scriptorium*eko hozperoa[1432] atsegingarria zen. Ez hala moduz sukaldeen gainean zegoen; sukaldeek bero handia barreiatzen[1433] zuten, azpiko labe bien kebideak zutabeen artetik goiti zihoazelako batez ere, kiribil-eskailera biak irozotzen[1434] zituzten zutabeak haiek, sartaldeko eta hegoaldeko dorretzarren barruan. Iparraldeko dorretzarrak, areto handiaren beste aldean, ez zedukan eskailerarik, bai sutondo handi isiotutako[1435] bat bero atsegina emaiten zuena. Zorua, gainera, lastoz estalita zegoen eta, beraz, gure oinkadak isilak ziren. Angelu ez hain beroa[1436] sortaldeko dorretzarra zen, eta, zinez ohartu nintzen, ezen, une haretan han lekaide gutiago zegoela, lan-mahaiak baino, hango guztiek, nolabait, alde haretatik alde egiten bide-zuten. Gero besterik ere ikusi nuen, hots, sortaldeko dorretzarreko kiribil-eskailera beherantz, jatokirantz, ez ezik, gorantz ere, liburutegirantz zihoala; eta pentsatzen hasita, lekuko berokuntza zehatz-zehatz

1432Hozpero: temperatura (?)
1433Barreiatu: (H. “irradiar”)
1434Irozo: sostener
1435Isio(tu): sutu, piztu, izeki
1436...ez hain bero: (H. “menos caldeado”)

asmaturiko amarrukeria izan ote zitekeen, galdetu nion ene buruari, fraideak hango aldetik kuxkuxean[1437] ibiltzeko gogorik bage uztearren, eta honela liburutegiko sarbidea liburuzainaren begipean egon zedin. Beharbada gehiegizko susmoak nituen, nire maisua txarto imitatzeko asmoarekin, eta laster ohartu nintzen halako burubideak alperrikoak izan zitezkeela, udan behinik behin. Baldin[1438] (neure buruari) udan hango alderdi hura eguzkitsuena ez balitz, eta honegatixe, halaber, lekaideak gutien ibiltzen ziren aldea balitz.

Benantzio gaixoaren mahaia kebide handiaren ostean zegoen, eta gehienek nahi zutenetarik izan zitekeen, eiki[1439]. Ordura artean, ni ez nintzen ezein *scriptorium*etan urterik asko emandakoa, baina geroago nire bizialdiaren zati handi bat harakoetan irago dut eta badakit nolako pairamenak dituzten kopialariek, otoitz-araulariek eta ikastunek euren mahaietan, neguko ordu luzeetan hatzamarrak hozmintzen eta zurruntzen direnetan, (ez hain hotz denean ere sei orduko idaz-lanaren ondorean, hatzamarrek fraidearen arranpa[1440] ikaragarria sumatzen dute

1437Kuxkuxean: curioseando, fisgando
1438Baldin… (H. “salvo...que...”)
1439Eiki: seguramente, probablemente
1440Arranpa: calambre

eta erkoroa[1441], abuan[1442] tikitzen ari bezala, mintzen da, suminaren suminez[1443]) Honen ondorioz ulertzekoa da, sarritan eskuizkribuetan kopialariak utzitako esaerak aurkitzea, alboetan, jasandako minaren lekuko (edo haren ezinegonarena), adibidez: «Jainkoari eskerrak, laster ilunabartuko du eta!» edo «Aineza edalontzi on bat ardo eduki!», edo «Egun, hotz dago, argi guti, larrutx[1444] honek ileak dadutza, zerbaitt ez dabil ondo». Esaera zahar batek dioen bezala, hiru erik luma irozotzen dute, baina soin osoak du lan egiten. Lan egin, hots, nekatu.

Baina Benantzioren mahaiaz ari izan naiz. Zortzialboko barlaren inguruan zegozen guztien antzera, ikastunentzakoak, besteak baino tikiagoa zen, kanpoaldeko hormetako leihoen azpikoak ziren besteak kopialari eta miniaturagileentzakoak ziren. Hala ere, Benantziok atril batekin lan egiten zuen, ziur aski abadiak mailegutan kopiatzeko jasoriko eskuizkribuak arakatzen[1445] zituelako. Mahai gainean apal[1446] bat zegoen eta bertan orri[1447] banaka batzuk pilaturik; latinez idatzita itzuli azkenak zirela

1441Erkoro: dedo pulgar (Erpuru, hatz lodi)
1442Abu: mortero (Motrailu, almaiz -almirez-)
1443Sumin: dolor por frío / furia...
1444Larrutx: pergamino
1445Arakatu: (H. “consultar”)
1446Apal: estantería
1447Orri: (H. “folio”)

ondorioztatu nuen. Idazkera arinez, itxuraz, eginak ziren eta ez zegozen orrialdez orrialde antolaturik, beraz handik kopialariaren eta miniaturagilearen mahaira iragoko ziren. Irakurgaitz xamarrak. Haien artean grekoz idatziriko alerean bat edo bazegoen. Atrilean beste iburu bat zabalik eta hau ere grekozkoa: Benantziok azken egunetan itzultzen jardundako lana zen. Garai haretan, orduan oraindik, ez nekien grezieraz, baina nire maisuak, lerroburua irakurririk, Luziano zeritzon batena zela esan zuen eta asto bihurturiko gizon baten istorioa jaulkitzen zuela. Hau entzunda, Apuleioren antzeko alegia etorri zitzaidan burutara, fraidegaiek irakurtea debeku zorrotza zutena.

— Nolatan ari zen Benantzio hau itzultzen? –galdetu zion Gilenek Berengariori, gure ondoan baitzegoen.

— Milango jaunak abadiari galdatu[1448] zion bat da. Honen ordainetan abadiak sortaldeko mahasti batzuek ekoitzitako ardoaz lehenespen-eskubidea[1449] izango zuen –azaldu zion Berengariok eta eskuz urrutira begirarazi. Baina bertatik bertara hauxe gehitu–: Abadiak ez du, hala ere, lan hutsalik egiten laikoentzat. Itzulpena galdatu zuenak erdietsi zuen Veneziako dogoak eskuizkribu greziar baliotsu hau utz

1448Galdatu; eskatu / Galdetu: galde egin, itaundu (?)
1449Lehenespen: prelación

ziezagun, Bizantzioko enperadorearen bezuza[1450] baitzen. Eta Benantziok lana bukatu ondorean, bi kopia egingo genuen: bata itzaulpena eskatu zitzaigunarentzat eta bestea gure liburutegiarentzat.

— Beraz, honek fedebageko alegiak ere badaduzka – Gilenek esana.

— Liburutegia egiaren eta makurraren[1451] leku eta lekuko da –esan zuen gure gibeletiko[1452] ahots batek orduan.

Jorge zen. Orduan ere harritu ninduen (eta hurrengo egunetan maiz egingo ninduen) agure harek ezustean agertzeko zuen erak eta egokierak, guk ez baikenuen ikusten, antza, berak gu ikusten gintuen arren. Ene buruari galdetu nik orduan, hala, zer egiten ote zuen itsuk *scriptorium*ean. Geroago, berriz, Jorge abadian non-nahiko eta noiz-nahiko zela konturatu nintzen, orotangoa[1453]. *Scriptorium*ean usu egoiten zen, sutondoko bazterrean besaulki batean eserita, eta hango leku haretan gerta ezer ez zitzaion begietatik itzurtzen, antza. Behin, zegoen leku haretarean goraki galdetzen entzun nion: Nor igaiten da?, eta burua Malakiasenganatz bihurtu zuen, liburutegira

1450Bezuza: oparia, obsequio
1451Makur: (H. “error”)
1452Gibel: atz(e), oste / hígado
1453Orotango: (H. “omnipresencia”) (N)

bidean, oinkadak lasto gainean isilaraziz, baitzihoan. Lekaideek onerizten zuten, biziki, eta ulergaitzeko idazki-atalak irakurten zizkioten, eskolio[1454] bat idazterakoan aholku eske joaiten zitzaizkion, edo ehizi[1455] baten edo santu baten irudia nola egin galdetzen zioten. Orduan bere begi hilak hutsean josten zituen, bere oroimenean garbiro gorde orrialdeei begira bezala, eta profeta aizunak[1456] gotzain-janzkeraz estaltzen direla erantzuten zuen eta haien ezpainetatik igelak ateratzen direla, edo zein harrik apaindu behar lukeen zeruko Jerusalemgo harresia, edo mapetan *arimaspo*ak[1457] Jon apezaren lurraldetik hur irudiztatu behar liratekeela, honela ere kontuz: haien mamu-itsustasuna gehiegitu[1458] bagerik, zeren, ikuslea lilurarazi behar ez bailukete, ikur ezagun bezala agertu bai baina ez irrikagarri[1459], eta ez, halaber, irrigarri[1460] izaiteraino higuingarri izan ez litezen.

Behin, eskoliogile bati aholku eman ziola aditu nuen, zertaz eta Ticonioren esakuntzetan[1461] *recapitulatio*a

1454Eskolio: escolio (ohar garantzitsu eta jakintsua edo)
1455Ehizi: animal (salvaje) (?) (Piztia)
1456Aizun: falso (Sasi- / -aizun
1457Arimaspo: (Asia aldeko Tartalo antzeko izaki mitologikoak)
1458Gehiegitu: (H. “excederse”)
1459Irrikagarri: (H. “concuspicible”) (Que produce deseo)
1460Irrigarri: ridículo
1461Esakuntza: (H. “texto”)

interpretatzeko eraz, Agustin Deunaren eritzien arauera, heretikotasun donatiarrean[1462] ez erortze[1463] aldera. Beste behin, esakuntza baten iruzkinean heretikoen eta zismatikoen artean bereizteko eraz aholkua aditu nion. Eta beste behin, ikastun baten galderari erantzuten aditu nuen zein liburu bilatu behar zuen liburutegiko zerrendan, eta ia zehazki zein orritan aurkituko zuen erreferentzia, eta liburuzainak ez ziola oztoporik ezarriko, ziur, liburua emaiteko, Jaungoikoak iradokitako lana zela eta. Eta beste batez, aditu nik, halako liburu bat ez zela bilatu behar, zerrendan egonagatik ere, berrogeita hamar urte lehenago arratoiek birrindu zutelako, eta hatzamarren artean ukitutakoan bertan hauts bilakatzen zelako. Labur bilduz: liburutegiaren oroimena bera zen, eta *scriptorium*aren arima. Batzuetan fraideei ateleka[1464] egiten zien, txutxumutxuka entzuten zituenean: «Bizkor zaitezte, ea, egiaren testigantza utziz! Epeak hurbil ditugu eta!», Antikristoren etorrera esan bage aipatuki.

— Liburutegia egiaren eta makurraren leku eta lekuko da – esan zuen, hala, Jorgek.

1462Donatiar: donatista (Donato izeneko baten heretikotasuna)
1463Erori: (H. “incurrir”)
1464Ateleka egin: reprender (Atelekatu)

— Horixe, bai, Madaurako Apuleiok azti-ospea zuen –Gilenek–. Baina, fantasiaren estalkiaren ostean, alegia[1465] horrek ikasbide baliotsua ere badu, egindako makurrak zein garesti ordaintzen diren erakusten baitu. Gainera, asto bihurturiko gizonaren alegiak bekatutan erori arimaren metamorfosia aipatzen du, nabariki.

— Ausaz[1466] –Jorgek.

— Orain ulertzen dut, halaber, atzoko elkarrizketan, Benantziok komediaren arazoez erakutsi zuen zudua. Benetan: horrelako alegiak antzinatarren komedien antzekoak izan daitezke. Tragediek ez bezala, ez dute egiaz izan diren gizonen gertakaririk jaulkitzen. Isidorok dioen bezala, fikzioak dira: «*Fabulae poetae a fando nominaverunt quia non sunt res factae sed tantum loquendo fictae*...[1467]»

Hasiera baten ez nuen ulertu zer zela eta sartu zen Gilen halako eztabaida jakituriatsura[1468], eta, gai haietaz jakin-min handirik ez zuen gizon harekin, hain zuzen ere.

1465Alegia: fábula (Alegia: o sea, es decir)
1466Ausaz: quizás / Agian: ojalá, a lo mejor
1467«Olerkariek fando [mintzatu] hitzaren alegiak esaten diete, gertaturiko zerak ez direlako, hitzez irudikatu zerak baino ez baitira». Hemen latinezko «fando, factae, fictae» hitzekin joko dagi.
1468Jakituriatsu: erudito (N)

Jorgeren erantzunak, ostera, nire maisuaren zorroztasuna agerian utzi zuen, nik uste.

— Eztabaidan ez ziren komediak izan, barrearen zilegitasuna izan zen, soilik –esan zuen, bekozkoa zimurturik[1469]. Nik ondo gogoan nuen, aurreko egunean, Benantziok harako eztabaida aipatu zuenean, Jorgek esan zuela zertaz ari izan zen oroitzen ez zela.

— Ha! –Gilenek ezaxola laso–. Olerkarien gezurrez eta enigma asmotsuez hitz egin zenuela uste nuen…

— Barreaz hitz egin zen –Jorgek motz-motzik[1470]–. Jentilek komediak edo barre-antzerkiak idazten zituzten, ikusleak barreka ari izan zitezen, eta gaizki egiten zuten. Jesukristo gure Jaunak ez zuen inoiz komediarik ez alegiarik jaulki, parabola gardenak baizik, paradisua irabaz dezagun irakasten digutenak, alegoriaz, hala biz.

— Neurekiko galdez ari naizela –Gilenek harzara[1471]–, zer dela eta arbuiatzen duzun, horrenbestean, Jesusek barre egin edo eginen zuelako eritzia. Nire ustez, barreak, uretan murgiltzeak bezala, barru-garbitu[1472] bat egiteko eta

1469Bekozko (betondo) zimurtu: fruncir el ceño
1470Motz-motzik: (H. ”secamente”)
1471Harzara: berriro, beste behin, atzera
1472Barru-garbitze: (H. “humores”) (Isurkai...)

gorputzaren beste gaitz batzuk sendatzeko, gogo-iluntasuna[1473] bat, aukera ona emaiten du.

— Ur-murgiltzeak[1474] onak dira, Akinatek berak gomendatzen ditu, gogoaren iluna kentzeko; izan ere, grina txarra izan daiteke ausardiaz senda litekeen gaisotasuna denean. Ur-murgiltzeek barruko isurkaien oreka berrekarten[1475] dute. Barreak gorputza astintzen du, aurpegia itxurgatzen[1476] du, gizona tximu itxurako bihurtzen du.

— Tximuek ez dute barre egiten, barrea gizakiarena da, honen arrazoimenduaren zantzua da.

— Mintzoa ere giza-arrazoimenduaren zantzua, eta mintzoaz Jaungoikoa irain dezake. Gizakiari dagokion guztia ez da, berez, baitezpada on. Barrea inozokeriaren[1477] zantzua da. Barre egiten duenak ez du egiten duenaz sinesten, alta, ez gorrotatzen ere. Gaizkiaz barre egitea, beraz, gaizkiari aitzi[1478] nahi ez izaitea da, eta ongiaz barre egitea ongiaren indarra ez ezagutzea da, berez hedatzen baita. Hala, Arautegiak honela dio: «*Decimus humilitatis*

1473Gogo-iluntasun: malenkonia, damorria
1474Ur-murgiltze: (H. “baños”)
1475Berrekarri: (H. “restablecer”)
1476Itxurgatu: (H. “deformar”) (Itxura+ge+tu)
1477Inozokeria: (H. “estulticia”)
1478Aitzi: aurka

gradus est si non sit facilis ac promptus in risu, quia scriptum est: stultus in risu exaltat vocem suam.»[1479]

— Kintilianok –eten zion nire maisuak– dioenez, barrea eragotzi[1480] behar da, gorazarre edo gorespen-hitzaldian[1481], duintasunagatik, baina beste egoerarik askotan sustatu behar dela dio. Tazitok Kalpurnio Pison-en ironia goresten du. Plinio Gazteak hau honela idatzi zuen: «*Aliquando praeterea rideo, jocor, ludo, homo sum*».

— Jentilak ziren –Jorgek ihardukiz–. Arautegiak dio: «*Scurrilitates vero vel verba otiosa et risum moventia aeterna clausura in omnibus locis damnamus, et ad talia eloquia discipulum aperire os non permittimus*»[1482].

— Hala ere, Kristoren berba lurbira gainean nagusitu zenean, Zireneko Sinesiok esan zuen, ezen, jainkotasunak barregarria eta negargarria harmoniaz elkarrarazten[1483] jakin zuela, eta Elio Sparzianok dioenez, Adriano eperadoreak,

1479«Apaltasunaren hamargarren maila fraidea barrebera ez izaitea da, zeren, idatzita baitago: kirtenak barre egitean ahotsa goratzen du» (Jaun Done Benitoren Arautegia. Apaltasunaz VII. Atala). (Kirten: estúpido, -estólido, stultus)

1480Eragotzi: (H. “reprimirse”

1481Gorespen-hitzaldi: (H. “panegírico”)

1482«Txokarritan edo hitz hutsetan barre eragitea kondenatzen dugu, leku orotan, eta betirako debekatzen, eta ez dugu ontzat joiten ikasleak halako esakuntzetan ahoa ireki dezan.» (Txokarritan: txantxetan -chocarreria-)

1483Elkarrarazi: (H. “combinar”)

ohikuntza jasoez eta adore *naturaliter* kristauaz betetakoak, alaialdiak eta goibelaldiak nahasten jakin zuen. Azkenik, Ausoniok barrezkoa[1484] eta benazkoa[1485] neurriz dosikatzea[1486] gomendatzen du.

— Alabaina, Paolino da Nolak eta Alexandriako Klementek txorakeria horiek ekarten duten arriskuaz ohartarazi gintuzten, eta Sulpizio Seberok dioenez, Martin Deuna inoiz ez zen agertu haserredurak[1487] jota ez alaidurak[1488] hartua.

— Horrela eta guztiz ere, deun horren erantzun batzuk aipatzen ditu *spiritualiter salsa*[1489] –ihardetsi zion Gilenek.

— Erantzun arinak eta jakintsuak ziren, ez barregarriak. Efrain Deunak fraideen barrearen aurkako *parenesis* bat idatzi zuen, "eakinde"[1490] bat alegia, eta *De habitu et conversatione monachorum*-ean lizunkeriak eta tortikoak[1491] galaraztea gomendatzen da, aspis[1492] sugegorrizko pozoina balira bezala!.

1484Barrezko: (H. "jocoso")
1485Benazko: (H. "serio")
1486Dosikatu: dosifikatu (dosi+ka+tu)
1487Haserredura: consecuencia del enfado--ira
1488Alaidura: consecuencia de alegrarse—hilaridad (nik)
1489Espiritu aldetik irrieragingarriak (graziotsuak)
1490Eakinde: exhortación (?) (Parénesis: aholku moduko bat)
1491Tortiko: chiste (Sesto, izkirimiri, ditxo...)
1492Aspis: aspid (suge mota bat)

— Hildebertok, berriz, hauxe: «*Admittenda tibi joca sunt post seria quaedam, sed tamen et dignis ipsa gerenda modis*»[1493]. Eta Salisburyko Johnek alaidura pitin bat onartzen du. Azkenik, Eclesiastes-ek, arestian zuen Arautegiarekin batera aipatu duzunak barrea kokoloari dagokiola dioen arren, bai, barre isila bederen onesten du, gogo jabalarena[1494].

— Gogoa[1495] egia begiesten duenean soilik dago jabal, eta egin duen ongiaz atsegin hartzen duenean, eta egiak ez ongiak ez dute barre eragiten. Honegatik Kristok ez zuen barre egiten. Barreak ezbaia ohi dakar.

— Horrela eta guziz ere, batzuetan ezbai egitea zilegi eta zuzen izaiten da.

— Ez dakit zerarren[1496] izan behar den. Ezbaia dagoenean dakienarengana[1497] jo behar da, jakilegana, aitaren edo adituaren hitzetara behar da, eta honez geroztik zalantzarako zioa ezabatzen da, deusezten da. Ene gardiz, zu eztabaidagarri diren dotrinez blaitua[1498] zagoz, hala nola

1493«Benazko gai batzuen ondorean, barrezko batzuk onartu behar dituzu, beti ere duintasunez eginez.»
1494Jabal: sereno, bondadoso, calmoso
1495Gogo: (H. “ánimo”)
1496Zerarren: zeren, zerren (Zergatik...)
1497Dakiena: (H. “autoridad”)
1498Blaitu: (H. “impregnar”) (Basitu, zopatu...)

Parisko logikarienez kutsatua. Baina Jaun Done Bernado, honela da eta ez da horrela esanez, Abelardo irenduari[1499] jarki zitzaion. Beronek arazo guztiak Eskritura Santuek argitu bageko arrazoimendu hotz eta bizigeen[1500] azpian ezarri nahi zituen. Aburu hagitz arriskutsu horiek onartzen dituenak, enurarik[1501] bage, barre egiten duen kokoloaren jokoa ontzat emaiten du, betirako aldarrikatu den egiaz barre egiten duen horren jokoa, gure jakintzaren xede bakarra izan behar den egiaz. Eta horrela, barre egitean, kokoloak esan bagerik[1502] esaten du: «*Deus non est*».

— Jorge agurgarri hori –Gilenek–, Abelardori irendu esaten diozunean ez zara zuzena, nire ustez, zeren, ondikoz[1503] halakatu[1504] zuena beste inoren makurkeria[1505] izan zena bai baitakizu.

— Beraren bekatuak izan ziren. Giza-arrazoimenduan zuen usteonaren[1506] harrokeria izan zen. Halaxe, xaloen fedea isekatua[1507] izan zen, Jaungoikoaren misterioak argituak[1508]

1499Irendu: castrar (Zikiratu)
1500Bizige: sin vida (bizi+ge) (N)
1501Enura: zalantza, ezbai (Enurarik bage: doike)
1502Esan bagerik esan: (H. “implicitamente”)
1503Ondikoz: zorigaiztoz
1504Halakatu: hacerle así, convertirle en eso dicho
1505Makurkeria: (H. “iniquidad”)
1506Usteon: confianza, buena opinión
1507Isekatu: (H. “escarnecer”)
1508Argitu: (H. “desentrañar”) (Estalgetu (N))

izan ziren (hobeki esateko, argitzen saiatu izan zen, kokoloak halakoak saiatu zirenak!), goren-goreneko gaiak lotsabageki erabiliak, gurasoak laidotuak, zergatik eta, halako gaiek behar zutena erantzunik ez baina kontsolagarria zelako.

— Ez nator horrekin bat, Jorge agurgarri hori. Jaungoikoak gure arrazoimendua erabil dezagun nahi du, hainbat gai ilunez, Eskriturak erabakitzeko askatasuna utzi baitigu. Norbaitek zeinbait proposamen sinetsi eragin nahi dizunean, aurrenik onartzekoa denentz behar duzu pentsatu, zeren, gure arrazoia Jaungoikoak eman baitugu eta gure arrazoiari atsegin zaiona ezin dakioke ezatsegin izan jainko-arrazoiari. Beronetaz dakiguna soilik antzekotasunaz[1509] eta maiz ezespenaz[1510] dakigu, gure arrazoia erabiliz ondorioztatzen dugu eta. Orain, begira[1511], sarritan proposamen zentzuge baten sasi-jakintasuna[1512] hondatzearren, arrazoiari higuin baitzaio, barrea ere tresna iron[1513], egokia izan daiteke. Usu[1514] barreak gaiztoak asaldarazten[1515] ditu eta haien

1509Antzekotasun: (H. “analogía”)
1510Ezespen: negación
1511Begira: (H. “fijaos”)
1512Jakintasun: (H. “autoridad”)
1513Iron: adecuado
1514Usu: maiz, sarritan, ardura
1515Asaldarazi: (H. “confundir”)

memelkeria[1516] nabarmentzen du. Esaera da, ezen, jentilek Mauro Deuna ur irakinetan murgilarazi zutenean, beronek ura hain hotz zegoelako arranguratu[1517] zela; jentilen buruzagiak, lelo-lelo, uretan, proba egite aldera, eskua ipini zuen eta galdarraztatu egin zen, gardostu alegia, uretan erre. Polita, gero, santu martiri haren egiera, fedearen etsaiak halaxe lotsagarritu eta lotsagorritu zituen eta.

Jorgek malmuzki[1518] egin zuen irkaitz eta esan:

— Sermoilariek jaulkitzen dituzten gertakarien artean ere hainbat asmakeria[1519] dago. Santu batek ur irakinetan murgilduta Kristorengatik jasaiten du eta eusten dio oihu ez egitearren, ez die trankart[1520] egiten jentilei haur laso[1521]!

— Ikus? Istorio hori arrazoimenduz sinestezin zaizu eta barregarri deritzozu! Nahiz eta, zinez, eta isilez badiozu ere, zerbaitez barre egiten duzun eta nik ere benetan har dezadan nahi ez izan. Barreari barre egiten diozu, baina egin egiten duzu.

Jorgek narda[1522] keinu egin zuen:

1516Memelkeria: (H. “necedad”)
1517Arranguratu: kexatu, espatu
1518Malmutz: taimado, socarrón (H. ”malignidad”)
1519Asmakeria: (H. “patraña”)
1520Trankart egin: hacer trampa
1521Haur laso: (H. “infantiles”)
1522Narda: (H. “fastidio”)

— Barrearekin jolastuz huskeriez[1523] hitz eta pitz egitera behartzen nauzu. Baina ongi dakizu, jakin, Kristok barrerik egiten ez zuena.

— Ez nago oso ziur. Fariseuei lehen harria aurtikitzera agintzen dienean, zerga ordaintzerakoan txanponean dagoen irudia nor den galdetzen duenean, hitzekin jokatzen duenean, hots, «*Tu es petrus*» dioenean, esera asmotsuak guztiak, bekatariak nahasarazteko, bere aldekoak kementzeko[1524] esaten dituela uste dut. Eta Kaifas-i : «Zuk esan duzu», diotsonean, halaber, zirtoka[1525] ari da, nik uste. Eta Jeronimok Jeremiasen gertaera aipatzen duenean, Jaungoikoak Jerusalem-i diotso: «*nudavi femora contra faciem tuam*», honela azaltzen du: «*Sive nudabo et relevabo femora et posteriora tua*».[1526] Halako moldez, ezen, Jaungoikoak berak hizkera zoliz[1527] zigortu nahi dituenak asaldarazten baititu. Eta zuk ongi dakizunez, klunitarren eta zistertarren arteko eztabaidaren unerik bizienean, lehenengoek bigarrenak salatu zituzten, lotsagarritu nahian, zaragoilarik[1528] ez zeramatela esanez. Eta *Speculum*

1523Huskeria: frivolidad
1524Kemendu: (H. “alentar”)
1525Zirto: frase ingeniosa, respuesta graciosa...
1526«Izterrak zure aurpegiaren aurrean biluztu nituen. Edo zure izterrak eta ipur-mokorrak biluztuko eta agertuko ditut.»
1527Zoli: (H. “agudezas”)
1528Zaragoila: calzón, zaragüelles

stultorum-ean Brunello astoak galdetzen du ea zer gertatuko litzatekeen gauean haizeak burusiak haizatuko balitu eta fraideak bere lotsariak…

Inguruan zegozen lekaideak barrez lehertu ziren, eta Jorge sumin-sumindu zen:

— Ene anaiok liluratzen ari zara zoroen jai batera bultzatzearren. Badakit frantziskotarren artean herri xehearen onerizpena irabazteko horrelako lelokerien erabiltzea ohikoa dena, baina horrelako *ludi* horietaz bertso batek dioena esango dizut, zuen sermoilarietarik batek esana: «*Tum podex carmen extulit horridulum*»[1529].

Atelea[1530] gehiegizkoa zen: Gilen ozar[1531] izan zen, baina Jorgeren salaketa bestelakoa zen, hots, ahotik uzker iraiztea aurpegiratzen zion. Eta hau lako ihardukipen[1532] zorrotzaz agure harek *scriptorium*etik irten genezan agindu nahi ote zigun galdetzen nion ene buruari. Baina, ordura arte hain erasokor ari izan zen Gilen otzan-otzandu[1533] zen.

1529«Orduan uzkiak olerki narrats bat iraitzi zuen».(Narrats: desaliñado) (Iraitzi: lanzar, arrojar, expulsar) (Orduan uzkiak abesti izugarria iraitzi zuen)
1530Atele: (H. “reprimenda”) (Ateleka...)
1531Ozar: (H. “impertinente”)
1532Ihardukipen: respuesta, contra-respuesta, trato (?)
1533Otzan: dócil, manso

— Barkamena eskatzen natzaizu, Jorge agurgarri horri. Nire ahoa ez da izan nire gogoarekin zintzo; ez dut inondik inora zureganako begirunerik huts egin nahi ukan. Agian zuk diozuna zuzena da eta beharbada oker neu nago.

Jarrera biziki apal honen aurrean, Jorgek kurrinka antzeko marmarra egin zuen, zein barkamena zein askiespena[1534] erakusteko bezala, eta beste bagerik bere lekura itzuli zen. Eztabaidakoan[1535] hurbildu ziren fraideak, aldentzen hasi ziren, atzera nor bere langura[1536]. Gilen berriz ere Benantzioren mahai aurrean belaunikatu zen eta orrien artean arakatzeari[1537] berrekin[1538] zitzaion. Haren erantzun apal-apalak lasaitasun lipar[1539] bat irabazteko eretia[1540] eman zion. Eta beta[1541] llabur haretantxe ikusi zuen zerbaitek gau haretan bertan hasiko zuen bilaketa gidatu zion.

Hala ere, segundo batzuk baino ez ziren izan. Bentzio berehala hurrandu zen, bere estiloa alegia eta[1542] mahai gainean utzia zuela, Jorgerekiko elkarrizketa

1534Askiespen: satisfacción (N) (Askietsi)
1535Eztabaidakoan: durante la discusión
1536Langu: lugar de trabajo (Lan+gu/+gia+toki)
1537Arakatu: (H. “hurgar”)
1538Berrekin—berriro ekin (Ekin aditza nor-nori)
1539Lipar: une laburra
1540Ereti: ocasión (Eretikoi: oportunista -N-)
1541Beta: aldi, asti, une, denbora (H. “lapso”)
1542Alegia eta…: fingiendo que...

entzutera hurreratuz gero. Gileni txutxumutxuka egin zion, lehen baino lehenago hitz egin behar ziola eta garbitokien ostean elkar ikusiko. Aurrenik irten zezan esan zion eta bera laster atzetik joanen zitzaiola.

Gilen unetto batez zalantzan, gero Malakiasi deitu zion, aurreko guztia bere liburuzain-mahairean oro ikusia baitzuen, eta, Abadeak agindu legez (eta eskubide hau ondo bai ondo nabarmendu[1543] zuen) Benantzioren mahaiaren ondoan norbait zaindari ipin zezan eskatu zitzaion. Izan ere, ikerketa egite aldera, egun osoan inor ez gerturatzea baitezpadakoa zen, haren ustez, bera itzuli arte. Ozengi esan zuen, Malakiasek fraideak zelatatu ez ezik, hauek berauek ere hura begipe zezatengatik ere bai. Liburuzainak onartu besterik ezin, eta Gilen eta biok handik alderatu ginen.

Baratzean zehar, garbitokirantz gindoazen, erietxe ondoan baitzegoen. Gilenek niri:

— Dirudienez, batzuei ez zaiek atsegin Benantzioren mahaiaren gainean edo azpian dagoen zerbait nik ukitzea.

— Zer ote?

— Bada, haiek ere ez dakitela uste diat.

1543Nabarmendu: (H. “hacer incapié”)

— Beraz, Bentziok ez du guri esatekorik eta gu *scriptorium*etik alderarazteko asmoz egin ote du hau guzti hau?

— Laster jakinen diagu.

Eta, egia. Bentzio berehala agertu zen.

BIGARREN EGUNA

SESTA

Bentziok harrigarriro esaten duenagatik, abadiako bizitzan gerta zera ez batere eredugarriak jakigai.

Bentziok esan ziguna nahasi samarra izan zen. Zirudienez, bai egiaz, *scriptorium*etik alderarazteko asmoz haratu gintuen, baina, bestalde, argi geratu zen estakuru sinesgarri bat asmatzeko gai ez zela, eta egiazko gauza batzuk azaltzen zizkigun, berak zekien egia handiago baten atalak, hala ere.

Goizean uzkur[1544] egon zela adiarazi zigun, amure egon alegia, baina orduantxe, hausnartu ondorean, Gilenek egia osoa jakin behar zuela uste zuela. Barreaz eztabaida egitean, Berengariok «*finis Africae*» aipatu zuela. Zertaz ari zen? Liburutegia isilpekoez betea zegoen, eta lekaideek inoiz ere ikusi ezin zituzten liburuez, batez ere. Gilenek proposamenen arrazoimenduz aztertu beharraz hitz egin

1544Uzkur: (H. “reticente”) (reacio, acoqinado – amure, herabe...)

zuen eta Bentziori honek itzautzi[1545] sakona eragin zion. Lekaide ikaskorrak[1546] liburutegiak gordetzen zuen guztia ezagutzeko eskubidea zuela uste zuen. Soissons-eko kontzilioa suharrean[1547] maiseatu[1548] zuen, Abelardo kondenatu baitzuen. Eta hala mintzo zeino, lekaide gazte hura, erretorika ikastean atsegin hartzen zuena, noiz edo noiz bere buruaren jabe zela ohartzen[1549] joan ginen, eta, ondorioz, abadiako diziplinak jakin-minari ezarri mugak nekez eta gogo txarrez onartzen zituela, onartzen bazituen, Niri beti irakatsi zidatenez, halako jakin-min intelektualekin fidakaitz izan behar zen, baina nire maisuari, ondo dakit, halako joera ez zitzaion atsebage, ez gaitzitzen, eta Bentziorekin gogaide agertzen zela kontura nintzen, eta adiarazten ziguna sinesten ziola. Labur bilduz: Adelmok, Benantziok eta Berengariok zein isilpekoz hitz egin zuten ez zekiela adiarazi zigun Bentziok, baina halako gertaera ilun haretatik argi pitin bat atera balitz ez zitzaiokeela gaitzitu[1550], liburutegiaren kudeaketaz zen bezainbatean, eta nire maisuak, arazoaren mataza askatuko zuelako ustea zuela adiarazi ere bai, eta askatuz gero Abadeak diziplina hura

1545Itzautzi: impresión (Zirrara...)
1546Ikaskor: estudioso // Irakaskor: pedante (N) (?)
1547Suharrean: ardorosamente
1548Maiseatu: criticar (erizmatu?, gaizki aipatu...)
1549Ohartzen / ohartuz (-tzen joan, ari…(zertan) / -z joan (nola) (N)
1550Gaitzitu: (H. “desagradar”)

hein baten behintzat lasatuko zuela ere uste zuen; izan ere, bera bezala beste fraide batzuk urrundik jinak ziren, atzerrietarean etorriak, zertarako eta euren buru-jakintza lantzeko, hain zuzen, liburutegi haren sabel zabal haretan gorderik zegozen miresgai ugariz.

Bentziok zinez ikerketak halako emaitza ukanen zuela uste zuen, ene irudiz. Hala ere, jakin-minak jota zegoenez, Gilenek aurrikusi zuen bezala, Benantzioren mahaia arakatzen lehena izan nahi zezakeen, eta honetarako gu handik urrun nahi eta beste berri batzuk emaiteko prest egon zitekeen. Ondorean azalduko ditut.

Berengario, fraideetarik askok jakina zenez, irrits gaizto batek janda zegoen, eta grina hura Adelmo zuen, Jainkoaren suminak Sodoma Gomorrarekin zigortzeko grina bera. Bentziok hala adiarazi zuen, heldubada[1551], nire gaztetasuna zela eta. Honela eta guztiz ere, nerabezaroa monasterio batean eman duenak, kastitateari eusten jakin arren, halako grinei buruz ele egiten aditu du, doike, eta inoiz edo behin halakoetan eroritakoak jazarri ez izaiteko bere burua zaindu behar izan du. Neu ere, esaterako[1552], fraidegai gazte, Melk-en nengoela bertako lekaide zahar

1551Heldubada: beharbada
1552Esaterako: (H. “acaso”)

batek igorri mezuen hartzaile ez nintzen, bada, izan, edozein laikok emakumezkori eskaintzen dionaren antzekorik? Fraide-botoek[1553] emaztekiren gorputzetik urrun egoitera behartzen gaituzte, emearena hogen-sastegi[1554] baita, honela ere, sarritan beste makur batzuetara oso-oso hurbiltzen gaituzte. Azkenik, ezikusiarena egin ote dezaket, agure honek neure zahartzaroan bertan deabruaren zirikada sumatzen baitut, noiz edo noiz, kortxilan nagoela, nire begiek fraidegai gazterean baten aurpegi guria neskarena bezain gordin eta leuna ikustean?

Hau esanaz ez dut monasterioko nire bizitzagatik damurik erakutsi nahi, inodik inora, beste batzuen okerra zuritu baizik, zeren, zama sakratua haientzat astunegi izan baita. Zuritzeko, agian, Berengarioren delitu izugarria. Baina, Bentzioren esaeragatik, lekaide harek bere hogena edo grina gaiztoa are era doilorragoz[1555] lantzen zuela uler daiteke, hots, xantaia erabiltzen baitzuen, beste batzuengandik, onestasunagatik[1556] eta bertuteagatik eman ez zuketena erdiestearren.

1553Fraide-boto: (H. “votos monacales”)
1554Hogen-sastegi: (H. “sentina de vicios”) (Estercolero, cloaca…)
1555Doilor: (H. “innoble”)
1556Onestasun: (H. “decoro”)

Halako moldez, ezen, aspaldidanik, Berengariok Adelmori aurtikitzen zizkion bigirada samurrez fraideek irri-mirri[1557] egiten baitzuten, beronen edertasuna, antza, bere garaian berezia ei zen eta. Azken honek, ostera, bere lanaz maitemindurik osoki, agian zuen atsegin-bide bakarra, ez zion jaramon handirik egiten Berengarioren kartsutasunari. Honela ere, ezjakinarena egin arren, beharbada bere gogoak ha lako makurdura[1558] sakon lotsagarri[1559] berdina estaltzen zuen. Dena den[1560], Bentziok esan zuenez, Adelmo eta Berengarioren arteko elkarrizketa bat aditu zuen, ezustean, eta azken honek, Adelmok erakusteko galdatzen[1561] zion isilpeko baten ordainetan irakurlerik iñoxoenak ere igar lezakeen zera likitsa zertzea eskaintzen[1562] zion. Eta Bentziok, zirudienez, Adelmoren ahotik onarpenezko hitzak entzun zituen, lasaigarri antzean esanak, ia-ia. Besterik gura ez balu bezala, Bentziok uste, eta onartzeko haragi-irritsa ez beste ziorean bat alegatzea[1563] nahikoa izan balitzaio legez. Honen haritik Bentziok ondorio batzuk atera zituen: Berengarioren isilpekoa jakintzaren inguruko misteriorean

1557Irri-mirri: (H. “ironia”)
1558Makurdura: (H. “tendencia”)
1559Lotsagarri: (H. “ignominioso”)
1560Dena den: (H. “el hecho es...”)
1561Galdatu: eskatu / Galdetu, galde egin: itaundu /
1562Eskaini: (H. “proponer”)
1563Alegatu: alegar, aducir

batekin lotuta izan behar zen, itxuraz, eta honela Adelmok, haragiaren bekatutara eroriz jakin-min intelektual bat asetzeko aukera izango zuela pentsatzeko zuen. Eta, Bentziok irribarrearekin hau gehitu zuen: zenbat aldiz bera ere hain jakin-min intelektual bortitzez betea zen eta asaskatzeko[1564] inoren haragi-grina onartzeko prest egongo zen, bai eta bere haragi-nahiaren guztiz bestelakoa izan arren ere[1565].

— Inoiz edo behin –Gilenek galdeka– ez ote zara gerturik egon, ezer arbuiagarririk ere egiteko, urteetan bila eta bila ibili zaren liburua zure eskuetan edukitzearren?

— Silvestre II.ak, jakintsu eta oso onbidetsuak[1566], orain bi mende direla, eskuizkribu baten truke, Estaziorena edo Lukanorena uste dut, uztaidun[1567] esfera balio-baliotsua oparitu zuen –esan zuen Gilenek. Eta gero zuhurkiro gehitu–: Baina uztaidun esfera zen, ez zen onbidea bera.

1564Asaskatu: desahogarse / descansar / hartarse

1565Bai...ere: (H. “incluso”)

1566Onbidetsu: virtuoso

1567Uztaidun: (H. “armilar”) (Uztai: aro, círculo)

Tresna astronomikoa, uztaiez osatua, graduatuak edo ez, ortzi-esferako zirkuluen egoera errepresentatzen dutenak, eta erdian bola ttiki bat duena Lurbiraren irudi.

Bentziok onartu zuen, bai, bere suhartasunaz[1568] bapikatu[1569] zuela, eta berriro bere istorioa jaulkitzeari ekin zitzaion. Jakiteko minak jorik, Adelmo hilko zen gauean, bai honen bai Berengarioren urratsei jarraiki zitzaien. Konpletak bukatutakoan, elkarrekin logelara joaiten ikusi zituen. Bere gelan luzaro egon zen begira, itxaraiten, haienetatik oso urrun ez, atea erdi-irekita, eta Adelmo Berengarioren gelarantz lerratzen[1570] zela ikusi zuen, fraideen atsedenaldian oro isilean zegoelarik. Esna egon zen, lo egin ezinik, Berengarioren atea ireki zela entzun zuen arte, eta Adelmok, ziztu bizian ia, ihes egin zuela ikusi, bere adiskideak atxiki[1571] nahi zuen bitartean. Berengario beheko estairaino jarraiki zitzaion. Bentzio haien atzetik, kontuz ikus ez zezaten. Iraganguan[1572] Berengario begiztatu zuen, ikaretan zoko batean ostendurik, begiak Jorgeren gelako atean josiak bezala. Bentziok, bertatik bertara, zerbait igarri zuen, hots, Adelmo lekaide zahar haren oinetara makurtua zela, bere bekatua aitorturik. Eta Berengario ikara batean, zergatik eta, bere isilpekoa agerian zegoelako, sakramentuko zigiluak gordeko bazuen ere.

1568Suhartasun: apasionamiento, entusiasmo
1569Bapikatu: exagerar (Bat+bi+ka+tu)
1570Lerratu: deslizarse
1571Atxiki: (H. “retener”)
1572Iragangu: pasillo

Geroxeago, Adelmok irten zuen, aurpegia zurbil-zurbil, Berengario berarengana zen eta hitz egin nahi bazion ere, beregandik aldarazi zuen, eta logelatik at joan zen. Elizako abside ingurutik, korura, iparraldeko atetik sartu zen (gauez beti zabalik zegoen). Otoitz egin nahi zuen, eiki[1573]. Berengario haren atzetik joana zen, jarraikiz, elizara bagerik, eta hilobien artean zebilen, zutibiliz[1574], eskuak igurdiz[1575].

Bentzio zalantzan egon zen zer egin ez zekiela, halako baten beste laugarren lagun bat alderdi[1576] haretan zebilela ohartu zen arte. Hura ere Adelmo eta Berengariori jarraiki zitzaien, eta, zirudienez, ez zen Bentzioz ohartua, berau hilerri ertz batean hazitako haritzaren ostean baitzen. Benantzio zen. Ikusitakoan, Berengariok bere burua hilobien artean makur-ostendu zuen. Benantzio ere korura sartua zen. Orduan, une haretan, Bentziok bere lotokira itzuli zen, aurkituko zutelako beldurragatik. Biharamun goizean, Adelmoren hilotza arroan agertu zen. Hauxe Bentziok zekien guztia.

1573Eiki: probablemente, seguramente
1574Zutibili: pasear
1575Igurdi: (H. “retorcer las manos”) (Sacudir-restregar-...)
1576Alderdi: zona, parte… / Partido / Bando /…

Bazkalordua laster eta Bentziok bertan utzi gintuen, eta nire maisuak ez zion galdera gehiago egin. Garbitokien atzean geratu[1577] ginen, apur batez, eta gerottoago baratzean ibilaldiño egin genuen, harako albiste harrigarriez gogoetan.

—Zumalakarra[1578] –esan zuen Gilenek hitzetik hortzera, landare bati begiratzeko makurtzeaz bat; negua zenez gero, zuhamuxka[1579] ezagutu zuen–. Azalezko egoskina[1580] odoluzkietarako[1581] on. Hura, berriz, *arctium lappa* duk, amanua, alegia; sustrai gordinez eginiko loizokia[1582] larruko krisma[1583] orbaintzeko duk.

— Seberino baino hobea zara –esan nion–, baina, zera, esan albaitzeniezadazu[1584] zer duzun buruan oraintxe entzun dugunaz!

— Adso maite, heure buruaz arrazoitzen ikasi behar huke. Bentziok, ziur aski, egia esan ziguk. Beronek adiarazi diguna eta lehenago Berengariok azaldutakoa, lilurakeriez betea, bat zatozak. Saia hadi gertatutakoa berreraikitzen.

1577Geratu: quedarse (Gero+tu?) / Gelditu: parar (Trikatu)
1578Zumalakar: frangula, arraclán (Oilakaran...)
1579Zuhamuxka: arbusto
1580Egoskin: infusión, tisana
1581Odoluzki: hemorroide, almorrana
1582Loizoki: emplasto, cataplasma (?) (Mantar-txaplata)
1583Krisma: eczema (?)
1584Esan albaitzeniezadazu:...ya me habrás de decir (prescriptivo)

Berengariok Adelmorekin itsuskeria edo ezainkeria egin eta guk igarri genian. Berengariok Adelmori isilpeko bat edo beste azaldu ziok, baina, ai! isilpekoa duk, oraino. Delitua burutu eta gero, kastitate eta izadiaren arauen kaltetan, Adelmok absolbitu lezakeen batengana nahi dik, ez dik besterik gogoan eta Jorgeren gelara zoak, arinik arin. Berau, izan, zorrotz-zorrotza denez gero, Adelmori ahakar[1585] eta ahakar zegiok, eta, larrigiro[1586], hertsaturik, atsebagez betea. Beharbada, ez dik absolbitu, ez ziok barkamenik eman, beharbada penitentzia beteezina ezarri ziok, ez zakiagu, eta Jorgek ez ziguk inoiz esango. Dena den, Adelmo elizara zoak, korrika, aldare aurrean belaunikatzera, baina bere barruko harra[1587] ezin baretu. Une horretantxe Benantzio hurrera zaiok. Ez zakiagu zer esan zioten elkarri. Ausaz, Adelmok Benantziori Berengariok jakitera eman berri zion isilpekoa (ordainetan) azaldu ziok, axola handirik ez dion arren, zeren, bere berea duen isilpekoa baitu, anitzez izugarriagoa eta goriagoa[1588]. Zer dagi, bada, Benantziok? Beharbada, gure Bentzio astindu duen jakin-min berdinak jota, jakin berri duenagatik pozez, alde egin dik, Adelmo

1585Ahakar: riña, reprensión, bronca (Errieta, agiraka, aharra...)
1586Larrigiro: en ambiente de angustia
1587Barruko har: (H. “remordimiento”)
1588Gori: (H. “candente”)

bere bihotzeko aladurarekin[1589] utzirik. Hantxe bertan behera utzita, beronek bere buruaz beste egitearena hartzen dik burutan, etsi-etsian[1590], eta hilerrira zoak, eta bertan Berengario. Hitz ikaragarriak egotzi zizkiok, haren erantzunkizuna aurpegira aurtiki, maisu esan ziok, eta nazkagarrikeriak[1591] egiten irakatsi diola ziok. Ene ustez, eldarnioak kenduta, Berengariok jaulki diguna zehatza duk, doia. Adelmok berari Jorgek esan berri dizkion hitz izugarri berdinak berrizkatu zizkiok. Orduan, Berengariok, guztiz aztoratu eta alde batetik zoak, eta Adelmok beste aldera jo, bere burua hiltzeko asmoarekin. Gainerakoa, ia-ia lekuko izan bagina legez zakiagu. Orok uste dik Adelmo norbaitek hil zuela. Benantzioren senak[1592] besterik ere emaiten ziok: liburutegiko isilpekoa berak uste zuen baino are garrantzi larriagokoa da[1593]. Eta bere kasa arakatzeari ekiten zaiok, norbaitek geldiarazten dion arte, bilatzen zuena ediren aitzin edo gibel.

— Nork hil zuen? Berengariok?

1589Aladura: (H. “remordimiento”)
1590Etsi-etsian: desesperadamente
1591Nazkagarrikeriak: (H. “cosas ignominiosas”)
1592Senak eman: (H. “interpretar”) (Pensar, ocurrirsele...)
1593Da: (Hemen hika ez darabil, esaldia besteak egina delako)

— Batek zakik. Edo Malakiasek, Eraikinaren zaintzeko ardura berea dik eta. Edo beste batek. Berengarioz susma daitekek, beldurtuta dagoelako, eta Benantziok bere isilpekoaren jakitun dela dakielako. Malakiasez, halaber: liburutegia osoki zaindu beharra duela eta norbaitek bortxatu duela konturatu delako, eta hiltzen dik. Jorgek orotaz oro zakik, direnetaz dena zakik, Adelmoren isilpekoa ere bai, beharbada ez dik nahi nik kausi[1594] dezadan Benantziok, eiki, aurkitu duena… Hainbat zerak harenganako susmoa zakarrak. Honela ere, gizon itsuk nola hil dezake beste bat, sasoi onean dagoen bat, eta nola agure batek, mardul[1595] bai, eraman dezake gorpua upeleraino? Azkenik, izan ote liteke hiltzailea Bentzio? Gezurra esan ahal ukan ziguk, aitortu nahi ez edo ezin duen xede batekin jardun ahal dik. Zerarren mugatu susmoak barreari buruzko elkarrizketan egon zirenei? Izan litekek delituak beste zio edo zertarako edo zera bat ukan izaitea, liburutegiarekin ikusteko bagerik, zer ikusirik ez. Dena dela, bi eginkizun diagu, behingoan: liburutegira nola sartzen den jakitea, eta argiontzi bat eskuratzea. Azken honetaz ardura hadi hi. Hoa sukaldera bazkalorduan eta har ezak bat…

1594Kausitu: ediren jarrugi, topatu… / Aurkitu: descubrir
1595Mardul: robusto

— Ebasko[1596] bat?

— Mailegu bat, Jaunaren aintzarik handienaren alde.

— Horrela bada, hemen nauzu ni[1597].

— Oso ondo. Eraikinera sartzekotan, atzo gauean Malakias nondik agertu zen bazakiagu. Egun, eliza-etxera joanen nauk, kapera haretara, bereziki. Ordu bete barru bazkaltzera joanen gaituk. Geroago, Abadearekin bilera dikeagu. Heu ere egonen haiz, hitzak jasoteko idazkari bat egoitea eskatu bainatzaio.

1596Ebasko: (H. “hurto”) (Ebasketa, lapurreta, ohointza…)
1597Hemen nauzu ni: (H. “contad conmigo) (N)

BIGARREN EGUNA

NONA

Honetan Abadea abadiako altxorrez harro eta heretikoen beldur agertzen da, eta azkenean Adsok bere buruari munduan zehar ibiltzera irtetean gaizki egin ote duen galdetzen dionekoa.

Abadea elizan jarrugi genuen, aldare nagusiaren aurrean. Fraidegai batzuen lanari begira zegoen, nondibait, bazter zoko baterean, edalontzi sakratu batzuk, kalizak, patenak, kustodiak eta gurutze bat, goizeko ofizioetan nik

ikusi ez nituenak ateratzen ari zirelarik. Tresna sakratu haien edertasun distiratsu[1598] haren aitzinean, harridurazko oihuxka[1599] bat egin nuen. Eguerdi betea zen eta argia erruz koruko leihoetatik, eta hormetakoetatik parrastaka sartzen zen, argi-xirripa[1600] zuriak osatuz, sustantzia jainkotiarrezko latsak[1601] bezala, eliza barruan elkar zeharka bazterrik gehienak, aldarea batik bat, argiztatzen zutenak.

Edalontziak, kalizak, oro ekai[1602] baliotsuz egina zela argi ikusten zen: urrearen oritik, boliaren[1603] zuri-zurira, eta leiarraren[1604] gardentasuna tartean, margo-handiera guztietako histarriak[1605] dir-dir ikusten ari nintzen: moredin-harria[1606], bertori edo topazioa, errubia, zafiroa, bertiste esaten dioten esmeralda, xindaurdina, beste izen batez krisolitoa, onize-harria, kaztistea[1607], nabarria[1608], eta agata. Eta, aldi berean, bestez ere ohartu nintzen, goizean nabaritu ez nuena, lehenik otoitzean buru-belarri eta gero izu-

1598Distiratsu: (H. “refulgente”)
1599Oihuxka : (H. “exclamación”) (N)
1600Xirripa: pequeño arroyo, torrente (Ur-xirripa — argi-xirripa)
1601Lats: arroyo (Latsa, Latsarte, Latsibi, Latsaga...)
1602Ekai: materia
1603Boli: marfil
1604Leiar: cristal
1605Histarri: gema, piedra brillante
1606Moredin-harri: jacinto
1607Kaztiste: carbunclo
1608Nabarri: jaspe

lauorrian bainengoen, hots: aldareko aitzinaldea eta koroa osatzen zuten beste hiru panelak oro urrezkoak ziren, eta aldarea bera ere alde guztietatik urrezkoa zela zirudien.

Abadeak nire harridura aditurik, irribarre:

— Aberastasun hauek dakuskizuen guztiok –esan zuen gure aldera bihurturik– eta ikusiko dituzun beste batzuk, mendeetako ondasuna dira, erruki[1609] eta eraspen[1610] mendeak, eta abadia honen ahalmen eta santutasunaren lekuko. Printze eta lurbirako boteredunak, artzapezpiku eta apezpikuak aldare honetaraxe jaugin[1611] izan dira, gizaldiz gizaldi, euren gauza balio handikoak, beren handitasuna islatzen zuten harribitxiak, beren agintaritzako ikur-eraztunak eta urreak, hemen bertan sakrifikatzera, opatzera[1612], eta hemen urtuak izan litezen eman nahi izan dituzte, Jaunaren eta berea den leku honen aintzarik handienaren alde. Nahiz eta gaur-egun beste gertakari negargarri[1613] batek profanatua izan, ezin ahantz dezakegu Goi-goikoak duen ahalmenarekin indarra, egun gure hauskortasunaren aurrean goititzen dena. Eguberri Donearen

1609Erruki: piedad (urrikalmendu...)
1610Raspen: devoción (jaiera, debozio…)
1611Jaugin: acudir (jin, etorri)
1612Opatu: ofrecer (Opaldu oparitu)
1613Negargarri: (H. “luctuoso”)

jaiegunak hur ditugu, eta tresna sakratuak garbitzen hasita gagoz, gure Gaizkatzailearen[1614] jaiotza ospe handiz ospa dezaguntzat, merezi eta behar duen handizurenez[1615] eta arrandiaz[1616]. Oro bere jaukaltasunez[1617] agertu behar dateke...–gehitu zuen, Gileni begiz-begi begiratzen ziola; eta orduan ulertu nuen zer zela eta erakusten zuen hainbesteko harrotasuna bere jokaera txurizkatzearren[1618]–, izan ere, Jaunari eskainitakoen erakustea da egokia eta eragingarria, gure gardiz, ezkuta edo ostentzea ez, nabari eta nabarmentzea baizik.

— Horrelaxe –Gilenek adeitsuro–. Zure bikaintasunak horrela Jaungoikoari aintza erakutsi behar diola, hots, loriatu behar dela baderitzo, ez dago zalantzarik zure abadia honek laudorio eskaintzetan bikaintasunik gorena erdietsi duela.

— Honela behar da. Jainkoak nahi zuelako edo profeten aholkuengatik, urrezko anfora eta murko eta abu[1619] tikiak erabiltzen baziren, ahuntz, zekor edo txahalen odola batzeko, Salomonen tenpluan, arrazoi larriagoz, eraspenez

1614Gaizkatu: salvar (gaitz+ge+tu)
1615Handizuren: magnificencia (N)
1616Arrandia: fasto, boato (Ospe...)
1617Jaukal: espléndido (?)
1618Txurizkatu: justificar (N)
1619Abu: mortero. Ezin dabenak lazuna, jo begi abuan asuna. "Quien no puede hallar el muble, maje en el mortero la ortiga" . RS

eta gurpenez[1620] jardunki, Kristoren odola biltzeko urrezko eta harribitxizko ontziak erabili behar ditugu, sorturiko gauza guztien artean baliotsuenak harturik!

— Horrela izan dadila –esan nuen nik.

— Askoren eritziz, ordea, santuki zentzaturiko gogoa, bihotz ona, fedez beteriko asmoa nahikoa dira eginkizun sakratu honetarako. Hori behinena dela diogunak gu gara, aurrenak, garbi-garbiro eta enura bage, baina apaindura handiz ere ospetsuki omendu behar dugula ziur gagoz, ageriko apaindura ederrezko tresna sakratuak erabiliz, zeren, guztiz zuzena eta egokia baita gure Gaizkatzailea, orotan eta murrizpenik ezean, zerbitza dezagun, Berak gu murrizterik eta salbuespenik bage laguntzen digu eta.

— Horixe, bai, zure baldernako hendienen aburua beti –erantsi zuen Gilenek–. Gogoan dut, Suger abade gurgarri eta handi-handiak idatzitako oso irakurgai ederrik, elizetxeetako apaingailuez den bezainbatean.

— Horrela da –Abadeak–. Ikusten duzu gurutzefika hau? Oraindik ez dago osatua… –amaultsu-amultsu[1621] hartu zuen eta aurpegia santu-argiz zuriturik adi-adi behatu–: Oraindik

1620Gurtu: adorar
1621Amultsu-amultsu: (H. “con infinito amor”)

perla batzuk behar lituzke, ez dut ediren oraino neurrikorik. Jaun Done Anderrek esan zuenez, Golgotako gurutzean Kristoren soin-atalak perlazko apaingarriak bezalakoak ziren. Eta perlazkoak izan behar dira mirari[1622] larri haren sasi-itxura[1623] apal honetako apaingaiak. Gaizkatzailearen buruaren ondoan, doi, inoiz ikusi bageko diamanterik ederrena kokatzeari[1624] egoki eritzi diot, halaber; –haren esku elizkoiez, hatz luze zurikoak, enbor santuaren alderik baliotsuenak laztandu zituen, hobeki esateko, boli santuaren, ferekatu zituen, zeren ekai[1625] bikain horretaz eginak baitziren gurutzearen besoak–. Jaungoikoaren etxe honetako edertasun guztiak begietsiz atsegin hartzen dudanean, eta margoanitzeko harrien xarmak kanpoaldeko kezka guztiak ezabatzen dituenean, eta gogoeta duin batek bertute sakratuen anizkoitasunaz pentsatzera ekarten nauenean, materialetik inmaterialera iragoaraziz[1626], unibertsoko eskualde bakan[1627] batean nagoelako ustea dut, ez oraindik zeruaren araztasunean[1628] guztiz askea, baina, aldez[1629],

1622Mirari: (H. “prodigio”)
1623Sasi-itxura: (H. “simulacro”)
1624Kokatu: (H. “engastar”)
1625Ekai: materia
1626Iragoarazi: (H. “transferir”) (N)
1627Bakan: extraño-único-raro
1628Araztasun: pureza
1629Aldez: en parte

dagoeneko lurreko lokatzetik jaregina[1630]. Eta, Jainkoaren eskerragatik, beheko mundu honetatik hastandu[1631] ahal naizela iruditzen zait, goikoa erdiestearren, bide anagogikotik[1632]…

Hala mintzo bitartean, aurpegia beste aldera bihurtu zuen, habearte aldera. Goitik sartzen zen argi-uhin batek –berebiziko ongura[1633] egunezko izar handiarena– begitartean eta eskuetan argi egiten zion; eskuak, kartsutasunez liluraturik eta sorgorturik, zabal-zabalik gurutze baten antzo zedutzan bitartean.

— Edozein sorkari[1634] –esan zuen–, hala ikusgarri nola ikusezin, argi bat da, argien aitaren ume. Boli hau, onize hau, inguruan daduzkagun harriak oro argi dira, onak eta ederrak direla sumatzen dut, bakoitza bere heineko arauen arauera izaiten dira, beste mota eta beste molde batzuen aurrean motaz eta moldez ezberdinak, bakoitza bere lekuan egokitua, grabitatearen legearekin bat. Eta ikusten dudan ekaia zenbat eta baliotsuagoa, honelako gauzak hobeto agertzen zaizkit. Simaurra eta harra ikustean kausalitate

1630Jaregin: askatu, lokabetu
1631Hastandu: alejar, apartarse
1632Anagogiko: Gauza jainkotiarrak begietsiz arima goititzen eta xoratzen den moldea.
1633Ongura: onginahi, benevolencia
1634Sorkari: criatura

jainkotiarra ikusten badut, zeeenbat hobeto ikusarazten didaten urre edo diamanteren efekto miresgarriek, zein ondo baino hobeto islatzen den haien distiran Jainkoaren sortze-indarra! Alta, beraz, honelako gauza goitarrak harrietan ikusten ditudanetan, ene arima negarretan hasten da pozarren, ez harrokeria mundutarragatik edo aberastasun-maiteagatik, sortu aurreko sortua denari diodan maitazarre garbi-garbiagatik baizen.

— Zinez hori duzu teologiarik goxoena –esan zuen Gilenek apal-apalik. Eta orduan ironiaz ari zela uste nuen, pentsamenduaren egikera maltzurraz alegia, erabili aurrez *pronunciatio* bat behar baita, ezagugarri eta txurizkagarri. Alabaina, Gilenek ez zuen inoiz hala egiten, eta Abadeak, eleketan irudiak erabiltzen ohituago, Gilenek esana hitzez hitz hartu zuen, eta sorgorraldi[1635] haretan xora-xora[1636] eginda, gehitu zuen:

— Goi-goikoarekin ukipenez[1637] egoiteko erarik berehalakoena, teofania materiala, Jainkoaren gorputzez agertzea da.

1635Sorgorraldi: momento de inconsciencia, (sorgortu: estar absorto)
1636Xora-xora egin: embelesar (H- “rapto místico”)
1637Ukipen: contacto

Gilenek eztul tikia egin zuen, aztura onez[1638]: « Zera… ho...», erantsita. Hitz beste egin nahi zuen guztietan horrela egin ohi. Gizalege handiz egitea lortu zuen, ohitura nonbait, –haren lurraldeko gizonen artean berezkoa[1639], antza– eta hizketan hasterakoan halako intziri moduko zerbait batzuk egiten zituen, bere buruarentzat adiarazi nahi zuen pentsamenduaren azalpena oso nekagarri balitzaio bezala. Hala ere, intziri moduko haiek zenbat eta luzeagoak izan orduan eta geroago adiaraziko zuen adigaiaren[1640] onaz bere buruarekin ziurrago zegoela konturatu izan nintzen.

— Zera… ho...– esan zuen, bada, Gilenek–. Txirotasunari buruzko eztabaidaz eta elkarrizketaz solastatu behar dugu…

— Txirotasuna… –esan zuen, orduan oraindik sorgor[1641], Abadeak, bere harribitxiek eroan zuten unibertsoko lurralde ederretik jaistea ukan ez balu legez–. Egia da, elkarrizketa…

Eta hala hasi ziren ez eta bai, zehatz-zehatz, nik, hein baten, ezagunak nituen gaiez, eta haien elkarrizketa aditurik, aldez[1642], ulertu ahal nituen zerez. Zertaz ari eta, nire jaulkipen zehatz honetan lehenago esan dudan bezala, alde

1638Aztura onez: (H. “educadamente”) (N) (?)
1639Berezko: (H. “típico”)
1640Adigai: (H. “proposición”) (Teoría, cosa a atender)
1641Sorgor: (H. “absorto”)
1642Aldez: (H. “en parte”

batean enperadorea eta beste aldean Aitasantua aurkaz-aurka zegoen auzi bikoitzaz ari ziren, eta beste aldean Aitasantuarekin frantziskotarren arteko[1643] ikamikaz. Azken hauek, urte batzuk beranduago izanagatik ere, Perusako kapituluan espiritualen tesia eurentzat hartua baitzuten, Kristoren txirotasunaz; eta frantziskotarrak inperioarekin batu zirelako sortu zen katramilaz ere ari ziren. Aldeko eta aurkako hirurangelu zena, orduan laurangelu bilakatu zen, Jaun Done Benitoren baldernako abadeek esku hartzearen ondorioz –oraindik niretzat ulergaitza.

Inoiz ez dut ulertu zerengatik eman zieten babes eta aterpe abade beneditarrek frantziskotar espiritualei, berauen aburuak, nolabait[1644], are euren baldernak beretzat onartu baino lehen ere bai. Izan ere, espiritualek mundu honetako aberastasun guztiei uko egitea predikatzen bazuten, nire baldernako abadeek, ordea, bide onbidetsu[1645] batetik jo bai baina erabat beste alderakoa hartzen zuten, egun haretan bertan argiro nabaritu nuena legez. Nire ustez, abadeei Aitasantuaren ahalgo[1646] larregizkoa[1647] gotzainen eta hirien larregizko bera iruditzen zitzaien, eta nire baldernak,

1643-rekin -ren artean: entre (Aitasantuarekin frantziskotarren artean)
1644Nolabait: (“hasta cierto punto”)
1645Onbidetsu: virtuoso (Onbide: bertute)
1646Ahalgo: botere
1647Larregizko: excesivo

mendez mende, bere ahalgo horri eutsi izan zion hirietako salerosleen eta apezen aurka, hain zuen, nola eta bere burua zeruaren eta lurraren artean bitartekari zuzentzat eskainiz, eta erregeen aholkularitzat aldi berean.

Askotan entzun izan dudan esaera da Jaungoikoaren herria hirutan banantzen dela, batean artzainak (apezak, alegia), bestean zakurrak (gudariak, alegia) eta ardia, hau da, herria. Geroago, esaldi hori beste era batzuez berrizka daitekeela ikasi dut. Beneditarrek maiz, ez hiruz bi sail handiz baizik hitz egiten izan zuten: bata, munduko gauzen kudeaketari lotua; bestea, zeruetako gauzekikoa. Lurreko zerez zen bezainbatean, apezak, jaun laikoak eta jende xehea ziren sailkatuak, baina hiruki honen gainean *ordo monachorum* zegoen, Jaungoikoaren herriaren eta zeruaren arteko lokarri zuzena; eta fraideek ez zuten zerikusirik artzain sekulareekin, apezekin eta apezpikuekin alegia, berauek etxakinak[1648] eta ustelak baitziren, hirien interesen aldekoak, eta hirietan ardiak ez ziren landatar[1649] on eta zintzoak, salerosle eta eskulangileak baizen. Beneditarren baldernak ez zuen txarto ikusten xaloen[1650] jaurgoa apezen mendean egon zedin, beti ere harreman honetako arau

1648Etxakin: ignorante (Ez+jakin) (N)
1649Landatar: campesino (Baserritar, landerritar...)
1650Xaloen jaurgo: (H. “el gobierno de los simples”)

nagusia fraideek ezarten bazuten, berauek lurreko botere guztien iturriarekin lotura zuzena baitzuten, hots, inperioa, zeruko ahalgo ororen iturriarekin harreman zuzena zuten bezalaxe. Eta horregatik, nik uste, abade beneditarrik askok, inperioaren duintasuna hirien boterearen aurrean goratzearren (hirietan gotzainak merkatariekin bat eginak ziren), frantziskotar espiritualei babes emaiten zien, hauen aburuekin bat egin ez arren, beraientzat erabilgarri zirelakoan, zeren, inperioari arrazoibide onak eskaintzen baitzizkioten, beronek Aitasantuaren ahalgo larregizkoaren aurka zuen borrokan.

Ondorioztatu nuen, ezen, haiek zirela Abonne Gilenekin elkar-lan egiteko gerturik egoiteko zioak edo arrazoiak, Gilen enperadoreak bidali baitzuen frantziskotarren eta Aitasantuaren artean ararteko izan zedintzat. Hala zen[1651]: Elizaren batasuna galtzorian ezar zezakeen auzi haren bortizkeria gora-behera, Michele da Cesenak, Aitasantuak behin baino gehiagotan Avignon-era deitu ukan zuenak, azkenean gonbidapena onartu zuen, ez baitzuen bere balderna eta Zubigin[1652] gorenaren artean behin-betiko hausturarik gertatzerik nahi. Frantziskotarren

1651Hala zen: (H. “en efecto”)
1652Zubigin: pontífice (N)

buruzagi nagusi zenez, bere baldernaren jarrera gailen zedin nahi zuen, honela eta guztiz ere, era berean, Aitasantuaren onespena[1653] jadetsi[1654] nahi zuen, zergatik eta, besteak beste, onespen hori bagerik baldernako buru izaiten luzaz egongo ez zela senak emaiten[1655] ziolako.

Zeinbait lagunek, aldiz, Aitasantua Frantzian haren zain egonen zela, bai, baina segada bat egitekotan zegokeela adiarazi zion, heretiko zela salaturik auziperatzeko xedez. Honegatik, joan aitzin harreman batzuk egin zitzan aholku egiten zioten. Marsiliok ideia hobe bat ukan zuen: Michelerekin inperioko mandatari[1656] bat bidaltzea, Aitasantuari enperadorearen aldekoen ikusmoldea erakuts ziezaion. Cahors-eko zaharra gogatzearren[1657] ez ezik, Micheleren egoera sendotzeko ere baizik[1658]. Inperioaren ordezkaritza bateko kide izanik, Zubiginaren mendekuzko harrapakin erraza izan ez zedingatik.

Alabaina, asmo harek ere oztopo ugari zuen eta berehalako baten egitekoa ez zen. Beste bat asmatu zen, bada, eta aurretiazko elkartze bat egitea izan zen, inperioko

1653Onespen: (H. “consenso”)
1654Jadetsi: erdietsi, lortu (Obtener, conseguir, lograr...)
1655Senak eman: (H. “intuir”)
1656Mandatari: (H. “legado”)
1657Gogatu: (H. “convencer”)
1658...Ez ezik...ere baizik: no tanto...como para… (N) (?)

mandatarien eta Aitasantuaren ordezkari batzuen artean, alderdi bien jarrerak haztatzeko[1659] eta bilkura egiteko hitzarmena[1660] idaztearren, bisitari italiarren segurantza bermaturik egon ledin. Lehenengo elkartze horren antolakuntza Baskerville-ko Gileni egokiarazi[1661] zioten, hain zuzen ere. Beronek inperioko teologarien ikusmoldea erakutsi behar zukeen, baldin bidaldia arriskurik bage egiterik zegokeela uste bazuen. Eginkizuna ez zen erraza. Aitasantuak, susma zitekenez, Michele bakarrik joan zedin nahi zukeen, aisago[1662] atzemaite aldera, bere mendean jarriko bazitzaion [1663]. Beraz, Aitasantuak enperadorearen ordezkaritza azkenean joan ez zekion bere mandatariak bidaliko zituen, Italiara. Ordura arte, Gilen trebe-trebe ibili izan zen. Abade beneditar batzuekin luzaz hitz egin ondorean (honegatixe gure etorraldia hainbat bide-zatitan egina zen) gu gengozen abadia hautatu zuen, Abadea inperioaren zale amorratua zela zekielako, hain zuzen; nahiz eta haren trebetasun diplomatiko handiagatik Aitasantuaren

1659Haztatu: (H. “probar”)
1660Hitzarmen: (H. “acuerdo”) (Itun, ongunde...)
1661Egokiarazi: (H. “confiar”) (N)
1662Aisa: erraz (Aise)
1663...jarriko bazitzaion: (para que se le pusiera...)

gortean ere gaizki ikusia ez izan. Bitarteko lurraldea[1664], bada, bi alderdiak elkartu ziratekeen[1665] abadia.

Zubiginaren ihardukimena[1666], berriz, ez zen han amaitu. Bere ordezkariak abadian egonez gero Abadearen legepean jarriko zirela zekien, eta ordezkarien artean apez batzuk joanen zirela jakinik, inperioaren segada batean eroriko ziren beldur zen. Beraz, baldintza bat ezarri zuen bere ordezkarien kaltegetasuna[1667] bermatzearren, eta Frantziako erregearen arkulari-talde batek, bere konfiantzadun lagun baten agindupean zaintzea izan zen. Honetaz zerbait adituta nengoen ni, Bobbion Gilen Aitasantuaren enbaxadariarekin elkartu zenean: arkulari -talde haren eginkizuna nolakoa izango zen zehazten saiatu ziren, hots, Aitasantuaren mandatarien kaltegetasuna bermatzeak zer esan nahi zuen. Azkenean, avignondarrek aurrezarritako[1668] erabidea[1669] ontzat eman zen, egoki iruditurik: iskiludun gizonek eta hauen buruzagiak beren ardurapean Aitasantuaren ordezkarien biziaren aurka, hola edo hala, egiten saiatu ziratekeen guztiak edukiko zituzten,

1664Bitarteko lurralde: (H. “territorio neutral”) (N)
1665...ziratekeen: (H: “habrían podido...”) (Edo “habrían de...”)
1666Ihardukimen: (H. “resistencia”)
1667Kaltegetasun: (H. “idemnidad”) (Kalte+ge-tasun) (N)
1668Aurrezarri: (H. “proponer”) (Presentar…) (?)
1669Erabide: (H. “fórmula”) (?)

eta haien jokaera edo asmoen gainean indarkeriaz eragin nahi zuketen guztiak orobat. Une haretan, ongunde hura, nola-halako[1670] antsia[1671] hutsagatik egin zen. Baina, orduan, abadian gertaturikoak gertaturik, Abadea urduri zegoen, eta Gileni zituen zalantzak jakinarazi zizkion. Mandatariak abadian jazotako krimenak argitu baino lehenago iritsiz gero, egilea nor zen jakin aurrez, alegia (hurrengo egunean Abadearen kezkak handiagotuko ziren, krimenak hiru izanen baitziren), aitortu behar zuketen, ezen, esparru haretan indarkeria erabiliz Aitasantuaren ordezkarien jarreran eta asmoan eragina izaiteko gai zen norbait ziharduela.

Egindako krimenak ostendu nahia ez zen ezertarako izango, zeren, besterik gertatuz gero, mandatari haiek euren aurkako araoa[1672] zela uste ukanen baitzuten. Beraz, bi irtenbide baino ez zegoen. Edo Gilenek hiltzailea nor zen igarten zuen, mandataria heldu aurretik (Abadeak begiak josi zizkion, hitzik bage, ordura arte arazoa argitzeke izaitea hari egotziz laso), edo gertatzen ari zenaz Aitasantuaren ordezkaria jakinaren gainean ezartea, eta bilkurak egin bitartean abadia zaintzapean egon zedin arduratzeko hari

1670Nola-halako: (H. “formal”)
1671Antsia: (H. “preocupación”)
1672Arao: (H. “conjuro”) (?) (Aharo)

eskatzea, oro zorrotz ikustatua[1673] izan zedintzat. Alta, Abadeak ez hala egitea nahiago, hala eginaz bere nagusitzaren zati bati uko egitea zen eta, are, frantziarrek bere lekaideak begipetzea[1674] zelarik. Honela ere, ezin arriskatu. Hala Gilenek nola Abadeak arazoen nondik-norakoa[1675] ikusirik arrangura gaizto handia zuten, baina beste egokiera[1676] askorik ez. Halatan, bada, biharamunean elkar ikustea erabaki zuten, behin-betiko zer ebatziko eta. Bien bitartean, Jainkoarengandik errukimendua entzindu[1677] eta, bide batez, Gilenen sumoa[1678] besterik ezin.

— Ahal dudana eginen dut, zure bikaintasun –esan zion Gilenek–. Honela eta guztiz ere, ez dakit honako arazo honek nola galaraz[1679] lezakeen bilkuraren arrakasta. Aitasantuaren ordezkariak ere ulertu behar luke badagoela aldea, zoro baten eginaren, hiltzaile odolkoi[1680] baten eginaren edo, ausaz, arima galdu baten eginaren, eta gizon zuzentasunez beteriko horiek arazo larriaz ebatzi behar dutenaren artekoa.

1673Zorrotz ikustatu: (H. “estricta vigilancia”)
1674Begipetu: controlar, tener bajo visión (N)
1675Nondik-norako: (H. “el cariz”)
1676Egokiera: (H. “alternativa”)
1677Entzindu: fiar(se)
1678Sumo: (H. “sagacidad”) (Olfato...)
1679Galarazi: (H. “comprometer”)
1680Odolkoi: sanguinario

— Baietz uste? –galdetu zion Abadeak begiz begi begira–. Ez ahantzi avignondarrak frantziskotarrekin elkartzen ohiturik dagozela, hots, *fraticelli*engandik arriskuz hur dagozenekin, eta are *fraticelli*ak baino zentzugeago diren lagunakandik –eta hau esatean Abadeak ahotsa apaldu zuen–; haiekin alderaturik, hemen gertatu diren izugarrikeriak, larriak izan arren, hitsak[1681] dira, eguzkia laino artean zurbila den bezain.

— Ez da gauza bera! –Gilenek ozentto berotuxerik[1682]–. Ezin neur dezakezu kana[1683] beraz Perusako kapituluko frantziskotarrena eta heretiko eli[1684] batena. Azken hauek ebangelioaren mezua, aberastasunen aurkakoa alegia, beren mendeku gose eta egarri edota zorakeria odoltsu bilakatu baitute.

— Ez da urterik asko, hemendixe milia gutira, horrelako eli batek, zure hitza erabilirik, Varcelliko gotzainaren lurrak eta novararraren[1685] mendiak su eta gar larrutu[1686] zituela –ihardetsi zion lehorki Abadeak.

— Frai Dultzinoz eta apostoluez ari zara...

1681Hits: pálido, apagado
1682Berotuxe: (un poco) excitado
1683Kana: (H. “mismo rasero”) (Kana: medida / vara de medir)
1684Eli: (H. “banda”) (Manada)
1685Novara: Italiako hiria
1686Larrutu: (H. “arrasar”)

— Sasi-apostoluez –zuzendu zion Abadeak.

Hala, beste behin Frai Dultzinoren izena entzun nuen, eta sasi-apostoluak halaber, eta beste behin hizkera gurbilean[1687], izu-ñabardura[1688] batekin, abantzu.

— Sasi-apostoluez –onartu zuen Gilenek gogo onez–. Honela ere, frantziskotarrekin ikustekorik batere ez.

— Horiekin bat zetozen Kalabriako Joakinen gurpenaz den bezainbatean –esan zuen Abadeak behingoan–. Galde egiozu zure anaia Ubertinori.

— Zure bikaintasun hori, zilegi bekit adiaraztea orain zure anaia dela –Gilenek irrribaretsu ihardetsiz, gurpen modu bat eginda, nolabait Abadeari zorionak emaiteko bezala, hain ospetsu zen gizon hura beraren baldernan hartua izan zelako.

— Badakit, jakin, badakit –ihardetsi zion Abadeak ere irribarretsu–. Eta zuk badakizu zein anaikiro hartu izan zituen gure baldernak espiritualak, hauen gainera Aitasantuaren sumina erori zenean. Ez naiz soilik Ubertinoz ari, beste anaia anitzez apalago batzuetaz ere ari naiz, hauetaz gutti jakiten baita, eta agian gehiago jakin behar

1687Gurbil: (H. “circunspecto”)
1688Izu-ñabardura: (H. “matiz de terror”)

litzateke. Izan ere, sarritan frantziskotarren soinganekoz jantziriko iheslariek[1689] gure artean aterpe bilatu ukan dute. Geroago jakin dudanez, haien bizimodu arazotsuak[1690], garai batez, dultzindarrengana hurbilduxe ei zituen.

— Hemen ere bai?

— Hemen ere bai. Benetan guti ezagutzen dudan zera bat agerrarazten ari natzaizu, eta, dena dela, salatzeko nahikoa ez. Baina abadia honetako bizitzaz ikertzen duzunez, gauza batzuk jakin ditzazun on dukezu[1691]. Honela bada, nire susmoa (kontuz, entzun edo igarri dudana oinarri duen susmoa) gure sehiburuaren bizitzako zati ilun batetik datorkit; etorri ere duela aspaldi frantziskotarren exodoari jarraikiz etorri zen.

— Sehiburua? Remigio da Varagine dultzindarra ote? Nik ezagunak ditudanetan izakirik otzanena eta gure andere txirotasunagatik ardurarik txikirrena duena iruditzen zait... – Gilenek.

— Eta, zinez[1692], ezin aurpegira ezer bota[1693] niezaioke, eta haren zerbitzu onakatik eskerrak zor dizkiot, erkidego

1689Iheslari: (H. “transfuga”)
1690Arazotsu: (H. “azaroso”) (N) (?)
1691On dukezu: (H. “conviene”(
1692Zinez: (H. “en efecto”)
1693Aurpegira bota: (H. “reprocharle”)

guztiak aipu ona emaiten[1694] baitio. Alta bada, hauxe diot uler dezazuntzat zein erraz aurki daitekeen loturarik fraideen eta *fraticelli*en artean.

— Berriz ere zure bikaintasun hori ez da zuzena, oker dago, hitz hau erabiltzea zilegi baldin balekit –eten zion Gilenek–. Dultzindarrez mintzo gara, ez *fraticelli*ez. Haietaz nahi den zernahi esan daiteke (nortaz mintzatzen den ere jakiteke, askotarikoak baitira), odolkoiak direla esan ezik. Jauki[1695] ahal dakieke, gehienez, espiritualek neurritsuro[1696] eta Jainkoari dioten maitazarre zintzoz aldarrikatu zutena, haiek zentzutasun[1697] handirik bage gauzatu edo agiarazi[1698] dutela, eta honela izanik batzuen eta bestetzuen artean dagoen muga argal[1699] xamarra dela onar dezaket.

— *Fraticelli*ak heretikoak dira, baina! –erauntsiz eten zion Abadeak Gileni mintzoa–. Kristoren eta apostoluen txirotasunaren tesia ontzat emaiten dute, eta dotrina hau onartzekotan ez banago ere, iskilu ona deritzot avignondarren harrokeriari aurka egiteko. *Fraticelli*ek

1694Aipu ona eman: (H. “reconocimiento”) (N) (?)
1695Jauki: (H. “reprochar”) /...
1696Neurritsuro: mesuradamente
1697Zentzutasun: sensatez
1698Agitu – Agiarazi: hacer que suceda, hacer efectivo (N)
1699Argal: (H. “tenue”)

dotrina horretatik ondorio egingarria[1700] idokitzen dute, haretara, matxinada zilegitzen[1701] dute, arpilaketak zein ohituren gaiztaraztea[1702] orobat

— Zein *fraticelli*, ordea?

— Guztiak, oro har. Ezin aipatuzko krimenez lohitu direna badakizu, ezkon-bizitza ez dute onartzen, badakizu, inpernua dagoela ukatzen dute, sodomia jaukitzen[1703] dute, bogomildarren heresia besarkatzen dute, bai Bulgariako *ordo*koa[1704] bai Drygonthieko *ordo*koa...

— Mesedez, ez nahas gauza ezberdinak! *Fraticelli*ez hitz egiten duzu, *patariarr*ez[1705], *valdotarr*ez[1706], *kataro*ez, eta hauen artean Bulgariako *bogomil*darrez eta Dragovitsako heretikoez, guztiok berdinak balira bezalaxe!

— Badira –esan zuen Abadeak, zakarto–, badira, izan, heretikoak direlako, eta munduko ordena zibila bera galbidean ezarten dutelako, are inperioko ordena bera ere zuk, itxuraz, defedantzen duzuna. Duela ehun urte baino

1700Egingarri: (H. “práctico”)
1701Zilegitu: (H. “legitimar”)
1702Gaiztarazi: (H. ”pervertir”)
1703Jauki: (H. “cometer”)
1704Ordo: Elizako liburu bat.
1705Patariar: patarino (Sekta bat)
1706Valdotar: valdenses (Sekta bat, Valdo abizeneko batek irazana)

gehiago, Arnaldo da Bresciaren atzetikoak[1707] handikien eta kardinalen etxeei su emaiten ibili ziren, hauxe Lonbardiako *patariar* heretikoen emaitza. Heretiko haien istorio lazgarriak dakizkit eta Eisterbach-eko Zesario-renetan irakurri ukan ditut. Veronan, Gedeon Deuneko kalonjea, Everardo, ohartu zen behin bera arrotz zegoen etxeko jauna gauoro emaztearekin eta alabarekin jalgiten zela. Hiruotarik bati galdez nora joaiten ziren eta zer egitera, eta zatoz eta ikus erantzun zion, eta haiei jarraiki zitzaien lur azpiko etxe handi bateraino, sexu bietako lagunak elkarturik zegozeneraino. Isilaldi betean, heretiko batek biraoz jositako hitzaldia egin zuen, haien bizitzak eta haien azturak[1708] ustelarazi[1709] nahiaz. Gero, kandelak itzalita, nor bere ondoko emakumearen gainera igo zen, hala emazte legezkoa izan nola emazteki ezkongea izan berdin, alarguna izan edota neskutsa izan, etxandere bezala neskame, berdin. Eta are areago (are gaiztoago! Jaunak barka nazala honen gai izugarriez mintzatzeagatik!) alabekin eta arrebekin nahasi baitziren! Hau guzti hau ikusirik, Everando gazte kaskarin[1710] eta lizunkoi[1711], alegia eta[1712] ikasle, ez dakit bere

1707Atzetiko: secuaz (Jarraikari...)
1708Aztura: hábito, costumbre
1709Ustelarazi: corromper
1710Kaskarin: (H. “frívolo”)
1711Lizunkoi: (H. “lujurioso”)
1712Alegia eta…: fingiendose

etxeko jaunaren alabarengana edo beste neskaren batengana zen eta kandelak itzalitakoan harekin bekatu egin zuen. Zoritxarrez, halako bilkuretara joaiten izan zen, urtebete baino gehiagoz. Egun batez, harako maisu harek gazte hari buruz, bilkura haietan ondo ikasten zuela esan zuen eta laster hasiberriei irakasteko gai izango zela adiarazi zuen. Orduan, bai, orduan zen ohartu Everando zein amildegitan erorita zegoen. Orduan, harako haretara heresiak erakarten zuelako joaiten ez zela, hau da, neskek erakarten zutelako baizik, esanez liluramendu haretatik onik ateratu ahal izan zen. Iraitzi[1713] egin zuten. Baina halakoa, badakusazu, da heretiko, *patariar*, kataro, joakindar, zurri[1714] orotako espiritualen legea eta biziera. Eta ez da zertan harritu hala den: ez dute haragiaren berpizkundea sinesten, ez gaiztoen zigortzeko inpernua ere, eta zer edo zer egin daitekeela, zigorgeki[1715], uste dute. Hala da[1716], euren buruari *catharoi* esaten diote, hau da: aratzak[1717].

— Abbone, bakarturik bizi zara, abadia santu eta jaukal[1718] honetan, munduko dongekeria[1719] orotatik urrun. Hirietako

1713Iraitzi: expulsar
1714Zurri: calaña (?)
1715Zigorgeki: impunemente (zigor+ge+ki) (N) (minorti?)
1716Hala da: (H. “en efecto”)
1717Aratz: puro, limpio, casto
1718Jaukal: (H. “esplendida”)
1719Dongekeria: (H. “iniquidad”) (don+ge+keria – Garibai)

bizimoldea zuk uste baino askoz askotarikoagoa da eta, dakizun bezala, okerrean nahiz makurrean ere mailak badira. Lot baino bere herrikideak bekatariago izan ziren, Jaungoikoak igorri aingeruez ere burubide edo pentsamendu likitsak ukan baitzituzten, eta Petiriren traizioa ez zen deus Judasenaren aldean; honela da, bata barkatua izan zen, bestea ez. Ez dezakezu pentsa *patriarr*ak eta kataroak gauza bera direnik. *Patriarr*ek ohituren edo azturen aldatzeko mugimendua beti Eliza ama santuaren legeen barruan egin zuten. Elizgizonen bizimodua hobetu nahi ukan zuten beti.

— Bada, apez ahatsek[1720] emaniko sakramentuak hartu behar ez zirela esanik...

— Horretan oker egin zuten, dotrinako oker bakarra, ordea. Zeren, haiek ez baitzuten inoiz Jaungoikoaren legea aldatu nahi ukan.

— Baina Arnaldo da Bresciaren prediku p*atariarra*k, Erroman, duela berrehun urte baino gehiago, nekazariak[1721], osteka[1722], handikien eta kardinalen etxeak kiskaltzera bultzatu zituen.

1720Ahats: (H. “impuro”) (Ezaratz ? -(N)- Ezordu, ezgarai, ezleku...)
1721Nekazari: (H. “campesino”)
1722Oste: (H. “turba”) (Oste, multzo, mordo, andana, taldetzar...)

— Arnaldok hiriko buruak bere berriztatze-mugimendura erakarri nahi ukan zituen. Haiek ez zitzaizkion jarraiki. Txiroek eta behartsuek[1723], aldiz, bai, aditu zioten. Hauek-e, haren deia suminez hartu bazuten, hiria ustelkeriatik aterarazteko xedez, erantzunkizuna ez zen berarena.

— Hiria beti ustela da.

— Hiria gaur egun Jaungoikoaren herria bizi den lekua da, eta zu eta gu herri horren zainak gara, bazkatzaileak[1724]. Ahalkeizunaren[1725] eremua da, prelatu aberastuak herri behartsuari eta gosetiari onbidea[1726] predikuz irakasten dion lekua. *Patriarr*en asalduak[1727] hortixe, egoera horretatixe datoz. Mingarriak, bai, ulergaitzak, ez. Kataroak besterik dira. Ekialdetiko heresia da, Elizaren dotrinaren kanpotikoa. Ez dakit egiaz egozten[1728] zaizkien krimenak jauki ote dituztenentz[1729]. Ezkon-bizitzari uko egiten diotena badakit, inpernurik ez dagoela diotena ere bai. Ene buruari galdetzen diot ea ez ote den haien aburuongatik ez bestegatik

1723Behartsu: (H. “desheredado”)
1724Bazkatzaile: (H. “pastor”)
1725Ahalkeizun: (H. “escándalo”)
1726Onbide: (H. “virtud”)
1727Asaldu: (H. “desordenes”)
1728Egotzi: (H. “imputar”)
1729-nentz: -n ala ez.

(arbuiagarriak, noski) haiei egiten zaien jazarpena, gezurrezko egozte ugariren zioa.

— Esango ote didazu, bada, kataroak *patriarr*ekin nahasi ez zirela eta biak ala biak deabruaren agerpen beraren askotariko aurpegietarik bi baizik ez direla?

— Nik hau diot: heresia horietarik heuragi[1730], defenditzen dituzten dotrinak gora-behera, jende xehearen[1731] artean arrakastatsuak dira, zergatik eta bestelako bizitza bat ahal dela gogora ekarten diotelako. Eta, oro har, jende xeheak dotrinaz beredin ez dakiela diot. Eta jende xeheak sarri kataroen predikuak *patriarr*enekin nahaspilatu izan dituela diot, eta azken hauena, oro har, espiritualenekin. Jende xehearen bizitza, Abbone, ez du jakintzak argitzen, ez bereizpenak[1732] egiteko sen[1733] zorrotzak ere, berauek gu lako gizon jakintsuen zentzuak eta zantzuak baitira. Gainera, bizitza hori gaisotasunak eta txirotasunak mugatua da, eta hau guzti hau era ulergarrian adiaraztea etxakintasunak eragozten dio. Maiz, jende xeherik askorentzat, heretiko talde bati atxikitzea haren etsipena oihukatzeko modu, beste edozein moduren antzeko modu bat besterik ez da. Zeinbait

1730Heuragi: asko, beredin, anitz, ugari, “dexente”...
1731Jende xehe: (H. “los simples”) (?)
1732Bereizpen: distinción (Bereizkuntza...)
1733Sen: sentido, sensatez (Zentzu...)

kardinalen etxeari su emaitea apezen biziera hobetu nahi delako izan daiteke, edo honek predikatzen duen inpernua ez dagoela uste delako. Baina mundu honetako inpernua badelako erretzen da beti, eta guk zaindu behar dugun artaldea, gizaldea alegia, honetan bizi da. Zuk ongi dakizun bezala, haiek ez dute Eliza bulgariarraren eta Liprando apezaren jarraikitzaileen artean bereizten jakin, eta usu inperioko agintariek eta aldekoek ere ez dute espiritualen eta heretikoen artean bereizpenik egiten jakin izan. Ez gutitan *ghibellin*[1734] taldeek, beren borroka politikari ondo etorri izan zaiolako, kataroen inguruko herri mugimenduak sustatu[1735] ukan dituzte. Gaizki jokatu zutela deritzot. Geroago jakin dudanez, sarritan talde horiek berek, euren etsai arriskugarri eta artege, jende «xeheegia» nonbait, hauek suntsitzearren, batzuen heresiak besteei egozten zizkieten, eta azkenean ziren guztiak su-metara bultzatzen zituzten. Neronek, zin degizut Abbone, handi-handirik[1736], neure begi biez, bizitza oneko gizonak, txirotasun eta araztasunaren aldeko zintzoak ikusi ditut, baina apezpikuen izterbegiak[1737] zirelako, laikoen agintepera[1738] emanak izan

1734Ghibellin: (H. “gibelinos”)
1735Sustatu: (H. “apoyar”)
1736Handi-handirik: en persona, sin más (ni más)
1737Izterbegi: etsai, arerio (Ezker begitik ikusia?? -N-)
1738Laikoen aginte: (H. “brazo secular”) (Herri-agintaritza)

zirenak, berau inperioaren zein hiri askeen zerbitzuko izan berdin, eta salaketa hauxe: sodomia eta sexu-nahaskeria[1739]; eta hauek zeharo gaitzesgarriak diren arren salatutakoek eginak ez ziren, beste zeinbaitek, heldubada, eginagatik ere. Jende xehea hiltzegirako abere da heuragitan[1740]: etsaien ahalgoa ahuldu nahi denean erabilia izan ohi da, eta haren beharrik ez denean, hil.

— Beraz, hala, – Abadeak multxur antxo–, Dultzino eta bere zoroen artean, eta Gherardo Segalelli eta hiltzaile zital haien artean halaber, besterik ere bazen, hots, kataro gaiztoak edo *fraticelli* onbidetsuak, bogomilo sodomitak, "bilkibelariak"[1741] alegia, edo *patariar* berriztatzaileak. Esango al didazu, bada, Gilen, zuk, heretikoez dena dakizun horrek, zerorrek ere haietariko iruditzeraino, egia nork duen?

— Sarri ez batak ez besteak –esan zuen goibelkiro[1742] Gilenek.

— Ikusten?, zerorrek ere ez dakizu bereizten honako edo harako heretikoen artean. Nik, behinik behin, neurri edo izari bat badut: Heretikoak Jaungoikoaren herria jaurten

1739Sexu-nahaskeria: (H. "promiscuidad sexual")
1740Heuragitan: ugaritan, askotan, sarritan...
1741Bilkibelari: sodomita (Larr.)
1742Goibelkiro: (H. "con tristeza")

duen ordena galbidean ezarten dutenak dira. Eta ordena hori bermatzen didalako inperioa aldezten dut. Eta Aitasantuaren aurka dihardut, botere espirituala hirietako gotzainei emaiten dielako, eta hauek ordena hori indarrean iraunarazteko gai izango ez direlako, merkatariekin eta elkarteekin bat eginak baitira. Guk mendeetan ordena horri eutsi ukan diogu. Heretikoei buruz ere badut izari bat, arau bat, eta Arnaldo Amalricok Citeaux-eko abadeari erantzun ziona da, labur bilduz, Beziers-eko herritarrei zer egin behar zitzaien, hiri guztia heretikoa zen susmoa zegoela eta: «Hil itzazue guztiak, Jainkoak bereak zein diren bereizten jakinen du eta».

Gilenek begiak apaldu zituen eta une batez isilik egon zen. Gero, honela:

— Beziers hiria hartu zuten, eta gutarrek ez zuten deus bereizi, ez duintasun, ez sexu, ez adin, eta doi-doi hogei mila lagun hilarazi zituzten. Hilketaz gero, hiria arpilatu eta kiskali zuten.

— Gudua santua izanagatik ere gudua da.

— Gudu santua gudua da. Agia honegatixe ez litzateke gudu santurik izan behar. Alta bada, zer diot nik?, Ludovikoren

eskubideak defendatzera etorri naiz eta. Italia larrutzen[1743] duen bitartean. Ni ere batzuen arteko elkartze-joko[1744] bakan baten barruan hesiturik[1745] nago. Bakana espiritualen inperioarekiko bakundea[1746]; bakana Marsiliorekin inperioak duena, harek burujabetza herriarentzat galdatzen baitu; bakana gu biona, gure helburu eta gure azturetan honen ezberdinak garelarik. Baina elkarrekiko bi ataza[1747] ditugu eginkizun. Bata, bilkuraren arrakasta, bestea, hiltzailea nor den asamatzea. Saia gaitezen, bada, bakean aurrera eroaiten.

Abadeak besoak zabaldu zituen:

— Emaidazu bakearen musua, anaia Gilen. Zure jakituria handia dela eta, luzaro solasta gintezke, bai teologia bai moral inguruko arazoez. Honela ere, ez albaikintez[1748] eror solas hutsezko tentaldian, Parisko maisuek egin ohi bezala. Egia duzu, badugu garrantzi larriko ataza eginkizun, eta elkar hartuta jardun behar dugu. Baina gai hauetaz hitz egin badut, egin dudanez, nolabaiteko lotura dagoela uste dudalako da, ulertzen?, litekeelako lotura, edo beste norbaitek lotura hori lotu ahal dezakeela, gertatu diren

1743Larrutu: (H. “arrasar”)
1744Ekartze-joko: (H. “juego de alianzas”)
1745Hesitu: (H. “atrapado”)
1746Bakunde: alianza
1747Ataza: tarea
1748Albaikintez: (H. “no debemos”) (Preskriptiboa, aholku-gindua)

krimenen eta zure anaien eritzien artean. Horregatik ohartarazi zaitut, hots, avignondarren aldetiko zein edo zein susmo edo zaio[1749] galaraz[1750] dezagungatik.

— Ez ote nuke pentsatu behar zure bikaintasunak[1751] gainera nire ikerketarako bide bat iradoki[1752] didala? Uste ote duzu, arestiko gertaeren sakonean inolako istorio ilunik dagokeen, fraideren baten iraganaldiko heresia zeinbaiti loturik?

Abadea lipar batez isil-isila eta Gileni so, begitarteak inolako zerarik erakutsi bagerik. Gero, esan zuen:

— Gai ilun honetan inkisidorea zu zaitut. Zerorri dagokizu susmoak biltzea, zuzenak ez izaiteko arriskua ere harturik. Ni hemen ororen[1753] aita baino ez nauzu. Eta, gehiago esango dizut: nire anaikide hauetarik baten iraganaldiak halako susmo sendorik ekar zezakeen jakin izan banu, nik neronek nukeen halako belar gaiztoa erauzi. Dakidan guztia esan dizut. Ez dakidana, bidezko denez, zure ernetasunari esker agerraraztea bidezko da. Dena dela, ez utzi niri jakitera emaiteke, eta niri aurren-aurrenik, gero!

Agur egin eta elizatik irten zuen.

1749Zaio: (H. “insinuación”) (Susmo… -recelo, sospecha...)
1750Galarazi: ekidin, saihestu, eragotzi
1751Bikaintasun: sublimidad (?)
1752Iradoki: sugerir
1753Oro: (H. “común”)

— Istorio hau, Adso maite, katramilatzen[1754] ari duk –esan zidan Gilenek ilunkara[1755]–. Eskuizkribu baten atzetik goazak, jakin-min handiegiko lekaide batzuen zirikadak[1756] jasaiten ditiagu, eta beste zeinbait fraideren jokaera lizunegiez arduratzen gaituk, eta, bat-batean, gero eta garbiago, beste lorratz[1757] bat agertzen zaiguk, guztiz bestelakoa. Sehiburua, beraz… Eta honekin piztia izugarri Salbatore etorri zuan… Baina orain atseden hartzera joan behar diagu, gau osoan lorik ez egitea erabaki diagu eta.

— Beraz, oraindik liburutegira gauean sartzea duzu gogoan? Uste al duzu sehiburuaren istorio hori Abadearen susmo hutsa dela?

Gilen erromesen aterpetxe alderantz ibili zen. Atalasera heldu eta geldi, eta berriro lehengo hizpidera:

— Sakonean; Abadea Adelmoren heriotza iker nezan eskatu zitzaidaan, bere lekaide gazteen artean zerbait ilun gertatzen ari zela pentsatzen zuenean. Orain, berriz, Benantzioren heriotzak beste susmo batzuk zakartzak. Agian, Abadeak

1754Katramilatu: embrollar
1755Ilunkara: (H. “con gsto sombrío”)
1756Zirikada: (H. “diatriba”)
1757Lorratz: (H. “pista”) (Rastro...)

misterio honen gakoa liburutegian dagoela usnatu[1758] dik, eta honetaz iker dezadan nahi ez dik. Eta, bide batez, sehiburuaren lorratza eskaintzen zidak, nire arreta Eraikinetik alderatzeko asmoz, hain zuzen ere.

— Baina, zer dela eta ez luke nahi…?

— Ez galdetu gehiegi. Abadeak hasieratik liburutegia ukitu behar ez dela esan zidaan. Berak jakinen dik. Beharbada, bera ere zerbaitetan nahasita zagok, hasieran Adelmoren heriotzarekin loturik uste ez zuen zerbaitetan, eta orain ahalkeizuna zabaldu dela zakusak eta bera ere zipriztindurik[1759] gerta litekeela. Eta ez dik egia agertzerik nahi, edo nik agerrarazterik behintzat ez…

— Beraz, bada, Jaungoikoak alde bat utzitako leku batean bizi gara –esan nuen, bihotzilik[1760].

— Ezagutu al duk bat Jaungoikoa bere gogara[1761] dagoenik? –galdetu zidan Gilenek, bere soinaren goiko gainerean niri begira.

Gero, atseden hartzera joan nendin agindu zidan. Etzaterakoan, gogoetan ari eta nire aitak mundua ibiltzera

1758Usnatu: (H. “intuir”)
1759Zipriztindu: (H. “implicado”)
1760Bihotzildu: (H. “desanimado”)
1761Bere gogara: (H. “a sus anchas”)

bidali behar ukan ez ninduela pentsatzen nuen, nik uste baino nahaspilatuagoa baitzen. Gehiegi ikasten ari nintzen. *Salva me ab ore leonis*[1762] –otoitz egin nuen, loak hartu artean.

BIGARREN EGUNA

ARRATSEKOEZ GEROKOA

1762«Atera gaitzazu lehoiaren ahotik».

Atal honetan, laburra izan arren, Alinardo gurgarriak labirintoaz eta bertora sartzeko eraz gauza interesgarri batzuk azaltzen ditu.

Abaria egiteko ordua heltzear zegoela esnatu nintzen. Logale eta guztiz itzarri bage, izan ere, egunezko logura haragi-bekatua bezalakoa da: zenbat eta iraunkorrago, orduan eta irritsa handiago, baina hortik sortzen den sentsazioa ez da zorionezkoa, alderantziz, ase bete eta ase ezinazkoa baizik. Gilen ez zen bere gelan; aspaldixko jaikita bide-zegoen. Hara-horra batzuk eginda, Eraikinetik atera zenean jarrugi nuen. *Scriptorium*ean izan zela esan zidan, liburu-zerrenda orrikatzen[1763] eta fraideen lana ikusten, beti ere Benantzioren mahaira hurreratu nahian, gehiago arakatzearren. Hala eta guztiz ere, hura dela hori dela, orrialde haietan begirik ezarri eta kusan[1764] ari ezinean geratu zela, hango haiek guztiek oztopo eginik eta estakuru[1765] emanik. Lehenik, Malakias gerturatu zitzaiola, miniatura oso-oso eder batzuk erakustera. Gero, Bentzio: aitzakia-maitzakia, ondora eta ezer egiten utzi ez zuela.

1763Orrikatu: hojear
1764Kusan: (H. “curiosear”) (Kus--kuskusean)
1765Estakuru: aitzakia, txutxu...

Geroago, ikuskatzen aurrera nahi zuenean, Berengario hurbildu eta inguru-minguru, honetarako zein horretarako beti laguntzeko prest, eta trabu.

Azkenean, Malakias, nire maisua Benantzioren gauzak ikusi eta aztertu nahian tematsu ari zela eta, argiro mintzatu zitzaion, esanez, hildakoaren orrietan miatzen hasi baino lehen, agian Abadearen baimena beharko zuela; bera ere, liburuzaina izan arren, ezer egin aurrez, begiruneagatik eta diziplinagatik, hala egin zalea zela, eta dena dela ere, mahai haretara inor ez zela hurbildu, Gilen eskatu bezala, eta inor hurbilduko ez zela Abadeak haizutu[1766] arte. Gilenek Abadia osoan ikertzeko baimena zuela gogorarazi zion, Abadeak emana hain zuzen; Malakiasek, berriz, maltxur, galde egin zion, ea Abadeak baimen eman ote zion *scriptorium*etik ere bere kasa ibil ahal zedin, edo, Jainkoari nahi ez dakiola, liburutegian barrena. Gilenek argi ikusi zuen, alta, Malakiasekin ika-mika egiteko egokierarik[1767] ez zela. Nahiz eta, harako zerak zertu, hots, Benantzioren orrien inguruko gora-behera haiek nire maisuarengan lehengo jakin-mina gutitu ordez gehitu eta areagotu baino ez zuten egin. Baina gauaz hara berriro joaiteko asmo sendoa

1766Haizutu: permitir (Haizu, sori, zilegi)
1767Egokiera: (H. “No era cuesión”) (Abagune, ereti, aukera...)

zuenez, nola jakin ez arren, ez zuen inolako iskanbilarik nahi izan. Nabari zuen, hala ere, menddeku[1768] hartu nahia nolabait, eta, egiaren bila ibili ez balitz, haren jokaera edo egikera, beharbada, temati iruditu zatekeen, beharbada txarresgarri[1769] ere bai.

Jatokira sartu aitzin, kalostrapetik osteratto bat egin genuen, beste bat, loguraren lainoa arratseko egurats[1770] hotzean barreia[1771] zekigun. Orduan oraindik, fraide batzuk zebitzan, behondatzean[1772]. Kalostra aldean zegoen loretegian, Alinardo da Grottaferrata begiztatu genuen; ehun urteko irudi ha ikusi genuen, ordurako ahuldua, ezdeusa, egunaren zatirik gehiena landareen artean emaiten zuena, elizan otoitzetan ez zegoenean. Hotzarentzako soraio[1773] zirudien, arkupearen kanpoaldean eserita.

Gilenek agur-hitz batzuk egin zizkion eta agurea alaitu zen, antza, norbait mintzo zitzaiola eta pozez.

— Zohardi[1774] dago –Gilenek esan zion.

— Jaungoikoari esker –agureak erantsi zuen.

1768Menddeku: (H. “desquite”)
1769Txarretsi: (H. “reprobable”)
1770Egurats: aire atmosférico, oreo
1771Barreiatu: (H. “disipar”) (Aboe(ta)tu ?)
1772Behondatu: (H. “meditando”) (?)
1773Soraio: insensible (Sor)
1774Zohardi: cielo sereno, día claro

— Goia zohardi, bai, lurrean, aldiz, iluna. Ongi ezagutzen zenuena Benantzio?

— Zein Benantzio? –zaharrak galdez erantzun, eta sarri haren begietan argi bat izeki zen–. Ha, hil zen mutila. Piztia abadiatik dabil...

— Zein piztia?

— Itsasorean datorren piztia… Zazpi buru, hamar adar eta adarretan hamar diadema eta buruetan hiru birao-izen. Piztiak lehoinabarra dirudi, hartz-oindun eta lehoi-ahodun… Nik ikusi dut.

— Non ikusi duzu? Liburutegian ote?

— Liburutegia? Zerarren? Antzinadanik ez naiz joan *scriptorium*era, eta inoiz ez dut ikusi liburutegia. Inor ez da joaiten liburutegira. Liburutegira igaiten zirenak ezagutzen nituen...

— Nortzuk? Malakias, Berengario?

— Oi, ez... –agurea ahots lakarrez barreka ari–. Lehenago. Liburuzaina, duela heuragi urte Malakias baino lehenago zegoen liburuzaina...

— Nor zen?

— Ez dut gomutetan, hil zedin[1775], Malakias gazte-gazte zelarik hil zedin. Eta Malakiasen maisu zen ha baino lehenago zegoena, eta ni gazte nintzela liburuzainaren laguntzaile zen gaztea… Nik, ostera, ez nezan inoiz liburutegia zapal. Labirinto, galmendi.

— Liburutegia labirinto ote dea?

— *Hunc mundum tipice laberinthus denotat ille* –errezitatu zuen sorgorturik[1776] senton[1777] zahar harek–. *Intranti largus, redeunti sed nimis artus*[1778]. Liburutegia galmendi handia da, mundua labirinto den ber[1779]. Haretara sartzen zarenean ez dakizu irtengo duzun ala ez. Ez da beharrezkoa Herkulesen zutabeen haustea.

— Beraz, ez dakizu liburutegira nola sartzen den, Eraikineko ateak itxirik dagozenean?

1775 Zedin: (H. Ubertinok aoristoa darabil – Hil zen : hil zedin. Zuen: zezan… Behialako hizkera zaharra.)

1776 Sorgortu: (H. “absorto”)

1777 Senton: anciano, anciano sabio de la antigüedad

1778 «Labirinto harek mundu hau berebiziz islarazten du. Sartzen denarentzat zabal, irteten duenarentzat mehar».

1779 Ber : en la medida que, igual que / …
5 Berebiziz (H. “típicamente”) (Berebiziko) (N) (?)
6 Islarazi: (H. “denotar”) (Islatu+arazi) (N) (?)

— Ho, bai! –zaharra barrez–. Askok daki. Hezurtegitik igazi[1780] ahal da. Hildako fraideak zelatan[1781].

— Hildako fraide horiek dira, bada, zelatariak, eta ez gauez argi batekin liburutegian barrena ibiltzen direnak?

— Argi batekin? –Agureak harritua irudi zuen–. Inoiz ez dut horretaz harean entzun. Fraide hilak hezurtegian dautza, hezurrak hilerrirean apur-apurka jaisten dira eta han biltzen dira igazlekua[1782] zaintzearren. Ez duzu ikusi hezurtegira sartzeko kaperan dagoen aldarea?

— Transepto[1783] osteko ezkerraldean dagoen hirugarrena da, bai?

— Hirugarrena? Izan daiteke. Aldareko harria mila gorpu-hezurrez landuta dadukana da. Eskuineko laugarren burezurra[1784]; begiak sakatu… eta hezurtegian zagoz. Baina ez gara joaiten, ni ez naiz inoiz joan. Abadeak ez du nahi.

— Eta piztia? Non ikusi duzu piztia?

— Piztia? Ha, Antikristo… badator, milurtea bete da, itxaraiten diogu…

1780Igazi: irago, iragan, zeharkatu (?)
1781Zelatan: begira, vigilando
1782Igazleku: igazgu, iragangu… (H. “pasadizo”) (Igazi: pasar / colar...)
1783Transepto: elizan zeharreko habearte gurutzea egiten duena
1784Burezur: calavera

— Milurtea duela hirurehun urte bete zen, eta orduan ez zen etorri…

— Antikristo ez ohi da mila urteak betetzean etorri. Mila urte beterik zuzenen[1785] erresuma hasten da, geroago Antikristo agertzen da zuzenen okertzera, eta geroago azkenengo borroka egingo da.

— Baina zuzenak mila urtean errege izanen dira –Gilenek–. Edo Kristo hilaz gero lehenbiziko milurtearen hasiera arte errege izan dira, eta orduan hain zuzen Antikristok iritsi behar zuen, edo oraindik ez dira errege izan eta beraz Antikristo urrun-urrun dago.

— Milurtea ez da zenbatzen Kristoren heriotzadanik, Konstantinoren dohaintzadanik[1786] baizen. Mila urteak orain betetzen dira.

— Beraz, orain da amaitzen zuzenen erresuma?

— Ez dakit, dagoeneko ez dakit… Nekaturik nago. Zenbaketa zaila da. Liebanako dohatsuak egin zuen, galde egiozu Jorgeri, gaztea da, oroimen ona du… Aldiak umoak[1787] dira. Ez duzu entzun zazpi turutena?

1785Zuzen: (H. “los justos”)
1786Dohaintza: donación (Konstantinok Aita Santuari eman ziona)
1787Umo: heldu, zori

— Zergatik zazpi turuta?

— Ez dizute esan nola hil zen beste mutila, miniaturagilea? Lehenengo aingeruak lehenengo turutatik egin du putz eta txingorra suagaz odolaz nahasia egin du. Bigarren aingeruak bigarren turutatik egin du putz eta itsasoaren herena[1788] odol bihurtu da… Bigarren mutila ez zen hil, bada, odol-itsaso batean? Kontuz hirugarren turutagaz! Itsasoan bizi diren izakietarik herena hilgo da. Jaungoikoak zigortzen gaitu. Abadiaren inguruko mundu guztia heresiaz kutsatuta dago, esan didatenez, Erromako jargoian Aitasantu maltzur bat, dongea omen dago, ostiak hil-aztikeria[1789] egiteko usatzen ei du eta bere itsas-sugeei[1790] jaten emaiteko… Eta hemen bada norbait debekua[1791] hautsi eta labirintoko zigiluak eten dituena.

— Nork esan dizu?

— Nik entzun dut, dena txutxu-mutxu, eta denak abadiara bekatua sartu dela dio. Garbantzurik al dadukazu?

Niri egin galderak harri eta zur utzi ninduen.

1788Heren: tercio (lauren bosten, hamarren...)
1789Hil-aztikeria: nigromancia
1790Itsas-suge: morena (arraina) (?)
1791Debeku: (H. “interdicción”)

— Ez, ez dadukat txitxiriorik –erantzun nion, durduzatua[1792].

— Hurrengoan ekarr niri garbantzuak. Ahoan edukiten ditut, begira nire haginik bageko ahoa, beratzen[1793] diren artean. Listua[1794] aterarazten[1795] dute, aqua fons vitae.[1796] Ekarriko didazu, bada, garbantzurik?

— Bihar ekarriko dizkizut –erantzun nion.

Loak hartu zuen, barren[1797]. Hantxe utzi genuen eta jatokirantz gu.

— Zer deritzozu esan digunari? –itaundu nion nire maisuari.

— Ehun urtedunen zoramen jainkozkoa gozatzen dik. Haren hitzetan zein egia zein gezurra neke duk asmatzen. Honela ere, Eraikinera nola sartu eta honetaz zerbait esan digula uste diat. Lehengo gauean Malakias agertu zen kapera arakatu diat. Harrizko aldarea zagok, bai, eta beheko aldean landuta hezurdura batzuk. Gauoz ikusiko diagu.

1792Durduzatu: (H. “confundido”) (Turbado, aturdido, vacilante...)
1793Beratu: bigundu, xamurtu, uxtertu
1794Listu: txistu, tu
1795Aterarazi: (H. “estimular”)
1796«ura biziaren iturria».
1797Barren: esaerari indar emaiteko baieztapen modu bat, Eibar aldekoa

BIGARREN EGUNA

KONPLETAK

Eraikinera sartu dira, ustebageko ikusketari[1798] bat jarrugi dute, nekromantzia-ikur batzuk zeduzkan mezu sekretu bat aurkitu, eta berehala itzalduko[1799] den liburu bat ediren, geroago, beste atalik askotan bilatuko dutena; eta hemen ez atzendurik[1800] utziko Gilenen betaurreko bitxien ebaskoa.

Abaria goibela eta isila izan zen. Benantzioren gorpua aurkitu zenetik hamabi bat ordu. Leku hutsari begira han guztiak, ebaska[1801]. Konpleta-ordua izan zenean, fraideak erreskadan korurantz, hiletako ahuku[1802] laso[1803]. Gu hantxe, habeartean ikusle, hirugarren kapera begitik kendu bagerik. Argia hitsa, ttikia eta, Malakias ilunbetik bere

1798Ikusketari: (H. “visitante”) (Explorador, espía...)
1799Itzaldu: desaparecer de la vista (Itzali...)
1800Atzendu: ahantzi, ahaztu
1801Ebaska: a hurtadillas
1802Ahuku: cortejo fúnebre
1803Laso: bezala, nola, antzera, gisa...

jarlekura agertu zenean, ezin ikusi izan genuen, doi-doi, nondik edo norean sartu zen. Halatan bada, itzalean geratu ginen, alboko habeartean, inork ikus ez gintzan ofizioa bukaturik hantxe geratuko ginela. Nire eskapularioan sukaldean abaritakoan[1804] hartua nuen argiontzia. Geroago piztuko genuen, gau osoan izekirik zirauen brontzezko hiruoin[1805] handiko garraz. Muki[1806] berria zedukan, eta olio ugari. Beraz, argi peiturik ez.

Aztoratuegi nengoen eginen genuenagatik, eta ez nion jaramon handirik egin errituari, eta bukatua zela ez nintzen konturatu, ia. Lekaideek txotinoak eraitsi zituzten eta aurpegia estalirik, baratz-baratz[1807], euren geletarantz joan ziren, ter-ter-ter[1808]. Eliza hustu zen, hiruoinekotik ateratzen ziren dirdaiek[1809] argiztatua.

— Goazen! –agindu zidan Gilenek–. Lanera!

Hirugarren kaperara hurbildu ginen. Aldareko oinarria benetan hezurtegia zen, irudiz: esku trebez landutakoa, hanka-ezur pila, burezur multzoak, betzulo

1804Abaritakoan: durante la cena (Bazkaritakoan, mezatakoan...)
1805Hiruoineko: trípode
1806Muki: mecha, pábilo
1807Baratz: lentamente, despacio
1808Ter-ter: en fila / despacio
1809Dirdai: (H. “resplandor”)

sakon hustuak, ikus eta nori edo nori sarrakio[1810] sartzeko modukoa. Gilenek ahots apalez Alinardok eginiko hitzak berrizkatu zituen (eskuineko burezurreko begiak sakatu). Sartu zituen hatzak betzuloetan, begitarte hezurruts[1811] eta berehala kirrinka[1812] lakar bat entzun genuen. Aldarea higitu zen, ezkutaturiko orpo[1813] baten gainean, eta gure aurrean irekigune beltz bat agertu zen. Argiontzia jaso nuen, eta maila batzuk ikusi genituen, hezeak[1814] estaliak. Jaistea erabaki genuen, aurretik, baina, ez eta bai aritu ginen, igazlekurako atea itxi edo ez itxi. Hobe ez, esan zuen Gilenek, zeren, itzultzean nola ireki ez baikenekien. Eta, bestalde, hantxe gu aurkituko gintuzten arriskua bazegoen, oren haretan batek edo batek mekanika hura berriz ere ibilarazi balu, nola sartu bazekielako izan zatekeen, noski, eta itxita aurkitu arren igazlekura sartuko zen.

Hamar bat mailan beheti jaitsirik, iragangu[1815] batera heldu ginen; alde banatan hilobi batzuk zeharretara[1816] ipiniak, geroago hainbat katakunbatan ikusiko nituenen antzera. Hura ni hezurtegi batera sartu nintzen lehenbiziko

1810Sarrakio sartu: beldurtu, izutu, ikaratu...
1811Hezurruts: (H. “descarnado”)
1812Kirrinka: chirrido
1813Orpo: (H. “gozne”)
1814Heze: (H. “humedad”)
1815Iragangu: pasillo / Igazleku, igazgu: pasadizo (N)
1816Zeharretara: (H. “horizontalmente”)

aldia, eta izu-lauorrian nengoen. Mendeetan lekaideen hezurrak hantxe ipiniak: lurpetik idokiz gero, hantxe metan ipini ohi zituzten, antza, haien gorpuak berriz ere moldatzen saiatzeke. Zeinbait hilobitan, alta, hezur ttikiak baino ez, beste zeinbaitetan burezurrak ez besterik, piramide antzera bata bestearen gainean ondo-ondo eratuak, ihaur[1817] ez zitezengatik edo; zinez, ikuskaria izugarria zen, izu eragingarria, gu aurrera eta gure argiontziak argi-itzalak marrazten baitzituen. Hobi batean eskuak baizik ez, esku mordoak[1818], eta haien artean eriak txirikordaturik, hatz hilen mordoiloa. Garrasi bat egin nuen, une batez, hilen toki haretan, bizidun bat ostendurik zegoela iruditurik, intziri[1819] bat eta itzalean higiketa[1820] azkar bat.

— Arratoiak –lasaitu ninduen Gilenek.

— Zer dagite hemen arratoiek?

— Irago, gu bezala, hezurtegitik Eraikinera, eta, beraz, sukaldera. Eta liburutegiko liburu goxoetara. Eta orain ulertuko duk zergatik den hain zorrotza Malakiasen aurpegiera. Bere egitekoak egunean bi bider hemendik

1817Ihaurri: (H. “desparramar”
1818Mordo: montón, rácimo,
1819 Intziri: txilio, marro, orro…
1820Higiketa: (H. “movimiento”) (Higitu, mugitu...)

iragaitera behartzen dik, ilunabarrean eta goizabarrean. Ez dik, bada, zeren barrerik egin.

— Baina, zergatik ebangelioak ez dio inon Kristok barre egin zuela? –galdetu nion, nahiz eta hala ote zen oso ziur ez egon–. Jorgek dioena egia ote?

— Heuragik[1821] itaundu ei ziok bere buruari Kristok barre egin ote zuenentz. Niri axola handirik ez. Nire ustez, Jainkoaren seme zenez, omniszientea zuan, hots, orojakile, eta, ondorioz, giristinook zer egin, egiten, eginen genuen bazekian. Iritsi gaituk, bada.

Halaxe[1822] zen, Jainkoari esker iragangua hantxe amaitu eta maila batzuk aurrean, eta haietan goiti ate bat bultzatu behar ukan genuen, zur gogorrezkoa, burdinaz gogorragotua, eta sukaldeko sutokiaren[1823] ostetik irten genuen, non zehazki eta *scriptorium*era zihoan zurubi kiribilduaren azpian.

Gorantz gindoazenean, goian zarata bat entzun uste izan genuen.

Lipar batez isilik geratu ginen, eta gero nik esan:

1821Heuragi: (H. “legiones”)
1822Halaxe: (H. “en efeco”)
1823Sutoki: (H. “chimenea”)

— Ezinezkoa da. Gu baino lehenago ez da inor sartu...

— Hori-i Eraikinera sartzeko bide bakarra hauxe dela uste badugu. Mendeetan gotorleku izan zuan, beraz, isilpeko beste sargu edo sarbide batzuk egon litezkek, ezagutua dugunaz gain. Igo gaitezen astiro. Ez diagu, baina, hara-horra[1824] ugari. Argia itzaliz gero ez zakikeagu nondik nora goazen; pizturik eramanez gero, berriz, goian dagoena konturaraziko[1825] diagu. Itxaropen bakarra: goian dagoena, baldin inor badago, gu baino are beldurtuago egoitea.

*Scriptorium*era iritsi ginen, hegoaldeko dorretzarretik. Benantzioren mahaia beste aldean zegoen. Gela handia eta hormaz horma zatika argiztatuz gindoazen. Beheko zelaian inortto ez egoitea zen gure itxaropena[1826], bestenaz leihoetatik argia ikusiko zuen eta. Mahaia bere onean zegoen, txukun, baina Gilenek, berehala makurtu, apaletan zegozen orriak aztertzearren, eta bat-batean haserredurazko hots bat egin zuen, heiagora bat.

— Ezer peitu[1827]? –galde nik.

1824Hara-horra: (H. “alternativa”)
1825Konturarazi: (H. “avisar”)
1826Itxaropen: (H. “confiamos”)
1827Peitu: (H. “falta”)

— Egun hemen bi liburu ikusi ditiat, bata grekozkoa. Hauxe peitu. Norbaitek eraman dik, eta iradu, arinik arin, zeren, larrutx bat erori.

— Baina mahaia begiratua[1828] zegoen...

— Bai. Norbaitek, eiki, oraintsu[1829] hartu dik. Agian oraindik ere hementxe zagok. –Itzal aldera bihurtu zen eta bere ahotsak oihartzun egin zuen zutabeen artean–: Hemen bazagoz, euzu[1830] arreta, kontuz!

Ideia ona iruditu zitzaidan: nire maisuak lehenttoago esan bezala, beti hobe da gure beldurtzailea gu baino beldurtuago egoitea.

Gilenek zoruan aurkitu larrutxa mahai gainean ipini zuen, eta haren gainera makurtu zen. Argi niezaion eskatu zitzaidan. Argiontzia gerturatu nuen eta orrialde bat ikusi nuen, erdia zuri eta beste zatia hizki ttiki-ttikiez estalia, oso nekez ulertu uste nituen hizkiak.

— Grekoa al da? –nik.

— Bai, baina ez diat ongi ulertzen –soingainekoaren barrutik betaurrekoak idoki zituen, sudur gainean jantzi eta

1828Begiratu(a): (H. “vigilada”)
1829Oraintsu: arestian, berriki(tan)
1830Euzu: ukan ezazu

larrutxaren gainera makurragotu zen–. Grekoa duk. Hizkia oso ttikia, nola-halakoa[1831]. Betaurrekooz ere nekez zarakurrat[1832]. Argi argiagoa behar diat. Gertura hakit…

Nire maisuak orria jaso eta begien aurrean zedukan. Haren gibelean jarri beharrean, eta argiontzia haren buruaren gainetik jaso beharrean, ene lelo hau[1833] haren aitzinean jarri nintzen. Albora nendin galdatu zidan eta higitzeaz, garraz[1834], orriaren ertza igurtzi nuen. Gilenek bultzada batez bazterreratu ninduen, eta larrutxa erre nahi ote nuen galdetu. Gero hots batzuk egin zituen. Orriaren goiko aldean ori-illun karako ikur hits batzuk ikusi nituen. Gilen argiontzia eskatu zitzaidan, eta orri ostetik hara-horra ibili zuen, garra larrutxari hurbilduz, berotzeko asmoz, baina ez igurtziteko kontuz. Guttika-guttika, esku ikusezin batek idatziz bezala «Mane, Tekel, Fares», orri zurian marrazten ikusi nituen, banan-banan, Gilenek hara-horra ibilarazi ahala. Sutatik atera keak orri ostea belzten zueino, zeinu batzuk agetu zitzaizkidan, inongo alfabetotakoak ez lakoak, hil-aztikeriakoak izan ezik.

1831Nola-halako: (H. “irregular”)
1832Zarakurrat: darakurt (Irakurten ari naiz)
1833Ene lelo hau: (H. “tontamente”) (El tonto de mí...)
1834Gar: llama

— Miragarri![1835] –hots egin zuen Gilenek–. Hau gero eta ernagarriago![1836] –baranoan[1837] so egin zuen, eta esan–: Hobe izango duk aurkikuntza hau itzalpeturik[1838] dagoen gure lekukide[1839] misteriotsu horren aurrean agertzen ez badugu, zer den jakin gurak jota ahal zagok eta… baldin hemen oraino badago…

Betaurrekoak erantzi eta mahai gainean utzi zituen. Gero larrutxa emeki-emeki[1840] biribilkatu[1841] zuen, eta soingaineko barruan gorde zuen. Ni, hura guztia ikusita, artean urduriturik nengoen eta azalpen eske hasiko nintzaion unean bertan, hara!, zarata zakar batek jo gintuen. Ekialdeko eskailera azpitik zetorrela zirudien, liburutegira igaiteko lekutik, hain zuzen.

— Gure gixona hantxe zagok, atzemak! –oihu Gilenek.

Eta biok alde haretaraxe jo genuen, dzart, hura azkar-azkar, ni ez hain, argia eskuan eta. Azantza[1842] entzun nuen, norbait behaztopa eta eror bezalako danbada; iritsitakoan

1835Miragarri: (H. “fantástico”)
1836Ernagarri: (H. “interesante”) (Excitante...)
1837Barano: inguru
1838Itzalpetu: bajo la sombra, escondido,
1839Lekukide: leku berean dagoen beste lagun bat. (H. “huesped”)
1840Emeki: (H. “con cuidado”)
1841Biribilkatu: enrollar
1842Azantz: zarata, danbada...

Gilen eskailerapean ikusi nuen zerbaiti begira. Estalki[1843] mordo handia zegoen, eta estalkiak burdinazko botoi[1844] handiez sendotuak, noizbait liburutzar batzuk eratzeko prestatuak, nonbait. Baina, une haretantxe beste zarata bat entzun genuen, non eta lehenttoago egon ginen lekuan bertan.

— Zein kokolo naizen! –oihu egin zuen Gilenek–. Azkar, Benantzioren mahaira!

Ohartu nintzen, ohartu, gure atzeko itzalpean ostendurik[1845] zegoen baterean batek liburu bat iraitzi zuela, aurtiki, gu, handixe alde eraginaz, alden[1846] gintezen.

Beste behin Gilen ni baino bizkorrago eta mahaira lehenago. Ni haren atzetik eta zutabeen artean ihes zihoan itzal bat erdikusi uste izan nuen, mendebaldeko dorretzarreko eskailera alderantz zihoana.

Ausardiak irazekita[1847], argiontzia Gileni eman nion eta itsu-itsuan eskaileran behera iheslariaren atzetik jauzi egin nuen. Orduantxe Kristoren gudari nintzela uste nuen, inpernuko legio guztien aurka borrokan, eta ezezagun hura

1843Estalki: (H. “tapas”)
1844Botoi: (H. “bullón”) (Liburu zaharretako estalkiak gogortzeko)
1845Ostendu: ezkutatu, gorde, altxatu
1846Aldendu: (H. “alejar”)
1847Irazeki: (H. “encendido”)

harrapatzeko grina sutsuaz nenbilen, nire maisuari haren opa egitearren. Ia-ia kiribil-zurubi haretan beheti guttik egin zuen ez bainintzen bilinbolaka[1848] amildu, nire soinekoaren hegalarekin hapurikaturik[1849] (zin dagit, ezen, hura izan zela niri bizialdi osoan fraide sartu izana damutu zitzaidan aldi bakarra!), baina berehalakoan –burubidea tximist baten antzo heldurik– nire etsaia ere oztopo beragatik pairatzen ari zelakoan lasaitu nintzen. Eta, gainera, liburu bat ostuta haren eskuak beterik egongo ahal ziren. Ia-ia sukaldera amildu nintzen, ogi-labearen atzera, eta orduantxe, gaueko zohardia zela eta izarren argiz, ataria hiski[1850] argiztatua baitzen, itzal iheskor bat begiztatu nuen, jatokiko atetik irtetean, atea gibelean itxirik. Hara jo nuen, jo, azkar asko, segundu batzuk galdu nituen irekitzeko eta sar eta so egin eta hara-horra eta ez nuen inor ikusi. Kanpoaldeko atea langaz itxirik zegoen. Atzera egin nuen. Itzal eta isil. Sukaldean argi izpi bat nabaritu nuen. Hormari itsatsi-itsatsi eginda joan nintzen. Leku bien arteko atalasean irudi bat agertu zen, argiontziz argiztatua. Oihu egin nuen. Gilen nuen.

1848Bilinbolaka: rodando
1849Hapurikatu: tropezar
1850Hiski: (H. “pálidamente”)

— Ez dago inor? Banian uste. Hori ez duk atetik ateratu. Ez dua hartu hezurtegirako igazbidea?

— Ez, hemendik irten du, nondik, ordea, ez dakit!

— Esan diat, bada, beste igazbide batzuk zagozak, eta alperrik bila. Heldubada, gure gixona oraintxe kanpoaldera ateratzen ari duk, nondibait, Eraikinetik urrunxko. Eta harekin nire betaurrekoak.

— Zure betaurrekoak?

— Dantzuan bezala. Gure gixonak ezin orria kendu ukan zidak, baina mahai ondotik iragaitean nire betaurrekoak jaso ditik, gogotsu[1851].

— Eta zerarren?

— Kokoloa ez delako. Entzun dik hizki hauetaz esan dudana, ulertu dik garrantzi larrikoak direla, pentsatu dik betaurrekoak bagerik ezin deszifratu ukanen dituela, eta bazakik, ongi jakin ere, nik inori erakutsiko ez nizkiona ez dizkiodana, inorengandik harean[1852] entzindu[1853] ezin baita.

— Nola jakin du, bada, zuk betaurrekoak daduzkazuna?

1851Gogotsu: (H. “con gran pesencia de ánimo”)
1852Harean: ezer, deus (ezezkoetan edo galderetan, ez bestetan)
1853Entzindu: confiar

— Tira, ba![1854] Haietaz beiragilearekin hitz egin genian, eta honez gain[1855], goizeon *scriptorium*ean, Benantzioren orriak arakatzen ari izan naizenean ere erabili ditiat. Beraz, lagunik asko bazagok gauza horien balioaz jabeturik. Hauxe bai: eskuizkribu arruntik, ohikorik esateko, irakurri ahal nikek, baina hau ez –eta larrutx misteriotsua ezbiribilkatzen[1856] hasi zen–, grekoz idatzitakoa hizki oso nimiñoz egina delako, eta goiko aldekoa, berriz, hagitz zirriborrotsu dagoelako...

Garraren beroaz, mirariz laso agerturiko zeinu misteriotsuak erakutsi zizkidan:

— Benantziok garrantzi larriko isilpeko bat ostendu nahi zian eta horretarako tinta berezi bat erabili zian, idatzitakoan aztarrenarik utzi ez eta beroaren eraginez berriro agertzen dena. Edo, bestela, limoi-zukua erabili zian. Dena dela, zelako gaikia den ez zakiat eta hizkiak berriro itzaldu, desagertu ahal lituzkek, beraz, habil arin, hik begi onak daduzkak, bai, eta kopia itzak berehala, ahalik eta berdinen, eta, ahalaz, pittin bat handitu.

1854Tira, ba: (H. “¡vamos!”)
1855Honez gain: (H. “a parte del hecho”)
1856Ezbiribilkatu: desenrollar (N) (??)

Agindu legez egin nuen, zer kopiatzen ari nintzen ez jakinki. Lauzpabost lerroko multzo bat zen, zinez sorginen gauzak ziruditenak.

Kopiatzea bukatu nuenean, Gilenek nire oholtxa[1857] hartu zuen eta, betaurrekorik ezean ere, aztertu nahi eta begietatik urruntto eduki zuen.

— Zalantzarik bage, isilpeko alfabetoa duk, deszifratu beharko duguna –esan zidan–. Marrak ez dituk oso errimeak[1858], eta hire kopia eiki ez duk hobea, baina zeinuok zodiako-ikurrak dituk, agidanean. Begira. Lehenengo lerro honetan… –Urrunduxe zuen areago oholtxa, txillotu[1859] zituen begiak ikusmena biltzearren bezala, eta esan zuen–: Sagitario, Eguzki, Merkurio, Eskorpioi…

— Zer esan nahi dute?

— Benantzio iñoxoa izan bide-zuan, itxuraz, zodiakoko zeinuteri arrunta erabili baitzuen edo: A Eguzki duk, B Jupiter… Beraz, lehenengo lerroa honela irakur litekek… saia hadi idazten: RAIOASVL... –Eten zen–. Ez, ez dik ezer

1857Oholtxa: tablilla
1858Errime: firme
1859Txillotu: (H. “entrecerrar”) (Entornar?)

esan nahi, Benantzio ez zuan iñoxo. Beste gako bat erabili zian alfabetoa aldatzeko. Kausitu[1860] beharko.

— Ba ote daiteke? –ni txunditurik itaunetan.

— Bai, arabiarren jakintza pixka bat ikasirik. Kriptografiazko libururik onenak, fedebageko jakintsuek idatzirikoak dituk, eta Oxford-en haietarik bat edo bat irakurteko lortu izan diat. Bacon-ek esan zuenez, jakiundea hizkuntzen ikastetik iragaiten duk, eta zuzen zegoan, arrazoia zian. Orain direla mende batzuk, Abu Bakr Ahmad ben Ali ben Washiyya an-Nabati zeritzonak *Antzinako liburu zaharretako enigmak ikasteko elizkoiaren irrika berotsuaren liburua*[1861] idatzi zian, eta berton hainbat arau zarakutsak[1862] alfabeto misteriotsuak osatzearren eta deszifratzearren, aztikeria-jardueretarako egokiak ez ezik gudarosteen artean nahiz erregearen eta bere enbaxadarien artean erabiltzeko ere ironak[1863]. Arabiarren beste liburu batzuk ere ikusi ditiat, zeinetan asmamen handiko tramankulu andanak agertzen edo aipakatzen diren. Adibidez, hizki bat beste batez ordeztu ahal duk, hitz bat atzekoz aurrera idatzi halaber, hizkien hurrenkera aldatu

1860Kausitu: ediren, aurkitu
1861Liburu: (H. “tratado”)
1862Zarakutsak: darakutsa
1863Iron: egoki (H. “útil”)

ahal duk, bata bai bestea ez hartuz eta berriro hasiz, eta, oraingo gure honetantxe bezala, hizkien ordez zodiako-ikurrak ipini ahal dituk, ezkutatu hizki bakoitzari zenbaki bat emanez, eta gero, beste alfabeto bateko arauez, zenbakiok hizki bihurtuz…

— Eta araudi horietarik zein erabili zuen Benantziok?

— Hauek guztiok, eta beste batzuk aztertu beharko lituzkek. Alabaina, mezurik deszifratzeko lehenengo araua zer esan nahi duen igartean zatzak[1864].

— Horretaraz gero, ez dago zertan deszifratu! –nik hots eta barre egin.

— Ez diat hori esan nahi. Hipotesiak formulatu behar dituk, mezuko lehenengo hitzak zein diren, eta gero ikusi ea hortik atera daitekeen araua idazki osoarentzat egokia den. Adibidez, hemen Benantziok *finis Africae*-ra sartzeko gakoa zifratu dik. Mezua horretazkoa dela pentsatzen badut, berehonela erritmo bat aurkitzen diat… Begira aurreneko hiru hitzoi, hizkiak kontuan hartu bage, ikurren kopuruari ez besteri adi, IIIIIIII IIIII IIIIIII... Orain bina ikur duten silaba-multzoak saia hadi banatzen eta esan ozengi: ta-ta-ta, ta-ta, ta-ta-ta... Ez zaika ezer bururatzen?

1864Zatzak: datza

— Niri ez.

— Niri bai, ordea. *Secretum finis Africae*... Honela bada, azkenengo hitzean lehenengo eta seigarren hizkiak berdinak izan behar lituzkek; eta honela duk, Lurbiraren[1865] ikurra birritan agertzen duk. Eta aurreneko hitzeko lehenengo hizkia, S-a, bigarreneko azkenaren berdina duk: honelaxe, bada, Birjinaren ikurra berrizkatzen. Bide onetik bide-goazak, barren. Honela eta guztiz ere, zeinbait halabehar[1866] izan litekek, halaber. Elkarrekiko araurean bat edo, lotura bat alegia kausitu beharra zagok...

— Non, baina?

— Buruan. Asmatu. Eta gero ea zuzena den. Baina egun osoa eman nezakek aztertzen. Ez luzaroago, hala ere, zeren, gogora ezak, edozein idazki isilpeko deszifratu ahal baita, egonarri pittin batez, pazientziaz. Orain berandutuko zaiguk, bai, eta liburutegia diagu ikuskatu nahi. Gainera, betaurrekorik bage ezin irakurri izango diat mezuaren bigarren zatia, eta hik ezin lagundu honetan, zeren, zeinu hauek hire begietarako…

1865Lurbira : Tierra
1866Halabehar: (H. “coincidencia”)

—— *Graecum est, non legitur*[1867] –erantsi nuen ene burua umildurik.

— Horixe. Badakusak: Bacon zuzen zegoan. Ikas! Baina ez dagigun etsi. Igo gaitezen liburutegira. Gaueon ez gaitik geldiaraziko inpernuko Txerrenek, ez hamar tusuri[1868] elik[1869] ere!

Aitaren egin nuen, eta galde:

— Baina, nor izan ote da aurrea hartu diguna? Bentzio?

— Bentziok sutsuki nahi zian jakin zer ote zegoen Benantzioren orrien artean, honela ere, ez diat uste horrelako jukutriarik[1870] egin ziezagukeenik. Sakonean, aliantza bat gogartarazi[1871] ziguan. Gainera, nire irudiz[1872], ez zian Eraikinera gauez sartzeko adorerik.

— Otean[1873], Berengario? Edo Malakias?

— Bada, Berengario honelako gauzetarako gauza dela eta nagok, bai. Sakonean, liburutegiaren ardura

1867«grekoa da, ez da irakurtzen». (Erdi Aroko esaera zaharra, grezieraz ez jakiteagatik axolarik ez zela adiarazteko)
1868Tusuri: deabru, Txerren...
1869Eli: manada (H. “legiones”)
1870Jukutria: (H. “mala pasada”)
1871Gogartarazi: proponer (Gogartu: pensar/ +arazi) (N)
1872Nire irudiz: (H. “me dió la impresión”)
1873Otean: (H. “entonces”) (De duda...)

elkarbanatzen[1874] dik, eta bertako sekretu bat agerrarazi izaiteagatik bere buruari alatzen zaiok[1875], Benantziok liburu hura xixkatu[1876] zuela uste zian eta bere lekuan berripini[1877] nahi zian. Igo ezin izan zuenez, orain nonbait ostentzen ari duk, eiki, eta otoz otoan[1878] atzeman[1879] ahal diagu, Jainkoa lagun, atzera bere lekuan ipinten saiatzen denean.

— Baina Malakias ere izan zitekeen, asmo berak zituen eta.

— Nik ezetz esango nikek. Malakias Eraikina ixteko bakarrik geratu zuan, eta nahi beste beta[1880] izan zian Benantzioren mahaian miatzeko[1881]. Hau nik banekian, baina ekidinezina[1882] zuan. Orain bazakiagu, hain zuzen, egin ez zuena. Eta pittin batez oldoztuz gero, ohartuko haiz ez genuela arrazoirik susmatzeko, Malakiasek bazekiela Benantzio liburutegira sartua zela, eta zerbait hartua zuela susmatzeko. Hau Berengariok eta Bentziok zakitek, eta hik eta biok zakiagu. Adelmoren aitorpenaz gero, Jorgek ere

1874Elkarbanatu: compartir
1875Alatu: remorder, reprender (Nor-nori) /… (H. “ lo corroe el remor...)
1876Xixkatu: (H. “sustraer”) (“Birlar”...)
1877Berripini: reponer, recolocar
1878Otoz otoan: por sorpresa (H. “con las manos en la masa”)
1879Atzeman: harrapatu, hatzitu, hartu...
1880Beta: aldi, asti, epe...
1881Miatu: (H. “hurgar”)
1882Ekidinezin: (H. “inevitable”)

jakinen ahal zian, baina, zalantzarik ez, hori ez duk izan kiribil-eskaileran beheti itsu-itsuan amildu den gixona…

— Beraz, Berengario edo Bentzio...

— Eta zergatik ez Pacifico da Tivoli edo ikusi ditugun beste fraideetako bat? Edo Nicola beiragilea, nire betaurrekoak ikusi dituena? Edo hori pertsonaia eroxka[1883] hori, Salbatore, zeren, zera, esan digutenez, gauetan ez zakiat zer-nolako zeretan zerturik zertzen den? Kontuz ibili behar diagu, ez gutitu susmagarrien kopurua Bentziok norabide bat ireki nahi izan digulako soilik. Beharbada, Bentziok okerreko bidetik joanarazi nahi izan gaitik.

— Bada, zintzo iruditu zaigu.

— Bai, baina gogoratu inkisidore on baten lehenengo betebeharra zintzo diruditenez batik bat eta behinik behin susmatzea dela.

— Ezaina[1884] inkisidorearen eginkizuna, itsusia –egin nuen iruzkin.

— Horregatixe utzi nioan. Honela ere, badakusak berrriro harzara halako eginkizunetara itzuli behar dudala. Tira, ba, goazen liburutegira.

1883Eroxka: (H. “extravagante”) (Elloxka...)
1884Ezain: feo, de mal carácter, nefasto (Itsusi...)

BIGARREN EGUNA

GAUA

Azkenean labirintora sartu direnekoa. Ikuspen harrigarriak gertatzen eta beste galmendi guztietan bezala, bertara sartu eta gero norabidea galdu da.

Argiontzia gure aurretik, goititua[1885], atzera *scriptorium*era igo ginen, orduko haretan ekialdeko eskaileratik, debekatua zegoen estairaino zihoana. Nik

1885Goititu: (H. “enarbolando”)

Alinardoren hitzak neramatzan gogoan, labirintozkoak alegia, eta gertakizun ikaragarriak itxaraiten nituen.

Eskaileratik atera eta sar ezin zitekeen tokira sartu ginen, eta zazpi albo zedukan areto ez handi batean gengozela eta harritu zitzaidan, leihorik bagekoa zen, eta estai osoan bezala, lizun-sunda[1886] edo zoko itxiak ohi duen kinoa sumatzen zen. Ikaragarririk batere ez, bada.

Esan bezala, aretoak zazpi horma zedukan, edo zazpi hormak aretoa zedukan, baina haietako lauretan ez bestetan, horman sarturiko[1887] bina zutabettoren artean, sargu bana zegoen, zabal xamarra, puntu erdiko arkua gainean. Beste hormen ondoan armairu handiak ondo ipinitako liburuz bete-beteak. Armairu bakoitzean, zenbakidun etiketa bat, eta apaletan ere berdin: argi zegoen haiek' guk katalogoan ikusitako zenbakiak zirela. Areto erdialdean mahai handi bat zegoen, hau ere liburuz gainezkatua. Liburuki guztiak hauts geruza mehez estalita, maiz aski garbitzen zituztelako seinale. Zoruan ere zikinik ez. Ate-arku baten gainean idazkun bat, horman pintatua, eta hitzok: *Apocalypsis Iesu Christi*[1888]. Hizkiok zaharrak izanagatik, ez zirudien

1886Lizun-sunda: holor de moho, de humedad (Kino, kirats...)
1887Horman sartu: empotrar
1888«Jesukristoren apokalipsia».

margulduа[1889]. Beste geletan aurkitutakoa aztertu ondorean, hizkiak harrian irarrita zegozela konturatu ginen, eta sakon xamartuak, eta hutsuneak tinduz[1890] bete zituztela, elizetako hormairudietan laso.

Ate haietako batetik irten genuen. Beste gela batera, eta han leiho bakarra, ez berinaz[1891] itxia, alabastrozko harlauzez baizik. Bi horma hurrenez hurren zegozen eta beste batean arku bat, zeharkatu berri genuenaren antzekoa, beste gela baterakoa; gela honek ere bi horma hurrenkera berdinean, leiho bat, eta gure aurrean beste ate bat. Gela bietan, ikusitako idazkunaren antzeko batzuk, esaera ezberdinak, hala ere: *Super thronos viginti quatuor*[1892], lehenengoko esaera; *Nomen illi mors*[1893], bigarrenekoa. Gainerako guztia, altzariak-eta antzekoak: liburuz beteriko armairuak eta erdialdeko mahaia; nahiz eta gu sartu ginen hura baino beste gelak tikiagoak izan (izan ere, hura heptagonala zen, esan bezala, zazpialbokoa, eta beste hauek errektangularrak).

1889Marguldu: descolorido (margo+ul+du)
1890Tindu: pintura
1891Berina, leiar: cristal, vidrio (fr. verrine)
1892«Hogeita lau jargoien gainean».
1893«Haren izena Herio da».

Hirugarren gelara ginen. Ez zegoen libururik ez harritzik[1894]. Leihoaren azpialdean harrizko aldare bat. Gu sartu ginen ateaz gain, beste bi: bata, zazpialboko gelarakoa; bestea, beste gela batera sartuko ginena: gela hau besteen antzekoa eta idazkuna: *Obscuratus est sol et aer*[1895]. Handik hara beste gela bat eta sartu ginen: *Facta est grando et ignis*[1896]. Ez zegoen ate gehiagorik, beraz, ezin aurrera joan eta ateratzeko atzera bihurtu beharra.

— Ikus dezagun pitin bat –esan zidan Gilenek–. Bost gela laurangeluko edo, guti gora behera, trapezoidal, eta leiho banadun; gelok beste gela baten inguruan, hau zazpialboko eta honek ez zadukak leihorik, eta honetara iristeko eskilaratik gora. Argi dagoela[1897] uste diat. Ekialdeko dorretzarrean gagozak; kanporean dorretzar bakoitzak bost leiho eta bost horma. Zenbaketa zehatza duk. Hutsik dagoen gela ekialderanzkoa, elizako korua bezala, eta egunsentian eguzki-argiak aldarea argiztatzen dik, ene gardiz[1898] egoki eta elizkoi. Zinez asmo amarrutsu[1899] bakarra, nire ustez, alabastrozko haulauzena. Egunez argi biziki pollita

1894Harritz: inscripción en piedra (?) (N) (Hartitz)
1895«Eguzkia eta eguratsa ilundu ziren».
1896«Granito eta su egin zen».
1897Argi dago: (H. ”me parece elemental”)
1898Gardi: eritzi, aburu...
1899Amarrutsu: astuta

iragazten ditek, gauez, ostera, ez ditek ilargirik sartzen uzten. Beraz, ez duk labirinto handia. Orain goazen ea non dagozen gela heptagonaleko beste ate biak. Ez diat uste zuzen bideratzeko[1900] zaila dukegunik.

Nire maisua oker zegoen, izan ere, liburutegia eraiki zutenak guk uste baino trebeagoak izan ziren. Ez dakit nola azaldu gertatu zena, baina dorretzarretik atera ginenean, gelen eraketa[1901] nahasiagotu zen. Batzuek bi ate; bestetzuek, hiru. Guztiek leiho bana, bai eta leihodun geletatik sartzen ginen haiek ere, Eraikinaren barrualderantz gindoazela sinetsita. Gela bakoitzean armairuak eta mahaiak berdinak; liburuak ondo-ondo eraz bilduak, orok berdinak irudi, eta honegatik, jakina, zein lekutan gengozen ikuste hutsaz ezin jakin. Harritzak irakurriz saiatu ginen zuzen bideratzen. Halako baten, gela batetik iragaitean *In diebus illis*[1902] irakurri genuen; bira eta bira egin ondorean, berriro atzera leku berera bihurtuak ginela iruditu zitzaigun. Gogoratzen genuen, hala ere, leiho aurrean zegoen atea beste gela baterakoa zela eta honetan *Primogenitus mortuorum*[1903] idazkuna, eta, hara itzulitakoan, ordea,

1900Zuzen bideratu: (H. “orientarse”)
1901Eraketa: (H. “orden”) (Ordenamiento)
1902«Egun haietan»
1903«Hilen lehensemea».

besterik irakur zitekeen: *Apocalypsis Iesu Christi*, eta hala ere ez zen gu abiatu ginen gela zazpialbokoa. Hau zela eta, hormetako esaerak bikunduta[1904] edo zegozela pentsatzen hasi ginen. Elkarren ondoko bi gelatan *Apocalipsis* aurkitu genuen, eta ondoko beste batean *Cecidit de coelo stella magna*[1905] idazkuna.

Esaera horiek guztiak nondik hartu izan ziren ez zegoen enurarik[1906]: Jaun Done Joanen *Apocalipsis*ko esamoldeak ziren, baina zergatik hormetan margoturik? Zein logikaz ipiniak? Eta nahasia nahasiago, esaera batzuk, ez asko, beltzez idatziak izan ordez gorriz izan. Une batez, harzara, abiatu ginen gela heptagonalera itzuli ginen (eskailerako sargua ezagunetsi[1907] genuen), eta beste behin eskuinerantz irten genuen, gelatik gelara okertu bage irago nahiz. Hiru gela zeharkatu genituen eta irekiduarik bageko horma batera heldu ginen. Beste ate bat zegoen, beste gela baterakoa, eta gela honetan ere ate bakarra, eta ate honetatik lau gelako beste leku batera iritsi ginen, laurok iragotakoan beste horma baten aurrean ginen. Aurreko gelara bihurtu ginen, eta hemen bi irtenbide; lehenttoago ez genuena

1904Bikundu: (H. “repetir”) (Bakundu...)
1905«Zerurean izar handi bat erori zen».
1906Enura: zalantza, ezbaia, duda
1907Ezagunetsi: reconocer, dar por conocido (N)

zeharkatu genuen eta beste gela batera, eta berriz ere areto heptagonalean gengozen, abiatu ginena legez.

— Nola du izen edo harritz' atzera bihurtu garen gela horrek? –itaundu zidan Gilenek.

— *Equus albus*[1908] –erantzun nuen gogoratu nahiz.

— Ondo duk, bihur gaitezen horretara.

Berehala ediren genuen. Haraz gero, atzera egin ezik, beste aukera bakarra *Gratia vobis et pax* izeneko edo esaerako gelaratzea zen; hantxe, iruditu zitzaigunez, eskuinetatik irtenez ez genuen atzera egingo. Zinez[1909], beste bi gela gehiago aurkitu genituen: *In diebus illis* eta *Primogenitus mortuorum* (baina, ez ote ziren aurretiaz aurkitutakoak?, eta azkenean ordura arte sartu bageko gela batera heldu ginela iruditu zitzaigun, hots, *Tertia pars terrae combusta est*[1910]. Ordurakoxe, aldiz, ekialdeko dorretzarrean nontsu gengozen ez genekien.

Argiontzia aurrean emanik, ondoko geletarantz jo nuen. Orduan, erraldoi "alimaleko" bat aitzinik aitzin agertu

1908«Zaldi zuria».
1909Zinez: (H. "en efecto")
1910«Garazi eta bakea zuentzat».

zitzaidan, gorputz eskerge neurri larrikoa, mehatxagarri, higikor eta trinko[1911], mamu bat irudi.

— Deabru bat! –oihu egin nuen, garrasika, eta gutik egin zuen argiontzia erori ez baitzitzaidan, Gilenen besoen artera babestera lasterka joaitean. Ontzia jaso zidan, bazterrera ninduen eta aurrera egin zuen kementsu, eta ni txunditurik. Harek ere zerbait ikusi zuen, eta brau!, geldi. Gero, beste behin begiak luzatu[1912] eta argiontzia jaso. Eta barreka hasi zen.

— Benetan asmotsua. Ispilu bat!

— Ispilu?

— Bai, ene gudari ausart hori –irautsi zidan–. Arestian[1913], *scriptorium*ean egiazko etsai bati eraso diok, ausardia handiz, eta orain heure irudiagatik beragatik beldurtu haiz, beldurtu. Ispilu bat, bai, heure irudia, handitua eta makestua[1914] bihurtzen diana.

Eskutik heldu zidan eta gelara sartzeko atearen aurreko hormaraino joan ninduen. Argiontzia hurrago eta hantxe ikusgai beirazko orri bat uhinak zituena, eta gure bi

1911Trinko: (H. “fluido”) (!)
1912Begiak luzatu: (H. “asomar”)
1913Arestian: duela guti, oraintsu… (Ara est iam?)
1914Makestu: deformar (makets, markets...)

irudiak, barregarriro makestuak, eta hurbildu ahala edo urrundu ahala itxura luze-zabalean aldatzen zen, eta itxurgatzen.

—Irakur ezakek optika-libururik. –Gilenek, isekati[1915]–. Liburutegia moldatu zutenek egin ditek, doike. Onenak arabiarrenak dituk. Alhazen-ek liburu bat osatu zian, *De aspectibus*[1916], eta bertan, geometria erakusketa zehatzak eginez, ispiluen indarra azaltzen dik. Gainazaleko uhinak gora eta behera, badituk ispiluak gauza nimiñoenak tarrotzen[1917] dituztenak, (eta zer egiten dute, bada, nire betaurrekoek hori ez bada?), beste mirail batzuek irudiak goibeheratzen ditiztek, edo zeharka islatzen, edo bat dagoen lekuan bi gauza erakusten, edo lau bi bihurtzen. Beste batzuek, honako honek bezala, epottoa erraldoi bilakatzen, edo erraldoia epo.

— Jesus! –nik–. Beraz, hauek ote liburutegian zeinbaitek ikusi omen dituenak?

— Beharbada, bai. Zinez asmoa asmotsua duk –Ispilu gainean zegoen esaera irakurri zuen: *Super thronos viginti quatuor*[1918]–. Kausitu egin diagu, baina ispilurik bageko

1915Isekatu: (H. “en tono burlón”)
1916«Begiradez». (?)
1917Tarrotu: handitu
1918«Hogeita lautik gora»

gelan. Gainera, leihorik ez zadukak eta ez duk zazpialboko. Non gagoz? –Inguruari so egin zion eta armairu batera hurreratu zen–. Adso, *oculi ad legendum* bedeinkatu haiek bagez ezin diat irakurri zer dagoen liburuotan. Irakur iezazkidak izenburu batzuk.

Liburu bat hartu nuen:

— Maisu, ez dago idatzirik!

— Nola? Hau idatzirik dagoela zakusat. Hik zer dirakurk?

— Ez dirakurt ezer. Ez dira alfabetoko hizkiak, ez da grekoa, ezin ulertu. Harrak dirudite, xixare, suge, eulikakattoak...

— Ha!, arabiera duk. Zer besterik dago?

— Beste batzuk. Hemen latinezko bat, Jaungoikoari eskerrak...Al...Al Kuwarizmi, *Tabulae*.

— Al Kuwarizmiren taula astronomikoak, Adelardo Bathekok itzuliak! Lan bakan-bakana! Zer gehiago?

— Isa ibn Ali, *De oculis;* Alkindi, *De radiis stellatis*...[1919]

— Beha ezak zer dagoen mahaian.

1919«Begiez». «Izar-erradioez».

Mahai gainean zegoen liburuki mardul bat ireki nuen, *De bestiis*, eta nire begien aitzinean miniatura bikain-bikainean adarbakar eder-eder baten irudia.

— Oso ongi margotua –egin zuen iruzkin Gilenek, irudiak ikusi ahal baitzituen–. Eta hura?

— *Liber monstruorum de diversis generibus*[1920] –irakurri nuen–. Honek ere irudi polit-politak dadutza, zaharragoak direla iruditzen zait.

Gilenek begitartea idazkiaren gainera makurtu zuen:

— Irlandar fraideek argiztatua, duela gutienez bi mende. Adarbakarraren liburua, berriz, askoz berriagoa duk; frantsesen erara argiztatua dagoela uste diat.

Beste behin, nire maisuaren jakituria miretsi nuen. Hurrengo gelara irago ginen eta gero ondoko lauetara. Guztiak leihodunak eta liburuz beteak, hainbat hizkuntzazkoak, eta batzuk ezkutuko zientziazkoak; azkenean horma batera heldu ginen eta atzera gibeleratu beharra; azkenengo bost gela haiek beren artean loturik zegozen baina ez besterekin, eta ezin zen atera beste norabidez, harean batera[1921] ez.

1920«Mota askotako munstroen liburua».
1921Harean batera: inora ez

— Hormon makurdura[1922] dela eta, beste dorretzar bateko bostalboko batean bide-gagozak –Gilenek–, baina erdiko zazpialboko aretoa ez duk, eta, beraz, oker egon ote garen.

— Eta leihoak? Nolatan dagoen honenbat? Gela guztiak kanpoaldekoak izaitea ezinezkoa da.

— Erdialdeko putzua ahantzi zaik. Ikusitako hainbat leiho putzuko zortzialbokora zagok. Eguna balitz, argitasuna ezberdina batean zein bestean eta kanpoaldeko leihoak zein eta barrualdekoak zein diren bereizi ahal genikek, are gehiago, eguzkiari begira gela bakoitzaren egoera[1923] zein ere bai. Gauez ezin, ordea. Dagigun atzera, eurt[1924]!

Ispilua zegoen gelara itzuli ginen eta hirugarren aterantz joan ginen, orduan oraindik irago ez ginela uste genuenerantz. Hiruzpalau gela ikusi genituen, hurrenez hurren, eta sakonean argi-distira bat begiztatu genuen.

— Norbait dago! –hots egin nuen ahotsa iratoz[1925].

— Baldin badago, dagoeneko gure argia ikusi dik –esan zuen Gilenek, eskuaz garra estaltzen zuelarik, baina.

1922Makurdura: (H. “inclinación”)
1923Egoera: (H. “posición”) (Egokera?...)
1924Eurt!: atzera egiteko hotsa (Esti!...)
1925Irato: ahogar (Ito: ahogarse)

Bizpahiru minutuz geldi egon ginen. Argitasuna baratz-baratz[1926] higitzen zen, ez handitzen ez tikitzen.

— Agian argiontzi bat besterik ez duk –Gilenek erantsi–, liburutegian hilen arimak bizi direla fraideei sinetsarazteko ipinten diren horietarikoa. Aztertu behar diagu. Hi gera hadi hemen, argiontzia estaltzen, ni poliki-poliki aurrerantz noan bitartean.

Artean lotsaturik nengoen, ispiluaren aitzinean erakutsi nuen koldartasunagatik, eta Gilenen begien aurrean neure burua nolabait txuritu[1927] nahi nuen:

— Ez, nerau noa –esan nion–, zu gera zaitez hemen. Baratz-baratz aurreratuko naiz, ni ttikiago naiz, ñoago, eta ariñago. Arriskurik ez dagoela baieztatu orduko deituko dizut.

Hala egin nuen. Hormari itsatsirik ibiliz hiru gela zeharkatu nituen, katu bezain arin (edo fraidegai gaxte baten antzera sukaldeko ganbarara gazta zati baten lapurtzera doalarik, honelako eginenetan[1928] Melken ni gailen[1929] izan bainitzen). Argia zetorren gelako atalondora heldu nintzen, argi hits xamarra zen, eta eskuineko aldean

1926Baratz: lentamente (Bare, astiro...)
1927Txuritu: (H. “redimir”)
1928Eginen: zeregin, faena, octo
1929Gailen: sobresaliente, notorio

zegoen zutabe-hormara itsatsi, zelatatzearren, hantxe barrandari[1930]. Ez zegoen inor. Mahai gainean argiontzi moduko zerbait zegoen, ia-ia iraungia[1931], eta ke ugari zeriona. Ez zen gurea bezalako esku-argi[1932]. Irudi ere *turibolo* zirudien, kedatsontzi[1933]; ez zedukan garrik, baina errauts geruza mehearen azpian zerbait erretzen ari zen. Ausardia hartu nuen eta sartu egin nintzen. Kedatsontzi ondoan, mahai gainean liburu bat zabalik, margo bixiko irudi batzuk zedutzana. Gertura nintzen eta margo ezberdinetako lau zerrenda ikusi nituen: oria, gorria, turkesa eta lur errea. Piztia izugarri baten irudia nabarmen, hamar buruko herensugea, isatsaz edo buztanaz ortziko izarrak ekortu[1934] eta mundurantz iraizten[1935] zituena. Bat-batean herensugea biderkatzen zela ikusi nuen, eta ezkatak azaletik desitsasten, eta nire buruaren inguruan biraka eraztun dizdizari[1936] bat osatzen zen. Gibelerantz egin nuen eta gelako sabaia makurtzen zela ikusi nuen eta niganantz erortzen zela. Gero mila sugeren txistu hots baten antzekorik entzun nuen, ez izueragingarria, ia liluragarria baizik, eta

1930Barrandari: espía
1931Iraungi: extingir
1932Esku-argi: (H. “linterna”)
1933Kedats: incienso (?)
1934Ekortu: barrer (Erraztatu…)
1935Iraitzi: arrojar
1936Dizdizari: (H. “rutilante”)

argiz inguratua zegoen emazteki bat agertu zen, eta aurpegia nire aurpegira hurbilarazi zuen eta hats[1937] egin zidan. Aldenarazteko[1938] asmoz besoak zabaldu nituen, eta nire eskuek aurreko armairuko liburuak ukitzen zituztela iruditu zitzaidan, edo liburuok hagitz handitzen zirela, handi-handitzen. Ez nekien, ordurako, non nengoen, non lurra non zerua. Gelaren erdian Berengario ikusi nuen, niri begira, irribarre ezatsegin batekin, luxuriaz gainez egina. Begitartea esku biez estali nuen, nire eskuok apo[1939] baten xangoak bezala likitsak[1940] eta mintzdunak[1941] iruditu zitzaizkidan. Garrasi egin nuen, nik uste, eta ahoan zapore mingotxa[1942] sumatu nuen. Orduan amaigeko ilunbean murgildu nintzen, nire oinen azpian gero eta beherago eta beherago zabaltzen baitzen, itxuraz, eta kornortez[1943] bagetu nintzen.

Mendeak iruditu, eta ondorean esnatu nintzen, nire buruan burrunba egiten zuten ukaldi[1944] batzuk sumatu eta. Zoruan aratin[1945] nentzan eta Gilen niri belarrondokoak eman eta eman ari zitzaidan. Ez nengoen, ordurako, aurreko

1937Hats: aliento
1938Aldenarazi: hacer alejar, apartar (aldendu+arazi)
1939Apo: (H. “escuerzo”) (Txantxiku, zarrapo...)
1940Likits: (H. “viscoso”) (Likitsu, birin...)
1941Mintzdun: (H. “palmeada”) (Mintz: membrana)
1942Mingots: (H. “ligeramente ácido”) (Mikatz, garratz...)
1943Konortez bagetu: “konorte galdu”
1944Ukaldi: golpe
1945Arat: ahoz gora, aratin(ik), aratean...

gelan, eta nire begiak zabaldutakoan *Requiescant a laboribus suis*[1946] idazkuna irakurri nuen.

— Ea, ea, Adso –xuxurlaka nire maisua–. Ez duk ezer.

— Zerak… –esan nuen, artean eldarniotan[1947]–. Han, piztia...

— Piztiarik ez. Mahai baten oinean eldarniotan aurkitu haut, apokalipsi mozarabiar eder bat zegoen mahai ondoan, liburua *mulier amicta sole*[1948] orrialdean zabaldua eta aur-aurrean herensuge bat. Usainagatik, berriz, zerbait txar arnastu duala ohartu nauk, eta berehala handik idoki haut. Niri ere buruko min egin zaidak.

— Baina, zer ikusi dut?

— Ez duk ezer ikusi. Baina gela haretan ikuspenak eragiten dituzten gauza batzuk erretzen dituk. Usainagatik ezagunetsi ditiat. Arabiarrena den zerbait; heldubada, Mendiko Zaharrak bere *hashashin*[1949] direlakoei arnasarazten[1950] zien gaikia edo zen, haien erasokizunari ekin aurrez.

1946«Har dezaten atseden beren lanetarean» (Apokalipsia, 14, 13).
1947Eldarnio: delirio
1948«eguzkiz jantzitako emaztekia». (Apokalipsia).
1949Hashashin: asesino (Antzina zaharreko sekta hiltzaile bat)
1950Arnasarazi: hacer aspirar

Ikuspenen misterioa horrela uler daitekek. Norbaitek gauez belar sorginak[1951] errearazten ditik liburutegira haizu[1952] ez baina sar litezenei deabruek begiratzen dietela sinetsarazi nahiz. Adik, bada[1953], zer sumatu duk?

Nahasirik nengoen biziki, honela ere, gogora ahal ukan nuen apurra azaldu nion.

Gilenek barreari eman zion:

— Erdia liburuan ikusi duk, handituta; beste erdia heure nahikeriak eta heure beldurrak eraginda. Belarren ondorioak dituk horiek. Bihar Seberinorekin hitz eginen diagu, sinetsarazi nahi digun baino haboro dakiela uste baitut. Belarrak dituk, belar hutsak, ez duk behar inolako egipen[1954] bitxirik, ez hil-aztikeriarik, beiragileak aipatu bezala. Belarrak, ispiluak… Debekuzko jakintza gordetzeko toki hori zaintzearren, askotariko eta oso burutsuak diren arteak[1955] eta bitarteak erabiltzen ditiztek. Zientzia, ez argitzeko erabilia, estaltzeko baizik. Liburutegiaren zaintza santua gogo maltzur[1956] baten mendean zagok, agidanean. Gaua gogorra izan duk, bai, eta orain hemendik atera behar.

1951Sorgin: (H. “mágica”) (Sor+gin) (Belar sorgin (N))
1952Haizu: permitido (Sori, zilegi...)
1953Adik, bada: (H. “en definitiva”)
1954Egipen: (H. “operación”)
1955Arte: (H. “artificio”) (Trampa… - Satarte, txolarte...)
1956Gogo maltzur: mente perversa (N)

Xorabiatuta hago eta urarekin haixe hoxpila behar duk. Leiho horiek ireki nahia, alperrikoa; goregi zagozak eta, ziur aski, urteetan ez dituk zabaldu. Nola pentsa zezaketen Adelmok bere burua horietako batetik egotzi ahal zuela?

Atera, esan zuen Gilenek. Erraza bailitzan. Liburutegira dorretzar bakarretik, ekialdekotik, iritsi ahal zena genekien. Baina, non gengozen orduantxe? Norabidea zeharo galdua genuen. Noraezean genbiltzan bitartean, handixe inoiz irtengo ote genuen zalantzan, ni hinkili-hankala[1957] eta oka egitear, Gilen nigatik kezkatua, bere buruarekin haserretua, gutti zekiela eta arduratua, asmo bat otu zitzaigun, hobeki esateko berari zitzaion, hurrengo egunean egitekoa. Baldin handik irtenez gero, liburutegira itzuliko ginen, bai, baina erretako egur edo ilinti[1958] batekin, edo beste zerbaitekin, hormetan ikurrak marrazteko.

— Era bakarra baino ez duk labirintoko irtengua edireiteko –esan zidan Gilenek–. Korapilo berri batera heldurik, hots, inoiz egon bageko bidegurutze batera, heldutako bidean hiru zuin[1959] egingo dituk. Korapiloko bideetako batean zuina ikusiz gero, hor lehenago izan garen ezagugarri, eta horra heldutako bidean zuin bakarra eginen duk. Korapilo bateko

1957Hinkili-hankala: (H. “tambaleándome”)
1958Ilinti: tizón
1959Zuin: marca que se pone como señal en el campo ya labrado.

sar-irtengu guztiak zuinduta, atzera egin beharko duk. Baina, artean, zuin bageko bizpahiru sargu badagoz, bat hautatuko duk, eta bi zuin marraztuko. Zuin bakarreko sargu bat hautatuz gero, bi ikur gehiago egin eta hiru ukanen ditik. Korapilo bateraz gero, iragazgu guztietan hiruna zuin ikusten badira, ez zagok zuindu bageko sar-irtengurik hor, eta, beraz, labirintoko bide guztiak ibili ditugun ezagugarri.

— Nola dakizu? Labirintotan aditu zarea?

— Ez, behin irakurri nuen idazki zahar batek zioena azaldu diat.

— Eta horrela kausi ote liteke irteera?

— Nik dakidala, inoiz ez, abantzu[1960]. Honela ere aztertuko diagu. Gainera, hurrengo egunetan betaurrekoak edukiko ditiat, eta liburuak arakatzeko beta luzeagoa ere bai. Agian, ikurrek ibilbidea galarazten diguten lekuan, liburuek norabidea zuzentzeko araurean[1961] bat edo ekar ahal ziezaguketek.

— Betaurrekoak edukiko al dituzu? Nola berreskura?

1960Abantzu: ia-ia
1961Arau: (H. “regla”)

— Betaurrekoak edukiko ditudala esan diat. Berriak. Beiragileak honelako ereti[1962] bat ez dik hutsik eginen, zerbait berri egiteko aukeraren aiduru egonki. Baldin beirak lantzeko tresnak badadutza, noski. Lantokian beira peiturik ez zagok eta.

Bidearen bila genbiltzala, bat-batean, gela erdian, esku ikusezin batek aurpegia ferekatzen zidala sumatu nuen, eta, aldi haretan bertan, intziri bat entzun, ez giza- ez abere-itxurakoa, gela haretan eta ondokoan oihartzun egiten baitzuen, espiritu bat gelaz gela balebil bezala. Liburutegikoa jazo ondorean, halakotsu ezustetarako gerturik behar nukeen, baina, berriz ere, izutu nintzen hagitz-hagitz, eta gibeleranzko jauzi egin nuen. Gilenek ere nik bezala sumatu zuela zirudien, eskua masailetan, argiontzia goiti, bere inguru-minguru so eta so ari baitzen. Eskua goratu zuen, eta orduan bixiago irudi zuen garrari begiratzen zion. Hatz bat ahoan busti eta bere aitzin-aitzinean gorantz zutik bezala irozo[1963] zuen.

— Jakina[1964]! –esan zuen ozentto.

1962Ereti: oportunidad (Abagune, aukera, egokiera...)
1963Irozo: sostener
1964Jakina: (H. “¡claro!”)

Bi leku ikusarazi zidan, aurrez aurreko bi hormatan, non, gizon beteko garaieran, bi gezi-leiho oso mehe zegozen. Eskua hurreratu eta kanpotiko haize hotza nabari. Belarria hurrera eta kanpoan haizea bailebilan bar-bar-bar hitzaroa[1965] legez adi.

— Luburutegia egurasteko biderean bat edo bat egon behar zuan –Gilenek–. Bestela arnasa hartzeko giro gaitza, udan batez ere. Gainera, honelako leihoxkak oso egokiak dituk hezetasuna ere behar adinakoa izan dadin, larrutxak ihartuko ez badira. Eraikitzaileak, alta, are burutsuagoak izan zituan. Leiho mehar-meharrok honelako moldez ireki zitiztean, ezen, gau haizetsuetan sartzen den haizeak zeharkako lasterrak egiten baititu, eta gelarik gela joanez, intzugiturik[1966], entzun ditugun marmarrak eragiten ditiztek. Ispilu eta belar hortxe, baina honako hauek, berbotsok, are beldurgarriago dituk, gu bezalako iñoxoentzat, liburutegira, zer-nolako zerak dagozen jakin bagerik sartzen direnentzat. Une batez mamu batzuek gure aurpegira hats egin digutela uste izan diagu, putz egin digutela. Eta putza! Orain artean ez diagu nabaritu, orain haizea firurika hasi eta! Beste

1965Hitzaro: berbaro (ruido de voces)
1966Intzugitu: atascar

ezusteko bat usteko bihurtua, hara. Honela eta guztiz ere, to, oraindik ez zakiagu nola irten!

Hitz egin eta ibili, noraezean genbiltzan, idazkunak ere irakurteke, denak berdinak irudi. Gela berri bat, hala ere, aurkitu genuen, zazpialboko eta ondoko geletatik irago ginen, eta irtenbidea inondik ez. Atzera. Ordubete joan zitzaigun, doi-doi. Non gengozen jakin nahi ez. Halako baten, Gilenek erabaki, amor eman beharko genuen, eta gela batean edo bestean lo egitea besterik ez zegoela, biharamunean Malakiasek jarrugi gintzan arte igurikiz[1967]. Gure egiteko haren amaiera kaxkarra zen eta tamalez, baina, hara, bertatik bertara, eskailera zegoen gela ediren genuen. Zeruari eskerrak eman genizkion sutsuki, eta alai-alai jaitsi ginen.

Sukaldera orduko, sutokira arinik arin. Hezurtegiko igazlekutik sartu ginen, eta, zin dagit, hango kaskezur haien hil-ingresti[1968] haiek orduan maitearen irria bezain eztitsu iruditu zitzaizkidan. Elizara itzuli ginen eta iparraldeko atetik irten genuen, eta, patxada handiz, pozarren, hilarrien artean eseri ginen. Gaueko eguratsa Jainkoaren baltsamu

1967Iguriki: itxaron
1968Hil-ingresti: (H. “mueca mortuoria”)

iruditu, izarrak gure baranoan dir-dir, eta liburutegiko ikuspen haiek urrun.

— Zein ederra mundua eta zein itsusiak galmendiak! –nik barrua asaskaturik[1969].

— Zein ederra izango litzatekeen mundua labirintoetan norabidea zuzentzeko araurik balego! –nire maisuak zehaztu zuen.

— Zer ordu da? –nik.

— Ez zakiat. Aldiaren ezagumena[1970] galdu diat. Dena den, matutietara[1971] deitu baino lehen gure geletan bagagoz, hobe.

Elizako ezker-horma ondotik joan ginen, atalde aurretik irago (burua bihurtu nuen ez bainituen Apokalipsiko sentonak ikusi nahi, *super thronos viginti quatuor*!) eta kalostrapean barrena erromesen aterpetxera. Etxeko atarian Abadea, guri zorrotz begira.

— Gau osoan zuen bila ibili naiz –irautsi zuen, Gileni buruz–. Ez zaituztet zuen gelan ez elizan ediren.

1969Asaskatu: (H. “aliviado”)
1970Aldiaren ezagumen: (H. “noción del tiempo”)
1971Matuti(ak): maitines

— Aztarren-bide[1972] bati jarraikiz ibili gara –erantzun zion ez oso gogotsu Gilenek, egonezina nabarmen.

Abadeak behatu zuen, takada[1973] batez, eta ondorean ahots gogor eta barez:

— Konpletetako ofizioa bukatu zenaz geroztik nabilkizue bila. Berengario ez zen koruan egon.

— Zer diostazu?! –egin zuen oihu antzo Gilenek, irriñoa ezpainetan. Hara: *scriptoriumean* ostendurik zegoela orduantxe senak eman[1974] zion.

— Kopletetako otoitzaldian ez zen egon koruan –berrizkatu zuen Abadeak–, eta ez da bere gelara itzuli. Matutiei deitzear dagoz. Ikusiko dugu orain agertzen denentz. Bestela, beldur naiz ez ote den beste beldurgarrikeria bat agitu.

Matutietara deitu zietenean, Berengario ez zegoen.

1972Aztarren-bide: (H., “pista”) (N)
1973Takada: instante / golpe
1974Senak eman: (H. “convencerse”) (Pensar, tener una idea...)

HIRUGARREN EGUNA

HIRUGARREN EGUNA

LAUDORIO[1975] ETA PRIMA ARTEAN

Itzalduta zegoen Berengarioren gelan odolez zikinduriko oihal bat aurkitu denekoa; eta besterik ez.

Idazen ari naizeino, orduko gau haretako nekea, unadura sumatzen dut, hobeki esatearren, goiz haretako. Ofizioa esaten diogun otoitzaldia bukatu bezain laster, Abadeak lekaide haietarik gehienei, ordurako larri-larri, bazterrez bazter bilatzeari ekiteko agindu zien, non edo non, nondik edo nondik. Alperrik bilatu.

Laudorio-otoitzetara deitu aginik zegozela, fraide bilatzaile haietako batek Berengarioren gelan, lastaira azpian, odolez zikinduriko oihal bat aurkitu zuen. Abadeak ikusi eta zantzu txarra zela pentsatu zuen. Jorge ondoan, eta haretaz jakinaren gainean: «Odola?», sineskaitz[1976] bezala.

1975Laudorio: (H. “laudes”) (Goiztiriko otoitzaldia)
1976Sineskaitz: (H. “inverosímil”)

Alinardori esan ziotenean, honek burua higitu zuen, eta iruzkin egin zuen:

— Ez, ez, hirugarren turutaz Herio uretatik dator...

— Orain oro argi dago –Gilenek esan zuen, oihala ikusirik.

— Alta bada[1977], non dago Berengario? –itaundu zioten.

— Ez dakit –erantzun zien.

Entzutean, Aymarok begiak zerurantz goratu zituen eta ahopeka Pietro da San Albanori:

— Ingelesak horrelakoak dira.

Eguzkiak gaua urratu eta bertan, prima baino lehenttoago, morroi batzuk arro barrenera bidali zituzten, harresi inguru osoan arakatzera. Tertzia ordurako atzera etorri ziren, deusik edireiteke.

Gilenek hantxe ezer egiterik ez genuela adiarazi zidan, egokiera onaren zain geratu behar genuela. Hau esanda, aroztegirantz jo zuen. Nicolarekin hizketan hasi zen, elkarrizketa mamitsuan biak, nire maisua eta beiragile maisua hitz eta pitz.

1977Alta bada: (H. “entonces”)

Ni elizan eseri nintzen, erdialdeko atearen ondoan, mezak eman artean. Hala, bada, otoizkoi, loak hartu ninduen, eta luzaroan antza, gazteek zaharrek baino loaldi luzeagoak behar ei baitituzte, zaharrek lo asko egin eta behin betirako lo aldi amaigea egiteko adelatzea[1978] besterik ez baitute.

1978Adelatu: . (L, BN, Sal, S, R; Preparar(se). "Se préparer à faire quelque chose" SP. "Arranger, préparer

HIRUGARREN EGUNA

TERTZIA

Adsok scriptoriu*mean bere baldernaren historiaz eta liburuen etorkizunaz hausnartzen duen atala.*

Elizarean ez hain nekatua baina gogoa nahasi samartua atera nintzen, izan ere, soinak atsedenaldi lasaiaz gozatzeko orenik edo ordurik onenak gauekoak dira. *Scriptorium*era igo nintzen, Malakiasi baimen eskatu nintzaion eta katalogoa, hots, liburu-zerrenda eskuen artean orriz orri gainbehatzen[1979] hasi nintzen. Orriak nire begien aitzinetik irago eta, alegia eta irakur, ni, zinez, lekaideei adi.

Harritu zitzaidan, bai, han bakoitza bere lanari emana, zelako patxada eta jabaltasuna eta naretasuna zegoen. Beraietako bat, anaietako bat itzaldu ez balitz bezala, aienatu edo peskeitu[1980] ez balitz bezala, eta abadia osoan barrena haren bila eta bila ibili ez balira bezala, eta beraietako beste bi izugarriki hil ez balira bezala. Hemen

1979Gainbehatu: mrar por encima, hojear (N)
1980Peskeitu: desapercer sin dejar rastro /Aienatu: desparecer, marchar

ikusten da, neure buruari mintzo, gure baldernaren handitasuna: gizaldiz gizaldi, hauek bezalako gizonak barbaroak indarka sartzen zirenetan hemen ziren, euren abadiak arpilatuak izan direnetan hemen ziren, erresumak erretzen ikusi izan dituzte, sutara amilduak, eta hala eta guztiz ere hauek beti bat, beti beren eginkizunari emanak, maitez eta barez, beren larrutxekin eta tinduekin, eta menderik mende iragotako hitzak eta eleak ahopetik irakurten iraun izan dute, berek beste hurrengo mendeetakoei helaraziko[1981] zizkietenak. Milurtea iristear zegoela irakurten eta kopiatzen iraun bazuten, zergatik ez iraun orain?

Aurreko egunean, Bentziok esana, liburu bakan bat lortzearren, edozein bekatu egiteko gerturik zegoen, eta ez zioen gezurrik eta ez zen txantxetan ari. Enura bagerik[1982], fraidek[1983] bere liburuak apalkiro maite behar zituen, liburuen onerako eta ez bere jakin-min berea asetzerako, baina legorentzat adulterio jaukiteko[1984] tentaldia den bezala, eta apez arruntentzat aberats nahia den bezala, abadietako fraideentzat jakintza-nahiaren lilura da.

1981Helarazi: (H. “transmitir”)
1982Enura bagerik: sin duda
1983Fraide: (Hemen mugabagea da : e(do)zein fraidek…) (Legorentzat)
1984Jauki: cometer /...

Katalogoari gainbegiratu nion eta izenburu misteriotsuen dantza hasi zen: *Quinti Sereni de medicamentis*, *Phaenomena*, *Liber Aesopi de natura animalium*, *Liber Aethici peronymi de cosmographia*, *Libri tres quos Arculphus episcopus Adamnano escipiente de locis sanctis ultramarinis designavit conscribendos*, *Libellus Q. Iulii Hilarionis de origine mundi*, *Solini Polyhistor de situ orbis terrarum et mirabilibus*, *Almagesthus*... Ez zen harrigarri, bada, hilketa haien misterioa liburutegiaren inguruan gertatu izana. Idazkintzara emaniko gizon haientzat, liburutegia zeruko Jerusalem zen eta, aldi berean, lurpeko mundu bat inpernu eta lurbira ezezagunaren arteko mugan. Liburutegiak mendean hartuta zeduzkan, bere aginduetara eta geben edo debekuetara[1985] jarriak. Harekin eta harentzat bizi ziren, eta, beharbada, haren aurka ere bai. itxaraiten, agian noizbait, bekatuz, haren isilpekorean bat edo bat erauziko diotela. Zergatik ez ziren arriskatuko hiltzera ere beren gogoaren jakin-nahietako bat betetzearren?

Tentaldiak, noski, axukaldiak; adimenaren[1986] harrokeria. Gure elkargoaren irasleak[1987] irudikatu zuen

1985Debeku: geben (H. “interdicciones”)
1986Adimen: (H. “intelecto”)
1987Irasle: fundador (?) (Irasi-- ira+hasi)

lekaidea oso bestelakoa zen: ulertzen ez zuena kopiatzeko gai zen, Jaungoikoaren nahiari erabat emana, izkribugin bezain otoizlari, eta otoizkile bezain izkribulari. Zer zen gertatua? Oi, zalantzarik ez, horretan ere gure balderna endekatua[1988] zen, kaskartua eta pirtxildua zen! Ahaltsuegi bilakatua zen, abadeak erregeekin lehiatzen ziren. Ez zena, bada, Abbone monarka antzeko bat, monarka itxuraz monarken arteko ika-mikak erabakiarazten[1989] zituena? Abadiek bildutako jakituria ere trukerako sal-erosgai bezala erabili ohi zen, harrokeria eta handikeria izaiteko bide eta zio zen, izen onaren iturri zen. Zaldunek beren iskiluak eta ikurroihalak ospetsuro[1990] eramaiten bezala, gure abadeek beren miniaturadun kodizeak nabarmenki erakusten zituzten. Eta areago (hau zorakeria!) gure monasterioek jakintzaren gailentasuna[1991] galdu zutenaz gero: katedradun eskolek, hirietako erakundeek eta unibertsitateek guk baino gehiago eta hobeto kopiatzen zuten, eta liburu berriak ekoizten zituzten… eta beharbada hauxe gure hainbat zoritxarren zergatikoa.

1988Endekatu: degenerar / Pirtxildu: deshilacharse-marchitarse /
1989Erabakiarazi: dirimir
1990Ospetsuro eraman: (H. “ostentar”) (Hotsandiro...)
1991Gailentasun: (H. “palma”)

Nengoen abadia, agian azkenengoa zen, bere jakintzaren ekoitzi eta berregiteko[1992] gaitasun handiagatik nabarmentzen zena, jakituriaz harro zitekeena. Baina, horregatixe, heldubada, bertako fraideak ez ziren asetzen kopiatze-lan horretan, ez zuten askiesten: beraiek ere, berritasun goseak bulkaturik, izadiaren osagai berri batzuk irazan[1993] nahi zituzten. Ez ziren ohartzen, antza –orduan nahaskiro susmatu nuen, eta orain, urtez eta esperientziaz zamaturik nagoela, ziur dakit– hala eginaz, hots, haien eraz eta moldez, beren bikaintasuna zenaren porrota ekarriko zutela, hondamendia. Zeren, ekoitzi nahi zuten jakituria berria harresiaz haraindira hedatuz gero, leku sakratuaren eta beste edozein eskolaren edo unibertsitateren arteko aldea ezerezean geratuko baitzen, murriztu eta, gero suntsituko baitzen. Han barruan gorderik eta ostendurik iraun bitartean, aldiz, bere izen onarekin bere ahalmena, indarra ahultzeke bizi izango zen, ika-mika guztien ustelduratik at, arrandia *cuodlibetal*[1994]-etik aske, hau da, zernahikeria hutsetik jareginda[1995], beronek handitasun eta misterio oro *sic et non* erabakiz bahetu, iragazi nahi baitu. Honegatik, esan nion

1992Berregin: (H. “reproducir”)
1993Irazan: crear (Ira+izan-- I-ra-zan)
1994Cuodlibetal: zernahikeria (N) (?)
1995Jaregin: askatu

neure buruari, liburutegia isilpen[1996] eta ilunpen laino[1997] batek inguratua dago: jakintzaren babesgune da, baina jakintza hori babesteko era bakarra nori edo nori irits ez dadin eragoztean datza, lekaideei berei ere ez. Jakituria ez da txanpona bezalakoa, berau beti berdin dago elkar-truke zikinik zikinenetan ibilia izanagatik; jaka txit ederraren antz handiagoa du, erabiliaren erabiliaz eta arrandiaka erakutsiaz higatuz[1998] doa. Liburuekin ere berdin gertatzen ote da, orriak hausten baitira, tinduak eta urreak margul eta hits[1999] bihurtzen baitira, eskurik askok ukituz gero? Nigandik hur, Pacifico da Tivolik liburuki zahar-zahar batean orriz orri ziharduen, eta, hezetasuna zela eta, eiki, orriak bata besteari itsatsirik zegozela irudi zidan. Orrikatzeko[2000], txitean-pitean mingainaz eskuko bi eri bustitzen zituen, erkin eta erkoro[2001], eta haren listuak[2002] orri argala argalagotzen zuen. Irekitzeko tolestu behar zituen, pitin bat, eguratsaren eta hautsaren kutsua galgarri, eta larrutxaren zain mehe-meheak ihetxetuz zihoazen, uzkurtuz[2003] eta listuaren ondorioz

1996Isilpen: acto de silenciación / Ilunpen: de “oscurización”
1997Laino: (H. “halo”)
1998Higatu: desgastar (Ihetxetu...)
1999Hits: (H. “opaco”)
2000Orrikatu: pasar páginas (orri+ka+tu)
2001Erkin: hatz erakuslea / Erkoro: hatz lodia
2002Listu: txistu, ahogozo, tu
2003Uzkurtu: contraerse

lizunduz, azkenean andeatuz[2004]. Nola maite-laztan bigunegiak gudagizona xamurtzen eta uxtertzen[2005] duen, hala, halako maitazarre harek, liburua bere-berea eta bihotz-bihotzekoa bailitzan, azkenean liburuari gaitza ekarriko zion, kutsatuko, eta higatuz-higatuz azkenean gaitzak heriotza erakarriko zion.

Zer egin behar zen? Irakurteari utzi eta liburuak gorde baino ez? Nire kezka haiek egiazkoak ote? Nire maisuak zer esan zukeen?

Enegandik ez urrun, Ionako Magnus otoitz-araularia igeltsuz larrutx bat biguntzen ari zen, lehenago apar-harriz[2006] igurdia[2007] izan zuena, eta ondorean leungailuz[2008] leunduko zuena. Haren ondoan, Toledoko Rábano, larrutxa mahaiari josita, eskuan metalezko estilo[2009] bat zedukala, zeharreko[2010] lerro mehe-meheak egiten ari zen, orriaren alde bietan eginiko zulotto batzuen artean. Laster xafla[2011] biak margoz eta marraz beteko ziren, eta orrialde bakoitza

2004Andeatu: estropear, gastar, disipar
2005Uxtertu: ablandar, hacerse frágil (Xamurtu, bigundu...)
2006Apar-harri:piedra pómez
2007Igurdi: raspar (?) (Igurtzi?)
2008Leungailu: (H. “la plana”) (N)
2009Estilo: idazteko tresna bat
2010Zehar: horizontal
2011Xafla: lámina

erlikario antzekoa izango zen, idazki-bilbe[2012] fedetsuan[2013] txertaturiko[2014] harribitxiz distiratsua. Nire anaia biok, ene golkorako mintzo, orain lurrean euren paradisuan bizi dira. Liburu berriak egiten zituzten, geroenean, ezinbestela[2015], aldiak suntsiaraziko zituenak… Beraz, liburutegia munduko ezein indarrek hautsi ahal izan zukeen, zerbait bizia zen eta. Baina, zerbait bizia bazen, zergatik ez ireki jakipenaren[2016] arriskuari? Bentziok hori ote zuen nahi eta agian Benantziok ere nahi ukan zuena?

Durduzaturik[2017] nengoen eta nire neure burubideez[2018] ere beldurturik. Beharbada, ez ziren fraidegai batentzat guztiz egokiak, nire beharkizun bakarra gure baldernako arauteria betetzea baitzen, apal eta txukun[2019] orduan eta hurrengo urteetan… beti egin izan dudana legez, beste galderarik edo itaunik egiteke, ene inguruan mundua gero eta gero odolezko ekaitz zoroan hondoratzenago eta hondatzenago zeino.

2012Bilbe: trama
2013Fedetsu: (H. “piadoso”)
2014Txertatu: (H. “engastar”)
2015Ezinbestela: (H. “inexorablemente”)
2016Jakipen: acto de saber (H. “conocimiento”)
2017Durduzatu: (H. “confundido”) (desconcertar...)
2018Burubide: pensamiento
2019Txukun: (H. “escrupulosamente”) (Zehatz-zehatz...)

Bazkalordua zen. Sukaldera joan nintzen. Sukaldariak, ordurako adiskide bainituen, ahamenik goxo-goxoenetarik batzuk eman zizkidaten.

HIRUGARREN EGUNA

SESTA

Adsok Salbatoreren hizpekoak[2020] aditu dituenekoa, hitz gutitan laburtu ezin dena baina gogoeta kezkagarri ugari burutarazi[2021] diona.

Japitartean[2022], zoko batean Salbatore ikusi nuen. Argi zegoen ordurako sukaldariarekin bakea eginda zegoela, ardiki-pastela gogotsu, mauka-mauka jaten ari baitzen, bizialdian inoiz jan ez balu bezala, galkaka irensten: apurrik erortzen utzi ez. Zeruari eskerrak emanka laso, ezohiko jaki harengatik.

Hurbildu zitzaidan eta bere hizkera eroxka harezaz esan zidanez, hainbat urtetako barauaren[2023] ordainetan jaten ari zen. Zehazteko, hura nola zen zehazteko eskatu nintzaion, jaulki ziezadan. Haurtzaro biziki errukigarria izan zuela, baserri heze eta euritsu batean egurats batere

2020Hizpeko: confidencia (?)
2021Burutarazi: sugerir (Iradoki: inspirar)
2022Japitartean: jan bitartean
2023Barau: ayuno

osasungarria ez zen bazterraldean, susno[2024] hilgarriz ustelduriko landetan. Ulertu nionez, urte batzuetan, landetan zehar jaisten ziren apakinak[2025], luizien ondoriozkoak, urtarotik urtarora, lur-ildoak ezabatu eta geratzen ziren, eta, beraz, eskukada hazi eraiten zen alorretan erdiaren erdia baino uzta ttikiagoa biltzen zen, eta urterik urte are guttiago eta azkenengoan bihirik ez. Etxajaunak aurpegiz txiroak bezain zurbilak ziren, nahiz eta hauetarik haietarik baino askoz gehiago hil –Salbatorek esana– beharbada, txiroak haiek baino haboro zirelako edo… –irribarretsu, gehitu zuen–. Garai haietan *sextario* ziotenak hamabost soldata balio zuen, doi-doi, eta *moyo* ziotenak hirurogei soldata; predikariek munduaren amaia aldarrikatzen zuten, baina Salbatoreren gurasoek eta arbasoek gogoratzen zutenez, ez zen hala gertatzen edo gertatuko zen lehen aldia, eta, azken beltzean, munduaren aldia beti-beti amaitzear edo agortu agin zegoela pentsatzen zuten. Halatan bada, txorien haratustel[2026] guztiak jan eta gero, aurkituriko piztia guztien hilikiak orobat, zurrumurru bat hedatu zen, baserrian baten batek hilak lurpetitzen[2027], ehortziak idokitzen hasi zela zioena. Bufoiaren antzera, Salbatore, harako «*homines*

2024Susno: kirats, usain txarra (H. “miasmas”) (Emanación, efluvio...)
2025Apakin: tierra de aluvión (Mausar...)
2026Haratustel: carroña (Hiliki...)
2027Lurpetitu: desenterrar (Lurpe+tik+tu) (N)

malísimos» haiek nola egiten zuten zehazten saiatzen zen, hildakoa ehortzi ondoreango egunean hilerriko lurra beren eskuez nola aztarrikatzen, nola “aitzurtzen” zuten alegia eta eginez. «Dzaust»[2028], zirautsan[2029], eta ardikiari haginkada, baina haren aurpegian nik zer ikus eta hilikia irensten zuen behartsuaren antza nekusan. Gainera, beste batzuk sorddesago[2030] zegozen, lur santuan zulatzeaz aski ez eta basoan ezkutatzen baitziren, lapur laso, bidezaleak atzemaiteko asmo gaiztoz. «Zarrast!»[2031], zirautsan Salbatorek, aiztoa bere lepoan ipinteaz batera, eta «Dzaust!». Eta haietako gaiztoenek umeak erakarten zituzten, arrautzez edo sagarrez, eta jan egiten zituzten, bai baina, Salbatorek ben-benetan zehazten zuenez, aurretiaz egosi egiten zituzten. Behin, jaulki zidan, baserrira haragi egosia merkezurrean saltzen zuen gizon bat heldu zen, eta inork ez zuen sinesten ha lako mauka edo, ezustean gertatzerik; apezak, alta, giza-haragia zela esan zuen eta jende oste sumin-sumin eginak gizon hari eraso zion, heriosuhar, eta tikitu zuen, sarraskitu zuen. Hala ere, gau haretan bertan, baserriko batek gizajale haren hilobia ireki

2028Dzaust: zaust, zauta… (H. “Ñam”!)
2029Serautsan: zioen
2030Sorddes: persona más mala, peor (sordeits...)
2031Zarrast: onom. de cortar (H. “¡zas!”)

omen, eta haren haragitik jan omen zuen, eta norbaitek jakinda, baserritar hura auzokoek heriotzara zigortu zuten.

Ez zen hau Salbatorek jaulki zidan bakarra. Hitzak mordoilotuz, nik proventzeraz eta italierako hizkelki batzuetan nekien apurra gogoratzera behartzen ninduelarik, zehaztu zidan bere jaioterritik nola ihes egin zuen eta nola ibili zen munduz mundu alderrai[2032]. Haren eleketan[2033] nik aurrez ezaguturiko eta ene bidean aurkituriko lagunik asko ezagunetsi[2034] nuen, bai eta harez geroago ezagutuko nuenik asko ere. Beharbada, hainbat urtez gero, beste batzuen xelebrekeriak edo gaiztakeriak hari egotziko dizkiot, nahi ez baina, zeren eta orain nire buru nekatuan irudi bakarrean batzen baitira, irudimenaren indarrez, urrearen oroitzapena eta mendiarena, eta azkenean urrezko mendi bihurtzen da.

Gure joanaldi haretan, Gilenek sarri xaloez hitz egin ukan zidan; hala esaten ei zieten beraren anaikide batzuek herriko jende xeheari eta eskolabagekoei edo jakite kontuetan lantzeke[2035] zen gizoni. Hitz hori, bada, beti lauso[2036] iruditu izan zait: Italiako hirietan salerosle eta arotz

2032Alderrai: errante, vagabundeando
2033Eleketa: (H. “relato”)
2034Ezagunetsi: reconocer (N)
2035Lantzeke: inculto (Lantzaka)
2036Lauso: (H. ”vago”) (Borroso /...)

batzuk ezagutuak nituen jakintza handikoak izan ez arren etxakinak ez zirenak, ez landubageak, nahiz eta haien jakituria edo ezagumendua hizkuntza arrruntean azaldu. Adibidez, garai haietan penintsulan buruzagi ziren tirano haietako batzuek ez zekiten deus teologiaz, sendakuntzaz, logikaz, edo latinez, eta honela ere ez ziren mentsak[2037], ez inozo etxakinak, ez txiroak noski. Honegatik uste dut, uste, nire maisuak inozo hitza erabiliz, arrazoi zinez inozo samarra erabiltzen zuela. Alabaina, Salbatore mentsa zen, ezbairik ez, mendeetan lazeriak[2038] eta jauntxo feudalen larderiak[2039] jotako eta zehatutako[2040] lurralderean etorria. Mentsa zen, baina ez zentzugea. Bestelako mundu bat amesten zuen, bera bere gurasoenetik ihes eginez urrundu zen garaian, Kauka[2041] zeritzon herria zena, berak esan zidanez, non zuhaitzek eztia isurtzen zuten, gaztak eta usaindun ziztorrak[2042] emaiten.

Itxaropen horrek bultzaturik –mundu hau malko-harana dela aitortu nahi ez bezala (niri irakatsi didatena legez) eta hemen Jainkoak agindua, injustizia bera ere oreka

2037Ments: (L, BN, S, R-uz) Bobo, tonto, simple. "Faible d'esprit...
2038Lazeria: miseria, apoita
2039Larderia: (H. “prepotencia”) (Violencia, imposición…)
2040Zehatu: castigar...
2041Kauka: Jauja
2042Ziztor: chorizo / Txiztor: chorizo delgado / Lukainka: longaniza (N)

zuzena egon dadin aurrikusita dagoela, Beraren aginduak ezkutatu nahi dizkiguten arren–, Salbatore hainbat lurraldetan barrena ibili izan zen, Monferrate jaioterrirean hasita Liguriara buruz, eta gero Proventzara eta bertotik Frantziako lurraldeetaraino igoz.

Salbatore noraezean ibili zen, alderrai, eskale, xixkatuz[2043], alegia eta eri, txitean-pitean jaun banaren morroi, eta geroago basora itzuliz eta bide onetik joanez. Berak jaulki zidanaren arauera, nik urte batzuk geroago ikusirik, Europa osoan zehar gero eta ugariago ibili ohi ziren behartsu-eli haietako batean sartuta irudikatu nuen: sasi-lekaideak, elekariak[2044], iruzurgileak, barrabanak[2045], txoraburu[2046] eta zarpailak[2047], legenardunak[2048], eta herremel[2049], bidezaleak, noharroinak[2050], kantikari alderraiak, elizgizonak, aberrigetuak[2051], erbesteratuak, hara-horrako ikasleak, arrakeroak[2052], esku-jokariak[2053],

2043Xixkatu: (H. “sisar”) (Robar con destreza...)
2044Elekari: charlatán
2045Barraban: truhán
2046Txoraburu: (H. “perdulario”)
2047Zarpail: harapiento
2048Legenardun: leproso
2049Herremel: (H. “tullido”)
2050Noharroin: vagabundo
2051Aberrigetu: expatriado, sin patria
2052Arrakero: (H. “tahúr”)
2053Esku-jokari: malabarista

saripeko[2054] gudagizon elbarriak[2055], judu herratuak, fedebagekoen gatibu izandakoak burua nahasirik hara-hona zebiltzanak, zoroak, erbesteratuak, belarriak moztutako gaizkinak[2056], sodomitak, eta haien artean eskulangileak, ibildaunak[2057], ehuleak[2058], perzkinak[2059], aulkigileak, zorroztaileak, lasto-biltzaileak, igeltseroak, eta tartean-tartean zurri orotako kokinak[2060], bandilak[2061], zalamandrinak[2062], zantzailak[2063], zitalak[2064], alprojak[2065], babazaoak[2066], txerpolariak[2067], etxaihesak[2068], ohointxarrak[2069], kalonjeak[2070], apez simondarrak[2071] eta fedausleak[2072], eta besteen inozotasunaz bizi zen jendea, bulda-faltsutzaileak eta Aitasantuaren zigilu-faltsutzaileak,

2054Saripeko gudagizon: mercenario
2055Elbarri: inválido
2056Gaizkin: malhechor
2057Ibildaun: (H. “ambulante”)
2058Ehule: tejedor
2059Perzkin: calderero (Pertz+gin)
2060Kokin: pícaro (Zurri orotako: de toda calaña)
2061Bandil: (H. “bribón”)
2062Zalamandrin: (H. “pillo”)
2063Zantzail: (H. “granuja”)
2064Zital: bellaco
2065Alproja: (H. ”tunante”)
2066Babazao: (H. “faramallero”) (Elekari, hitzontzi...)
2067Txerpolari: (H. “saltimbanqui”)
2068Etxaihes: (H. “trotamundos”)
2069Ohointxar: buscón
2070Kalonje: canónigo
2071Simondar: simoníaco (Simonen antzera diru truke apezgoa erosi...)
2072Fedautsi: prevaricar (?)

indulgentzia-saltzaileak, elizetako ateetan zeutzan sasi-elbarrituak, komentuetatik alde eginak, erlikia-saltzaileak, barkatzaileak, igarleak eta kiromante esaten zieten esku-igarleak, hil-aztiak[2073], petrikiloak, sasi-eskaleak, eta zurri orotako pailartak[2074], seroren eta neskatxen usteltzaileak, hala indarkeriaz nola amarruz egiten zutenak, sasi-hidropikoak, gezurrezko epilektikoak, gezurrezko txuringa-mindunak[2075], alegia eta hezueritsu[2076] egiten zutenak, gezur-zauriak zeduzkatenak, zoro-antza egiten zutenak, malenkoniatsu[2077] aizunak ere bai. Zeinbaitek soinean txaplatak ipinten zituen zauritzar[2078] sendaezina baleduka bezala, beste zeinbaitek ahoa odol-karako gauzaz betetzen zuen birikeriazko[2079] kerruak[2080] antzekotzeko[2081], kokin batzuek soineko atal bat edo beste elbarri itxuraz agerrarazten zuten, behar ez zituzten makuluak erabiliz, eror-minez[2082] jo bezala alegia eta erori eginez, ezkabiaz[2083] beterik zegozela itxura egiten zutenak ere baziren

2073Hil-azti: (H. “nigromante”)
2074Pailart: (H. “fornicador”) (fr.)
2075Txuringa: hemorroide
2076Hezueri: gota
2077Malenkoniatsu: melancólico
2078Zauritzar: llaga
2079Birikeri: tuberkulosia
2080Kerru: esputo, flema, (Gorro, herru, listu...)
2081Antzekotu: simular (N)
2082Eror-min: (H. “epilepsia”) (Eror-mindun)
2083Ezkabia: sarna, tiña

gezurrezko zornakatzak[2084] nabarmen, beste batzuk txaplatez beteta agertzen ziren, basme[2085] faltsuak estali antzo, azafrai-tinduz margoturik, eskuetan burdinak eta buru inguru osoa oihalez loturik, kirastu nazkagarrituak elizetara sartzen zirenak eta non-nahi dzanpez euren burua erortzen uzten zutenak, eta ahotik bitsa[2086] zeriela tu[2087] egiten zutenak eta begiak zuri-zuri sudurretik odola isurtzen, masusta-zuku gorriz egindako odola, janari apurrak ostutzearren edo jende beldurtuari dirua ebastearren, santuen esana baitzen erremusina eman beharra zegoela: bana ezazu zure ogia gosetuarekin, eskain iezaiozu zeurea etxerik ez dadukanari, degiogun bisita Kristori, har dezagun Kristo, jantz dezagun Kristo, zeren, urak sua iraungitzen duen bezalaxe erremusinak gure bekatuak iraungiarazten baitititu.

Garai haren ostean, aipatzen dudan harez gero, oraindik orduan, Danubio ibarrean zehar ikusi ukan dut eta ikusten hainbat elekari haiek bezalakorik, tusurien antzera nork bere izen duenik eta nor bere berea denik: biante, affratre, falsibordon, affarfante, akapon, alakrimante, askione, akadente, mutuator, kagnabaldi, atremente,

2084Zornakatz: bubón lleno de pús (Zorna?) (V-arr-oroz).
2085Basme: tumor ? (Hantura..) (BN-baig) Serosidad, líquido que sale de las ampollas" "Tumor; bulto”
2086Bits: apar...
2087Tu egin: escupir

admirakte, akkon, apezente… falpatore, confitente, compatrizante.

Lohia bezalakoak ziren gure lurbira honetako bide-zidor eta inda[2088] guztietatik barreiatzen zena, eta haien artean nahasirik, asmo oneko predikariak, ehizaki gehiagoren bila zebiltzan heretikoak, liskar ereileak[2089]. Joan Aitasantua izan zen, hain zuzen ere, predikari ibiltzen ziren jende xeheen eta txiroen mugimenduen beldurragatik, eskeko predikarien aurka oldartu zena. Berak zioenez, jakingurak erakarten zituzten, margozturiko irudien bidez, prediku egiten zuten eta zemaika edo mehatxuka dirua eman ziezaieten lortzen zuten. Zuzen ote zegoen, bada, Aitasantu simondar eta ustel hura, eskeko fraide haiek txirotasuna aldarrikatzen zutelako harako behartsu eta lapur eli haiekin alderatzen zituenean? Aldi haretan, Italian barrena pitin bat ibili ondorean, nire aburuak ez ziren garbiak, ez nuen argi: Altopascioko fraideez zerbait aditua nuen, predikuetan eskumikatzeko[2090] mehatxuak egiten zituztela, indulgentziak eskaintzen zituztela, agintzen alegia, diru truke giza-erhaileei barkamena emaiten zietela, lapurrei, hiltzaileei,

2088Inda: bide-zidor (Vereda, sendero)
2089Erein: sembrar
2090Eskumikatu: excomulgar

zinausleei[2091] orobat[2092], beren ospitaletxean egunean eguneango ehun meza baino gehiago emaiten zituztela, eta haiek ordaintzeko erremusinak biltzen zituztela, eta beren ondasunez berrehun neskatxa behartsuri urgazten[2093] zietela. Frai Paul “Herrena”-z ere aditu nuen, Rietiko basoan parrau zegoena; harropuzki esaten zuenez, Espiritu Santuaren bitartez jakin zuen, ezen, haragiz batzea ez zela bekatu, eta hala bere biktimak limurtzen zituen, arrebak zirela esanez titulikatzen[2094] eta biluztera behartzen, zaplasteko batzuk jasanarazten, gurutze moduan belauniko jarrarazten, eta azkenean emaztekiak Jaungoikoari eskaintzen zizkion, ez, ordea, aurretik musu eman ziezaioten agintzeke, bakearen musua esaten ziona. Baina, egiarik ezer ote zegoen horretan guztian? Zer zuten parrau ustez goitik argituak omen ziren haiek, benetan txiro biziz biderik bide Italian zehar zebiltzan fraideekin? Hauek egiazko penitentzia egiten zuten, egiaz, eta honegatixe apez eta apezpiku ñapur eta lapurren behako makurrak jasaiten zituzten, hitzez eta elez gogor astintzen bai baitzekiten.

2091Zinausle: perjuro
2092Orobat: halaber, baita...ere
2093Urgatzi: (H. “dotar”)
2094Titulikatu: seducir con engaños

Salbatoreren eleketa, nik lehendik banekizkien gaiez nahasten hasita, beti antzekoa zen, beti batekoa: orok ororen berdin zirudien. Batzuetan Turenako harako eskale elbarri haietako baten antzeko irudikatzen nuen. Esera zenez, Jaun Done Martinen gorpu miraritsua agertu zenean, santuak sendatuko zituen beldurrez edo, euren diru-iturri bagerik utziko baitzituen, sasi-elbarri haiek ihesari eman ei zioten, baina santuak, gupidarik bage, haiek urrutiratu baino lehen, bere dohainaz elbarri-itxurako gorputzaren atalak sendatu zizkien, eta hain gaiztoto erabilitako beso-zangoak eta, alegia eta eri, ondo ibilarazi zizkien. Beste batzuetan, berriz, Salbatore lekaide haren piztia-aurpegia argi eztiz bezala argiztatzen zen, jaulkitzen zidanean alderrai harako eli haien artean ibilki predikari frantziskotar batzuen elea entzunda, hauek ere iheslari, bizitza txiroa eta alderraia asturu[2095] gaitzari egotzi behar ez zitzaiola ulertu zuela, alderantziz baizik, Jaungoikoari egindako opa gozagarri bezala onartu behar zela. Eta hala, izenik gogoratzen ez eta haien dotrinak ozta-ozta azaltzen jakin ez arren, halako penitentziagile-talde eta sekta batzuetako kide bihurtu zen, antza. Senak eman[2096] zidanez, patriar eta valdotarrekin batu izango zen, beharbada kataroekin, arnaldarrekin eta umiliatuekin ere bai,

2095Asturu: fortuna, hado, suerte
2096Senak eman: (H. “deduje”)

eta mundutik orron ibiliz[2097], talde batetik bestera irago izango zen, eta hala, pittaka-pittaka biziera arlote hura eginkizuntzat hartuko zuen, Jaungoikoari eman behar ziona eta Beronen alde, ordura arte urdaila betetze hutsaren alde egindakoa, egingo zuela.

Baina, nola eta noiz arte egon zen halako taldeekin? Ulertu ahal ukan nuenez, hogeita hamar bat urte lehenago, Toscanako frantziskotarren komentu batean sarturik egon zen, eta Frantzisko Deunaren janzkia[2098] hartu zuen, ordenu sakratua hartzeke, baina. Uste dudanez, han latin pixka bat ikasi zuen, mintzo baitzen, nahiz eta beste lekurik askotan egona zelako beste hainbat hizkuntzarekin nahasten zituen; izan ere, behartsu erbesteraturik ibilki bazterrean bazterreango lagunengandik, nire herrialdeko mertzenarioak zein Dalmaziako bogomildarrak[2099] izan, zerbait ikasi zuen. Han, berak esana, penitentziazko bizitzari eman zion (*penitenciágite*, behin eta berriz esan ohi zuen, begiak sutan, eta beste behin orduan entzun nuen Gileni jakingura piztu zion hitz hura) baina, antza zenez, frantziskotar haiek ere ez zuten argi beren aburuak, zeren, behin hurbileko eliza bateko kalonjearen etxera indarka sartu, lapurra zela eta

2097Orron: (H. “vagando”) (Errante...)
2098Janzki: (H. “sayo”)
2099Bogomildar: bogomilo (Bogomil izeneko baten sekta dalmaziarra)

beste gaiztakeria batzuk egin zituela salaturik, eta eskaileretan behera iraitzi baitzuten, eta honela hil eta gero eliza bera arpilatu baitzuten, harrapakatu. Gotzainak jakin zuenean, iskiludun jendea bidali zuen, eta honen ondorioz fraideak barreiatu ziren, sakabanatu ziren, eta Salbatore luzaroan Italia Garaiko lurretan gaindi, hara-horra ibili izan zen, *fraticelli* saldo[2100] baten barruan, hots, eskeko farntziskotarrak, lege edota diziplina orotatik at.

Harez geroztik, Tolosa aldeko lurretan aterpe hartu zuen, eta zerbait harrigarri jazo zitzaion. Garai haietan gurutzatuen egitandiak[2101] sutsuki aditzen zituen. Fedearen etsaiei gudu egitera joaiteko asmoz, itsasoz haraindira joaiteko, artzain eta jende xume andana handia bildu zen. Artzainttoak esaten zieten. Egiaz, laguntto xume haiek lur elkor[2102] haietatik ihes egin nahi zuten. Bi buruzagi zeduzkaten, gezurrezko teoriak burutara sartzen[2103] zizkietenak: bata, bere jokaera ezegokiagatik elizetxez bageturiko apeza; bestea, Jaun Done Benitoren baldernako lekaide zinauslea[2104]. Halako noldez[2105], ezen, lagun xume

2100Saldo: (H. “banda”)
2101Egitandi: hazaña
2102Elkor: seco, estéril (H. “infeliz”)
2103Burutara sartu: (H. “inculcar”) (N)
2104Zinausle: (H. “apóstata”) (Zin+hautsi+le)
2105Halako moldez: (H. “hasta el punto”)

haiek zorarazi baitzituzten; batzuk mutilko hamasei bat urteko zirenak, gurasoen nahiari muzin[2106] eginda, soinean zorro eta makila bana baino ez, diru apurrik ez, lurra bertan behera utzirik haiei jarraitzearren, eli handi-handian artalde baten antzera zerraizkien. Ez zituen arrazoimenduak ez justiziak mugiarazten, haien buruzagien indarrak eta nahiak baino ez. Elkarrekin egoiteagatik, azkenean aske eta agindutako[2107] lurren itxaropen lauso[2108] batez horditurik bezala sentitzen ziren. Baserriak eta hiriak ibiltzen zituzten, aurkitzen zuten guztia atzemanez, eta haietarik bat edo atxilo hartua izanez gero, kartzelari eraunsten[2109] zioten, askatzearren. Parisko gotorlekura sartu zirenean, haietako batzuk herri-jaunen[2110] aginduz atxiloturik han, hiriko probestuak[2111] jarkiko zitzaizkiela ikusirik, jo zuten eta mailaditik behera iraitzi zuten, eta ondorean kartzelako ateak bota zituzten. Gero, San German-go larrea hartu[2112] zuten, eta berton guduka-jarreran[2113] zabaldu ziren. Inor ez zen jarkitzera ausartu, eta Paristik irten ondoan

2106Muzin: poner mala cara, rechazar, despreciar
2107Agindu: prometer / mandar (Hitz eman...)
2108Lauso: (H. “vaga”)
2109Erauntsi: asaltar, atacar /...
2110Herri-jaun: (H. “señores”)
2111Probestu: preboste (Buruzai, nagusi...)
2112Hartu: (H. “ocupar”)
2113Guduka-jarrera: (H. “posición de combate”)

Akitaniarantz hasi ziren. Bidean aitzina eta aurkitzen zituzten judu guztiak hiltzen zituzten, eta hauen ondasunez edo gauzez jabetzen ziren…

— Zergatik juduak? –galdetu nuen.

Eta Salbatorek:

— Zergatik ez?

Orduan azaldu zidanez, bizitza osoan predikariei entzuna, juduak kristaugoaren etsaiak ziren eta kristauei ukatzen zitzaizkien ondasunez mukuru eginda zegozen. Nik zera galdetu nion, ea ez ote ziren herri-jaunak eta apezpikuak ondasun horietaz jabetzen eta betetzen zirenak, hamarrena[2114] jasoz, eta, beraz, hau honela, ez ote ziren artzainttoak etsaiekin okertzen. Haren erantzuna hauxe: egiazko etsaiak gogorregiak direnean arerio bigunagoak bilatu behar direla. Horregatixe, pentsatu nuen, jende xehea mendean hartzen dute. Indartsuek dakite beti argi eta garbi nor diren beren benetako etsaiak edo arerioak. Jaun handiek ez zuten beren ondareak artzainttoek galbidean ezar zitzaten nahi. Alta bada, zorion handia ukan zuten antzainttoen

2114Hamarren: diezmo (Detxema)

buruek aberastasunik gehienak edo asko behintzat juduen esku zegozela burutara ekarri[2115] zietenean.

Galde egin nion ea nork berotu[2116] zuen jende-aldra[2117] hura juduei jazarri[2118] beharraz. Salbatorek ez zuen gomutatzen[2119]. Nire eritzia da, baina, hainbeste jende hitz eman zaionaren atzean batzen denean, eta bat-batean agindutakoa agindu bihurtzen bada, inoiz ez dela garbi jakiten nork duen agindu. Haren buruzagiek, nik uste, komentuetan heziak zirenez, gotzain-eskoletan orobat, jaunen hizkeraz egiten zuten, nahiz eta gero antzainttoek uler zezaten hitzak egokitu. Eta artzainttoek ez zekiten Aita Santua non zegoen, bai, ordea, juduak non. Azkenik, Frantziako erregearena zen dorre garai-tinko bati eraso zioten eta inguratu, juduak izu-lauorrian[2120] hara babestearren joanak baitziren, multzoka[2121]. Hauek, berriz, tematsu eta kementsu euren burua babestuz, harrika eta makilaka. Artzainttoek dorreko ateari su eman zioten eta garrez eta kez hertsitu[2122] zituzten. Onik irtengo ez zutela

2115Burutara ekarri: (H. “insinuar”)
2116Berotu: (H. “convencer”)
2117Aldra: tropel, multitud
2118Jazarri: acometer / castigar...
2119Gomutatu: gogoratu, oroitu
2120Izu-lauorrian: izuturik, ikaraturik
2121Multzoka: (H. “en masa”)
2122Hertsitu: (H. “acorralar”)

ikusi eta, juduak beren artean elkar hiltzeari ekin zitzaizkion, inguratzaileen eskuz hiltzea baino nahiago, eta azkenean haietako bati, bihoztunenari[2123] galdatu zioten haren ezpataz hil zitzan. Honek baietz eta bostehun bat hil omen zuen. Gero, juduen semeak harturik dorrerean atera zen eta artzainttoei bataia zitzaten eskatu. Artzainttoek erantzun: «Zure jendearen artean triskantza[2124] egin eta orain heriotzetik onik atera nahi ote duzua?» Eta bertan sakailatu[2125] zuten. Umeen bizia, ordea, begiratu[2126] zuten, eta bataiarazi zituzten. Harez geroago, Karkasonara buruz joan ziren, eta bidean beste hainbat gaiztakeria odoltsu egin zuten. Orduan, Frantziako erregeak, egite muga guztiak iragota zegozela uste izanki, haiek iritsi hiri guztietan aurka egiteko agindu zuen, jarki zekien, eta juduak ere babestuak izan zitezen, erregearen beraren gizonak balira bezala…

Zer zela eta erregearen berehalako[2127] juduenganako ardura[2128] hura? Heldubada, artzainttoek erreterri[2129] osoan zer egin liroten[2130] konturatu zela eta, haien kopurua gero eta

2123Bihoztun: valiente
2124Triskantza: (H. “matanza”)
2125Sakailatu: destrozar (Abarrakitu, sarraskitu...)
2126Begiratu: (H. “respetar”)
2127Berehalako:: súbito
2128Ardura: preocupación, interés
2129Erreterri: erresuma (Erret+bide: errepide / Erret+baratz...)
2130Lirote: lezakete, legikete

handiagoa baitzen. Orduan juduei ere errukitu zitzaien, izan berauek erresumako salerosketetan garrantzitsuak zirelako, izan artzainttoak deuseztatu beharra zelako, eta honetarakoxe giristino on guztiek horien gaiztakeriak arbuiatzeko zergatikoa, hots, zio bat, aurkitu behar zuten. Alabaina, giristinorik askok ez zuten erregearen agindua bete, juduen babestea zuzena ez zela uste zutelako, Kristoren fedearen etsaiak edo izterbegiak baitziren. Beredin hiritan jende xehea, juduen lukurreriagatik ordaindu beharra izandakoa, artzainttoek haien aberaskeria zigortzen zutelako pozik zegoen. Orduan erregeak artzainttoei laguntzea edo sorostea debekatu zuen, heriotza-zigorraren pean. Gudaroste larria osatu zuen eta haiei eraso zien, eta heuragi hil, eta bizirik atera ziren batzuk oihanetan ostendu ziren, aterpe harturik eta azkenik goseak hilik. Epe laburrean ziren guztiak ezereztu ziren. Erregearen ordezkariak atzeman eta atxiki eta atxilo, eta hogeinaka edo hogeita hamarnaka urkatzen zituen, zuhaitzik handienetan esekiz, eta gorpu haiek zintzilik betiereko eta ororentzako adibide zen, ikabide zen, eta hala inork ez zuen erreterriko bakea hautsiko, ez ausartuko inondik inora.

Harrigarriena, Salbatorek historia hau guztiau ezer ez balitz bezala, eginkizun guztiz on-ona bailitzan jaulki

zidana. Eta, benetan[2131], artzainttoen aldra hura Kristoren hilobia hartzeko eta fedebageengandik askatzeko asmoz jardundakoa zela erabat sinesita zegoen. Ezin sar niezaiokeen burutara halako hilobi-askatze miresgarri hura antzinagoko garaietan erdietsita zegoena, Petiri “Parraua” eta Jaun Done Bernadoren aldian hain zuzen, Frantziako Ludoviko “Santua” erregearen agintaldian, haretan ere[2132]. Zena zela, Salbatore ez zen joan fedebegeen aurka borrokatzera, Frantziako lurraldeetarean arinik arin alde egin behar ukan zuen eta. Novara eskualderantz jo zuela esan zidan; bertan zer gertatu zen ez zidan argitu batere. Azkenengoan, Casale-ra iritsi zen, eta frantziskotarren komentuan onartua izaitea lortu zuen (Remigio han aurkitu zuela uste dut); garai haretantxe frantziskotar ugari, asko bai asko, Aitasantuak jazarriak, soinekoa aldatu eta beste balderna batzuen komentuetan babestera urrutiratu izan ziren; su-metan errez ez hiltzearren, Ubertinok jaulki zuen bezala. Eskulanetan luzaz jardun eta oso trebatua zelako, sehiburuak laguntzaile hartu zuen. Trebatu ere, bai asmo lohi edo gutizia lizunak zirela, alderrai ibiltzen zenean, bai asmo santu eta zintzoak zirela, Kristoren maitasunagatik hara-horra ibiltzen zenean, eskuz lan eginez oso trebatu

2131Benetan: (H. “de hecho”)
2132Haretan ere: hain zuzen (ere)

zen, eta honegatixe, hain zuzen, leku haretan anitz urtez zegoen. Baldernako gora-beheretan ardurarik ez, bai gordetegi eta ganberetako zeraz, kudeaketaz ardura hartuxea; nahi zuenean jan ahal zuen, ezer ostu edo ebatsi beharrik bage eta Jaungoikoari goraki mintza zekiokeen erre zezaten beldurrik bage.

Hau guztiau mauka eta mauka artean, ahamen baten eta beste baten artean jaulki zidan, aletu eta zehaztu zidan, eta ene buruari galde nik, ea zer gehitu ote zuen haren irudimenak eta zer ote zuen beretzat gorde.

Jakin-minez begiratu nion, ez haren esperientziaz harritua nengoelako, alderantziz baizik, gertatu zitzaionari Italian jazotako hainbat gertaera eta mugimenduren sintesia neritzolako, orduko Italia herrialde liluragarri bezain ulergaitz bilakatzen baitzuten.

Zer azaleratzen[2133] zen eleketa haretatik? Borrokaizunezko[2134] biziera zuen gizon baten irudia, beste gizon bat hilarazteko ere gauza bai baina bere gaiztakeriaz erru-zentzurik[2135] ez zuena. Niri, garai haietan, Jainkoaren legeari egin edozein eraso beste zein-nahiren antzekoa

2133Azaleratu: emerger
2134Borrokaizun: aventura
2135Erru-zentzu: sentimiento de culpa (H. “ser consciente de ...”)

iruditzen zitzaidan arren, orduan entzuten nituen gertaera batzuen nondik-norakoa ulertzen hasi nintzen, eta ohartzen nintzen, ohartu, gauza bat dela giza-aldra itsu batek egin sarraskia edo triskantza, Jainkoaren legeak eta deabruarenak nahasirik, liluraldi ia aszetiko batean, eta beste gauza bat bakoitzak bakoizka egin odol hotzezko sarraskia zital eta isilpekoa. Eta ez zirudien Salbatorek hau lako krimen batez eskurik zikindu izan zezakeenik.

Bestalde, Abadeak hitz erdika[2136] esandako zerbaitez gehiago jakin nahi nuen, eta frai Dultzinoren izaerak, niretzat ia ezezaguna bazen ere, ene gogoa atzemana[2137] zuen. Halarik ere, egun bi haietan entzun nituen elkarrizketetan haren mamua hantxe zegoen. Halatan bada[2138], hitzetik hortzera[2139] galde egin nion:

— Zure joan-jinetan[2140] ez zinena inoiz frai Dultzinorekin topatu?

Haren erantzuera[2141] oso harritzekoa izan zen. Begiak, zabal-zabalak zituenak, betzuloetatik irteteko zirela zirudien: behin eta berriz aitaren egin zuen, eta enetzat

2136Hitz erdika: (H. “insinuar”)
2137Gogoa atzeman: (H. “obsesionar”) (Bihotza atzeman: seducir)
2138Halatan bada: (H. “de modo que...”)
2139Hitzetik hortzera: (H. “a bocajarro”)
2140Joan-jin:(H. “viajes”) (Joan-etorri, ibilaldi…)
2141Erantzuera: (H. “reacción”)

ulertezin zen hizkera batez esaldi batzuk erdizka ebakiz murmurikatu zituen. Ukoak[2142] zirela ulertu nuen, ordea. Orduraxe arte, begi onez eta uste onez begiratu zidan, adiskide antzean ia esango nuke. Une haretan, alderantziz, gorrotozko begiradaz jo ninduen, abantzu. Ondorean, akiakula[2143] bat emanik, ez dakit zeren aitzakia, alde egin zuen.

Hara arteraino[2144] heldurik, ni jakin-minak jota nengoen. Nor ote zen fraide hura, beraren izena entzunda edonori sarrakio[2145] sartzen ziona? Nire jakiteko egarri hura lehen bai lehen berdindu[2146] behar nuela erabaki nuen, iraungi behar nuela. Asmo bat buruan barrena zeharkatu zitzaidan. Ubertino! Beronek zuen lehen gauean aipatu haren izena. Fraideen, *fraticelli*en eta bestelako jendilaia orduan hara-horra-hona ibiltzen zenaren gora-behera, argiak bezala ilunak, guztiak ezagutzen bide-zituen. Non ediren nezakeen oren[2147] haretan? Zalantzarik ez: elizan, otoitzetan murgildua. Eta hara buruz hasi nintzen, ttipi-ttapa, une batez astia bainuen.

2142Uko: ezezko
2143Akiakula: aitzakia, estakuru, txutxu...
2144Hara arteraino: (H. “a aquellas alturas”)
2145Sarrakio: pavor
2146Berdindu: (Egarri, gose...hitzekin ase edo bete edo kendu esatekoa)
2147Oren: ordu

Ez nuen jarrugi. Gauera arte ez nuen ediren. Beraz, nire mina, jakitekoa alegia, sendatzeke zegoen, orain jaulkitzeko ditudan gertaerak izan ziren bitartean.

HIRUGARREN EGUNA

NONA

Gilenek Adsorekin heresiaren ibai handiaz, jende xeheak elizan duen eginkizunaz, eta lege orokorren ezagungarritasunaz[2148] *hitz egiten duenekoa, eta ia*

2148Ezagungarritasun: cognoscibilidad

bide batez bezala Benantziok aipatu hil-aztikeriazko ikurrak nola deszifratu dituen jaulki dio.

Gilen aroztegian aurkitu nuen, Nicolagaz lanean, biak ala biak zereginean buru-belarri. Mahai gainean leiarrezko[2149] txirringila[2150] batzuk, beira-leiho batera sartzeko modukoak, eta, tresna egokien laguntzaz, nahi zuten neurrira mehetuak izan zituztenak. Gilenek begien aurrean ipiniz aztertzen ziharduen. Nicolak, bestalde, arotzei agintzen zien, beirazko txirringila haiek sartu behar ziren urkulua egiteko eta egokitzeko.

Gilen marmarka ari zen, haserre antzo, izan ere, ondo egokia zen beira-gauza haietariko bakarra esmeralda margokoa zen, eta, zioenez, ez zuen nahi larrutxak larreak balira bezala ikusterik. Nicola arotzen egitekoa ikustera joan zen. Beiraki haiekin gora eta behera nire maisua, eta orduan Salbatoreren elkarrizketa aipatu nion.

— Antza denez, gizon horrek oso biziera hara-honakoa ukan dik –esan zuen–, beharbada, dultzindarrekin egon dena,

2149Leiar: vidrio
2150Txirringila: cosa redonda, rodaja, disco...

egia. Abadia hau mikrokosmo bat duk; Joan Aitasantuaren eta frai Mitxeleren ordezkariak iristean, dena osatua izanen duk.

— Maisu –nik– dagoeneko ez dut ezer ulertzen.

— Zertaz, Adso?

— Bada, zeraz batez ere, hots, heretikoen taldeen arteko aldeez, ezberdintasunez, banaiez. Dena dela, honetaz geroago galdetuko. Oraintxe ezberdintasunaren arazoa zait axolagarri. Ubertinorekin hitz egin zenuenean, santuak eta heretikoak guztiak berdinak direla baieztatu nahi zeniola iruditu zitzaidan. Abadearekin hitz egitean, ordea, heretiko batengandik beste batenganako aldea azaltzen saiatu zinen, eta orobat heretikogandik orodoxoganakoa. Beraz, Ubertino, sakonean berdinak direnak ezberdinak direla-eta dagoelako judikatu[2151] zenuen, eta Abadea, sakonean ezberdinak direnak berdinak direla uste duelako judikatu.

Gilenek une batez betaurreko zerak mahai gainean utzi zituen, eta:

— Ene Adso on, saia gaitezen bereizten, Parisko eskoletako legez bada ere. Bada, han diotenez, gizakiek oro funtsezko izaera bat eta bera ei ditek, ez da?

2151Judikatu: censurar, criticar

— Bai, da –erantzun nion nire jakituriaz harro–. Abereak dira, baina arrazoidunak, hots, zentzudunak, eta bereizgarri barre egiteko gaitasuna dute.

— Ondo. Horrela eta guztiz ere, Tomas ez duk Buenaventura bezalakoa, lehena lodia bigarrena argala, Uguccione gaiztoa izan daitekek eta Frantzisko ona, Aldemaro patxadatsua eta Agilulfo urduria. Ala ez?

— Zalantzarik ez.

— Beraz, gizaki ezberdinen artean izatasun bat dagoela esan nahi dik horrek, funtsezko izaeran bai, eta aniztasuna, aldiz, axaleko gizatasunean, gizonaren on-txarrean askotarikoak gaituk.

— Argi dago.

— Beraz, Ubertinori giza-izaera berdina esaten diodanean, bere nahasmendu guztiekin, nahiz onaren maitasunaz nahiz txarraren maitasunaz ari nauk, eta gizakiaren izanazko berdintasuna dagoela iradoki nahi zioat. Gero, Abadeari kataroen eta valdotarren artean ezberdintasunak dagozela esaten diodanean, haien axaleko berezitasunak azpimarratzen[2152] ditiat. Eta banaita[2153] horretan behin eta

2152Azpimarratu: (H. “hacer incapié”)
2153Banaita: diferencia (?) (Baineta, banai…?)

berriz indar egiten zioat, zeren, sarritan valdotar bat erretzen ditek kataroen egiteak egotzi baitzaizkio, eta alderantziz ere bai. Eta gizaki bati su emaiten zaionean, lagun bakotx bat, nordin[2154] bat, erretzen duk, bere izaite bakarrean, eta izaite hutsa ezerezean uzten duk, nahiz eta izaite hori berez on izan, Jaungoikoaren begien aurrean behintzat bai, beronek izanarazten dik eta. Uste al duk arrazoia nahikoa dela hau ezberdintasuna azpimarratzeko?

— Bai, maisu –erantzun nion, gogoberoturik[2155]–. Orain ulertzen dut zergatik hitz egin zenuen hala, eta zure filosofia ona onesten dut!

— Ez duk nirea, eta ez zakiat ona ere ote den. Axolazkoa, berriz, hik ulertu izana. Ikus dezagun orain hire bigarren galdera.

— Zera, batzuetan ezdeus sentitzen naiz. Ezin bereizi zein diren axaleko baineitak valdotar, kataro, Lyongo txiro, umiliatu, begardo, tertziario, lonbardiar, joakindar, patariar, apostoliko, Lonbardiako txiro, arnaldar, gilendar, espiritu askearen jarraitzaile eta luzifertarrak. Zer egin behar dut?

2154Nordin: notin (Persona) (?) (Nor+din)
2155Gogoberotu: entusiasmar

—Oi, gaixo Adso! –oxendo Gilenek algaraka, eta garondoan kokotekotto maitagarri bat eman zidan– Errua ez duk hirea! Begira, azkenengo bi mendeotan, edo lehenagotan, gure mundu hau artegatasun[2156], itxaropen eta etsipenezko[2157] bolada batzuek astindua eta inarrosia izan balitz bezala, oro aldi berean… Baina ez, berdingo[2158] hau ez duk on. Pentsa ezak ibai bat jariotsu[2159] eta uhaitzandi[2160], miliak eta miliak ibilki, eta hor erraz ikusten duk ibaia non dagoen, non ezponda[2161], non lur lehorra[2162]. Halako baten, ibaia, nekeagatik, azkarregi eta luzaz ibili delako, itsasotik hurbil dagoelako, ibai guztiak irensten dituen itsaso bihurtzear, ibaiak, dagoeneko, ez zakik zer den. Bere uhao[2163] bilakatzen duk. Agian adar nagusi bat aurrerattoago zoak, baina beretik beste ibaiadar batzuek irteiten ditek, norabide orotatik, eta batzuk elkarren artean batuz zoazak, eta ez duk jakiten non den bata non bestea, non bata hasten den non bestea amaitzen, eta zaila duk jakiten, maiz, oraindik ibai den edo dagoeneko, haraz gero, itsaso den…

2156Artegatasun: impaciencia
2157Etsipen: (H. “desesperación”)
2158Berdingo: (H. “analogía”) (Beerdintasun)
2159Jariotsu: caudaloso (Emaritsu?)
2160Uhaitzandi: (H. “imponente”) (U+gaitz+handi)
2161Ezponda: (H. “terraplén”)
2162Lur lehor: (H. “tierra firme”)
2163Uhao: (H. “delta”) (N)

— Zure alegoria txarto uler ez badezat, ibaia Jaungoikoaren hiria da, edo zuzenen erresuma, milurtera hurbiltzen ari zena, eta hango ziurtasunik ezean ezin eutsi izan zion, eta egiazko zein gezurrezko profetak sortu ziren, eta dena zabaltza[2164] handi batean isuri zen, jario zen, Armagedon-goa gertatuko den lekuan…

— Ez duk hori nik burutan dadukadana. Egia ere baduk, ostera, frantziskotarrek beti hirugarren bizitzaren aburua eta Espiritu Santuaren erresumaren etorrera gogoan[2165] duguna. Baina ez, nik besterik nahi ukan diat, heuk uler dezaan, hots, Elizaren elkargoa[2166] mendez mende gizartearen ere elkargo izan dena, Jaungoikoaren herria hain zuzen ere, aberatsegi bihurtu dela, eta jariotsu, eta irago bazter guztietako sastamarrak[2167] eta sarroa[2168] tarraz eramaiten ditik, eta bere garbitasuna galdu dik. Itsasadarrek, nolabait esateko, ibaiak lehen bai lehen itsasoratzeko nahia adiarazten ditek, hau duk, bere garbitasun unera eta gunera. Baina nire alegoria ez duk egin-egina[2169], azaldu nahi ukan diat, ezen, ibaiak ezin eutsi dionean, heresiaren adarrak eta beste mugimendu

2164Zabaltza: llanura, planicie (N)
2165Gogoan ukan: (H. “tener presente”)
2166Elkargo: (H. “cuerpo”)
2167Sastamarrak: residuos que lleva el agua (Zotzabarrak, torrol...)
2168Sarro: escoria / tierra dejada por río
2169Egin-egina: perfecto (Hobezin...)

berrizaleenak ugari-ugariak direla, eta haien artean nahasten ere badirela. Nahi baduk, nire alegoria ezinago txar horri beste zer bat ere gehi diezaiokek: errekako ezpondak berriro eraikitzen ahalegintzen den lagun baten irudia, alperrik saiatzen dena. Hala, bada, uhaoko adar batzuk lurrez estalirik geratzen dituk, beste batzuk ibaierantz okertuak izaiten dituk, eraiki ubideetatik, eta beste gainerakoak aske geratzen dituk, noranahiko; izan ere, ur-emari osoa eramaitea ezinezko duk eta ibaiak, errekan barrena joan nahi badeza, emari pitin bat galdu behar dik, jarioa murriztu behar, bere erreka garbi nahi badeza.

— Gero eta gero gutiago ulertzen dut.

— Nik berdin. Ez nauk oso ona paraboletarako. Ahantzi ibaiaren istorio hori. Pentsa ezak aipatu dizkiadan mugimendu horietarik asko orain dela berrehun edo gehiago urte sortu zela, eta asko, dagoeneko, suntsitu dela, eta beste batzuk berri xamarrak direla...

— Horrela ere, heretikoez hitz egiten denean guztiak batera nahasirik aipatuak izaiten dira.

— Egia duk, eta heresia horrela zabaltzen duk, eta, aldi berean, bidenabar, berez suntsitzen den era ere baduk.

— Ez dizut ulertzen, beste behin.

— Ene Jainkoa, zein zaila den! Ea, ba. Demagun ohituren berritzaile haizela eta lagun talde batekin mendi gain baterantz hoala, txirotasunean bizitzeko asmoz, eta harik epe ez luzera, jende asko heuregana datorrela, urruneko lurraldeetatik ere bai, eta heu igarle edo profetatzat hartzen hautela eta heuri darraizkiala. Heugatik datoz edo heuk esaten duanagatik?

— Ez dakit. Bestela, zergatik edo zerarren etorri?

— Euren gurasoakandik istorioak aditu ukan dituztelako, berritzaileei buruz eta beste erkidego batzuez, guti-asko egin-eginak omen, eta denak gauza bera direla pentsatzen ditek

— Horrela bada, mugimendu bakoitzak besteen umeak jarauntsiz hartzen ditu, antza.

— Bai, haiekin elkartzen diren gehienak xumeak, inozoak direlako, dotrina aldetik batere jantziak ez baitira. Honela ere, ohituren berritzaileen mugimenduak hainbat leku ezberdinetan sortzen dituk, era ezberdinez eta dotrina ezberdinekin. Esate baterako, maiz kataroak valdotarrekin nahasarazten ditiztek. Honelarik ere, batzuen eta besteen

artean alde handia zagok. Valdotarrek ohituren berriztapenaren alde jarduten zitean, baina Elizaren barruan; kataroak beste Eliza bestelako baten alde aritzen zituan, Jaungoikoaren eta moralaren bestelako ikuspen baten alde predikatzen zitean. Kataroen eritziz mundua bi indar elkarren aurkakok banatzen zitean, onak eta gaiztoak, ongiak eta gaizkiak, eta haiek eraikitako Elizan hobezinen eta fededun arrunten arteko banaita zegoan, alderdi bakoitzak bere sakramentu bereak eta bere erritu bereak zitian. Hierarkia txit zorrotza ezarri zitean, doi-doi gure Eliza ama santuarena bezalakotsua, eta ez zitean nahi botere era oro suntsitu. Honegatik mugimendu horretara botere handiko gizonak gehitu zituan, kidetu aberats eta ukandunak[2170], feudotarrak orobat horrekin bat zetozan. Munduaren aldatzea ere ez zitean burutan, haien eritziz ongiaren eta gaizkiaren arteko arrakala inoiz ere gainditzerik edo iragaiterik ez baitzegoen. Valdotarrek, ordea (eta haiekin arnaldarrek edota Lonbardiako txiroek), bestelako mundu bat eraiki nahi zitean, txirotasuna funtsezko aburutzat harturik. Honegatik elkargoan bizi zituan, behartsuak abegiz hartzen, beren eskuen lanez irauten. Kataroek Elizako

2170Ukandun: hacendado, propietario

sakramentuei uko egiten zietean; valdotarrek ez: aho-belarrizko aitorpenari baino ez.

— Bada, hori horrela, zergatik nahasarazten dituzte eta haietaz bietaz belar gaizto bera balira bezala hitz egiten?

— Esan diat, ba: bizia emaiten dienak herioa ere emaiten ziek. Inozoak ugari jaugiten[2171] direnez garatzen[2172] dituk, beste mugimendu batzuek bultzarurik, eta matxinadarekin itxaropena alderdi berean dela uste dutelarik. Inkisidoreek sakailatzen ditiztek, batzuei besteen hogenak egotzirik[2173], eta mugimendu bateko jarraitzaileek halako gaiztakeria egin badute gaiztakeria hori beste edozein taldetako kideri egotziko ziotek. Inkisidoreek oker egiten ditek, arrazoimenduaren arauera, dotrina ezberdinak nahasten dituztelako; eta arrazoi ditek besteek oker egiten baitute, zeren, halako hiritan halako mugimendu sortzean, arnaldarrak esaterako, harantz eta haretarantz joaiten baitira, beste leku batzuetan kataro edo valdotar izan ziren edo diren haiek. Anaia Dultzinoren apostoluek elizgizon eta jaunak suntsitu, hil beharra zela predikatzen zitean, eta indarkeriazko ekintza ugari egin zitean; valdotarrek indarkeriari ezetz esaten ziotean, *fraticelli*ek bezala. Baina

2171Jaugin: (H. “afluir”) (Jaugin: venir / tendencia) (?)
2172Garatu: desarrollar
2173Egotzi: imputar, atribuir

Dultzinoren garaian, ziur nagok, honen taldean lehenago *fraticelli*ekin edo valdotarrekin ibilitakorik asko eta asko bildu zirela. Inozoek, Adso, ezin ditek beren kasa hautatu beren heresia: beren lurraldean predikari dabilenari atxikitzen zaizkiok, beren herrixkatik edo karrikatik iragaiten denari. Haien etsaiek hau bazakitek eta honezaz jokatzen ditek. Predikari iaioak bazakik herriaren begien aurrean heresia bakarra erakusten, aldi berean atsegin sexualari eta gorputzen batzeari uko egitea bultzatzen duena beharbada; honela eginez heretiko guztiak deabruzko eztabaida nahaspilatu baten barruan erakusten ditik, zentzu onari irain eginda.

— Beraz, haien artean ez dagoz elkarloturik eta deabruaren iruzurragatik soilki inozoak joakindar edo espiritual izan nahi lukeen arren, azkenean kataroen eskutara erortzen da, edo alderantziz?

— Ez, ez duk hori. Ea, begira, Adso, berriz ere hasiko gaituk, ahalaz. Ni ere ziur ez nagoen zerbait azaldu nahi diat, zinez[2174]. Okerra, nire gardiz, hauxe: aurrenik heresia dela eta geroago inozoek besarkatzen dutela (eta honegatixe kiskalita amaitzen). Egiaz, aurrenik inozoak nola dagozen eta honen ondorioz heresia.

2174Zinez: (H. “te aseguro”)

— Nola da hori?

— Badazaguk Jaungoikoaren herria nolakoa den, Artalde handi, ardi onak eta ardi txarrak, eta artzanora[2175] jagole, hots, gudagizonak, hots, munduko boterea, enperadorea eta herri-jaunak, eta gidari artzainak, elizgizonak, Jainkoaren hitza itzultzen dutenak. Irudia argia duk.

— Baina ez da egiazkoa. Artzainak eta orak borrokan izan ohi dira, batzuek besteen ahalgoa, eskubide berak nahi dituztela eta.

— Horixe, eta horregatixe ez duk argi ikusten artaldea nolakoa den. Elkar sarraskituz, ekin eta ekin, ez orek ez artzainek ditek artaldea zaintzen. Taldearen zati bat at zagok, larretik landa[2176] zagok

— Larretik lekora?

— Bai, kanpoan. Nekazariak baina Jaungoikoaren nekazari ez direnak, lurrik ez baitadukate, edo dadukatenak nahikoa elika-biderik ez, jaten aski emaiten ez baitie. Herritarrak bai, baina herritar ez direnak inongo elkargotako kide ez baitira, ezein gremiotan ez baitute esku hartzen: jende xumea,

2175Artzanor: (H. “mástín”) (Artzain+or: zakur)
2176Landa: afuera / campa/…) (Kanpo, lekora, at...)

memeria[2177], inoren azpitan zegoen jendexkila. Ikusi duk inoiz legenardun-talderik landan?

— Bai, behin bat ikusi nuen. Ehun bat ziren, marketsak[2178], haragia zurixka, xatika-xatika erortzen zitzaiena. Makuluez zebiltzan, begiak odoltsuak, betazalak handituak. Ez mintzorik ez garrasirik edo intziririk: arratoien antzera, garramistoka[2179].

— Kristau herriarentzat, artalderean at dagozenak besteak dituk. Artaldeak gorrotatzen ditik, eta haiek artaldea gorrotatzen ditek. Guztiok hilik bagina nahi liketek, guztiok haiek bezala legenardunak bagina.

— Bai, Marko erregearen istorio bat gogoan dut, Isolda ederra kondenatu behar zuela eta su eman agin zegoelarik legenardunak agertu ziren eta su-meta baino zigor gaitzagorik bazegoela esan zioten. Oihu egiten zioten, honela: «Emaiguzu Isolda, utzi egiguzu edukitzen, gaisotasunak gure nahikeria bizkortzen du, emaiguzu zeure legenartsuoi! Ikus nola itsasten zaizkigun zarpailak[2180], nola datxezkien gure zauritzar zornetsuoi[2181], gure mintzarroi[2182]!

2177Memeria: (H. “plebe”) ("(S-saug), ramassis de gens, pègre, plèbe")
2178Markets: deforme (Makets...)
2179Garramisto: chillido agudo
2180Zarpail: andrajo-andrajoso
2181Zornetsu: (H. “purulento”) (Zorne: pus)
2182Mintzar: llaga asquerosa

Emakumea, zurekin oihal aberatsetan batzen zena, erbindolaz[2183] estaliz, bitxi bikainez apainduz, legenardunon erresumara sartuko da, eta orduan bai, bere hogena aitortuko du eta gure txosnazuloetan[2184] sartuko da, gurekin etzanen elorrizko su-gar ederrotan!»

— Bazakusaat, fraidegai Jaun Done Benitoren jarraitzaile gaxte izanki, oso irakurkari harrigarriak dituala –egin zuen iruzkin Gilenek isekati, eta ni gorritu nintzen, jakin bai bainekien ezein fraidegaik maitasun-eleberririk irakurri behar ez duena, baina Melk-eko monasterioan gazteenek halakoak elkarri emaiten genizkion eta gauez kandela-argitan irakurri ohi genituen–. Ez dik axola –Gilenek aurrera–, esan nahi diadana ulertu duala zakusaat. Legenardunek, baztertuek, beste guztiak beren hondamendira joanarazi nahi ditiztek. Eta zenbat eta baztertuago haiek, hainbat eta gaiztoago, sorddes bilakatuko dituk, eta zenbat eta lemur edo mamu itxurago eman, ororen kaltegarri, orduan eta baztertuago haiek. Jaun Done Frantziskok argi ikusi zian: honegatik legenardunekin bizitzera joan zuan, lehenbiziz. Herri xehearen aldatzea ezinezko duk baztertuak bergizartera ezik.

2183Erbindola: armiño (-larru)
2184Txosnazulo: (H. “tugurio”)

— Alabaina, beste baztertu batzuez ari izan zara; heretikoen taldeak ez dira legenardunez osatzen.

— Artaldea obo[2185] erdikideen[2186] talde bat bezalakoa duk, artaldearen erditik inguru alderaino doazela. Legenardunak, oro har, baztertuak dituk. Frantzisko Deunak argi ikusi zian. Ez zian soilik legenardunei urgaztea nahi, hau erruki egintza hutsa bailitzateke, kaxkar[2187] eta deusetarako ez. Bere egintzaz besterik adiarazi nahi zian. Entzun duka txoriei prediku egin ziela?

— Ho[2188], bai! Kondaira eder hori jaulki didate, eta, zinez, Jaungoikoaren izaki ttiki-biguntto horiekin egoiteaz gozartzen zuen santu horri liluragarri deritzot –esan nion kartsutasunez[2189] hanpatua[2190].

— Bada, ez diate jaulki benetako istorioa, orain frantziskotarren erkidegoak berreraikitzen diharduena baizik. Frantzisko, hiriko herritar xumeei eta herriko buruzagiei ele egin zienean eta ulertu ez ziotela ohartu zenean, hilerrira buruz joan zuan eta beleei, mikei[2191],

2185Obo: círculo
2186Erdikide: concéntrico
2187Kaxkar: (H. “pobre”)
2188Ho: oh / bueno / (?)
2189Kartsutasun: (H. “fervor”)
2190Hanpatu: henchido /...
2191Mika: urraca, picaza

mirotzei[2192], eta hilikia jaten zuten hegazti harrapariei mintzatu zitzaiean.

— Izugarria! Beraz, ez ziren txori onak?

— Hegazti harrapariak zituan, bazterturiko txoriak, legenardunak lasokoak[2193]. Frantziskok, doike, Apokalipsiko esaldi hura zian burutan, hau duk: *Guero ikus neçan Ainguerubat iguzquian barna cegoela, ceinec oihu eguin baitzeçan ocengui, ciostela ceruären arteaz hegaldatzen ciraden chori guciey, «Çatozte, eta bil çaitezte Iainko handiaren affarira, jan deçaçuentçat reguén haraguia eta capitainén haraguia, eta borthitzen haraguia, eta çaldién haraguia, eta hayén gainean iarriric daudenena, eta libre eta sclabo, chipi eta handi gucién haraguia*!».

— Beraz, Frantziskok baztertutakoak aztorarazi[2194] nahi ote zituen?

— Ez; hori Dultzinok eta beratarrek[2195] egin zitean. Frantziskok, baztertuak matxinatzeko gerturik, atzera berriz ere Jaungoikoaren herrira itzul zitezen nahi zian. Artaldea berrosatzearren, ardi galduak berbildu beharra zegoan.

2192Mirotz: gavilán / Belatz: halcón
2193Lasoko: lako, bezalako, legezko, gisako
2194Aztorarazi: (H. “soliviantar”) (Hacer que se solivianten)
2195Beratar: de los suyos (Gutar, zuetar, zeutar…) (?)

Frantziskok ezin egin izan zian, eta atsebage[2196] handiz dioat. Baztertutakoak erakarteko, Elizaren barruan jardun behar, honetarakoxe bere erkidegoa aitortua behar zian, eta honexen ondorean balderna bat sortuko zian, eta sortu egin zian, eta oboaren, biribilkiaren irudia berrosatuko, bazterrekoak honetarean at baitzegozen. Orain, nik uste, ulertuko ahal duk zergatik dagozen *fraticelli*en eta joakindarren taldeak, berauen inguruetan baztertuak berriz ere elkartzen baitira.

— Bai, baina ez gara hasi Farntziskoz hitz egiten, heresiaz baizik, xaloen eta baztertuen emaitza den heresiaz.

—Horrelaxe. Artaldeko ardi galduez hitz egin diagu. Mendeetan, Aitasantua eta enperadorea, ahalgoagatik elkar porroskatzen[2197] ari ziren bitartean, haiek beti bazterrean bizi zituan, egiazko legenardunak, izan ere legenartsuak Jainkoak emaniko itxura duk, parabola eder hau ulertu ahal dezagun, eta «legenardun» esatean baztertuak ulertzeko, txiroak, xaloak, behartsuak, etxaihesak, landerrak[2198] landetan, apaletsiak[2199] hirietan. Baina ez diagu ulertu,

2196Atsebage: (H. “amargura”)
2197Porroskatu: sakailatu (Destrozar, destruir...)
2198Lander: (H. “desheredados del campo”)
2199Apaletsi: (H. “humillados”)

legenarraren misterioak oraino ere burua nahasten[2200] ziguk, ez genian jakin zantzu bat zela igarten. Artaldetik at zegozenez, Kristoren hitza aldarrika zezan edozein prediku aditzeko edo sorrarazteko prest zegozan, baldin prediko horrek or eta artzainen jokaera sala baleza eta egunerean baten berauek zigortuak izanen zirela agin baleza. Boteredunek beti jakin ziaten. Baztertutakoak harzara artalderatzeaz haien probilegioak, bakoilegeak alegia, murriztuko zituan. Honegatik beren buruaren jabe eta jaun ziren baztertuak, heretikotzat agerrarazten zitiztean, haien dotrinak zein edo zein izanik ere. Heretikooz den bezainbatean, bazterkeriak zeharo itsutuak zitian, eta ezein dotrinaz ardurarik ez axolarik ez zitean. Hauxe heresiaren lilura. Nor-nahi duk heretiko, nor-nahi ortodoxo. Fedeak ez dik garrantzirik, mugimenduak eskaintzen duen itxaropenak bai. Heresiak beti benetan baztertuak badirelako adiarazpide zehatzak dituk. Heresiaren axala pittin bat igurtziz gero, beti legenarduna agertzen duk. Eta heresiaren aurka borrokatzean nahi den bakarra, legenarduna beti legenardun izaitea duk. Legenardunez den bezainbatean, berriz, zer eska? Hirutasun Santuaren dogman edo Eukaristiaren esanahian zer den zuzen zer oker jakiteko gauza izan

2200Burua nahasi: (H. “obsesionar”)

daitezen? Tira, bada, Adso! Holako jolasak guretzakoak dituk, dotrina-gizonak gaituk eta xaloek beste arazo batzuk ditiztek. Eta, to, inoiz ez ditek konpontzen lortzen. Eta honegatixe bihurtzen dituk heretiko.

— Baina, zer dela eta laguntzen diete batzuek?

— Beren arazoetan on datozkielako[2201], eta arazook nekez dituk fedearekikoak, gutiz gehienetan ahalgoa, hots, boterea baino ez ditek nahi.

— Horregatik Erromako Elizak bere etsai guztiei heretiko esaten die?

— Horregatixe. Eta horregatik bere mendean hartu ahal duen heresia ortodoxotzat jaiten[2202] dik, edo ahaltsuegi bilakatu delako onartu behar dik, aurkari izaitea txar baitatorkio[2203]. Honela ere, ez zagok arau zorrotzik, gizonen arauera izan ohi duk, eta egokierak[2204] zein diren. Eta herri-jaun elizge edo legoen artean berdin gertatzen duk. Orain dela berrogeita hamar bat urte Paduako herri-batzarrak[2205],

2201On etorri: convenir (N)
2202Jo – jaiten - joko
2203Txar etorri: inoportuno (N)
2204Egokiera: circunstancia
2205Herri-batzar: (H. “comuna”)

arautegi batez, elizgizonik hil zezan norbaiti diru larriko[2206] isuna ezartea erabaki zian.

— Hori hutsa da!

— Horixe. Lagun xumeengan elizgizonen aurkako gorrotoa pizteko era bat zuan; hiria gotzainarekin borrokatan zegoan. Beraz, uler dezakek, bai, zergatik Cremonan, aspaldi haretan, inperioaren jarraitzaileek kataroei laguntzen zieten, ez fedeagatik, Erromako Elizari kalte egiteagatik baizen. Batzuetan hirietako nagusiek heretikoei urgazten zietek, ebangelioa herri xumearen hizkerara itzultzen dutelako: hizkera arrunta, jende xehearena, hirietako hizkuntza duk; latina, Erromako eta monasterioetako hizkuntza duk. Edo valdotarrei urgazten zietek, berauek predikuetan gizonezko zein emakumezko, oro, handi zein ttiki, irakasle eta predikari izan daitezkeela baieztatzen dutelako, eta emutsa[2207], hots langile edo behargin huts eta ments[2208] denak, ikasle izan denak, hamar urte geroago bera beste baten maisu izan nahi dik…

— Horrela elizgizonak ezinbesteko bihurtzen zituen berezitasuna bertan behera uzten baitute! Alta bada[2209],

2206Diru larri: (H. “denario”) (N)
2207Emuts: proletario, pobre, obrero
2208Ments: carente de -inteligencia, dinero…-
2209Alta bada: (H. “Pero entonces”)

zergatik herri-nagusiek heretikoen aurkako bihurtu eta emaiten diote esku Elizari horiek sutara aurtiki ditzan?

— Ulertzen dutelako, zera, heretiko horiek gora eta gora baldin badoaz, gero eta ugariago, hizkera arrunt ber-beraz mintzatzen diren laiko edo lego haien beraien nagusigoa, bakoilegeak, pribilegioak alegia, amaituko dituztela ulertzen dutelako. Letrango kontzilioan, 1179. urtean (badakusak arazo-marazo[2210] hauek duela bi menderik hona, abantzu, datozela), Walter Map-ek valdotarrak bezalako gizon ergel eta eskolabageko[2211] haien dotrinei sineste emaiteak[2212] zuen arriskuaz ohartarazi zian. Oker ez banago, beraren arrazoibide hauxe: etxe finkorik ez dadukate, ortozik edo oinutsik dabiltza, ezeren jabe ez dira, oro ororena, elkarrena baita, biluzik, larrugorritan ez baina, Kristo biluziaren atzetik doaz; eta honen era apal-apalean baztertutako lagunak direlako hasten dira, baina aukera gehiago, are, haboro eskaintzen bazaie, gu guztiok iraitziko gaituzte. Haregatik, geroago, hiriek eskeko-baldernak[2213], eta gu frantziskotarrok bereziki, onartu zitiztean eta gintiztean. Honela penitentziaren beharra, batetik, eta hiriko bizimodua,

2210Arazo-marazo: (H. “historias”) (N)
2211Eskolabage(ko): iletrado, ignorante
2212Sineste eman: (H. “dar crédito”) (N)
2213Eskeko-balderna: órdenes mendicantes (N)

bestetik, elizaren eta burgutarren[2214] arteko lotura, harreman orekatuak ezarri ahal izan ziratekean. Burgutarrak, hiritarrak alegia, euren negozioetan, garatzetan[2215] ziren axolati, ez bestetan.

—Hori horrela[2216], Jaungoikoarenganako maitasuna eta garatzenganako maitasuna aurrindu[2217] ahal izan ziren, otean[2218]?

— Ez. Berriztapen espiritualen mugimenduak geldiarazi zitiztean, Aitasantuak onetsi balderna baten mugen barruan bideratuz. Honela ere, mugimendu horien oinarrietan zegozen joerak ezin bideratu; eta bestelako mugimendu batzuk sortu zituan, zartailukarienak esate baterako, inori gaitzik egiten ez ziotenak, edota iskiludun saldoak ere sortu, frai Dultzinorenak adibidez; sorgin edo azti-errituak ere hasi zituan, Montefalco-ko fraideenak bezalakoak, Ubertinok aipatu zituenak…

— Baina, nork zuen arrazoi? Nork du? Nor zegoen zuzen, nor oker? –galde egin nion, nahasirik.

— Nork bere arrazoia zian, guztiak oker.

2214Burgutar: burgués
2215Garatz: negocio (nec-otium)
2216Hori horrela: (H. “Entonces”)
2217Aurrindu: armonizar, acomodar
2218Otean: de duda, sorpresa

— Zuk, berriz –erauntsi nion ia oihuz, asalduxerik–, zergatik ez duzu aieka[2219] batera ala bestera egiten? Zergatik ez jarri bataren ala bestearen alde? Zergatik ez esan nor den zuzen?

Gilen une batez isilik, lantzen ari zen betaurrekoa argiztatzeko kandela goratu zuen; gero, mahairantz beheratu zuen, eta betaurrekoan zehar mahaian zegoen tresna bat erakutsi zidan:

—Begira –niri–. Zer dakusak?

— Tresna, handixeago.

— Ongi, horixe egin daitekeen bakarra: hobeki begiratzea.

— Baina tresna beti bera da.

— Benantzioren eskuizkribua ere beti bat izanen duk, betaurreko honezaz irakur ahal dezadan egunean. Agian, irakurriaz gero egiaren zati bat hobeki jakinen diat. Eta agian orduan monasterioko bizitza, hein baten, hobe zezakeagu.

—¡Hori, baina, ez da nahikoa!

— Ez pentsa gutti denik nik esandakoa, Adso. Roger Bacon-ez hitz egin badiat. Beharbada, ez duk izan aldi guztietako

2219Aieka: lado / pertido /… (H. “tomar partido”)

gizonik jakintsuena, niri, aldiz, beti liluragarri izan zaidak, berak jakintzarenganako zuen maitasuna sustatzen zuen itxaropenak beti lilurarazi izan naik. Baconek indarra sinesten zian, beharkizunak sinesten, xaloen asmakeria espiritualak sinesten zitian. Ez zukean izan frantziskotar on pentsatu ukan ez balu, ezen, sarritan Gure Jaunak txiroen, behartsuen, ergelen, eskolabageen ahoz hitz egiten duela. *Fraticelli*ak hurbildik ezagutu ahal izan balitu haietaz axola handiagorik ukan zukean, baldernako lurralde-buruzagiez[2220] baino handiago bai, behintzat. Xaloek doktoreek baino handiagoko zerbait baditek, hauek lege oso orokorren bila bidea galdu ohi baitute: haiek norbanakoen asmoa, edo, nahi baduk, usna[2221] ditek. Baina asmo hori bakarra ez duk nahikoa. Xaloek beren egia aurkitzen ditek, agian Elizako doktoreena baino egiazkoagoa, baina gero oldarrezko ekintzetan[2222] andeatzen[2223] ditek. Zer egin? Jakintza eman behar zaie? Errazegi, edo zailegi izan litekek. Gainera, zelako jakintza? Abboneren liburutegikoa? Maisu frantziskotarrek arazo honetaz gogoeta egin ditek. Buenaventura handiak zioenez, jakintsuen eginkizuna

2220Lurralde-buruzagi: (H. “provinciales”)
2221Usna: instinto (Asmo...)
2222Oldarrezko ekintza: actos impulsivos (N)
2223Andeatu: (H. “disipar”) (Gastar / estropear /...

honetan zatzak: xaloen ekintzetan dagoen barreneko[2224] egia adigai[2225] argitsuz adiaraztean…

— Perusako kapitulua eta Ubertinoren mintzaldi adimentsuak[2226] bezala, xaloen txiro izaiteko nahia teologia-tesi bilakatu zutenak –esan nuen.

— Bai, baina ikusi duk: hori beti berandu, baldin helduz gero, eta ordurako xaloen egia ahaldunen egia bihurtu duk, egia hau Ludoviko enperadorearentzat ongarriago bizitza behartsuko fraide batentzat baino. Nola egon xaloen eperientziaren aldean, hauen, esaterako, mundua aldatzeko eta hobetzeko duten jardun-gaitasunari[2227] eutsiz? Hori izan zuan Baconek agerrarazi zuen arazoa: «*Quod enim laicali ruditate turgescit non habet effectum nisi fortuito*»[2228], zioen. Xaloen esperientzia ekintza basati eta kontrolbageko bihurtzen duk. «*Sed opera sapientiae certa lege vallantur et in finem debitum efficaciter diriguntur*»[2229]. Honek, gutiasko, zera esan nahi dik, gauza praktikoetan, dela mekanika,

2224Barreneko: (H. “implícito”)
2225Adigai argitsuz: (H. “ con claridad conceptual”)
2226Adimentsu: (H. “doctas”)
2227Jardun-gaitasun: (H. “capacidad de obrar”)
2228«Laikoen zakarkeriagatik puzten denak ez du eraginik, halabeharrez ez bada».
2229«Baina jakituriaren egintzak nolabaiteko lege batek begirapeturik dagoz eta helburu baterantz joaiten dira eraginkorki.»

dela lugintza[2230] edo dela hiriko jaurgoa[2231] nolabaiteko teologia modu bat behar dela. Beraren eritziz, jakintza edo zientzia berria, izaerarena, jakintsuen ataza handi berria izan behar zuan, eta jakintsuek izaeren prozesuzko ezagutza mota berri batez, xaloen itxaropenetan zegozen funtsezko beharrizanak, araurik bageko ondasunak[2232], nolabait zuzen eta egiazkoak baitziren, koordinatuko zitiztean. Zientzia berria, aztikeria natural berria. Alta, beraren eritziz eginkizun hori Elizak zuzendu behar zian. Hau, baina, nik uste, garai haretan elizgizonen erkidegoa eta jakintsuena bat zirelako edo bat zetozelako. Egun ez duk hala; jakintsuak monasterioetatik lekora sortzen dituk, katedraletarean landa hazten dituk, bai eta unibertsitateez kanpo, at ere hezten dituk. Begira, adibidez, herrialde honetan: gure gizaldiko filosoforik handiena ez duk lekaide izan, botikaria baizen. Florentziar haretaz ari nauk, zeinaren olerkia noizbait aipaturik entzuna izango baituk, nik irakurri ez dudan arren, idatzita dagoen hizkuntza arrunta ulertzen ez diat eta. Gainera, nik haretaz dakidan apurrarren, oso gogoko ez nukeela uste diat, izan ere, guk bizitakoetatik txit urrun dagozen gaiei buruzko hitz-inguru[2233] bat duk. Honelarik

2230Lugintza: agricultura
2231Jaurgo: (H. “gobierno”)
2232Ondasun: (H. “acervo”)
2233Hitz-inguru: (H. “disquisición”) (?)

ere, aburu argi batzuk ere badituela uste diat, oro har kosmoaz, izadiaren atalkinen[2234] izaeraz, eta orobat estatuen jaurgoaz abururik argienak ditik. Beraz, neronek bezala nire adiskideek ere uste dugunez, giza-arazoetan ez zagokiok Elizari legerik ezartea, herri-biltzarrari baizik, eta, era berean, etorkizunean, jakintsuen erkidegoak dikek teologia berri-berria eta gizatiarra[2235] asmatzea, filosofia naturala eta aztikeria[2236] baikorra izango baita.

— Ataza mazala[2237]. Baina, egin ote daiteke?

— Baconek baietz uste zian.

— Eta zuk?

—Nik ere uste nian. Baina horretarako, xaloek arrazoia dutelakoan ziur egon behar duk, norbanakoaren usna baitute, ona den bakarra. Honela ere, norbanakoaren asmoa ona den bakarra bada, nola berreraiki ahal du zientziak legedi unibertsala, beronen bidez eta bitartez aztikeria ona eraginkor bihurtzen bada?

— Horixe, nola?

2234Atalkin: (H. “elemento”) (?)
2235Gizatiar: (H. “humana”)
2236Aztikeria: (H. “magia”)
2237Ataza mazala: (H. “noble empresa”)

— Bada, ez zakiat, dagoeneko. Oxford-en nire adiskide Occam-go Gilenekin asko eztabaidatu nian. Orain Avignon-en zagok. Nire gogoan zalantzak erein zitian. Zeren, zuzena den bakarra norbanakoaren usna edo intuizioa baldin badadi, zergatiko berdinek ondorio berdinak dituztela baieztatzea zail izanen baita. Gorputz bat hotz edo bero izan ahal duk, gozo edo gazi, heze edo lehor, leku batean bai eta beste batean ez. Nola kausi dezaket gauzen ordena ziurtatzen duen lokarri unibertsala, nire hatz bat ezin higi badezaket beste zera berri batzuk, kopuru amaigean, sorrarazi bagerik, zeren, higidura horrezaz nire hatzaren eta beste gauzen arteko egoera-lokarriak aldatzen baitira? Lokarri horien bitartez nire gogoak beste zera bakanen arteko harremanak sumatzen[2238] ditik, baina nork bermatzen ditu modu horien unibertsalitatea eta egonkortasuna?

— Horrela eta guztiz ere, zuk badakizu beiraren lodiera zenbatekoa den ikusmena hainbatekoa dela, eta hau dakizulako orain betaurreko berri batzuk egin ahal dituzu galdutako haien antz-antzekoak. Bestela ezin zenuke.

— Erantzun zorrotza, Adso. Horrelaxe, lodiera berdina bada ikusmena ere berdina dukek, senak eman didanez. Eta honela egin diat modu bereko beste susmo berak izan

2238Sumatu: (H. “percibir”)

ditudalako beste behin edo behin. Zalantza bagerik, senda-belarren dohainak edo adurrak[2239] ikertzeko saiakuntzak egiten dituenak bazakik belar-mota bereko belar guztiek ondorio berak eragiten dizkietela gaisotasun bera duten gaisoei. Honen ondorioz, bada, ikertzaileak bazakik mota bateko belar guztiak sukarra duenarentzat onak direna, edo modu bateko betaurrekoek begiaren ikusmena neurri batean emendatzen dutena. Argi zagok Bacon-ek zientzia esaten zuenean honelakotsu zerez, jakinkizunez[2240] ari zela. Adi[2241], ez nauk mintzo gauzez, gauzei buruzko jakinkizunez baizik. Zientzak jakinkizunez eta bere jakin-bideez eta izenez jarduten dik, eta izenek gauza berak izendatzen ditiztek. Ulertu, Adso? Nire ustego[2242] hauek zuzenak direla sinetsi behar diat, esperientziak erakutsita, atunez[2243] ikasia baitut, baina sinestearren lege unibertsal batzuk dagozela uste izan behar nikek eta ezin ezer esan, zeren, lege unibertalen egoite hutsa eta honen ondorioz gauzen ordena, Jaungoikoa haien mende legokeela uste izaitea bailitzateke. Jaungoikoa, ordea, guztiz bere gain duk, erabat bere buruaren jabea duk,

2239Adur: (H. “propiedad”) (G-azp). Habilidad, facilidad. Dohain handia, oso tajutsua da, esku ona)
2240Jakinkizun: (H. “proposición”)
2241Adi: (H. “Fíjate”)
2242Ustego: (H. “proposición”) (teoría /…) (?)
2243Atun: experiencia… (Athüneko gizuna da - asko ikusia da)

eta nahi baleza, bere nahikunde huts bakarrez mundu hau guztiz bestelaka lezakek.

— Beraz, txarto ulertu ez badut, zuk egiten duzu eta badakizu zergatik egiten duzun, baina ez dakizu zergatik dakizun zer egiten duzun dakizula.

Esan dezadan, harro, Gilenek miresmen behako[2244] bat aurtiki zidala:

— Horrela izan daitekek –esan zidan–. Dena dela, badakusak zergatik naizen honen zalantzati nire egiaz, egia hau sinesten dudan arren.

— Ubertino baino are mistikoagoa baitzara! –nik maltxurrez.

— Heldubada. Baina, dakusaanez, izaeraren[2245] gauzez jarduten diat. Ikerketa honetan, egiten ari garen honetan, nor den on nor gaizto jakitea ere ez zoakiat, eta ez badoakit ez zait axola. Hauxe baino ez diat oraintxe jakin nahi: bart nor egon den *scriptorium*ean, nork hartu nire betaurrekoak, nork utzi zituen elurretan tarraz eroandako gorpua daroan gorputz baten lorratzak, eta non dagoen Berengario. Hauek guztiok jakin baikoz[2246], elkarren arteko loturak argitzen saiatuko

2244Behako: begirada, so
2245Izaera: (H. “naturaleza”)
2246Baiko(z): (H. “una vez de que”)

nauk, ahal badadi, zeren zein zergatikori zein ondorio dagokion azaltzea zaila baitateke. Aingeru batek esku hartzea nahikoa hau guztiau alda dadin, beraz, ez zagok zertan harritu zera baten ondorioa beste zera baten zioa dela zehazterik ez badago. Dena den, beti saiatu beharra zagok, ahalegindu beharra, nik oraintxe dagidan bezalaxe.

— Zein biziera gatxa[2247], zeurea!

— Horixe, eta guztiarekin, Brunello aurkitu nian –Gilenek, mintzoa gorakixe, bi egun lehenagoko zaldia aipatuz.

— Hots, munduan bada ordena bat! –ni pozarren iruzkin egile.

— Hots, nire buru gaxo honetan baduk ordena apur bat –erantzun Gilenek.

Une haretan Nicola itzuli zen, eta eskuetan urkulu ia bukatua zekarren, garaipen aire batekin.

— Eta urkulu hori nire sudur gaxoaren gainean egon dadinean –Gilenek niri–, agian nire buru gaxo hau apur bat ordenaturik egonen duk, eraturik.

Fraidegai bat heldu zitzaigun, Abadeak Gilen ikusi nahi zuela esanez, eta loretegian zain zegokiola. Nire

2247Gatx: gaitz, zail

maisuak bere ikerketak atzeratu beharko zituen. Harenganantz irten genuen, arin bai arin. Bidean aurrera, eta Gilenek bekokian eskukada bat eman zion buruari, bat-batean zerbaitez oroitu balitz bezala.

— Ha, eta[2248] –esan zuen–, Benantzioren zeinu[2249] kabalistikoak deszifratu ditiat.

— Denak? Noiz?

— Hi lo egon bitartean. Eta denak esatean zer esan nahi duan. Garra larrutxera hurbildu nuenean agertu ziren zeinuak, herorrek kopiatu hituenak, hots, zirenak. Grekozko zirrimarrak[2250] oraingoz itxaron, betaurreko berriak eduki arte.

— Beraz? *Finis Africae*-ren sekretua ote?

— Bai, eta gakoa erraza zuan. Benantziok zodiakoko hamabi zeinuak erabiltzen zitian eta beste zortzi gehiago, hauek bost planetak, bi argizagizkoak[2251] eta Lurbira ordezkatzen zitean. Guztira hogei zeinu. Laterako[2252] alfabetoarekin zer ikusirik badutela uste izaiteko nahikoak,

2248Ha, eta: (H. “Por cierto”)
2249Zeinu: signo
2250Zirrimarra: (H. “apuntes”)
2251Argaizagizko: (H. “luminares”)
2252Latera: latin

zeren, hizki bera erabil baitaiteke *unum* eta *velut* hasiera-hizkien hotsa adiarazteko. Hizkien hurrenkera zein den bazakiagu. Zein, berriz, zeinuen hurrenkera? Zeruen hurrenkera izan diat gogoan. Zodiakoko kuadrantea kanpoaldeko periferian ipiniz gero, hurrenkera hauxe: Lurbira, Ilargia, Merkurio, Artizarra[2253], Eguzkia, eta abar; eta gero zodiakoko zeinuen ohiko jarraipena, Sibiliako Isidorok, besteak beste, aipatu zuen bezala, Aries aurrena eta udaberriko solstizioa, eta azkena Piscis. Bada, gako hau erabiliz, Benantzioren mezuak zentzua duela aurkitzen duk.

Larrutxa erakutsi zidan, beronetan mezua laterazko hizki handiz honela transkribatua baitzuen: *Secretum finis Africae manus supra idolum age primum et septimum de quatuor*[2254].

— Argi dagoa? –galdetu zuen.

— Idoloaren gaineko eskuak lauetako lehenaren eta zazpigarrenaren gainean egiten du...– nik buruari eragin eta berrizkatzen nuen–. Ez dago batere argi!

— Bazakiat. Lehenik eta behin, Benantziok *idolum* zeri esaten zion jakin beharko lukek. Irudi bati, mamu bati,

2253Artizar: venus

2254«Afrikaren azken mugaren sekretua esku bat idolo baten adinean [edo hartzen du] lautik lehena eta zazpigarrena» [?].

itxura bati? Eta gero, zer ote lau horiek, lehen bat eta zazpigarren bat dutenak? Eta zer egin behar ote da haiezaz? Higiarazi, bultzatu, tenk[2255] egin?

— Horrela bada, ez dakigu harean eta lehen bezala gagoz –nik esana, hagitz nahibageturik[2256].

Gilenek gelditu eta begiratu egin zidan, ez begitarte guztiz onez.

— Mutilko gizagaixo –irautsi zidan–, honako dakusaan hau frarntziskotar gaixo bat besterik ez duk eta neronen jakituria apur eta urriaz, eta Jaungoikoaren ahalmen amaiezinari esker dudan iaiotasun kaxkarrez, honek honako honek oren gutiren buruan isilpeko idazkera deszifratzea erdietsi diat, nahiz eta haren egileak deszifratzeko munduan bakarra… Eta heu, herori, bandil[2257] txatxu[2258] hori, horren etxakin ote haut, hasieran bezala gagozela esateko adina?

Ahal nuen eran aitzakiatzen[2259] saiatu nintzen. Nire maisuaren harrotasuna zauritu nuen. Honela ere, berak bazekien zein harro nengoen ni haren igarpen[2260] azkar eta

2255Tenk egin: tenkatu, tiratu,
2256Nahibagetu: contrariar
2257Bandil: (H. “bribón”)
2258Txatxu: (H. “miserable”)
2259Aitzakiatu: desenkusatu (Disculpar…) (Hobengetu)
2260Igarpen:(H. “deducción) (N) (?)

tinkoaz[2261]. Egia zen haren lana miresgarria izan zena; harek ez zuen errurik Benantzio maltzur-maltzurrak bere aurkikuntza zodiakoko alfabetoaren mihisez[2262] estali izan zuelako, eta hau ez ezik igarkai[2263] ulertezin bat ere asmatu zuelako.

— Ez dik axola, ez dik axola, ez eska niri barkamendurik – Gilenek nire hizpidea etenez–. Sakonean, zuzen hago: oraino oso guti zakiagu. Goazen.

2261Tinko: (H. “consistente”)
2262Mihise: (H. “velo”)
2263Igarkai: (H. “enigma”)

HIRUGARREN EGUNA

BEZPERAK

Atal honetan berriro Abadearekin hitz egin dute, Gilenek labirintoko igarkizuna ulertzeko asmo txit bitxi batzuk ukan ditu, eta sen handiz egitea lortu du. Geroenean, berak eta Adsok gazta-opiltto[2264] *bana jaten dute.*

Abadea hantxe gure zain, beltzuri eta kezkatsu. Eskuan larrutx bat zedukan.

— Conquesko Abadearen gutun bat jaso berri dut –esan zuen–. Lagun baten izena jakinarazten dit, Joanek gudari frantsesen agintari jarri zuenarena, eta berau haren

2264Opil: (H. “pastelillo”)

ordezkaritza kalte bagerik izaiteko arduradun. Ez da armagizon ez gorteko gizon eta ordezkaritzako kide izanen da.

— Onbide batzuen *connubio* harrigarria –artege[2265], Gilen–. Nor ote?

— Bernardo Gui, edo Bernardo Guidoni, nahi duzun bezala.

Gilenek hots egin zuen, bere hizkuntzaz, nik ez Abadeak ulertu ez genuena, eta agian ginenontzat hobe, entzundako hitzak lizun-hotsa zuela iruditu zitzaidan eta.

— Hau ez zait atsegin –gehitu zuen berehala–. Bernardo urteetan heretikoen mailu izan da, Tolosako eskualdean, eta *Practica officii inquisitionis heretice pravitatis*[2266] izenekoa idatzi zuen, zerarren eta valdotarrak, begardoak, tertziarioak, *fraticelli*ak eta dultzindarrak jazarri eta suntsitu behar dituztenek erabiltzearren.

— Badakit. Liburua dazagut. Hatsarre[2267] bikainetan aburu hartua.

— Bikainak –onartu zuen Gilenek–. Bernardo' Joanen zerbitzari elizkoia da, iraganaldietan ere eginkizun ugari eman zizkion peskizan, Flandrian eta hemen, Italia Garaion.

2265Artege: inquieto (Artega --Arte+ge)
2266«Gaiztakeria heretikoaren inkisizioko arduradunaren egitekoak».
2267Hatsarre: principio

Galiziako apezpiku izendatuta ere, ez zion inkisizio-jarduerari utzi, inoiz ez zen heldu bertara bere apezpikugoaz jabetzeko. Nik orain Lodeven erretiro hartua zegoela uste nuen, gotzain. Dirudienez, baina, Joanek beste behin haren zerbitzua baliatu nahi du, eta hemen Italiako iparraldeon, hain zuzen. Zergatik edo zerarren Bernardo? Zergatik iskiludun jendearen buru...?

— Bada erantzunik –Abadeak esana–, eta atzo agertu nire beldur guztiak berresten ditu. Ongi dakizu, aitortu nahi ez arren, argudio teologikoen ugariak gora-behera, Perusako kapituluak Kristoren eta Elizaren txirotasunaz zabaldu zituen tesiak mugimendu heretiko batzuenak bezalakoak zirena, berauek jokaera ez hain ortodoxoaz eta ausarkeriaz burutzen bazituzten ere. Ez da oso nekez baieztatzen, ezen, Michele da Cesenaren tesiak, enperadoreak bere egin zituenak, eta Ubertinorenak edota Angelo Clarenorenak berdinak direla. Honaino ordezkaritza biak bat datoz. Gui, ordea, urrunago joan liteke, eta egiteko behar bezain trebea da: Perusako tesiak eta *fraticelli*renak edo sasiapostoluenak berdinak direla erakusten saiatuko da. Bat zatoz nirekin?

— Horrela dela diozu edo Bernardo Gui-k horrela dela esango duela?

— Esan dezagun berak esango duela –ontzat eman zion xuhurkiro Abadeak.

— Nik ere esango duela uste dut. Baina hau aurrikusita zegoen. Zera, gertatuko zena bagenekiela esan nahi dut, Joanek Bernardo hona bidali ez balu ere. Tira, bada, Bernardok kuriako[2268] hainbat kide ezgaik[2269] baino hobeki eginen du, eta berorrekiko eztabaidak zorroztasun askoz handiagoa beharko du.

— Bai, baina hortxe dago atzo aipatu nizun arazoa. Egun-biharretan bi edo beharbada hiru hilketaren erruduna ediren ez badezagu, abadian zer gertatzen den begiratzeko ardura Bernadoren esku utzi behar ukanen dut. Honenbesteko ahalgoz jantz badezagu (eta gogora dezagun gure aho batezko erabakiz) ezin estali izanen diot abadian gertatu eta oraindik gertatzen diren ulergaizkeriak badirela, gertakari lazgarriak. Egin ez baneza, harek aurkituz gero, eta beste zerakeria[2270] bat jazo baledi, Jaungoikoak nahi ez aileza, traizio egin diogula aldarrikatzeko eskubide osoa ukanen luke…

2268Kuria: curia
2269Ezgai: incapaz
2270Zerakeria: zera, zertu, zeraz… (N)

— Arrazoi duzu –Gilenek ahopetik[2271], kezkatsu–. Ez dago deus egiterik. Erne egon beharko, eta Bernardori begira, honek hiltzaile misteriotsua atzeman nahiz goaitatuko baitu. Agian onerako izanen da, zeren, Bernardok, hiltzailearen bila buru-belarri ari bitartean, bilkurako eztabaida, pittin bat bederen, alde batera utzi beharko baitu.

— Ez ahantzi hiltzailearen bilatzeari ekitean, Bernardo niretzat saihetsean gezi bat josia lakoa izango dela, nire agintaritzan arantza bat. Istilu zikin horrek, larri horrek esan nahi dut, lehenbiziz, nire ahalgoa esparru honetan besterentzera[2272] behartuko nau. Gertaera hau inoizezkoa da berria da, abadia honen historian ez ezik, klunitarren baldernan ere bai. Hau saihesteko zernahi eginen nuke. Eta egin nezakeen aurrena, zera, ordezkari taldeari harrera ukatzea izan liteke, abegirik[2273] ez.

— Otoi degiot[2274] zure bikaintasunari, arren eta arren[2275], horrelako erabaki horren larriaz hausnar dezazun –Gilenek, kopetilunxko–. Zuk zerorrek badadukazu enperadorearen

2271Ahopetik: (H. “musitar”)
2272Besterendu: beste baten esku utzi edo. (H. “ceder”)
2273Abegi: (H. “hospitalidad”)
2274Otoi egin: rogar, suplicar
2275Arren eta arren : (H. “encarecidamente”)

gutun bat, eta harek berak berotsu-berotsu adiarazten dizunez…

— Badakizkit enperadorearekin ditudan lotzakiak[2276], ez ditut atzendurik[2277] –eten zion zakarto Abbonek–. Zerorrek ere badakizkizu. Badakizu, beraz, jakin, zoritxarrez ezin uka dezakedala. Baina hemen biziki zera ezainak, larriak, gertatzen izan dira. Non dago Berengario? Zer jazo zaio? Zer egiten duzu?

— Fraide bat baizik ez naiz, urteetan inkisidore lanetan bipilki[2278] jardundakoa. Badakizu egia egun bitan edireitea ezinezko dela. Gainera, zelako ahalbideak[2279] eman dizkidazu? Liburutegira sar ote naiteke? Egin ote dezaket nahi beste galderarik, beti ere zure ahalgoaz lagundurik?

— Ez dakit zelako loturarik ote dagokeen hilketen eta liburutegiaren artean –esan zuen Abadeak samurturik[2280].

— Adelmo miniaturagile zen; Benantzio, itzultzaile; Berengario, liburuzainaren laguntzaile…–zehaztu zion Gilenek, patxadatsu.

2276Lotzaki: (H. “vínculo”)
2277Atzendu: olvidar (¿intencionadamente?) (H. “ingnorarlo”)
2278Bipilki: (H. “eficazmente”)
2279Ahalbide: (H. “poderes”)
2280Samurtu: (H. “irritado”)

— Ikuspegi horretatik, hirurogei lekaideek dute liburutegiarekin zerikusirik, elizarekin duten bezalaxe. Beraz, zergatik ez duzu bilatzen elizan? Anaia Gilen, zure ikerketa nik agindutakoa duzu eta neronek ezarri mugen barruan, otoi eskatu natzaizunez. Beste gainerakoan, esparru honetan ni nauzu jabe bakarra, Jaungoikoaz gero eta Beroni esker. Eta Bernardori honelaber. Bestalde, –gehitu zuen barexeago[2281]–, ez da ziur oraindik bera etortea, bilkuran esku hartzeko. Conquesko Abadeak idatzi dit, esanez, Italiara datorrela, hegoalderantz. Gehiago diost: Aitasantuak Bertrando del Poggetto kardinalari otoi galdatu diola Boloniatik iparraldera igo dadin, ordezkaritzako buru jar dadintzat. Agian Bernardo kardinalarekin bat egitearren dator.

— Hori, ikuspegi zabalagoz, txarrago. Bertrando heretikoentzat mailu da, Italiako erdialdean. Heretikoen aurkako borrokan garaitzaile izan diren bion bat egitea, are oldarraldi zabalago baten iragarpena izan liteke, herrialde osoan, frantziskotarren mugimendu guztia azkenik nahasiko lukeena…

2281Barexe: (H. “calmado”)

— Hori gertatuz gero, berehala enperadoreari jakinaraziko genioke –Abadeak–, alabaina arriskua ez litzateke berehalakoa. Erne egonen gara. Agur.

Abadea aldentzean Gilen isilik. Ondorean, esan zuen:

— Adso, oroz gain, saia gaitezen baratz egiten, ez laster[2282]. Ezinezkoa duk arazoak lasterka ebakitzea[2283], honetarako norbanakoen hainbat esperientzia bildu behar baita. Orain aroztegira itzuliko nauk, zeren, betaurrekorik bage ez bainaiteke larrutxa irakurteko gai izan, eta, gainera, gaueon liburutegira bihur gaitezen ez dik merezi. Hi hoa ea Berengarioz ezer berririk dagoen.

Une haretantxe, azkar bai azkar, Nicola da Marimondo heldu zen, berri ezin txarragoak zekartzala. Orduan betaurrekoak esku artean, Gilenek onentzat hartua zuen beira apurtu zen. Eta beste beira zati bat, aurrekoaren ordezko izan zitekeena, urkuluan sartukeran pitzatu zen. Nicolak zeruari begirarazi, atsebageturik oso, antza. Bezperak egiteko ordua zen, arratsa iluntzen hasia. Egun haretan ezin zen lanean gehiago egin. Galdutako beste egun bat, onartu zuen Gilenek, garratz. Geroago esan zidanez,

2282Laster: / baratz (H. “apresuramiento”)
2283Ebaki: (H. “resolver”)

lipar batez beiragile eztrebe hari lepotik heltzekotan egon zen, zapuztu[2284] aginik, beira zatiak hautsi eta. Beiragile gaixoa, ordurako, apal-apaldurik zegoen baina.

Hantxe, apal-apalik utzi genuen eta Berengarioz zer berri zegoen jakitera joan ginen. Jakina, ez zuten jarrugi, ez zen orduan oraindik agertua.

Ez aurrera ez atzera gengozela uste genuen. Ez genekien zer egin eta kalostra ingurutik osteratto[2285] bat egin genuen. Laster ohartu nintzen, baina, Gilen, begirada galdua, deus ikusi ez bezala, txirikatua[2286] zegoela, sorgor. Lehenttoago, soingainekotik belar-sortaño bat atera zuela ikusi nuen, aste batzuk lehenago bildu belarrezkoa. Orduan ahogozatzen ari zen, mamurtzen, eta, antza zenez, halako tarritadura[2287] sorgarri moduko zera eragiten zion. Halaxe, gogo erantzita[2288] legez zegoen, nonbait bailegoan, baina txitean-pitean begiak argitsu, bere barru hutsean beste asmo bat piztu edo izeki balitz bezala; ondorean halako sorraldi

2284Zapuztu: lepotik heldu eta astindu /...
2285Osteratto: paseo
2286Txirikatu: (H. “absorto”) (sorgortu, gogera(u)ntzi…) (?)
2287Tarritadura; (H. “excitación”)
2288Gogo erantzi: (H. “ausente”) (“desvestido en ánimo” (N))

hain txundigarri haretan berriro murgil[2289] egiten zuela zirudien. Bat-batean honela esan zuen:

— Bai, izan liteke...

— Zer? –nik galde.

— Labirintoan zuzen bideratzeko era batez hausnarrean[2290] ari nauk. Ez duk oso erraza, egingarria bai, eiki… Sakonean, irtenbidea ekialdeko dorretzarrean zagok; hau bazakiagu. Orain demagun makina edo tramakulu bat dadukagula, iparraldea non dagoen dioskuna. Zer gerta liteke?

— Bada, gure eskuin aldera bihur bagaitez, ekialderantz joango gara. Beste alderantz joaitea nahikoa hegoaldeko dorretzarrera buruz goazela jakiteko. Alabaina, honelako magia badagoela uste izanik, labirintoa beti labirinto, eta ekialderantz jo bezain laster, dzanpez murru batekin tupust[2291] egingo genuke, eta aitzina joan ezin, eta atzera bidez galduko…

— Bai, baina esan dudan makinak beti iparraldea begiraraziko ligukek, norabidea aldatuagatik ere, eta lekuan-lekuan norantz bihur eta jo beharko genukeen esango ligukek.

2289Murgil: zambullida (Txonbo, dzanga(da)...)
2290Hausnarrean: rumiando / reflexionando
2291Tupust: encuentro sorpresivo y repentino

— Miresgarria izango litzateke. Baina horrelako makina eduki behar, eta gauez ere iparraldea non dagoen jakin behar luke, eta leku itxian, ez eguzkirik ez izarrik ikusi ezinean… Zure Baconek ere hori lako makinarik edukiko ez zuela uste dut! –ni barrez mintzo.

— Eta oker hago –ihardetsi zidan Gilenek–, hori lako makinaren ekoiztea erdietsita zagok, dagoeneko, eta itsastar batzuek erabili ukan ditek. Ez dik eguzkia behar ez izarrik, harri miragarri baten indarrez baitabil, Seberinoren erietxean ikusi genuenaren antzekoa, burdina erakarten duena. Baconez gain azti pikardiar[2292] batek ikertu zian, Maricourt-eko Pierrek, haren harri haren askotarako erabilerak zehaztu baitzituen.

— Eta zuk ekoitzi ahal zenuke?

— Ez duk oso zaila. Harri hori hainbat gauza liluragarri lortzeko erabil daitekek. Esaterako, eten bage ibili ahal den makina, inondiko indarrik behar ez duena. Arabiar jakintsu batek, Baylek al Qabayaki deritzonak makina hori erabiltzeko erarik errazena zein den azaldu dik. Hau duk: Edalontzi bat urez betea eta uretan kortxo bat, eta kortxoan burdinazko orratz bat josia. Harri magnetikoa, hots, erakar-

2292Pikardiar: Picardíe Frantziago eskualdea (H. “picardo”)

harria uraren azal gainetik biribilki iragoarazi, orratzak harriak dituen adurrak edo ahalmenak beretu[2293] arte. Hau honela, hara!, orratzak –baina harriak berdin egingo zian buloi[2294] baten inguruan ibilita– zia[2295] iparralderantz zuzentzen dik. Edalontzia ibiliz gero, orratza higitzen duk, beti iparraldera beha. Esan bage zoak, iparraldera begira beti, edalontziaren ertzean hegoaldea markatuz gero, eta iparraldea eta abar, zein bere zuin[2296], beti jakinen duzula nondik nora jo liburutegian, ekialdeko dorretzarrera iristearren.

—Hori bai zoragarria! Orratzak zergatik beti iparraldera buruz? Harriak burdina erakarten du, nik ikusitakoa. Eta burdinak, kopuru handian, harria erakarriko, nik uste. Beraz…ipar-izarraren aldean, ortziaren azkenengo mugetan, burdin-meatze handi-handiak dagoz!

— Horixe[2297], aukera hori bazagok, baten batek esana. Orratzak, aldiz, ez dik itsas izarra jaiten zehatz-zehazki, ortziko meridianoak batzen diren puntua baizik. Hau duk, esan bezala, «*hic lapis gerit in se similitudinem coeli*»[2298],

2293Beretu: (H. “adquirir”)
2294Buloi: (H. “perno”)
2295Zi: punta /... (Ziri) (Burduntzi, artazi...)
2296Zuin: marca
2297Horixe: (H. “En efecto”)
2298«Harri honek bere baitan ortziaren antza du.»

imanaren poloen zeharrera, ortziko poloen arauerakoa duk, ez lurbirako poloen arauerakoa. Hona hemen adibide on bat, urrun-urrundik eragindako, ez halabeharrezko higidura ulertzeko: Giovani di Gianduno nire adiskideak horretaz arazo horretaz jarduten dik, enperadoreak Avignon lurpean ehortzi ahal izaiteko era edo modua kausi dezan agintzen ez dionean…

— Ea, bada, goazen, ea, Seberinoren harria hartzera, edalontzi bat, ura, kortxo bat...–ni burua bero.

— Ez horren arin. Ez zakiat zergatik, baina filosofoek bikaintzat eman duten makinarik ez diat inoiz ikusi ibileran hain egin-egina denik, ongi dabilenik. Hala, nekazariaren igitaia ez dik filosofok inoiz aztertu, eta honela ere beti ongi ibili ohi duk, segalarien eskuez… Beldur nauk labirintotik ibiltzean, esku batean giriseilua eta bestean edalontzi bete ur… Itxaron, beste zerbait otu[2299] zaidak. Gu labirintotik at egonez gero ere makinak iparraldeari begiratuko liokek, ez da?

— Bai, baina ez genuke behar izango, eguzkiarekin izarrak genedutzake eta.

2299Otu: bururatu

— Bazakiat, bazakiat. Makina, ostera, berdin ibili ohi duk kanpoan zein barruan, eta zergatik ez gerta berdin gure buruari?

— Gure burua? Gurea kanpoan ere ibili ohi da, noski. Kanpo aldetik badakigu zehatz-mehatz zein aldetarantz dagoen Eraikina! Barruan gagozenean, aitzitik, ez dakigu non gagozen, aladzipo[2300]!

— Horixe. Baina, ahantz ezak orain makina. Makinaz pentsatzean, gure pentsamenduen legeez eta lege naturalez pentsatzen bukatu diat. Garrantzitsua hauxe: Eraikinaren barrua zelakoa den kanpo aldetik jakiteko modua bilatu beharra zagok...

— Nola?

— Utz iezadak pentsatzen. Ez duk hain zaila izango eta…

— Eta atzo aipatu zenuen era? Ez zenuen, bada, pentsatu labirintoan ibiltzea zuinak ilinti zati batez eginez?

— Ez, zenbat eta pentsatzenago orduan eta ezetzago. Beharbada, ez diat ondo gogoratzen nola egiten den edo beharbada labirintoan zuzen ibiltzeko Ariadna[2301] on bat

2300Aladzipo: birao moduko bat edo.
2301Ariadna: Greziako mitologiako pertsonaia bat

eduki behar duk, ate ondoan haril-muturra[2302] eskuetan aiduru[2303]. Baina ez zagok behar bezain hari luzerik. Eta baldin balego, horrek ez likek esan nahi (maiz alegiek egia esaten ditek) kanpo aldetiko laguntza hutsez irten daitekeela. Hori baldin kanpoko egin-moldeak barrukoak bezalakoak balira ere. Bada, zera, Adso, zientzia matematikoak erabiliko ditiagu. Averroes-ek dioena legez, zientzia matematikoetan, ez bestetan, guk ezagutzen ditugun gauzen eta, oro har, era guztizkoan[2304] ezagutzen direnen artean berditasuna zagok.

— Beraz, ezagutza unibertsalak badirela onartzen duzula aitortzen duzu.

— Ezagutza matematikoak gure intelektoak eraikitako proposizioak dituk, beti egiazkoak bezala funtziona dezaten sortzetikoak[2305] direlako edo matematikak beste zientziak baino lehenago asmatu zirelako. Eta liburutegia giza-gogo batek eraiki zian, era matematikoaz pentsatzen zuen batek, izan ere, matematikarik bage ez zagok labirintorik eraikitzerik. Beraz, hauek honela, gure proposizio matematikoak eraikitzailearen proposizioen aurrez aur ezarri

2302Haril-mutur: punta del ovillo
2303Aiduru: zain, begira, erpai, aio
2304Era guztizkoan: (H. “en modo absoluto”)
2305Sortzetiko: innato

behar ditiagu. Eta alderaketa honetan ere zientzia egon daitekek, zenbakien gaineko zenbakiak ezartea zientzia duk eta. Dena dela, ez nazak eraman eztabaida metafisikoetara. Zein eltxok heldu dik, bada, egun? Hobe duk hire ikusmen ona onuratzen[2306] baduk, har ezak larrutx bat, oholtxa[2307] bat, zuinak eta zeinuak marrazteko zerbait, eta idazluma bat… Ondo, badaduzkak. Zein trebea haizen, Adso! Dagigun osteratto bat Eraikinaren inguruan, arrats apalean gagozak, bai, eta ilundu aitzin.

Halaxe egin genuen, bada, Eraikinaren baranoan osteratto ha. Hau da, urrundik sortaldeko, hegoaldeko eta sartaldeko dorretzarrak aztertu genituen, bai eta haien arteko murruak ere. Beste gainerakoa amildegi aldera zegoen, baina simetria kontuakatik, ez ahal zen beste zatiaren ezberdin izango, ikusi ahal genuenaz oso bestelako, esan nahi dut.

Eta ikusi genuena, Gilenek esan eta nik oholtxan zehatz idazteko agindu zidana, hauxe: murru bakoitzean bi leiho eta dorretzar bakoitzean bost.

2306Onuratu: aprovechar (N) (Onura: provecho)
2307Oholtxa: tablilla

— Orain hausnartu[2308] egik –esan zidan nire maisuak–. Izan ginen gela bakoitzean leiho bat...

— Zazpi albokoan izan ezik.

— Jakina, dorre bakoitzeko erdialdean dagozenak direlako.

— Eta zazpialboko ez ziren beste batzuk izan ezik, leihorik ez zedukatenak.

— Atzendu horiek. Lehenik, araua edirenen diagu. Gero salbuspenak zergatik diren asmatzen saiatuko gaituk. Beraz, kanpoaldean bost gela dorreko eta bi gela murruko, leiho bana guztiek. Baina leihodun gela batetik Eraikinaren erdialdera bagoaz, leihodun beste gela bat agertzen duk. Argi zagok, leihook, beraz, barrualdekoak dituk. Orain, zelakoa da barruko putzua, sukaldeko leihotik eta *scriptorium*etik ikusten baita?

— Zortzialbokoa.

— Ederki. Eta oktogono horren alde banatan bi leiho egon daitezkek. Honek, ausaz, zera esan nahi dik: oktogono horren alde bakoitzean bi gela barruko dagozela. Baia[2309]?

— Bai, baina, leihorik bageko gelak?

2308Hausnartu: (H. “razonar”)
2309Baia?: bai? (H. “¿estoy en lo cierto?”) (¡Vale? -N)

— Guztira zortzi dituk. Barrualdeko zazpialboko geletan bost horma eta beste honenbeste gela dorretzar bakoitzean bat dituk. Beste bi hormak zein aldetara dagoz? Kanpoalderako gela batera ez, bestela leihoak murruan ikusgai lituzkek. Oktogono ondoan dagoen gela bati ere ez zagozkiok, arrazoi beragatik, eta, gainera, horrela balitz gela oso luzeak izango bailirateke. Saia hadi marrazten liburutegiaren irudia goitik ikusia, eta ikusiko duk dorre bakoitzean bi gela dagozela zazpialboko gelarekin bat egiten dutenak eta, beste aldetik, beste bi gelarekin mugatzen direla, barruko putzuaren ondoan dagozenak.

Nire maisuak agindutako egitamua[2310] marrazten saiatu nintzen, eta garaipen oihu bat aurtiki nuen.

— Beraz, dagoeneko dena dakigu! Utzidazu zenbatzen… Liburutegiak berrogeita hamasei gela daduzka, hauetako lau zazpialboko, eta berrogeita hamabi, nola-hala, laualboko, eta hauetako zortzik leihorik ez, eta hogeita zortzi kanpoaldeko, eta hamasei barrualdeko!

— Eta lau dorretzarretarik bakoitzak bost gela laualboko eta zazpiko bat… Liburutegia neurri zerutiar[2311] baten arauera

2310Egitamu: plano de una construcción.
2311Neurri zerutiar: (H. “proporción celeste”)

eraikita zagok, eta honek esanahi batzuk eta miresgarriak ditik.

— Aurkikuntza bikaina, baina, horretaz[2312], zer dela eta hain zaila hor barruan zuzen ibiltzea?

— Iragazguak[2313] ez dagozelako ezein lege matematikoz antolaturik. Gela batzuetan zehar beste batzuetara iragaz daitekek. Beste batzuetatik, ordea, gela bakarrera sar daitekek. Are gehiago, galde egin behar genikek ea ez ote denentz gelarik beste baterako sarbiderik ez duenik. Hau honela eta pentsa ezak, gainera, argirik ez dagoela, eguzkiari begira ezin gidatu, gehi ispiluak eta ikuspenak, eta ulertuko duk labirintoa barruan lebilkeen nor edo nor zoratzeko modukoa dela, erru sentimendu batek nahasi eta gero. Gogoan diat, gainera, zein etsita gengozen atzo gauean irtenbidea ediren ezinean. Nahasmenik larriena, ordenarik handienaz lortua: taxu[2314] goren-gorena[2315]. Liburutegia eraiki zutenak maisu handiak.

— Nola egingo dugu zuzen ibiltzeko?

2312Horretaz: por consiguiente, entonces
2313Iragazgu: (H. “paso”) (Iragangu, iragogu, sarbide…) (Iragazi)
2314Taxu: (H. “claculo”) (?)
2315Goren-goren: (H. “sublime”)

— Gaurgero[2316] ez duk zail izanen. Egin duzun lurtamu edo mapa horrezaz, guti-asko liburutegiaren egitamua denez, lehenengo gela bateraz gero, zazpialboko batera, itsuak diren beste bietarik batera sartzen saiatuko gaituk. Handik beti eskuin alderantz joz gero, hiruzpalau gelatatik iragazita, berriz ere dorretzar batera helduko ahal gaituk, eta hau iparraldekoa ezinbestean. Aurrera eta beste gela itsu bateraino, ezker aldean zazpialboko gelaren murrukide, eta eskuin aldetik, orin arte egin dugunaren antzeko bidea dikeagu, eta bideburuan sartaldeko dorretzarra.

— Bai. Hori gela guztiak beste gela batzuekin bat eginda egoitekotan[2317]…

— Horrela duk. Horregatik beste egitamu bat behar diagu, ireki bageko hormak zein diren zuintzearren[2318], eta nondik norako zehardurak egiten ditugun jakitearren. Errax xamarra izanen duk, alta.

— Onik gertatuko al da? –galde nik, harri eta zur, erraxegi iruditzen baitzitzaidan.

2316Gaurgero: (H. “ahora”) (En adelante, ya)
2317-tekotan: (H. “suponiendo que”)
2318Zuindu: marcar (N)

— Onik gertatuko duk[2319].«*Omnes enim causae effectuum naturalium dantur per lineas, angulos et figuras. Aliter enim impossibile est scire propter quid in illis*[2320]*»* –aipatu zuen–. Hitzok Oxfordeko maisu handienetako batek esan zitian. Dena dela, tamalez, oraino ez zakiagu dena. Ez galtzeko era edo bidea kausitu diagu. Orain besterik ikasi behar, ea araurik ote dagoen gela bakoitzean liburuak banaturik nola dagozen antola dezanik. Eta Apokalipsiko bertsetek ez zigutek askorik argitzen, zergatik eta, besteak beste, batzu-batzuk hainbat gelatan berrizkaturik dagozelako…

— Hala ere, apostoluaren libururean berrogeita hamasei bertset baino askoz gehiago idoki zitekeen!

— Bai horixe. Eta bertset batzuk baliagarri dituk. Harrigarri. Baliagarriak berrogeita hamar baino gutiago balira bezala; hogeita hamar, hogei… Oi, Merlinen bizarrarren[2321]!

— Noren?

2319Onik gertatu: (H. “resultar”)

2320«Izan ere, izaitezko ondorioen zergatiko guztiak lerroen, angeluen eta irudien bidez gertatzen dira. Bestalde, ezinezko da jakitea, hurrean, zergatik [gertatzen diren] haietan». *De luce* libururean hartua. Idazlea, Roberto Grossatesta, Oxfordeko Maisua zen (XII – XIII. mendeetan).

2321Bizarrarren! : “¡Por la barba de Merlín!”

— Ez dik axolarik, zera… nire herrialdeko azti bat duk. Zenbat hizki alfabetoko, hainbat bertset erabili baitute! Hauxe baietz! Bertseteko esaldiak ez dituk haintzat hartu behar, hasierako hizkiek ditek balio, soilki. Gela bakoitzak alfabetoko hizki batez zuinduta zagok, eta guztiok batera behar dugun testua osatu!

— Irudizko *carmen*[2322] baten antzekoa, gurutze edo arrain itxurakoa!

— Guti goiti-beheti, eta liburutegia eraiki zen garaian horrelako *carmen*ak puri-purian, eiki.

— Eta non hasten da testua?

— Idazkun besteak baino handiago batean, agian, sartzen den dorretzarreko gela zazpi albo dadukan horretan… Edo, agian… Bai, gorriz dagozen esaeretan!

— Alta, hainbat dira, gero!

— Beraz, hainbat testu egonen duk, edo hainbat hitz. Orain hire mapa hori hobeto kopiatu ahal duk, handiagotu ere bai. Liburutegian zehar joaiten garenean zuinduz joanen haiz, zuin txikirrez, iragotako gelak eta ateak non eta hormak halaber (leihoak ere bai, noski), eta, gainera, aurkitu ahalako

2322Carmen: latinezko olerki mota bat.

bertsetetako has-hizkiak, eta miniaturagile on baten antzera, asmatu beharko duk nola egin gorrizko hizkiak besteak baino handiagoak izan daitezen.

— Nola igarri duzu –harriturik ni mintzo– liburutegiaren ezkutukia[2323] lekoretik ikusiz, barruan egon zinenean ezin izan zenuen eta?

— Hala ezagutzen dik Jaungoikoak mundua, bere gogoan irazan[2324] duelako, hots, nolabait, kanpotik, sorrarazi baino lehen. Guk ez diagu Haren araua ezagutzen, barruan bizi garelako eta eginda aurkitu dugulako.

—Holaxe, bai, ezagut daitezke gauzak lekoretik begiratuz!

— Antzearen[2325] zerak, zeren gure gogoan egilearen urratsen bidetik beste behin eta behin ibiltzen baikara. Izadiaren zerak, ostera, ez dituk hala, ez baitira gure gogoak eginak.

— Baina liburutegiaz den bezainbatean, nahikoa da, ez da?

— Bai –Gilenek–. Baina honako zera honetan ez bestetan. Orain goazen atseden hartzera. Bihar goizera arte, ezin egin izango diat ezer. Ordurako, nire betaurrekoak edukiko

2323Ezkutuki: misterio
2324Irazan: crear (H. “concebir”) (I+ra+izan)
2325Antze: arte (Antzerki, antzoki, antzesle...)

ditudala uste diat. Hobe lo egin eta goizik jaikitzea. Pixka bat pentsatzen saiatuko nauk.

— Eta abaria?

— Ha, bai, abaria! Orain baduk berandu. Fraideak konpleta-otoitzetan ari dituk. Alabaina, agian sukaldea oraino ez zagok itxita. Hoa eta bila zer edo zer.

— Ostu?

— Eskatu. Salbatoreri, honez gero hire adiskidea duk eta.

— Berak ostuko baitu, bada!

— Anaiaren zaintzaile ote haiz, bada, hi? –galdetu zidan Gilenek, Kainen hitzak berrirotuz.

Baina txantxetan ari zela ulertu nuen: Jaungoikoa handia eta errukitsua dela esan nahi zuen. Hala, bada, Salbatoreren bila hasi nintzen, eta ukuiluen aldamenean jarrugi nuen.

— Ederra –esan nuen Brunellori begiraraziz, hizketan hastearren–. Atsegin nuke, bai, horren gainera igaitea.

— *Non è possibile. Abbonis est*. Baina zaldiak ez du ona zertan izan ondo itzegaiteko[2326]… –eta zaldi mardul bati begirarazi zidan, oso polita ez bazen ere–. Hori ere *sufficit... Vide illuc, tertius equi*...

Hirugarren zaldiari so nengion nahi zuen. Haren latin mordoiloak barre eragin zidan.

— Eta zuk zer eginen duzu horrekin? – itaundu nion.

Orduan istorio oso bakana aletu[2327] zidan. Esan zidanez, edozein zaldik, zaharrena edo ahulena izanagatik ere, Brunellok baino lasterka azkarrago egin zezakeen. Honetarako oloarekin[2328] amore[2329] deritzon belarra nahasi behar zaio, apur-apur eginda, eta gero izterrak orein-gantzaz igurtzi. Ondorean, gainera igo eta, ezproikatu[2330] aurrez, muturra ekialderantz ipinarazten zaio eta belarri ondoan, hiru bider ahots apalez honako hitzok esaten zaizkio: «Gaspar, Meltxor, Merkisardo». Zaldia ziztu bizian hasiko da lasterka eta Brunellok zortzi orduz ibili bidea ordubetean ibiliko du. Eta zaldiak berak lasterkan hildako otso baten hortzak lepoan zintzilik ipiniz gero, ez da nekatu ere eginen.

2326Itzego: cabalgar (Itzego, itzegaiten, itzegoko)
2327Aletu: desgranar-contar (?)
2328Olo: avena
2329Amore-belar: (H. “satirión”)
2330Ezproi: espuela

Halakorik inoiz probatua ote zen galde egin nion, ha lako errezetarik, alegia. Erantzuna –nigana hurbildurik, beltzuri aire batekin, belarrira mintzatuz, bere hats zinez higuingarria egozten zidala– oso zaila zela, amore-belarra gotzainek eta adiskideek, hots, aitonsemeek, ez bestek hazten zutelako, beraien ahalgoa emendatzeko erabili ohi baitzuten. Hizketa eten nion eta gau haretan nire maisuak zeinbait liburu irakurri nahi zuela esan nion eta han bere gelan abaldu nahiago zuela.

— Ni arduratuko –esan zuen–, gaztan-opiltto egingo nik.

— Zelakoa da?

— *Facilis*. Har albaitzeneza *gaztaea* ez arrunt *zaarra* ez gazia, *enda*, xerraka *ebagia*, laukittotan edo *sicut* gogoko duzun. *Et postea* ipini albaitzeneza *butiro* pitta bat edo gantz gordin gutti bat *á rechauffer sopra la brasia*. Eta barruan *porremmo dos rebanadas di queso*, eta xamur dagoela uste duzunean, *zucharum et cannella supra positurum du bis*. *Et* ipini alabaitzeneza berehala *en tabula*, zeren bero jan behar baita, *caliente caliente*.

— Ardura zaitez, ea, gaztan-opilttoaz –agindu nion, eta sukalderantz aldendu zitzaidan, itxaraiteko esan zidanaz gero.

Ordu erdi geroago atzera etorri zen, txalin[2331] bat zapi batez estalia zekarrelarik. Usain ona zuen.

— *Tene* –esan zidan, eta argiontzi handi bat ere eman, olioz betea.

— Zertarako demaidazu? –galdetu nik.

— *Sais pas*, *moi* –esan zuen maltxur antxo[2332]–. *Fileisch tu magister* leku ilunera joan nahi du *questa notte*.

Zalantza bagerik, Salbatorek susmatzen zen baino gehiago zekien. Ez nintzen aurrera joan ikerketan, eta janaria Gileni eraman nion. Jan genuen eta gerottoago nire gelara nintzen. Edo alegia eta hara nindoala egin nuen. Ubertino ikusi nahi nuen. Halatan bada, itzalgaizka[2333] elizetxera sartu nintzen.

HIRUGARREN EGUNA

KONPLETAK BUKATU ETA GERO

2331Txalin: plater
2332Maltxur antxo: (H. “con aire socarrón”)
2333Itzalgaizka: a hurtadillas

Hemen Ubertinok Adsori frai Dultzinoren historia jaulkiten dio. Adsok, bere aldetik, liburutegian beste historia batzuk irakurri edo gogoratu ondorean, neska eder batekin tupust egiten du, gudaroste[2334] oso bat bezain ikaragarriko neskatxa gudukarako gerturik.

Halaxe, bada, Ubertino Birjinaren gizairudi aitzinean ediren nuen. Isilean harengana eta harekin une batez (aitor dut) otoitz egilearena egin nuen. Gero hizketan hastera ausartu nintzen:

— Aita santu, eska ote nakioke berorri argi degidan eta aholku eman diezadan?

Ubertinok begiratu zidan, eskutik heldu ninduen, zutik jarri zen eta jarleku batera eroanda biok eseri ginen. Indarrez estu egin ninduen eta haren hatsa nire aurpegian sumatu nuen.

2334Gudaroste: armada (Gudari+oste / gudaloste)

— Seme maite-maite –hasi zitzaidan–, bekatari zahar eta gaixo honek hire arimaren alde egin lezakeen guztia, pozarren eginen dik. Zerk hau kezkatzen? Grinak, ote? –galdetu zidan, grina begitartean ia marraztua zuen harexek–. Haragiaren grinak?

— Ez –erantzun nion lotsagorriturik–, izaitekotan[2335], gogoaren grina, gehiegi jakin nahiaren minez...

— Horixe txarra. Jaunak oro zakik. Guri Haren jakintzaren gorestea zoakiguk, soilki.

— Baina, halaber ongiaren eta gaizkiaren artean bereiztea doakigu, eta giza-grinen ulertzea ere bai. Fraidegai nau, geroago lekaide izango, eta apez, eta gaizkia non dagoen jakin behar dut, zelako itxura duen, behar dadinean ezagunets dezadan eta besteei ezagutzen irakats diezaiedan.

— Zuzen hago, mutil. Eta orain erradak zer jakin nahi duan.

— Heresiaren belar gaiztoa, aita –esan nion, sineste sendoz[2336]. Eta ondoreantxe, hitzetik hortzera–: Gizon maltzur batez ele egiten entzun dut, beste beredin[2337] liluratu edo limurtu[2338] zuenaz: frai Dultzino.

2335Izaitekotan: (H. “en todo caso”)
2336Sineste sendoz: (H. “con convicción”)
2337Beredin: asko, anitz, hainbat heuragi, ugari...
2338Limurtu: seducir

Ubertino isilik geratu zen. Gero esan:

— Zuzen hago, anai Gileni eta bioi entzun higun, lehengo gauean. Historia itsusia duk, mintzatzeak min zegidak, zeren, zera irakasten (bai, honegatixe herorrek ikastea on duk) irakasten, erran nahi diat, nola penitentzia maitatzea eta mundua garbitzeko nahia odolaren eta sarraskiaren iturburu izan daitezkeen irakasten baitu –jarlekuan hobeto gomondu[2339] zen, eta bere besoa nire sorbalden gainean laxatu zuen, beti ere esku batez lepoa ukituz, ez dakit bere jakituria edo bere sutsukeria nolabait adiarazi nahi balit bezala–. Historia frai Dultzino baino lehenago hasi zuan, duela hirurogei urte baino gehiago, ni haur nintzela. Parman gertatu zuan. Berton Gherardo Segalelli delako batek prediku egiten zian, orduan hasita, karrikaz karrika jende guztiari penitentzi-biziera egin zezan gomendatzen ziola. «*¡Penitenciágite!*», oihukatzen zian, eta bere etxakinkeriaz[2340] hau erran nahi: «*Penitentiam agite, appropinquabit enim regnum coelorum.*[2341]» Bere ikasleei apostoluen antzera bizitzeko aholkatzen ziean, eta bere sektari “Apostoluen balderna” esan ziezaioten nahi zian, eta

2339Gomondu: acomodar (?)
2340Etxakin: ignorante, inculto
2341«Egizue penitentzia, zeren, zeruetako erresuma hurbilduko baita

horretako kideak munduz mundu ibil zitezen eskale behartsu laso, amoinez[2342] biziz…

— *Fraticelli*en antzera –nik–. Ez ote zen, bada, hori gure Jaunaren agindua eta zuen Frantziskorena?

— Bai –onartu Ubertinok, ahotsa zalantzan bezala eta hasperenka[2343]–. Gherardok, baina, beharbada gehiegi egin zian. Bera eta bere jarraitzaileak salatuak izan zituan, apezen buruzagitza aitortzen ez zutelako, meza eman nahi ez eta kofesatzerik nahi ez, eta mundurik mundu alderrai ibili ohi zirelako.

—Frantziskotar espiritualei ere horiek lako salakuntzak egin ukan zizkieten. Ez ote dute oraindik orain frantziskotarrek esaten Aitasantuaren burutza onartu behar ez dela?

— Bai, baina apezena onartzen ditek. Gu geu ere apez gaituk. Honelakoetan bereiztea zaila duk, mutil. Ongiaren eta gaizkiaren arteko marra hain duk mehea, argala… Nola nahi izan den ere, Gherardo okertu zuan, eta heresiaz bekatu egin zian. Frantziskotarren baldernan kidetzat har zezaten eskatu zuan, baina gure anaiek ez zitean hartu. Egunak gure lekaideen elizetxean emaiten zitian eta apostoluen margo-

2342Amoina: erremusina
2343Hasperen: suspiro

irudiak ikusten, eta oinetan sandaliak jantzirik agertzen zirela ohartu zuan, eta soinean kapak edo kapusaiak, eta zer egin zuen eta adats-bizarrak luze utzi zitian, oinak sandaliez jantzi, gerrian frantziskotarren kordela lotu… zeren, balderna berri bat fundatu nahi duen orok beti Frantzisko dohatsuagandik zerbait hartzen baitu.

— Horiek horrela, ondo egiten zuen...

— Alabaina zerbaitetan makur… Kapa zuri batez jantzirik, azpian tunika zuri bat, adatsa[2344] luze, xaloen artean santu ospea irabazi zian. Zedukan etxetto bat saldu zian, eta dirua jasorik harkaitz baten gainera igo zuan, antzinan *podestà*[2345] zirelakoak sutsuki mintzatzen[2346] ziren batera, eskuan zisku[2347] bete txanpon, eta ez zizkiean txiroei eman, han inguruan jolasean zebiltzan zalamandrin batzuei dei egin eta ziskua haien gainean hustu zian, eta erran: «Har beza nahi duenak», eta zalamandrin haiek txanponak jaso eta alde egin, eta dadoetan jolastera joan zituan, eta Jainko biziari biraoka egiten zioaten, eta dirua eman ziena aditzen ari, lotsagorritu bage.

2344Adats: (H. “cabello”)
2345Podestà:Italiako herrietan alkate edo antzeko norbait.
2346Sutsuki mintzatu: (H. “arengar”)
2347Zisku: bolsa

— Alabaina, Frantziskok ere oro utzi zuen eta oroz bagetu zen, eta, egun Gilenek jaulki didanez, beleei, mikei eta mirotzei predikatzera joan zitzaien, eta legenardunei orobat, beraz, jende doilorrari[2348], onbidetsu edo zirenek guztiz baztertuta zutenari, hain zuzen…

— Bai, baina Gherardok zerbait oker egin zian. Frantziskok ez zioan inoiz aurka egin Eliza santuari, eta ebangelioak txiroei eman behar zaiela ziok, ez zalamandrinei edo arloteei. Gherardok eman zian eta ez zian deusik jaso ordainetan, eman zion jendexkila txatxarra zelako, eta txarrak haren hasierak, txarra geroagokoa, eta txarra azkena, izan ere, beraren sekta Gregorio X.a Aitasantuak kondenatua izan zuan.

— Beharbada, Frantziskoren araua onartu zuena baino ikuspegi gutiagoko Aitasantua zen…

— Bai, baina Gherardo zerbaitetan okertu zuan. Frantziskok, ordea, bazekian ongi zertan ari zen. Gainera, mutil zerrizain eta behizain haiek, bat-batean sasiapostolu bihurtuak, lasai bizi nahi zitean, izerdirik isuri bage!, fratziskotarrek hain nekez eta hain eredu heroikoz txirotasunean hazitako haien erremusinez bizi! Baina ez duk

2348Doilor: (H. “hez”)

hori –gehitu zuen berehalakoan–. Gertatu zena besterik izan zuan, hau duk, apostoluen antzeko izaitearren, juduak baitziren, Gherardo Segalellik erdaindu[2349] izaitea onartu zian, eta hau Jaun Done Paulek galaziarrei igorritako hitzen aurka zihoaan… Eta badakik, pertsonarik askok, santutasun handiko, Antikristo erdainduen herriagandik jinen dela aldarrikatzen duena. Gherardok are zerbait txarrago egin zian. Xaloen biltzen ibili zuan eta honela esaten ziean: «Zatozte nirekin ardantzara», eta ezagutzen ez zuten haiek harekin inoren andantzara sartzen zituan, harena zelakoan, eta inoren mahatsa jaten zitean.

— Ez ziren, bada, frantziskotarrak izango inoren jabegoa defenditzen zutenak –esan nuen lotsabage.

Ubertinok begirada zorrotza iraitzi zidan:

— Frantziskotarrek txirotasuna eurentzat galdatzen ditek, ez ditek inoiz galdatu besteentzat. Ez dezakek zigorrik bage giristino zintzoen jabetzaren aurka egin; egin badezak, giristino zintzoek lapurtzat joko haute. Hauxe gertatu zitzaioan Gherardori. Ez zakiat egia den baina beronetaz (eta nik frai Salimbeneren hitza sinesten diat, jende hura ezaguna baitzuen), bere brondatearen indarra neurtzeko, eta

2349Erdaindu: circuncidar

bere buruari eusteko gaitasuna erakustearren, emazteki batzuekin etzan zela erraiten zuan, haragizko harremanik izan bage. Baina, haren jarraitzaileek berdin egin nahi ukan zutenean, oso bestela gertatu omen zuan… Oi, ez dituk hauek mutilek jakin behar dituenik! Emea tusuriaren gailua[2350] duk… Gherardok «*penitenciágite*» oihukatzen segitu zian, baina haren ikasleetako bat, Guido Putagio delakoa[2351], taldearen zuzendaritzaz jabetzen saiatu zuan, eta arrandiaka[2352] joaiten zuan, zaldizko andana batekin, eta dirua parrastaka xahutuz, eta oturuntza[2353] handiak antolatzen zitian Erromako Elizako kardinalek ohi zuten bezalaxe. Halako baten, sekta nork zuzendu eta biek elkar jo, eta gertakari ezainak izan zituan, itsusiak. Hala ere, anitz lagun Gherardori jarraiki zitzaioan, nekazariak ez ezik hiri handietako jendea ere bai, gremioetako jendea. Gherardok biluzteko agintzen ziean, Kristo biluziari biluzik jarraikitzeko, baina berak mahuka[2354] bageko jaka bat egin zian beretzat, zuria, oihal lodizkoa, soineko horrezaz jantzirik elizgizon baino areago bufoi baitzirudien! Izarpetan bizi zituan, alabaina, noizik noiz elizetako pulpituetara

2350Gailu: (H. “vehículo”)
2351Delakoa: (H. “un tal”)
2352Arrandiaka: con gran pompa, bravateando
2353Oturuntza: banquete (Orrits...)
2354Mahuka: manga

igaiten, eta herri fededunaren batzarra eteten zitean, predikariak kanpora egotziz. Behin, Ravenan, Sant'Orsoko elizako apezpiku-jargoian[2355] haur bat ipini zitean. Fioreko Joakinen dotrinaren oinordekoak[2356] zirela ziotean.

— Frantziskotarrek ere badiote –ihardetsi nion–, Gherardo da Borgo San Donninok ere bai, berorrek ere badio!

— Lasai hadi, mutil. Joakin Fioreko profeta handia izan zuan eta Frantzisko heldurik Elizaren berriztapena helduko zela ulertu zuen lehenbizikoa izan zuan. Baina sasiapostoluek haren dotrina beren zorakeriak zuritzeko erabili izan zitean. Segalellik berekin emakumezko apostolu bat joaiten zian, Tripia edo Ripia delako bat, profezia-dohaina zuela zioena. Emazteki bat, ulertzen duka?

— Baina, aita –arrazoitzen[2357] saiatu nintzen– berorrek, lehengo gauean, Chiara da Montefalco-ren eta Angela da Folignoren santutasunaz hitz egin…

— Horiek santuak baitziren! Apalgoan bizi zituan, Elizaren ahalgoa aitortuki, ez zitean inoiz erran profetak zirenik, honetarako dohainik zutenik! Aitzitik, sasiapostoluek baieztatzen zutenez, emaztekiak ere hiriz hiri predikatzen

2355Jargoi: trono (?)
2356Oinordeko: heredero
2357Arrazoitu: (H. "alegar")

ibil zitezkean, beste hainbat heretikok esaten zuena legez. Eta ordurako ez zuan bereizten ezkonge eta ezkonduen artean, ez zuan ezein boto[2358] betierekotzat hartzen. Azken baten[2359], kondaira hain goibelez asperrarazi nahi ez haut, zeren ñabardurak osoki hautemaiteko[2360] gauza ez baihaiz, erranen diat, azkenik, Obizzo apezpikuak, Parmakoak, Gherardo espetxeratzea erabaki zuela. Orduan, aldiz, zerbait harrigarri gertatu zuan, giza-izaeraren ahultasuna nolakoa den adiarazten duena, eta heresiaren belarra zein pozointsua den. Apezpikuak, azkenean, Gherardo askatu zian, eta bere mahaian eserarazi zian, bere ondoan, eta beraren txantxak adituz barre egiten, eta bufoi zian.

— Zergatik?

— Ez zakiat. Edo agian bai, bazakiat zergatik. Apezpikua aitonsemea zuan, eta ez zitian merkatariak ez hiriko eskulangileak maite. Gherardok hauei erasoten ziean, txirotasuna predikatuaz, eta hauxe, eiki, haren apezpiku haren atsegingarri. Gherardo amoinaren eskatzetik ebastera irago zuan. Geroenean, Aitasantuak esku hartu zian, eta apezpikuak zuzentasun zorrotzez jokatu behar. Gherardo,

2358Boto: voto (erlj.)
2359Azken baten: (H. “en suma”)
2360Hauteman: (H. “apreciar”) (Percibir, notar...)

hondarrean, heretiko damugetzat[2361] jo eta erre zitean. Hau mende honen hastean gertatu zuan.

— Eta zer du honetaz guzti honetaz Dultzinok?

— Badik zerikusirik, eta honek erakusten dik heretikoak suntsituagatik ere heresiak bizirik dirauela. Dultzino delako hori Novarako elizbarrutian, Italia alde honetan iparraldeanagotto bizi zen apez baten sasiko seme zuan. Beste nonbait jaio zela dioenik bada, Ossola haranean hain zuzen, edo Romañan. Horrek ez dik axolarik. Asmamen zorrotz-zorrotzeko gazte zen, eta ikasketak jaso zitian, baina berataz arduratzen zen apezari ostu zioan eta ekialdera buruz, Trento hirira ihes egin zian. Bertan predikatzen hasi zuen, Gherardok predikatu zuen ber-bera, are heretiko era handiagoz, bera Jainkoaren egiazko apostolu bakarra zela baieztatuz, eta maitasun arazoetan dena denena izan behar zela, erranez, oro ororena eta zein nahi den emaztekirekin ere elkartzea zilegi eta sori zela, eta, beraz, inor bere emaztearekin edo alabarekin etzanagatik ere ezin salatua izan zitekeela akezkeriaz edo ohaidekeriaz[2362].

— Benetan hori predikatzen zuen edo horren predikatzeaz salatua izan zen? Entzun dudanez, espiritualei ere krimen

2361Damuge: damu gabe (H. “impenitente”)
2362Ohaidekeria: concubinato / Akezkeria – Aketz egin: fornicar (?)

batzuk egotzi zizkieten, Montefalcoko fraide haiei gertatu zitzaien bezala…

— *De hoc satis*[2363] –eten zidan, zakar, Ubertinok–. Fraide izaiteari utzitakoak zituan haiek. Heretikoak zituan. Dultzinok kutsatuak, hain zuzen. Eta, bestalde, adizak: Dultzinok geroago egin zuena jakitea nahikoa haren fedebagekeria nabaritzeko. Ez zakiat, halaber, nola ikasi zituen sasiapostoluen dotrinak. Beharbada, Parmatik irago zuan, gaztetan, eta Gherardori entzun zioan. Jakina duk Bolonia eskualdean heretiko haiekin harremanetan ibili zena, Segalelliren heriotzaz gero. Ziur ere predikatzen Trenton hasi zela. Berton neskatxa guztiz ederra limurtu omen zian, etorkiz aitonalaba edo zena, Margherita zeritzona; edo beronek hura limurtu zian, Eloisak Abelardo xarmatu zuen bezala, ez ezak ahantz deabrua, satsua gizonkien bihotzera emaztekien bitartez sartzen dela! Orduan Trentoko apezpikuak elizbarrurean egotzi zian, baina Dultzinok, ordurakoxe, mila jarraitzaile baino gehiago bildu zitian, eta ibilaldi luze bati ekin zitzaioan, bera jaio zen eskualdera atzera eroan zuena. Bidean aurrera, beste inozo edo gizagaixo batzuk batzen zitzaizkioan, haren hitzez liluraturik, eta, heldubada, hainbat heretiko valdotar ere

2363«honetaz, aski».

batzen, iparraldeko lurralde hauetatikoak. Novara eskualdera iritsitakoan, Dultzinok giro egokia, bere matxinadaren aldekoa aurkitu zian, zeren, Gattinara aldeko jaurleak[2364], Vercelliko apezpikuaren mendeko[2365] eta beronen izenean nagusi zirenak herritarrek handik abaztorratuak[2366] izan baitziren, beraz, Dultzinoren mandilak[2367], haiek hala[2368], lagun ontzat hartuak izan zituan.

— Zer egin zuten apezpikuen mendekoek?

— Ez zakiat, ez zoakit[2369], ez diat zertan nik juzkatu. Baina, badakusak: heresia eta herrijaunen aurkako matxinada bat izan ohi dituk. Honegatik, heretikoa txirotasuna predikatzen hasten bada ere, azkenean, boterearen zirikapenari[2370] amor emaiten ziok, guduari eta indarkeriari ere bai. Vercellin hiriko askazi[2371] batzuen arteko borroka ari zuan eta sasiapostoluak egoeraz baliatu zituan, eta askaziek, halaber, sasi haiek eragindako nahasmendua, anabasa[2372], beren onurarako erabili zitean, hobaria[2373] jasoz. Jaun feudalek

2364Jaurri: gobernar / Jaurle: gobernante (jaurlari)
2365Mendeko: (H. “vasallo”)
2366Abaztorratu: (H. “expulsar”)
2367Mandil: bandido
2368Haiek hala: horiek horrela: hauek honela: así las cosas
2369Ez doakit: (H. “no me incumbe”)
2370Zirikapen: tentación
2371Askazi: familia, linaje
2372Anabasa: revoltijo
2373Hobari: provecho, ventaja...

diru-gudagizonak biltzen zitiztean, abenturazaleak biltzen, hirien arpilatzeko, eta hiritarrek, baitezpada[2374], Novarako apezpikuaren zaintza eta babesa galdatzen zitean.

— Zein historia korapilatsua! Alabaina, Dultzino norekin zegoen?

— Ez zakiat, bere alde zegoan, zegoenez, zeren, ika-mika haietan guztietan nahasi baitzen, eta haietaz baliatu izan zuan inoren jabegoaren aurka egiteko, txirotasunaren izenean predikatuz. Berak eta beretarrek, ordurako hogeita hamar mila inguru, Parete Calva zeritzon mendixka baten gainean, Novaratik ez urrun, gotorlekuak eta biziguak[2375] eraiki zitiztean, eta Dultzinok han nahaskeria lotsagarrian bizi ziren gizon-emakumezko eli harengan ahalgoa eta nagusigoa zian, erabat. Handik bere jarraitzaileei gutunak igorten zizkiean, bere dotrina heretikoa azaltzearren. Idatzi eta erran egiten zuenez, bere xedea[2376] txirotasuna zuan, eta kanpoko inoren agintepeko lokarririk ez zuela, eta berak, Dultzinok, Jainkoaren bidalia zelako, profeziak azaldu behar zituela eta Itun zahar eta berriko irakurgaien erranahia

2374Baitezpada: necesariamente, ezinbestean
2375Bizigu: (H. “habitácuo”)
2376Xede: (H. “ideal”) (Helburu, jomuga…) (Aburu nagusi ?-N)

ulertarazi[2377] behar zituela zioean. Apezteria laikoko[2378] kideei, predikariei eta frantziskotarrei deabruaren ministro, hots, zerbitzari erraiten ziean, eta haiei men egin behar ez zitzaiela. Jainkoaren herriaren bizialdian lau adin zegozela zioean: lehenengoa, Itun zaharrekoa, aitalehen[2379] eta profetena, Kristo baino lehenagokoa, orduan, zioenez, ezkontza ona zuan jendea ugaldu beharra zegoelako. Bigarrena, Kristoren adina eta apostoluena, santutasun eta kastitatearen garaia. Hirugarrena, Aitasantuek munduko aberatasunak onartu behar ukan zituztenekoa, herria jaurriko bazuten[2380]. Baina gizonak Jainkoari zioten maitasunetik aldentzen hasi zirenean Benito jin zuan, mundualdiango[2381] jabegoari uko egin behar zitzaiola erranez. Geroago, ordea, Benitoren fraideek ere aberaskiak[2382] bil eta bil jarduten zitean, eta Frantzisko eta Domiku deunen fraideak agertu zituan, Benito baino zorrotzagoak, lurraldiango agintegoa eta aberaskoa[2383] arbuiatuz. Hainbat elizgizonen bizitza arau zintzo haien aurkako bihurtzen zuan eta hirugarren garaia

2377Ulertarazi: (H. “interpretar”)
2378Apezteria laiko: (H. “clero secular”)
2379Aitalehen: patriarca
2380Jaurriko bazuten: (H. “para poder gobernar”)
2381Mundualdi: (H. “terrenal” (N) (Mundu+aldi+an+go) (Lurraldiango)
2382Aberaski: riqueza(s)
2383Aberasko: (H. “riqueza terrenal”) (Aberats+go)

azkentzerakoan zuan, eta apostoluen irakaspenetara bihurtu behar.

— Baina orduan Dultzinok lehenago frantziskotarrek predikatzen zuten bera aldarrikatzen zuen, eta haien artean bereziki espiritualek, eta berorrek, aita!

— Oi, bai! Baina ondorio maltzur bat ateratzen zian! Erran zuenez, ustelkeriaren hirugarren garaia amaitzearren, elizgizon guztiak, lekaideak eta fraideak edo padarrak ankerkiro[2384] hil behar zituan. Haren erranetan, Elizako prelatu guztiak, elizgizon eta elizemakumeak, serorak, eta predikarien baldernako kideak eta frantziskotarrenekoak, eta parrauak, eta Bonifacio Aitasantua bera ere sarraskituak izan behar zituan, garbituak eta suntsituak. Eta enperadoreak egin behar zuela zioean, Dultzinok berak hautaturikoak, Siziliako Federiko izanen zenak, hain zuzen ere.

— Alabaina, ez ote zen izan Federiko hori Sizilian espiritualak, Umbriatik egotziak izan ondorean, hartu zituena? Ez ote ziren izan frantziskotarrak enperadoreari, orduan Ludovikori, Aitasantuaren eta kardinalen ahalgoa deuseztatzeko, deboila[2385] zezan eskatu zitzaizkionak?

2384Ankerkiro: (H. “de muerte muy cruel”)
2385Deboilatu: destruir, destrozar… (deuseztatu, ezereztatu, birrindu...)

— Heretikoena duk hori, edo zoroena, hots, abururik eta helbururik zuzenenak okertzea eta makurtzea, eta haietarean Jainkoaren eta gizakien legeen aurkako ondorioak ateratzea: Frantziskotarrek ez ziotean eta ez ziotek inoiz enperadoreri beste apezak hil zitzan edo ditzan.

Orain badakit oker zegoela, bere buruari ziri sartzen[2386] ziola, zeren, il batzuk geroago bavariarrak bere agintea Erroman ezarri zuenean, Marsilio eta beste frantziskotar batzuk, Aitasantuaganako leialak izan ziren erlijio-gizonei Duntzinok lehenago egiteko esan zuena berbera egiten ari baitzitzaizkien. Honezaz ez dut esan nahi Dultzino zuzen zegoenik, alderantziz, Marsilio ere oker zegoela baizik. Galdetzen hasi nintzaion, bada, ene buruari, Gilenekin arratsalde haretako elkarrizketa eginda gero batez ere, nola Dultzinori jarraikiten zitzaizkion xaloek bereizi ahal zituzten espiritualen promesak eta hauek Dultzinok nola gauzatzen zituen. Honen errua ez ote zen, bada, ortodoxo ospea zuten gizon batzuek mistika maila huts batean predikatutakoa berak gauzatu izana? Edo, beharbada, hortxe aldea, eta santutasuna santuek aurretik hitzemana zena Jaungoikoagandik itxaraitea zen, bide mundutarrez lortzen saiatzeke? Orain badakit hala zena eta badakit

2386Ziri sartu (H. “se engañaba”)

zergatik huts egiten zuen Dultzinok: ez da gauzen gertakizuna[2387] aldatu behar, bai alda dadin sutsuki iguriki[2388] behar. Alta bada, hala, gau haretan burubide hara-honakoen[2389] artean ezbaian[2390] nengoen.

— Azkenik –Ubertinok ziraustan–, heresia beti nabarmentzen duk, harrokeriaz lagundurik joaiten baita. Bigarren gutunean, 1303.ekoan, Dultzinok kongregazio apostolikoaren buru nagusitzat hautatu zian bere burua, eta bere aialdekotzat[2391] hartu Margherita gaizto-gaiztoa (emakumezko bat), Longino da Bergamo, Federiko da Novara, Alberto Carentino eta Valderico da Brescia hartu zitian. Gero hitzerotzen[2392] hasten zuan, ele zoroak erraiten alegia, etorkizuneko Aitasantuei buruz: bi on –lehena eta azkena– eta bi gaizto –bigarrena eta hirugarrena–. Lehena Zelestino duk; bigarrena Bonifazio VIII.a, zeinetaz profetek erraiten baitute: «Zure bihotzaren harrokeriak gizatxartu zaitu, oi, zu, haitzetako arrakaletan bizi zaren hori!». Hirugarren Aitasantu ez dik izenez aipatzen, baina Jeremiasek haretaz erran zian: «lehoia oihanean bezala».

2387Gertakizun: (H. “el orden de”)
2388Iguriki: itxaron (itxaron: zain, aiduru… / Iguriki: uste izan…) (?)
2389Hara-honako: (H. “contradictorios”)
2390Ezbaian:(H. “me debatía”)
2391Aialdeko:(H. “lugarteniente”) (Compañero, acompañante...)
2392Hitzerotu: (H. “desvariar”) (Hitz+ero) (Buru galdu, erotu...)

Eta, oi, zitalkeria[2393], Dultzinoren arauera, lehoia Siziliako Federiko zuan. Orduan oraindik ez zekian laugarrena nor izanen zen, aita deuna, aita aingeruzkoa, Joakin abadeak aipatzen zuen hura. Aitasantu hau Jainkoak hautetsia izanen zuan, eta orduan Dultzinorekin bere jarraitzaile guztiek (ordurako lau mila bazituan) elkarrekin Espiritu Santuaren garazia jasoko zitean, eta Eliza zaharberritua izanen zuan, gehiago ez usteltzeko eran, munduaren amaira arte. Baina hura etorri aurreko hiru urteetan gaiztakeria guztia burutu[2394] beharra zuan. Eta Dultzinok hori egin nahi ukan zian, gudua alde guztietara eramanez. Laugarren Aitasantua, eta hemen nabari zagok nola egiten duen barre tusuriak bere "*sucubus*"-en lepotik, Klemente V.a izan zuan, hain xuxen, Dultzinoren aurkako gurutzada deitu zuena. Ongi egin zian, barren, zeren, harako gutunetan Dultzino, zegoeneko, ortodoxiaz bestelako dotrina onartezinen alde mintzatzen baitzen. Eliza erromatarra *meretriz* zela zioean, emagaldua, urdanga, hala, eta apezei ez zitzaiela jaramonik egin behar, botere espiritual guztiak apostoluen sektarenak zirela, eta hauek ez beste zirela Eliza berriko kide, ezkontza berauek deusezta zezaketela, sektakide izan behar zela gaizkatuko[2395]

2393Zitalkeria: (H. "infamia")
2394Burutu: (H. "consumar")
2395Gaizkatu: salvar

bazen, Aitasantuk ezin zezakeela bekaturik askets[2396], hamarrenak ordaindu behar ez zirela, boto bageko bizimoduan botodunen bizimoldean baino bekaintasun handiagoa zegoela, otoitz egiteko berdin zirela eliza sagaratu bat eta ukuilu bat, Kristo gurtzeko oihana edo eliza berdin.

— Egia ote da hori guztia esan zuela?

— Bai, ziur, idatzi zian eta. Eta ondikoz are zera gaiztoagoak ere egin zitian. Parete Calvan jarri baikoz, mendiaren barreneko herrixketan lapurretak egiten hasi zuan, behar zituen horniak ebasteari ekin zitzaioan… Hondarrean, eskualdeko baserri guztien kaltetan benetako gudate bat zabaldu zian.

— Denak haren aurka zirena?

— Ez duk jakiten. Heldubada, batzuk haren alde izanen ahal zituan; erran diadan bezala, lurraldea aztoratzen zuen liskar mordoilo korapilatuan sartzen jakin ukan zian. Hala zebilela[2397], negua heldu zuan, 1305ekoa, hamarraldi haietako gogorrenetako bat, eta inguruko alderdi guztietan apoitarekin[2398] gosetea nagusitu zuan. Dultzinok bere

2396Asketsi: absolver
2397Hala zebilela: (H. “A todo esto,...”)
2398Apoita: miseria (?)

jarraitzaileei hirugarren gutuna igorri ziean, eta beste beredin lagun gehitu zitzaioan bere jendeari. Han goian, berriz, bizitza ezinezko bilakatu, goseak jota zaldikia eta beste abereki mota batzuk jan zitiztean, sarale[2399] egosia ere bai. Heuragi hil zituan, anitz.

— Baina, noren aurka borrokatzen ziren une haretan?

— Vercelliko apezpikuak Klemente V.ari hel egin[2400] zioan eta honek heretikoen aurkako gurutzada deitu. Gurutze-gudu haretan esku har zezaten guztiei guztizko indulgentzia emanen zitzaiela erabaki zian, eta Saboiako Ludovikori, Lonbardiako inkisidoreei, eta Milango artzapezpikuari laguntza eske joan zitzaiean. Askok hartu zian gurutzea Vercellli eta Novarako jendeari sorosteko, Vercelliko agintepean jarririk, Saboiatik, Proventzatik eta Frantziatik joanak bildu zituan. Gudaroste bien aitzinalde-taldeek maiz elkar joiten zitean, baina Dultzinoren gotorlekuak gaindiezinak, eta fedebegeek, nola edo hala, nondik edo handik, laguntzaileen laguntza jasoten zitean.

— Noren laguntza?

2399Sarale: heno, belar ondu, hierba seca
2400Hele egin: apelar (Godeitu?, gora jo...)

— Bertze fedebageko batzuena, nik uste, nahasmendu harezaz guztiaz asebeterik. Hala ere, 1305. urtearen azkenaldian heretikoen buruak Parete Calvatik alde egin behar ukan zian, berton zaurituak eta gaisoak utzirik, eta Trivero alderantz jo, eta mendietako batean gotortu zuan. Mendiak Zubello izena zian, baina harez geroztik Rubello edo Rebello erraiten zioaten, zergatik eta “errebeldeak”, hots, matxinoak hantxe indartu zirelako, Elizari aitzi. Ezin diat jaulki han gertatu zen guztia, baina, azkenean, triskantza[2401] ikaragarria izan zuan. Honela eta guztiz ere, matxinoek amor eman beharra ukan zitean, erauki erranik., Dultzino eta beretarrak gatibu hartu zitiztean, eta zuzentasun osoz sutan amaitu zituan.

— Margherita ederra ere bai?

Ubertinok begiratu zidan:

— Ez duk hori atzendu, ez da? Bai, ederra zela ziotek, eta herriko hainbat jaunek berarekin ezkondu nahi zitean, sutatik gaizkatze aldera. Baina berak ez zian nahi. Damu bagerik hil zuan, bere maitatzaile damugearekin[2402] batera. Honek guzti honek zerbait irakatsi behar dik: zain ezak

2401Triskantza: (H. “estrago”)
2402Damuge: (H. “impenitente”)

heure burua Babiloniako emagaldutatik, izakirik maitagarrienaren itxuraz ager balekik ere.

— Orain argitu begit berorrek, aita. Jakin dudanez, komentuko sehiburua, eta Salbatore ere bai eiki, Dultzinorekin elkartu zirela, eta nolabait honekin bat egindakoak izan zirela…

— Isil hadi, ez egin juzku gaiztorik[2403]. Sehiburua frantziskotarren komentu batean ezagutu nian. Egia ere baduk Dultzinorekikoak gertatu eta gero izan zela. Urte haietan, Benito deunaren baldernan aterpetu ziren baino lehen, hainbat espiritual arrisku larritan izan zuan eta komentuak uztea erabaki zitean. Remigio non egon zen ez zakiat, bat egin genuen arte erran nahi diat, baina bazakiat fraide biziki ona izan dela beti, ortodoxia aldetik behintzat. Bertze gainerakoei buruz, ai!, haragia ahul...

— Zer esan nahi du?

— Ez dituk hik jakin beharreko zerak. Baina, tira, gaia ukitu dugunez gero, ongia eta gaizkia bereizteko adinean hagoenez gero... –lipar batez zalantzan–, erranen diat, ezen, zurrumurruak iritsi zaizkidala, hemen abadia honetan,

2403Juzku gaizto: (H. ”juicio temerario”)

sehiburuak zeinbait narritari[2404] jarki ezin eta… Erranmerranak, zurrumurruak. Zera horietaz ez pentsatzen ere ikasi behar duk –beregana erakarri ninduen berriz ere, eta, gogor besarkatuz, Birjinaren irudiari begirarazi zidan–: Maitasun guztiz garbian hasi behar duk, lohigean[2405]. Hor dakusaan emazteki horrengan emetasuna[2406] goren-gorendu[2407] duk. Horregatik erran dezakek, bai, hori guztiz ederra dela, *Kantiken Kantika*ko emazte maitatua bezala. Harengan – esan zuen begiak zorabioan legez, barreneko atsegin batek eragindako liluramendutan[2408], Abadeari aurreko egunean gerta bezalatsu, harribitxiez eta bere urrezko tresnez mintzo zela–, berarengan soinaren garazia bera edertasun zerutiarren ikur bilakatzen baita, honegatixe tailuginak[2409] beti emaztekiri dagozkion edertasun eta garazi guztiez iruditu dik –eta Birjinaren soin-irudi polita begirarazi zidan. Lerden eta zutun[2410] gorontz[2411] batek gerria estuturik, kordeltto batzuk lokarri eta Jesus Haurra eskuttoez hauekin jolasean, honatx irudia–. Ikus? *Pulchra enim sunt*

2404Narrita: tentación, provocación...
2405Lohige: (H. “inmaculado”)
2406Emetasun: (H. “feminidad”) (?) (N)
2407Goren-gorendu: (H. “sublimar”)
2408Liluramendu: (H. “éxtasis”)
2409Tailugin: tailugile: escultor
2410Zutun: zut
2411Gorontz: (H. “corpiño”) (Gerruntze, koratilo...)

ubera quae paululum supereminent et tument modice, nec fluitantia licenter, sed leniter restricta, repressa sed non depressa[2412]... Zer iradokitzen[2413] dik irudi ezti-eztitsu honi begiratzeak?

Lotsagorritu nintzen tint[2414], barruko su batek pispilduta[2415] laso. Ubertinok, antza, nabaritu edo zuen, edo ene masailen gorriaz ohartu zen, eta berehalakoan:

— Baina bereizten ikasi behar duk izanezgaineko[2416] maitazarre eta zentzuen liluratzearen artean. Santuek ere nekez ditek maiz bereizten.

— Alta bada, nola jakin zein den maitasun ona? –galdetu nion dardar baten.

— Zer da maitasuna? Ezer ez zagok munduan, gizonik, deabrurik, gauzarik, niretzat maitasuna bezain susmagarri denik, hau bertze ezer baino arimara sartzenago duk. Deusek ez dik bihotza betetzenago maitazarreak baino. Honegatik, babesteko iskilurik ez dadukanean, arima hondatzen duk, maitasunagatik, porrotik sakonenean. Nire ustez,

2412«Zinez, ederrak dira pittin bat gainagertzen diren bularrak, xamurkiro hanpatzen baitira eta ez lizunki kulunkatzen baina gerrian estu xamarturik, biribildurik baina ez lotuak...»
2413Iradoki: (H. “inspirar”)
2414Tint: txit, oso / gogor (H. “violentamente”)
2415Pispildu: abrasar, achicharrar (kiskali, txigortu...)
2416Izanezgain: sobrenatural (?) (N)

Margheritak liluratu ez balu, Dultzino ez zatekean hogenean galdu. Eta Parete Calvako bizimodu gaizto eta maitenahasia[2417] bagerik, haietako hainbat jarraitzailek ez zian matxinada haretan eskurik hartuko. Harek ez zitizkean erakarri. Eta kontu egik ez diadala hau guzti hau maitazarre gaiztoaz soilki, izan ere, honetatik gaiztotik deabrugandik bezala orok ihes egin behar dik; maitasun onaz ere badioat, beldurrez beterik, Jainko eta gizakiaren artekoaz alegia, eta honen eta bere hurkoaren artean gertatzen denaz. Maiz gertatzen duk, ezen, bizpahiru gizon-emaztekik elkar bihotzez maite dutela, eta elkarrenganako tirria[2418] ona sentitzen, eta beti elkarrekin bizi nahi izaiten, batak gura duena bertzeak eginez. Eta aitor diat, bai, neronek ere horrelako sentimendurik noizbait izan nuela, Angela eta Chiara bezalako emazteki onbidetsuenganakoa. Bada, zera, maitasun hori ere arbuiatzekoa duk, zentzu espirituala badu ere eta Jainkoagandik iradokita[2419] dagoen arren... Zeren, arimak, babes bage, maitasun-sua har badeza, hau haragizkoa ez izanagatik ere, azkenean, nahasmendura eror baitaiteke, nahas eta mahas daitekek[2420]. Ho, maitasunak ondorio askotarikoak ditik; lehenik, arima biguntzen dik,

2417Maitenahasi: (H. “promiscua”) (N)
2418Tirria: anhelo, deseo (ona) /Aiher (txarra?)
2419Jainkoagandik iradokita: (H. “ inspirado en Dios”)
2420Nahas…: (H. “agitándose en el desorden”)

gero gaisotzen edo eritzen… Geroago, aldiz, horrek egiazko jainko-maitasunaren sua sumatzen dik, eta oihu egiten, eta damu dik, eta labean kiskaltzen den harria bezala duk, birrintzen duk, kare bihurtzen, eta suntsitzen eta garrek milikatua sutan txinpartaka eta zirtaka[2421] egiten dik...

— Eta ona al da maitasun hori?

Ubertino burua laztandu zidan, eta begiratu nionean konturatu nintzen haren begiak malkoz beterik zegozela:

— Bai, hori maitasun ona duk. –Kendu zuen eskua nire sorbaldatik–. Horrela eta guztiz ere, zein zaila den bertzetik bereizten! Batzuetan, hire arima tusuriek kitzikatzen dutenean, lepotik zintzilik dagoen gizona bezala sumatzen duk heure burua: eskuak bizkarraldean, begiak zapiz estalirik, sokatik esekita urkamendian baina oraino bizirik, eta inor ez laguntzeko, inor ez bihotz-altxagarri, ez sendagarri, airean bira-biraka…

Haren aurpegia malkoz basitua ez ezik izerdi-geruza likits batek estalia ere bazegoen.

— Orain hoa, ea –agindu zuen urduri–, jakin nahi ukan duana erran diat. Hemen aingeruen batza, han inpernuko ahoa. Hoa, eta Jainkoa izan dadila goretsia.

2421Zirta: txinparta (H. “crepitar”)

Berriro Birjinaren aurrean belaunikatu zen eta zinkurin[2422] ahul bat entzun nuen. Otoitz zegien.

Ez nintzen elizatik atera. Ubertinorekiko elkarrizketak nigan, ene ariman eta ene erraietan, irrika[2423] bakan bat eragin zidan, ezinegon[2424] esangaitza. Beharbada, honegatik ez nuen haren agindua bete. Eta liburutegira eta bakarrik itzultzea erabaki nuen. Zeren bila ere ez nekien. Leku ezezagun bat arakatu nahi nuen. Leku haretan neurez inoren laguntzarik bagez, ez ene maisuaren ere, zuzen ibili ahal izaiteak liluratzen ninduen. Liburutegira igo nintzen, Dultzino' Rubello mendira igo zen bezalaxe.

Argiontzia neraman (zerarren ekarri nuen? Agian, ene barrenean harako asmoa lehendik ere isilpean banuelako?), eta hezurtegia ia begiak itxirik zeharkatu nuen. Berandu bage *scriptorium*ean nengoen.

Gau hura, nik uste, zoritxarrak markatua zegoen, zeren, mahaien artean kuxkuxean nenbileino, batean eskuizkribu bat zabalik zegoela ikusi nuen, egun haietan fraideren batek kopiatzen eta hantxe bertan utzitakoa, nonbait. Izenburuak nire arreta berehala hartu zuen:

2422Zinkurin: (H. "sollozo")
2423Irrika: (H. "ardor")
2424Ezinegon: (H. "desasosiego")

Historia fratris Dulcini Heresiarche. Oker ez banago, Pietro da Sant Albanoren mahaia zen. Entzuna nuenez, heresiaren historia handi bat idazten jarduten zuen (dena den[2425], egitasmoa gelditurik zegoen abadian gertaturikoak gertatu ondorean… alabaina ez dezagun jazokizunik aurrera). Ez zen bakana, bada, idazki hura han egoitea, eta beste batzuk ere bazegozen, antzeko gaiezkoak, patariarrez nahiz zartailukariez, esaterako. Hala ere, hura hantxe agertu izana, izanaz gaindiko ezagugarri iruditu zitzaidan, ez dakit zerutikoa edo deabruzkoa. Halaxe, bada, jakin-minez okiturik,[2426] hizki haien gainera makurtu nintzen. Ez zen oso luzea. Lehenengo zatian, Ubertinok jaulki gertaera batzuk edesten[2427] zituen, ñabardura habororekin orain atzenduak ditudan arren. Dultzinoren jarraitzaileek eginiko gaiztakeria ugari ere aipatzen zuen, gudatean eta setio-aldian batik bat. Azkenengo borroka xehatzen[2428] zuen, zinez ankerra izan baitzen, hagitz, azkena. Alabaina, Ubertino esan ez zidan hainbat gauza ere jakin nuen; nabari zen hura idatzi zuena gertakarien lekuko izan zela eta bere irudimena gertatu haiek zirrara[2429] eginda zegoela orduan oraindik.

2425Dena den: (H. “desde luego”)
2426Okitu(a): repleto /...
2427Edestu: narrar (?) (Jaulki, aletu...)
2428Xehatu: pormenorizar /… (H.“descripción”) (… / Desmenuzar...)
2429Zirrara: impresión

Hala ikasi nuen, esaterako, 1307ko epailean, inon larunbat “guru” esaten zioten egunean, Dultzino, Margherita eta Longino atxilotuak Biella hirira eroan zituztela, apezpikuaren esku utzi eta honek Aitasantuak erabaki zain eduki zituela. Beronek gertaera haien berri jakin bezain laster, Frantziako errege Philiperi honela idatzi zion: «Guregana berri txit pozgarriak iritsi dira, alaitasunez eta gogo onez asetzen gaituztenak, zeren, asko arrisku, neke, sarraski eta erasoz geroztik, deabru satsu kaskagogor Belzeburen seme eta heretiko-buru Dultzino hori azkenik atxilotuta baitago, bere zalexkila[2430] batzuekin, gure espetxeetan. Eskerrak gure anaia agurgarri Raniero’ Vercelliko gotzainaren lanari, eta gainera gure Jaunaren Azken Abari[2431] Santuaren egunean atxilotu zuen, eta egun berean harekin zegoen beredin jende hila izan zen». Aitasantuak ez zuen gupidarik izan atxilotuekin, eta apezpikuari herio-zigorra eman ziezaien agindu zion. Urte haretako bereko uztailean, lehenengo egunean, gatibuak herri-agintarien eskutan utzi zituen. Hiriko kanpaiak ordara joiten[2432] ari ziren bitartean, gurdi batean jarri zituzten, borreroak inguruan, gudamutilak gibelean, eta honela hirian

2430Zalexkila: (H. “secuaz”) (N)
2431Abari: afari, apari, aihari...
2432Ordara jo: (H. “tocar a rebato”)

zehar, kantoi bakoitzean gelditzen eta kurrika[2433] goriez[2434] atxilotuen haragiak larrutzen[2435] zituzten. Aurrenik, Margherita kiskali zuten, Dultzinoren begien aurrean, berau, hala ere, ez zen ikaratu, aurpegiko giharrik ez zitzaion higitu, zirkinik[2436] ez orduan eta zinkurinik[2437] ez kurrikak bere haragietan sastatu[2438] zirenean. Gero, gurdia bere bidetik aitzina eta borreroek beren lanabesak suak bixi-bixi zirauen ontzi batzuetan sartzen zituzten. Dultzinok beste tortura batzuk nozitu zituen, baina isilik geratu zen, mintzul, sudurra ebaki zioten arte, zeren, orduan sorbaldak pitin bat uxkurtu baitzituen, eta zakila erauzi ziotenean hasperen luze bat egin zuen, etsi-etsian intziri[2439] egin zuen. Haren hondarreko hitzak damu bageak izan ziren, eta hirugarren egunean berpiztuko zela aldarrikatu zuen. Geroenean, erre egin zuten eta haren errautsak haizeak barreiatu zituen.

Itxi nuen eskuizkribua, eskuak dardar. Esan zidaten bezala, Dultzino krimen ugariren erruduna zen, baina suak hil zuen, izugarriro. Eta, hara helduz gero haren jokaera… martirien antzekoa izan al zen, errime? Edo izan al zen

2433Kurrika: tenaza(s)
2434Gori: hierro candente
2435Larrutu: (H. “lacerar”)
2436Zirkin: movimiento pequeño
2437Zinkurin: (H. “lamento”)
2438Sastatu: (H. “hincar”) (?)
2439Intziri: chillido lastimero

gaizkinen antzekoa? Eskaileran gora halda-malda[2440] nindoala, ulertu nuen zer zela eta nengoen honen aztoratuta. Bat-batean, il batzuk lehenago, ez asko, ikusitako gertakari bat gogoratu nuen, Toskanara iritsitakoan. Ordura arte nolatan ahantzita nedukan galde egin nion ene buruari, arima gaixoak ameskaizto legez estutzen zuen oroitzapen hura ezabatu nahi ukan balu bezala. Benetan, ez nuen atzendua, zeren, *fraticelli*ez zerbait entzuten nuen bakoitzean orduko harako irudiak gogora etorri ohi baitzitzaizkidan. Gogora eta berehala gogotik iraizten nituen, egozten nire barreneko espiritu sakonerantz, izugarrikeria haren lekukuko izaite hutsa hogen edo bekatu bailitzan.

*Fraticelli*ez entzun nuen lehenbiziko lekua Florentzia izan zen. Batto sutan erretzen ikusi nuen. Frai Gilenekin buru egitera Pisara joan baino lehenttoago izan zen. Bertara iristen berandutzen zenez, nire aitak Florentzia ezagutzera joan nendin baimen eman zidan, bertako eliza eder-ederrengatik ospe handikoa eta guztiz ederretsia baitzen. Toskanan zehar gutixko ibili ondorean, bertako herritarren hizkera arrunta hobeki ikastearren, astebetean

2440Halda-malda(ka): tambaleando

Florentzian egon nintzen, hainbestetan entzunda ezagutu nahi nuen eta.

Heldu eta laster, epaiketa garrantzi handiko baten berri jaso nuen, hirian zalaparta eragiten zuena. Egun haietan heretiko *fraticelli* bat, hainbat krimengatik salatutakoa, erlijioaren aurkakoak hain zuzen, apezpiku eta beste eliznagusi batzuen aurrera eramana izan zen eta itaunketa zorrotza egiten zioten. Berri hura ekarri zidaten lagunei jarraiki nintzaien eta gertalekura hurbildu nintzen. Bidean gindoazela, salatutako heretiko hura, Michele izena zuena, egiaz fede handiko gizona zela entzun nuen, elizkoia oso, penitentzia eta txirotasuna predikatutakoa zela, Jaun Done Frantziskoren hitzak berrizkatuz, eta epaileen aurrera zeinbait emakumeren maltzurkeriak bultzatua izan zela. Berarekin alegia eta konfesatu nahiz, zeinbait eskaintza heretiko egin ziela eta salatu zuten, antza, eta, areago apezpikuaren gizonek harako emakume haien etxean harrapatu zutela. Honek ninduen harritu, guztiz ere, zeren, elizgizonek ez baitituzte sakramenduak ezlekuetan, hots, behar ez diren lekuetan eman behar. Baina *fraticelli*en makurretako bat horixe, ausaz, ondo zetorrena eta ez zetorrena beti bereizten ez jakitea. Beharbada, egiatik ere zerttobait bazegoen zurrumurru edo esamesetan, eta,

heretikoak izaiteaz gain, nola-halako ohituradun jendea zirela egia zen, (kataroez ere bulgariarrak eta sodomarrak zirela esan ohi zen).

San Salbatoreren elizaraino iritsi nintzen, auzitegia orduantxe, baina ateetan jendetza eta sartu ezin ni. Leihoetan igorik ere batzuk, eta bertatik ikusi ahala eta entzun ahala beheango guztiei jakinarazten zieten. Ni bertaratzean, frai Micheleri aurreko egunean aitortu zuena irakurtzen ari zitzaizkion; esan zuenez, Kristok eta apostoluek ez zuten inoiz bererik deus, jabetzarik batere eduki, ez bakoitzarenik ez elkarrenik. Michelek, ostera, kexa zegien, esanez, eskribauak (lekuan-lekuan, “nahastari” esaten diotena) zerbait gehiago gehitu zuela, «anitz ondorio faltsu» oihuz zioen (hau nik kanporean entzun nuen): «Erantzun behar ukanen duzu honetaz epaiketa egunean!» Inkisidoreek aitorpena idatzita zegoen bezal-bezala irakurri zuten, eta azkenean galde egin zioten ea nahi al zuen, apalkiro, Elizaren eta hiriko jende guztiaren eritzietara bildu. Michele ozengi oihuka ari aditu nuen, berak sinesten zuenari zatxekiola[2441], hau da, «Kristo gurutziltzatua txirotzat eduki nahi zuela, eta Aitasantua, Joan XXII.a, ordea, heretikotzat hartzen zuela, alderantzizkoa baieztatzen

2441Zatxekion: atxiki, atxeki, itxeki (H. “aderirse”)

baitzuen». Eztabaida larria piztu zen, une haretantxe, eta inkisidoreek, asko eta asko frantziskotarrak ziren, pentsarazi nahi zioten, ezen, Eskritura Santuek ez zutela berak zioenik; eta berak, aldiz, beren baldernaren arautegia bera ukatzen zutela aurpegiratzen zien; haien ihardespena eta bir-ihardespena, behin eta berriz, ea nahi ote zien irakatsi berei Eskritura Santuen ulertzen, berei, gaiaz aditu eta maisu ziren berei. Frai Michelek, zinez temati, ez zuen amor emaiten, eta besteek zirika eta kitzika, esanez: «beraz, Kristo jabetzat eduki dezazun nahi dugu eta Joan Aitasantua katolikotzat eta deuntzat jo dezazun». Eta Michelek, menderaezin[2442], ihardukiz eta ihardukiz: «Ez, heretikoa da». Eta besteek, bere maltzurkerian hain kirmen[2443] eta tinko zegoenik inor inoiz ikusi bageak zirela zioten. Alta bada, eraikinaren lekorean bil-bil egina zegoen jendetzaren barrenean, Kristo fariseuen artean bezala zela zioenik asko zegoela ohartu nintzen, eta orduan ulertu nuen ulertu, herriaren baitan, santua frai Michele zela uste zutenak beredin zirela.

Geroenean, apezpikuaren gizonek harzara espetxera eraman zuten, oinak oinbilurretan[2444]. Aratsaldean jakin nuenez, apezpikuaren fraide adiskiderik asko harenganatu

2442Menderaezin: (H. “insumiso”)
2443Kirmen: leal, firme
2444Oinbilur: (H. “cepo”)

ziren, irainka, eritzi haietatik eurt egin[2445] zezan eskatzera, harek, ordea, bere egiaz tinko, ten-tenean[2446], bere lehenean zegoelarik erantzuten zien. Eta Kristo txiroa zela eta Frantzisko eta Domiku deunek ere hori esaten zutela berresten[2447] zien, eta horrelako sinesmen zuzenaren jabe izaiteagatik estira[2448] jasan behar bazuen, askoz hobe, zeren, honela laster Eskriturek zer zioten ikusi ahal izango baitzuen, eta Apokalipsiko hogeitalau agure agurgarriak ikusiko, eta Jesukristo bera eta martiri loriatsuak[2449] orobat ikusiko zituela. Eta honela esan omen zuen: «Abade santu batzuen dotrina hain sutsuro irakurten badugu, are askoz sutsuroago nahitu[2450] behar dugu haien artean egon», eta hau lako zerak entzunik, inkisidoreak ilun eta goibel ateratzen ziren, beltzuri, espetxerean, haserre hots eginez (eta hau neronek entzuna da): «Deabruaren larrua da!»

Biharamunean jakin genuenez, kondena ebatzita zegoela. Apezpikutegira joan nintzen, larrutxa bertan ikusi nuen eta nire oholtxan idazkiaren zati bat kopiatu nuen.

2445Eritzitik eurt egin: (H. “retractarse”)
2446Ten-tenean: en sus trece (Bere lehenean….)
2447Berretsi: ratificar
2448Estira: suplicio
2449Loriatsu: aintzatsu, glorioso
2450Nahitu: desear (agiandu -agian+du)

Honela hasten zen: «*In nomine Domini amen. Hec est quedam condemnatiocorporalis et sententia condemnationis corporalis lata, data et in hiis scriptis sententialiter pronumptiata et promulgata...*»[2451], eta abar, eta Micheleren bekatu eta hogenen xehapen zorrotza zuen, nik hona, ez osoa baina, dakardana irakurleak zuhurtasunez epai dezangatik:

Johannem vocatum fratrem Micchaelem Iacobi, de comitatu Sancti Frediani, hominem male condictionis, et pessime conversationis, vite et fame, hereticum et heretica labe pollutum et contra fidem catholicam credentem et affirmantem... Deum pre oculis non habendo sed potius humani generis inimicum, scienter, studiose, appensate, nequiter et animo et intentione, exercendi hereticam pravitatem stetit et conversatus fuit cum Fraticellis, vocatis Fraticellis della povera vita hereticis et scismaticis et eorum pravam sectam et heresim secutus fuit et sequitur contra fidem cactolicam... et accessit ad dictam civitatem Florentie et in locis publicis dicte civitatis in dicta inquisitione contentis, credidit, tenuit et pertinaciter affirmavit ore et

2451«Jaunaren izenean. Hala biz. Hau gorputz-kondenatzea da eta gorputz-kondenatzerako sententzia proposatu, eman eta idazki hauetan aldarrikatua izan da...» Latinezko testuan hitz batzuk latin ez klasikoko ortografian agertzen dira.

corde... quod Christus redentor noster non habuit rem aliquam in proprio vel comuni sed habuit a quibuscumque rebus quas sacra scriptura eum habuisse testatur, tantum simplicem tacti usum[2452].

Baina ez ziren horiek egozten zizkioten krimen bakarrak. Eta beste gainerakoen artean bat oso itsusi iruditu zitzaidan, nahiz eta ziur ez egon (auzia nola burutu zen) ea egiaz baieztatu ote zuen, zera, hara, frantziskotar harek esan eta esan[2453] omen zuen Akinoko Tomas Deuna santu ez zela, kondenatua zegoela, ez zuela betiereko salbamenduaz gozatuko, alderantziz, galdua eta hondatua zegoela! Sententziak zigorra baietsi zuen, zeren, salatutakoak ez baitzuen behin ere bere eritzietan eurt egin:

2452«Joanes, frai Michele Jakobe deritzona, San Frediano konderrikoa, izaera gaiztoko gizona eta hizkera, bizimodu eta ospe ezinago txarretakoa, heretiko eta heresiazko lohiaz zikindua, fede katolikoaren aurka sinesten eta baiezten duena… Jainkoa bere aurrean ez duela, giza-jendearen etsaia baizik, bere buruaren jabe dela, hausnar eginda dagoela, zakarto eta heresiaren maltzurkeria egiteko asmo sendoz eta tinkoz, *fraticelli*ekin bizi izan zen, biziera txiroko *fraticelli* deritzenekin, heretikoak eta zismatikoak, bere sekta gaiztoaz eta heretikoaz aurrera joan zen, beti fede katolikoaren kaltetan… eta honela Florentzia hirira sartu zen, eta hiri honetako lekuetan, inkisizioak dioen tokietan, sinetsi zuen, esaten eta berresaten zuen, bihotz eta aho beroz beti bere ten-tenean, Kristo gure salbatzailea ezeren ere jabe ez zela, Eskritura Santuak zioen zuenaren guztiaren erabiltzaile hutsa baino ez zela.»

2453Esan eta esan: (H. “sostener”)

Costat nobis etiam ex predictis et ex dicta sententia lata per dictum dominum episcopum florentinum, dictum Johannem fore hereticum, nolle se tantis herroribus et heresi corrigere et emendare, et se ad rectam viam fidei dirigere, habentes dictum Johannem pro irreducibili, pertinace et hostinato in dictis suis perversis herroribus, ne ipse Johannes de dictis suis sceleribus et herroribus perversis valeat gloriari, et ut eius pena aliis transeat in exemplum; idcirco, dictum Johannem vocatum fratrem Micchaelem hereticum et scismaticum quod ducatur ad locum iustitie consuetum, et ibidem igne et flammis igneis accensis concrematur et comburatur, ita quod penitus moriatur et anima a corpore separetur.[2454]

Eta sententzia argitara eman ondoan ere, elizgizon batzuk espetxera joan ziren Michelekin hitz egitera eta zer gertatuko zen ohartarazi zioten, eta nik entzun, honela: «Frai

2454«Jakin badakigu, lehenago baieztatua izan denagatik eta Florentziako apezpikuak emandako sententziagatik, aipaturiko Joanes heretiko horrek ez duela bere burua zuzendu nahi eta ez ondu nahi hainbat makurkeria egin izanaz, eta ez duela fedearen bide zuzenera bihurtu nahi, beraz, Joanes hori menderaezin, eta bere gaiztakerian tematsu eta burua gogortua duela uste dugu. Joanesek berak bere maltzurkeriagatik goretsia izan nahi ez dezantzat, eta besteentzat eredu izan dadintzat, Joanes delako hori, frai Michele ezizenez ezagtua, heretiko eta zismatikoa, biz justiziak ohiko duen lekura eramana, eta izan bedi han bertan erre eta, suz eta garrez, guztiz hila izan arte eta haren arima gorputzetik alderatua izan arte...»

Michele, turru[2455] eta manteleteak prest daude, eta haietan *fraticelli* batzuk margotu dituzte, deabru batzuen aldamenean.» Izuarazi nahi zuten, azkenean haren eritzietan eurt egin zezan. Alabaina, frai Michele belauniko jarri zen eta esan:«Su-metaren ondoan, nik uste, gure aita Frantzisko eta, are gehiago, Jesus apostoluekin izango ahal dira, eta Antonio eta Bartolome martiri aintzatsuak haiekin.» Inkisidoreen azkenengo eskaintzari uko egiteko era bat zen.

Biharamunean ni ere apezpikutegiko zubira joan nintzen, hantxe inkisidoreak elkarturik eta hauen aurrera, beti oinbilurrak zangoetan, frai Michele eramana izan zen. Beronen jarraitzaile bat aurrean belaunikatu zitzaion benedikapena jasotzearren, eta gudamutilek atzeman zuten eta berehalakoan kartzelara. Gero inkisidoreek berrriz ere sententzia irakurri zioten eta galdetu ea damutu nahi ote. Sententziak heretiko zela esaten zuen bakoitzean, Michelek ihardetsi: «heretiko ez naiz, bekatari bai, baina katoliko», eta, idazkiak «Joan XXII.a Aitasantu txit agurgarri eta guztiz santu» esaten zuenean Michelek «ez, heretiko» ihardukitzen zuen. Orduan apezpikuak Micheleri bere aurrean belaunika zedin agindu zion, eta Michelek heretikoen aurrean belaunikatzen ez zela ihardetsi zion. Indarka belaunikatzera

2455Turru: mitra (?)

behartu zutenean, marmarka honela esan zuen: « Jaungoikoak ez nau honengatik zigortuko». Hara apez-janzkai guztiekin eroan zutenez gero, zeremonia eginez haren soineko atalak eranzten hasi ziren, atalaz atal gai guztiak banan-banan edekiz[2456], gona luze moduko oihal Florentzian *cioppa* esaten dioten horrekin ez besterekin geratu zen arte. Eta ohiturari jarraikiz, apez bati bere apez-duintasuna, apeztasuna alegia, kendu nahi zaionean, burdina zorrotz batez hatz-mamiak ebaki zizkioten, eta buruko ileak motz-moztu. Gero, kapitain eta honen gizonei eman zieten; oso latz hartu zuten, berriz ere oinbilurrak lotu zizkioten kartzelara eroaiteko; eta berak jendetzari buruz honela zioen: «*per Dominum moriemur*». Esan zidatenez, biharamunagoan[2457] erreko zuten. Ordura arteko egunean, beste behin joan omen zitzaizkion galdetzera ea aitortu eta jaunartu nahi al zuen. Ezezkoan beti eta bekatu egiteari uko egin zion, bekatutan zegoenagandik sakramentu haiek onartuz. Ondo egin ez zuela uste dut, patriarren heresiaz kutsatuta zegoela erakutsi baitzuen.

Hilarazi behar zuten eguna heldu zen, eta *gonfaloniero*[2458] bat haren bila joan zen. Adiskide zirudien,

2456Edeki: kendu (Idoki: atera) (Eduki: ukan)
2457Biharamunagoan: al segundo día siguiente
2458Gonfaloniero: confaloniero (Guda-ikurraren eramailea, Florentzian)

zeren, ea nolako pertsona zen galdetu baitzion, eta ea zergatik tematzen zen, eta herri guztiak baieztatzen zuena baieztatzea, eta Eliza ama santuaren eritzia onartzea nahikoa zuela esan zion. Michelek, ordea, inoiz baino kirmenago eta beti-batekoago, «Kristo txiro gurutziltzatua sinesten dut» berresan zuen.

*Gonfaloniero*ak alde egin zuen, ezintasun keinua eginez. Orduan kapitain eta gizonak heldu ziren, Michele hartu eta larrainera[2459] eraman zuten; berton apezpikuaren bikarioa, eta berriz ere aitorpena eta sententzia irakurri zizkion. Michelek harzara hitz eta berari egotzitako eritzi gezurrezkoak ukatu zituen; egia esateko, oso gai meheak[2460] ziren eta ez ditut gogoratzen, eta orduantxe ere ezin ulertu izan nituen, doi-doi. Alabaina, funtsezkoak ziren, zeren, haiei zegokien, hurrean[2461], Micheleren bizia, eta oro har *fraticellli*en etorkizuna. Egia esateko, nik ez nuen ulertzen zergatik elizgizonek eta herri agintariek hain ankerki jokatzen[2462] zuten txiro bizi nahi eta Kristok deusik eduki ez zedukala, ezeren jabe ez zela aldarrikatzen zuten haien aurka. Izan ere, nik neure buruari, aberats bizi nahi eta

2459Larrain: era (H. “patio”)
2460Mehe: (H. “sutil”)
2461Hurrean: (H. “sin duda”) (Probablemente /...)
2462Ankerki jokatu: (H. “ensañarse”)

besteren diruaz jabetu nahi dutenen beldur izan behar ziren, hala Eliza bekatutan erorarazi eta deabruaren bidetik joanarazi nahi baitzuten. Honelaxe nire ondoan zegoen bati esan nion, isilik egon ezin nintzen eta. Irri egin zuen, entzundakoak, eta fraide bat txirotasunean bizi denean, herriarentzat eredu txar bihurtzen dela adiarazi zidan, zeren, azkenean, txiro ez diren fraideei herritarrek erdeinu[2463] egiten baitiete. Gehiago esan zidan, txirotasun aldarrikatze harek jendearen burutara asmo gaiztoak sartzen zituela, txiro izaiteaz harro agertuko baitzen, eta harrotasunak harrokeria zekarkeela. Eta bukatzeko, nik jakin behar nuela esan zidan, fraideen txirotasunaren alde predikatzea enperadorearen alderdikoa izaitea zela eta hau ez zela Aitasantuaren gogoko; hauek honela, ondorio horietara norik nora iritsi zen ez zekiela argi eta garbi aitortu zidan. Argudiooi egoki eritzi nien, kultura urriko nordinak[2464] erabili arren. Alta bada, nik ezin uler nezakeen orduantxe, zergatik nahi zen Michele hil hain era ankerraz, enperadoreari atsegin egitearren, edo beharbada elkarren aurkako erlijio-erkidego batzuen arteko eztabaidak edo eskatimak[2465] ebaztearren. Egia, han zegozenen artean batek honela zioen:

2463Erdeinu egin: gaitzetsi, arbuiatu...
2464Nordin: pertsona (Notin)
2465Eskatima: disputa

— Ez da santu. Ludovikok herritarren artean liskarra[2466] ereiteko bidalitakoa da. *Fraticelli*ak toskanarrak dira baina gibelean inperioraren gizonak dagoz.

Beste batzuek, ostera, honela esaten zuten: «Zoro da, deabrututa dago, harrokeriaz puzturik, eta handinahikeria hutsagatik martiri nahiaz gozatzen du. Fraide horiek santu-bizitza ugari irakurten dute, hobe ezkonduko balira!» Eta beste zeinbaitek: «Ez, giristino guztiak horien antzekoak izan behar lirateke, euren fedearen sinesbide emaiteko prest egon behar lirateke, jentilen garaian bezala.» Honelako eta antzeko iruzkinak aditzen nitueino, bat-batean, zer pentsa ez nekiela, hilkizun zenaren aurpegia berrikusi nuen, tarte batean, zeren, nire aurrealdean multzokaturik zegozenek, txatan-txatan[2467], haren ikustea galarazten baitzidaten. Eta lur honetako ez den zerbaiti begiratzen dionaren begitartea ikusi nuen, santuen antzirudietan maiz ikusi izan nuen bezalaxe, ikuspen mistikoetan begiak galdurik[2468]. Eta ulertu nuen, bai, nahiz zoro nahiz ikusiluze[2469] izan, sinesten zuenaren alde hiltzeko gerturik zegoela ulertu nuen, hala eginez bere arerioa garaituko zuela uste baitzuen, etsaia

2466Liskar: (H. “discordia”)
2467Txatan: txatan: txitean-pitean (A cada paso)
2468Begiak galdu: (H. “arrebatado”) (Arrobado…) (?) (N)
2469Ikusiluze: visionario (?) N) (Hasiberri, amaitu-berri… ?)

zein-nahi izanik ere. Haren ereduak beste hainbaten heriotza ekarriko zuela ere ulertu nuen. Haren kirmentasunak ninduen batik bat txunditu, zur eta lur utzi ninduen, zeren, oraindik gaur den egunean ezin baitut jakin zerk bultzatzen duen bereziki ha lako gizona: sinesten duen egia ote den gehienbat beregan nagusi eta harenganako maitasun harroak daroan hiltzera; edo hil nahi harroak ote daroan bere egiaren, zein-nahi den ere hau, jagole izaitera. Eta honexek liluraz eta izuz txunditzen nau.

Itzul nadin, berriz, hilketara, joan ere, hango guztiak hilarazi behar zuten lekura zihoazen.

Kapitainarekin gizonek atetik atera zuten, gonaxkaz jantzirik, botoi batzuk aske, eta oinkada luzez bazihoan, lurrari begira, otoitz zegiela, martiri irudi. Jendetza zegoen eta askok oihu: «Ez hadi hil!» Eta harek erantzun: «Kristoren alde hil nahi naiz.» «Hi ez haiz, bada, Kristorentzat hilko» batek zirautson, eta harek zihardukion: «Egiaren alde hiltzen naiz.» *Proconsul*aren kantoia zeritzon leku batera iritsitakoan, norbaitek oihu egin zion Jaungoikoari otoitz egin ziezaion euren guztien alde, eta harek jende ostea benedikatu zuen. Eta *Fondamenti de Santa Liperata* delakoan batek erauntsi zion: «Zein kokolo

haizen, sinets ezak Aitasantua!», eta harek iharduki zion: «Aitasantu hori, gaurgero, zuentzako jainko da» eta «*Questi vostri paperi v'hanno ben conci*»[2470] gehitu zuen. (Azaldu zidatenez, hitz-joko bat zen, edo zorroztasun-joko, Toskanako hizkeran, eta Aitasantuak abere antzo agertzen ziren). Hango guztiak harri eta zur, heriotzara bidean txantxak eginez zihoala ikusirik.

San Giovanni-n berriro oihu egin zioten: «Salba ezak bizia!», eta harek, tematsu: «Gaizka ezazu zeure burua bekatuetatik!» *Mercato Vechio* zioten lekura, eta batek oihu: « Jalgi bizirik, jalgi!», eta harek, beti bere ten-tenean: « Atera zaitez inpernurean!!». *Mercato Nuovo*-n: «Garbaitu, garbai bekik!», eta harek harzara: «Damu bekizu lukurreria!». *Santa Croce*-ra heldurik, bere baldernako fraideak harmailetan ikusi zituen, eta Frantzisko Deunaren arautegiari ez jarraitzea aurpegiratu zien. Batzuk uzkurtu ziren sorbaldaz, beste batzuk lotsatu ziren eta aurpegia txotinoaz estali zuten.

Justizia-etxeko aterantz zihoanean, askok oihu: « Uko egik, ukatu[2471], ez nahi heriotza!», eta harek: «Kristo gugatik hil zen.» Eta beste batzuek berriro: «Baina hi ez

2470Ondo egin daue kaka zuen antzarek!
2471Ukatu: (H. "abjurar")

haiz Kristo, ez duk gugatik hil behar!», eta atzera harexek «baina harengatik hil nahi naiz» ihardetsi zien. Justizia-etxearen ondoko larrean, beste batek haren baldernako zeinbait fraide nagusik egin zuen bezala egin zezakeela esan zion, honek ukatu egin baitzuen, baina Michelek erantzun zionez harako fraide harek ez zuen zinez ukatu, eta orduan jendetzaren barruan asko eta asko Micheleren alde zegozela konturatu nintzen, beredinek baiezka eta gogo berotzen kirmen iraun zezan. Haren jarraitzaileak zirela ohartu ginen bai ni bai beste anitz, eta haiengandik aldendu ginen.

Irten genuen, azkenik, eta ate aurrean egur-meta ikusi genuen, txondor[2472] moduko pila bat. Inguruan, zaintzan, iskiluekiko zaldun batzuk, jendea hurbilegi egon ez zedintzat. Orduan Michele hartu eta zutabean lotu zuten. Artean beste bati oihuz honela zirautsola entzun nuen: «Baina, zer dugu hau? Noren alde hil nahi duk?», eta hiltzeko zenak erantzun zion: «Ene barrenean dagoen egia da, eta hilez baino ezin dezaket agerian utz.» Sua irazeki zuten. Frai Michele, ordurako *Kredo*a kantatua zegoena, *Te Deum* doinutzen hasi zen. Zortzi bertset inguru abestu zuen. Gero eztul egiteko edo makurtu zen eta lurrera erori, lokarriak erre baitziren. Eta hila zegoen, zeren eta, gorputz

2472Txondor: ikatza egiteko egur-meta.

osoa erre eta kiskali aitzin, gizona bero handiagatik hiltzen baita, bihotza lehertzen baitzaio, eta keak bularra betetzen baitio.

Gero txondorra izeki[2473] zen, zuzi[2474] laso, eta argi-dirdira biziki handia izan zen, eta Micheleren soin ikaztua izan ez balitz, orduan oraindik egur gori eta ilintien artean ikusgai zegoena, lahar[2475] izekia nekusala esan nukeen. Eta hain honela zen, ezen, hura ikusirik (liburutegira igaitean gogora zitzaidan) bat-batean nire ezpainetatik hitz batzuk atera ziren, Andere Dona Hildegardaren liburuetan irakurrita nuen gogo-bahitzea[2476] oroiturik:«Garra argi-dirdira da, sortzezko azkartasuna eta suzko izekialdia, alabaina argitasuna distiratzekoa da, eta suzko izekialdia kiskaltzekoa.»

Ubertinoren esaera batzuk, maitasunari buruzkoak, gomutatu[2477] nituen. Micheleren irudia sutan eta Dultzinorena nahasi ziren, eta Dultzinorena Margherita ederrarenarekin. Elizan nengoenean hauteman[2478] nuen ezinegona berriz ere sumatu nuen.

2473Izeki: arder
2474Zuzi: antorcha
2475Lahar: zarza
2476Gogo-bahitze: (H. “rapto extático”)
2477Gomutatu: gogoratu, oroitu...
2478Hauteman: (H. “experimentar”)

Ez nuen haintzakotzat hartu[2479] eta labirintora bidean aurrera joan nintzen, bixi-bixi.

Bakarrik sartzen nintzen lehen aldia zen. Argiontziak zoruan itzal luzeak irudiztatzen zituen eta ni ikaran, aurreko gauetan ikuspenak ukan nituenean bezala. Txitean-pitean, atzera ispiluarekin tupust egingo ote nuen ez nuen beldur nintzen, izan ere, ispiluetako aztikeria hain halakoa da, ezen, ispilu huts baino ez dela jakin arren beti eta beti antsiarazten[2480] zaitu.

Osterantzean[2481], ez nindoan bide zuzena bilatzen, esaterako, ez nindoan harako gela hura, zera, ikuspenak edo liluramenduak eragiten zituzten lurrinak[2482] zegozen gela hura saihestu nahiaz. Sukarrak jota legez nenbilen, noraezean, nora nahi jakin ez eta. Egia esateko, ez nintzen hasgunetik[2483] oso urrutiratu, harik laster harzara zazpialboko gelan, sartu bezala, nengoen eta. Mahai batean liburu batzuk, eta aurreko gauean ikusi bageko batzuk ere bazirela iruditu zitzaidan. Malakiasek *scriptoriume*tik ateratako batzuk izan zitezkeelakoan nengoen, haien

2479Haintzakotzat hartu: (H. “pasar por alto”)
2480Antsiarazi: (H. “inquietar”)
2481Osterantzean: (H. “por lo demás”)
2482Lurrin: perfume
2483Hasgune: (H. “punto de partida”)

lekuetara artean bihurtzeke. Ez nekien lurrin-gelatik urrun-hurran ote nengoen, xorabiatuxerik[2484] nengoelako, edota, beharbada, haraino iristen zen jariorean[2485] bategatik; edo lehenttoago gomutatzen izan nintzen haren ondorioz. Liburu bat irudiez bikain apaindua zabaldu nuen, eta, tankeragatik, *Azken Thule*ko[2486] abadietatik ekarria zitekeela pentsatu nuen.

Orrialde batean, Marko apostoluaren ebangelio deuna hasten zenean, lehoi baten irudiak zirrara eragin zidan. Zalantzarik ez, lehoia zen, nik haragi-hezurrezko bat ere ikusi ez nuen, baina. Miniaturagileak haren hazpegiak, zintzo asko eta zehatz-zehatz iruditu zituen, agian Hiberniako lehoiak ikusi eta irudigai harturik[2487], izan ere lurralde hori izaki munstroen aurkintza[2488] da; piztia horrek, Fisiologok dioen bezala, hain zuzen, izugarrikeria guztien izaera guztiak bereak dituela argi ikusi uste[2489] nuen, eta, aldi berean, izaera arranditsuen[2490] jabe dela, halaber. Halaxe, bada, irudi harek, batera, nire etsaiaren irudia zitzaidan eta Gure Jaun Jesukristorena. Ez nekien, une haretan, nola

2484Xorabiatuxe: (H. “un poco atontado”)
2485Jario: (H. “efluvio”)
2486Azken Thule: Útima Thule (mitologiako leku bat, Atlantida edo?)
2487Irudigai hartu: (H. “inspirado”) (?) (N)
2488Aurkintza: comarca, región (Egara, zertan, eskualde, alderdi...)
2489Argi ikusi uste: (H. “me persuadí”) (?) (N)
2490Arranditsu: majestuoso

ulertu behar nuen, zeren ikur zen edo ez zen, eta goitik behera ikaran nengoen, beldurragatik ez ezik hormetako arrakaletatik sartzen zen haizeagatik ere bai.

Lehoiak ahoa hortzez betea zedukan, burua ezkataz polit-poliki[2491] estalia, sugerena antzo, gorputza eskergea, lau zango sendoren gainean zutik, atzaparrak izugarriak eta atzazal handi-zorrotzekikoak. Larrutxean margoturiko irudiak ekialde urruneko alfonbra haietarik bat ekarri zidan gogora. Geroago ikusi ahal izango nuen bezala, sakonean ezkata gorrien eta berdeen gainean, marrazki batzuk zegozen, izurria bezain oriak: arkitrabe[2492] sendo-itsusi batzuk hezurrez eginak. Isatsa ere oria, bizkarraren gainetik bihurritzen eta azken kiribil batean amaitzen dena; xerlo zuri-beltzez buruturiko[2493] kiribila.

Zirrara handia lehoiak eragin zidana (behin baino gehigotan, gibelera so egin nuen, ha lako piztia bat bat-batean agertuko bazitzaidan bezala), eta orduan beste orri batzuk arakatzea erabaki nuen eta, Mateoren ebangelioa hastean, nire begiek gizon baten irudi batekin tupust egin zuten. Ez dakit zer zela eta, lehoia ikusi baino beldurtuago

2491Polit-poliki: (H. “primorosamente”) (?)
2492Arkitrabe: arquitrabe (Arkitekturako hitza)
2493Burutu: (H. “rematado”)

nintzen: giza aurpegia zen, baina soina kasuila[2494] zurrun antzeko zerbaiten barruan sartua, oinetaraino. Kasuila edo soinburdina[2495] haretan sarjosita harri gogor gorri-oriak. Buru hura, errubi eta topaziozko gaztelu baten gainean misteriotsu[2496] agertzen zena, ene irudiz (sarrakioak birao ere eginarazteraino jota bainengoen!) aztarrenen atzetik bila genbiltzan hiltzailearen burua zen. Geroago ulertu nuen zergatik lotzen nuen hain estuki piztia eta soinburdinadun gizona, alde batetik, eta labirintoa, beste aldetik: biak ala biak, liburu haretako itxuraki[2497] guztiak bezala, labirinto-sare zen mataza[2498] batetik goititzen zirelako. Sardonize[2499] eta esmeraldazko lerroak, krisopaziozko hariak, berilozko zintak, itxuraz, orduantxe nire inguruan korapilatzen ziren gela eta irazgu edo iraganbideen sare sarria[2500] bezalakoa ziren. Nire begiak orrialdean galtzen ziren, bide-zidor dirdaitsuetan zehar, nire oinak hainbat eta hainbat gelatatik bezalatsu, larri-larri[2501]; eta orrialde haietan ni liburutegian barrena alderrai ibiltzea islatzen zela ohartu nintzenean,

2494Kasuila: casulla (kapusai moduko bat, txartes antzekoa)
2495Soiburdina: coraza
2496Misteriotsu: (H. “enigmático”)
2497Itxuraki: figura (?) (N)
2498Mataza: (H. “trama”)
2499Sardonize: onix (Metal mota bat)
2500Sarri: tupido, espeso
2501Larri-larri: angustioso

guztiz kezkaz bete nintzen eta liburu haietako bakoitzak, isilpeko zeinbait ñabardura isekatsurekin, nik une haretantxe jasaiten nuen istorioa jaulkitzen zuela pentsatu nuen. «*De te fabula narratur*[2502]», esan nion neure buruari, eta galdetu ea orrialde haietan ez ote zegokeen idatzirik harez geroztik etorteko zitzaidan istorioa.

Beste liburu bat zabaldu nuen, eta eskola hispaniarretik ekarritakoa zela iruditu zitzaidan. Margoak biziak ziren, bortitzak, gorriek odola edo sua ziruditen. Apostoluaren agerkundearen liburua zen, eta beste behin, aurreko gauean bezala, *mulier amicta sole*-ren[2503] orrialdean erori nintzen. Baina ez zen liburu bera, miniatura bestelakoa zen, hemen antzegileak emakumearen hazpegiak zehazkiago margotu zituen. Begitartea, bularrak, aldaka biribilak Ubertinorekin miretsi nuen Birjinaren soin-irdudiarekin alderatu nituen. Bestelako izaera batekoa zen arren, emakume honek ere eder-ederra iruditu zitzaidan. Halako pentsamenduetan eragon[2504] behar ez nuela bururatu eta orrialde batzuk irago nituen. Beste emazteki bat aurkitu nuen, Babiloniako emagaldua zen. Ez ninduten harritu haren

2502«alegia zutaz mintzo da» edo «zutaz hitz egiten da kondaira honetan» (Horacio, *Sátiras*)
2503«eguzkiak gerrikaturiko emakumea». (Apokalipsia)
2504Eragon: jarraitu, ekin...

hazpegiek, bai, aldiz, bestea bezalakoxe emakumezkoa izaiteak, eta honela ere, hura onbide guztien ukailea[2505] zen heinean, beste hau hogen guztien gailutzat hartua. Biengan, berriz, hazpegiak edo aurpegierak emeenak[2506] ziren, eta une batera heldurik, ez nekien bereizten, ez ezberdintasuna ezagunesten. Beste behin, halako barren-higidura sumatu nuen; elizan begietsi nuen Birjinaren irudia Margherita ederrarenarekin nahasi zen. «Kondenatuta nagok», esan nion ene buruari. Edo: «Zoro nagok!» Eta hantxe, liburutegian geratu behar ez nuela erabaki nuen.

Zorionez eskaileratik hur nengoen. Beheti jo, bixi-bixi, behaztopa eta erortzeko arriskuz, eta azkenean argirik bage geratzeko beldurrez. Berehala, *scriptorium*eko ganga zabalen pean nengoen, baina lipar batez ere gelditzeke, eskaileran beherantz amildu nintzen, jatokira buruz.

Hantxe gelditu nintzen, arnasestuka. Beirateetatik ilargia sartzen zen. Gaua hain zen argitsu, zohardi, nire argiontzia, gelaz gela eta liburutegian zehar ibiltzeko baitezpadakoa, orduko haretantxe ia-ia alperrikoa nuen. Honelarik ere, ez nuen itzali, haren laguntza behar eta.

2505Ukaile: (H. “receptáculo”) (Ukan—ukaile /...)
2506Emeen: (H. “femenino”) (?) (N)

Arnasestuka, artean; ur xorta bat edan behar nuela otu zitzaidan, lasaitzearren. Sukaldea ondoan eta jatokia alderen alde zeharkatu nuen, eta baratx-baratx, oso kontuz ateetako bat zabaldu nuen, Eraikineko behe-solairuan beste erdialderako ate bat.

Une haretan bertan, nire izua, guttitu ez, handitu. Zergatik eta sukaldean norbait zegoela ohartu nintzelako, ogi-labearen ondoan. Edo, zoko haretan argi bat, bederen, ikusi nik, distiratsu; dzanpez, sarrakioa sartuta, nire argia itzali nuen. Nire izuaz bestea (edo besteak) ere izuarazi nuen edo nituen, haraindiko argia bat-batean itzali baitzen. Alperrik, ostera, zeren ilargiak sukaldea argitzen baitzuen, hein baten, nire aurrean, zoruan, itzal bat edo batzuk, nahasian, marrazteko adina.

Beldurrak izozturik, ez nintzen ausartu atzera ez aurrera egitera. Txutxumutxu bat entzun nuen, eta, oso isil, emakumezko-ahotsa entzun uste izan nuen. Ondorean, itzal ilun-handi bat jalgi zen, labe ondoan ozta-ozta marrazten zen talde mordoilo haretatik, eta irtengu alderantz ihes egin zuen: atea, erdi-irekia antza, itzal haren gibelean itxi zen.

Gelditu egin ginen, ni jatokiko ate ondoan, eta bestea, beste inor labe ondoan. Inor edo norbait eta –nola

esan?– intzirika[2507]. Zinez, itzalaren aldetik intziria iristen zitzaidan, negar-zotina bezala, zinkurin[2508] erritmikoa, beldurrezkoa.

Ez dago ezer beldurtiari kemen handiagorik izanarazten[2509] dionik bestearen beldurra baino: honela ere, ez nintzen harenganatu kemenak bultzatuta, itzalera esan nahi dut. Alderantziz, nolabaiteko horditasun modu batek bultzatu ninduen, esango nuke, harako ikuspenak gertatu zitzaizkidanean nabaritu nuenaren antzeko batek. Sukaldean zerbait bazegoen aurreko gauean liburutegian ezustean harrapatu ninduen ke haren antzekorik. Edo, beharbada, bestelako sustantziak izango ahal ziren, baina haien ondorioak nire zentzumenean bereizgaitzak[2510]. Usain garlatz[2511] bat sumatu nuen, traganta[2512], alume[2513] eta tartarozkoa[2514], sukaldariek ardoa lurrintzeko erabili ohi zituzten gaikiak. Edo, orduko egun haietan geroago jakin nuenez, garagardoa ekoizten aritzen ziren (penintsulako eskualde haretan nahikoa maitetsia[2515] zen edaria); han nire

2507Intziri: gemido
2508Zinkurin: sollozo
2509Izanarazi: (H. “infundir”) (nik)
2510Bereizgaitz: (H. “indiscernible”)
2511Garlatz: acre
2512Traganta: traganta (?)
2513Alume: alumbre (?)
2514Tartaro: tártaro (?)
2515Maitetsi: (H. “apreciada”) (N)

herrialdean bezalatsu egiten zuten, hots, illarraz[2516], zingiretako gilloriz[2517] eta basa-aintzirako[2518] erromeroz. Lurrinok, nire sudurra baino nire gogoa hordiagotu zuten.

Nire sen[2519] onak «¡vade retro!»[2520] oihu egitera bultzatzen ninduen, eta halako gauza intzirigin haretatik urruntzera –zalantzarik ez, satsuak[2521] igorri sukubo bat–, baina nigan zerbaitek, nere *vis appetitiva*k[2522] aurrerantz bultzatu ninduen gertakari miresgarri batean esku hartu nahi bailuan.

Halaxe, itzalera hurbiltzen joan nintzen, baratx-baratx, leihoetatik sartzen zen gaueko ilargiak zerbaiten begiztatzea ahalbidetu zidan arte, emakumezko ikarati bat nuen, esku batez bularrera estutzen zuen gauza bat bildua zedukana, eta, negarrez, atzerantz zegiena, labe-ahorantz gibeleratuz.

Jainkoak, Birjina dohatsuak eta Paradisuko deun guztiek lagun nazatela oraintxe, orduan berean jazo zitzaidan oro jaulkitzean. Lotsarren, eta nire erlijio-

2516Illarra: iñarra, txilarra, giñarra (Brezo)
2517Gillori: mirto (?)
2518Aintzira: estanque / Zingira: pantano (N)
2519Sen: (H. “instinto racional”)
2520Vade retro: eurt!, esti!, atzera!
2521Satsu: el maligno, el demonio
2522«nahikunde indarra»

izaeragatik zor dudan duintasunarren, (Melkeko monasterio eder, bake-toki eta meditazio lasaia egiteko leku honetako lekaide urtetsu naizen aldetik), zuhurtasun jainkotiarrez jardun behar nuke. Ene barreneko bake neurea zaintzearren, eta, era berean, irakurlearena, txarkeria bat jazo zitzaidala esan behar nuke, doi-doi, zer izan zen azaltzea batere garbia[2523] ez baita.

Baina, aspaldiko gertaera haiek guztiak, egia osoa jaulkitzeko hitz eman dut, eta egia zatiezina da, bere argi berez argitzen da, eta ez du onartzen gure lotsa dela edo gure zudua dela eta inolako zatiketarik edo bereizketarik. Arazoa gertatu zena gertatu zen bezal-bezala jaulkitzean datza, ez nola gogoratzen dudan edo dakusadan oraintxe (nahiz eta oraindik zen guztia intentsitate zorrotzez[2524] gogoratu; eta ez dakit orduko gertaera haiek eta pentsamendu haiek nire oroimenean hain sakonki josita zergatik geratu ziren: gertatu eta gero egin nuen kontrizioagatik, edo berau nahikoa izan ez zelako, eta, beraz, oraindik ere ene burua torturatu ukaiten dut, gertatu lotsagarri hura zehatz-zehatz nire gogo oinazetsuaren barruan behin eta behin gomutara ekarriz), aspaldi

2523Garbi: (H. “decente”)
2524Zorrotz: (H. “implacable”)

haretantxe ikusi eta sentitu nuen bezalaxe jaulki behar dut, ordea. Eta kronikari baten antzo, xehe-xehe jaulki ahal badut zeragatik da, hots, begiak itxirik, une haretantxe egin nuena ez ezik pentsatu nuena ere berriro gogora ekarri ahal dudalako da, ordu haretan bertan idatzitako larrutx batetik kopiatzen ari legez. Beraz, honela egin beharra dut, eta Mikel goiangeru deunak jagon nazala; zeren, geroko irakurleek ongi ikas dezatentzat eta neronen hogena eta errua zigor dezadantzat, orain gazte bat tusuriaren azpikeriatan nola eror daitekeen azalduko baitut, agerian gera dadintzat eta eror dadinak gainazpika[2525] dezantzat.

Emakumezkoa nuen, hara. Zer diodan! Neska. Ordura arte emaztekirekiko nire harremanak zeharo urri eta mugatuak izan zirenez (eta Jainkoari esker, harik aitzina ere lehenago bezain urriak), ez dakit zenbat urte zuen. Gazte zena badakit, nerabe abantzu, hamasei edo hamazortzi udaberri edo, hurrean, hogei; itxura harengandik sortzen zen gizatasun zehatz eta tinkoak zirrara eragin zidan. Ez zen ikuskari edo ikuspen bat, eta izaitekotan[2526] ere *valde bona*[2527] eritzi nion. Txoriñoa negu gorrian bezala ikaran zegoelako, eiki, eta negarrez eta nire beldurrez zegoelako.

2525Gainazpikatu: (H. “desbaratar”)
2526Izaitekotan: (H. “en todo caso”)
2527Valde bona: oso ona

Halatan, bada, giristinoak hurkoa sorotsi behar duela gogoraturik, emeki-emeki hurbildu nintzaion, eta latin onez beldur ez izaiteko esan nion, adiskide ninduela, edo ez etsai bederen, eta inondik inora ere bera beldurtzen zuen etsaia ez, doike.

Agian, nire begirada otxana zela eta, ume hura baretu zen, lasaitu, eta eneganantz hurbildu zitzaidan. Nire latina ulertzen ez zuela ohartu nintzen, eta, senez[2528], nire hizkuntza alemanera arruntez mintzatu nintzaion, eta honek beldurtu zuen txit, ez dakit mintzaira gogorttoa zitzaiolako, lurralde haretako jendearentzat ohi ez bezalakoa, edo doinu harek beste zerbait gogorarazi edo ziolako, nire herrialdeko gudagizonekin izaniko esperientzia txarrik edo, beharbada. Orduan irribarre egin nion, keinuen hizkuntza eta aurpegierazko mintzoa hitzena baino unibertsalagoa dela pentsatu bainuen, eta baretu egin zen. Harek ere irribarre eta hitz batzuk ahoskatu zituen.

Erabili zuen hizkuntza ia ezezagun zitzaidan, zena zela, nik Pisan ikasi nuen apurraren oso bestelakoa zen, honela ere, doinuagatik, atsegingarrizko zerbait ziraustala ulertu nuen, honelakotsu zera ulertu uste ukan nuen: «Gaztea zira, edderra zira...» Oso da harrigarri fraidegaik,

2528Senez: instintivamente (Senak eman)

haurtzaroa osoki monasterio batean eman duenek[2529], bere edertasunaz hitz onik entzuteko aukerarik ukaitea. Areago, sarritan ohartarazten zaio soin-edertasuna zerbait itzurkor[2530] dela eta haintzakotzat hartu behar ez dena. Baina etsaiak ipinten dizkigun lakioak[2531] ezinago ugariak ditugu eta, aitor dut, nire edertasunaren aipatze harek, egiazkoa ez izan arren, nire belarriak goxoki laztandu zituen, eta eregu[2532], losentxa harek nire hunkimena[2533] ase eta bete zuen. Guztiz ere, hura ziraustan bitartean, neskak eskua luzatu zuen eta eri-mamiz nire masaila, orduan bizarge, igurtzi zuelako. Xorabio antzeko zerttobait sumatu nuen, baina une haretan bertan ez nuen susmatu haretan guztian bekaturik gerta zitekeenik. Hala, tusuriaren indarra, probatu nahi gaituena eta gure arimatik garaziaren zantzuak ezabatu nahi dituena.

Zer sentitu nuen? Zer ikusi nuen? Gogoan dut, lehenbiziko lipar haretako hunkipena ezin adiarazizkoa zela, ez nire mingaina ez nire gogoa zegozen ha lako hunkidura izendatzeko hezita. Eta hala izan zen, nire barreneko beste hitz batzuk laguntzera etorri zitzaizkidan arte, beste une eta beste lekurean baten entzundakoak, eta beste helburu

2529Duen-ek / fraidegai-k … mugabagez erabilita
2530Itzurkor: fugaz (Iragokor, galkor...)
2531Lakio: (H. “trampa”)
2532Eregu: caricia, mimo
2533Hunkimen: capacidad de emocionarse (N) (Hunkipen...)

batzuetarako erabili hitzak izan arren orduantxe sumatzen ari nintzen atsegintasuna deskribitzeko berebizikoak iruditu zitzaizkidan, miragarriro, huraxe, nik barruan nuen huraxe adiarazteko sortuak izan balira bezala. Hitzok nire oroimenaren haitzuloetan pilatzen joan ziren eta orain nire ezpainetako azalera (mintzul) igaiten, ahantzirik bainuen santuen idazki edota liburuetan egiazko gertaera askoz miresgarriagoak agerrarazi ukan zituztela. Baina, ba ote zegoen, benetan, alderik santuek aipatu atsegintasun haien eta nire arima durduzatuak une haretatxe sentitzen zuenaren artean? Egokiera[2534] haretan aldea buruargiz bereizteko nire gaitasuna deuseztu zen. Deusezte hau, nik uste, nortasunaren amildegietan erori eta lur joitearen zantzua da.

Halako batean[2535], Kantiken Kantikak aipatzen duen birjina beltza baina ederra bezalakoa zela iruditu zitzaidan. Soinekotto leun oihal xatarrezkoa[2536] zedukan, bular aldean lixun[2537] xamar zabalik, eta lepo inguruan margo askozko harriñoz egin lepokoa, balio gutti-guttikoa, nik uste. Burua xut, lepo xuri, bolizko dorrea bezain xuri, begiak argitsuak Hesebon-go urmaelak[2538] bezain gardenak, sudurrak

2534Egokiera: oportunidad, circunstancia
2535Halako batean: (H. “De pronto”)
2536Xatar: (H. “ordinario”)
2537Lixun: (H. “impúdico”)
2538Urmael: (H. “piscinas”) (Estanque, laguna...)

Libanoko dorre irudi, adatsa zilar[2539]. Bai, haren adatsa ahuntz-talde iruditu zitzaidan, haren hortz-haginak ikuztokitik gora doazen artaldeak, binan-binan, ardi bakoitza bere lagunarekin batera irudikatu nituen. Eta xuxurlaka hasi nintzen, ñurñuratzen[2540]: « Zein ederra haizen, ene maite! Zein edderra! Hire adatsa ahuntzalde bezalakoa dun, Galaad mendietatik beheti datorrena, hire ezpainak zerrenda gorbelak[2541], hire masaila granada-xerraren antzekoa, hire lepoa Daviden dorrea bezalakoxea, mila armarrik apaintzen zutena.» Eta ikaran, nor ote zen nire aurrean, eguzkia eguna urratzean laso, ilargia bezain ederra, izarrak bezala distiratsu, *terribilis ut castrorum acies ordinata*[2542], nire aurrean zegoen hura nor ote zen galde negion ene buruari, ikaran[2543].

Orduan ume ha hurbilagotu zitzaidan, egotzi zuen bazter batera bularraldean estuki bildua zedukan gauza, eta berriz ere eskua luzatu zuen nire aurpegia laztantzeko, eta lehenttoago esan hitz berak berriro esan zizkidan. Eta ni hantxe zer egin ez nekiela, ihes egin ote edo hurbilagotu ote, eta nire burua burrunba betean Josueren turuta guztiak

2539Zilar: (H. “púrpura”)
2540Ñurñuratu: (H. “musitar”) (Murmurikatu…)
2541Gorbel: púrpura (Gorri-beltz)
2542«kanpamendu-lerro zuzen-zuzen baten antzekoa» (Kantiken Kanta)
2543Ikaran: (H. “consternado”)

Jerikoko harresia eraistear balegoz bezala, eta, aldi berean tirria[2544] nion, hura irrikatzen nuen eta uki-beldurrez nengoen, ezin ukituzko zitzaidan, eta atseginarren, irribarretsu hura. Intziri ahul batto egin zuen, antxume otxan antxo, eta bularraldean soineko-lokarriak askatu zituen, eta soina agerian utzi zuen, tunika antzera erantzirik; eta halaxe geratu zitzaidan Edengo lorategian Adanen aitzinean Eba geratu ei[2545] zen bezalaxe. «*Pulchra sunt ubera quae paululum supereminent et tument modice*»[2546], esan nuen ahopetik Ubertinoren esaldia berrizkatuz, zeren, haren bi titiak bi pittika[2547] laso ikusi bainituen, lilien artean alhan; haren zila beti ardo hordigarriz bete txola biribil bat iruditu zitzaidan, haren sabelaldea basa-loreen artean gari-espala[2548] zen, irudiz.

«*O sidus clarum puellarum*», oihu egin nion, «*o porta clausa, fons hortorum, cella custos unguentorum, cella pigmentaria!*»[2549], eta nahi ezean haren gorputzari itsatsita nengoen, haren beroa sumatzen nuela, eta haren lurrina, ukendu ezezagun nituen batzuez garlatza. Oroitu

2544Tirria: deseo, anhelo (Irrika)
2545Ei: (H. “debió de”) (Omen)
2546«pittin bat nabarmentzen eta puzten diren titiak politak dira».
2547Pitika: ahuñe, antxume… (H. “cervatillo”)
2548Espal: gavilla (azao, txola...)
2549«Oi neskatilen izar distiragarri, oi ate itxi, lorategiko iturri, lurrinen zaintzaileen gela.»

nintzen: «Semeok, gizonak ezer ezin du, maitasun eroak heldu badio!» eta ulertu nuen, bai, nahiz etsaiaren lakioa izan nahiz zerutiko garazia izan, ezin nuela ezer egin, lerrarazten ninduen bulkada gelditzeko, eta oihu egin nuen: «*O, langueo*!» eta: «*Causam languoris video nec caveo*!»[2550]. Gainera, haren ezpainetatik arrosa-usaina zerion eta haren oinak politak ziren sandalietan, eta zangoak zutabeen antzekoak, eta berebat zutabeak bezalakoak haren saihetsalde[2551] biribilduak[2552], zizelkaririk iaioenak egina bezala «Oi, maite, gozaldien[2553] alaba! Errege bat hire txintxostan[2554] gatibu dun» xuxurlatzen nuen ene baitan, eta haren besoen artera erori nintzen, eta biok biotara sukaldeko zorura erori ginen. Ez dakit neuk eraginik edo haren egina, agian, baina bertatik bertara nire fraidegai-soinekoaz bagetua geratu nintzen, bat-batean, eta biok ala biok gure soinez lotsabagetuak, *et cuncta erant bona*.[2555] Eta musu eman zidan bere ahoko musuez, eta haren laztanak ardoa baino goxoagoak izan zitzaizkidan, eta haren lurrinak usaimenaren atsegingarri, eta haren lepoa ederra zen

2550«Oi, zorabiatuko naiz / Zorabioaren zioa badakusat eta ez diot sendagairik».
2551Saihetsalde: flanco (Aldaka...)
2552Biribildu: (H. “torneado”)
2553Gozaldi: (H. “delicias”)
2554Txintxosta: txirikorda
2555«eta oro ona zen».

harribitxien artean eta haren masailak belarritakoen artean, zein ziratsa[2556] haizen, ene maite, zein ederra, hire begiak usoak ditun (niotson) erakuts hire aurpegia, utzidan hire ahotsa entzuten, hire ahotsa harmoniatsua dun eta hire aurpegia liluragarria, maitasunez zorarazi naun, ene arreba, so batto izan dun, hire lepoko batto, nahikoa ni ero nadintzat, hire ezpainak abaraska eztiz gainez egina, hire mihia ezti-esnezko altxorren ontzia dadukan, hire hatsa sagar-zaporekoa, hire bularrak mahats-mordoen gustukoak, hire ahosabaitik ardo goxo-goxoa darin, hortzen artean isurtzen dena, eta ezpainetatik behingo baten ene bihotz maitemindua hordituz…

Baratzean iturri, akara[2557] eta azafrai, kanela eta zinamono, mirra eta zabila[2558], nire abaraskan nire eztia jaten ari zen, nire ardoa eta nire esnea edaten, nor zen? Nor izan zitekeen azkorria[2559] egunsentian bezala sortzen zen ha, ilargia bezain ederra, eguzkia bezain argitsua, eskuadroi bat bere ikurroihalekin[2560] bezain ikaragarria?

2556Zirats: guapo/a
2557Akara: (H. “nardo”)
2558Zabila: aloe
2559Azkorri: (H. “aurora”)
2560Ikurroihal: bandera (N)

Oi, Jauna!, arima liluramenduan erortzen denean, onbide bakarra ikusten dena maitatzean datza (bai?), zoriontasunik handiena dadukana edukitzean datza, zeren, hala zorioneko bizitza bere iturrian berean edaten baita (ez ote dago esana?), zeren, hala egiazko bizia dastatzen baita, hilkor honen ostean betierekoan aingeruekin batera bizi izango duguna… Hauexek nire burubideak orduantxe, eta, azkenik, profeziak betetzen ari zirela uste nuen, neskatilak ezin esanezko laztan gozoez ase eta betetzen ninduen artean. Nire gorputz osoa begi bat bezala zen, aitzitik eta gibeletik, aldi berean inguru osoan guztia ikusten ahal zuena. Eta ulertu nuen, bai, hala, maitasunetik, batera, batasuna eta leuntasuna sortzen direla, eta ontasuna eta musua eta laztana, eta dena bat zela, oro bat, lehendanik entzuna nuena legez. Eta une bakar batez, ene atsegina ia-ia bere kinkan zegoen uneantxe, pentsatzen hasi nintzen ea ez ote nintzen, gauez, beste batek, agian deabruak alegia, hartua eta gatibatua; eta hala, arimak, liluramenduan, «nor zaitut?» galdetzen dionean bere egiazko deabru-izaera erakusten dio, nork eta berak, arima nahasten eta gorputza zilibokatzen[2561] dakien berak. Baina berehala, benetan deabruzkoak nire zalantzak zirela gogora zitzaidan, izan ere, ezin izan

2561Zilibokatu: engañar

zitekeen zuzenago, onago, dohatsuago nik ordu haretantxe sumatzen nuena baino, gero eta leunago, xamurrago. Ur dindi ttipi-txipiena bezala, ardotan nahas eta suntsitzen dena, ardoaren margo-usaina bereturik; burdina goritua bezala, suaren barruan ia-ia sutarean bereizi ezina eta bere sortzezko moldea aldatzen zaiona; eguzkiaren argiaz mukuru bete eguratsa bezala, argitasun goren bilakatzen dena eta argitasun berean urtzen, argiturik ez iruditu izaiteraino, bera argia bera dela iruditurik, bada, honela sentitzen nintzen ni urgaitua[2562] bezala, eta urgaitze xugun[2563] haretan hiltzen, salmoko hitzak xuxurlatzeko adina indarñoa baino ez nuela: «Nire bularra ardo berria bezalakoa da, arnasbiderik ez eta zahagi berria leherrarazten duena», eta, bat-batean, argi batto ikusi nuen, itsugarria, eta erdian zafiro-karako zera bat su dirdaitsu[2564] bigun batean erretzen zena, eta argi hori sutan zehar barreiatu zen, eta su dirdaitsu hori molde keinukarian[2565] zehar barreiatu, eta argi itsugarri hori su dirdaitsuarekin batera molde osoan zehar.

Bitartean, zorabiatuxerik, bat eginda nengoen gorputz haren gainera erori nintzen, eta ulertu nuen,

2562Urgai: líquido / Urgaitu: licuar / Urgaitze: licuefacción
2563Xugun: bigun, uxter, xamur...
2564Dirdaitsu: (H. “esplendoroso”)
2565Keinukari: (H. “rutilante”)

buruargitasunaren[2566] azken bristada[2567] batez, garra argitasun dir-dir egingarria[2568] dela, jaiotzetiko[2569] adore bat eta suzko[2570] irrika[2571] bat, alabaina argitasun dir-dirgarria argitzekoa du eta suzko irrika erretzekoa. Gerottoago jakin nuen zein amildegien amildegi zen hau guzti hau.

Orain, esku ikaratiz (ez dakit jaulkitzen ari naizen bekatu honen izugarriagatik, edo gogora dakardan egitada honen egin-min[2572] bekatuzkoagatik) lerro hauek idazten ditudanean, jakinarazten dut, ezen, liluramendu higuingarri hura zehatz azaltzearren, goragoko orrialde batzuetan, Michele heretiko nola suak erre zuen deskribatzeko eta garrak gorputza nola suntsitzen zuen azaltzeko erabili ukan ditudan hitz berak ekarri ditudala. Ez da halabeharrezkoa nire esku, arimaren nahikundea betetzen zintzo dena, bi gertaera hain berdinezinez idazteko hitz berdinez baliatu izana, zeren, ordu haretan, bizi nituenean bi gertaera haiek berdin hunkitu ninduten, zirrara eragin zidaten eta astindu, orain berean berriz ere larrutxean berbizitu nahi ukan ditudanean bihotza astindu didaten bezala.

2566Buruargitasun: lucidez
2567Bristada: destello
2568Dir-dir egin: esplender
2569Jaiotzetiko: ingénito
2570Suzko: ígneo
2571Irrika: (H. “ardor”)
2572Egin-min: añoranza (N) (Jakin-min---) (?)

Bada antze estari[2573] bat hitz berdinez egiera ez berdinak izendatzeko gai dena: jainkozko gauzak gauza lurtarren izenez izendatzeko antzea, eta honela, nola-halako ikur nahasiez, Jaungoikoa lehoi edo lehoinbar dela esan daiteke, heriotza zauri dela, atsegina gar, heriotza amildegi, amildegia galmendi, galmendia alditxar eta alditxardura[2574] grina dela.

Zergatik, heriotzaren liluramendua izendatzeko, Michele martiriarengan zirrara eragin zidana, erabiltzen ditut emakume santuaren hitz berak biziaren liluramendua (jainkotiarra) izendatzeko erabili zituenak, eta zergatik hitz horiek eta ez besterik erabili behar nituen atsegintasunaren liluramendua (bekatuzko eta iragokorra) izendatzeko, laster baten heriotza eta deuseztatzearen sentimendu bihurtu baitzen? Gaztetto nintzen, baina orain hausnartu nahi dut nola, il gutiren barruan, bi esperientzia, biak mingarri eta kitzikagarri, bizi nituen, eta hausnartu, halaber, nola gau haretan abadian, ordu gutiren barruan, gogoramenez eta zentzuez, bata gogora ekarri[2575] nuen eta bestea atzeman[2576] nuen, eta gainera, nola, orain berrikitan, lerrook

2573Estari: oculto, secreto/... -/ Estali: ocultar, tapar… (Harriestaria) (?)
2574Alditxardura: (H. “deliquio”)
2575Gogora ekarri: (H. “evocar”)
2576Atzeman: (H. “aprehender”)

idazterakoan, berriz ere orduko haiek berbizitu ditudan, eta nola, hiru aldietan, barren-barrenekoa adiarazteko oso esperientzia ezberdinetako hitzak berdinak diren, arima santu batenak, Jainkoaren ikuspenean deuseztatzen zihoala sentitzen zuen arima. Arnegatu[2577] egin ez ote dut (lehen, orain)? Zer zegoen elkarrenik[2578] Micheleren hil nahiaren, sutan kiskaltzean ikusi nuenean sentitu nuen liluraldiaren, neskarekin bat egiteko irritsaren, alegia balitz bezala adiarazteko sumatu nuen lotsa mistikoaren eta emakume santua deusezatzeko nahi gozo haren artean, zeinak bere maitasunaz hil nahi baitzuen betierekoan bizi ahal izaitearren? Ba ote daiteke hain gauza ezberdinez hain era berdinaz adiaraztea? Alta bada, badirudi jakintsurik handienek hori digutela irakasten: *omnis ergo figura tanto evidentius veritatem demonstrat quanto apertius per dissimilem similitudinem figuram se esse et non veritatem probat*[2579]. Alabaina, su eta amildegiaganako maitazarrea Jaungoikoarenganako maitasunaren irudiak badira, izan daitezkea, halaber, herioaganako eta bekatuaganako maitazarrearen irudiak? Bai, lehoia eta sugea, aldi berean,

2577Arnegatu: (H. “habré blasfemado”)

2578Elkarren(ik): en común

2579«Hala, bada, edozein itxurak, zenbat eta nabariago, egia erakusten du, hainbat eta argiago erakusten duenean bera itxura dela eta ez egia»

Kristoren eta deabruaren irudiak diren ber. Interpretazio zuzena, ostera, aitajaunen ulermenera[2580] joz baizik ezin da erabaki, eta ni jota nadukan gertakuntza[2581] honetan ez dago *auctoritas* bat nire gogo ahulak men egin diezaion, eta ezbaiak kiskaltzen nau, errausten (eta beste behin suaren irudia tartean, ni deuseztatzen nauten egiaren hutsunea eta okerraren betetasuna adiarazteko!). Zer gertatzen da, Jauna, ene ariman, orain oroitzapenen zurrunbiloak atzeman nazan uzten dudanean, garai ezberdinen arteko gudu-piztea[2582] hasarazten[2583] dudalarik, izarren ordena eta ortziko mugimenduen sekuentzia aldatzearren banengo bezala? Enura bagerik, nire adimen gaiso eta bekatariaren mugak hausten ditut. Bihotz on!Berrar[2584] dezadan apalkiro egiteko dudan ataza. Egun haretan gertatutakoaz mintzatzen ari izan naiz eta nire zentzumenen nahasmendu guztizkoaz, berauetan hondatu bainintzen. Badago, orduan gogoan nuena esan dut: biz[2585] hauxe kronikari zintzo eta egiati naizen honen luma ahularen azken muga.

2580Ulermen: (H. “autoridad”)
2581Gertakuntza: (H. “caso”)
2582Gudu-pizte: (H. “conflagración”)
2583Hasarazi: (H. “desencadenar”)
2584Berrartu: retomar
2585Biz: izan bedi

Etzanik geratu nintzen, ez dakit zenbateko astiz, neskaren ondoan. Zirkin ahul batez, haren eskuak nire gorputza ukitzen zuen, izerditan blai zegoen gorputza. Nik neure barrenean poztasuna sumatzen nuen, ez baitzen bakea, halako txingar moduko zerbait, garra iraungirik errauts azpian dirauen sua bezala. Zalantzarik ez eta nik halako bati zorioneko esango nioke (ametsetan laso xuxurlaka ni), haren antzeko zerbaiten sumatzeko zoria gerta zekionari, guttitan bada ere (eta benetan nik sumatu nuen aldi bakarra huraxe izan zen), bizitza honetan, eta lipar batez eta arin bai arin. Existituko ez bagina bezala, gu geu izaiten erabat utzi bagenu bezala, azpiratuak bezala, deuseztatuak, eta hilkorren batek (neure baitan nioen) nik probatu dudana probatu ahal balu, berehala mundu maltzur hau gaitzetsiko luke, egunoroko bizitzaren gaiztakeriaz burunahasirik sentituko litzateke, soin hilkorraren pisua sumatuko luke… Ez al zen hori irakatsi zidatena? Nire arima osoaren bulkada hura, dohatsutasunean galtzerakoa, zalantzarik ez (orain ulertzen dut) betiereko eguzkiaren argi-irrada zen, eta honek eragiten duen gozaldiagatik gizona zabaltzen da, handitzen da, eta bere barruan zintzur gutiziatsu[2586] bat irekitzen da, geroago ixten zaila dena, honelakoxe baita maitasunaren

2586Gutiziatsu: (H. “ávido”)

ezpatak egiten duen zauria, eta hemen behealde honetan ez dago ezer gozoagorik eta izugarriagorik. Baina horixe eguzkiaren indarra, ahalgoa, haren izpiak zaurituarengan josten diren geziak dira, eta zauriak handitzen dira, eta gizona zabaltzen eta berretzen[2587] da, zainak ere lehertzen, haren indarrak ez du inoren agindurik betetzen, nahikeria baizik ez du onartzen, arima amildegiaren ondoan amildurik erretzen da ukitzen ari denaren amildegian, eta bizi izan duen eta bizi duen egiazkoa[2588] bere nahikundearen eta bere egiaren gainetik dagoela sumatzen du.

Eta honaino heldurik, nor bere xorabialdian txunditurik dago.

Hauek lako sentsazio, barreneko gozoaldi ezin jaulkizko hauetan murgildurik, loak hartuxe ninduen.

Gerottoago, berriz ere begiak ireki nituenean, gaueko argia, beharbada hodeirean bat edo bat zegoelako, askoz makalagoa zen. Eskua albo batera luzatu nuen eta ez nuen sumatu neskaren gorputza. Burua bihurtu nuen: ez zegoen.

2587Berretu: (H. “dilatar”)
2588Egiazko: (H. “la realidad”)

Nire irritsa piztu zuen gauza hura han ez egoitea, nire egarria ase zuenaren ausentzia, bat-batean, irrits haren handikeria eta egarri haren maltzurkeria sumatzeko bide izan nuen. *Omne animal triste post coitum*.[2589] Bekatu egin nuelako kontzientzia hartu nuen. Orain, hainbat eta hainbat urtez gero, nire hogenagatik lazki negar egiten dudan artean, ezin ahantz dezaket gau haretan atsegin utra[2590] bizia sentitu nuela, eta Goi-goikoari laido egingo nioke, gauza eder eta on guztiak irazan zituenari, onar ez baneza, harako bekatari bien istorio haretan ere, berez, *naturaliter*, ona eta ederra zena gertatu zela. Noiz eta nik heriotzaz pentsatu beharko nukeenean, hurbil baitzait. Orduan, baina, gazte nintzen, ez nuen heriotza gogoan, egin nuen, ostera, bai, zintzoro eta mara-mara negar ene bekatu haregatik.

Ikaraz jaiki nintzen, zeren, gainera, luzaz sukaldeko harlauza hotz-hotzen gainean etzanik egon bainintzen eta gorputza hozturik. Jantzi nintzen, sukarra nuelakoan. Orduan, bazter batean, neskak bildua zedukan gauza eta alde egin zuenean bertan utzia begiztatu nuen. Zer zen aztertzeko makurtu nintzen: kiribildutako oihal mordoiloa zen, bil-bil egina, eta sukaldetikoa zela zirudien. Zabaldu

2589«abere guztiak izkepotaren ondorean goibel dagoz»
2590Utra: oso, biziki, txit, hagitz...

nuen eta hatsarrean ez nuen ezagutu zer zen, izan argi murritzagatik izan molde itxuragaitzeko zelako. Geroago ulertuko nuen: odoluria[2591] batetik, haragi puxka bigun-xurixkak bestetik, zain ubelak[2592] tartean zeharretara, nire begiek zekusatena, orduan hilik baina artean[2593] bizi-taupadaka –errai[2594] hilen bizi gelatinazkoa, likatsua–, bihotz handi bat zen.

Estalki beltz bat erori zen nire begien gainera, listu[2595] garratzak ahoa bete zidan. Oihu bat iraitzi nuen eta gorputz hila bezala lurrera amildu nintzen.

HIRUGARREN EGUNA

GAUA

2591Odoluri: (H. “coágulo de sangre”)
2592Ubel: (H. “lívido”)
2593Artean: orduan oraindik
2594Errai: víscera, entrañas
2595Listu: saliva (txistu, hixtu, tu...)

Adsok, burunahasirik[2596], Gileni aitortu dionekoa, eta Sorkuntzako[2597] xedean emakumezkoaren eginkizuna zein den hausnartzen du. Geroenean, hala, gizaseme baten gorpua aurkituko dute.

Neure onera bihurtu nintzenean, norbait aurpegia bustitzen ari zitzaidan. Frai Gilen zen. Argi-giriseilu bat zedukan eta buruaren azpian zerbait ipinia zidan.

— Zer gertatu da, Adso, horrela gauez sukaldean hondakin ebatsiz ibil hadin?

Hitz gutitan: Gilen esnatua zen, ez dakit zer zela eta nire bila joana zen, eta ediren ezean, liburutegian barrabaskeria egiten edo nengokeela susmatua zuen. Eraikinera bidean, sukalde ondotik, baratzerantz alde zegien itzal bat urkusi zuen (neska zen, alde egitean, norbait zetorrela entzunik edo, eiki). Ezagunetsi nahi ukan zuen, eta haren atzetik joan zen baina hura (hots, beretzat itzal bat zena) harresiraino iritsi zen eta itzaldu, alditu[2598] zen.

2596Burunahasi: (H. “trastornado”)
2597Sorkuntza: (H. “la creación) (Hizki larriz Jaungoikaren sorkuntza baita (N))
2598Alditu: desaparecer, alejarse.

Orduan, Gilen –ingurualdea ikuskatu ondorean– sukaldera sartu zen eta bertan ni, konorte bagerik, aurkitu ninduen.

Artean ikararturik, bihotza zedukan bilgoa[2599] erakutsi nionean, eta beste hilketa batez zerttobait motelka murduskatu[2600] nuenean, barreari eman zion:

— Baina Adso! Zein gizonek eduki ahal du honen bihotz handirik? Behiren edo idiren bihotza duk, mottel; egun, hain xuxen, abere bat hil ditek. Azal iezadazu, arren, nola heldu den heure eskuetara.

Arrangura gaiztok sorgorturik eta bihotz zimikok jo eta izuturik, ezin eutsi ukan nion eta negar-zotinka hasi nintzen, aitorpen sakramentua eman ziezadan eskatzen nintzaion bitartean. Hala egin zuen eta zen-zena jaulki nion, aletu nion harean uzteke.

Anaia Gilenek bentasun[2601] handiz aditu zidan, baina errukitasun[2602] itzal batekin. Bukatu nuenean, zorrotz itxura egin zuen, alegia eta beltzuntze[2603] jarri, eta diraust:

2599Bilgo: (H. “envoltorio”)
2600Murduskatu: (H. “balbucear”)
2601Bentasun: (H. “seriedad”) (Ben: serio, formal)
2602Errukitasun: (H. “indulgencia”)
2603Beltzuntze: Serio, grave (Sal, R). "Beltxuntxe, seriecito"

— Enurarik bage, Adso, bekatu egin duk, aketz egitea debekatzen duen mandamenduaren aurka ez ezik fraidegai haizelarik hire eginbeharrekoen aurka ere bai. Hire alde duk, nonbait, zein egoeratan izan haizen, zeren, hire horrelako egoeran gertatuz gero basamortuko aitajauna ere hogenetan erori baitzatekeen. Emaztekiaz, erorbide dela eta ez dela, eskrituretan asko hitz egin izan duk. Eklesiastes-ek dioenez, emaztekiaz ari delarik, beronen hizketa su goria bezalakoa duk, eta Proberbio-ek gizonkiaren arimaz jabetzen dela ziotek, eta indartsuenak ere zapuzten dituela, eta hondatzen. Eta Eklesiastes-ek halaber honela ziok: Ohartu nintzen emaztekia heriotza baino mingotsagoa dela eta bihotzarentzat lakio, eta haren eskuak, lokarriak direla. Eta beste zeinbaitek deabruaren gailua dela esan ukan dik. Hau honela, bada, Adso maite, ezin pentsa zezakeat Jaungoikoak bere Sorkuntzan halako izaki lohi bat irazan nahi zukeenik, aldi berean nolabaiteko ontasunik ukaiteke. Eta, ezinbestean, hausnartu behar duk ea zer dela eta Berak hari, emaztekiari, hainbat berezkotasunik eta onbiderik eman dion, hiru garrantzizko, besteak beste, batez ere. Egiaz, gizonkia mundu txatxar honetan irazan dik, lokatzez, eta, emaztekia, aldiz, bigarrenik sorrarazi dik, paradisuan, eta

gizonkiaren ekai[2604] garbiaz. Eta ez dik egin Adanen oinez edo erraiez, saiheskiaz baizik. Bigarrenik, Jauna, oro ahal dezakeena, gizonkiarengan haragi zitekean, nolabait, gizonarengandik gizondu ahal zuan, baina, alderantziz, emaztekiaren sabelean bizi nahiago ukan zian, hau duk, beraz, emaztekia ez duk hain lohi. Eta berpiztu ondoan agertu zenean, emazteki bati agertu zitzaioan. Azkenik, zeruko lorian ezein gizon izanen ez duk aberri haretako errege, baina erregina bat izanen duk, inoiz ere bekaturik egin bageko emakume. Beraz, Jaunak bai Ebarekin bai bere alabekin hainbat begiramen[2605] ukan badu, hain ezohiko ote da gu ere sexo horretakoen garaziek eta ontasunak erakarrita senti gaitezen? Zera esan nahi diat, Adso, berriz ere egin behar ez duala, baina tentaldian erori izana hain ezaina[2606] ere ez duala. Eta, bestalde, fraide batek, bizialdian behin gutienez, haragiaren irritsa sumatu izana, beste une batez bekatariei aholku eta onu eta aringarri eman beharrean gertatuz gero errukior eta bihozpera izan dadin… bada, Adso maite, ez duk onetsi behar gertatu aitzin, baina, orobat, ez duk gaitzetsi behar gertatuz gero. Honelatan, bada, hoa Jainkoarekin, eta ez gaitezen gehiago honetaz mintza.

2604Ekai: (H. “materia”)
2605Begiramen: (H. “atención”) (Aditasun...)
2606Ezain: (H. “monstruoso”) (Itsusi...)

Alderantziz, atzendu behar duanaz gehiegi ez pentsatzearren, erdiets badezak –eta une haretantxe haren ahotsa dardarti sumatu nuen hunkidura oso sakon batek itoa bezala–, galde degiogun geure buruari zelako zentzurik duen gaueon jazo denak. Nor da neska hori eta norekin ukan du hitzordua?

— Horixe ez dakit nik, eta harekin izan den gizona ez dut ikusi.

— Ongi, baina nor den ondorioztatu ahal diagu, aztarrena ezbairik bageko batzuei jarraikiz. Lehenik eta behin[2607], gizon itsusi zaharra izan duk, eta beronelakorekin neskarik ez zoak gogo onez, hik adiarazi bezain ederra bada, guztiz ere; nahiz eta, otsokume maite, hi gertatu haizen egoeran, edozein ahamen ere on. [2608]

— Zer dela eta itsusi eta zahar?

— Neska' harekin maitasunagatik joan ez delako, bilgo bat bihotzegatik[2609] baizik. Zalantzarik ez, neska baserritarra duk, eta, beharbada ez lehen aldiz, fraide haragikoi bati emana goseagatik, eta ordainetan bai berak bai bere senideek ahora eramaiteko zerbait jasoko zuena.

2607Lehenik eta behin: (H. "ante todo")
2608Otsoaren ahotik ahamen bat ere on (Esaera zaharra)
2609Bihotz: (H. "riñones") (?) (Bilgo bat bihotz – ontzi bat ur...)

— Emagaldu! –hots egin nuen izutu eta.

— Landatar behartsua, Adso, landerra. Heldubada, haurridettoak dituena, elikatu beharrak. Eta, egin ahal baleza, maitasunagatik eginen likek, eta ez premiagatik[2610]. Gau honetan egin duen bezala. Halaxe[2611], bada, esan didaanez, gazte eta eder ikusi hau, eta doan eta maitazarrez eman dik besteei, ordea, ordainez emanen liekeena, bihozki zati eta biriki puxka batzuen truke. Eta hain ongile sentitu duk, hain lasai urririk emanagatik, ezer ere ordainetan hartzeke alde egin dik. Honegatixe, beraz, hala, bestea, hirekin alderatu edo duen beste gizakia, horren gazte eta horren eder ez delakoan nagok.

Aitor dut, nire damua handia izanagatik ere, azalpen harek harrotasun atsegingarriz bete ninduela, isildu banintzen ere, eta nire maisuari hizketan aurrera[2612] joan zedin utzi nion.

— Zahar higuingarri hori, nonbait, lanagatik edo beste zerbaitegatik baserrira jaisteko egokiera duena eta landatarrekin harremanetan jartekoa ere baduena izan daitekeela pentsatzekoa duk. Harresitik inor sar-irteteko

2610Premia: (H. “lucro”) (?)
2611Halaxe: (H. “en efecto”)
2612Aurrera joan: (H. “prosiguiera”) (“jarraiu”-ren ordez)

bidea edo era dakiena bide-duk. Gainera, sukaldean halako hondakinak zeduzkatela zekiena (beharbada, bihar, atea zabalik eta zakurren bat sartu zela eta honek jan zuela esango ditek). Azkenik, zuhurra izan duk, edo zikoitza, zeren, agidanean, ez dik nahi ukan sukaldean jaki edo haragiki hoberik har eta eman, osterantzean, zera, xerra edo azpizun[2613] edo beste zati gozoagorik emanen baitzion. Dakusaanez, gure urlia ezezagunaren irudia gero eta argiago agertzen zaiguk, eta izaera huek edo antzeko zertzeladak haintzat hartuz, doi-doi, gure sehiburugana hurreratzen ari garela esatera ausartzen nauk, Remigio da Varagine-gana alegia. Edo, oker banengo, gure Salbatore misteriotsuagana. Izan ere, eskualde honetakoa delako, herriko jendearekin ongi hitz egiten zakik, eta neska erakarteko ere gai dela uste diat, hi heldu ez bahintz, eginen zuena egin zezan eragin ahal izaiteko gai.

— Bai horixe –nik, haren hitzokin bat etorririk–. Baina, zertarako dugu orain jakitea?

— Ezertarako ez, eta orotarako bai, orobat. Gertaera aztertzen ditugun hilketekin lotua egon litekek, edo ez. Gainera, sehiburua dultzindarra izan bada, batak bestea azaltzen dik, eta alderantziz. Eta, azkenean, orain bazakiagu

2613Azpizun: solomillo (H. “bistec”)

abadia hau gertaera asko, nahasi eta ilunen leku eta lekuko dela. Nork daki gure sehiburu, edo Salbatore, ilunpetan hara-hona itzalgaizka ohi dabiltzanak, ez ote diren dioten baino gehiagoren jakinaren gainean.

— Horrela ere, guri esango al digute?

— Ez, haiekikoa nolabait egiten badugu[2614], errukiti, haien hogenak ezgauzatzat[2615] harturik. Haien bitartez ezer jakin behar bagenu, orain bazakiagu nola erasan. Bestela esanda, behar izanez gero, bai sehiburua bai Salbatore gure esku zagozak, eta Jainkoak barka diezagula gure prebarikazio hau, beste hainbat zera barkatzen duena legez –esan zuen, eta maltxur-maltxur so egin niri, eta ni ez nintzen haren erizpidea zuzena ala makurra zen adiarazteko kemen izan.

— Eta orain ohera joan behar genikek, matutietarako oren bat baino ez duk eta. Baina oraindik aztoraturik hakusat, Adso gaxo, egin duan bekatuagatik oraino izuturik… Elizan geldialdiño bat onena, kemena laxatzearren. Niketz[2616], asketsi diat, barkatu eta absolbitu haut, baina ez duk inoiz jakiten. Hoa eta eska hakio Jaunari egiaztatzea.

2614Haiekikoa…: (H. “ardar en contemplaciones”)
2615Ezgauzatzat hartu: (H. “pasar por alto”)
2616Niketz: de mi parte, por mi parte (nire aldetik..)

Eta zaplada[2617] kaliputsu[2618] xamar bat eman zidan, buruan, aita gisako[2619] eta gizon gisako txera[2620] bezala, ausaz, edo agian penitentzia gupidatsu[2621] bezala. Edo, heldubada (une haretantxe sen bekatariak eman zidanez) nolabaiteko bekaitz onerean bategatik, berezkoa eta bidezkoa izan zukeena esperientzia berri eta bizien egarriak zegoen hura bezalako gizonaren baitan.

Ohiko bidetik elizarantz hasi ginen, ni bixkor-bixkor eta begiak itxita, gau haretan hango hezur guztiek ni nerau ere hauts nintzela gogorarazten baitzidaten, eta, honelaber, nire haragiaren jokaera harroputzez zein zentzugea izan nintzen.

Eliza barrura eta aldare nagusiaren aurrean geriza[2622] bat begiztatu genuen. Ubertino zela uste ukan nuen. Alinardo zen; berehalakoan ez gintuen ezagunetsi. Loak hartzen ez zuelako, berak esana, gaua otoitz eginez emanen zuela erabaki zuen, suntsituriko fraide gaztearentzat[2623] (izenik ere ez zuen gomutatzen). Haren arimaren alde egiten

2617Zaplada: palmada
2618Kalipu: energía, fuerza, vigorosidad
2619Aita gisako: paternal / Gizon gisako: viril
2620Txera: cariño
2621Gupidatsu: indulgente
2622Geriza: itzal
2623Gaztearentzat otoitz egin: gaztearen alde...

zuen, hilik balego ere, eta haren gorputzaren alde, baldin eriturik edo gaisorik edo bakarrik inon baletza[2624] ere.

— Hil gehiegi –esan zuen–, hil gehiegi… Baina apostoluaren liburuan idatzita zegoen. Lehenbiziko turutarekin, txingorra; bigarrenarekin, itsasoaren herena odol bihurturik… Hirugarren turutak izar gori baten erorketa iragarten du, ibai-iturrien herenaren gainera erori. Eta gure hirugarren anaia hala suntsitu dela diotzuet. Eta zaren laugarrenagatik beldur, zeren, eguzkiaren, ilargiaren eta izarren herenak zaurituko baitira, halako moldez, ezen, iluntasuna abantzu guztizkoa izanen baita…

Transeptotik ateratzen gineino, Gilenek galde, ea ez ote zegoen egiarik ezer agure haren eleetan.

— Horrela balitz –burutaratu[2625] nion–, zera izan liteke, hots, adimen deabruzko bakar batek, Apokalipsiri jarraikiz, hiru heriotzak aldiz aurretik eratu dituela, aurrebatziz[2626], baldin Berengario ere hilik balego. Dena dela, Adelmorena berak nahita agitu[2627] zela dakigu.

2624Baletza: (Etzan aditza)
2625Burutaratu: (H. “señalar”) (Sugerir...)
2626Aurrebatzi: premeditar (N) (?) (Aurr+ebatzi)
2627Agitu: gertatu, jazo, apukatu, gauzatu?...

— Horrelaxe –Gilenek baieztatu–, nahiz eta, deabruzko gogo berak, edo gaisotuak Adelmoren heriotza eragin edo bultzatu ahal izan, beste biak sinbolikoki antolatzeko. Hala balitz, Berengario ibai edo iturrirean batean egon litekek. Abadian ez zagok ibairik ez iturririk, ez behintzat inor ito edo irato ahal izaiteko bezain sakonik...

— Garbitokiak bai –esan nuen ia halabeharrez.

— Adso! –hots egin zuen ozendo Gilenek–. Badakik hori ideia bat izan litekeela? Garbitokiak!

— Baina honez gero arakatuta izango dira...

— Goizeon zerbitzariak bilaketan ikusi ditiat. Garbitokiko atea zabaldu ditek eta begirada gain-gainetiko bat egin, ez ditek arakatu, ez baitute uste izan ostendurik zegokeen ezer bilatu behar zutenik, gorpu edo hiliki baten xerka ibili dituk, nonbait, antzerkiko gisa, etzanik edirenen zutelakoan, Benantzio upelean laso… Goazen soaldi[2628] bat egitera. Oraindik ilun zagok, eta gure argiontziak gar ona dik, nik uste, oraindiokarren.

Hala egin genuen. Garbitokiko atea, erietxe ondoan, erraz ireki genuen.

2628Soaldi: (H. “vistazo”)

Ur-ontzi batzuk zegozen, ez dut gogoan zenbat, eta haien artean oihal zabal batzuk, errezel[2629] modukoak, estalgarri. Lekaideek beren garbitasunerako usatzen zituzten, arauak agintzen dien egunetan, eta Seberinok arrazoi terapeutikoz erabili ohi zituen, izan ere, gogoaren eta gorputzaren lasaitzeko ezer ez hura baino hoberik. Bazter batean kebide bat eta ura erraz berotzen zen. Errauts berriez zikinduta zegoela ikusi genuen, eta barruan pertz handi irauli bat zegoen. Ura zoko batean zegoen iturritik ateratzen zen.

Aurreneko ur-ontziak behatu genituen, hutsak. Azkena, errezel baten ostekoa, beterik, eta ondoan, mordoiloturik oihalki[2630] batzuk. Lehen begiradan, gure argiaz, gainekoa baino ez genuen ikusi: geldi zegoen ura. Baina gainetik argiztatu genuenean, sakonean, giza-gorpu bat begiztatu uste genuen, bizige[2631], biluzia. Emaro-emaro uretatik idoki genuen: Berengario zen. Gilenek esan bezala, haren aurpegia itotako batena zen. Hazpegiak handituta; soina zuri apatza[2632], ile-peitua, emakume batena irudi, lekat

2629Errezel: cortina (Zerri: alfombra...)
2630Oihalki: (H. “ropas”)
2631Bizige: (H. “exánime”)
2632Apatz: (H. “fofo”)

lotsari[2633] mengelen[2634] zera ahatsa[2635] baizen[2636]. Lotsagorritu nintzen, eta ondorean hotzikaratu. Aitaren egin nuen, Gilenek gorpua benedikatzen zuen bitartean.

LAUGARREN EGUNA

2633Lotsari(ak): (H. “partes pudendas”)
2634Mengel: (H. “flácido”)
2635Ahats: (H. “obsceno”)
2636Lekat...baizen: excepto, salvo...

LAUAGARREN EGUNA

LAUDEAK

Atal honetan Gilenek Seberinorekin Berengarioren gorpua azterturik, mingaina belztua dadukala dakus, ito den batengan bakana. Gero pozoin oso kaltegarri batzuez eta orduan aspaldi ebatsitako zerbaitez hitz egin dute.

Ez naiz gelditukо hemen Abadeari nola jakinarazi genion azaltzean, nola abadia osoa ohi baino goizikago itzarri zen, izuaren garrasiak, sarrakioa eta oinazea aurpegi guztietan islatuak, nola albiste izugarri hura hedatu zen ordekako bizilagunen artean, zerbitzari eta sehiak aitarenka eta otoizka eta araoka[2637] aritzen zirelarik. Ez dakit goiz haretan eguneko lehen otoitzaldia arauen arauera egin ote zen, ez nork hartu zuen esku. Ni Gileni eta Seberinori jarraitu nintzaien. Berengarioren gorpua biltzeko agindu zuten eta erietxeko mahaiaren ginean ipiniarazi.

2637Arao: conjuro...

Abadea gainerako fraideekin aldendu eta gero, belarbiltzaileak eta nire maisuak gorpua zehatz-zehatz aztertu zuten, sendagileen berezko hoztasunaz.

— Itorik hil da –Seberinok baieztatu zuen–, zalantzarik ez. Aupegia hanpatua du, sabelaldea zurrun[2638]…

— Horrela eta guztiz ere, ez du beste batek irato –Gilenek ohartarazi–: hiltzailearen indarkeriari jarkiko zitzaion eta ontziaren inguruan uraren zantzuak aurkituko genituen. Hemen, ordea, dena garbi eta behar bezala egon da, Berengariok ura berotu bailuan, ontzia bete eta bera nahita uretaratu bailitzan.

— Horrek ez nau harritzen –Seberinok–. Berengariok dardaraldiak jasaiten zituen, eta neuk esan ukan nion behin baino gehiagotan, ur epeleko bustiketak onak direla, gorputzaren eta arimaren asalduak[2639] baretzearren. Hainbatetan, garbitokira sartzeko baimena galdatzen zidan. Gau honetan ere hala egin ahal ukan du…

— Aurrekoan –zuzendu zion Gilenek–, egon ere, ikus dezakezunez, gorputz hau uretan egun batean gutienez egon da…

2638Zurrun: (H. “tenso”)
2639Asaldu: (H. “excitación”)

— Baliteke bart ez, berdantza[2640] gertatu izana –Seberinok onartu zuen.

Gilenek, gaingiroki[2641], gau haretako jazoeren berri eman zion. Ez zion esan itzalgaizka[2642] *scriptorium*era sartu ginela, baina, ñabardura guztiak aipatzeke, itzal misteriotsu baten atzetik joan ginela azaldu zion, liburu bat kendu baitzigun. Seberinok ulertu zuen Gilenek egiaren zati bat baino ez ziola azaltzen, honelarik ere, ez zuen gehiago itaundu. Harako lapur misteriotsu ha huraxe zela uste izanik, Berengarioren asaldurak baretasuna bilatzeko asmoz bustialdi lasaigarri bat egitera bultzatuko zuela eta zegoen. Berengario, esan zuen, hagitz sentibera zen, izan, batzuetan nahibageak edo zirrarak ikararazten zuen, izerdi hotzetan jarrarazten, begiak zuri-zuri jarten zen eta lerde[2643] zurixka zeriola lurrera erortzen zen.

— Dena den –Gilen mintzo–, hona baino lehen beste nonbait egon zen, garbitokian' ebatsi zuen liburua ez dut ikusi eta.

2640Berdantza: anteanoche
2641Gaingiroki: a grandes rasgos, superficialmente...
2642Itzalgaizka: a escondidas...
2643Lerde: baba

— Bai –nik harro baieztatu nuen–, ur-ontzi ondoan utzitako janzkaiak jaso ditut eta ez dut ezein gauza handiren zerarik aurkitu.

— Oso ongi –Gilenek niri irribarrez–. Beraz, nonbait egon zen. Honik aurrera, uste ukan dezakegu, asaldua baretzearren, eta, beharbada, gu bila gabiltzala eta gugandik alderatzearren, garbitokira eta uretara sartu zela. Seberino: zure eritziz, jasaiten zuen gaitza aski ote zen zentzua gal eta ito zedintzat?

— Beharbada, bai –Seberinok erantzun zion, zalantzan–. Bestalde, dena duela bi gau gertatu bazen, ontziaren inguruan ura egon ahal izan zen eta gero lehortu. Hots, ezin bazter dezakegu uretara indarka sartu duen, baterean batek.

— Ez –Gilenek harzara, ezezkoan–. Inoiz ikusi duzua hiltzaile baten biktima, berorrek irato aitzin, erantzi dela? Seberinok burua inarrosi zuen, argudio hura ganorazkoa ez zela edo adiarazteko moduan. Gorpuaren eskuak aztertzen hasia zen, ordurakoxe:

— Hau bai harrigarria... –esan zuen.

— Zer?

— Lehengo egunean Benantzioren eskuak ikusi nituen, beraren gorpua odol-zetakaz bagetua zegoenean, eta garrantzi handirik eman ez nion arren, zera batez konturatu nintzen. Eskuineko bi hatz-mamiak ilun zeduzkan, zerbait beltzezko zeraz zikinduak bezala. Berengarioren bi hatzon mamiak bezalaxe, ikus? Honetan, hirugarren hatz honetan ere zerbaiten zantzurik dago. Haretan, Benantziok *scriptorium*ean tinta ukitu zuela oldoztu nuen.

— Biziki ernagarri[2644] –Gilenek gogoetatsu, Berengarioren hatzak aztertzen zitueino. Eguna argitzen hasia zen, ordurako, baina barruan argia oso argala; nire maisuak bere betaurrekoak peitu zituen–. Biziki ernagarri –berresan zuen–. Erkina eta erkoroa mamietan zikin dagoz, eri handia barrualdean ere zikin, soilik eta ez oso. Baina, badira, halaber, aztarrenak, ahulagoak ezkerrean, erkin-erkoroetan[2645], behintzat.

— Eskuinekoa soilik balitz, eskuan gauza tikia dadukanaren hatzak izango lirateke, edo gauza luze-mehea…

— Estilo bat, esaterako. Edo janari bat. Edo zomorro bat. Edo suge bat. Edo kustodia bat. Edo makila bat. Gauza gehiegi. Baina beste eskuan ere aztarrenak dagozenez gero,

2644Ernagarri: interesante, excitante...
2645Erkin: dedo índice / Erkoro: pulgar (orkoro) / Eri handi / Eri nagi/

txola bat izan liteke: eskuinak irmoki eusten dio eta ezkerrak laguntzen hainbesteko indarrik egiteke…

Seberino une haretan hildakoaren eriak emeki igurtzitzen ari zen, baina margo iluna ez zen ezabatzen. Eskularruak jantzi zituela ohartu nintzen: ziur aski gauza pozointsuak eskukatzeko erabiltzen zituen. Usnatzen[2646] ari zen arren harean usaintzen ez.

— Badira hainbat gaiki, landarezkoak esaterako, (eta metalezkoak ere bai) honen antzeko aztarrenak uzten dituztenak. Batzuk hilgarriak, beste batzuk ez. Batzuetan miniaturagileek hatzak urre-hautsez zikintzen dituzte...

— Adelmo miniaturagile zen –gehitu zuen Gilenek–. Haren gorpu sarraskitua ikusi zenuenean, hatzak ez zenizkion aztertu, antza. Baina honako hauek Adelmorena zen zerbait ukitu ahal ukan dute.

— Ez dakit zer esan –Seberino mintzo–. Bi hil, biak hatz ilunekin. Zelako ondorioa ateratzen duzu?

— Ez dut ondoriorik ateratzen: *nihil sequitur geminis ex particularibus unquam*[2647]. Gertaera biok neurri orokor

2646Usnatu: olfatear / Usaindu:oler

2647«Bi (proposamen) berdinetatik ezin atera daiteke ondoriorik». Aristotelesen silogismoko zazpigarren legea.

batera mugatu beharko lirateke. Adibidez: ukitzailaren hatzak belzten dituen gaikia dago...

Silogismoa harro bai harro osatu nuen:

— Benantzio eta Berengario erietan zetaka beltzekin hilak dira, *ergo* horrako gaiki horrelakoa ukitu zuten!

— Oso ongi, Adso –esan zidan Gilenek–, tamalez hire silogismo horrek ez dik balio, zeren, *aut semel aut iterum medium generaliter esto*[2648], eta osatu berri duan silogismoan erdibidea ez duk inoiz orokor gertatzen. Lehenaipu[2649] nagusia ongi hautatua izan ez delako ezagugarri. Ez luke[2650] esan behar: halako gaikia ukitzen duten guztiek eriak beltzak daduzkate, izan ere, izan litezke eri beltzak daduzkaten nordinak[2651] halako gaikia ukitzeke. Honela esan behar luke: eriak beltzak dadutzaten guztiek eta haiek bestek ez enurarik bage halako gaikia ukitu dute. Benantziok, Berengariok eta abarrek. Eta honela *Darii*[2652] bat ukanen genuke, hau da, hirugarren silogismo bat apain-apaina[2653].

2648«Behin edo birritan erdibidea hartu behar da orokorki». Aristotelesen silogismoko laugarren araua.
2649Lehenaipu: premisa (?)
2650Luke: (Gilenek hika egiteari uzten dio Seberinorekin ere mintzatuz)
2651Nordin: notin, pertsona (nor+din) (?)
2652Darii: filosofiako zera bat, silogismoarekikoa.
2653Apain-apain: (H. “impecable”) (Hogenezin/…) (?)

— Beraz, badugu erantzuna! –hots egin nuen gogoberoturik[2654].

— Ai, Adso, nola sinesten dituan silogismoak! Dugun bakarra, harzara, galdera duk. Hala egia, uste dugu, uste dugunez, Benantziok eta Berengariok gauza bera ukitu zutela, arrazoizko hipotesia, noski. Baina gaiki bat beste guztiak ez bezalakoa dela uste dugu, horrelako ondorio hori baitakar, eta honaino heldurik (hori oraindik ikuskizun baita), jakin ez dakigu zer den, non aurkitu zuten eta zergatik ukitu zuten. Eta, adi, jakin ere ez dakigu, berebat, ukitu zuten gaiak heriotzara eraman ote zituenentz. Demagun zoro batek urre-hautsa uki lezaten guztiak hil nahi lituzkeela. Esango ote genuke hiltzailea urre-hautsa dela?

Nahasirik geratu nintzen. Logika iskilu orokorra zela uste nuen, beti, baina orduan ohartu nintzenez, hura nola erabiltzen zen. Beste aldetik, nire maisuaren ondoan ibilki, ikasi nuen eta gero eta gero argiago ikusi ere bai, logika arrunt baliagarri izan daitekeela sartu bezala horretarean irten ere egiten baldin baleki.

2654Gogoberotu: entusiasmar

Bien bitartean, Seberino, logikazale ona ez zena, bere esperientzia edo atuna[2655] oinarritzat harturik gogoetan ari zen:

— Pozoinen mundua askotarikoa da, izadiaren misterioak diren bezala –esan zuen. Hantxe ondo-ondo ipinita zegozen ontzi eta flaskoak begirarazi zizkigun, aurretiaz ikusiak bagenituenak, eta liburu batzuk horma ondoko apaletan ere hantxe–. Esan dizudan bezala, belar hauetariko askoz, behar den eran prestatu eta mortxokaturik,[2656] edabe eta ukendu hilgarriak egin ahal dira. Hor daduzkazu: asma-belarra[2657], beladarra[2658], astaperrexila[2659]… logura eragin dezakete, edo ernarazi[2660] ere egin ahal dute, edo biak aldi berean. Zuhurki hartuz sendagai bikainak dira, dosi handiegitan, aitzitik, heriogarri.

— Alabaina, gai horietako batek ere ez luke hatzetan aztarrenarik utziko!

— Batek ere ez, nik uste. Gainera, zeinbait gaiki irenstean da arriskugarri, beste zeinbait, aldiz, larrutik sartzean.

2655Atun: experiencia, hábito...
2656Mortxo: porción, dosis (Mortxokatu: dosificar) (N)
2657Asma-belar: datura (bot.) (?)
2658Beladar: belladona (bot.) (?)
2659Astaperrexil: cicuta (bot.) (?)-
2660Ernatu: excitar

Otsababa[2661] zuriak lurretik eskuz erauzten duenari goragalea eragiten dio. Ditainak[2662] eta lizar zuriak[2663], loran dagozenean, ukitzen dituzten baratzainak horditzen dituzte, hauek ardoa edan balute bezala. Otsababa beltzak, ukitze hutsez, kakalarria dakar. Beste landare batzuek bihotz-taupadak bizkortzen dituzte, beste batzuek buruetan dardarak. Beste batzuek mintzoa kentzen dute. Sugearen edenak, ordea, larruan edo azalean igurtzirik, odolean sartu ezean, hazkura edo erremin arina baino ez du sorrarazten… Baina, behin, edabe bat erakutsi zidaten, eta zakur baten izterren barrualdea igurtzita, barrabilen aldamenean, epe laburrez aberearen heriotza zekarren, ikara lazgarriekin haren gorputz adarrak zurrunduz[2664] zihoazela…

— Asko dakizu pozoinez –egin zuen iruzkin Gilenek, miretsi antzo. Seberinok zorrotz begirau zion eta lipar luxe batzuez so:

—Sendagilek jakin behar duena dakit, belargilek, giza-osasuneko zientziak lantzen dituen langilek jakin behar duena.

2661Otsababa: eléboro (Otso-belar…?)
2662Ditaina: ditaína
2663Lizar zuri: fresnillo
2664Zurrundu: ponerse rígido

Gilen puxka baten gogoetan geratu zen. Ondorean, Seberinori gorpuaren ahoa zabaltzeko eta mingaina aztertzeko agindu zion. Seberinok, jakingale, espatula mehe bat hartu zuen, medikuntzan erabili ohi zuen tresna, eta agindutakoa egin zuen. Zukurutz[2665] betean, oihu egin zuen:

— Mihia beltz dago!

— Bada, horrela da –Gilen ahapeka mintzo–. Hatzamarrez zerbait hartu zuen eta irentsi zuen… Hau honela, zuk aurrenik aipatu edenak alde batera utzi behar ditugu, larruaren bidezko hilgarriak alegia. Honela ere, gure asmabideak ez dira oraindik argitu. Bai honek bai Benantziok nahita egin zutela pentsatu behar dugu, berariaz ez halabeharrez, ez ardura bagez egin zutela ez inork indarka eginarazi ziela. Biek zerbait hartu eta ahoratu zuten, zertan ari ziren jakinaren gainean...

— Janari? Edari?

— Beharbada. Edo beharbada… nik dakita!? Musika tresna bat, esaterako, txirula bat edo.

— Sengea[2666] –esan zuen Seberinok.

2665Zukurutz: espanto, susto (H. “estupor”) (Harrieia: susto, beldurrera)
2666Senge: (H. “absurdo”) (?)

— Zentzugea da, noski. Baina ez dugu hipotesi bakar bat ere baztertu behar, ezohikoa izanagatik ere. Orain goazen atzera pozoin-gai horretara. Zuk bezain ondo pozoinak ezagutzen dituen norbait hona sartu balitz, belar horietarik bat edo bat baliatu ahal ukan zukeen ukendu hilgarririk egiteko, erietan eta mingainean honelako aztarrena beltzik utziko zuenik? Janarian edo edarian eman zitekeen ukendu edo antzeko zerbait, zali[2667] batez edo beste zerbaitez edonork ahora zezakeenik.

— Bai –Seberinok onartu zuen–, baina nork? Gainera, hipotesi hori onartuta ere, nola eman zien edena gure bi anaia gizagaixooi?

Nik ere ezin nuen burutara sartu, aitortzen dut, Benantzio edo Berengario beste inork emaniko gauza ezezagun bat jateko edo edateko gerturik izaitea. Gertaera bakan eta ulergaitz harek ez zuen, antza, Gilen kezkatzen.

— Horretaz geroago pentsatuko dugu –esan zuen–. Orain beste zerbait gogora dezazun nahi dut, hots, orain arte ahantzirik ukan duzunik, ez dakit, inork zure belarrez galde egin dizun, erietxera sartzea erraza duen inor…

2667Zali: goilara

— Egon, egon pixka baten. Aspaldian, urte batzuk dira, nik apalotan urruneko lurralde batzuetatik bidaia bat egin ondorean anaia batek emaniko gai oso indartsu bat nedukan, gordeta. Ez zuen azaltzen jakin gai haren osagaiak zein ziren. Belarrezkoa zen, bai, belar ezagunak ez guztiak. Likatsua zen, oraila zen, eta fraide harek aholku eman zidanez, ez ukitzea hobe, zeren, ezpainetan ukitu arin bat nahikoa berehalako baten hilik gertatzeko. Esan zidanez, apur-apur bat ere ahoraz gero, ordu erdiren buruan akidura[2668] handia sorrarazten zuen, gero baratx-baratx soin-atal guztien elbarritzea, eta geroenean heriotza. Berak aldean eraman nahi ez zuelako oparitu zidan. Luzaroan eduki nuen, noizbait artzertzeko asmoarekin. Baina, egun batean, ekaitz handia egin zuen, hemen ordekan. Nire sehietako batek, fraidegai batek, erietxeko atea zabalik utzi zuen eta indriskak hemen barrualde honetan egundoko anabasa egin zuen. Flasko batzuk hautsi, urgaiak[2669] lurrean isurita, hautsak belarrekin ihaurririk[2670]. Oro bere onera ekarteko egunbete, eta berriz ere ezertarako izango ez ziren gauzak, ontziak eta belarrak ekortzeko ez bestetarako, erratzez garbitzeko alegia, laguntzaileren bat edo beste hartu

2668Akidura: (H. “abatimiento”)
2669Urgai: líquido (N) (?)
2670Ihaurri: esparcir

nuen. Bukatutakoan, hara!, harako flasko ha peitu nuela ohartu nintzen. Hatsarrean, kezkatu egin nintzen, baina hautsi zela eta beste hondakin guztiekin nahasi zela otu[2671] zitzaidan. Erietxeko zorua ondo ikuzteko agindu nuen, eta apalok…

— Eta ekaitza baino lehen flaskoa ikusi zenuen?

— Bai… Edo hobeto esateko, ez, oraintxe gogoan dudanez. Ondo gordeta zegoen, edalontzi andana baten ostean, eta ez nuen egunoro begirapetzen.

— Beraz, hori horrela, zu ohartzeke, ekaitza baino askoz lehenago ostu ahal ukan zizun.

— Bada, oraintxe diraustazunez, bai, horrela izan zitekeen.

— Eta fraidegai laguntzaile harek ostu ahal ukan zizun eta gero, ekaitzaren aitzakiaz, atea zabalik utzi, nahita, zure gauzak nahaspilatzearren.

Seberinok txit urduri irudi zuen:

— Bai, horixe. Gainera, gertatu zena gogora dakardanean, harritu nintzela, ekaitza bortitza izan arren, halako anabasa egiteko gauza nola izan zen gogoratzen zait. Ziur nago, bai, hala, norbaitek ekaitza baliatu zuela gelan nahaspila egiteko

2671Otu: ocurrirse (H. “me convencí”)

eta indriskak egin zezakeen baino triskantza handiagoa egiteko!

— Nor zen fraidegai hura?

— Agostino izena zuen. Iaz hil zen: aldamio baterean erori zen, beste fraide eta zerbitzari batzuekin batera elizako aitzinaldeko eskulturak garbitzen ari zenean. Gainera, oraintxe oroitu naiz, ekaitz haren aurretik berak atea zabalik utzi ez zuela zin egin zidan, santu guztien izenean. Neuk nion egotzi, ene suminaz, autu[2672] haretako erantzunkizuna. Heldubada, egiaz, ez zukeen errurik izan.

— Horrela bada, hirugarren nordin bat dugu, fraidegaia baino askoz adituago, eiki, zure pozoinaz zerbait zekienik. Nori aipatu zenion inoiz?

— Zinez, ez dut gogoratzen. Abadeari, noski, hain gaiki arriskutsu bat gordetzeko baimena eskatu nintzaionean. Eta beste baterean bati, beharbada, zeren, gauza haren osagaiak zein ziren jakitearren liburutegian belar-bilduma baten bila ibili bainintzen.

— Ez didazu esan zuk zeure langintzarako behar dituzun liburuak badadutzazula?

2672Autu: (H.“incidente”) (Asunto /… ?)

— Bai, eta ugari –erantzun zion, gelako bazter batean liburuz beteriko apal batzuk eta hauei begirarazita–. Baina orduko haretan hemen gorde ezin nezakeen zeinbait libururen bila nenbilen. Malakiasek berak ez zidan erakutsi nahi eta Abadeari baimen eskatu beharra ere ukan nuen –hizkera-doinua apaldu zuen, esan behar zuena nik entzuterik nahi ez balu bezala edo–: Badakizu, liburutegiko zokorean baten, nik ez baitakit non, nigromantziazko liburuak, magia beltzezkoak, edabe[2673] deabruzkoen errezetak ere bai, gorderik dagoz. Nire ataza nolako den jakinda, horrelako zera batzuk ikus eta galdekatzea[2674] haizu utzi[2675] zidaten. Pozoin haretazko jakingarriak ediren nahi nituen, zertarako zen eta… Alperrik.

— Beraz, orduan, Malakiasi aipatu zenion.

— Bai, jakina, eta beharbada Berengariori berari ere bai, haren laguntzaile zen eta. Honela ere, ez ezazu atera ondorio arinik: ez naiz ongi oroitzen, beharbada beste fraide batzuk ere bazegozen, badakizu maiz *scriptorium*a beterik egoiten dela...

2673Edabe: (H. “filtro”)
2674Galdekatu: (H. “consultar”)
2675Haizu utzi: (H. “permitir”)

— Ez dut inoren susmorik. Gerta zitekeena soilik ulertzen saiatzen ari naiz. Dena dela, esan didazunez, hori aspaldian izan zen, eta pozoina erabili baino hain lehenago ebatsi izana harrigarri zait. Honek nahikeria gaiztoa zegokeela adiaraziko luke, urteetan asmo hilgarria azpikeriaz bilbatua[2676].

Seberinok aitaren egin zuen. Haren aurpegiak sarrakioa[2677] irudi zuen:

— Jaungoikoak barka gaitzala guztiok! –esan zuen.

Ez zegoen ezer esatekorik. Berengarioren gorpua harzara estali genuen, hiletetarako atondu behar zuten eta.

2676Bilbatu: (H. “incubar”) (Tramar, gestar, urdir...)
2677Sarrakio: horror, terror… (Zukurutz, izu-lauorri...)

LAUGARREN EGUNA

PRIMA

Gilenek lehenik Salbatoreri eta gero sehiburuari beren iraganaldia aitor dezaten bultz egiten dienekoa. Seberinok, bestalde, ostutako betaurrekoak aurkitu ditu, Nicolak berriak ekarri eta Gilenek, sei begiz, Benantzioren eskuizkribua deszifratzen dihardu.

Gu jalgitean Malakias sartu zen. Gu han egoitea, antza zenez, gaitzitu zitzaion, eta alde egitearen keinua egin zuen. Seberinok barrurean ikusi zuen eta diotso: «Nire bila ote? Zeragatik...» Eten zuen eta guri so. Malakiasek aieru[2678] bat egin zion, nabarigaitza[2679], nolabait esateko moduan: «Geroago hitz eginen dugu...» Gu ateratzen, bera sartzen,

2678Aieru: (H. “seña”)
2679Nabarigaitz: imperceptible

hirurok atalasean[2680]. Malakiasek, gehiegitto[2681] bezala esan zuen:

— Anaia belar-biltzailearen xerka ibili naiz… Bu… buruan min dut.

— Liburutegiko kikiri-usaina[2682] izango ahal da, eguratsa han kutsatua –Gilenek hizkera arduratsuz–. Kutsuldu[2683] egin beharko zenukete.

Malaquíasek ezpainak higitu zituen zerbait gehiago esan nahi bezala, baina ez zuen esan. Makurtu zuen burua eta sartu egin zen, gu aldentzen ari gineino.

— Zer egitera doa Seberino ikertokira? –galde egin nuen.

—Adso –esan zidan artege nire maisuak–, ikas ezak buruaz arrazoitzen –eta berehala hitzez beste egin zuen–: Orain zeinbait pertsonari itaundu behar zioagu. Bizirik dagozen artean, behinik behin –gehitu zuen begiradaz ordeka ikuskatzen ari zeino–. Ha eta[2684]: gaurgero[2685], arreta zer jan-edaten dugun. Har ezak beti janaria ororen erretilutik, eta edaria besteek beren edalontzia bete duten pitxerretik.

2680Atalas: umbral de la puerta
2681Gehiegitto: (H. “redundante”)
2682Kikiri: "(G-azp), aire viciado"
2683Kutsuldu: (H. “fugimar”) (desnfectar…) (Kutsu+uldu) (N)
2684Ha eta: (H. “por cierto”)
2685Gaurgero: hemendik aurrera, honik aitzina, aurrerantzean...

Berengarioz gero, honetaz guzti honetaz gehien dakigunak gaituk. Hiltzailea haintzat hartzeke, jakina[2686].

— Nori itaundu nahi diozu orain?

— Adso, ohartuta egongo haizenez, hemen gauzarik ernagarrienak gauez gertatzen dituk. Gauez hiltzen duk, gauez ibiltzen duk *scriptorium*ean kuxkuxean[2687], gauez sartzen dituk emakumezkoak barrutira… Badiagu egunezko abadia bat eta gauezko beste abadia bat, eta gauezkoa, zoritxarrez, egunezkoa baino askoz ernagarriago duk. Beraz, gauez dabilen edonor axola zaiguk, bai eta lehengo gauean neskarekin ikusi huen gizona ere, adibidez. Beharbada, neskaren istorioak ez dik zerikusirik pozoinekin, edo beharbada bai. Dena dela, susmo diat nor izan ote den gizaseme hori; eta leku santu honetan gauez zer agitzen den eta beste gauza batzuk jakin behar litizkek. Eta otsoa aipatu eta otsoa atean, hots, horra, hortxe diagu.

Salbatore begirarazi zidan, gu ere berak ikusi baikintuen. Haren urratsetan zalantzatto bat nabaritu uste ukan nuen, gu saihestearren trikatu[2688] bezala, etorri bidetik atzera joaitekotan edo. Lipar batto izan zen. Argi zegoen

2686Jakina: (H. “desde luego”)
2687Kuxkuxean ibili: (H. “merodear”)
2688Trikatu: gelditu

ezin zuela gurekin topatzea ekidin, eta aurrera gureganantz, eta irribarre handirekin eta «*benedicite*» xuri[2689] xamarrekin. Nire maisuak ozta utzi zion bukatzen eta aurpegira galdera bat iraitzi zion:

— Badakizu bihar inkisizioa datorkeela?

Salbatore ez zen berriagatik alaitu, antza. Ahots-hari batez galdetu zuen:

— Eta niri?

— Zuk egia esan behar zenidake niri, adiskide bainauzu, zu bezala frantziskotarra bainauzu, eta ez bihar datozkeen horiei, beste horiek zer diren ongi baitakizu.

Jazarpen gogorra hura eta Salbatore amor emaiten hasi zen, itxuraz. Gileni otxan aire batekin so egin zion, nola eta beronek nahi guztia esateko gerturik zegoela adiarazteko bezala.

— Bart sukaldean emazteki bat egon da. Nor egon da harekin?

2689Xuri: (H. “hipócrita”) (Irrizuri...)

— *Oi, fémena que véndese come mercandía non puede numquam ser bona ni tener cortesía*! –eleka[2690] egin zion Salbatorek.

— Ez dut nahi neska ona denentz jakin. Harekin nor zegoen jakin nahi dut!

— *Deu, qué tamosas son las fémenas!* Gau eta egun pentsatzen dute *come burle al hómine*...

Gilenek paparretik oratu zion, gogorki:

— Nor zen? Zu ala sehiburua?

Salbatorek ulertu zuen gezur gehiago ezin esan zezakeela. Istorio bakana aletzen hasi zen, eta honen bitartez, ez aise hala ere, jakin genuen sehiburuari atsegin egitearren, baserrietan neskak bilatzen zizkiola, eta gauez barrutira sartzen zituela, norean edo nondik iragaiten ziren zehaztea ekidin bazuen ere. Baina sakratuenaren izenean zin egin zuen bihotz onez egiten zuela. Aldi berean arrangura barregarri samarra egin zuen berak ere bere nahikeria edo irritsa asetzeko era ez zuelako, sehiburuari eman eta gero berari ere neskak zerbait emanez. Hau guzti hau esaten eta irri egiten zuen, irri likits eta likatsu, imintzioak egiteaz

2690Eleka egin: (H. “recitó”)

batera, oro sino-mino[2691], aditzera emanez bezala, ezen, haragizko gizasemeekin hitz egiten zuela, halako jarduera haietan ohituak. Eta okerka niri soz. Baina nik ezin nion zuzenka begiratu, nahi nukeen bezala, zeren, nolabait bekatu-kide nintzaiola sentitzen bainuen, gaizkide, isilpeko egitada batez elkar lotuak baikinan.

Orduan Gilenek “hordago” jo zuen, eta zakar galde egin zion:

— Noiz ezagutu zenuen Remigio, Dultzinorekin egon aitzin ala gibel?

Salbatore belaunikatu zen, haren oinetan, eta negar-malko artean, ez galtzera uzteko erregutzen zion, inkisiziotik onik jaregiteko[2692]. Gilenek zin egin zion, hotsandiro[2693], berari jakinaraziko zionaz tutik inori esango ez ziola. Salbatorek, orduan, sehiburua gure peskizan[2694] utzi zuen, doike. Parete Calvan ezagutu zuten elkar, biak ala biak Dultzinoren saldokoak zirelarik. Sehiburuarekin ihes eginda, Casaleko komentura zen, eta harekin batera klunitarretara sartu zen. Barka eske marmarikatzen[2695] zuen; argi zegoen

2691Sino-mino: aspaviento, muecas...
2692Jaregin: askatu...
2693Hotsandiro: solemnemente
2694Peskizan: (H. “a nuestra merced”)
2695Marmarikatu: mascullar (Kirimikatu...)

gehiago erasanik[2696] ere, gehiago ezin harengandik erauzi. Gilenek Remigio ustebagean harrapatu behar zuela erabaki zuen, eta Salbatore jareginda elizan aterpetzera joan zen haia-haia.

Sehiburua abadiaren beste aldean zegoen, bihitegien aurrean, haraneko nekazari batzuekin sal-erosketan. Kezkati antzo behatu gintuen, lanpetu itxura egin zuen, baina Gilenek hitz egin behar zuela eta erasan zion. Ordura arte, gizon harekiko gure harremanak guti edo urriak izan ziren; bera gurekin adeitsu, gu berarekin berdin.

Goiz haretan Gilen ondoratu[2697] zitzaionean, bere baldernako edozein lekaidek egingo zuena legez egin zuen. Sehiburuak gaitzitua irudi zuen, halako trebetasun[2698] edo nabastarreagatik, eta hasieran hagitz zuhurkiro erantzun zuen.

— Antza denez[2699], zure lanbideak bultzaturik, nonbait, abadian hara-hona ibili ohi zara, bai eta besteak lotan dagozenean ere –Gilen hari mintzo.

2696Erasan: hacer decir /… afectar...
2697Ondoratu: (H. “abordar”)
2698Trebetasun: nabastarre (H. “confianza”) (Famiiaridad...)
2699Antza denez: (H. “supongo”)

— Hori nola den –Remigiok ihardetsi zion–, batzuetan arazottorean bat edo bat egoiten da, konponkizun, eta nire loaldiko oren batzuk eman behar ukaiten dizkiot.

— Ez zaizua inoiz gertatu ezer, halako joan-etorrietan, nor dabilen jakiteko era izan daitekeenik, zure aitzakiarik bage, sukaldetik liburutegira?

— Ezer ikusi ukan banu, Abadeari esan niokeen.

— Ederki –onartu zuen Gilenek, eta hitzez beste egin, brauki[2700]–: Beheko baserria ez da oso-oso aberatsa, ez da?

— Bai eta ez, prebendadunak[2701] badira batzuk abadiaren pentzudan[2702], eta urte oparoetan gure aberastasuna elkarbanatzen[2703] dute. Esate baterako, Jaun Done Jonen egunean hamabi moiu[2704] garagar, zaldi bat, zazpi idi, zezen bat, lau bigantxa, bost txekor, hogei ardi, hamabost urde, berrogeita hamar oilasko eta hamazazpi erlauntz jaso zituzten. Eta, gainera, hogei zerri keztatu, hogeita zazpi

2700Brauki: (H. “abruptamente”)
2701Prebendadun: prebendado (Prebenda)
2702Pentzudan: (H. “ dependen de”)
2703Elkarbanatu: compartir
2704Moiu: moyo (neurri bat) (moiu garagar: moyo de malta)

eskutada[2705] urde-gantz[2706], neurri[2707] erdi bat ezti, hiru neurri xaboi, arrantzarako sare bat…

— Badut ulertzen, ulertzen dut –Gilenek eten zuen–, horrela ere aitortu behar duzu horrezaz oraindik ez dudala baserriko egoera zein den jakin, zenbat herrritar den abadiaren pentzudako, eta zenbateko lursail dadukaten prebendadun ez direnek...

— Ho! Horrixe buruz, zera, etxe arrunt batek berrogeita hamar bat lursail edo txantel[2708] daduka.

— Zenbat da txantela?

— Lau trabuko[2709] karratu, jakina.

— Trabuko karratu? Eta zenbat da hori?

— Hogeita hamasei oin karratu trabukoko. Edo, nahi baduzu, zortziehun trabuko lerro, hots, milia piamontar bat. Atera kontuak: sendi batek iparraldeko soroetan olibak bilduz gurbil[2710] erdi bat olio gutienez lortu ahal du.

— Gurbil erdi?

2705Eskutada: (H. “horma”) (?)
2706Gantz: manteca
2707Neurri: (H. “medida”)
2708Txantel: cuadro -tabla- de huerta o campo labrado
2709Trabuko: neurri bat (?)
2710Gurbil: cántara (?) (H. “costal”) (?¡)

— Bai, gurbil batek bost emina[2711] balio du, eta eminak zortzi txol[2712].

— Badut ulertzen –atzera nire maisuak adoregetuxea[2713]–. Herrialde bakoitzak bere neurkinak ditu. Zuk, adibidez, ardoa otxabatan[2714] neurtzen duzu?

— Edo errubiatan. Sei errubiak brenta bat balio du, eta zortzi brenta botal bat dira. Nahi baduzu, errubo batek bi otxabako sei pinta adinako balioa du.

— Ulertu dudala uste dut –gehitu zuen Gilenek etsiturik laso.

— Nahi al duzu gehiagorik jakin? –Remigio galdeka, eta ahotsean ñabardura erronkatsu bat nabaritu nion.

— Bai! Galdetu dizut ea nola bizi diren behealdean, zeren, egun liburutegian Humbert de Romnas-en predikuez gogoetan aritu bainaiz, emakumezkoei egiten zizkienak alegia, batez ere honako atal honetaz: *Ad mulieres pauperes in villulis*[2715]. Dioenez, honelako emaztekiak besteak baino aiseago haragiaren bekatutan erortzeko arriskuan dagoz,

2711Emina: hemina (neurri bat) (?)
2712Txol: copa (?)
2713Adoregetu: desalentar (N) (?) (+ge+tu / ga+tu ?)
2714Otxaba: azumbre (neurri bat)
2715«Baserrietako emakume txiroei.»

apoita dela eta, hots, behartsuak direlako hain zuzen. Eta adimen handiz dio: *peccant enim mortaliter, cum peccant cum quocumque laico, mortalius vero quando cum Clerico in sacris ordinibus constituto, maxime vero quando cum Religioso mundo mortuo*[2716]. Nik baino hobeki dakizu honelako leku santuetan, abadietan, deabruaren kitzikaldi bagerik ez dagoena. Ene buruari galdez, ea zuk baserriko jendearekiko zeure harremanetan ez duzun entzun deus, Jainkoari nahi ez dakiola, zeinbait fraideri buruz, zeinbait neska larrutan egiteko bultzatu duenik edo.

Nire maisuak hori guztiori nolabaiteko hizkera ezaxolatiz[2717] esan zuen arren, hau irakurten ari zaren horrek igarria ukanen ahal duzu zein aztoragarri izan zitzaizkion sehiburu gaixoari ele horiek guztiak. Ez dezaket esan zurbildu zen, baina, zurbilduko zela uste nuenez zurbildu zela uste ukan nuen.

— Galdetzen didazun hori, jakin banu, Abadeari esan niokeen –apal antxo erantzun zuen–. Dena delarik ere, jakingarri horiek zure bilaketarako baliagarriak badira, uste

2716«bekatu egiten dute, bai, hilgarriro, edozein laikorekin bekatu egitean, baina, are handiagoa bekatua elizgizon batekikoan, eta are askoz larriagoa mundutik at hilik bizi den elizgizon batekin egiten dutenean».

2717Ezaxolati: (H. “distraído”)

dudana, nik dakidan edo dakikedan ezer ez dizut ostenduko. Areago, aipatu didazunez, zure lehen galderaz… Adelmo hil zen gauean ni larrainean nenbilen… Badakizu, oiloen zera bat… Zurrumurru bat heldu zitzaidan, gauez arotz edo errementari bat oiloen lapurtzera sartzen zela zioena… Bada, gau haretantxe, urrundik, urkusi nuen, beraz ezin dut zin egin, Berengario, logelara itzultzean, koruaren ostetik, Eraikinerean etorriz antza… Ez zitzaidan harritu, izan ere, esamesak baziren, izan, Berengarioz, beharbada honez gero jakin baduzunez…

— Ez, esaidazu.

— Bo[2718], nola esango nizuke? Susmoa zen, ezen, Berengariok grina batzuk elikatzen zituela… fraideri on heltzen[2719] ez zaizkionak.

— Zer adiarazi nahi didazu, baserriko neskekin harremanak zituela, oraintsu galdetu dizudan bezala?

Sehiburuak eztul egin zuen, ezeroso, eta ezpainetan irri xuri lixun xamarra marraztu zuen:

— Ho[2720], ez…! Are ezegokiagoko grinak...

2718Bo: ¡Bah! (indiferencia, despreocupación); ¡bueno! (conformidad o asentimiento); ¡anda!, ¡quita! (duda o rechazo).
2719On heldu: (H. “conviene”)

— Zergatik? Neskekin haragiz atsegin hartzen duen fraidek, beste era batera nolabait egokiak diren grina batzuk ordea asetzen dituelako?

— Ez dut hori esan, baina zerorrek ere badakizu gaiztakerietan mailak direna, ontasunetan dagozen bezalaxe. Haragia kitzikatzeko bada era naturala eta… naturaz bestelako era.

— Berengariok bere haragizko irritsaz bere sexu bereko norbait nahiago zuela diostazu?

— Zurrumurrua hori zela diotzut… Eta honetaz mintzatzen banatzaizu, nire benetakotasuna eta gogo ona erakusteagatik da.

— Eta nik eskertzen dizut. Eta zurekin bat nator, bai, sodomia bekatua haragikerietan besteak baino askoz gaiztoagoa dela; niri, aldiz haietaz aztertzeko axola handirik ez zait...

— Txatxarkeriak[2721], txatxarkeriak, non nahi diren ere –esan zuen sehiburuak filosofiaz.

2720Ho: (Exc.de sorpresa; se emplea tbn. como muletilla al comienzo de una frase). v. bueno, bon. // Deitzeko ere bai.

2721Txatxarkeria: (H. “miserias”)

— Txatxarkeriak, Remigio, Guztiok bekatari. Ez nuke bilatuko beste anaien bartzik[2722], nire buruan zorriak daduzkadan beldurrez. Baina zorriz eta bartzez gehiago esan nahi badiezadazu eskertuko dizut. Hemen enbor handi-sendoez mintzatuko gara, lastoak eta galtzuak haizeak eraman ditzan utziko dugu. Zenbat esan duzu dela neurriz trabukoa?

— Hogeita hamasei oin karratu. Baina ez zaitez ardura. Zerbait berezi jakin nahi dezazunean, zatozkidake ikustera. Adiskide zintzotzat har albainazazu.

— Horelakotzat zaduzkat –Gilenek gogotsu–. Ubertinok esan didanez, garai batean nire baldernakoa zinen. Aspaldiko anaia ez nuke salduko inoiz, eta ez orain, bereziki, Aitasantuaren ordezkaritza bat etorteko dela, inkisidore handi eta hainbat dultzindar erre duelako ospetsu bat buru duelarik. Trabukoa hogeita hamasei oin karratu adina dela esan duzu?

Sehiburua ez zen kokoloa. Katu-saguka jolasteari eragon[2723] behar ez zuela erabaki zuen, sagua bera zela susmatzen hasia zelako, batez ere.

2722"Besteren bartzak ikusten, eta bere zorriak ez". Bartz: liendre, zorrikume (H. “paja en ojo ajeno...”)
2723Erago(n): insistir-seguir /...

— Frai Gilen –esan zuen–, nik uste nuen baino gehiago dakizula dakusat. Ez nazazu sal eta ez zaitut salduko. Egia da, haragizko gizon gaixoa nauzu, gizaixoa, eta haragiaren txera guztiei amor emaiten diet. Salbatorek jakinarazi didanez, bart zuk zeure fraidegaiagaz sukaldean ezustean atzeman zenuen. Bidaia ugari-luzeak egin dituzu, Gilen, eta badakizu Avignongo kardinalak ere ontasun eredu ez direna. Badakit zure galderok bekatutto txatxar batzuongatik ez direna. Eta ohartu naiz, halaber, nire lehenaldiko bizitzaz zerbait jakin duzula. Bizitza gutiziatsua, frantziskotarrena. Antzina haretan txirotasunaren helburua sinesten nuen; balderna utzi nuen eta alderrai ibili nintzen. Dultzinok predikatzen zuena sinetsi nuen, nire antzeko beste askok bezala. Ez naiz gizon landua, jantzia, ordenak hartu ditut baina ez dakit meza emaiten. Teologiaz ez dakit heuragi. Beharbada, ideiek edo aburuek ere ez didate axola handirik. Badakusazu, garai batean jaunen aurka matxinatzen saiatu izan nintzen, orain, berriz, beren morroi naute, eta lurralde hauetako jaunari zerbitzu egitearren ni bezalakoak direnen gainean jaun naiz eta agintzen dut. Matxinatu ala traditu[2724], xalook ez dugu aukerarik asko.

2724Traditu: traicionar

— Batzuetan inozoek doktoreek baino hobeki ulertzen dute –Gilenek esan zuen.

— Agian –erantzun zion sehiburuak sorbaldak uzkurturik–. Baina zergatik egin nuen jakin ere ez dakit. Begira, Salbatorerena ulergarri zen, haurtzaro behartsua, eta miseria gorrian bizi izan baitzuen, bere etorkikoak soroko jopuak[2725] ziren… Dultzino matxinada zen, eta herjaunen suntsiketa. Nirea bestelako zen, hiriko askazi batean sortua, ez nuen gosetik ihes egiten. Zera… nola esan, zoro jaia zen, inauteri polita… Han mendian, Dultzinorekin, borrokan hildako gure lagunen haragia jan beharrean egon baino lehen, hainbat eta hainbat goseak hil eta oro jan ezin genuenean eta honegatik Rebelloko malkarretan beheti egotzi behar genituenean, txoriek eta piztiek jan zitzaten… edo beharbada orduan ere… egurats bat arnasten genuen… Askatasuna esan dezaket? Lehenago ez nekien askatasuna zer zen. Predikariek hau esaten ziguten, honela: «Egiak askatuko zaitu.» Geure burua aske genekusan, eta egia zela uste genuen. Egiten genuen guztia zuzena zela uste genuen…

— Eta han hasi zinen… emaztekiekin batzen askatasunez? –galdetu nion, ia ohartzeke; aurreko gauean Ubertinok esan zidanagatik, artean, gogoa atzemanik, eta geroago

2725Soroko jopu: siervo de la gleba (N) (?)

*scriptorium*ean irakurri nuenagatik itsuturik, bai eta nik neronek bizi ukan nuenagatik ere.

Gilenek txunditurik laso begirati zidan, beharbada ez zuen uste ni hain ausart eta hain "arranpalo" izan nintekeenik, hots, nabarmenkoia[2726]. Sehiburuak begirakune[2727] egin zidan, piztia bakana banintzaio bezala.

— Rebellon –luzatu zen–, bazegoen jenderik haurtzaroan gela kaxkar batean hamarna edo gehiago lagun lo egiten etzaten zenik: anai-arrebak, aita-amak eta alabak. Nola nahi duzu har zezaten halakoek egoera berri hura? Orduan egiten zutena berek hautatzen zuten, lehenago behartuta egiten baitzuten. Eta gainera, gauez, etsaien gudarosteak noiz etorriko aiduru eta beldurrez zagozenean eta zure etzakidea[2728] estutzen duzunean, zoru-zoruan, hotz ez izaitearren… Heretikoek… Zuek fraidettoak gaztelu baterean etorri eta abadiaren batean geratzen zaretenak… deabruak iradokitako burubideak direlakoan zagozte. Baina bizitzeko molde bat da, eta zera da… izan da… esperientzia berri bat… Ez zegoen nagusirik, jaunik, eta Jaungoikoa, esaten ziguten, gurekin zegoen. Ez diot arrazoia genuenik, zuzen gengozenik, Gilen, eta, adibidez, hemen nagokizu.

2726Nabarmenkoi: (H. "indiscreto" (N) ("Arranpalo")
2727Begirakune: mirada (generalmente torva) /...
2728Etzakide: (H. "compañero") (Etzan+kide – bixikide...)

Luze bagerik utzi nituen, haiekandik alderatu nintzen. Alta bada, ez ditut inoiz ulertu zuen arteko eztabaidak, Kristoren txirotasunaz, eta “huntaz eta hartaz” eta zuzenbideaz eta bide zuzenaz[2729]. Inauteri handia izan zela esan dizut, eta inauterietan dena “aldrebes” egin ohi da, dena txatxukeria, dena hankaz gora eta alderantziz. Gero zahartu egiten zara, ez jakintsu, sabelkoi[2730] bilakatzen zara. Eta hemen sabelkoia naiz… Heretikoa kondena dezakezu, sabelkoia kondenatu nahi zenukea?

— Ongi da, Remigio –Gilen mintzo–. Ez dizut itaunketan orduan gertatu zenagatik, orain berrikitan gertatu denagatik baizen. Lagun egidazu, eta zin degizut zure kalterik bilatuko ez dudala. Ezin dut eta ez zaitut epaituko. Baina abadian gertatzen direnaz dakizun guztia jaulki behar didazu. Gauez eta egunez asko ibiltzen zara, hara-hona, deusik ez jakiteko. Nork hil zuen Benantzio?

— Ez dakit, zin degizut. Badakit noiz eta non il zen.

— Noiz? Non?

— Azalduko dizut. Gau haretan, konpletak bukatu eta ordubetera, sukaldera sartu nintzen...

2729Zuzenbide…: (H. “ del hecho y del derecho...”) (?)
2730Sabelkoi: glotón

— Nondik eta zertarako?

— Orturako atetik. Giltza dadukat arotzek aspaldi egina. Sukaldeko atea ez beste guztiak barrutik langaz itxita dagoz. Zertarako?… Ez dio axola, zerorrek ere esan duzu sakatu nahi ez nauzula nire haragiaren grinengatik… –ezeroso, irri egin zuen–. Horrelarik ere, ez nuke nahi zuk pentsatzea egunak larrua joz iragaiten ditudala… Gau haretan haragi puxka baten bila nenbilen Salbatorek barrutira sarturiko neskari oparitzearren.

— Nondik?

— Ho, atetzarra ez eze, harresian beste sargu batzuk ere badagoz. Abadeak badakizki, nik ere bai… Gau haretan, aldiz, neska ez zen etorri, nik neronek itzularazi nuen, zergatik eta orduantxe aurkitu nuenagatik hain zuzen ere. Oraintxe azalduko dizut. Haregatixe nahi ukan dut bart itzultzea. Pittin bat geroxeago heldu bazina, ni aurkitu nindukezun, ez Salbatore. Beronek ohartarazi nau Eraikinean jenderik zegoela, eta nire logelara itzuli naiz…

— Itzul gaitezen igande-asteleheneko gauera.

— Bada, ondo: sartu nintzen sukaldera, ikusi nuen Benantzio lurrean, hila.

— Sukaldean?

— Bai, harraska ondoan. Ausaz, *scriptorium*etik jaitsi berria zen.

— Ez ote zegoen borroka zantzurik?

— Ez. Hobeto esateko, hilotzaren ondoan hautsitako katilu bat zegoen, eta lurrean ur zantzuak.

— Nola dakizu ura zela?

— Ez dakit. Ura zela oldoztu nuen. Zer besterik izan zitekeen, ba?

Geroago Gilenek pentsarazi zidanez, katilu harek bi gauza esan nahi zezakeen. Bata, hantxe bertan, sukaldean, Benantziori norbaitek edateko zerbait eman ziola, edabe pozointsua, edo bestea, gaixoa edabea lehenago edanda zegoela (baina, non? eta noiz?) eta bat-bateko egartsua[2731] baretzeko edatera jaitsia zela, erraiak erretzen zizkiona, biltzinka[2732] gaiztoak eragiten zizkiona ibitzeko[2733] asmoarekin, arintzeko. Mingaina ere erreko zion (zeren, enura[2734] bagerik, harena ere Berengariorena bezala belztua izango baitzen).

2731Egartsu: sed abrasadora (egarri+su?)
2732Biltzinka: frantsesez "des spasmes" . JE Med 65.
2733Ibitu: calmar, apaciguar...
2734Enura: duda / perplejidad

Zena zela ere, orduan oraingoz jakin zitekeen guztia hura zen. Gorpua aurkitzean, Remigio, izu-lauorrian, zer egin ez zekiela gelditu zen, eta ezer ez egitea erabaki zuen. Laguntza eskatu izan balitz, gauez hara-hona Eraikinaren inguruan ibili ohi zela aitortu beharrean egon zatekeen, eta, bestalde, hildako anaiari ezin inola urgatzi. Beraz, oro zegoen bezala uztea erabaki zuen, biharamunean norbaitek hilotza aurkituko zuelakoan, ateak ireki baikoz. Berehala, Salbatoregana, ariniketan, neska abadiara sartzen ari baitzen eta atzerarazteko. Gero, biak, bera eta bere gaizkidea, lo egitera joan ziren, lo egin ahal bazuten, izan ere, gau hura gau-beila luzea izan baitzen, mtutietara artekoa. Eta matutietan, urdainek Abadeari gaztigatzera[2735] laster egin zutenean, Remigiok' berak utzitako lekuan aurkitu zutela uste ukan zuen. Upel baten barruan aurkitu zutena jakin zuenean harri eta zur gelditu zen. Nork idoki zuen sukalderean gorpua? Honetaz Remigiok ez zekien fitsik.

— Eraikinean bere kasa ibil daitekeen bakarra Malakias da –esan zuen Gilenek.

Sehiburuak adorez atzera esan[2736] zion:

2735Gaztigatu: avisar...
2736Atzera esan: (H. "reaccionar")

—Ez, Malakias ez. Hots, zera, ez dut uste… Dena den, nik ez dizut ezer esan Malakiasen aurka…

— Lasai zaitez, Malakiasekin zein nahi zor duzun ere. Zutaz ezer al daki?

— Bai –sehiburuak lotsagorririk erantzun– eta beti gizon zuhurra izan da. Zure lekuan banengo, Bentzio zelatatuko nuke. Berengario eta Benantziorekin harreman bakanak zituen… Baina zin degizut nk ikusitako guztia hau dela. Zerbaiten berri jasoz gero, esan egingo dizut.

— Oraingoz nahikoa. Behar zaitzadanean, zure bila natorke.

Sehiburua, lasaituxea, nonbait, bere atazetara itzuli zen. Baserritarrei ateleka[2737] egin zien, latz, bien bitartean ez dakit zein-zelako zaku bete hazi eroan baitzuten leku baterean bestera.

Hantxe heldu zen Seberino. Eskuan Gilenen betaurrekoak zekartzan, bi gau lehenago ostutakoak.

— Berengarioren soinean[2738] zegozen –esan zuen–. Sudurraren gainean ikusi nizkizun, lehengo egunean *scriptorium*ean. Zureak dira, ez da?

2737Ateleka egin: (H. “reprender”)
2738Soin: batzuetan “jantzia”, (H. “sayo”)

— Aintza Jainkoari! –Gilenek pozarren hots egin zuen–. Bi arazo konpondu ditugu! Badaduzkat nire betaurrekoak, eta badakit lehengo gauean *scriptorium*ean Berengariok ebatsi zizkidana!

Ez zuen esana bukatu eta bertatik bertara Nicola da Morimondo agertu zen, are Gilen baino pozikago. Eskuetan betaurreko bi, urkuluan ipinita, bukatuak:

— Gilen! –oihuz–. Lortu dut, nik bakarrik, prest dagoz, baliagarriak direla uste dut!

Orduan Gilenek beste betaurrreko batzuk zeduzkala ikusi zuen eta harriturik gelditu zen. Gilenek ez zuen motzik utzi[2739] nahi ukan Betaurreko zaharrak erantzi zituen eta berriak probatu:

— Besteak baino hobeak dira –esan zuen–. Honegatik, zaharrak gordeko ditut, badaezpada, eta zureak erabiliko ditut. –Gero niri mintzatuz–: Adso, orain nire gelara noak, orrialde haiek irakurtera. Azkenik! Itxaron hemen. Eta eskerrik asko, zuoi guztioi eskerrak, anaia maite-maiteok.

Tertzia ordua hots egiten ari zen eta kortxilarantz, korurantz esan nahi dut, abiatu nintzen, beste guztiekin batera salmoak, bertsikuluak eta Kyrie errezitatzera. Besteek

2739Motzik utzi: dejar en feo (N) (Gutietsi, arbuiatu...)

Berengario zenaren arimaren alde otoitz zegiten. Nik Jaungoikoari eskerrak nemaizkion, bi ez lau betaurreko aurkitzeagatik.

Baretasuna hain handia, nik entzun-ikusitako gauza itsusi guztiak atzendu nituen; loak hartu ninduen eta ofizioa amaitu arte ez nintzen esnatu. Bat-batean gogoratu nuen gau haretan ez nuela lorik egin, eta gainera nire indarrak lar[2740] erabili nituela pentsatze hutsak urduri jarten ninduen. Elizatik jalgi eta kanpoan neskaren oroitzapenak itsutzen[2741], buru-burutan sarturik nuen.

Adia galtzen[2742] saiatu nintzen, eta ibiltzen hasi, bixkor-bixkor ordekan. Zorabio ari antxo sumatzen nuen. Nire eskuak hotzak mindurik eta batak besteari ukaldika hasi nintzen. Lurrari ostikoka, putinka. Artean, logura bai baina itzarririk eta biziz beterik sentitzen nintzen. Ez nuen ulertzen zinez zer gertatzen ari zitzaidan.

2740Lar: demasiado (H. “abusado”)
2741Itsutu: (H. “obsesionar”)
2742Adi galdu: distraerse

LAUGARREN EGUNA

TERTZIA

Honako honetan, Adso maitasunaren oinazeetan hondoratzen da, eta gero Gilenek Benantzioren

testua ekarri du, deszifratu eta gero ere, artean, deszifragaitza dena.

Egiaz, nik neskarekin bekatuzko batzaldi hura burutu eta gero gertatu izan ziren izugarrikeriek batze haren oroitza doi ezabatu zuten, eta, bestalde, anaia Gilenekin konfesatu ondorean nire arima damuetatik askatu zen, halako hogen larria egin eta esnatu nintzenean damuak hartu baininduen, noraino askatu eta, hitzekin ere berari nire gaineko zama nolabait harendu[2743] niola sentitzeraino. Egiaz, zertarako da aitorpenaren garbialdia, bekatuaren zama eta honek ohi dakarren damua arintzeko ez bada, Gure Jaunaren beraren baitan, eta barkamenarekin arimak arintasun berri eta hegaldakorra irabaz dezan, makurkeriak[2744] oinazeturiko gorputza ahanzteko gauza ez bada? Nik, baina, ez nuen neure burua erabat askatu. Hauxe idaztean, neguko goizeko eguzki hits eta hotzaren azpian hara-hona nenbilenean, gizon eta abereen joan-etorrietako zarata artean, aspaldi eta egoera oso ezberdinetan gertatu haiek guztiak gogora itzuli zitzaizkidan. Gertatu zen guztitik ez damurik ez penitentziazko hitz kontsolagarrirrik geratuko ez balitz

2743Harendu (H. “transferir”) (Besterendu, inorendu – niretu, zuretu...)
2744Makurkeria: (H. “iniquidad”)

bezala, giza-soina eta soin atalen irudiak baino ez. Nire guztiz aztoratuaren aurrean dantzan, urez hanpatua, Berengarioren mamua, eta nazkaz zein errukiz zirgit[2745] egiten nuen. Gero, halako iratxo[2746] harengandik ihes bezala, nire gogoak beste irudi batzuk bilatzen zituen, oroimenaren gordetegian artean kokaberri[2747] izan zitezkeenak, eta nire begiek (arimarenak diot baina aurpegikoak ere esan behar nuke, ia) ezin zuten neskaren irudia ikusteke utzi, ederra eta izugarria, gudukarako gerturiko gudarostea bezalakoa.

Kronikari zintzoa izaitera itzeradoki[2748] naiz (orain arte inoiz idatzi bageko testu bateko idazmutil zahar hau, baina hamarrurteko luzeetan nire gogoaren barrenean mintzatzen ari izan den testua), eta egiarenganako maitasunagatik ez ezik, eta nire irakurlegai izango direnei irakasteagatik ez ezik (hau ere zeharo zilegia) beste xede batzuk ere bai, hots, nire oroimen zimel eta ahitua[2749] bizialdi osoan axaxa[2750] eman dioten ikuspen horietatik jaregiteagatik. Horrenbestez, dena esan behar dut,

2745Zirgit egin: estremecer, conmoverse
2746Iratxo: duende (H. “lémur”)
2747Kokaberri: recién instaladas (H. “frescas”) (N) (?)
2748Itzeradoki: Obligarse, comprometerse. "Obligé envers quelqu'un, ou qui est tenu de faire quelque chose". // Itzeuki: De hitz + e(d)uki; Considerar, juzgar.

2749Ahitu: (H. “fatigada”) (Agotada, acabada...)
2750Axaxa eman: hostigar (Zirikatu, kitzikatu, kinatu...)

dezentziaz baina ez lotsarik bagez. Eta, orain eta hizki oso garbiz, orduan neure baitan ere ezkutatzea pentsatu eta abantzu saiatu nintzena esan behar dut. Ordekan zehar noraezean nenbilela, bat-batean lasterrari emanez nire gorputzaren dardarak bihotzaren taupaden eragile zirela neure buruari pentsarazi nahiz, eta bat-batean geldituz nekazariak zertan ari ziren begiesteko eta haiei begira patxadatsu nengoelako itxura eginez, egurats hoxpila birika betez arnasten nuen, bere beldurra edo mina atzendu nahiz ardoa edaten duenaren antzera.

Alperrik. Neska beti gogoan. Nire haragiak atsegina ahantzia zuen, harekin batzeak deretxatu[2751] atsegin sutsu, bekatukoi eta iheskorra (gauza doilorra) baina nire arimak ez zuen haren aurpegia ahantzi, eta oroitzapen honek ez zirudien maltzur, alderantziz baizik: arima pilpirarazten[2752] zuen aurpegi hura Sorkuntzako gozotasun guztiaren isla bailitzan.

Nahas-mahas eta sentitzen ari nintzen egia onartzera ia ukaturik, aurkitu nuen izaki txiro, zikin, likits hura beste bekatari batzuei bere gorputza saltzen zien hura (beharbada zein konstantzia maltzurrez), Ebaren alaba hura, bere ahizpa

2751Deretxatu: deparar (?)
2752Pilpiratu: palpitar...

guztiak bezain ahul-ahula, bere haragia salgai hainbatetan ezarten zuena, hala eta guztiz ere, zerbait miresgarri eta jaukala[2753] zela. Nire adimenak bazekien bekatuaren pizgarri[2754] zena, baina nire irritsak[2755] harengan dohain guztien ontzia ikusten zuen. Zaila da orduan nik sumatzen nuena azaltzea. Idatz nezake, edo saiatu bederen, bekatuaren sareetan gatibu, berriz ere edozein unetan ager zekidan gura nuela, bekatuzko gura[2756], eta langileen lana ere ia zelatatzen nuen, ea txabola baten ondotik edo ukuilu ostetik, ni liluratu ninduen irudia agertzen zen. Ez nuke, ordea, egia idatziko edo haren indarra eta ebidentzia moteltzeko estaltzen arituko nintzateke. Zeren, egia nik hura «ikusten nuela» baitzen, zuhaitz biluziaren adarretan ikusten nuena, txolarre[2757] hozminduren bat aterpe bila haietan hegaldatzen denean bare-bare pilpiratzen diren adarrak; ukuilutik ateratzen ziren bigantxen[2758] begietan ikusten nuen, eta nire bidean zeharkatzen ziren bildotsen bekadetan[2759] entzuten nuen. Sorkuntza guztia haretaz mintzatzen zitzaidala zirudien, eta gura nuen, bai, berriro ikusi, baina

2753Jaukal: (H. “espléndido”) (?)
2754Pizgarri: (H. “pábulo”)
2755Irrits: (H. “apetito sensitivo”)
2756Bekatuzko gura: (H. “pecaminosamente”)
2757Txolarre: gorrión (Horma-txori, txorrotxoi...)
2758Bigantxa: novilla, vaquilla (Biga)
2759Bekada: balido (marraka, janba...)

beste behin inoiz ere ez ikusiko ez nuela onartzeko prest nengoen, gehiagotan harekin bat ezin negikeela, beti ere goiz haretan sumatzen nuen eta gainez egiten zidan gozotasuna sentitu ahal nuelarik, beti hurbil ukan nahi nuen, nahiz eta betiereko, niregandik urrun egon. Mundu guztiak harako aurpegiaz, sukaldeko ilunpe usaintsuan doi-doi ikusi nuenaz, hitz egiten[2760] balit bezala zen, orain ulertzen saiatzen naiz; Jainkoak idatzitako liburu bat bezalakoa, doike, den mundua, non gauza bakoitzak bere Irazailearen[2761] ontasun eskergeaz hitz egiten digun eta non irazaki bakoitza bizitzaren eta heriotzaren izkribu eta ispilu bat den, non arrosarik apalena gure lurretiko iraganaldiaren glosa bihurtzen den. Honelako fantasietan murgiltzen nintzen, neure baitan esanez (hobeto esateko, ez nuen esaten, zeren amets hutsak baitziren, hitzez ezin adiarazi ukaiten nituenak) ezen, mundu guztiak Irazailearen ahalgoaz, ontasunaz eta jakituraz hitz egiten bazidan, eta goiz haretan mundu guztiak neskaz hitz egiten bazidan berau ere (bekatari izan arren) Sorkuntzaren liburu handi-handiko atal bat zela, kosmosak soinututako salmo handiko bertsikulu bat… Neure buruari esaten nion (orain diot) hala gertatzen bazen unibertsoa kudeatzen duen xede teofaniko

2760-Ten balit orainaldian / Egingo balit -hipotetikoa edo geroaldia (N)
2761Irazan: crear, hacer ser (Izan+ra) (Irazaile: sortzaile)

handian aurrikusita dagoelako dela, ezinbestean, izan ere unibertsoaren atalak, lira bateko hariak bezala ipinita, kontsonantzia eta harmoniazko mirari dira. Horditurik antzo, gozartzen nuen ikusten nituen gauza guztietan neskaren presentzia, eta haietan ikusiz, hura ikusi gura nuenez, nire guraria betetzen zen. Eta, hala ere, hainbat zorionen artean, nolabaiteko oinaze bat sumatzen nuen, presentzia bateko mamu haien guztien artean, ausentzia baten zantzu mingarria. Kontraesan misteriotsu hau azaltzea zail zait, giza-gogoa hauskor xamarra delako ezagugarria, eta gogo horrek ez baititu inoiz ibiltzen tinel[2762] jainkozko arrazoiaren bide-zidorrak, arrazoi honek mundua silogismo egin-egina bezala eraiki baitu, eta honegatik erraz da ulertzen gu gaizkinak bilbatzen dituen ameskerien biktima garela. Gaizkinak ezarri zimarkua[2763] ote nuen goiz haretan hala asaldarazten[2764] ninduen hura? Orain baietz uste dut, orduan fraidegai baino ez nintzen eta; baina, halaber pentsatzen dut orduan jo ninduen giza-sentimendua, berez, gaizto ez zela, nengoen egoeran nengoelako soilik zela gaizto. Izan, berez, gizakumea emakumearengana bultzatzen duen joera bera da, biok bat dagiten, jentilen apostoluak nahi bezala, eta haragi

2762Tinel: (H. “puntualmente”)
2763Zimarku: trampa, engaño
2764Asaldarazi: perturbar

biak bat izan daitezen, eta batuz gizaki berriak sorraraz ditzaten, eta elkarri lagun degioten, gaztarodanik zahartzaro arte. Apostoluak, baina, irriskeria[2765] sendatzeko erremedio eske dabiltzanak gogoan zituela eta erre nahi ez dena ere gogoan esan zuen, baina ez zuen esateke ahantzi kastitatea nahiago zuela, askoz ere hautatzekoagoa dela; eta ni, fraide nahi, egoera horretara emana nengoen. Horrenbestez, bada, goiz haretan mintzen ninduena niretzat kaltegarri zen, baina agian on, biziki on, besterentzat, eta honegatik orain sumatzen dut nire pentsamenduen txatxarkeriagatik[2766] ez zela, zintzoak eta atsegingarriak baitziren, beste zera bategatik, hots, nire pentsamenduen eta nik emandako eliz-botoen arteko harreman txatxarrengatik baizik. Ondorioz, alde batetik gozo eta bestetik gazi zen zerbaitez gozatzea txarki egiten nuen. Nire hogena, hala, arima arrazoidunak agintzen zidana eta berezko irritsa kontziliatzen saiatzea izan zen. Orain badakit nire oinazea bi gurariren arteko talkatik zetorkidana: alde batetik gogo nahikeria nuen nahimenaren indarrez azpiratu behar nuena, eta beste aldetik, senaren nahikeria, giza-grinen mendean dagoena. Halaxe, *actus appetiti sensitivi in quantum habent transmutationem corporalem annexam, passiones dicuntur,*

2765Irriskeria: concupiscencia
2766Txatxarkeria: (H. “perversidad”)

non autem actus voluntatis[2767]. Eta nire gurariaren egitada gorputz osoaren ikararekin baterakoa zen, soinaren bulkada bat zen, azkenean intziriez eta dardaraz azkentzen zena. Doktore aingeruzkoak dioenez, grinak, berez, ez dira txarrak, baina arima arrazoidunak gidaturiko nahimenak baretu behar ditu. Goiz haretan, alta, nire arima arrazoiduna abaildurak logaletuta zegoen, irrits suminkoia geldiarazten edo galgatzen zuen nekadurak jota, ongia eta gaizkia konkistatu beharreko helmugatzat harturiko irritsa zen, apeta odolberoa zen, ez irriskeria, haragi-apeta alegia, berau ongia eta gaizkia helburu ezagunak baitzituen.

Orduan nik erakutsi nuen arinkeria arduragea txurizkatze aldera, orain esan dezaket, aingeruzko doktorearen hitzetara atzera joz[2768], maitazarreak hartuta nengoen, doike, grina eta lege kosmikoa baita, izan ere, gorputzen larritasuna ere maitasun naturala da. Eta grina horrek berez ninduen lilurarazi, zeren *appetitus tendit in appetibile realiter consequendum ut sit ibi finis motus*[2769]. Horrelaxe bada[2770], noski, maitazarreak *facit quod ipsae res*

2767«Senaren egitadak, gorputzaren izaeraldaketa eragiten dutenez, grina esaten zaienak dira, bain ez nahimenaren egitadak».

2768Hitzetara atzera jo: remitir a las palabras (?) (N)

2769«gurariak guragarri dena zinez lortzera egin ohi du, joeraren azkena hantxe egon dadintzat».

2770Horrelaxe, bada: (H. “en virtu de lo cual...”)

quae amantur, amanti aliquo modo uniantur et amor est magis cognitivus quam cognitio[2771]. Egiaz, une haretan neska aurreko gauean baino askoz hobeki nekusan, eta ulertzen nion *intus et in cute*[2772], zeren harengan neure burua ere ulertzen bainuen eta niregan hura bera. Orain neure buruari galdez ea orduan sentitzen nuena adiskide maitasuna zen, beronetan berdinen arteko elkar maitatzea baita, batak bestearen ongia baino ez baitu nahi, edo, bestela, irriskeriazko maitazarrea zen, nork bere ongi berea nahikoa eta peitu duena besterengandik hartu nahi baitu. Eta irriskeria gaueko maitaldia izan zela uste dut, neskarengandik artean inoiz ukan ez nuena nahi bainuen, baina goiz haretan, alderantziz, neskarengandik ez nuen ezer nahi, haren ongia baino ez. Janari apur baten truke bere soina emaiteko premia anker haretatik jareginik ikusi nahi nuen, zoriontsu izan zedin nahi nuen, eta, aurrerantzean ezer ez nion eskatu nahi, nire gogoa berarengan izaitea, eta ardiengan, idiengan, zuhaitzengan bera ikusten eragon nahi nuen, eta abadiako barrutia pozez inguratzen zuen argitasun barean orobat.

2771«maitazarreak maiteak diren gauzak nolabait maitatzaileari atxiki dakizkion egiten du eta maitasuna ezagumena baino gehiago ezaguera da». (Ezaguera: (H. “cognitivo”) (??)

2772«barruan eta bere larruan».

Orain badakit maitasunaren zergatikoa[2773] ongia dena; eta ongia ezagumenak zehazten du, eta ona dela ikasi[2774] dena baizik ezin da maitatu, eta neskari… Bai, gurari suminkoirako ona zela ikasi nuen, baina, era berean, nahimenerako txarra zela. Alabaina, orduan nire arima hainbat eta hain hala-holako higiduren artean asaldatzen bazen, zeragatik zen: nik sentitzen nuena eta maitasun santua, doktoreek zehazten dutena, antz-antzekoak zirelako. Hau da, sorgortasuna[2775] eragiten zidan, maitatzaileak eta maitatuak gauza bera nahi duten kordegeunea[2776] (eta argiztapen misteriotsu bategatik, une haretantxe banekien neskak, zegoen lekuan zegoelarik, nik nahi nuen ber-bera nahi zuena), eta honek tuku[2777] emaiten zidan, ez tuku txarrik hala ere, bai Paulek kondenatu zituen haietarikoa, Korintiarrei igorri zien lehenengo gutunean, zeren, *principium contentionis* baitira, ez dute onartzen *consortium in amato*[2778], Dionisiok Jainkoen Izenak delakoan aipatu zituen haiek baizik, hor Jainkoak berak ere tukua duela

2773Zergatiko: (H. “la causa”)
2774Ikasi: (H. “aprehender”) (?)
2775Sorgortasun: (H. “éxtasis”) (?)
2776Kordegeune: éxtasis (korde+ge+une)
2777Tuku: (H. “celo”) (Recelo, sospecha…) (?)
2778«lehiakidekeriaren hatsarrea»; «maitatuaren partzuergoa».

baitio *propter multum amorem quem habet ad existentia*[2779] (eta nik neska maite nuen, izan bazelako hain zuzen, eta pozarren nengoen, ez bekaizturik, hura izan bazelako). Tukutsu nengoen, nola eta aingeruzko doktorearentzat tukuak *motus in amatum*[2780] bezala ziren, adiskidetasun tukuak, maite duzunari kalte legiokeen guztiaren aurka eginarazten duten tukuak (eta une haretan ez nuen besterik buruan neska jaregitea baizen, bere grina likitsez beraren haragia erosten zuen ahalgotik jaregitea).

Orain badakit, doktoreak dioen bezala, maitasunak, gehiegizko denean, maitatzailea kalte dezakeena. Eta nirea gehiegizkoa zen. Orduan sentitzen nuena azaltzen ahalagindu naiz, ez, inondik inora, sentimendu haiek txurizkatzen. Ene gaztaroan jasan ukan nituen sumin[2781] batzuez ari naiz. Txarrak ziren, baina, egiari zor, orduan oso on erizten nien. Eta hau izan dadila irakaskizun, ni bezala zirikapenen sareetara eror dadin ororentzat. Egun, zahartuta, halako axukaldiei ihes egiteko hainbat era ikasita nago (eta galdeka ni ea honegatik harrotu behar ote naizen deabruaren zirikapenek honez gero ez baitidate heltzen, baina bai beste batzuek; honenbestez, bada, orain nire galdera da ea une

2779«izan badenari dion maitasun handi-handiaren kariaz».
2780«maitatuarenganako higidura».
2781Sumin: (H. “ardores”)

honetan bekatu eginez grina lurtarrari emana ez ote naizen, lehenaldiaz mintzatuz, ergelkiro aldiaren eta heriotzaren joan-etorritik alde egin nahiz).

Ia sen miraritsu batek orduan gaizkatu ninduen. Neska izadian eta nire inguruko giza-gauzetan agertzen zitzaidan.

Hala, bada, arimaren usna[2782] zoriontsu batek bultzatua, giza-gauza horiek xehe-xehe begiestean murgiltzen saiatu nintzen. Unaien lana begiesten nuen, idiak itegitik[2783] idokitzen ari zirela; urdainena, urdeei ogalea[2784] zeramaieten bitartean; artzainena, ardiak biltzeko zakurrei xa-xa[2785] egiten zietenak; luginen lana ere ikuskatzen ari ni, garia[2786] eta artatxikia[2787] errotetara eramaitean, eta bertatik irin gozoz beteriko zakuekin ateratzean. Izadiaren begiestean murgildu nintzen, nire burubideak ahantzi nahiz, izakiari agertzen den bezalaxe begira, eta, begiesteaz, neure burua gozotoro atzentzen nuen.

2782Usna: (H. “intuición”)
2783I(di)tegi: establo de bueyes
2784Ogale: zerrientzako janaria
2785Xa-xa egin: xaxatu, zirikatu, haizatu….
2786Gari: (H. “escanda”)
2787Artatxiki: mijo

Zein ederra zen izadiaren ikusgaia[2788], gizakiaren jakituriak, maiz maltzur, ukitu bagea!

Bildotsa ikusi nuen, izena bera bere ontasun eta garbitasunaren aitorpena bezalakoa duena. Hala da, latinez *agnus* hitza *animal agnoscit*-etik eratorria da, artaldean bere amaren hotsa ezagunesten duelako, eta amak, bere aldetik, hainbat bildotsen artean, itxura eta janba[2789] bereko, beti bere kumea ezagunesten du eta jaten emaiten dio. Ardia ikusi nuen, *ovis* deritzona, hots, *ab oblatione*, zeren, antzina-antzinadanik erritu-sakrifizioetan biktima izan baita; ardia, bere senaz, negua heltzean belarra jan eta jan aritzen dena, izotzak larreko belarra erre dezan baino lehenago ase nahiz. Eta artaldeak zakurrek zainduta zegozen, eta horien izena, *canes*, *canor*[2790] hitzetik darator, zaunkagatik. Abere hau besteengandik bereizten eta nabaritzen da, oso adimenduna delako, bikaina, eta jabea nor duen zorrozki jakiten du, eta oihanetan piztiak ehizatzeko bezatua[2791] izan daiteke, artaldea otsoengandik babesteko halaber, eta, gainera, etxea zaintzen daki, eta ugazabaren umeak ere bai, eta batzuetan

2788Ikusgai: (H. “espectáculo”)

2789Janba: bekada, marraka, bakarra...

2790Agnus, ovis eta canes hitzen etimologiok erabat gezurrezkoak dira edo herri-xehearen asmakariak, azaleko itxura edo antzekotasunagatik sortuak, baina oinarri zientziazkorik bagekoak.

2791Bezatu: trebati...

haien zaintzan bizia bera ere gal dezake. Garamante erregea, etsaiek gatibu hartua, geroago berrehun zakurren saldo batek aberriratua izan zen, etsaien samalden[2792] artean bidea eginez. Jabea hilda, Jasonen zakur Liziok ez zuen gehiago jan nahi, eta goseak hil zuen; Lisimako erregearenak bere jabea kiskaltzen ari zen su-metara egotzi zuen bere burua harekin hiltzearren. Zakurrak bere zauria mingainez lamikatuz[2793] sendatzeko gaitasuna du, eta kumeen mihiak esteetako minen sendatzea badu. Bere izaitez[2794], janari bera birritan jateko ohitura du, oka egin eta gero. Soiltasun[2795] hau betegintzarre[2796] espiritualaren ezagugarria da, eta ahalmen taumaturgikoa, mihiarena, bekatuen garbiketarena den bezala, aitorpen eta penitentziaren bitartez lortzen dena. Baina zakurrak okatu duena berriz ere jateak besterik ere adiarazi nahi du, hots, aitorpenaren ondorean, atzera lehengo bekatuetara itzultzen dela. Ikaskizun hau oso baliagarri izan zitzaidan goiz haretan nire bihotzari ateleka egiteko, izadiaren ederresgaiak miresten nituen artean.

2792Samalda: saldo, andana, talde, eli...
2793Lamikatu: mihiztatu...
2794Izaitez: (H. “por naturalezza”)
2795Soiltasun: (H. “sobriedad”)
2796Betegintzarre: perfección

A eta bide batez[2797], nire urratsek itegietara ninderamaten, idiak tropelean ateratzen ari zirela, itzainek bideratu eta. Bat-batean ziren bezala ikusi nituen: adiskidetaasun eta ontasun ikur, zeren, lanekoan[2798] idi bakoitzak bere uztarkidea bilatzera bihurtzen eta, halabeharrez ondoan ez badago marrumaka deitzen baitio, amultsu. Idiek ikasten dute, esaneko, itegira bakarrik itzultzen, euria denean, eta itaska ondoan babesten dira, eta txitean-pitean burua bihurtzen dute, ea atertu den ikustearren, lanera itzuli nahiz. Idiekin zekorrak ere ateratzen; haien izena, latinez, *vitulus* da, zein arra zein eme izan, *viriditas* hitzetik eratorria edo *virgo* hitzetik ere bai, zeren, adin horretan, artean, gordin dira, gazte dira, aratz dira, eta arrunt gaizki egin nuen nik orduan, ene golkorako nioen, haien ibilkera zaluetan neska ez-aratz haren irudia ikusi bainuen. Honetaz guzti honetaz gogoeta ari nintzen, munduarekin eta neure buruarekin berradiskideturik, goizeko lan alaiak behatzen nitueino. Eta, hala, neskaz pentsatzeari utzi nion edo, hobeki esateko, harenganako nire grina barreneko gozamen sentimendu eta baretasun errukitsu[2799] bilakarazten[2800] ahalegindu nintzen.

2797A eta bide batez: a todo esto, por cierto, a propósito (Ha)
2798Lanekoan: lan egin bitartean (mezakoan, bazkarikoan...)
2799Errukitsu; piadoso (eraspentsu…) (?)
2800Bilakarazi: transformar

Mundua ona zela oldoztu nuen, eta miresgarria, Jaungoikoaren ontasuna piztia izugarrienengan ere agertzen dela, Autun-go Honoriok, Augustoduniensis deritzonak esan bezala. Egia da, badira suge hain handi-handiak oreinak irensten dituztenak eta ozeanoak zeharkatzen dituztenak; egia da zenokroka[2801] piztia izan badena, gorputza astoarena, basahuntzen[2802] adarrak, bular-ahutzak[2803] lehoienak, oinak zaldienak baina idienak bezala arrailduak[2804], ahoan pitzadura[2805] belarrietarainokoa, ahots ia gizakiarena eta hortzen lekuan hezur oso gogor bat daduzkana. Eta, izan, bada, mantikora esaten dioten piztia, giza-aurpegia dadukana, hiru lerro hortz-hagin, lehoiaren gorputza, arrabioaren[2806] isatsa, begi orlegiak[2807], larrua odol margokoa eta ahotsa sugeen txistua bezalakotsua, giza-haragiaren gutiziatsu[2808] den bidutzia. Eta badira zortzi behatzeko oinak dadutzaten munstroak, otso muturrekoak, gako antzeko hatzazalak dadutzatenak, ardi larru eta zakur erausi[2809], zahartzean zuritu ez belztu egiten direnak, guk

2801Zenokroka: mitologiako piztia bat (Cenocrota: leucrota:...)
2802Basahuntz: (H. “íbice”)
2803Ahutzak: fauces
2804Arraildu: (H. “hendido”) (Rajar…/…) (Pitzatu...)
2805Pitzadura: (H. “tajo”)
2806Arrabio: (H. “escorpión”) (Harruli: salamandra) (?)
2807Orlegi: (H. “glaucos”: verde) (Orri+ legi) (Ordin??)
2808Gutiziatsu: (H. “ávido”)
2809Erausi: (H: “ladrido”) (Hablar / mugir /...)

baino askozaz urte gehiago bizi dutenak. Eta badira izaki batzuk begiak sorbaldetan daduzkatenak, eta bularrean zulo bi sudur antzo, bururik ez eta. Beste batzuk Ganges ibaiaren uhaldeetan bizi direnak, sagar mota baten usainaz ez bestez elikatzen direlarik, eta mota horretatik urrun dagozenean hiltzen dira. Baina, horiek piztia higuingarri horiek guztiak, askotarikoak, Irazailearen aintza eta jakituria goresteari ekiten zaizkio, zakurra, idia, ardia, bildotsa eta lintzea[2810] bezala. Zein handia den, esan nion neure buruari, Vincenzo Belovacense-ren hitzak harturik, mundu honen edertasunik apalena, eta zein atseginez behatzen dituen arrazoiaren begiak gauzen modu, zenbaki eta erak, unibertso osoan harmonia handiz ipiniak, baina hauek ez ezik garaien joan-etorriak ere behatzen, gora eta behera, tai bage iragoz ibiltzen direnak, heriotzaren mendean, jaio izaiten den oro legez. Bere arimak laster haragi-kartzela hau utzi behar duen bekatari naizen aldetik, une haretan, aitor dut, Irazailearenganako samurtasun espiritualezko bultzada batek sutua[2811] sentitu nintzen, eta halaber mundu hau jaurtzen duen arauarenganakoa, eta begirunezko pozaz bete-beterik Sorkuntzaren oreka eta handitasuna ederresten nuen.

2810Lintze: lakoin (?)
2811Sutu: (H. “arrebatado”)

Hain halako aldarte[2812] on-onean nire maisuak aurkitu ninduen, nire urratsei jarraikiz eta konturatzeke, abadia ia osoa inguratu ondorean, bi oren lehenago elkarrengandik alderatu ginen leku berera itzulita. Hantxe Gilen, eta esan zidanak nire burubideak okerrarazi zizkidan, atzera abadiako misterio beltzetara[2813] itzularaziz.

Hagitz alai zirudien. Eskuan Benantzioren orria zedukan, azkenik deszifratu ahal ukan zuena. Haren gelara ginen, nahi-ezko[2814] entzulerengandik urrun nahi eta. Irakurri zuena itzuli zidan. Zodiakoko alfabetoz idatzitako esaldiaren ondoan (*secretum finis Africae manus supra idolum age primum et septimum de quatuor*), testuak grekotik honela zioen:

> *Pozoin ikaragarria garbikundea[2815] emaiten duena...*
>
> *Etsaia suntsitzeko iskilurik onena...*
>
> *Balia zaitez lagun apalez, doilorrez eta itsusiez, har ezazu atsegin haien hutsez… Ez zara hil behar… Ez*

2812Aldarte: (H. “disposición de ánimo”)
2813Beltz: (H. “tenebroso”) (Izugarri / goibel...)
2814Nahiezko entzule: (H.“oídos indiscretos”) (Arranpako...)
2815Garbikunde: purificación (Arazkunde?)

handikien eta boteretsuen etxeetan, landatarren baserrietan baizik, oparo jan-edan ondorean… Gorputz potoloak[2816]*, aurpegi marketsak*[2817]*.*

Neskutsak bortxatzen dituzte eta emagalduekin etzaten dira, ez maltzurrak, lotsa bageak.

Bestelako egia bat, egiaren bestelako irudi bat…

Pikondo gurgarriak.

Lotsabageko harria ordokian itzularrika[2818]*. Begien aurrean.*

Zilibokatu[2819] *behar da eta ziliboka ezustean harrapatu, uste ez bestela esan behar da, bata esan eta beste bata eduki buruan.*

Haientzat ttirrittek[2820] *lurretik txirrist*[2821] *eginen dute.*

Hori zen dena. Ene gardiz, gutiegi, ia deus ez. Zoroaren ameskeria zirudien, eta Gileni esan nion.

2816Potolo: rechoncho
2817Markets: deforme
2818Itzularrika: itzulika, pirrilaka...
2819Zilibokatu: engañar (zimardikatu, titulikatu...)
2820Ttirritta: cigarra (Larrepote, otti...)
2821Txirrist egin: (H. “cantar”)

— Beharbada. Eta nire itzulpenak haren zoroa larriagotzen dik. Nik gerkeraz dakidana guti gora-beherakoa duk. Hala ere, Benantzio zoraturik zegoela uste izanki[2822] ere, edo liburuaren egilea zoroa, jakiteke segituko genikek zergatik hainbat nordin, eta ez guztiak zoroak, hainbat eta hainbesteko ahaleginak egin eta liburua ostentzen saiatu izan diren, lehenik, eta geroenean berreskuratzeko.

— Esaldiok liburu misteriotsutikoak al dira?

— Ez zagok enurarik Benantziok idatziak direla. Herorrek ere ikus dezakek antzinako larrutx ez dela. Liburua irakurri bitartean hartu zituen oharrak bide-dituk; osterantzean, ez zitizkean gerkeraz idatzi. Jakina, Benantziok zeinbait esaldi, laburbilduz, kopiatu zian, *finis Africae*-tik ebatsitako liburukian aurkiturik. *Scriptorium*era eraman zian eta irakurten hasi zuan, eta garrantzitsutzat hartzen zuena urrazten[2823]. Geroago zerbait gertatu zuan. Edo gaizki sentitu, edo norbait igoz zerbait entzun. Orduan liburua ezkutatu zian, urrazkai[2824] edo ohartto haiekin batera, bere mahaiaren azpian, hurrengo gauean beste behin jasoteko asmoarekin, eiki. Dena dela, orri honetarean hasirik, ez bestela, dikeagu berreraiki liburu misteriotsuaren izaera, eta

2822Uste izanki: (H. “suponiendo”)
2823Urraztu: anotar (?)
2824Urrazkai: apunte (N) (?)

liburu horren izaera haintzat harturik baino ezin asma zezakeagu hiltzailearen nortasuna. Inola ere[2825], krimen guztietan, gauza batez jabetzeko egiten direnetan, gauza hori nolako-zertarako edo den jakiteak zerbait adiarazi behar ligukek, hiltzailea nolakotsua izan litekeen edo, axal-axaletik izan arren, irudikarazi. Ahurtada[2826] bete urregatik hiltzen denean hiltzailea aberats-nahi amorratua duk, aurki[2827]. Liburu bategatik hiltzen denean, hiltzaileak, nonbait, liburu horretako sekretuak beretzat gorde nahi ditik. Beraz, ez dadukagun liburu horrek zer dioen azkondatu[2828] beharra zagok.

— Eta lerro guti horietarean hasiz zein liburu den jakiteko gauza izanen zarea?

— Adso maite, hitzok, agidanean, liburu sakratu batetik jasoak dituk, eta hitzok hizkiek dioten baino harago zoazak. Goizeon irakurri ditudanean, sehiburuarekin mintzatu ondorean, zirrara eragin zidatek, haietan xaloak eta nekazariak aipatzen direlako, jakintsuen egiaz bestelako egiaren eramaileak zirela esanez. Sehiburuak aditzera eman zuenez, Malakiasekin nolabaiteko lotura hala-holako bat

2825Inola ere: sin duda, en efecto….(H. “Porque en...”)
2826Ahur: eskuaren azpiko aldea (H. “puñado”)
2827Aurki: probablemente /../…) (H. “debe de ser...”)
2828Azkondatu: averiguar

dik. Otean[2829], Malakiasek ostendu zuena inoiz Remigiok emaniko liburu heretikorean bat? Honela badadi, Benantziok irakurri eta urraztutakoa, jarraibide misteriotsu batzuk izango ahal zituan, ororen aurka eta guztien aurka matxinaturiko gizon landatarren elkargo batenak. Baina…

— Zer?

— Baina nire hipotesian sartzen ez diren bi zera zagozak. Bata, Benantziok halako arazotan zudu handirik ez zuela zirudiena: gerkerazko testuen itzultzailea zuan, ez zuan heresia-predikatzaile… Bestea, lehenengo hipotesi hau pikondozko edo harriezko edo ttirrittezko esaldien argigarri ez dena… Ez dik azaltzen zergatik dagozen hor...

— Agian enigmak dira eta beste gauza bat esan nahi dute –iradoki nion–. Edo beste hipotesirik al duzu?

— Bai, baina, oraingoz oso nahasia duk. Orrialde hau irakurrita, irudipena diat bertan dagozen hitz batzuk beste nonbait irakurri ditudala, esaldi batzuk beste nonbait berdinak ia ikusi uste ditiat. Uste, gainera, egunotan aipatu izan den zerbaitez hitz egiten dela hemen… Zer den, ordea, ez diat gogoratzen. Hauxe asmatu behar. Agian beste liburu batzuk irakurri beharko ditiat.

2829Otean: (H. “acaso”)

— Nola? Liburu batek zer dioen jakiteko beste libururik irakurri behar duzu?

— Batzuetan bai. Liburuek beste liburuez hitz egiten ditek. Maiz liburu kaltebage bat hazia bezalakoa duk, ernetzen denean liburu arriskutsu bat sorrarazten baitu, edo alderantziz, sustrai garratz baten emaitza gozoa duk. Albertorena irakurriz ez ote duk jakiten ahal Tomasek esan zuena? Edo Tomasena irakurriz Averroes-ek esan zuena?

— Egia duzu –esan nion miretsita.

Ordura arte beti uste ukan nuen edozein liburuk liburuetatik at zegozen gauzez, giza- nahiz jainko-, hitz egiten zuela. Bat-batean, ulertu nuen sarritan liburuak beste liburuez mintzatzen direla, hots, nolabait haien artean mintzatzen bezala. Gogoeton argiz, liburutegiak are kezkagarriago irudi zidan. Halaxe, bada, txutxumutxu luze eta etenbage bateko lekua zen, larrutxen arteko elkarrizketa entzungaitzekoa, gauza bizia, giza-adimenak mendean hartu ezin zuen ahalgo-ontzia zen, hainbat gogotatik sorturiko sekretuen altxorra, egileen edota hedatzaileen heriotzaz gain bizirik irauten dutenak.

— Baina, horrela bada –nik galde–, zertarako da liburuen ezkutatzea, ageri diren liburuetatik ezkutuetara irago ahal badaiteke?

— Mendeak badira, ezertarako ez; urteak eta egunak kontuan hartuz gero, zerbaitetarako izan daitekek. Azken baten[2830], badakusak bidea galdurik gagozela.

— Beraz, liburutegia ez da egia hedatzeko tresna, egia berantzekoa[2831] baizik? –galdetu nuen txunditu eta.

— Ez beti, ez baitezpada[2832]. Oraingo honetan, bai.

2830Azken baten: (H. “De hecho”)
2831Berandu: tarde / retardar / Belu – belutu : demorar / procrastinar?)
2832Baitezpada: (H. “necesariamente”)

LAUGARREN EGUNA

SESTA

Honetan Adso boilur-zun doa eta abadiara iritsi frantziskotar talde batekin buru dagi, eta haiek Gilen eta Ubertinorekin egindako elkarrizketa luze baten ondorean, Joan XXII.az gauza txit negargarri batzuk jakiten dira.

Burutapen[2833] haien ondorean, nire maisuak besterik ez egitea erabaki zuen. Esana dut batzuetan halako uneak zituela, ezer ez egitekoak, izarren ziklo taibagekoa gelditu balitz bezalakoa, eta bera haiekin eta haiek berarekin gelditu. Goiz haretan honela gertatu zen. Lastaira gainean etzan zen, hutsari begira, eskuak paparraldean antxumaturik, ezpainak doi-doi higitzen zituela, otoitz errezitatzen ari legez, baina hala-hola eta ez joranez[2834].

2833Burutapen: (H. ”consideraciones”)
2834Joran: afán, ahínco… (H. “devoción”)

Pentsatzen ari zela pentsatu nuen, eta haren gogartea[2835] errespetatzea erabaki nuen. Ukuiluetara itzuli nintzen eta eguzkiak argitzen ez zuela ikusi nuen. Goiza ederra izan zen eta garbia, baina orain (egunaren lehen erdia doi joana) heze eta lanbrotsu bihurtzen hasia. Iparrak hodei handiak zekartzan eta ordeka gainean jarririk, laino meheak oro estaliko zuen. Langarra zirudien, lurretik ere hezetasuna igaiten zela, baina garai haretan zaila zen goiko edo beheko lainoa bereiztea. Urrunttoago zegozen eraikinak ozta begiztatzen ziren.

Seberino ikusi nuen, urdain eta urde batzuk biltzen ari zela, alai bai alai[2836]. Boilur-zun joaiteko zirela esan zidan, mendi hegaletara eta ibarrera. Nik orduan ez nuen ezagutzen lurpeko fruitu gozo-gozo hori, basoetan hazten zena, eta beneditarren lurraldeetan bereziki tipikoa zirudiena, nahiz Norcian –beltza– nahiz nengoen alderdian –zuriagoa eta usaintsuagoa–. Seberinok azaldu zidan zer zen eta zein gozoa zen, era askoz prestatua. Eta edireiten zaila zela esan zidan, lurpean, zizak baino sakonago ezkutatzen baitzen, eta ediren nahi bazen abere bakarrak, usnamenagatik, zerriak zirela. Baina, edireiten zutenean jan

2835Gogarte: meditación
2836Alai bai alai: (H. “muy animado”)

nahi ukaiten zuten, eta berehala alde eragin behar zieten, lurpetik jaso aitzin. Geroago jakin nuenez, zaldunik asko ibili ohi zen halako ehizan eta urdeen atzetik, enda on-oneko zakur ehiztarien atzetik balitz bezala, eta zaldunei jarraikiz morroiak haitzurrak eskuetan. Gogoan dut, urte batzuk geroago, nire herrialdeko jaun batek, Italian egondakoa nintzela jakinik, ea han jaun handiak zerriak bazkatzera landetaratzen zirela ikusi al nuen galdetu zidan, eta barreka hasi nintzen, ulertu, boilur bilketaz ari zela ulertu bainuen. Baina, jaun haiek lurpean zegoen «trufa», han boilurrari honela esaten baitiote, gogo handiz bilatzen dutela esan nionean, gero jateko asmoarekin, «Teufel» ulertu zuen, antza, hots, deabrua edo tusuria, eta aitaren egin zuen, joran handiz, niri harri eta zur begi-begira zegokidala. Okerra zuzendu nion, eta biok barrez lehertu ginen. Giza-hizkuntzak halakoxeak dira, izan, magia, eta maiz, gizakien arteko ituna dela eta, hots berdinek gauza ezberdinak esan nahi dituzte.

Seberinoren prestamen haiengatik antsiatsu[2837], hari jarraikitzea erabaki nuen. Joaitaldi harezaz, gainera, gure gainean larriki jasan behar genituen gertaera ilunak nolabait atzendu nahi zituela ulertu nuen, eta haren pentsamenduak

2837Antsiatsu: (H. “intrigado”)

atzentzen laguntzen banion nireak ere, agian, ahantzi ezin banituen ere, baretu ahal izango nituela uste nuen. Ez dut ostendu nahi, halaber, egia baino ez idaztea, eta egia hutsa, erabakita nagoenez, sakonean, ibarrean egon eta gero, agian, urrundik bazatekeen ere, harako lagun bat ikusterik ukanen ote nuen gogotsu nengoen. Baina ene baitarako eta ia-ia ozengi, egun haretan bi ordezkaritzak etortekoak zirenez, esan nuen, agian haietako baten edo baten iristea ikus nezakeen.

Hegaletan behera gindoazela, zeharka-meharka, eguratsa gero eta garbiago, ez eguzkia agertzen zelako, ortzia hodeiez betea baitzen, bai lainoa gure gainean geratzen zelako, eta gauzak argiroago genekusatzan. Eta, areago, zati bat beheratu ondorean, mendi gaina ikusteko burua bihurtu nuen, eta ez nuen ezer ikusi: hegal erditik gora, ez gaina, ez ordeka, ez Eraikina, oro hodeien artean itzaldua, suntsitua zen.

Lehenbiziz haretara ginen goizean, mendiz mendi igaitean, artean agerian, bide-bihurgune batzuetatik, hamar miliatara baino ez gehiago, edo gutiago, itsasoa zegoen. Gure bidaldia ezustekoz betea izan zen, zeren, bertatik bertara goi ordoki edo zabaltza antzeko batean gengozen,

eta barrenetan ederretan ederrak ziren itsas-golkoak ikusten ziren, eta harik hara mehaka sakonetan sartzen ginen, zintzur meharrak mendiak doi-doi elkar ukitzerainokoak, eta itsas-hegiak urkusi ez, eta eguzkiak ozta-ozta joiten zuen haran sakonetan. Inon ez hango aurkintzan bezala ikusia nuen nik Italian itsasoaren eta mendien arteko elkarrukitzerik, hain itsas-hegien eta mendi-hegien arteko lotura sakonik, eta mendarteetan txistu egiten zuen haizean itsasoaren marruma[2838] bareak eta gainetatiko putz hotz-hotzak bat egiten zutela zirudien.

Goiz haretan, berriz, zen guztia hitsa zen, esnea bezain zuria abantzu, eta ez zegoen hodeiertzik, urruneko itsas-hegien alderantz mehakak zabaltzen zirenean ere ortzimugarik ez. Baina, oroitzapenetan luzegitzen naiz, historia honetarako axolarik ez dutenetan hain zuzen, ene jaulkipen honen irakurle egonarritsu.

Alta, bada, ez naiz luzatuko gure «derteufel» bilatze horretan hitz eta pitz. Fraide frantziskotarren ordezkaritzaz bai, zerbait esanen dut, urrundik ikusi zuen lehena izan bainintzen eta berehalakoan abadiara laster egin nuen, Gileni haren heldueraren berri emaitera.

2838Marruma: bramido, mugido, ruido del mar...

Nire maisuak heldu berriak sartzean, erritua halakoxea, Abadeari agur egitera joan zitezen laga[2839] zuen. Gero taldearengana gerturatu zen, eta han ziren agurrak eta laztanak, han besarkadak eta muin eman beharrak.

Bazkalordua iragota, arrotzentzako mahai oparo bat prestaturik zegoen, eta abadeak urguritasunez han utzi zituen, haiek haietara eta Gilenekin; arauak bete behar izan arren abadeak asketsi[2840] zien, nahieran jan zezaten eta, aldi berean, haien artean eritzi-meritzi[2841] jardun zezaten, zeren, eta Jainkoak barka diezadala erkaketa, gudu-epaiketa antzeko zerbait baitzen, lehen bai lehen egin behar zena, etsaien osteak[2842] etorri aurrez, hau da, Avignondiko ordezkaritza.

Esan beharrik ez, etorri berriek berehala Ubertinorekin buru egin zuten, eta guztiek agurtu zuten; ezustea, poza eta benerazioa haiengan: batetik, aspaldi handian haren berririk jakin bage; bestetik, hil zelako zurrumurruak lehendik ere ibiliak, eta gainera gudari kementsu haren nolakotasunak ezagutuak ziren, haiena ere zen borroka egiten urteak eta urteak eman baitzituen.

2839Laga: utzi (?)
2840Asketsi: (H. “dispensarles”)
2841Eritzi-meritzi: (H. “ambiar impresiones”) (N) (?)
2842Oste: (H. “hueste”)

Geroago, hurrengo eguneko bilera deskriba dezadanean, talde ha osatzen zuten fraideak aipatuko ditut. Besteak beste, orduan haiekin oso guti hitz egin nuelako, Gilen, Ubertino eta Michele da Cesena elkartuz osatu zen hirualdeko batzarrean gogobildua[2843] bainengoen.

Michele, antza, biziki gizon bitxia zen: grina frantziskotarrez sutsua (batzuetan haren keinuak eta ahots-doinua Ubertinorenak bezalakoxeak ziren, jainko-liluraldian[2844] zegoenean), oso gizatiarra eta alaia Romañako lur-gizonaren izaera zuenez, mahai naroa eskertzen zekiena eta adiskideekin zoriontsu zena; sotil eta aitzakiatsua[2845], bat-batean azeri bezain trebe eta amarruti bihurtzeko gauza, satorra bezain azpigina[2846], boteredunen arteko harremanekin zerikusia zuten arazoak igurtzitzean; barrez lehertzeko gai, tentsio gogor-gogorrak sorraraztekoa ere bai, elederrezko[2847] isilaldia egiteko gauza, hizkideari soa bihurrarazteko ere gaitasuna zuen, beronek egiten zituen galderei erantzuteko gogorik ez eta distrazioaz hizpidea aldatu nahi zuenean.

2843Gogobildu: (H. “centrado”) (Concentrado…) (?)
2844Jainko-liluraldi: (H. “rapto místico”)
2845Aitzakiatsu: (H. “evasivo”)
2846Azpigin: (H. “simulador”) (N) (?)
2847Eleder: elocuente

Aurreko orrialdeetan haretaz zerbait esan dut, nik entzuniko gauzak, beharbada beste pertsona batzuek ere entzuniko gauzetatik entzunikoak. Orain, aldiz, jokaera atzera-aurrerako[2848] batzuk hobeki uler nitzakeen, ulertu, halaber, helburu politikoen bat-bateko aldaketak, azken urteetan haren adiskide eta jarraitzaileak berak nahastu izan zituztenak. Frantziskotarren baldernako ministro nagusia, hatsarrean[2849] San Frantziskoren oinordekoa zen, eta egitez[2850] haren ulertarazleen[2851] oinordeko: Buenaventura da Bagnoregio bezalako aurretiko baten santutasun eta jakituriarekin lehiatu behar zuen; araua betearazi behar zuen aldi berean baldernaren aberastasuna ere bermatu behar zuen, handi eta ahaltsua; herritarren ordezkariei eta gorteei aditu behar zien, baldernari, erremusinez, emariez[2852] eta legatuez[2853] bazen ere, aberastasuna eta aurrerabide emaiten baitzioten; eta, aldi berean, erne egin behar zuen espiritual amorratuek, penitentzia egin beharragatik, balderna utz eta alde egin ez zezaten, zeren, honela eginez gero heretikoen saldo batzuk sor balitezke, eta elkargo bikaina ezereztaturik

2848Atzera-aurrerako: kontraesanekoak (N) (?)
2849Hatsarren: principio (Hatsarrean—hasieran: hatsean)
2850Egitez: (H. “de hecho”) (N) (?)
2851Ulertarazle: (H. “intérprete”) (N)
2852Emari: donación (dádiva…/ flujo...) (Esku onerean emai ona)
2853Legatu: legado

geratuko litzateke. Aitasantuari atsegin eman behar zion, inperioari, bizitza txiroko fraideei, eta, jakina, San Frantziskori, zerurean zaintzen baitzuen, eta orobat herri giristinoari lurrerean begiratzen baitzion. Joanek espiritual guztiak heretikotzat salatu eta kondenatu zituenean, Michelek ez zuen ingirarik[2854] ukan eta haietako bostik amorratuenak, Proventzako fraideak, etsigi[2855] zizkion, eman zizkion, Aitasantuak su-metan erretzera bidal zitzangatik. Baina ohartu zenean (eta Ubertinoren eskua ez ahal zen urrun ibiliko) baldernan fraiderik asko ebangelioaren soiltasunaren[2856] aldeko zela, urrats egokiak egin zituen, zertarako eta, lau urte geroago, Perusako kapitulua erretakoen erizpideei atxiki zekientzat. Zalantzarik bage[2857], baldernaren jardueretan eta erakundeetan heresia bilaka zitekeen eskakizun bat sartzeko zuen nahiagatik zen, eta hala jokatuz, baldernak nahi zuena Aitasantuak berak ere nahi ukan zezan nahi zuen. Baina azken hau bere eritzietara bilduko zuela uste zuelarik, bere helburuak betetzeko haren baietza ezinbesteko baitzen, ez zuen bazter utzi enperdorearen eta inperioko teologoen laguntza. Nik ikusi nuen baino urte bi lehenago, bere anaiei agindu zien,

2854Ingira: (H. “reparo”)
2855Etsigi: (H. “entregar”) (Entregar-se, poner en manos de...)
2856Soiltasun: (H. “simplicidad”)
2857Zalantzarik bage: (H. “desde luego”)

Lyongo kapitulu nagusian, Aitasantuaz hitz egitean beti begirunez eta zuhurtasunez egin zezaten (beronek il batzuk lehenago frantziskotarrez hitz egin zuen, kexu, «haien zaunka, haien okerrak eta haien zorakeriak»). Eta, hala ere, orain Aitasauntuaz begirune zipitzik bage edo ia bat ere bage mintzatzen ziren lagunekin, mahai berean, jarrita zegoen.

Gainerako guztia esana dut. Joanek Avignonera joan zedin nahi zuen, eta harek joan nahi ez eta nahi bai, eta biharamuneko batzarrean nola eta zelako bermez egin erabaki behar zen, izan ere, joataldia ez zen menpekotasun bezala agertu behar, ez eta aupada[2858] bat bezala ere. Michele ez zen, nik uste, inoiz Joanekin egon, ez, behintzat, berau Aitasantua denaz geroztik. Dena dela, aspaldidanik ez zuen ikusi, eta bere adiskideek simoniako haren irudia tonu beltzez margotu zioten.

— Zerbait duzu ikasi behar –Gilenek zirautsan–: haren zinak ez sinesten, beti asmatzen baitu hitza betetzen baina mamia bortxatzen.

— Denek dakite –Ubertinok– zer gertatu zen aukeratu zutenean...

2858Aupada: (H. “desafío”)

— Nik ez nuke aukeratu erranen, inposizio baizik! – mahaikide batek esana. Geroago, Newcastle-ko Hugo zeritzola entzun nuen, eta hizkera nire maisuarenaren antzekoa zuen–. Lehenengo eta behin[2859], Kelemente V.-aren heriotza bera ez da egon inoiz argi. Erregeak ez zion egundaino barkatu Bonifazio VIII.aren aurka hilondoko auzia eginen zuela hitz emana eta gero zernahi egin zuela bere aitzinekoa ez kondenatzeko. Inork ez daki ongi Carpentras-en nola hil zen. Egia da, kardinalek han konklabea egin zutenean, ez zuten aitasantu berririk izendatu, zeren (eta zuzen) eztabaida bertze bat baitzen: aitasantu-egoitza Avignonen ala Erroman egon behar zen.

Ez dakit ongi egun haietan zer gertatu zen, sarraskia, erraiten dutenez, kardinalak herio-mehatxupean, hildako aitasantuaren ilobak eginik, haien zerbitzariak izugarriki erhorik[2860], jauregia su-garretan, kardinalak erregeari deika, eta honek egonarri ukan zezatela, hautapen ona egin zezatela, eta berak ez zuela inoiz nahi ukan Aitasantua Erromatik alde egiterik… Gero, Felipe Ederraren heriotza, Jainkoak daki nola.

2859Lehenengo eta behin: (H. “por de pronto”)
2860Erho: asesinar

— Edo tusuriak daki –Ubertinok esan eta aitaren egin, eta beste guztiek honelaxe.

— Edo tusuriak daki –onartu zuen Hugok irri zuriz[2861]–. Laburbilduz, beste errege batek ordezkatzen du, eta hamazortzi il iraunik hil izango da, eta horren ondoreangoa ere hilko da, jaio eta laster, eta honen anaiak, erregeordeak, erregetza hartuko du...

— Felipe V.a, orduan artean Poitiers-eko konde, berriz ere Carpentrasetik ihes zihoazen kardinalekin bildu zen –Michelek esan zuen.

— Horrelaxe –Hugok aitzina–, konklabea harzara Lyon-en biltzea erdietsi zuen, domingotarren komentuan, eta haien ukiezintasuna zainduko zuela eta ez atxilo hartzea zin egin zuen. Baina haren mendean egon eta sarri, haiek giltzez ixteko agindu ez ezik (hau orduan ohiko zenarekin bat zetorren) jaten emaiten zitzaien janaria egunetik egunera urriagoa izan zedin ere agindu zuen, erabakitzeke egunak etorri eta joan ahala. Gainera, banan-banan bakoitzari hitz eman zion aitasantu izan nahian lagunduko ziola. Azkenean, tronuaz jabetu zenean, kardinalak bi urtez kartzelan eta bizialdiko gainerakoan ere hala segituko zuten beldurrez

2861Irri zuri: sonrisa burlona

ahituak, janari txarra gainera, edozer onartzeko prest ziren, sabeldarraioak halakoak, eta geroenean *gnomo* ia laurogeitaz urteko hura Petiriren katedrara igoarazi zuten...

— *Gnomo*, bai! –hots egin zuen Ubertinok barreka– Eta itxuraz erkiña[2862] baina uste zen baino sendokoteagoa eta malmutzagoa[2863]!

— Oskigin[2864]-seme –hara bidalitako batek oinon[2865] egin zuen, mur-mur.

— Kristo zurgin-seme zen! –erazarri[2866] zion Ubertinok–. Horrek ez du axolarik. Gizon jantzia da, Montpellier-en legeak ikasi zituen, Parisen medikuntza, bere adiskideekin lantzen jakin izan du, apezpikutzak eskuratze aldera, eta egoki eritzi zionean kardinal-kapela lortu zuen, eta Erroberta Jakintsuaren aholkulari izan zenean, Napolin, beraren zolitasuna[2867] askoren harrigarri izan zen. Eta Avignongo gotzain zela, Felipe Ederrari aholku zuzenak eman zizkion (zuzenak harako eginkizun zeken[2868] haretarako, esan nahi dut) tenplarioen hondamendia erdiets zezantzat. Hautatua

2862Erkin: enclenque
2863Malmutz: astuto, taimado
2864Oskigin: zapatari, zirol, oskigile
2865Oinon egin; gruñir, murmurar, refunfuñar (Oinoten egon)
2866Erazarri: (H. “amonestar”) (Eraso/ erauntsi...)
2867Zolitasun: (H. “perspicacia”)
2868Zeken: (H. “sórdido”)

izan eta gero, kardinalen azpijokoetatik ihes egiten jakin ukan zuen, hil nahi baitzuten… Baina ez naiz horretaz ari, bestez baizik, hau da: zin egindakoari uko egitean erakutsi zuen trebetasunaz, zinausletzat salatua izan bage. Hautatua izan zenean, eta honetarako Orsini kardinalri hitz eman zion aitasantu-egoitza nagusia Erromara itzuliko zuela, ostia sagaratuaren izenean zin egin zuen eta hitz hori bete ezean ez zela beste behin ere zaldiz edo mandoz itzegoko... Bada, badakizu zer egin zuen azeriak halakoak? Lyonen koroatua izan ondoan (erregearen nahiaz bestela, zeremonia Avignonen ospatzea nahi zuen eta) Avignonera itsasontziz itzuli zen!

Fraide guztiak barrez hasi ziren. Aitasantua gezurtia zen, antza, baina antzetsua ere bazela ezin uka.

— Lotsabagekoa da –Gilenen iruzkina–. Ez du, bada, esan Hugok beraren fede gaiztoa ezkutatzen ere saiatu ez zela? Ez didazu azaldu, Ubertino, Orsiniri Avignonera iritsi zenean esan ziona?

— Bai –Ubertinok–, Frantziako ortzia hain ederra zenez, ez zuela ulertzen zergatik egon behar zuen aurriez[2869] beteriko Erroman. Eta, zioenez, Aitasantuak, Petirik bezala, dena lotu

2869Aurri: (H. “ruina”)

eta jaregin egiteko ahalmena zuen, eta berak ahalmen hori erabiltzen zuen eta zegoen lekuan egoitea erabaki zuen, hain ongi sentitzen zen lekuan. Eta Orsinik Vatikanoko bizkaian bizi behar zuela gogorarazi zionean, latz agindu zion bere esanetara egon zedin, eta eztabaida dzanpez amaitu zuen. Alabaina han ez zen amaitu zinaren istorioa. Itsasontzitik jaitsi eta behor zuri batean jarri behar zuen, kardinalak zaldi beltzetan zerraizkiola, ekandua ekandu[2870]. Honelarik ere, apezpiku-jauregiraino oinez joan zen. Eta ez dut uste inoiz ere gehiago zaldi gainean jarri zenik. Eta horrelako gizonarengandik entzindu[2871] ahal duzu, Michele, hitzez emaniko bermerik?

Michele une batez isilik egon zen, gero honela:

— Uler dezaket Aitasantuak Avignonen geratu nahi izana, ez diot ezbaidatuko. Baina berak ere ezin eztabaida dezake gure txirotasun-nahia, eta Kristoren eredua guk ulertzen dugun bezala.

— Ez zaitez atton[2872] izan, Michele –Gilenek hitz sartu zuen–. Zuen, hots, gure nahierak harenaren gaiztoa nabarmentzen du. Mendeetan ez da egon, ikasi behar duzu,

2870Ekandu: tradición
2871Entzindu: fiar(se)
2872Atton: ingenuo, “primo”) (?)

aitasantu-jargoian hain gizon gutiziatsurik. Babiloniako emagalduak, antzinan gure Ubertinok jazarri[2873] zituenak, aitasantu ustelak, zure herrialdeko olerkariek aipatzen zituztenak, Alighieri delako horrek bezala, Joanen aldean axuri[2874] otxan eta guperak[2875] ziren. Mika lapurra da, lukur[2876] judua! Avignonen Florentzian baino salerosketa[2877] gehiago egin ohi da! Kelementeren iloba Goth-eko Bertrand-ekin eginiko saldu-erosi[2878] doilorra[2879] jakin dut. Karpentrasko sarraskikoa zen hori (hor, besteak beste, kardinalei harribitxien pisua arindu zieten): Bertrand bere osabaren altxorraz jabetu zen, ez baitzen huskeria, eta Joanek ostutakoa xehe-xehe zekien zer zen (*Cum venerabiles* delakoan doi-doi zenbatzen ditu txanponak, urre-zilarrezko edalontziak, liburuak, zerriak[2880], harri bitxiak, apaindurak[2881]...) baina ezjakinarena egin zuen, Bertrandek Karpentrasko arpilaketan urrezko milioi eta erdi baino florin gehiago eskuratu baitzuen, eta beste hogeita hamar milaz ika-mika egin zuen, bere osabarengandik

2873Jazarri: (H. “arremeter”) (?)
2874Axuri: jaio berriko arkume, bildots, artxo
2875Gupera: delicado
2876Lukur: usurero
2877Salerosketa: (H. “se trafica”)
2878Saldu-erosi: (H. “transacción”)
2879Doilor: (H. “innoble”)
2880Zerri: alfombra /...
2881Apaindura: (H. “paramentos”)

jasoak zituela esaten baitzuen «helburu elizkoi baterako», hots, gurutzada baterako. Bertrandek horren erdia gurutzadarako jaso zezan erabaki zen eta beste gainerakoa jargoi[2882] santuarentzat. Bertrandek, baina, ez zuen inoiz gurutzadarik egin, oraingoz behintzat ez, eta Aitasantuak ez du florin bakar bat ere ikusi.

— Horrela bada, ez da esaten den bezain trebea –esan zuen Michelek.

— Diru kontuetan ziria sartu[2883] dioten aldi bakarra horixe –Ubertino mintzo–. Hasi behar albaitzeneza ikasten nolako merkatari motarekin egin beharko duzun borroka. Beste aldi guztietan deabruzko trebetasuna erakutsi ukan du dirua poltsikoratzeko. Midas erregea da, ukitzen duen guztia urre bihurrarazten du eta Avignongo kutxetara joaiten da. Haren geletara sartu izan naizen bakoitzean, bankariak, trukelariak, urrez zamaturiko mahaiak, florinak banan-banan zenbatzen eta metatzen ari elizgizonak… ikusi ukan ditut. Eta ikusiko duzu zelako jauregia eraikarazi duen beretzat, luxuz betea Bizantzioko enperadorearena edo tartaren[2884] Kan Handiarena bezalakoa. Orain ulertzen al duzu zer dela eta eman duen hainbat bulda txirotasunaren aburuaren aurka?

2882Jargoi: (H. “solio”)
2883Ziri sartu:(H. “engañar”)
2884Tartar: tártaro (?) (Tartariar, tartaro)

Ba al dakizu, gure baldernari dion gorrotoagatik, domingotarrei zizelkarazi[2885] dizkiela Kristoren irudiak, non erret-koroaz, urrezko eta purpurazko txabusinaz[2886] eta oski apain-apainez jantzita agertzen den? Avignonen erakutsi izan dira gurutzefikak non Jesusek esku bakarra josita dadukan, beste eskuaz gerritik zintziliko ziskuari oratzen[2887] diolarik, esan nahi baitu Berak diruaren erabilera baimentzen duela, erlijiozko helburuetarako…

— Oi, zein lotsagea! –Michelek ozengi–. Hori birao hutsa da, gero!

— Aitasantuaren tiarari[2888] hirugarren koroa bat erantsi dio –Gilenek aitzina–; ez da, Ubertino?

— Egia. Milurtearen hasieran, Hildebrando aitasantuak bat ipini zuen, *Corona regni de manu Dei* idazkunarekin; ez aspaldi, Bonifazio zantarrak bigarren bat gehitu zuen *Diadema imperii de manu Petri* hitzekin, eta orain Joanek ikurra hobetu besterik ez du egin: hiru koroa, botere espirituala, botere tenporala eta botere eklesiastikoa. Errege pertsiarren ikur bat, jentilen ikur bat…

2885Zizelkatu: esculpir
2886Txabusina: túnica, bata
2887Oratu: heldu, eutsi, atxiki
2888Tiara: tiara

Fraide bat zegoen, ordura arte isilik egona, Abadeak mahaira bisitarientzat ekarrarazi zituen jaki bikain-bikainak, mauka-mauka irensten ziharduena. Erne ez baina aditzen, besteak esaten ari zirenen entzun eta txatan-txatan Aitasantuari buruz algara destainati[2889] bat edo bat egozten zuen, edo beste mahaikiderean batek bere erdeinua[2890] adiarazten zuenean, baiezko mur-mur bat egiten zuen. Bestela, kokotsalde koipeztoa garbitu besterik ez zegien, bere aho hortz bage baina irenskorrak erortzen uzten zituen haragi-puxkak ere bilduz; ondoko bati zerttobait esaten zion bakoitzean janariaren ona gorestearren egiten zuen. Geroago jakin nuen, jakin nuenez, jaun maisu Girolamo zena, Caffako apezpiku egun batzuk lehenago Ubertinok hiltzat eman zuena (eta hil zelako albistea egiatzat jota zegoela esan behar dut, bi urte lehenagodanik eta luzaro kristaugo guztian, geroago berriki entzun bainuen; izan ere, edo hil ere hobeto esatearren, gure elkarraldi harez geroko il guti batzuk iragorik hil zen, eta oraindik haren heriotza egun haz osteko biharamuenean egin zen bileran irentsi behar ukan zuen amorruak ekarri ziola pentsatzen dut, hantxe bertan

2889Destainati: (H. “sarcástico”)
2890Erdeinu: desprecio

lehertuko zela uste bainuen, soinez oso ahula, ahuskorra eta aldartez suminkorra[2891] zen eta).

Une haretan elkarrizketan sartu eta ahoa gainez eginda honela esan zuen:

— Jakin ezazue, halaber, zantar horrek lege bat ezarri duela *taxae sacrae poenitentiariae* deritzenen gainean, eta honen bidez erlijio gizonen bekatuez espekulatzen du, are diru gehiago lorteko asmoz. Eliz gizonak haragi-bekatua jauki badeza, lekaimeagaz, ahaideagaz edo edozein emakumegaz (hauxe ere gertatzen baita!) absoluzioa edo barkamena erdiets dezake, hirurogeita zazpi lira urre eta hamabi soldata ordaindurik, soilki.

— Tira, ba, jaun maisu Girolamo –kexatu zen Ubertino–, ongi dakizu zein onerizte gutti diodan Aitasantuari, baina horretaz den bezainbatean beraren alde agertu behar dut! Hori, esan duzun hori, gezurra da, Avignonen dabilen gezurra: ez dut horrelako legerik ikusi inoiz

— Bada, izan –berretsi zuen Girolamok sutsu–. Nik ere ez dut ikusi, baina izan bada.

Ubertinok burua higitu zuen eta besteak isildu. Jaun maisu Girolamo oso haintzat edo haintzategi hartzeko

2891Suminkorra: (H. “humor bilioso”)

ohiturik zegozela ulertu nuen, benetakoegitzat. Gilenek lehengo egun batean kokolo zela esan zuena. Hala eta guztiz ere, frai Gilenek zuen elkarrizketa berriro hasi nahi:

— Gezurra izan edo ez, zurrumurru horrek Avignonen dagoen giro morala zelakoa den erakusten du. Han orok, azpiratuak izan zein gaineratuak izan, azoka batean bizi direna daki, ez Kristoren ordezkariaren gortean. Joan edo Jon tronura goititu zenean, urrezko hirurogeita hamar mila florineko altxorraz mintzatzen zen, orain, berriz, hamar milioi batu dituela dioenik bada.

— Horrela da –Ubertinok–. Michele, Michele, ez dakizu zelako lasaikeriak[2892] ikusi ditudan Avignonen!

— izan gaitezen, ahalaz, zintzoak –Michelek esan–. Gureek ere gehiegikeriak egin dituztela dakigu. Albiste batzuen arauera, frantziskotar batzuek iskiluz domingotarren komentuei eraso ukan diete eta fraide etsaiei erantzarazi[2893] txirotasuna indarka ezarteko… Honegatik ez nintzen ausartu Joanen aurka egitera Proventzako gertaeren garaian. Berarekin itun[2894] bat egn nahi dut: ez dut haren harrotasuna umilaraziko, gure umiltasuna umil ez dezan baino ez diot

2892Lasaikeria: (H. “inmoralidad”)
2893Erantzarazi: hacer desnudar(se)
2894Itun: pacto, acuerdo...

galdatuko. Diruaz ez natzaio mintzatuko, eskritura santuen irakurketa zintzoa onar dezan eskatuko natzaio. Hauxe behar dugu egin bihar beraren ordezkariekin. Azken baten, teologiako gizonak ditugu, guztiak ez, eiki, Joan bezain azeri. Eskrituren interpretazioaz horren agintaritasuna duten gizon horiekin deliberatu eta gero, ezin izango du…

— Harek? –eten zion Ubertinok–. Baina oraindik ez dituzu ezagutzen haren zorakeriak teologia arloan. Dena bere eskuz lotu nahi du, hala zeruan nola lurrean. Hemen, ikusi dugu zer egiten duen. Zeruan... Bada, oraingoz nik aipatu ditudan ideiak ez ditu azaldu, ez behintzat jendaurrean, baina bere aialdekoekin[2895] honi buruz mintzatu zela ziur dakit. Zentzubageko proposamenak, maltzurrak ez esatearren, lantzen ditu, eta dotrinaren beraren mamia alda lezakete, eta gure predikuak zeharo ezereztuko lituzkete!

— Zelako proposamenak? –galdetu zuten batzuek.

— Galde egiozue Berengariori, beronek dakizki, niri beronek aipatu zizkidan.

2895Aialdeko: (H. “fieles”)

Ubertino’ Berengario Talloniri buruz bihurtu zen, azken urteetan Aitasantuaren aurkarietan fierrenetako[2896] bat izan zen, haren gortean berean.

Eta handixe etorria zen, zeren, beste frantziskotarrekin bizpahiru egun lehenago bat egina baitzen, haiekin irutzi[2897] eta abadiara.

— Istorio iluna da, ia sinestezina –Berengariok–. Bada, dirudienez, Joanek baieztatu[2898] nahi omen du zuzenak zeruan ikuspen santuaz gozatzeko Epaiketaz gerora itxaraiten egongo direla. Aspaldi hausnarretan dihardu Apokalipsiko seigarren ataleko bederatzigarren bertsikuluaz, bosgarren zigiluaren irekieraz ele egiten duena, eta hildakoak Jaungoikoaren hitzaren lekukotza emaiteko eta justizia eskatzeko aldarearen oinetan agertzen direnekoaz. Bakoitzari tunika zuri bat emaiten zaio eta egonarri[2899] apur bat gehixeago izan dezan eskatzen zaio… Hauxe, dio Joanek argudioz, ezagugarri, azken epaiketa burutu arte Jaungoikoa bera beraren izaeran ikusiko ez dutelako ezagugarri eta zantzu.

2896Fier: (H. “franco”) (Bravo, orgulloso…) (Fr.)
2897Irutzi: juntarse (Bat egin, batu, elkartu...)
2898Baieztatu: (H. “sostener”)
2899Egonarri: paciencia

— Baina, norekin hitz egin du horretaz? –galde Michelek ikaraturik.

— Orain arte, zeinbait adiskide minekin, baina ahoz aho ibili da, jendearen aurreko agerpen[2900] bat prestatzen aritzen omen da, ez berehalakoa, ausaz urte batzuk barru, bere teologoei aholku eske ari omen...

— Kar-kar! –Girolamok barre gezurrezko egin zuen, mamurtzeari[2901] uzteke.

— Hori bakarrik ez. Harago joan nahi duela dirudi, eta inpernua ere egun horretara arte irekiko ez zela baieztatu… Ez eta tusurientzat ere.

— Jesukristo, lagun iezaguzu! –hots egin zuen Girolamok–. Zer esango diegu, bada, bekatariei berehala inpernura joango direla zemai egin ezin badiezaiegu, hil eta berehala?

— Zoro baten eskutan gagoz –Ubertinok–. Ez dut ulertzen zer dela eta nahi duen halakorik baieztatu...

— Bide horretatik indulgentzietako dotrina huts-hutsean geratzen da, ke da –deitoratu[2902] zuen Girolamok–, berak ere ezin salduko ditu halakoak. Zergatik apezak hainbat

2900Agerpen: (H. “comunicación pública”)
2901Mamurtu: murtxikatu...
2902Deitoratu: lamentar

basakeria egiteagatik hainbat urrezko lira ordaindu behar izango du hain urrutiko zigorra saihesteko?

— Ez hain urrutikoa –Ubertinok sutsuro–. Aldiak hurbil dagoz!

— Hori zuk dakizu, anaia maite, ez, ordea, xaloek. Noraino heldu garen! –oihu egin zuen Girolamok, jaten ari zenaz ere gozatzen ez zuela zirudielarik–. A zein aburu galgarri[2903]! Horrako fraide predikari horiek burutara sartua izango ahal da… Ai! –eta burua higitu zuen, kordokatu.

— Zergatik, baina? –Michele da Cesenak berriz ere.

— Ez dut uste zergatikorik dagoenik –Gilenen hitzak–. Bere buruari ezarri dion erronka da, harrokeria da. Berak erabaki nahi du, zinez erabaki, zeruaz eta lurraz. Horrelako zurrumurruak zebiltzala banekien, Occam-go Gilenek eskutitz batean jakinarazi eta. Ikusiko dugu nork nor hartzen duen azpian[2904], Aitasantuak ala teologoek, Eliza guztiaren ahotsak, Jaungoikoaren herriaren nahiak, gotzainek...

— Oi! Dotrina kontuetan teologoen gainean jarri ahal izango da –Michelek esana, goibel.

2903Galgarri: (H. “nefasto”)
2904Azpian hartu: (H. “salise con la suya”) (N) (?)

— Ez dago esana horrela izan behar denik –ihardetsi zuen Gilenek–. Bizi garen garaiotan, gauza jainkozkoak dakizkitenak ez dira beldur Aitasantua heretikoa dela aldarrikatzeko. Eta haiek dira, hein baten, herri kristauaren ahotsa, eta Aitasantuak berak ere ezin jardun lezake herriaren aurka.

— Txarrago, are txarrago –marmarka Michelek, izu lauorrian–. Alde batean, aitasantu zoro bat; beste aldean, Jaungoikoaren herria, eskritura santuak nola-nahi ulertu nahi ukanen dituena, bere teologoen ahoz badateke ere…

— Eta zer? Zuek bestela egin ote duzue Perusan? –Gilenek galdetu zuen.

Michelek jauzi egin zuen, zaurian piko[2905] egin balio bezala:

— Horregatixe nahi dut Aitasantuarekin egon. Ezin dezakegu ezer egin haren baimenik bage.

Egiaz, nire maisua oso zorrotza zen. Nola egin zuen aurrikusteko Michelek berak geroago inperioko teologoengan eta herriarengan Aitasantua kondenatzeko? Nola egin zuen aurrikusteko, lau urte geroago Aitasantuak lehen aldiz bere dotrina sinestezina agerian aldarrikatu

2905Zaurian piko: (H. “el dedo en la llaga”)

zuenean, kristaugo osoan matxinada irakoriko[2906] zela? Ikuspen santua hain luzaz geroratuko balitz, nola egin lezakete hildakoen bitartekaritza bizi direnen alde? Eta nora joanen litzateke santuen gurtzapena? Frantziskotarrek hasiko zituzten, hala, areriotasunak Aitasantua kondenatuz, eta Occam-go Gilen haien artean lehenetarik izanen zen, bere argumentu xirritu[2907] eta gupidageekin[2908]. Borrrokak hiru urte iraungo zuen, Joan, hilzorian, bere gogaiak[2909], erdizka, bertan behera utzirik gelditu zen arte. Urte batzuk geroago deskribitu zidaten, 1334ko lotazileko kontsistorioan[2910] agertu zen bezalakoxea, inoiz baino ñoago, txikirrago, adinak higatua, laurogeitaz urteko eta hilzoriko, zurbil. Haren hitza honakook (trebe, oso azeri, hitz-jokoetan iaio bere zinak hausteko ez ezik, bere tema edo seta gaiztoei uko egiteko ere bai): «Aldarrikatzen dugu eta sinesten dugu gorputzetik banandutako arimak, guztiz arazturik, zeruan dagozela, aingeruekin eta Jesukristorekin paradisuan, eta Jaungoikoa beronen izaeran berean, argiki eta aurrez aur ikusten dutela....» Eta gero gehitu, isilaldiño baten ondoan, ez da inoiz jakin arnasa hartzeko zuen zailtasunagatik edo

2906Irakori: (H. “producir...”) (Suscitar, provocar / alzar…) (?)
2907Xirritu: severo, exacto...
2908Gupidage: (H. “implacable”)
2909Gogai: gogaiera (Idea, pensamiento…) (Gaua gogaieren ama RS.)
2910Kontsistorio: consistorio (Eliza katolikoan kardinalen batzarra)

azken esaldiaren zatia aurkazkoa[2911] baitzen indartu nahiagatik, «...banandutako arimaren egoerak eta izaerak[2912] laga lezaten heinean». Biharamunean, igande goizean, besaulki batean jar zezaten agindu, kardinalen esku-muinak jaso eta hil zen.

Alta bada, adarretatik goiti noa eta ez dut aletu[2913] behar dudana aletzen. Sakonean, harez gero mahai haren inguruan ez zen deus gehiagorik esan, gertatu eta hemen jaulki nahi ditudan jazoera haien ulertzeko gehigarri izan litekeenik. Hurrengo egunean zer-nolako jarrera izan behar zuten frantziskotarrak bat etorri ziren. Beraien aurkariak nolakoak ziren banan-banan aztertu zuten. Gilenek eman zien berria, Bernando Gui-ren etorreraz, kezkaz hartu zuten ahotan[2914]. Eta are urduriago jarri ziren Avignon-diko ordezkaritzaren buru Bertrando del Poggetto kardinala zena jakitean. Bi inkisidore' gehiegi zen: honek esan nahi zuen frantziskotarren aurka heresiaren argudioa erabili nahi zela.

— Beraientzat txarrago –Gilenek esan zuen–, guk ere heresiaz salatuko ditugu.

2911Aurkazko: (H. "carácter adversativo") (?)
2912Izaera: (H. "condición")
2913Aletu: desgranar (bihitu, garandu…) (H. "contar")
2914Ahotan hartu (H. "comentar") (?)

— Ez, ez –esan zuen Michelek–, jardun dezagun zuhur, itun[2915] bat egin ahal dugu eta ez albaikeneza galaraz[2916].

— Pentsatzen jarrita ere –Gilenek–, eta, zuk ongi dakizunez, Michele, elkarraldi hau gertatzeko hainbat lan egin dudan arren, neute burutan ezin dut sartu avignondarrak zerbait on lortzeko asmoarekin etor daitezenik. Zu bakarrik eta inolako berme bagerik Avignonera joan zaitezen Joanek nahi du. Elkarraldi hau, bederen, honela dela kontura zaitezentzat izanen da. Txarrago izan zatekeen esperientzia hau bage joan bazina.

— Horrenbestez, ilabeteetan kezka horrekin ibili izan zara, nire ustez ezertarako ez den gauza bategatik –esan zion Michelek garratz.

— Bai zuk bai enperadoreak galdatu zenidaten –ihardetsiz Gilenek–. Gainera, etsaiak hobeki ezagutzea inoiz ez da ezertarako-eza.

Une haretantxe, bigarren ordezkaritza barrutira sartzen ari zelako berri emaitera etorri zitzaizkigun. Frantziskotarrak jaiki eta Aitasantuaren gizonekin batzera joan ziren.

2915Itun: acuerdo, pacto
2916Galarazi: (H. “comprometerlo”)

LAUGARREN EGUNA

NONA

Del Poggetto kardinala, Bernardo Gui eta Avignongo beste gizonak iritsi direnekoa, eta gero bakoitzak gauza ezberdin batzuk egiten dituenekoa.

Aspaldidanik elkarren ezagunak ziren gizonak, eta beste batzuk elkar ezagutzen ez zutenak baina batzuk besteez entzundakoak zirenak, hango zelaittoan elkarri agur eta besarka ari ziren, amultsuro, itxuraz. Abadearen ondoan, Bertrando del Poggetto hara-horra zebilen batera eta bestera boterea zer den dakienaren antzera, bigarren aitasantu laso, irri-jario, frantziskotarrekin batik bat, hurrengo eguneko batzarrean bat etorriko zirelako ustea banatuz eta bake-zorioneko nahia hanpaduraz erakutsiz (esaera hau berariaz erabili zuen frantziskotarren aurrean) Joan XXII.aren izenean.

— Oso ondo, oso ondo –esan zidan, Gilenek apuntasunez[2917] aurkeztu nindienean[2918] bere eskuordeko[2919] eta ikasle nintzela esanez.

Gero ea Bolonia ezagutzen nuen galde egin zidan, eta haren edertasuna, hango janari ona eta unibertsitate bikaina goretsi zituen, eta noizbait hara bisitatzera joaiteko gonbidatu ninduen, nire lurralde germaniarrera itzuli beharrean, beronetako jendeak, esan zidanez, gure Aitasantuari hainbat min eragiten baitzion. Gero eraztuna

2917Apuntasun: gentileza, gracia (Apunt: hermoso, gracioso, mignon)
2918Nindien: ni harek haiei (nindu+tse+n – ninduen haiei) (?)
2919Eskuordeko: amanuense

eskaini zidan, muin eman niezaion, bere irribarrea beste inori egiten ziolarik.

Beste aldetik, nire arreta egun haietan heuragitan aipaturik entzun nuen pertsonaiareganantz zuzendu zen, berehala: Bernardo Gui, frantsesek ziotena legez, Bernardo Guidoni edo Bernardo Guido, beste leku batzuetan esan ohi ziotena.

Domikutarra zen, hirurogeita hamar bat urte ingurukoa, mehe luzanga. Haren begi arre, hotz, edonorengan josteko erakoek zirrara eragin zidaten. Josi baina bere sentimenduak agertzeke, nahiz eta batzuetan txinpart-aurtikika bezala ikusten nituen, hala-holako txinpartak, zeren, bere pentsamendu eta grinak estaltzeko bezain nahita adiarazteko trebea baitzen.

Ororen arteko elkar agurtze haretan ez zen besteak bezain adeitsu edo maitakor agertu, beti ere gizalegezko bai. Ubertino ikusi zuenean, lehenagodanik ezaguna, adikor[2920] baizik ez zitzaion agertu, baina zuzendu zion begiradak niri kezka eragin zidan, ikaratu[2921] ninduen. Michele da Cesena agurtu zuenean halako irkaitz adiezin[2922] batto[2923] egin zuen

2920Adikor: (H. “deferente”)
2921Ikaratu: (H. “estremecer”)
2922Adiezin: (H. “enigmático”)
2923-tto egin: (H. “esbozar”)

eta aldi berean murmurikatuz esan: «Han zure zain dagoz aspaldi handion». Esaldi honetan ez nuen sumatu inolako kezkarik, ez ironia zipitzik, ez beldurgarriko ñabardurarik, ez eta ardura hondarrik ere. Gilenekin bat egin zuenean, eta nor zen jakin baikoz, etsai-begirada adeitsua egin zion. Egia esateko, haren aurpegierak ez zuen barren-barreneko sentimendurik bat ere agertzen –hala ez zela ziur nengoen (sentimendurik bat ere barrenean izaiteko gauza ote zenentz ez nengoen ziur)–, baina, enura bagerik, Gilenek etsaitasun hura suma zezan nahi zuen. Beronek itzuli zion, nola eta, gehiegizko irribarrea eginez, adei-adeitsuro eta honela zirautsola: «Banuen aspaldi niretzat ikasgai izan den ospe handiko gizona ezagutu nahi, ez gutitan nire bizitzan ardura larriko erabakiak hartzerakoan oharpide[2924] izan baitzait.» Esaldi hau goraipua zela agerikoa zen, ia lausengua zen, batez ere, eta Bernardo ez zen inondik inora halakoa, Gilenen erabakietarik garrantzitsuenetako bat zein izan zen ez zekienarentzat, alegia, inkisidore izaiteari uztea. Nire eritzia zen, neurea, ezen, Gilenek ez zukeela izan ingirarik Bernardo inperioko edozein ziegatan bere hezurrak utzi izan balitu, eta beronek, berdin, ez zukeela negarrik egin beste harek bizia ezbehar batean galdu balu. Eta egun haietan

2924Oharpide: (H. “advertencia”)

Bernardo iskiludun gizon-talde bateko buru zenez, ni neure maisu onaren etorkizunaz larri nengoen.

Abadeak, ordurako, abadian gertatu krimenen berri Bernadori emana izango ahal zuen. Izan ere, Gilenen esaldiak zuen edena[2925] usnatu ez zuela alegia eta eginik, esan zion:

— Dirudienez, Abadea eskatuta, eta niri eman zaidan eginkizuna betetzearren, gure bilera egin aurretiko hitzartutakoari atxikirik, gertaera lazgarri batzuez arduratu beharra ukanen dut, deabru satsuaren kiratsa darien gertaera odoltsuak, haretan ere[2926]. Eta aipatzen dizut badakidalako, beste garai batzuetan, gure artean honenbesteko tarterik ez zegoenean, nirekin eta nireekin borrokatu zinela, ongiaren eta gaizkiaren gudarosteen arteko guduari ekiten zitzaionean.

— Bai, horrelaxe –Gilenek, aztoratu ez zela–, horrelarik ere geroenean beste aldera irago nintzen.

Bernardok ukaldia ongi jaso zuen:

— Esan al diezadakezu ezer gertaera kriminaloz?

2925Eden: pozoin
2926Haretan ere: hain zuzen (“Hatan be”)

— Zoritxarrez, ez –erantzun zion Gilenek gizalegez–. Arazo kriminaletan zure esperientzia peitu dut.

Une haretatik aurrera, haien lorratza galdu nuen. Gilenek beste behin Michele eta Ubertinorekin hitz egin zuen, eta *scriptorium*era zen. Malakiasi liburu batzuen ikustea eskatu zitzaion, izenburuak entzun ez nituenak. Malakiasek hala-hola so egin zion, baina ezin uko egin. Liburutegira haien bila joan ez zen eta honek arreta eman zidan. Guztiak Benantzioren mahaian zegozen. Nire maisua irakurketan murgildu zen, eta nik ez nuen zinpurtu[2927] ez galarazi nahi.

Sukaldera jaitsi nintzen. Bertan Bernardo Gui. Heldubada, abadia nolakoa zen ikasi nahi zuen eta zokoz zoko zebilen. Sukaldariei eta beste sehi batzuei galdeka aditu nion, hizkera onaz zein txarraz herriko hizkuntzan (Italia iparraldean inkisidore izandakoa zela oroitu nintzen) Monasterioan lana eta uzta biltzeak nola eratzen ziren edo jakin nahian zihartuela irudi zuen. Baina, areago, kalterik-ezeko galdera egitean ere, bere mintzaideari begiak sartzen zizkion, zorrotz, eta bat-batean beste galdera bat egozten zion, eta biktima zurbil eta totelka hasten zen. Nolabait ere, hala uste nik, itaunketa inkisiziozkoa egiten ari zen, eta honetarako inkisidore guztiek erabili ohi zuten iskilu ikaragarria zuen: inoren beldurra. Izan ere, gehienetan, itaunketapean dagoenak inkisidorearen susmoa beregan izan

2927Zinpurtu: molestar, incomodar (?)

dadin beldurragatik, zernahi esaten dio inkisidoreari, susmoa beste batenganantz eraman dezan.

Arratsalde osoan, abadian asti-ibiltzen[2928] ari nintzela, Bernardo ikusi nuen, hara-horrako haretan baitzebilen, bai erroten ondoan, bai kalostran. Ez zuen, hala ere, fraiderekin hitz egin: nahiago, antza, anaia laiko edo nekazariei itaunketan. Gilenek orduraxe arte egin ukan zuenaz bestela.

LAUGARREN EGUNA

BEZPERAK

Atal honetan Alinardok jakingarri baliotsuak emaiten dituela dirudi eta Gilenek bere egiteko era

2928Asti-ibili: pasear (N) (?)

agertzen du, balizko egia batera iristearren hainbat hutsegite ziurretatik iragota.

Gilen *scriptorium*etik jaitsi zen. Aldarte onean. Abalordua heldu arte itxaraiten, eta klaustrora ginen, zeinbaitek hegipe deritzon lekura alegia, eta berton Alinardorekin tupust egin genuen. Beraren eskaera gogoraturik, aurreko egunean sukaldera joana nintzen eta txitxirioak hartu, eta eman nizkion. Eskerrak, eta bere aho hortz-haginik bagekora, lerdea zeriola, sartu eta sartu hasi zen.

— Ikusi duzu, mutil? –esan zidan–. Beste gorpua ere liburuak iragarten zuen lekuan zetzan… Orain itxaron laugarren turuta!

Galdetu nion ea zergatik uste zuen krimenen sekuentzia ulertzeko gakoa errebelazioaren liburuan zegoela. Harriturik so egin zidan:

— Ororen gakoa Joanen liburuan dago! –Eta herrazko imintzio bat gehitu zuen–: Nik banekien, aspaldi handian naiz iragarten ari… Nerau izan nintzen, badakizu, Abadeari… ordukoari, Apokalipsiko iruzkinen ahalik eta

bildumarik osoena eratzeko eskaria egin ziona. Liburuzaina ni izango nintzen… Gero beste batek Silos-era bidal zezaten nahi eta lortu zuen, eta bertan eskuidazkirik ederrenak aurkitu zituen, eta gudakin[2929] bikain harekin hona itzuli zen. Oi, bazekien non bila, fedebagekoen hizkuntza ere bazekien… Halaxe erdietsi zuen, nire lekuan, liburutzaintza. Alabaina Jainkoak zigortu zuen, zehatu eta behar baino lehenago ilunbeetako erresumara sarrarazi zuen. Kar-kar-kar… –barre-zantzoka egin zuen, ordura arte zahartzaroko baretasun sakonean haurra bezain xaloa[2930] iruditu zitzaidan agure harek, maltzurkiro[2931].

— Nortaz ari zara? –Gilenek galde.

Durduzaturik[2932] begiratu zigun.

— Nortaz ari ni? Ez dut gogoan… Hori antzinan izan zen. Baina Jainkoak zigortzen du, ezabatzen du, oroimena ere lausotzen[2933] du. Liburutegian harrokeriazko zerarik asko agiarazi[2934] izan da. Arrotzen eskutara erori zenez gero, batez ere. Jainkoak, berriz, zehatzen du, zigortzen du...

2929Gudakin: botín de guerra (?)
2930Xalo: sencillo, cándido, inocente
2931Maltzurkiro: (H. “con malignidad”)
2932Durduzatu: (H. “desconcertar”)
2933Lausotu: (H. “ofuscar”) (Ilundu, lainotu...)
2934Agiarazi: (H. “cometer”) (Agitu: acontecer, ocurrir..) (N) (?)

Gehiago esaterik ez genuen jadetsi, beraz, hala, haren eldarnio baketsu eta herratsu haretan murgildua utzi genuen. Gilenek esan zuenez, elkarrizketa hura axola handikoa izan zitzaion:

— Alinardo adi entzun beharreko gizona duk. Mintzatzen den guztietan axolagarri den zerbait esan ohi dik.

— Zer esan du honetan?

— Adso –Gilenek niri–, misterio baten argitzea ez duk lehenengo hatsarreetatik hasita ondorioak ateratzea bezala. Eta ez duk, halaber, norbanako batzuen datuen bil eta gero hauen bidez lege orokortua osatzea. Bestela izan liteke, hots, norbanakoen bat, bi edo hiruzpalau datu biltzea, haien artean loturarik ez dutenak itxuraz, eta oraindik ezagutzen ez den lege orokor baten osagaiak izan ote litezkeen irudikatzen saiatzea, agian inoiz ere ezagutu ez den lege. Esaterako, baldin badakik, filosofoak dioena, gizonak, zaldiak eta mandoak behazunik ez dutena eta luzaroan bizi direna, ondoriozta dezakek, edo saiatu bederen, hatsarre bat: behazunik bageko abereak luzaro bizi dituk. Pentsa ezak, aldiz, adardun abereez. Zergatik daduzkate adarrak? Bat-batean ikasi duk adardun abereek goiko matrailezurrean hortzik ez dadukatela. Aurkikuntza hau axola handikoa

lukek, zeragatik ez balitz, ai, goiko barailan hortzik bageko abereak badagozelako adarrik ere bagekoak, gamelua bat. Azkenik, goiko matrailezurrean hortzik ez dadukaten abere guztiek bi urdaildunak direla aurkitu duk. Bada, pentsa dezakek, ezen, hortz gutiz gaizki murtxikatzen edo mamurtzen dela, eta, ondorioz, janariak hobeki liseritzeko beste urdail bat gehiago behar dela.

— Horrenbestez, zertarako adarrak? –galdetu nion artegero[2935]–. Eta zer dela eta diharduzu adardun abereez?

— Nik ez diat inoiz horietaz jardun, baina Lincoln-go gotzainak bai, horietaz arreta hartu ukan dik, eta handia gainera, Aristotelesen asmo bati jarraikiz. Zinez, ez nekikek esaten haren arrazoimendua zuzena denentz; eta, bestalde, ez nauk konturatu gameluak hortzak eta zenbat urdail. Gai hau ekarri badiat erakusteko izan duk, azalpenezko legeen bilatzea, gertaera naturaletan, bide oso zehar eta oker batzuetatik etor daitekeela erakusteko, hain zuzen. Aurrean gertaera ulertezin batzuk dituanean, lege orokor batzuk irudikatu behar dituk, gertaerekin loturarik ba ote duten ez jakin arren. Harik eta, dzanpez, nolabaiteko loturarik aurkitzean, arrazoimendu haietako bat besteak baino konbentzigarriago iruditzen zaian arte. Ondorean, antzeko

2935Artege: impaciente (Artega)

gertaera guztiei ezarri nahi diek, eta aurrikuspen batzuetarako formuletan erabiltzen saiatzen haiz eta asmatu duala aurkitzen duk. Baina bukaerara arte, ezin jakin zelako osagaiak sartu behar dituzkean arrazoimenduan, eta zeintzuk baztertu behar. Ni honako arazo honetan honela ari nauk. Osagai ezberdin eta elkarrekikorik ez dutenak zerrendatzen ditiat, eta hipotesiak irudikatzen. Gauza ugari irudikatu behar eta haietako batzuk guztiz zentzugeak direnez, hiri aipatzeak lotsa zemaidak. Brunello zaldiaren gertaeran, esate baterako, lorratzak ikusi nituenean, beredin hipotesi edo agian bezalako irudikatu nian, elkarren aurkakoak batzuk, elkarren osagarriak bestetzuk: ihes egindako zaldia izan zitekean; zaldi eder horren gainean itzegoz Abadea joan zitekean, maldan beheti; izan zitekean zaldi batek, Brunellok, elurtzan oinatzak uztea eta beste zaldi batek, Favellok, aurregunean bere tximak laharrean utzi izana, eta gizon batzuek adarrak kraskatu. Hipotesi zuzen zein zen sehiburua ikusitakoan jakin nian, beste zerbitzari batzuekin pipiria[2936] handiz bila eta bila ari baitziren. Orduantxe ohartu ninduan hipotesi on bakarra Brunellorena zela, eta egiazkoa zenentz baieztatzen saiatu ninduan fraideei, egin nien moduan, oihu eginez[2937]. Irabazi egin nian, baina era berean

2936Pipiria: ansiedad (?) (Estutaasun, larritasun...)
2937Oihu egin: (H. “apostrofando”)

gal nezakean. Orain, abadian gertatutakoez hipotesi erakargarri batzuk baditiat, onena zein den esateko nabari den ezer ez diat, ostera. Beraz, kokoloarena ez egitearren, izpikuarena[2938] egiten hasi nahi ez diat. Utz iezadak pittin bat gehixeago hausnartzen, bihar arte, behinik behin.

Une haretantxe ikasi nuen nire maisuak nola arrazoitzen zuen, eta ene irudiz haren metodoak ez zuen zerikusirik filosofoarenarekin, lehenengo hatsarretatik hasita arrazoitzen zuenarenakin. Gilenek, nik orduan ulertu nuen, erantzun bakarra ez zuenean hainbat balizko erantzun, batzuk besteetatik hain bereiziak, irudikatzen zituen. Harri eta zur geratu nintzen.

— Horrela bada –ausartu nintzen iruzkin egitera–, konponbidetik urrun zagoz oraino...

— Biziki hurbil nagok, ez jakin norik[2939], ordea.

— Hots, ez duzu zure galderarako erantzun bakarrik?

— Baldin banu, Adso, Parisen teologia irakasten arituko nindukek.

— Parisen beti erantzun zuzena?

2938Izpiku: muy listo
2939Norik: nondik, norean

— Inoiz ere ez, baina beren okerrez txit ziur zagozak.

— Eta zu? – haur-petralkeriaz[2940] ni mintzo–. Zuk ez duzu okerrik egiten?

— Sarri askotan. Baina oker edo hutsune baten lekuan nik beredin irudikatzen diat, bakar baten jopu[2941] ez izaiteagatik.

Gilenek, nire irudiz orduan, ez zuen axola apurrik egiaz zen bezainbatean, izan ere, egia gauza eta adimenaren[2942] artekoa egokitzean datza. Bera, ordea, litezkeenen artean ahalik eta litezkeenen zerrendarik luzeena irudikatuz jolasten zen.

Une haretan, aitor dut, nire maisuarekin etsitu nintzen eta nik neure burua harritu nuen, pentsatuz: «Beharrik[2943] inkisizioa iritsi da.» Bernardo Gui bultzatzen zuen egia lortzeko egarriaren alde egin nuen.

Hain gogoeta erredunetan ari eta ari, Judas Ostegun Santuko gauean baino nahasiago, Gilenekin jatokira sartu nintzen, abaritara.

2940Petralkeria: impertinencia
2941Jopu: esclavo
2942Adimen: (H. “intelecto”)
2943Beharrik: gaitz erdi (Menos mal, afortunadamente….)

LAUGARREN EGUNA

KONPLETAK

Salbatore aztikeria miresgarri batez mintzo denekoa.

Etorri ordezkarientzako abaria naro-naroa[2944] izan zen. Abadeak, antza, ongi bai ongi ezagutzen zituen hala gizonen ahulkeriak nola Aitasantuaren gorteko ekanduak[2945] (berauek, esan behar dut, frai Micheleren frantziskotarrak ere ez zituzten atsebagetu). Sukaldariak odolkiak Monte Cassinoko erara egitea pentsatu zuela esan zigun, egun haietan hildako zerrien odolaz, baina Benantzioren amaiera zorigaiztokoa izan zela eta, odola bota beharra ukan zuten, eta, honegatik beste urde batzuk hil arte itxaron behar. Gainera, egun haietan inork ez zuen Jaunaren izakirik hil nahi. Honelarik ere, usakumeak saltsan eduki genituen, lurraldeko ardotan beratuak, eta untxiki errea, Santa Klararen opilak, mendialde haretako arbendolaz eginiko

2944Naro: (H. “soberbia”)
2945Ekandu: ohitura, ohikuntza

arroza, hots, barau eguneko jaki zuria, borraia-osto erregosiak, oliba beteak, gazta erregosia, piper-saltsa gordinean egositako ardikia, baba zuriak, eta txibizkeria gozo-gozoak, Jaun Done Bernardoren pastela, Jaun Done Nikolaren pastelttoak, Andere Dona Luziaren begittoak, eta ardoak eta belar-paitarrak Bernardo Gui bera ere aldarte onean jarri zutenak, hau oso gizon ilunpea[2946] zen hau; besteak beste: garraiska[2947]-paitarra, moskan[2948]-paitarra, hezueri-kalteko[2949] ardoa eta errosta[2950]-ardoa. Zurrut eta ahamen bakoitzean jainko-irakurgaien atalak aditzen ziren eta honegatixe, bestela, salbelkoi-batzarra zirudikeen.

Azkenean ziren guztiak txit alai jaiki ziren, batzu-batzuk ondoezik itxuraz konpletetara ez joaiteko aitzakiaz. Abadea, berriz, etorkor[2951]. Orok ez du gure baldernakoak izaiteagatik dugun beharkizunik, ez lege berezirik.

Fraideak atera artean, ni kuxkuxean sukaldean belutu nintzen, eta bertan dena antolatzen ari ziren, gauean ixtearren. Salbatore ikusi nuen, pardel bat galtzarbean,

2946Ilunpe: (H. “austero”) (Serio...)
2947Garraiska: toronjil
2948Moskan: intxaur-oskol berdea
2949Hezueri-kalteko: (H. “contra la gota”) (Siskalte...)
2950Errosta: genciana
2951Etorkor: tolerante, comprensivo

itzalgaizka[2952] baratzerantz. Jakin-minak jo eta haren atzetik joan eta dei egin nion. Hanka egiten saiatu zen, baina pardelean zer zeraman galdetu nionean (zerbait bizirik balego bezala higitzen baitzen) basilisko bat zela erantzun zidan.

— *Cave basilischium! ¡Est lo errege sugeena, pozoinez kun-kun, azaladea disturatsu!¡Que dictam, pozoinak isuri hatsak hiltzen dik! Te atosiga... Et bizkarrean orban zuriak et caput oilarra bezalakoa, et erdia zutik lur gainetik et erdia beste sugeak laso lurretik. Enda, ogigaztak hiltzen dik…*

— Erbinudeak[2953]?

— *Oc! Bestiola parvissima est, más luze alcunché que la arratoia, et odiala arratoiak moltisimo. Y també sugeak y el escorzo. Et cuando istos la morden, ogigazta corre a la fenícula o a la circebita et las mordisca, et redet ad bellum. Et dicunt que ingendra por los óculos, pero los más dicen que ils dicen gezurra.*

Basiliskoarekin zer zegien galdetu nion, eta bere arazoa zela erantzun. Jakingura ni eta egun haietan, hildako

2952Itzalgaizka: a hurtadillas, a escondidas
2953Erbinude: ogigazta (Comadreja, hurón...)

haiekin guztiekin, isilpeko arazorik ez zegoela esan nion, eta Gilenik julkiko niola. Orduan, sutsuki, ezer esan ez nezan otoi eta arren galdatu, pardela ireki zuen eta ile beltzeko katu bat erakutsi. Beregana hurbilarazi ninduen, eta irri lizun batekin, ez nik ez sehiburuak, bata gazteagatik bestea ahal zuelako, neskaren laztana eskura ahal genezan nahi ez zuela esan zidan. Berak, ordea, itsusi-txiroa zelako, ezin baitzuen neskaren txera erdietsi. Eta bazekiela aztikeria oso ahaltsua, edozein emakume maitez mintzeko lortzekoa. Katu beltz bat hil behar zuen eta begiak erauzi, eta begiok oilo arrautza banatan sartu (eta bi arrautza erakutsi zidan, eta egokiak ziren oiloei edeki zizkiela esan zidan). Gero arrautzok zaldi-gorotzez estali behar ziren (eta baratzeko txoko batean, inor inoiz iragaiten ez zen lekuttoan, prest zedukan), eta usteldu arte bertan utzi behar, eta gerora arrautza bakoitzean deabrutto bat jaioko zen, eta, zioenez, bere alde jarriko ziren mundu honetako atsegin guztiak berari eskaintzearren. Alabaina, ai!, aztikeria ondo gertatze aldera, maitegaia zuen emaztekiak arrautzei tu egin behar zien gorotzean lurpera baino lehen. Bazuen, hala ere, larritzen zuen arazo bat, zeren, harako emaztekiak gauean ondoan egon behar baitzuen, eta esandako hori egin behar, zertarako zen jakin bagerik.

Bat-batean lotsagorritu nintzen, begitartea, erraiak, soin guztia izeki zitzaidan, eta ahots-hari batez galdetu ea gau haretan beste behin aurreko gaueko neskatxa ekarriko ote zuen. Barre egin, eta iseka egin eta baietz erantzun zidan, eta jeslokor nengoela (nik ezetz, jakite hutsagatik galdetu niola) eta baserrian neskatxarik asko zegoela adiarazi zidan, eta beste bat ekarriko zuela, niri atsegin zitzaidana baino are ederragoa. Haren atzetik joan ez nendin gezurra ziraustala uste nuen. Gainera, zer egin nezakeen? Hari jarraiki, gau osoan, Gilen beste eginkizun batzuetarako nire zain zegoen artean? Berriro neska hura ikus (ber-bera izango zelako ustean) nire nahikeriak harenganatz bultzatzen baininduen, nire senak bestera esaten zidan arren, ikusi behar ez nuen hura nahiz eta ikusi nahi biziak berriz ikustea nahi zuen? Ez, noski. Beraz, Salbatorek emakumeaz egia ziraustala sinetsarazi nion neure buruari. Edo, denean gezurra zioen, aipu zuen aztikeria bere gogoaren mentsa[2954] eta bere sineskeria baino ez zen, eta asmakeria hura ezertarako ez zen izanen.

Haserretu nintzaion, bada, latz hartu nuen, gau haretan lo egitera joaitea hobe zukeela esan nion, arkulariak barrutitik hara-horra zebiltzala eta. Abadia arkulariek baino

2954Ments: carencia, falta, defecto

hobeki ezagutzen zuela ihardetsi zidan, eta laino zikin haren pean inork inor ikusiko ez zuela. Areago, oraintxe ihes egingo banu, esan zidan, zuk ez nindukezu ikusiko, bi urratsera alderatu arren, eta zeuk nahi duzun neskatxarekin goxoki arituko banintz ere. Hitz zantarragoak erabili zituen, baina horixe esan nahi zuen. Sumin-sumin eginda alde egin nuen, izan ere, ni mazala[2955] eta fraidegai nintzenez, ez nintzen halako txatxarrarekin[2956] eztabaidan edo ika-mika haskidin.[2957]

Gilenekin bat egitera joan nintzen eta egin behar zena egin genuen. Hau da, konpletak otoitz egitera gerturatu ginen, habearteko sakonaldean, nola eta, otoitzaldia bukatutakoan gure bigarren (nire hirugarren) ibilaldia egiteko prest egonen ginen eran, nora eta labirintoaren erraietara.

2955Mazal: noble
2956Txatxar: (H. “canalla”)
2957Haskidin: ekidin, harkidin, eginkidin…: dispuesto a… (-kizun) (?)

LAUGARREN EGUNA

KONPLETAK BUKATU ETA GERO

Berriro labirintora eta *finis Africae* delako atalasera iristen denekoa, baina ezin irago, zeren, lauretarik lehena eta zazpigarrena zer ziren jakiterik ez baitago; eta, azkenean Adso bere maitasun minaz harzara minagotzen da, gainera era bereziaz[2958].

Liburutegialdia luzea izan zen, lan-ordurik asko. Ustez, eginkizun genuen araketa erraza zen, baina eskuan argiontzia, idazkunak irakurri, mapan urratsak eta arrakalarik bageko hormak markatu, hitz-hasierak erregistratu, hara-horrako ibilbideetan zehar, batzuetan oztopo bestetzuetan iraganbide… luze samar egin zitzaigun. Gogaikarri ere bai.

2958Berezi: (H. “erudita”) (?)

Hotz handia zegoen. Haizerik ez zebilen eta harako txistu sarkor aurrekoan zirrara eragin ziguten haien antzekorik entzuten ez zen, honela eta guztiz ere, leihoxketatik aire heze eta hotz-hotza sartzen bai. Artilezko eskularruak jantzirik, eskuak uzkurtzeke[2959] liburukiak ukitu ahal izaitearren. Baina neguan idazteko erabili ohi ziren motakoak, alegia, hatz-puntak agerian uzten zituztenak, eta txitean-pitean eskuak su ondora behar genituen, edo eskapulario azpian ezkutatu, edo bata besteaz joarazi, gu, hozmindurik, jauxika-jauxika ari ginen bitartean, bizkortuko baginen.

Horregatik dena txanda[2960] batean egin genuen. Ez ginen geratu kuxkuxean armairuetan eta, ordurako, liburuak irakurteko aukera zuenez –sudurrean jantzirik betaurreko berriez– Gilenek zeinbait izenburu aurkitutakoan poz-hotsak egiten zituen, bai izeneko liburua ezaguna zuelako, bai haren bila ibili izan zelako, edo, azkenik, inoiz ere haren berririk jaso ez zuelako eta honen ondorioz jakin-mina handiago. Hots, liburu bakoitza berarentzat kondairako piztia baten antzekoa zen, lurralde ezezagunean aurkitua.

2959Uzkurtu: (H. “pasmar”) (Hozmindu, kukuldu...)
2960Txanda batean: de una tirada

Eta eskuizkribua orriz orri aztertzen zuen artean, niri beste batzuk bila nitzan agintzen zidan.

— So egik ea zer dagoen armairu horretan!

Eta nik liburuak banan-banan eta nekez baina izenburuak irakurten nizkion:

— *Historia anglorum* Beda-rena... Eta Bedarena berarena *De aedificatione templi*, *De tabernaculo*, *De temporibus et computo et chronica et circuli Dionysi*, *Ortographia*, *De ratione metrorum*, *Vita Sancti Cuthberti*, *Ars metrica*.…

— Jakina, Agurgarriaren idazlan guztiak… Eta begira hauei! De *rhetorica cognatione*, *Locorum rhetoricorum distinctio.* Eta gramatikari hauek guztiok, Prisciano, Honorato, Donato, Maximio, Victorino, Metronio, Eutiques, Focas, Asperu... Bitxia duk, hatsarrean hemen Angiako liburuginak soilik egongo zirela… So dagigun beherago…

— *Hisperica... famina*. Zer da?

— Olerki hiberniar bat. Adi ezak:

Hoc spumans mundanas obvallat Pelagus oras

terrestres amniosis fluctibus cudit margines.

Saxeas undosis molibus irruit avionias.

Infima bomboso vertice miscet glareas

asprifero spergit spumas sulco,

sonoreis frequenter quatibur flabris... [2961]

Esanahia ezin nik ondo ulertu, baina Gilenek hitzak ahoan biribiltzen-edo zituelako bazirudien uhinen hotsa eta itsasoaren aparra aditzen zirela.

— Eta hau? Malmesburyko Aldhelm-ena da, adi zer dioen hemen: *Primitus pantorum procerum poematorum pio potissimum paternoque presertim privilegio panegiricum poemataque passim prosatori sub polo promulgatas...* Hitz guztiak hizki beraz hasten baitira!

— Ene uharteetako gizonak xoro xamarrak dituk –ziraustan Gilenek harro–. So dagigun beste armairuan.

— Virgilio

— Nolatan hori hemen? Virgilioren zer? Georgiarrak?

2961Latinezko testu hau olerki hiberniar batekoa da, izenburuz *Hisperica famina*, 600 bertso baino gehiagokoa, VII. mendean edo, Irlandan osotua, eta latin-greko klasikoen eraginaz gain, uharte haretako latinaren eta zeltera latineztatuaren bereizgarriak dituena. «Bere aparrarekin Ozeanoa munduko itsas-hegientzat lubakia da, bere hego urkariez lurraldeetako azken mugak astintzen ditu. Irlandako harkaitz avioniarrak [Irlanda?] bere ur-multzoez inarrosten ditu...». (Itzulpena ezin osa daiteke, doi-doi, hainbat hitz ezezagun nahasten baitu, eta hutsuneak ere batzuk).

— Ez. *Epítome*. Nik inoiz entzun bagekoak.

— A, baina ez duk Maron! Toulouse-ko Virgilio duk, erretorikoa, sei mende Gure Jaunaren jaiotzaz gerokoa. Jakintsu handia izaitearen ospea zian…

— Hemen dioenez, antzeak *poema*, *rethoria*, *grama*, *leporia*, *dialecta*, *geometria*... dira, baina zein hizkuntzaz dagi?

— Latinez, baina berak asmaturiko latin batez, askoz ederrago, here eritziz, bestea baino. Irakur hemen: astronomiak zodiakoko zeinuak ikertzen dituela ziok, eta hauexek dituk horiek: *mon*, *man*, *tonte*, *piron*, *dameth*, *perfellea*, *belgalic*, *margaleth*, *lutamiron*, *taminon* eta *raphalut.*

— Zoro ote?

— Ez zakiat, ez zuan ene uharteetakoa. Adi ezak beste hau: sua izentzeko hamabi era dagozela ziok: *ignis, coquihabin (quia incocta coquendi habet dictionem), ardo, calax ex calore, fragon ex fragore flammae, rusin de rubore, fumaton, ustrax de urendo, vitius quia pene mortua membra suo vivificat, siluleus, quod de silice siliat, unde et silex non*

recte dicitur, nisi ex qua scintilla silit. Eta *aeneon, de Aenea deo, qui in eo habitat, sive a quo elementis flatus fertur.*

— Inork ez du horrela hitz egiten, ordea!

— Zorionez. Garai haietan, munduko gaiztakeria ahanzteko, gramatikariak arazo ilunetan[2962] aritzen zituan jolasean. Jakin dudanez, halako batean Gabundus eta Terentius hamabost egunez gauekin aritu izan zituan, *ego* hitzaren deikiaz eztabaidan, eta azkenean iskiluetara iritsi.

— Baina beste hau, halaber, aditu… –Liburu ederki argiztatu bat hartu nuen, barazki-labirintoak zeduzkana, eta aihenetan[2963] tximinoak eta sugeak–: Adi zelako hitzak: *cantamen, collamen gongelamen, stemiamen, plasmamen, sonerus, alboreus, gaudifluus, glaucicomus.*…

— Ene uharteak –berriz ere Gilenek, bihozbera–. Ez hadi Hibernia urruneko fraide horiekin zorrotz izan. Agian, abadia hau haiei esker duk, eta orobat erromatar inperio sakroaren irautea. Garai haretan gainerako Europa hondakin[2964] andana zuan… Behinola, Galiako apez batzuek egin bataioak indargetu nahi zitiztean, zergatik eta *in nomine patris et filiae* bataiatzen zutelako, eta ez heresia

2962Ilun: (H. “abstruso”)
2963Aihen: (H. “zarcillo”)
2964Hondakin: (H. “ruina”)

berri bat praktikatzen zutelako, Jesus emaztekia zela zioena, latinez ez zekitelako baizik.

— Salbatore, bat?

— Guti goiti-beheti. Ipar-iparraldeko itsas-lapurrak ibaietan zehar jaisten zituan, Erroma arpilatze aldera. Jentilen tenpluak lur jota geratzen eta giristinoak, artean, ez zituan. Hiberniako lekaideak, bakarrik, euren monasterioetan idatz eta irakur, irakur eta idatz egiten aritzen zituan, eta argi egin zitean, eta geroago abere-larruzko itsasontzietan sar eta lurralde hauetarantz jo, urez. Hi Bobbion izan haiz: lekaide haietako batek, San Kolonbanok, fundatu zian. Beraz, ez itzak gaitzets latin berri bat asmatu zutelako, Europan orduan ez baitzen zaharra ulertzen. Gizon handiak zituan. San Brandan' Zoriontsuak[2965] uharteetaraino heldu zuan, eta inpernuko itsas-hegietatik ibili[2966], eta kardal[2967] batean Judas kateaturik ikusi zian, eta halako egun batean uharte batera iritsita, oina lehorrean ipini eta, hara! uharte ez, itsas-munstro bat zela konturatu zuan. Zoroak zituan, doike – nahikoetsirik berriro esan zuen.

2965Zoriontsuak: (H. "Afortunadas")
2966Itsas-hegietatik ibili: (H. "bordear")
2967Kardal: (H. "arrecife")

— Irudiok… Ezin sinets nire begiek dakusatena! Zeenbat margo! –liluraturik, ni.

— Margoak ugari ez diren herrialdean, urdin-berde apur bat nonahi. Baina ez gaitezen mintza gehiago hiberniar fraideez. Jakin nahi diat zergatik dagozen, angloen eta beste herrialde batzuetako gramatikarien ondoan. Begira hire mapan. Non ote gagoz?

— Sartaldeko dorretzarreko geletan. Idazkunak ere kopiatu ditut. Beraz, hala, gela itsutik irtetean zazpialboko aretora sartzen da, eta iragazgu bakar bat dago dorretzarreko gela batera doana, bertan hizkia gorria eta H-a da. Gero dorretzarreko beste gela batzuetan zehar joan daiteke, eta beste behin gela itsura iristen da. Hizkien hurrenkera… Zuzen zagoz! ¡HIBERNIA!

—HIBERNIA, gela itsutik atzera zazpialbokora itzultzen bahaiz; beronek beste hirurek bezala Apokalipsiko A hizkia zadukak. Horregatixe zagozak hemen azken Tuleko idazleen lanak, eta gramatikarienak ere bai, eta erretorikoenak, zeren, liburutegia antolatu zutenen eritziz, gramatikariak hiberniar gramatikariekin egon behar dik, Toulousekoa izanagatik ere. Erizpide bat duk. Ikusten nola zerbaiten ulertzen hasten garen?

— Horrela ere, sortaldeko dorretzarreko geletan, sartu garenekoa alegia, hizkiek FONS… Zer esan nahi du?

— Irakur ezak ongi hire mapa, irago behar diren geletako hizkiak irakur.

— *FONS ADAEU*…

— Ez, *Fons Adae*: U hori ekialdeko bigarren gela itsua duk. Gogoan diat; agian beste sekuentzia bati zagokiok. Eta zer aurkitu dugu *Fons Adae* horretan, hots, lur-paradisuan (gogora ezak eguzkia sortzen den alderantz dagoen aldarea dadukan gela bertantxe dagoela)?

— Biblia asko dago, eta bibliari buruzko iruzkinak, liburu sakratuak baino ez.

— Horrela bada, badakusak, Jaungoikoaren hitza lur-paradisuarekin lotua, eta berau, horiek guztiek diotenez, ekialde urruneko lurralde batean zagok. Eta hemen, mendebaldean, Hibernia.

— Beraz, liburutegiaren egitarauak mundu-mapa islatzen du?

— Balitekek. Eta liburuak jatorrizko herrialdekal ipinita zagozak, edo egileen jaioterrikal, edo, honako honetan legez, jaio behar zuten lekuaren arauera. Liburuzainek

Virgilio gramatikaria Toulousen oker jaio zela pentsatu zitean, sartaldeko uharteetan jaio behar izan baitzuen. Izadiaren okerrak zuzendu zitiztean.

Aurrera jo genuen. Apokalipsi ugari eta bikainak zegozen geletan zehar joan ginen, eta hauetako bat nik harako ikuspen haiek ukan nituenekoa zen. Urrundik argia ikustean Gilenek sudurra estali eta itzaltzera egin zuen, errautsei tu eginez. Eta gela ziztu bizian zeharkatu genuen, baina niri ezin ahantzi han bertan margoanitzezko Apokalipsi eder-ederra ikusia nuela, *mulier amicta sole* eta herensuge eta guzti. Sartu ginen azkenetik hasita, Y hizki gorria zedukana, gela haien hurrenkera berreraiki genuen. Aztzekoz aurrera irakurriz, YSPANIA hitza osotu genuen, baina azken A hori HIBERNIAren azkenekoa bera zen. Gilenek esan zuenez, zeinbait gelatan izaera ezberdinetako liburuak gordeta zegozelako ezagugarria.

Zena zela, YSPANIA zeritzon aldea Apokalispia zedukaten kodize mordoz betea zegoela iruditu zitzaigun, apain-apain ilustratuak guztiak, Gilenen gardiz[2968], tankera hispaniarrekoak. Agian, guk uste, liburutegiak kristaugo osoan apostoluaren liburuen kopia bildumarik handiena zedukan, eta haretako testu-iruzkin andana gaitza ere bai.

2968Gardi: eritzi, aburu, uste…

Liburuki eskergeak batzuk, Liebanako Beatoaren iruzkinak zeduzkatenak. Testua beti, gora-behera, berdina zen, irudietan, aldiz, askotariko liluragarriak, eta Gilenek batzuen erreferentziak ezagunetsi zituen, beraren eritziz Asturiasko miniaturagilerik onenak: Magius, Facundus eta beste.

Hauek eta besteak ikuskatzen gindoazela, hegoaldeko dorretzarrera heldu ginen, zeinaren ondotik aurreko gauean irago baikinen. YSPANIAKO S zedukan gelatik –leihorik bagekoa– E gela batera heltzen zen, eta, dorretzarreko bost gelak zeharkatu ondorean, atzenengora iritsi ginen, besterekiko loturarik ez zuenera. L hizkiduna zen, gorria. Sekuentzia berriz era atzekoz aurrera irakurririk, LEONES hitza osatu genuen.

— *Leones*, *meridión*, gure mapan Afrikan gagozak, *hic sunt leones*. Fedebageko egileen beredin testu zergatik aurkitu dugun ulertarazten dik horrek.

— Eta gehiago badago, haboro –esan nuen armairuetan azterkatzen[2969] ari nintzeino–. Avicenaren *Canon*-a, eta kodize eder-eder hau, ezagutzen ez dudan kaligrafiazkoa...

— Apaindurak nolakoak, koran bat izango ahal duk, baina, ondikoz, arabieraz ez zakiat.

2969Azterkatu: (H. “hurgar”)

— Korana, jentilen biblia, liburu andurra[2970], gaiztoa…

— Gurea ez bezalako jakituria duen liburua. Baina, uste dudanez, baduk ulertzen zergatik ipini zuten hemen, lehoi eta bidutziekin. Horregatik, halaber, piztia nazkagarrien liburua hementxe zagok, ikusi duan adarbakarra ere bertontxe. Alde honetan, LEONES deritzona, gezurrak dituzten, liburutegia eraiki zutenen eritziz, liburuak gordetzen dituk. Zer dago han?

— Latinez dagoz, arabieratik itzuliak izan arren. Ayyub al Ruhawi, zakurren hidrofobiazko tratatu bat. Hau altxorrei buruzko liburu bat. Eta beste hau *De aspectibus de Alhazen.*…

— Ikus: munstroen eta gezurren artean zientziazko liburuak ere ipini ditiztek. Giristinoek hauetaz beredin ikasi behar ditek. Liburutegia eraiki zen garaian halakoxea burubidea[2971].

— Baina, gezurren artean zergatik adarbakarra duen liburua? –galde egin nion.

— Enura bagerik, liburutegia eraiki zutenek aburu bitxiak zitiztean. Liburu honetan urruneko herrialdeetan bizi diren

2970Andur: ruin…/ sin brío, mentecato/… (Haidur: muy trabajador/…)
2971Burubide: consejo / pensamiento / fuste /….

piztia edo patari fantastikoez hitz egiten duk, eta haiek, eraikitzaileek, beharbada, fedebagekoek hedatu gezurren bildumatzat hartu zitean, antza.

— Adarbakarra gezurra ote da? Piztia barregarria da oso, sinbolismo txit handia biltzen duena. Kristoren eta kastitatearen irudia, harrapatzeko era bakarra neskuts bat oihanean ipintea da, zeren, horren usain garbi-garbia aditurik, piztia hurbiltzen zaio eta burua birjinaren altzoan ipinten duenez ehiztariek lakioz atzemaiten baitute.

— Horixe ziotek, Baina, anitzen ustez, hori jentilek asmaturiko alegia hutsa bazik ez duk.

— Hau bai kamusada[2972]! Oihanean bat edo bat aurkitu izan banu poz hartu[2973] nukeen. Bestela, zelako pozbide izango luke oihanean zehar ibiltzeak?

— Izan, ez denik ere ez zagok esanda. Agian ez duk liburuotan agertzen den bezalakoxea. Veneziar bidaiari batek, hagitz urrutiko herrialdeetara iritsi zenak, mapetan agertzen den *fons paradisi* delakoaren ondoan adarbakarrak ikusi ei zitian. Zakarrak eta txepelak[2974], beltzak eta ezain-ezainak, itsusiak guztiz iruditu omen zitzaizkioan, Nire

2972Kamusada: desilusión, decepción
2973Poz hartu: (H. “hacer gracia”)
2974Txepel: (H. “sin gracia”)

ustez, ikusi zituen piztiek adarbakarra zedukatean, bekokian. Heldubada, antzinateko jakintsuek irudikatua utzi ziguten berdina izango ahal zuan; ez zituan haiek oker, zeren Jaungoikoak guri ikusterik eman ez digun gauzarik asko haiei, jakintsuei, ikusteko aukera eman baitzien. Hasierako deskripzio hura zintzoa zela zirudian, baina *auctoritas en auctoritas* ibiliz gero, irudimenak aldatu eta aldatu egin zian, eta azkenean adarbakarrak abere barregarri, zuri eta otzan bihurtzen dituk. Hornenbestez, inoiz oihanean adarbakar bat bizi dela entzun baheza, ez hadike joan birjina batekin, zeren, piztia' veneziarrak ikusi zuenaren antzekoago bailiteke, liburu honetan agertzen denaren baino.

— Eta, nolatan eman zien Jainkoak behialako jakintzaren maisuei adarbakarraren egiazko izaeraren ezagutzeko aukera?

— Ez zuan aukera, esperientzia baizik. Adarbakarrak bizi ziren herraldeetan jaiotzeko zoria ukan zitean, edo herrialde haietan adarbakarrak bizi ziren garaian.

— Beraz, hala, nola entzindu ahal dugu ezer antzinako jakituriatik, zuk beti bilatzen duzuna, liburu gezurtien bidez heltzen zaigularik, hain hala-hola interpretaturik?

— Liburuak ez dituk egiten diotena sinets dezaguntzat, azter ditzaguntzat baizik. Liburu bat hartzen dugunean, zer dioen ez diagu galdetu behar, zer esan nahi duen baizik, eskrituretako iruzkingileek ongi ikusi zuten bezala. Liburuok deskribatzen duten bezala, adarbakarrak egia morala dik, alegiazko nahiz anagogiko, beti egiazkoa, kastitatea onbide mazala delako aburua den bezala. Alabaina, hitzezko egiaz den bezainbatean, beste hirurak honetantxe bermatzen baitira, ikuskizun zagok zein jatorrizko esperientziatatik eratorten den hizkera hura. Hitza eztabaidagarria duk, esanahia baliagarria izan arren. Zeinbait liburutan esaten denez, diamantea lantzeko era bakarra akerraren odola erabiltzea duk. Nire maisu Roger Bacon handiak hori egia ez zela esan zian, berak horrela egiten saiatu arren lortu ez zuelako. Baina diamantearen eta akerraren odolaren artean halako lokarririk izan balitz, esaera haren zentzurik gorenak iraun izango zian.

— Hori horrela, egia gorenak hitz gezurtiez esatea badago. Hala ere, adarbakarra, den bezalakoa dela, ez den, izan ez den eta inoiz edo behin izanen ez dengatik atsebage naiz.

— Jainkoaren oroahaltasunari mugarik ezartea ez diagu haizu, eta Jaunak nahi baleza adarbakarrak ere izan litezkek.

Poz hadi, horrelarik ere, zeren, liburuotan, egiazko izakiaz mintzatu ez arren, izan litekezko izakiaz behintzat mintzatzen baitira.

— Beraz, liburuak fedeaz baliatu[2975] bagez irakurri behar al dira, fedea bertute teologola baita?

— Beste bi bertute teologal gehiago zagok. Litekeena izanen den itxaropena, eta litekeena bazela fede onez sinetsi duenarenganako karitatea.

— Baina, zertarako nahi duzu adarbakarra zure adimenak hura sinesten ez badu?

— Zertarako, zera, Benantzioren gorpua zerrien upeleraino tarraz eraman zuteneko oinatzak elurtzan bezala baliatzeko. Liburuetako adarbakarra arrastoa[2976] bezalakoa duk. Arrastoa badago, zerbait baten arrastoa behar duk.

— Arrastoa bera ez bezalako den zerbait, esan nahi duzu.

— Bai. Arrastoak ez dik beti utzi duen gauzaren itxura bera, eta ez duk beti sortzen gauzaren presioaz. Batzuetan gauza horrek gure gogoan utzi duen zirrara birsortzen dik, ideia baten arrastoa duk. Ideia gauzen zeinua duk, eta irudiaren zeinua ideia, zeinu baten zeinua. Irudi baten bidez, gauza

2975Baliatu: (H. “recurrir”) (/ jo…)
2976Arrasto: (H. ”impronta”)

bera ez bada, gauza horretaz besteek zuten ideia birsor zezakeat.

— Eta hori nahikoa duzu?

— Ez, benetako zientziak ideia ez baitu nahikoa, hau zeinua baino ez duk eta; gauzaren beraren egiara heldu behar dik. Beraz, arrasto baten arrasto honetatik katearen azkenean dagoen adarbakar bakanarengana iritsi nahi nikek. Honela, halaber, Benantzioren hiltzaileak utzitako arrasto nahasien bidez (pertsona ugarirenak izan litezkeenak) lagun bakar batenganaino, hiltzaileaganaino hain zuzen, iristea atsegin nikek. Epe laburrean egitea, ordea, ezin duk beti, beste zeinu batzuetatik iragaiteke.

— Horrenbestez[2977], inoiz ezin mintza naiteke beste gauza ezberdin batez mintzatzen zaidanaz, eta honela behin eta berriz eten bage, azkenengo zerbait, egiazkoa, izan, ez bada ere?

— Agian baduk, eta adarbakarra bera duk. Ez hadi kezka, goiz edo berandu aurkituko dik, beltz-itsusia izanagatik ere.

— Adarbakarrak, lehoiak, idazle arabiarrak eta orohar mairuak –esan nuen–. Zalantzarik ez, lekaideek aipatzen zuten Afrika da hau.

2977Horrenbestez, honenbestez..: (H. “Entonces”) (Por lo tanto...)

— Zalantzarik ez, ez duk. Eta baldin balitz, Pacifico da Tivolik aipatu olerkari afrikarrak ediren behar genitizkek.

Halaxe[2978], L gelaraino atzera eginda, armairu bat aurkitu nuen, eta berton Floro, Fronto, Apuleius, Martianus, Capella eta Fulgentius-en liburuen bilduma.

— Horrela bada, hementxe dago Berengariok zeinbait isilpekoren azalpena zegokeela zioen lekua –esan nuen.

— Ia hementxe. «*Finis Africae*» esaera erabili zian, eta hitzok entzutean biziki sumindu zuan Malakias. *Finis* hori azkenengo gela hau izan litekek, edo…–oihu bat iraitzi zuen–: Cluain Mhic Nóis-ko[2979] zazpi elizengatik! Ez duk ezer nabaritu?

— Zer?

— Itzul gaitezen S gelara, abiatu garenetikora![2980]

Lehenengo gela itsura bihurtu ginen, honako idazkun hau zedukana: *Super thronos viginti quatuor*[2981]. Lau irekidura zuen. Bata, Y gelarekikoa, zazpialbokorantz leiho bat irekia zuena. Bestea, P gelarekin lotua, eta kanpoaldeko hormari jarraikiz, YSPANIA sekuentziara sartzen zena.

2978Halaxe: (H. “en efecto”)
2979Cluain Mhic Nóis: Clonmacois (Irlandako herri bat)
2980Garenetikora: (garen+tik+ko+ra) (: a la de donde -hemos partido-)
2981«Hogeitalau tronuen gainean».

Dorretzarrera aldekoa E gelarekin, gu zeharkatu berri ginenekoarekin lotua zegoen. Gero irekidurarik bageko horma bat, eta azkenik iraganbide batetik U hizkia zuen bigarren gela itsura sartzen zen. S gela ispiluduna zen, eta zorionez nire eskuinaldeko horman zegoen, bestela, berriz ere beste harrieia bat ukanen nuen.

Mapari ondo begira, gela harek zerbait berezia zuela aurkitu nuen. Beste hiru dorretzarretako gela itsu guztiak bezala, erdialdeko zazpialbokoarekin lotuak izan behar ziren. Honela ez izaitez, zazpialbokora sartzekoa ondoko gela itsuan izan behar zen, U-duna. Honela ere ez zen honela: azkenengo hau, T-rekin lotua, barrenaldeko zortzialbokorantz leihoa zedukana, eta ezaguna genuen S-rekin ere lotua zen; bada, horrek azkenengo horrek gainontzeko beste hormak armairuz beteak zeduzkan, irekidurarik ez, beraz. Gure inguruan so eta orduan nabari iruditu zitzaigun zerbait aurkitu genuen, mapaz lagunduta: simetria kontu hutsengatik ez ezik, logika hutsagatik ere bai, dorretzar harek bere zazpialboko gela zukeen, eta honela ere, gela hura ez ager.

— Ez dago[2982] –esan nuen.

2982Dago: (H. “existe”)

— Ez duk ez dagoela. Egongo ez balitz beste gelak are handiagoak izango lituzkek Baina beste dorretzarretakoak neurriz bezalakotsuak dituk, guti gora-behera. Egon, bazagok, baina ez dik sarbiderik.

— Hormatua ote dago?

— Balitekek. Honelatan[2983] bada, hau *finis Africae* duk, orain hilik dautzan begiluzeak kuxkuxean ibili ohi ziren lekua. Hormatua zagok, baina batek zakik beste iragazgu edo sargurean bat edo bat ote dagoen. Are gehiago: hago ziur egon badagoela, eta Benantziok kausitu zian, edo Adelmok jakinarazi zioan, eta beroni Berengariok. Berrikus ditzagun haren[2984] oharrak.

Janzki barrurean Benantzioren orria idoki zuen eta berriro irakurri:

— Idoloaren gaineko eskuak lauretarik lehen eta zazpigarrenaren gainean jarduten du[2985] –bere inguruari soz–. Aiko[2986], bada! Bai horixe! *Idolum* ispiluko irudia baita!Benantziok grekoz pentsatzen zian, eta hizkuntza horretan, gurean bainoago, *eidolon* irudi nahiz espektro duk,

2983Honelatan bada: (H. “De modo que...”)
2984Haren: (H. “sus” ? Noren?)
2985Du: (H. ez du toka egiten, bere buruari mintzo zaiolako)
2986Aiko: (Bizkaian erabili ohi den esapidea, esklamatiboa -Harako?) (¡Hombre!, !Mira!, ¡Ahi va! ?)

eta ispiluak gure irudia bihurtzen ziguk, markestua[2987], eta guk geuk ere lehengo gauean, espektro batekin[2988] nahasi genian. Alabaina, zera, zer ote dira lau *supra speculum*-ak? Islatzen den gainazalaren gainean dagoen zerbait ote? Honela bada, angelu batean jarri behar, ispiluan islatzen den zerbait ikusiko badugu, eta Benantziok egiten duen deskripzioarekin zerikusirik dukeena…

Alde batera eta bestera hasi ginen, alperrik. Gure irudiak ez ezik, ispiluak, nahas-mahas, gelako beste irudi batzuk ere bihurtzen zizkigun, argiontziak ozta-ozta argitzen zituenak.

— Beraz –hausnarretan Gilen–, *supra speculum* horrezaz ispiluaz harago esan nahi likek… Ondorioz, lehenik, harago hel gintezkek, zeren, enura bage, ispilu hau ate diagu.

Ispilua gizona baino garaiagoa zen, eta horman zurezko marko sendo baten barruan sartuta zegoen. Alde guztietan uki eta uki egin genuen, gure hatzamarrak, gure hatzazalak marko eta hormaren artean sartu nahiz, arrakalaño bat bilatuz, baina ispilua gotortua bezala zegoen, hormarena[2989] bailitzan, harria harrian laso.

2987Markestu: deformar
2988Batekin nahasi: (H. “confundir con”) (Batabestetu...)
2989Hormarena: berez hormaren osagai edo zati / hormako: horman

— Eta harago ez bada, *super speculum* izan litekek –Gilen xuxurlaka mintzatzen, behatz-puntetan zutitzen, besoa goititzen, markoaren goiko aldetik haztaka[2990], eta hautsa baino ez kausitzen–. Gainera –hausnartu zuen damorriatsu[2991]–, hor gibelean gela bat balego ere, bilatzen dugun liburua, eta beste batzuek ere bilatu dutena, dagoeneko ez zagok hor, eraman baitute, lehenengoz Benantziok, geroago, batek zakik nora, Berengariok.

— Agian Berengariok hementxe ipini zuen atzera.

— Ez, gau haretan liburutegian gengozan, eta antza zenez, gau haretantxe, ebatsi eta gero, garbitokietan hil zuan. Bestela, biharamun goizean berriz ere ikusiko genian. Ez dik axola. Oraingoz *finis Africae* non dagoen azkondu[2992] diagu eta liburutegiaren mapa hobetzeko ia osagai guztiak ditiagu. Onartu behar duk, labirintoko misteriorik asko argituta zagok. Guztiak, esanen nikek, bat ez beste. Liburutegia arakatzen aitzina joan beharrean, Benantzioren eskuizkribua berriz ere ondo-ondo irakurtea hobe, nik uste. Ikusi duanez, labirintoko misterioa kanpotik barrutik baino errazago izan zaiguk. Gau honetantxe ez diagu arazoa ebatziko, gure irudi markestuen aurrean. Gainera, argiontzia iraungiten ari duk.

2990Haztaka: a tientas
2991Damorriatsu:melancólico
2992Azkondu: averiguar (Azkondatu) (?)

Hator, mapa bukatzeko behar ditugun zuin[2993] guztiak osatu behar ditiagu.

Beste gela batzuk zeharkatu genituen, beti nire mapan aurkitu ahala zera batzuk marraztuz. Gela batzuetan matematikaz eta astronomiaz idatzitako lanak aurkitu genituen, beste batzuetan hizki arameoz idatzitakoak, guk, ez batak ez besteak, ulertzen ez genituenak, beste batzuetan are ulergaitzago ziren lanak, agian India aldetikoak edo. Ibili, IUDAEA eta AEGYPTUS izenak inbrikaturik zituzten bi sekuentziari jarraikiz genbiltzan. Azkenik, gure harahorrako guztiaren erago edo kronika hau eginaz, honen irakurleari gogaikarri gerta ez gakizkiontzat, mapa osatu genuenean ohartu ginen liburutegia benetan munduaren irudiaren arauera eraikia eta eratua zegoela. Iparraldean ANGLIA eta GERMANI aurkitu genituen, eta sartzaldeko hormari jarraikita GALLIArekin lotuak, eta mendebalde urrunean HIBERNIA eta hegoaldeko hormarantz joz ERROMA (klasiko latindarren paradisua!) eta YSPANIA. Ondorean, hegoaldeaan, LEHOIAK eta AEGYPTUS zetozen, ekialderago UDAEA eta FONS ADAE bihurtzen zirenak. Sortzalde eta Iparralde artean, horman alde batetik bestera, ACAIA, sinekdoke ona, Gilenek esan bezala,

2993Zuin: marca, señal

Greziaz ari zela, eta, halaxe, lau gela haietan antzinate fedebageko olerkariak eta filosofariak ugari.

Irakurteko era ezohikoa zen. Batzuetan norabide bakarrean, batzuetan atzerantz, batzuetan biribilki, eta sarri askotan, esan dudana legez, hizki batek bi hitz ezberdin osatzen zituen (honako honetan, gelak armairu bat zedukan, gai bati zegokiona, eta beste bat besteari). Ez zegoen, doike, halako banaketan urrezko arau bat bilatzerik. Trikimailu nemotekniko[2994] hutsa zen, liburuzainak liburuak ediren zitzan. Liburu bat *quarta Acaiae* delakoan zegoela esateak laugarren gelan ediren zitekeela esan nahi zuen, A lehen hizkia zuen haretatik hasita. Nola ediren, liburuzainak ibilbidea buruz zekiela uste izaitekoa zen, bide zuzen edo biribil, haretaraino iristeko behar zuena. Adibidez, ACAIA lau gelatan banaturik zegoen, karratu itxurakoak, eta, beraz, lehenengo A azkenengoa ere bazen, guri ere ez zitzaigun zail izan horren ikastea. Oztopoen[2995] jokoaz gertatu zitzaigun bezala. Adibidez, ekialdetik etorrita, ACAIAko gela bakar batek ere ez zuen loturarik hurrengo gelekin: labirintoa hantxe eteten zen eta iparraldeko dorretzarrera heltzeko beste hirurak zeharkatu behar ziren. Baina liburuzainek

2994Nemotekniko- Mnemotekniko
2995Oztopo: (H. “obstrucción”)

FONSetik sartuta, bazekiten, esan dezagun, ANGLIAra joaiteko, AEGYPTUS, YSPANIA, GALLI eta GERMANI zeharkatu behar zituztena.

Bada, hauek eta beste aurkikuntza bitxi batzuk eginik, liburutegiko gure arakapena[2996] bukatu zen. Baina lehenago, nahikoetsirik esan behar dut, irtetera egin genuenean (geroago azalduko ditudan beste gertakizun batzuetan esku hartzera) zuri, nire irakurle horri zerbait aitortu behar dizut. Esanda utzi dudanez, gure arakapena alde batetik leku misteriotsu haretako giltza bilatzea izan zen eta beste aldetik gelaz gela belutu izan ginen, non-nola zegozen markatuz, edozein liburu ikuskatzekotan, lurrralde ezezagun eta misteriotsu baten azterketan jardun bezala. Oro har, arakapen hura elkarrekin bat etortzeaz erabakita egin genuen, biok liburu ber-beretan geldialdi eginez, nik gauza bitxi edo harrigarrienaz ohartarazten niola, eta harek nik ulertzen ez nuen guztia azaltzen zidalarik.

Baina halako batean, hegoaldeko dorretzarreko geletan, LEHOIAK zirelakoak, zehar gindoazela, nire maisua gela batean gelditu zen, arabierazko eta optikazko marrazki bitxiak zedutzan idazlanik asko zegoen gelan. Eta gau haretan bat ez bi argiontzi genedukanez, ondoko gelan

2996Arakapen: exploración (N) (?)

kuskusean hasi nintzen eta, zorrotz eta zuhur liburutegiko zaindariek hango horma luzean liburu batzuk taldekaturik ipiniak zituztela ohartu nintzen, edozein irakurleri uztekoak ez ziren liburuak, eiki, zeren, soinaren zein gogoaren gaisotasun batzuez mintzatzen baitziren. Ia beti fedebageek idatzitako liburuak ziren. Nire begiek liburu ez oso mardul bat jo zuten, miniaturez apaindua nahiz eta (zorionez!) gaiaz zerikusirik ez ukan, hots, loreez, abere-bikoteez, sendabelar batzuez: izenburua *Speculum amoris* zuen, egilea Boloniako Maximo lekaidea, eta beste idazlan batzuetako aipuak biltzen zituen, guztiok maitasunaren gaisotasunari buruzkoak. Ez nuen besterik behar, hala, nire jakin-min lizuna pitz[2997] zekidan, irakurleak uler dezakeen bezala. Izan ere, izenburua nahikoa nire arima, goizaz geroztik baretua, berriz ere pizteko, eta neskaren irudia harzara oroitarazirik odolberotzeko.

Egun osoan goiz haretako oroitzapenak ekidin nahiaz saiatu nintzenez, fraidegai zindo[2998] eta orekatuarentzat ezegokiak zirela neure buruari esanik, eta, gainera, eguneko gertakariak nahiko axolagarriak eta trinkoak, adi-adi egoitekoak hala egia, izan zirenez, nire

2997Pitz: piztu // Oroitarazi: (H. “evocar”)
2998Zindo: sano físicamente y moralmente / Zintzo: sano moralmente

irritsa epeldua zela uste nuen, hiskor eta iheskor zelakoan. Baina liburu hura ikustea nahikoa «*de te fabula narratur*» esateko, eta uste baino maitez minduago nengoela baieztatzeko. Geroago jakin nuenaren arauera, medikuntza-liburuen irakurtean beti hauetan deskribatzen diren minak sumatzen ei ditugu. Halaxe, bada, orri haien irakurketa lehiaz egin nuen, lotsaz eta Gilen gelara sar eta zer irakurten ari nintzen galdez hasiko ote baitzitzaidan. Eta orduan ohartu eritasun haretaz mindua nengoela, eta benetan kezkaz egon ere bai, sintoma guztiak ongi bai ongi deskribaturik (*autorictate* askorekin nengoenez, osterantzean, harro) eta kezkaz bezala pozaz halaber, nire egoera egiazkoa egiaz irudikatua bainekusan. Eta, aldi berean, gaisorik nengoelakoa neure burutan sarturik, nire gaisotasuna, nolabait esatearren, ohikoa zela uste nuen, beste beredinek era berean jasan ukan baitzuen; liburu egile haiek eritasuna deskribatzean neuregan pentsatzen ari zirela zirudien.

Hala, hunkiturik[2999], Ibn Hazm-ek maitasuna eritasun errebeldea dela dioen orriak irakurri nituen, hots, bihurria edo gorbezia dela, maitasunaz ez bestez sendatzen baita, eriturik dagoenak ez ohi du sendatu nahi ukan, gaisotuak ez ohi du bere onera etorri gura ukan (eta Jainkoak daki

2999Hunkitu: emocionar

noraino den horrela!). Ulertu nuen zergatik goiz haretan ikusi guztiak kitzikatzen[3000] ninduen, maitasuna, antza, begietatik sartzen delako, Ancirako Basiliok eta beste batzuek esan bezala. Eritasun hori jasaiten duenak poz biziegia erakusten du –sintoma nahasgaitza[3001]–, eta aldi berean bazterrera nahi ohi du, bakartu nahi (nik goiz haretan gisa), eta ondorean nahibage betea agertzen da, mintzoa bera galarazten duen nahasmendua… Laztu[3002] nintzen, irakurtean, ezen maite duen gauzaren begiestea galarazten zaionean, maitatzaile zintzoak, baitezpada[3003], abaildurik[3004], sarri ohera beharturik ere bai, maiz gaisotasunak burmuina joiten baitu, burua galdu izaiten duela, zoratzen zaiola, eldarnioz betetzen (argi zegoen ni artean horrelako egoerara iristeke nengoela, liburutegian arakatzean ongi xamar jardun bainuen). Lotseriaz[3005] beterik irakurri nuenez, gaitza gaitzago badadi, hilgarri ere izan daiteke, eta neure buruari galde nik orduan, ea neskaz pentsatze hutsak gorputzaren sakrifizio ezinago handi hura merezi ote zuenentz, arimaren osasunaz zernahi zintzoro hausnartzetik at.

3000Kitzikatu: excitar /...
3001Nahasgaitz: (H. “inconfundible”)
3002Laztu: estremecer
3003Baitezpada: nahita ez (H. “necesariamente”)
3004Abaildu: abatir
3005Lotseria: (H. “aprensión”)

Gainera, Basilioren beste aipu honako hau aurkitu nuen, berorren ustez: «*qui animam corpori per vitia conturbationesque commiscent, utrinque quod habet utile ad vitam necessarium demoliuntur, animamque lucidam ac nitidam camalium voluptatum limo perturbant,*[3006] *et corporis munditiam atque nitorem hac ratione miscentes, inutile hoc ad vitae officia ostendunt*»[3007]. Mutur-muturreko egoera, nik neuretzat inondik inora ere gura ez nuena.

Jakin nuen halaber, Santa Hildegardaren esaldi bategatik, egunean sentitu nuen aldarte damorriatsua, nik neskaren ausentziak eraginiko tamal goxoari egotzi niona, izan, damorria «*nigra et amara*» hori sugearen putzak eta deabruaren influentziak eragina izan ohi dela, paradisuan bizi den gizakiaren egoera hobezin eta guztiz harmonikotik peril handiz aldentzen baita. Aburu hau beste idazle fedebage jakituria ez gutiagoko batzuek ere bazuten, esaterako, Abu Bakr-Muhammad Ibn Zaka-riyya ar-Razi-renak omen ziren esaldi batzuk aurkitu nituen, beronek, *Liber continens* batean, maite-damorria likantropiarekin

3006Zalagardatu: estropear / perturbar /...

3007«arima soinarekin nahasten dutenek, hogenez eta zalagardaz, bietan dute deboilatzen bizitzarako egoki eta beharrezko dutena, eta arima garbi-argitsua haragri-irritsez zalagardatzen dute, eta gorputzaren garbitasun eta distirarekin nahasiz bizitzako beharkizunetan ezgauza bihurtzen dute gorputz hori».

berdintzen[3008] du, gaisoak otso antzo jokatzen baitu. Haren deskripzioa irakurrita, zintzurrean korapiloa egin zait: lehenik eta behin, maitatzaileen kanpo-itxura aldatzen da, ikusmena urritzen, begiak sakoneratzen eta malkorik bage geratzen zaizkio, mingaina lehortzen eta kuskuiluz[3009] betetzen da, gorputza ihartzen eta beti egarriak egoiten dira. Egun osoa ahuspez emaiten dute, aurpegia eta orkatilak koskaz josita, zakur-ausikiak balira bezala, eta azkenean gauez hilerrietan barrena nora ezean ibili ohi direna da esaera, otsoak laso.

Geroenean[3010], nire egoeraren larriaz zalantzarik ez nik, Avicena handiaren aipuak irakurri eta bertan. Maitasuna, dio berorrek, beti-bateko pentsamendu damorriatsu bat dela, behin eta berriz beste sexuko lagunaren hazpegi, imintzio, ohitura eta bestez pentsatzetik sortzen baita, (zein zehatz azalduta horrela nire egoera, Avicenaren hitzetan!): hatsarrean ez da gaisotasuna, baina bihurtzen da, asebeterik izan ez denean behin eta berrizko pentsamendu obsesibo, hisikor bilakatzen denez gero (honela izanik, ostera, zer zela eta nengoen ni setatsu, nire grina, Jainkoak barkatuko ahal dit agian, erabat ase eta bete

3008Berdindu: (H. “identificar”) (?)
3009Kuskuilu: pústula /...
3010Geroenean: (H. “Finalmente”)

banuen? edo aurreko gauean gertaturikoa ez ote zen maite-asealdi izan?, baina, honela izanik, nola asebetetzen ziren, gaitz horren ondorioak baretzen zirenean?), pentsamendu horrek betazalen tai[3011] bageko higidura eragiten du, arnasa hartze hala-holako bat ohi dakar, barre eta negar zantzoak eginarazten ditu ezgaraian[3012], eta eskuturreko tintina[3013] bizkortzen du (eta, zinez, nirea bixkor-bixkor azkartzen zen, eta nire hatsa hatsantzen zen, lerro haien irakurtzean!). Norbaitek noren maitez mindurik zegoen jakiteko, Avicenak jakinbide okerrezina aholkatzen zuen, Galileok lehenago proposatua zena: eri zenaren eskuturrari hel eta beste sexuko lagunen izenak bederazka[3014] ahoskatzea, zein izenek bizkortzenago ote zion igarri arte... Ni orduan nire maisua sartuko ote zen beldurrak nengoen, besotik heldu eta nire eskuturreko tintinean, ene lotsarako, neure maitasunaren sekretua igarriko… Ai! Avicenak iradokitzen zuen sendabidea bi maitatzaileak ezkontzeaz batzea zen, eta gaitza sendaturik. Nabari zuen, ordea, zorrotza bai baina fedebagea zena, ez baitzuen haintzat hartu fraidegai beneditar baten egoera, sekula ez sendatzera kondenatua, hala, edo kontsakratua, hobeki esatearren, berak hautatu edo

3011Tai: interrupción, cese
3012Ezgarai: (H. “intempestivamente”)
3013Tintin: pulsación, pulso /..
3014Bederazka: uno por uno (Banan-banan)

gurasoek zuhurki hautaturik, inoiz ere horretaz ez gaisotzeko. Zorionez, Avicenak hesi gaindiezin batek banandutako maitatzaileen kasua ere haintzat hartzen zuen, klunitarren baldernaz pentsatzeke izan arren, eta sendabide guztizkoa bustialdi beroak zirela zioen (Inola[3015] ere, Berengariok Adelmo zenduarenganako zuen maitazarrea sendatu nahi ukan ote zuen?, baina min ote zitekeen inor bere sexu bereko baten maitez?, hau berau ez ote "alimaleko"[3016] luxuria?, eta nik aurreko gauean sumatu nuena ez ote halaber "alimaleko" luxuria?, ez, inola ere ez, niotson berehala neure buruari, ezti-eztia zen… baina berehala neure hitzoi ihardesten nien: oker hago, Adso, deabruaren lilurakeria baizik ez zuan izan, guztiz basatia izan zuan, aberekeria hutsa, eta orduan abere antzo bekatu egin bahuen, orain ukatzen dualako egiten duk bekatu!). Baina geroago, Avicenaren esanetan beti, gaitz hau sendatzeko beste era batzuk dagozela irakurri nuen: emakume zaharren laguntza, esate baterako, esperientzia handikoak, maite den emakumeaz gaizki esaka ari eta ari daitezentzat; dirudienez, horrelako eginkizunetan atsoak gizasemeak baino eraginkorragoak ei dira. Agian konponbidea huraxe zen, baina abadian ezin nuen

3015Inola ere: Acaso, por ventura
3016Alimaleko: (H. "bestial")

emakumezko zaharrik aurkitu (gazterik ere ez). Eskatu behar ote nintzaiokeen, beraz, fraiderean bati-edo neskatxa haretaz gaizki mintza zekidan? Nori, baina? Gainera, ezagutzen ahal ote du fraidek emakumerik, atso kontakatilu non-ze-berrik bezain ondo? Sarrazenoak iradoki azken konponbidea guztiz zikina[3017] zen, maitatzaile zoritxarrekoak hainbat emazteki jopurekin bat egin behar zuen, fraideri on ez datorkion eran batu behar zen. Eta nire galdera, alegia, nola senda zitekeen maitasun-gaitzetik fraide gaztea. Ez al zegoen salba zedin biderik? Jo behar al zuen Seberinogana eta beronen belarretara? Izan ere, Arnaldo de Villanovaren testu bat aurkitu nuen, Gilenen ahotik haren laudorioa entzunda nengoen, eta dioenez maitasunaren gaisotasuna umore eta *pneuma* ugari izaitetik sortzen da, hots, giza-gorputzean hezetasun eta berotasun handiegia dagoela, zeren odola gehiegitzen denean (giza-hazia sorrarazten duena) hazia ere gehiegitzen denez, «*complexio venerea*» delakoa alegia, gizakumeen eta emakumeen arteko batze-nahikeria bizia eragiten baitu. Garuneko[3018] bentrikulu ertaineko gibelaldean (zer ote hau, neure buruari) bertute guti-gora-beherako bat dago gauza sentiberetan dagozen asmo sentigaitzak eta zentzuen bidez hartzen direnak

3017Zikin: (H. “indecente”)
3018Garun: (H. “encéfalo”)

sumatzen dituena. [3019] Orduan arima osoaren eta gorputzaren hantura egiten da, eta goibel batzuetan alai bestetzuetan, zeren, beroak gora egiten baitu (etsipen uneetan gorputzaren sakonenera baztertzen dena, eta azala izozten da) alai uneetan, azalera, eta aurpegia handitzen du. Honen sendatzeko, Arnaldok konfiantza eta itxaropena galtzeko aholkatzen du, maite den izakiarekin[3020] batzeko itxaropena alegia, pentsamendua harengandik aldentzen joan dadin.

Hau honela, sendaturik nagok, edo sendabidean, esan nion neure buruari, nire pentsamenduetako izaki hura berriz ere ikusteko itxaropenik batere ez edo oso urri bainuen; edo ikustekotan, edo harekin izaitekotan, berriro neuretuz gero, nire ondoan edukirik, nahiz nire fraide-egoera dela eta nahiz nire askaziaren maila dela eta… Salbu nauk, gaizke nagok, esan nuen neure golkorako. Liburua itxi nuen eta lasaitu nintzen, Gilen gelara sartzen zen unean berean. Aurrera joan ginen labirintoan zehar (esan bezala, ordurako korapiloa askatua genuen) eta une haretan nire burukeria[3021] ahantzi zitzaidan. Ikusiko den bezala, harik ez luzera, berriro burutara etorriko zitzaidan, baina egoera (ai, ene!) arrunt bestelakoan.

3019(H. euskaratu ez dudan esaldi luze korapilatu bat dago)
3020Izaki: (H. “objeto”) (?)
3021Burukeria: (H.“obsesión”) (?) (Hisi)

LAUGARREN EGUNA

GAUA

Honako honetan Salbatore, bere burua utzita, doilorki Bernardo Guik antz emanik[3022] geratzen da, Adsok maite duen neska atxilo hartua eta sorgintzat akusatua da, eta ziren guztiak ohera atsebagetuago doaz, lehen baino kezkatuago.

Halaxe[3023], jatokira jaistean oihu batzuk entzun genituen eta suete[3024] aldean argi batzuen distira hitsa nabaritu aldi berean. Gilenek di-da batean argiontzia itzali zuen. Hormari itsatsirik, sukalderako ate ondora heldu ginen, eta zarata kanporean zetorrela aditu genuen, atea zabalik zegoen eta. Gero ahotsak eta argiak aldendu ziren,

3022Antz eman: (H. “descubierto”)
3023Halaxe: (H. “En efecto”)
3024Suete: sukalde

eta norbaitek atea bortizki itxi zuen. Zalaparta handia zegoen, zerbait atsebagegarri gertatua, nonbait. Arin bai arin, hezurtegia beste behin zeharkatu genuen, elizara heldu ginen, huts-hutsik zegoena, hegoaldeko atetik irten, eta kalostrapean harantz-horrantz zuziak joan-jinean ikusi genituen.

Hurbildu ginen, eta nahasaldian gu ere, han zegoen asko bezala, logelatik edo erromesen etxetik iritsi ginela zirudien. Arkulariek Salbatore atzemanik zedukatela ikusi genuen, bere begietako zuria bezain zuri, eta negarretan emakumezko bat. Bihotza uzkurtu[3025] zitzaidan: haxe bera nuen, nire pentsamenduetako neskatxa. Ikusi eta bertan ezagunetsi ninduen, eta begirada erregugarri[3026] eta larria iraitzi zidan. Bertatik bertara laguntzera egitear ni baina Gilenek trikarazi[3027] ninduen, geldi, ahapetik irain ez batere amultsuak egozten zizkidan artean. Alde guztietatik lekaideak eta arrotzak[3028].

Abadea agertu zen, eta Bernardo Gui, eta beroni arkularien kapitainak gertatutakoaren berri eman zion, laburki. Gertaturikoak, hauexek.

3025Uzkurtu: (H. “encoger”)
3026Erregugarri: (H. “implorante”)
3027Trikarazi: (H. “contener”) (Geldiarazi)
3028Arrotz: (H. “huésped”)

Inkisidorearen aginduz, arkulariak gau osoan ordekan zelatan aritu ziren, atetzarretik eliza ondorainoko ibilbideari begira, batik bat, baratzeak eta Eraikinaren aitzinaldea zainduz (zergatik?, galdetu nuen ene baitan, eta Bernardok, zerbaitez jakinaren gainean, zerbitzariek edota sukaldariek esanda, gauez nola-halako zera batzuk gertatzen zirela jakina zuela ulertu nuen, zer ziren ez zehazki jakinik baina harresiaren kanpoaldetik sukaldera bitartean izaiten ziren, antza, hartu-emanak, eta, beharbada Salbatore ergelak zeraz hitz egin zuen, neurekin egin zuen bezala, sukaldeko edo ukuiluetako sehirean batekin, eta gero, memeloak, arratsaldeko itaunketagatik izutua, beste behin edo behin berrizkatuko ahal zuen, Bernardoren jakin-mina ase-baretzearren). Azkenik, zuhurtasunez ibilki, lainoz gerizaturik, arkulariek ezustean Salbatore harrapatua zuten, neskatxarekin, sukaldeko ate aurrean zertzen[3029] ari zeino.

— Emakumea leku sakratu honetan! Eta lekaidearekin! –ozengi eta zorrotz Bernardo' Abadeari mintzatuz–. Goi-goiko[3030] jauna, kastitate-botoa hautsi duela baino ez balitz, honen gizon honen zigorra zure esparrukoa litzateke. Baina, oraindik ez dakigu bi errukarrion trikimainak[3031] nolakoak

3029Zertu: (H. "maniobrar") (?)
3030Goi-goiko: (H. "eminentísimo")
3031Trikimaina: (H. "tramoyas")

diren, arrotzen osasunari zer dioten ez dioten, lehenik eta behin, beraz, jakin beharreko hau argitu behar. Ea, zuri nagokizu, memelo horri –eta mintzo bitartean Salbatorek paparrean ezkutaturik, bere ustez ongi, zedukan pardela, brast, erauziz kendu zion–, zer dadukazu hor?

Nik banekien: aizto bat, katu beltz bat, pardela ireki eta ber-bertan ihes egin zuena suminkiro miauka, eta bi arrautza hautsita, urgai likin bihurtuak ikusita orok odola zela, edo behazun[3032] oria edo beste lohikeria bat, uste zuen. Salbatore sukaldera zihoan, katua hil eta begiak erauztera. Batek daki zelako eskainitzak[3033] egin zizkion neskari jarraiki zekiontzat. Laster ikasi nuen zein eskainitz. Arkulariek neska arakatu zuten, barre maltzurrekin eta lizunkeriekin batera, eta oilartto hil bat kausitu zioten, artean lumak eta guzti. Gauez katu guztiak beltz, baina orduko haretan zoritxarrak nahi eta oilarra katua bezain beltz. Nire aldetik, neska hura erakarteko besterik behar ez zela pentsatu nuen, gaixo goseti harek aurreko gauean bere idi-bihotz baliotsua bertan behera utzi zuen (eta nireganako maitasunagatik!)…

3032Behazun: (H. “bilis”)
3033Eskainitz: (H. “promesa”) (Apritz ¿!...)

— Honatx[3034]! –egin zuen oihu Bernardok, oso kezkaturik antzo–. Katua eta oilarra, beltzak… Nik badakit zerik den parafernalia hau guztiau –begiz bilatu zuen Gilen zegozenen artean–. Zuk ere badakizu, bai, frai Gilen? Ez al zinen inkisidore Kilkennyn, orain dela hiru urte, harako neska harek tusuri katu beltz itxuraz agertzen zitzaionarekin harremanak ukan zituenean?

Nire maisuaren isilaldia baldankeria[3035], ezduina[3036] iruditu zitzaidan. Mahaukatik oratu nion, inarrosi eta etsiturik, belarrira mintzatuz:

— Esaiozu, bada, jatekoa zela...

Nire eskua edeki[3037] zuen, eta adeitsuki erantzun zion:

— Ez dut uste nire esperientzia zaharren premiarik dukezunik zuk zeure ondorioak ateratzeko.

— Ho, ez, hagitz testigantza sinesgarriagorik[3038] bada! –ihardetsi zion Bernardok irribarrez–. Espiritu Santuaren zazpi dohainei buruzko tratatuan, Bourbon-dar Eztebek

3034Honatx!: (H. “¡ajá!”)
3035Baldan: flojo, haragán (H. “innoble”)
3036Ezduin: (H. “innoble”) (N) (?)
3037Edeki: kendu (H. “zafándose”)
3038Testigantza sinesgarriago: testimonios más autorizados

dioenez, Jaun Done Domikuk, Fanjeaux-en heretikoen aurka predikatu eta gero, emazteki batzuei ordura arte nori zerbitzatzen ari izan zitzaizkion ikusiko zutela iragarri zien. Eta bat-batean haien artetik katu ikaragarri bat jalgi zen, or[3039] handi baten neurrikoa, begiak gaitzak eta sutsuak, mingain odoltsua zileraino[3040] luzatzen zitzaiona, isatsa motz eta zut, honegatik noranahi joanik ere uzki higuingarria ageri, kirats eta satsu zeharo, zeren irudi eta, tusuriaren gurtzaileek eta zaldun tenplarioek era berean ere eta ez azkenak izaiten euren batzarretan beti pot eta pa egiten dioten uzkiaren. Eta emaztekien inguruan ordubetez ibili ondorean, katuak kanpai-sokara jauzi egin zuen eta sokatik beretik gora, han bertan bere gorotz kiratsuak[3041] utzirik. Ez ote dute kataroek katua maite, izan ere, beren izena, Alain de Lille-k dioenez, *catus* hitzetik eratorria baitute, zergatik eta, abere hori Luziferren haragitzea dela sinetsita uzkian muin emaiten diotelako? Eta horrelako jarduera nazkagarri hori, izan, bazela ez al du baieztatzen Gilen Auverniakok' *De legibus* delakoan? Eta Alberto Magnok ez zuen esan, bada, katuak deabruak izan litezkeela? Nire kide agurgarri Jacques Fournier-ek esanda badakigu Godofredo de

3039Or: zakur
3040Zil: ombligo
3041Kiratsu: fétido (kirats...)

Carcassone inkisidorearen heriotza-ohatzean bi katu beltz agertu zirena, bi deabru hondakin haietaz iseka egin nahi zutenak, ez da?

Izu-marmarra zabaldu zen eta lekaide han zegoenik askok gurutze santuaren zeinua egin zuen.

— Abade jauna, Abade jauna! –zirautson ozendo Bernardok hizkeraz onbidetsu[3042]–. Beharbada, zure gorentasunak ez daki bekatariek zer egin ohi duten horrelako tresnez. Nik ongi bai ongi dakit. Ai Jainkoari nahi izan ez balekio! Emakume gaizto-gaiztoak ikusi ukan ditut, gaueko ordurik ilunenetan, beren zurri[3043] bereko beste batzuekin, aitortu behar izan zituzten mirariak lortzeko katu beltzak erabilitakoak: zeinbait abereren gainean itzegaitea eta gau-itzalen babespean ibilbide luze-luzeak egitea, beren jopuak herrestan eroanez, berauek halako ariketetan grinatsu *inkubo* bihurtu eta… Tusuria bera agertzen zaie, edo haiek, behintzat guztiz ziur ohi dagoz, oilar itxuran agertu ere, edo beste abere oso beltz baten itxuran, eta honelakoekin, ez galde niri nola, etzan ere, etzaten dira. Eta jakin badakit, iturri onetik edanda, hori lako nigromantzia mota horrezaz, ez aspaldi, Avignonen hain zuzen, ukenduak eta antzeko

3042Onbidetsu: (H. “virtuoso”) (?)
3043Zurri: calaña

edaki zeinbait prestatu zirena Aitasantuaren biziari kalte egiteko asmoz, honen janariak pozoindu eta. Aita Santuak bere burua jagon ahal izan zuen, pozoina ezaguturik, zeren, suge-mihi itxurako harribitxi miresgarriak, esmeralda eta errubiez apainduak baitzeduzkan, Jainkoaren eskuz janarietan pozoin edo edenik bazegoen igarteko gaitasuna zutenak! ¡Hamaika honelako harribitxi-mihi miresgarri oparitu zizkion Frantziako erregeak, zeruari esker, eta honegatixe egin zion ihes Heriori! Zubiginaren etsaiek, jakina da, ez zuten hori baino egin: Bernard Délicieux heretikoari, duela hamar urte atxilotuari, aztikeria beltzezko liburu batzuk aurkitu zizkioten, eta orrialderik purtzilenetan[3044] oharrak idatzirik, zertarako eta, ezkozko itxurakien egiteko jarraibideak ikasteko, arerioei[3045] kalte egiteko irudiñoak[3046] alegia. Sineskaitz eritziko bazenio ere, haren etxean, berebat, irudiñoak aurkitu ziren, oso itxura onez eginak, miresgarriki, Aitasantuaren irudia bera birsortzen dutenak, gorputzaren atal nagusietan biribiltto gorriekin: eta irudiño horiek gero sokatik eseki, ispilu baten aitzinean… eta biribiltto gorrietan orratzak josten dizkiete eta… Oi! Baina zer dela eta luzatzen naiz honelako

3044Purtzil: despreciable… (H. “abyecto”)
3045Arerio: etsai
3046Irudiño: (H. “figuras” de cera) (N) (Itxuraki -N)

ñabardura higuingarrien jaulkitzean? Aitasantuak berak aipatu eta zehaztu baititu, duela urtebete edo, *Super illius specula* delako gutunean[3047]! Jakina, zure liburutegi aberats eta jori horretan haren kopia edo aldaki bat edukiko ahal duzu, noski, behar bezala berataz hausnar egin dezazungatik…

— Badadukagu, badadukagu –baieztatu zuen berehalako baten, larri-larri Abadeak.

— Ontsa dago –bukatu zuen Bernardok–. Oraintxe dakusat, argiroki, zer gertatu den. Emazteki sorgin bat, bere burua lilurarazten utzi duen fraide bat, eta erritu bat, zorionez, ezin burutu izan dena. Zein asmoz? Hauxe dugu jakin behar, eta jakitearren nire loaldiari oren batzuk kenduko dizkiot. Otoi, goren-goreneko jauna, gizaseme hau begirapean eduki ahal dezadantzat leku bat utz diezadazun erregutzen dizut…

— Errementarien lantoki azpian, lurpean, gela batzuk dadutzagu –Abadeak–, zorionez gutitan erabili ohi direnak, eta urteetan hutsik dagozenak.

— Zori onez edo txarrez –Bernardok ziztaka[3048].

3047Gutun: (H. “constitución”)
3048Ziztaka: (H. “observando”)

Arkulariei bidea erakusteko agindu zien eta gatibu biak gela banatan jarteko, eta gizonezkoa ondo lotzeko hormako txingatik[3049], harik laster bera itaunketara jaitsirik, bekoz beko begiratu ahal ziezaien eran. Neskari buruz, gehitu zuen, argi zegoela zer zen, eta gau haretan itaunkatzea[3050] merezi ez zuela. Sorgina zelako erre aurretik beste lekukotasun batzuk agertuko zirela eta zegoen. Eta sorgina zenez gero, hitz eragitea erraza ez zatekeela. Fraideak, ostera, agian garbaituko edo, egia jaulkiko zuela (eta Salbatoreri so egin zion, berau ikaran, azken aukera bat eskaini nahi ziola adiarazi bezala), eta, gehitu zuen, bere gaizkideak nor ziren salatuko ahal zuela.

Eroan zituzten: to, isil-isila eta hauts egina, sukarrak jota laso; no, negarrez, ostikoka, harategian aberea legez marrumaka. Baina, ez arkulariek ez neronek ere ulertzen genuen zer zioen bere baserritar hizkeran. Mintzatu edo ez, mintzula bailitzan. Hitz batzuek ahalmena emaiten dute, beste batzuek ezin-mena[3051] larriagotzen dute, eta xalo soil arrunten hitzak honelakoxeak ohi dira, Jaungoikoak ez baitie jakintza eta boterearen hizkuntza unibertsalean euren eritziak azaltzeko dohaina eman.

3049Txinga: (H. “argolla” de pared) (Txirrindola...)
3050Itaunkatu: interrogar (N) (Galdekatu)
3051Ezin-mena (N) (Aha-men eta ezin-men, hitz joko bat)

Beste behin harengana egiteko zorian izan nintzen, beste behin Gilenek, beltz-beltzuri[3052], geldiarazi ninduen.

— Geldi hor, kokolo, neskatxa galduta zagok eta, sutarako duk.

Gertatzen ari zena izu-izuturik nekusan artean, pentsamenduen zurrunbiloan, begiak neskagan josirik nengoela, sorbaldan takada bat sumatu nuen. Ez dakit nola baina bihurtu aitzin Ubertinoren eskua zela jakin nuen.

— Sorginari begira, ez da? –esan zidan.

Nik banekien nire istorioaz jakinaren gainean ez zegoena, eta, beraz, haren hitzok nire begiradaren egonezina ikusita esan zituena, izan ere, gizakiaren grinetan sartzeko gaitasun handiko gizona zen.

— Ez… –itzurtzen[3053] saiatu ni–, ez diot begiratzen… Hau da, zera, agian bai, baina ez da sorgina. Ez dakigu, agian errubagekoa da…

— Ederra delako behatzen duk. Pollita duk, bai? –galde egin zidan bizi-biziturik, besotik indarrez oratzen zidala–. Bai, ederra delako behatzen duk, haren edertasunak nahasarazten hau (eta nahasarazita hagoena bazakiat, salatutako

3052Beltz-beltzuri: (H. “con expresión muy sombría”)
3053Itzuri: (H. “zafarse”)

bekatuagatik are erakartenago hau), so egiten badiok eta irritsa sentitzen baduk, honegatixe beragatixe, sorgina duk. Erne, ene seme… Gorputzaren edertasuna azalean baino ez duk. Gizonek azalaren pean zer dagoen ikusiko balute, Beociako lintzearekin gerta bezala, emakumea ikustean izu lauorrian jarriko lituzkek. Garazia hori guztiori, likits eta odol, umore eta behazun duk. Pentsatuko bahu zer gordetzen den sudurrean, zintzurrean, sabelean, lohikeria baino ez huke aurkituko. Eta muskila[3054] edo gorotza hatzamar-puntaz ukitzea nazkagarri bazaik, nolatan nahi huke kaka hori guztiori dadukan zorroa zure besoen artean laztandu?

Oka egin aginean[3055] izan nintzen. Ez nuen halakorik gehiago aditu nahi. Gilen, entzule, eta niri lagun egitera neureganatu zen. Zakarrean[3056], Ubertinori hurrera zitzaion eta besotik helduta nirearengandik alderatu zuen.

— Aski da, Ubertino. Laster neskatxa hori oinaztatuko dute, estira[3057] eginen diote eta geroenean sutan hilko da. Zuk diozun hori, doi-doi, bilakatuko da: muskil, odol, umore eta behazun. Baina gure hurkoek erauziko diote azalpetik Jaungoikoak azalaren pean gorde, estali eta apaindu nahi

3054Muskil: moco (Zintz...)
3055Agin: zorian, -tzear...
3056Zakarrean: (H. “bruscamente”) (De mal genio...)
3057Estira tortura, suplicio (Oinaze -- oinaztatu...)

ukan duena. Eta gorputzaren ekaiaz[3058] den bezainbatean, zu zeu ez zara neska baino hobea. Utzi bakean mutil hau.

Ubertino zalantzan geratu zen:

— Beharbada, bekatu egin dut –marmarrean–. Enura bage, bekatu egin dut. Zer besterik egin dezake bekatariak?

Han ziren guztiak, nor bere alderantz egiten hasi ziren, gertaturikoa iruzkin. Gilenek une batez Michele eta beste frantziskotarrekin hitz egin zuen, haretaz guztiaz zer zioen galdetzen baitzioten.

— Orain Bernardok argudio bat du, okerra izan arren: Abadian inguru-minguru nigromanteak dabiltza, Avignonen Aitasantuaren aurka egin zena egiten dutenak. Zalantzarik ez, hori ez da proba eta ezin erabil dezake biharko batzarra lardaskatzeko[3059]. Gaueon saiatuko da zoritxarreko gixon horri zerbait gehiagoren erasaiten[3060], baina ez du berehala bere alde erabiliko, nik uste. Ez bihar goizean, geroagorako gordeko du, eztabaidak nola eta hauek nahastearren, baldin berauek berak nahi ez lukeen bidetik joango balira.

— Ezer esatera behartuko al du, gero gure kalterako erabil lezakeenik? –galdetu zuen Michele da Cesenak.

3058Ekai: materia (H. “materia prima”)
3059Lardaskatu: echar a perder /… (H. “perturbar”)
3060Erasan: sonsacar / atacar… (H. “arrancarle”)

Gilen, lipar[3061] batez zalantzan:

— Espero dezagun ezetz –esan zuen azkenean.

Ulertu nuen, hala, Salbatorek Bernardori guri esandakoa esan baliezaio, bere iraganaldiaz eta sehiburuaren iraganaldiaz, eta bi-bien eta Ubertinoren arteko loturaz zerbaitt esanez gero, oso lotura iheskorra izanagatik ere, egoera hagitz ezerosoa sor litekeela.

— Dena dela, ez gaitezen gertakizun baino lehenago gerta[3062] –Gilenek jabal[3063] hitz egin–. Gainera, Michele, oro aurretik erabakita zegoen. Baina, zuk probatu nahi duzu.

— Bai, nahi dut, Jaunak lagunduko dit. Jaun Done Frantziskok har dezala esku gu guztion alde!

— Hala biz –erantzun zuten hango guztiek.

— Ez nago ziur egin dezakeenik –Gilenen iruzkina adeibagekoa[3064]–. Agian Frantzisko deuna nonbait epaiketaren zain egongo ahal da, eta oraindaino ez du Jauna begiz begi ikusten.

3061Lipar: instante
3062Gertakizun…: (H. “no nos adelantemos a los acontecimientos”)
3063Jabal: sereno, calmoso
3064Adeibage: (H. “irreverente”)

— Madarikatua izan dadila Joan heretikoa –misser[3065] Girolano entzun nuen, oinoten[3066], guztiak nor bere gelarantz zihoazelarik–. Orain santuen laguntza kentzen badigu, non amaituko dugu bekatari gaixook?

BOSGARREN EGUNA

3065Misser: (H. “micer”) (Katalaneratik hartua “jauna” esateko)
3066Oinon: (H. “gruñir”) (Murmurar, quejarse…) (Oinon egin)

BOSGARREN EGUNA

PRIMA

Jesusen txirotasunazko eztabaida anaikoia gertatzen denekoa.

Hainbat atsebagez bihotza urraturik, gau haretako gertaeraz gero, bosgarren eguneko goizean prima hots egiten ari zela jaiki nintzen, Gilenek gogor inarrosi baininduen, bi

ordezkaritzen arteko bilera berehalakoa zela ohartarazteaz batera.

Gelako leihotik begira eta ez nuen ezer ikusi. Aurreguneko lainoa esne karako lauso estalgarri bihurtua zen, ordeka guztiz kukutzen[3067] baitzuen.

Irtetean, abadia inoiz ez bezalakoa iruditu zitzaidan: eraikin nagusi batzuk, elizetxea, Eraikina, kapitulu-gela, urrunxko nabaritzen ziren, marra nahasietan bazen ere, itzaletan itzalak, baina beste etxe guztiak hur-hurretik baizik ez ziren ikusgai. Gauzen nahiz abereen itxurak ezerezetik bertatik bertara sortzen zirela zirudien; nordinak lanbrotik ateratzen ziren mamu arreak ziren, itxuraz, eta ez ziren ezagun poliki-poliki eta nekez baino.

Iparraldeko lurretan jaioa, halako aroaz ohitua nengoen, eta beste egoera batean izanik, nire gaztaroko ordoki eta gaztelua etorriko zitzaizkidan gogora, antzinminez. Goiz haretan, aldiz, nire arimaren egoera eta aro hitsaren arteko berdintasun negargarria sumatu uste nuen, eta esnatzean izan nuen goibeldura handituz-handituz zihoan, kapitulu-gelara hurbiltzerakoan.

3067Kukutu: estali, ostendu, ezkutatu

Eraikin haretatik urrats gutitara, Bernardo Gui begiztatu nuen, nik hasieran ezagunetsi ez nuen beste lagun batekin agurretan[3068]. Nire ondotik iragaitean Malakias zela ikusi nuen. Hara-horra soz zebilen, gaiztakeriarean bat egin eta ikusia izan nahi ez duen edonoren antzera, baina lehenago esana dut gizon hori, izaitez, beti zerbait ostendu nahiaz edo ezkutatuz ohi zebilen gizasemea zela, berez, isildu beharreko zerbait bailuan.

Ez ninduen ezagunetsi, eta lekutik urrundu zen. Jakin-minak ninderabilen eta Bernardori jarraiki nintzaion eta orri batzuk ikuskatzen ari zela ohartu nintzen, Malakiasek emanikoak edo. Kapitulu-gelako atalasera iristean, arkularien buruzagiari dei egin zion, imintzo batez, hur baitzegoen, eta belarri ondoan hitz batzuk egin zizkion. Gero barrura zen, eta ni beraren hatzetik.

Toki haretan negoen lehen aldia zen. Kanpoaldetik, neurriz ez handia eta itxura soilekoa[3069]. Konturatu nintzenez, aurreko eliza zaharraren gainean berreraikia zen, ez aspaldi, beharbada suterean batek kiskalitako abadia-eliza izan zitekeena.

3068Agurretan: (H. “despidiéndose”)
3069Soil: (H. “sobrio”)

Sarreran atari baten azpitik iragaiten zen, moda berriaz eraikitako ataria zen, arku zorrotz, apaindurarik ez, eta buruan errosetoia. Barrura orduko, apiriku[3070] bat zegoen, nartex[3071] zahar baten hondarren gainean berreraikia. Eta aurrean, beste atari bat, era zaharreko arkuduna, ilargi erdiko tinpanoa miragarriro landuarekikoa. Porroskaturiko elizaren ataria edo izan zitekeena.

Tinpanoko eskulturak ederrak ziren oso, baina ez oraingo elizakoak bezain aztoragarriak[3072]. Hemen ere Kristo bere jargoian eserita tinpanoan nagusi, baina ondoan, era batera eta bestera jarriak, gauza batzuk eskuetan, hamabi apostoluak, munduan zehar ebangelioa hedatzera joan zitezen agindutakoak. Kristoren buruaren gainean, hamabi paneletan banatutako arku batean, eta Kristoren oinen azpian, irudi batzuk prozesioan etenik bage, lurbirako herriak irudikaturik, berri ona jasoko zutenak. Jazkeragatik, hebreoak, kapadoziarrak, arabiarrak, indiarrak, frigiarrak, bizantziarrak, armeniarrak, eszitiarrak eta erromatarrak ezagunetsi nituen. Baina, haiekin nahas-mahas, hogeita hamar obotan hamabi panelen gaineko arku batean bezala,

3070Apiriku: atrio
3071Nártex: Eliza paleokristau eta bizantziarretako sarguetan dagoen apirikua edo aldagela.
3072Aztoragarri: inquietante

mundu ezezagunetako herritarrak, guk Fisiologo baten eta bidaiarien kondaira nahasien bitartez ezagutu ditugunak. Haietako beredin, ordea, ezezagun niretzat, beste batzuk, aldiz, ezagun: adibidez, eskuan seina hatz zedukaten piztiak; zuhaitzen azal eta zuretan sortzen diren harrengandik jaiotzen diren faunoak; ezkataz estaliriko isatsa zedukaten lamiak, marinelen liluratzaileak haiek; soin osoa beltzeko etiopiarrak, eguzkiaren berotasunetik babestearren lurpeko lezeak sakontzen dituztenak; onozentauroak, gerriraino gizon eta bestea asto direnak; begi bakarreko ziklopeak, armarria bezain handiak begiak; Eszila buru-bularrak neskarenak, sabela otsoarena eta isatsa izurdearena daduzkatenak; Indiako gizon iletsuak zingiretan eta Epigmaride ibaian bizi direnak; zinozefaloak, mintzatzean, txiten-pitean zaunka egin ohi dutenak; eskipodoak, zango bakar baina ziztu bizian laster egiten dutenak, eta eguzkitik babestearren, lurrean etzan eta oin bakarra goiti eguzkitako handia bezala ipinten dutenak; Greziako astomatak, ahorik ez eta arnasa sudurretik hartzen dutenak, eta janari guztia airea baino ez; Armeniako emakume bizardunak; pigmeoak; epistigoak, beste izenez pallidoak, buru bagekoak jaiotzean, ahoa sabelean eta begiak sorbaldetan; Itsaso Gorriko emazteki munstroak, hamabi oin luze, adatsa

orpoetaraino, bizkarrean behi-buztan, eta gamelu-apatxak dadutzatenak; oinak aurrekoz atzera dituztenak ere haien artean, beti beren oinatzen atzetik ibili eta beti abiatu leku berera bihurtzen direnak, ez joan nahi duten lekura inoiz; hiru buruko gizonak ere badira; argiontzi bezala distiratsuko begiak; eta Zirze uharteko bidutziak, gorputzez gizon eta bizkarrez hainbat piztia ezberdin…

Hauek eta beste harribitxi[3073] batzuk zegozen atari haretan zizelkaturik. Haietarik batek ere ez zuen kezkarik sorrarazten, ez baitzegozen han lurbira honetako gaitzak islatzeko edo inpernuko oinazeak irudikatzeko, berri ona erakusteko baizik, ezagutu lurralde guztietara iritsita zegoela eta ezezagutuetara ere hedatzen ari zela adiarazteko. Hau dela eta, ataria elkartasunaren[3074] promesa pozgarria zen, Kristoren hitzaren bitartez lorturiko batasunarena, *ecumene* distira-distiratsuarena[3075].

Seinale[3076] ona, esan nuen ene golkorako, atalasetik barrura, han bertan egingo zen batzarra gogoan, beronetan elkarrengandik oso bereizirik eta buruz buru jarririk zegozen gizon batzuek, ebangelioa irakurrita erizpide erabat

3073Harribitxi: (H. “prodigio”)
3074Elkartasun: (H. “concordia”)
3075Distiratsu: (H. “esplendorosa”)
3076Seinale: (H. “presagio”) (Aztikizun, ezagugarri...)

ezberdinetatik joanak izan arren, agian, haien arteko ezinikusiak eta ezinbateratuak, behingoan, konpontzea erdietsiko zuten. Eta neure buruari, halaber, bekatari txatxarra nintzela esan nion, neure zoritxarragatik larritua bainintzen, noiz eta, kristaugoaren historian gertakizun garrantzi larrikoak jazotzear zegozenean. Nire neure nahibageen txikirra bakearen etorkizun handi-handiarekin erkatu nuen, tinpanoko harrian zizelkatua zegoen baretasunarekin alderatu. Jaungoikoari barkatzeko eskatu nintzaion, ene hauskortasuna zela eta, enda,[3077] baretuago, atalasea zeharkatu nuen.

Sartutakoan, ordezkaritza bietako kide guztiak batzarturik ikusi nituen, biribil erdia eginik ipinitako besaulki banatan elkarren aurrez aur jarriak, erdian mahai bat eta ondoan eseririk Abadea eta Bertrando kardinala.

Gilenek, ni honen atzetik beti oharrak hartzeko, frantziskotarren aldean jar nendin esan zidan, Michele eta bereak, eta Avignongo gorteko beste frantziskotar batzuk zegozen lekuan: bilkura ez ahal zen izango, itxuraz, italiarren eta frantziarren arteko dixida[3078], frantziskotarren

3077Enda: eta (modismo-edo bezala erabiltzen dena) (Bueno, venga...)
3078Dixida: duelo, desafío (Larr.)

arautegiaren aldeko eta aurkakoen artekoa baizik, guztiak Aitasantuaren gorteari atxikiak leialtasun katoliko guztizkoaz[3079].

Michele da Cesenarekin Akitaniako frai Arnaldo, Newcastle-ko frai Hugo eta frai Guillermo Alnwick zegozen, Perusako kapituluan esku hartutakoak, eta gainera Caffako gotzaina, eta Berengario Talloni, Bonagrazia da Bergamo eta Avignongo gorteko beste frantziskotar batzuk. Aurreko aldean eserita Lorentzo Decoalcone, Avignongo batxilerra, Paduako apezpikua eta Jean d'Anneaux, Parisen teologia-doktorea. Isil eta sorgor[3080] Bernardo Gui eta ondoan Jean de Baune domingotarra, Italian Giovanni Dalbena erizten ziotena. Gilenek esan zidanez, azkenengo hau urteetan Narbonan inkisidore izandakoa; bertan hainbat begardo eta tertziario auziperatu ukan zituena, baina Kristoren txirotasunari buruzko proposizio bat heretikotzat kondenatu zuelako Berengario Tallonirekin ika-mika[3081] izan zuen, beronek, hiri haretako komentuko irakurle zela, Aitasantuari hele egin[3082] baitzion. Orduan Joanek ez zuen, antza, eritzi finkorik, eta Avignoera dei egin zien eztabaida

3079Guztizko: (H. "incólume")
3080Sorgor: (H. "absorto")
3081Ika-mika: (H. "se las tuvo que ver con")
3082Hel egin: (H. "apelar")

egin zezaten. Alperrik, ordea, eztabaida ezertarakoeza izan zen, eta gerottoago, Perusako kapituluan, frantziskotarrek lehenago agerrarazi dudan erizkaia[3083] beretzat hartu zuten. Azkenik, avignondarren artean beste batzuk, Alboreako apezpikua besteak beste.

Batzarraldia Abbonek ireki zuen, eta gertatu berri ziren arazo batzuen laburki aipatzeari egoki eritzi zion. Jaunaren 1322. urtean, gogoratu zuenez, frantziskotar fraideen kapitulu nagusia egin zenean, Perusan Michele da Cesena buru zela, ebatzi zuten, ihardukaldi[3084] luze eta zehatzaren ondorean, Kristok inoiz ere bererik ezer ez zedukala, ez zuela jabetzarik, bere apostoluei edo bidaliei bizitza zintzo-zintzoaren adibide emaitearren, bere irakaspenari zatxekiolarik, eta hau fede zindo eta katolikoaren egiazko funtsa zela, liburu kanonikoetan hainbat aipu agertzeak baieztatzen baitzuen. Horren ondorioz, edozein jabetzari uko egitea on eta santu da, eta hasierako eliza ekintzakoi[3085] hura irasi zutenek arau santu horri eutsi zioten. Eta egia horri 1312an Vienneko kontzilioak heldu zion, eta Joan Aitasantuak berak, 1317an,

3083Erizkai: teoría, tesis (N) (?)
3084Ihardukaldi: (H. “deliberación”) (?)
3085Ekintzakoi: (H. ”militante”) (N) (?) (Ekintzoi?)

lekaide frantziskotarren araudi[3086] nagusian, *Quorundam exigit* hitzekin hasten den konstituzioan hain zuzen, kontzilio haretako ebazpenak santuro sortuak eta argitsuak[3087], iraunkorrak[3088] eta umoak[3089] zirela iruzkindu zuen. Hau honela, bada, Perusako kapitulua onartutzat eman behar zen, Aitasantuaren egoitzan beti dotrina zintzoa onetsi izan zela haintzat harturik, eta, beraz ezin alden zitekeen haretarean inondik inora; hala, beste behin kontzilioko erabaki hura zigilatu baino ez zen egin, teologia sakratuan maisu ziren batzuen izenpeaz, Ingalaterrako frai Gilen, Alemaniako frai Endrike, Akitaniako frai Arnaldo, probintzietako buruak eta ministroak, besteak beste zirela; Nikolasen zigilua ere bazuen, Frantziako ministro berau, frai Gilen Bloc-ena halaber, ministro nagusi baitzen, eta lau probintzia-ministorenak orobat, hots, Boloniako frai Tomas, San Frantzisko probintziako frai Pietro, frai Fernando da Castello eta frai Simone da Turonia. Hala ere, Abbonek gehitu, hurrengo urtean Aitasantuak dekreto-gutuna igorri zuen, *Ad conditorem canonum*, eta beronen aurka Bonagrazia da Bergamo agertu zen, bere baldernaren interesen kalteko zelakoan. Orduan Aitasantuak Avignongo

3086Araudi: (H. “constitución”)
3087Argitsu: (H. “lúcido”)
3088Iraunkor: (H. “consistente”)
3089Umo: (H. “maduro”)

eliza nagusiko atetik gutuna erauzi zuen, han agerian baitzen, eta atal batzuk zuzendu zituen. Baina hala eginaz gero, are gogorrago gertatu zen, eta honexen adibide haren ondorioz frai Bonagraziak urtebetez kartzelan egon behar izaitea. Aitasantua zorrotza zela ez zen ezbairik: urte haretan berean *Cum inter nonnullos* izenburukoa igorri zuen, eta Perusako kapituluko adigaiak[3090] behin betiko gaitzetsi zituen.

Une haretan, Abboneri adeitsuki etenik, Bertrando kardinalak hitz egin zuen, esateko, arazoak nahasi zirela gogoratzea on zela, Aitasantua biziki sumindurik, 1324an Ludoviko bavariarrak, Sachsenhausen-go deklarazoa igorri zuenean, Perusako adigaiak ontzat emanez, arrazoi garbirik ezean (ulertzea ere ez erraza, Bertrandok irriz adiarazita, enperadoreak nola hain sutsuro egin zezakeen txirotasunaren alde, berak inola ere praktikatzen ez baitzuen), eta hala eginda Aitasantuaren aurka jarri zela, *inimicus pacis* zeritzolarik, gaizpide eta haserreak sorrarazi nahi zituela esanez, eta geroenean heretikotzat eta, are, heresiarkatzat joiten zuen.

— Ez zehazki –Abbone tartekatzen[3091] saiatu zen.

3090Adigai: (H. “tesis”)
3091Tartekatu: (H. “mediar”) (Interceder...)

— Sakonean horixe baietsi[3092] zuen –Bertrandok hotz eta motz[3093].

Eta gehitu zuenez, enperadorearen esku-hartze ezegoki hari aur egiteko, Aitasantuak *Quia quorundam* gutun-dekretua igorri beharrean gertatu zen, eta, azkenik, Michele da Cesena gonbidatu zuen beregana joan zedin. Michelek joan ezin izango zela erantzun zion, desenkusatuz, gaisorik baitzegoen, inork ere zalantzan ezarri ez zuena, eta bere ordez frai Giovani Fidanza eta frai Modesto Custodio Perusa-ko bidali zizkion. Baina, halabeharrez, kardinalak esana, Perusako guelfoek Aitasantuari jakinarazi ziotenez, Michele gaisorik ez baina Bavariako Ludovikorekin harremanetan ari zen. Zena zela, zer gertatu zen ez zen alde bat utzirik, orain frai Michele, bai zinez, ondo eta onik agertzen zen, eta Avignonen haren zain zegozen. Hala ere, hobe zen, kardinalak onartua, lehenago haztatzea, orduantxe ari ziren bezala, hain gizon zuhurrak hantxe egonki, alderdi batekoak bezala bestekoak, geroago Michelek Aitasantuari esango ziona, zeren, azken batean, inork ez zuen nahi arazoa larriagotzerik eta aita maite-maitagarriaren eta bere ume fede handikoen artean halako liskarrak zentzurik ez zuenez,

3092Baietsi: afirmar
3093Hotz eta motz: (H. “con tono seco”)

ziren guztiek anaikiro konpondu nahi baitzuten. Ordura arte egoera mendeko gizonen esku-hartzeaz soilik larriagotu izan zen, enperadore nahiz bikario[3094] izanik ere, Eliza Ama Santuaren arazoetan zereginik ez zutenak.

Orduan hitza Abonnek hartu zuen, eta esan zuenez, bera elizgizon eta abadiako abade Elizak asko zor zion balderna batekoa izanagatik ere (eta hau esanda batzartoki haren alde batean zein bestean begirunezko eta kontsideraziozko hitzaroa zabaldu zen), ez zuen uste emperadorea arazo haietatik at geratu behar zenik, geroago frai Gilen Baskervillekok azalduko zituen hainbat arrazoiengatik. Baina Abonnek gehitu zuen zuzena zela, hala ere, eztabaidaren lehen aldia Aitasantuaren ordezkarien eta San Frantziskoren seme haien ordezkarien artean izaitea, berauek elkarraldi haretan egoite hutsaz Aitasantuaren seme elizkoi sutsuak zirela erakusten baitzuten. Honenbestez, frai Micheleri hitz eskaini zion, edo haren ordez mintzatuko zenari, bertan azal zezan Avignonen defenditzeko zuen eritzia.

Michelek esan zuen, bere poz eta hunkidura handirako, hantxe eurekin Ubertino da Casale zegoela, beroni 1322an Aitasantuak berak txirotasun arazo haretazko

3094Bikario: vicario

txosten ondo oinarritua eskatu zitzaiona. Eta Ubertinok, hain zuzen, orok harengan aitortzen zuen fede kartsuz, jakituriaz eta buru argiz, balderna frantziskotarrak beretzat egina zuen erizpideko gai nagusia laburbil zezakeela.

Ubertino zutik jarri zen, eta mintzatzen hasi ordukoxe ulertu nuen zergatik piztu zuen hainbesteko gogo berotze[3095], predikari zenean bezala gorteko gizona zelarik ere. Molde[3096] kartsuaz[3097], ahots gogatzailez[3098], arrazoimenduz argi eta koherente, entzuleak hitzaldi osoan atziturik[3099] eduki zituen. Hastean, Perusako erizkaiak zertan oinarritzen ziren oso era jakintsuaz mintzatuz argitu zuen. Lehenik eta behin Kristo eta bere jarraitzaileak bitarikoak[3100] zirela aitortu beharra zela esan zuen, zeren, Testamentu Berriko eliz-prelatuak izan baitziren, eta honelakoak zirelarik beren jabetzak eduki baitzituzten, eta ondasunak banatu, txiroei nahiz elizgizonei eman ahal izaiteko zikegitasunaz den bezainbatean, Apostoluen Egintzak-en idatzirik dagoena legez egiten zutela, eta hau inork ez duela ezbaian ezarten. Bigarrenik, Kristo eta apostoluak

3095Gogo bero: entusiasmo
3096Molde: (H. “ademán”)
3097Kartsu: (H. “apasionado”)
3098Gogatzaile: (H. “persuasivo”) (Gogatu, limurtu...)
3099Atzitu: (H. “tener cogidos”) (?)
3100Bitarikoak: (H. “doble condición”)

nordintzat[3101] hartu beharra dagoela, erlijiozko bikaintasun guztien funtsak, eta munduari uko egile egin-eginak[3102]. Edukite era bi dagozela, bata mundutarra eta zibila dela, inperioko legeek *in bonis nostris* hitzez definitzen dutena, zeren, gureak diren ondasunak guri edukiteko eman zaizkigunak baitira, eta kentzen dizkigutenean geuretzat eskatzeko eskubidea baitugu. Honegatik, gauza bat dela zibilkiro eta mundutarki nork bere jabegoa defendatzea, kendu nahi digunari aitzi, inperioko epailerengana joz (eta Kristo apostoluekin horrela ezeren jabe izan zirela baieztatzea heretikoa da, zeren, Mateok V. atalean dioen bezala, zure tunika kendu nahi dizunari emaiozu mantarra ere, eta ez besterik dio Lukak, VI. atalean, beronetan Kristok edozein jabetza edota jauntza beregandik alderatzen du eta bere apostoluei berdin egiteko agintzen die, eta ikus bedi, halaber, Mateoren XXIV. atala, non Petirik Jaunari jarraitzeko ororí utzi diotela baitiotson), baina badela beste modu bat gauzak edukiteko, eta hau elkarren arteko karitatetik datorrela, eta honexen ondorioz Kristok eta beretarrek berez ondasunak eduki zituztela, *jus poli* deritzona, zeruaren arrazoia alegia, izaitean datzana, arrazoi zuzenarekin bat datorrena, giza-agindurik bagekoa, izan ere,

3101Nordin: (H. “personas particulares”)
3102Egin-egin(a) : perfecto

gizakien nahikundeen ahalmenari dagokiona *jus fori* dela. Gauzen bereizketa lehenbiziz izan baino lehen, jabegoaz den bezainbatean, gaur egun diren bezala zirela, inorenak ez diren gauzak edukiten dituen lehenarenak direla onartzen baita; hein batean, orduan ororenak zirela, gure asabek bekatua egin zuten arte, beronen ostean gauzen jabetza banatzen hasi eta gaur egun ezagunak diren jabego mundutarrak sortu izan baitziren. Baina Kristok eta apostoluek bere ondasunak lehenbiziko eraz eduki zituztela eta honela janzkiak, ogia eta arrainak, eta, Paulek Timoteori igorri lehenengo gutunean dioenez, "janariak eta estalgarriak daduzkagu, eta asebeterik gagoz". Ikusten denez, Ubertinok gehitu zuen, Kristok eta bereek gauza horiek ez zeduzkaten jabe zirelako erabiltzaile baizik, beraz, haien guztizko txirotasunari kalterik egiteke[3103]. Hau, zegoeneko, Nikola II. Aitasantuak aitortua zuen, bere *Exiit qui seminat* dekretu-gutunean.

Aurkarien aldean Jean d'Anneaux zutitu zen eta Ubertinoren erizkaiak arrazoi zuzenarekin bat ez zetozela ez ezik, Eskritura Santuaren interpretazio zuzenarekin ere bat ez zetozela esan zuen. Zergatik eta, ondasun galkorrez[3104]

3103Kalte: (H. "sin menoscabo")
3104Galkor: perecedero

den bezainbatean, ogia eta arrainak esaterako, ezin esan daitekelako erabiltzeko eskubideak direnik, eta, honenbestez, inola ere, hor ez dagoela erabiltzerik gaizkibiltzea[3105] baizik. Antzinateko Elizan fededunek elkarrekiko zedukaten guztia, bigarren eta hirugarren Egintzak-en iradokita dagoenez, konbertitu baino lehen zuten jabetza berean oinarritzen zela. Apostoluek, Espiritu Santuaren jaitsieraz gero, Judean etxaldeak zeduzkatela; jabegorik bage bizitzeko botoa ez dagokiola gizonak bizitzeko premiazko duenari, eta Petirik dena alde bat utzi zuela esan zuenean ez zuela esan nahi jabegoari uko egin zionik; Adanek bere gauzen jabetza zuela; bere ugazabaren dirua hartzen duen sehiak ez duela ongi ez gaizki erabiltzen, noski; *Exiit qui seminat*-en agertzen diren hitzak, frantziskotarrek beti bermetzat hartzen dituztenak, hots, berauek erabiltzen dituzten gauzen erabiltzeko eskubidea bai baina ez jabetzarik ez jabaririk[3106] dutenik, erabiltzeaz agortzen ez diren gauzei dagokiela, soilik, ulertu behar dela, eta *Exiit* horrek ondasun ahikorrak ere barrenean ukanen balitu ezinezko den zerbait baietsiko lukeela; egitezko erabilera ezin bereiz daitekeela jabari juridikotik; giza-eskubide ondasun materialen oinarrikoa, erregeen legeen

3105Gaizkibil: (H. “abuso”) (N) (??)
3106Jabari: dominio

barruan dagoela; gizon hilkorra zenez, Kristo, sortu zenetik munduko ondasun guztien jabe zela, eta Jaungoikoa zelako aitarengandik ororen jabari orokorra jaso zuela; janzki, janari eta dirua zeduzkala, jarraitzaileen emari eta opariei esker, eta txiro izan bazen ez zela izan ondasunik ez zedukalako, ondasunon emaitzak jasoten ez zituelako baizik, izan ere, jabari juridiko hutsak, interesen biltzetik bereizirik, ez duela aberats egiten jabari duena; eta azkenik, *Exiit*-ek besterik esan balu ere, zubigin erromatarrak, bere aurrekoen ebazpenak baliogatu[3107] ahal duela, eta horrez bestela[3108] egin ere bai, fedeari nahiz moralari dagokionez.

Orduantxe zutitu, bai sutsuro, frai Girolamo, Caffako gotzaina. Bizarra ikara zebilkion, herragatik[3109], haren hitzak adiskidekoi agertzen saiatu arren. Niri nahaspilatsu xamar iruditu zitzaidan eran hasi zen argudiatzen.

— Aita santuari esan nahi niokeena, eta nik neronek esango diodana, zuzentzen badidazu onartzen dut, egiaz, uste, Joan' Kristoren bikario dela uste dut eta hauxe aitortu nuelako eduki ninduten gatibu sarrazenoek. Eta hasteko, doktore handi batek aipatu gertakari bat ekarriko dut, fraide batzuen artean egun batez sortu zen eztabaida hain zuzen,

3107Baliogatu: revocar (N) (ge+tu)
3108-z bestela: lo contrario
3109Herra: ira, furia

Melkisedek-en aita nor zen. Eta orduan Copes abadeak, horretaz itaunkatu ziotenean buruari ukaldi bat eman zion eta esan: « Izan kontuz, Copes, Jainkoak agindu ez dizuna bilatzen baituzu, eta bilatzeko agintzen dizuna ez baituzu haintzat hartzen.» Bada, nire adibidetik ondoriozta daitekeenez, ez Kristok ez Andere Maria birjina zorionekoak eta ez apostoluek inoiz ere ezer ez elkarrenik ez bakoitzarenik edukitea gauza nabaria da, hala, Jesus gizon eta aldi berean Jaungoiko zela baino are nabarariago, begira noraino, ezen, aurrena uka lezanak azken hau ere ukatu behar bailuke!

Garaitzaile antxo esan zuen, eta Gilenek begiak zerurantz goititzen zituela ikusi nuen. Susmo dut Girolanoren silogismoa makur xamarra edo iruditu zitzaiola, eta ez naiz ni ukatzera ausartuko, baina are makurrago iruditu zitzaidan niri haren aurka Giovanni Dalbenak egin zuen argudioa, esan ere, Kristoren txirotasunaz zerttobait baiesten duenak begiz ikusten dena (edo ikusten ez dena) baiesten duela esan baitzuen, haren gizatasunaz eta jainkotasunaz, berriz, esaten dena fedearen bidezkoa dela, eta, honegatixe ezin aldera daitezke bi erizkaiak. Ihardestean, Girolamok bere aurkariak baino zorrozkiago jardun zuen.

— Oi!, ez, anaia maite, alderantziz dela uste dut: Ebangelio guztiek Kristo gizon zela diote, jaten-edaten zuela, eta, haren mirariak nabarmen-nabarmenak zirela eta, Jaungoiko ere bazela, eta hauek guztiok ageri-agerian dagoz!

— Aztiek eta igarleek ere mirariak egin ukan zituzten –esan zuen Dalbenak hizkera harroxkoaz[3110].

— Bai, baina azti-antzeko formula batzuen bidez. Berdindu nahi ote dituzu Kristoren mirariak eta azti-antzea? –batzarrak marmar egin zuen haserre, halakorik egin nahi ez zuela eta–. Eta azkenean –Girolamok aurrera, garaipena hurbil zuela eritzirik, nonbait–, Del Poggetto kardinal jaunak Kristoren txirotasunaz uste den hori heretikotzat hartu nahi ote du, frantziskotarren baldernaren arautegia ustego[3111] horretan oinarritzen delarik, eta munduan ezein erresumarik ez dagoelarik haietariko anaiarean bat edo beste prediku egitera eta odola isurtzera joan ez denik, Marokotik hasi eta Indiaraino?

— Pedro Hispanoren arima santu, jagon gaitzazu –xuxurlaka Gilen mintzo.

3110Harroxko: (H. “tono de suficiencia”)
3111Ustego: (H. “creencia”) (Parecer, juicio /...)

— Anaia maite-maite –deiadarka[3112] Dalbena, oinkada bat aurrera eginik–, mintza zaitez, ea, nahi baduzu, zure anaien odolaz, baina ez ahantzi beste balderna batzuetako elizgizonek ere horrelakoxe zerga-modu ordaindu dutela..

— Ez nuke nahi kardinal jaunari gaitzi dakion[3113] –oihu egin zuen Girolamok–, baina ezein domingotarrik hil ez da inoiz fedebageen artean, alta bada, nire garaietan soilik han martiri eginik bederatzi frantziskotar hil izan ziren!

Sumin-sumindu eta begitartea gorriturik, Alboreako apezpikua jaiki zen, domingotarra bera:

— Egiazta dezaket frantziskotarrak Tartariara baino lehen bertara Inozentzio Aitasantuak hiru domingotar bidali zituela!

— A, bai? –galdetu isekati Girolamok–. Bada, ongi, nik dakidanez frantziskotarrak Tartarian duela laurogei urtetik hona dagoz, berrogei elizetxe eraikirik herrialde osoan, domingotarrek, ordea, itsasertzean bost toki baino ez, eta guztira hamabost bat fraide, hortxe-hortxe! Eta ez dago gehiago eztabaidatzekorik!

3112Deiadarka: (H. “vociferando”)
3113Gaitzitu: importunar, ofender… (H.”faltar”) (No… que le ofendiera)

— Badago eztabaidatzekorik –oihuz Alboreak–, horiek frantziskotar horiek, zakur emeek txakurkumeak bezala tertziarioak umatzen[3114] dituztenek, oro beretzat hartzen dute, euren martiriez harrotzen dira, eta gero, hara[3115], elizetxe ederrak dadutzate, eta apaindurak[3116] arranditsuak[3117], eta saldu-erosi egiten dute beste gainontzeko baldernetako lekaideek laso!

— Ez, ene jaun, ez –iharduki zion Girolamok–, ez dute haiek berek sal-erosten, egoitza apostolikoaren prokuradoreen bitartez baizik, eta hauexek dute jabetza, frantziskotarrok erabilera baino ez dugu eta!

— Zinez?[3118] –galde egin zuen Alboreak, irkaitzarekin[3119]–. Eta, beraz, zenbat aldiz saldu duzu zeuk prokuradore bagerik? Etxalde zeinbaiten istorioa badakit jakin...

— Egin badut, oker egin dut –di-da baten eten zion Girolamok–. Ez egotzi baldernari neure balizko makurrik!

3114Umatu: erditu / baldar a palos / Umotu: ondu / Umetu: ume bihurtu
3115Hara: (H. “resulta que..”)
3116Apaindura: (H. “paramento”)
3117Arranditsu: (H. “suntuoso”)
3118Zinez: (H. “¿en serio?”)
3119Irkaitz: (H. “sonrisa burlona”) (Irri gaitz)

— Baina, anaia agurgarriok –sartu zuen hitz Abbonek orduan–, ez gagoz hemen frantziskotarrak txiroak direnentz eztabaidatzeko, gure Jauna izan ote zenentz baizik...

— Horrenbestez –atzera Girolamo mintzo–, auzi honetaz argudio zorrotza dut, ezpata bezain zorrotza...

— Jaun Done Frantzisko, jagon itzazu zeure semeak...– Gilenek esana, erabat adore bagetua.

— Argumentua hauxe da: –berriz ere Girolamo– ekialdetarrak eta greziarrak, aita santuen dotrinekin gu baino baterago dagozenak, Kristoren txirotasunaz ziur dagoz. Eta, heretiko zein zismatiko horiek hain egia argia hain argiro baieztatzen badute, haiek baino heretikoago zein zismatikoago izan nahi al dugu hura egia hura ukatuz? Egia haren aurka gutako batzuek ohi diotena entzun balezate ekialdetarrek harrikatuko lituzkete!

— Baina, zer diozu? –Alboreak iseka eginez bezala–. Hala, zer dela eta ez dute harrikatzen haren aurka prediku egiten duen domingotarrik?

— Domingotarrak? Baina, inoiz ere ez baititut hantxe ikusi!

Aurpegia ubel, Alboreak ohartarazi zuen frai Girolamo agian hamabost urtez Grezian egon zela, bera,

berriz, haurtzarotik hantxe bizi izan zela. Girolamok ihardetsi zion, esanez, Alborea domingotarra ere agian Grezian egondakoa zela, baina biziera meleka[3120] izanki, gotzain-jauregi ederretan, bera, ordea, frantziskotarra zelarik, eta ez hamabost urte orduan hogeita bi baizik, Konstantinoplako enperadorearen aurrean prediku egina zela. Orduan, Alborea arrazoiak huts, frantziskotarrengandik alderatzen zuen tartea gainditzen saiatu zen, ahots zoliz, eta berrizkatzera ausartzen ez naizen hitzak erabiliz, Caffako apezpikuari bizarra erauzteko asmo sendoa adiarazi zuen. Horrako gizon horren gizontasuna ezbaian ezarri zuen, eta, talion-legeari zatxekiola, zigortu nahi zuen, bizarra zigortzat erabiliz.

Beste frantziskotarrak beren anaia babesteko hesia egitera jaiki ziren berehalakoan, avignondarrek domingotarrari esku emaitea[3121] erabaki zuten eta egoera hura (oi, Jauna, erruki zakizkie zure seme kutunei!) liskar bihurtu zen, Abadeak kardinalarekin baretu nahi eta ezin ukan zuena. Iskanbila haretan, frantziskotarrak eta domingotarrak elkarri ele oso larriak esanka ari ziren, kristauen eta sarrazenoen arteko gudua balitz bezalaxe.

3120Meleka: (H. “refinada”)
3121Esku eman: (H. “dar mano fuerte”) (Apoyar, defender...)

Gilen, alde batean, eta Bernardo Gui, beste aldean, geldi eseririk geratu ziren bakarrak, bata itxuraz goibel, bestea alai… inkisidore haren ezpainetan agertzen zen irriño motela alaitasuna zela esaterik balego.

— Ez al dago argumentu hoberik –galdetu nion ene maisuari, Alborea amorratuki Caffako gotzainaren bizarrari erasoten ari bitartean– Kristoren txirotasunazko tesia egiaztatzeko edo gezurtatzeko?

— Adso maite –Gilenek–, biak ala biak baiezta ditzakek, eta ez dezakek inoiz erabaki, ebangelioak oinarri, ea Kristok, soinean zeraman txabusina edo tunika berea zela uste zuenentz, eta higatu[3122] ondorean, eiki, bertan behera utziko baitzuen. Eta, nahi baduk, Akinoko Tomasen dotrina, jabegoaz, gurea baino ausartagoa duk. Frantziskotarrok diogu: ez dadukagu gurerik deus, oro erabiltzeko baizik. Harek zioen: zeraren jabe izan zaitezke, baldin eta inork zer hori edo dadukazun zerbait behar baleza, zuk erabil lezan emanen bazenio, eta ez karitate hutsez, betebeharraz baizik. Baina garrantzitsua ez duk Kristo txiro zen edo ez zen, Elizak txiro izan behar duen ala ez baizik. Txirotasunak, bestalde, ez dik esan nahi, honetaz, jauregi baten jabe izan

3122Higatu: ajarse (Ihetzetu...)

edo ez izan, munduko gauzez legeak ezarteko eskubidea duen ala galdu duen baizik.

— Ha, horregatik dio axola handia enperadoreari frantziskotarrek txirotasunaz diotenak!

— Horixe. Frantziskotarrak inperioaren alde ari dituk, Aitasantuaren aurka. Alabaina, Marsilioren eta nire eritziz jokoa bikoitza duk, inperioak gure jokoa egin dezan nahi baitugu eta giza-gobernamenduaz guk ditugun aburuen alde egin, halaber.

— Hori esango duzu zure hitzaldian?

— Hori esan badezat, nire egitekoa beteko diat, inperioko teologoen burubideak azaltzea baita, baina, aldi berean, nire eginbeharrak porrot eginen dik, bigarren batzar bat egitea ahalbidetzea baita, Avignonen, eta ez diat uste Joanek onartuko duenik, ni hara hau esatera joaitea.

— Beraz?

— Beraz, elkarren aurkako bi indarren artean nagok, astoa bi zorro bete saraleren[3123] aurrean zeinetik jan behar duen ez dakiela dagoena legez. Garaian garaikoa, ordea, eta garaiok ez zagozak heldurik. Marsiliok aldakuntza amesten dik, une

3123Sarale: heno (Belar ondua)

honetan ezinezko delarik, eta Ludoviko ez duk aurrekoak baino hobea, nahiz eta oraingoz Joan doilor horren aurkako gotor-gizon bakarra izan. Agian oldozten dudana esan behar nikek, baldin lehenago haiek elkar hilko ez balute. Dena dela, hi, Adso, hakio[3124] idazteari, hemen gertatzen ari denaz lorratz bat behintzat gera dadin.

— Eta Michele?

— Aldia alperrik huts egiten duela beldur nauk. Kardinalak bazakik Aitasantuak bitartekaririk nahi ez duena; Bernardo Guik bazakik bere beharkizuna batzar hau ezerezean uztea dena; eta Michelek bazakik nola edo nola ere Avignonera joanen dena, ez baitu baldernak Aitasantuarekiko lokarri guztiak eten ditzan nahi. Bere bizia galbidean izanik ere joanen duk.

Mintzatzen ari ginen artean, –eta, zinez, ez dakit nola aditzen genion elkarri–, iskanbila bere gorenean zegoen. Arkulariek esku hartu zuten, Bernardo Guik agindu eta, bi alderdiek elkar joiteraino talka[3125] egin ez zezaten. Honela ere, gaztelu bateko harresiaren alde batean eta bestean, setiatuak eta setiatzaileak bezala, elkarri irainak eta biraoak iraizten zizkioten, hemen nola edo hala ekarriko ditudanak,

3124Hakio: Ekin aditza, agintera.
3125Talka: choque

nork noiz aurtiki ez baitakit, eta, jakina, esan zirenak oro ez zirelako txandaka esan, hika-mika betean baizik, nire herrialdean ohiko eztabaidan inoiz ere gertatuko ez zen bezala, mediterraniarren antzera baizik, elkar gainka, itsaso haserrearen olatuen antzera.

— Ebangelioak dioenez Kristok zisku[3126] bat zedukan!

— Aski duzu zisku horretaz ele egitea! Gurutzefiketan ere pintatzen duzue eta! Nola azaltzen duzu, bestela, Gure Jauna Jerusalemen zegoenean gauoro Betaniara itzultzen zena?

— Eta Gure Jaunak Betanian lo egin nahi bazuen, nor zara zu haren erabakia epaitzeko?

— Ez, agure akerra. Gure Jaunak Jerusalemen ostatua ordaintzeko dirurik ez zedukalako itzultzen zen Betaniara!

— Akerra zeu zara, Bonagrazia! Eta zer jaten zuen Gure Jaunak Jerusalemen?

— Apika[3127] esango ote zenuke zeuk zaldia oloaren jabea dela, bizirik iraun dezan jaten emaiten baitio bere jabeak?

— Horra, Kristo zaldiarekin alderatzen duzu...

3126Zisku: bolsa de dinero
3127Apika: acaso (?)

— Ez, zerorrek alderatzen duzu Kristo zure gorteko prelatu simoniako batekin, sats-ontzi[3128] horrek!

— Baia? Eta zenbat bider sartu behar izan du auzitan Egoitza Santua zuen ondare-ondasunak babestearren?

— Elizaren ondareak, ez gureak! Guk erabiltzeko baino ez genedutzan!

— erabiltzeko eta jateko, elizetxe ederrak egiteko, urrezko giza-irudiz beteak! Hipokritak, malmutzak[3129], zitalkeria-ontziak[3130], hilobi zurituak, makurkeria-sastegiak[3131]! Badakizue, jakin, ondo ere jakin, karitatea dena, eta ez txirotasuna, bizitza hobezinaren[3132] hasiera!

— Hori zuen Tomas sabelkoiak[3133] esan zuen!

— Kontuz, gero, fedebageko hori! Sabelkoi esan baitiozu Erromako Eliza santuko jaun done bati!

— Bai eta zera ere, nire sandalietako jaun done, Joanek santu' frantziskotarroi gaitziarazteko[3134] egin zuena! Zuen

3128Sats-ontzi: (H. "saco de estiércol")
3129Malmutz: astuto / hipócrita
3130Zitalkeria-ontzi: (H. "vehículos de iniquidad")
3131Makurkeria-sastegi: (H. "sentina de vicios")
3132Hobezin: perfecto (Hobe+ezin)
3133Sabelkoi: glotón
3134Gaitziarazi: (H. "hacer fastidiar")

Aitasantu horrek ezin dezake santurik izenda, heretiko hutsa da eta! Areago, heresiarka!

— Lelo hori badugu lehendik aditua! Hori Bavariako txoriburu[3135] horrek esana dago, Sachsenhausen-en. Eta zuen Ubertinok esanarazi[3136] zion!

— Kontuz zer diozun, urde horrek, Babiloniako puta eta beste emagalduen seme horrek! Ongi dakizu urte haretan Ubertino ez zegoena enperadorearekin, Avignonen baizik, hain zuzen, Orsini kardinalaren zerbitzutan, eta Aitasantua Aragoira enbaxadore bidaltzeko prestatzen ari zena ere badakizu!

— Badakit, badakit kardinalaren mahaian txiro-boto egiten zuena, eta orain penintsulako abadiarik aberatsenean egiten du! Ubertino! Zu ez bazengozen, nork iradoki zion Ludovikori zure idazkiak erabil zitzan?

— Nik ote errurik Ludovikok nire idazkiak irakurten dituelako? Bai, doike, zureak ezin irakurri, zu analfabetoa zaitugu eta!

— Ni analfabeto? Eta zer diraustazu zuen Frantziskoren gutunez, aukekin[3137] mintzatzen baitzen?

3135Txoriburu: (H. “pelele”)
3136Esanarazi: (H. “dictó”)
3137Auka: oca

— Birao dagizu!

— Zeuk dagizu birao, ardontziko[3138] *fraticello* horrek!

— Zuk badakizu nik ez dudana ezer egin ontzi horrekin!

— Egin ez duzula, bada, zure *fraticelli*ekin, Chiara da Montefalcorekin oheratzen zinenean!

— Jainkoak hil zaitzala bat-batean! Garai haietan ni inkisidore nintzen, eta Chiara hila zen santu antzean!

— Chiara santu antzean zendu zen, zuk, aitzitik, beste antze batez kantatzen zenizkien matutiak lekaimeei!

— Segi, segi, harrapatuko ahal zaitu behingoan Jainkoaren sumindurak[3139]! Zure ugazaba harrapatuko duen bezalaxe, bi heretiko aterpetu baititu, Eckhart ostrogodo hori bata, eta Branucerton deritzozuen nigromante ingeles hori bestea!

— Anaia agurgarriak, anaia agurgarriok! –oihuz Bertrando kardinalarekin Abadea.

3138Ardontzi: (H. “barrilito”) (N)
3139Sumindura: (H. “cólera”)

BOSGARREN EGUNA

TERTZIA

Seberinok Gileni liburu bakan batez ele egiten dio eta Gilenek ordezkariei munduko gobernamenduaz erizpide[3140] harrigarri batez hitz egiten dienekoa.

Artean ikamikak su eta gar[3141] zirauen, atea zaintzen ari zen fraidegai batek iskanbila zeharkatu zuenean, txingorrak landan goitik behera ari duela zeharkatu bezala, eta Gilenengana jo zuen, ahopetik, Seberinok zerbait esan nahi ziola, eta berehala, jakinaraztearren. Apirikura irten genuen, eta jakin-minak jotako lekaideez bete-beterik zegoen, iskanbila haretan barruan, oro zalaparta eta ardaila, zer gertatzen ari zen aditu nahi eta ezin haiek. Aurreneko lerroan Aymaro d'Alessandria ikusi genuen, beti bezain

3140Erizpide: (H. "concepción")
3141Su eta gar: (H. "arreciaba")

irrikaiztsu agertu zitzaiguna, unibertsoko ergelkeriaz errukitasuna[3142] erakuski:

— Enura bagerik, eskale-baldernak sortu zirenaz geroztik, kristaugoa onbidetsuago bihurtu da –esan zuen.

Gilenek bazterrera zuen, xakar xamar, Seberino gure begira zegoen txoko aldera joaiteko. Urduri edo artege genekusan, zerbait esan nahi zigun baina guri geuri ez besteri, baina hango zalapartan ezinezko zen, leku lasairik ez eta. Handik lekora nahi genuen, baina une haretantxe Michele da Cesena agertu zen, atalasean, eta Gileni atzera bihurtzeko, ikamika baretzen hasia zela eta hizketan aurrera egin behar zela.

Bi zorro saraleren artean berriz ere bananduta, Gilenek belargileari hitz egin zezan agindu zion, eta beronek bestek entzun ez zezantzat ahalak egin zituen.

— Egia da, ezen, garbitokira baino lehenago Berengario erietxean izan zena –esan zuen.

— Zer dela eta[3143] dakizu?

3142Errukitasun: (H. “conmiseración”)
3143Zer dela eta: (H. “cómo”)

Fraide batzuk hurrera zitzaizkigun, gure elkarrizketagatik jakin-minak jorik. Seberinok, are apaltxeago mintzoz, bere inguruari so zegion:

— Urlia horrek… esan zenidanez… agian zerbait eduki ahal zuen aldean… Bada, zera, ikertokian zerbait aurkitu dut, beste liburuekin nahasirik… Nirea ez den liburu bat, liburu bakana.

— Huraxe izango ahal da, antza –Gilenek pozarren esan zuen–, ekardazu berehala.

— Ezin dut –Seberinok–, gero azalduko dizut, aurkitu dudanez… Axola handiko zerbait aurkitu dudala eta nago… Zerorrek etorri behar duzu, liburua erakutsi behar dizut… kontu handiz…

Hitza eten zuen. Ohartu ginen, beti bezain isil, Jorge agertua zela, ia ezustean, gure ondoan. Besoak aurrerantz luzatuak zedutzan, nola eta, halako lekurean batean ibiltzen ohiturik ez eta norantz zihoan asmatu behar bezala. Nordin arruntak ez zuen adituko Seberinoren ahopeko xuxurla, baina aspaldi konturatuak ginen Jorgeren entzumena, itsu guztiena bezala, bereziki zorrotza zela.

Hala ere, agureak, antza, ez zuen deusik aditu. Areago, ibilian-ibilian gu gengozen lekutik alderatuz joan zen. Lekaideetako bat ukitu zuen eta zerbait eskatu zitzaion. Berorrek guriro[3144] besotik heldu zion eta lekorantz joan[3145] zuen. Orduantxe, berriro Michele, eta berriz ere Gileni deika. Nire maisuak erabaki zuen:

— Mesedez –Seberinori–, itzul zaitez berehala etorri zarenetiko[3146] lekura. Barrutu[3147] han eta iguriki[3148] ni iritsi arte. Hi –niri– harraio[3149] Jorgeri. Zer edo zer aditua duen arren ez diat uste erietxera joan nahi luenik. Dena dela, azkonda[3150] ezak nora doan.

Gelara bihurtzeko prestatu zen, eta Aymaro ikusi zuen (nik ere bai), hainbat lagunen artetik bide eginez Jorgeren atzetik joaitera egin zuen, une haretantxe kanpora irteten ari baitzen. Orduan Gilenek ezegiteko bat egin zuen, arinkeriaz[3151], zeren, ozendo eta apirikuaren beste aldetik, Seberinori, ia eraikinetik at zegoelarik, esan baitzion:

3144Guriro: con delicadeza
3145Joan: (H. “lo condujo”)
3146Etorri zarenetiko lekura: al sitio del que has venido/ por donde has venido // Etorri zaren lekura: al sitio que has venido
3147Barrutu: encerrarse (?)
3148Iguriki: itxaron
3149Harraio: jarraiki hi, inperatiboa (Zarraizkio—zu / garraizkio --gu)
3150Azkondatu: averiguar
3151Arinkeria: (H. “imprudencia”)

— Euzu kontu handi. Ez utzi inork… orri horiek… itzul bitez lehen zegozen lekura!

Une haretan, ni Jorgeri jarraikitzekotan nengoen, eta sehiburua ikusi nuen kanpo aldeko ate-zango ondoan itsatsita legez: Gilenen hitzak entzun zituen eta batera-bestera soz, nire maisuari nahiz belar-biltzaileari, aurpegia zurbil beldurrarren. Seberino handik irteitera zihoala ikusi eta beronen atzetik joan zen. Ni atalasean, eta Jorge ikusmenetik galduko ote nuen lotsarekin, harik hara lainopera sartuko baitzen, beste biak nekusatzan, beste alderantz zihoazela, hutsak irensten zituen bitartean. Abazuzaka[3152], zer egin behar asmatu nuen. Itsuari jarraiki nekion agindu zidan, baina erietxera joango zelakoan. Bere lagunarekin beste alde baterantz joan zen, ordea, kalostran zehar eta elizara buruz, edo Eraikinerantz. Sehiburuak, aldiz, belar-biltzailearen atzetik, zalantzarik ez, jo zuen, eta Gilenen beldurra ikertokian zer gerta zitekeen zen. Honenbestez, azken bien gibeletik joan nintzen, eta ene gogoan galdera bat, besteak beste, ea nora joana zen Aymaro, baldin eta gureez oso bestelako arrazoiakatik irten ez bazuen.

3152Abazuzaka: rápidamente (arinik arin...)

Tarte zuhur bat utzi nuen[3153], sehiburua ikusterretik uzteke, ordea, astirottoago baitzihoan ni bere atzetik nindoala igarri eta. Ez zekien bere orpotik zihoakion itzala nerau nintzen, eta ez neronek ere jakin itzal haren orpoak harenak ote zirenentz, baina nik ez nuen enurarik haretaz, eta harek ere ez nitaz.

Niri begiratzera behartzen nuenez, Seberinori hurbiletik jarraikitzea galarazten nion. Eta erietxeko atea laino barrutik agertu zenean itxita zegoen. Zeruari esker, Seberino ordurakoxe sartua zen. Sehiburuak atzera burua bihurtu zuen niri so egitearren –ni geldi-geldi baratzeko zuhaitza laso–, ondorean erabaki zuela irudi zuen eta sukalderantz jo. Nire egitekoa eginda zegoela uste ukan nuen. Seberino gizon zuhurra zen, berez ondo zekien bere burua babesten, inori irekitzeke. Ez nuen beste zereginik, eta, gainera, kapitulu-gelan zer gertatzen ari zen jakiteko irrikatan nengoen. Beraz, itzultzea erabaki nuen, bada, eta Gileni berri emaitea. Ausaz, gaizki egin nuen, zaintzen geratu banintz beste zoritxarreko batzuk, anitz, eragotzi[3154] genituzkeen. Hau, ordea, oraintxe dakit: orduantxe ez nekien.

3153Tarte zuhur…: (H. “me mantuve a una distacia razonable”)
3154Eragotzi: (H. “nos hubieramos ahorrado”)

Atzera nindoala, Bentziorekin ia tupust egin nuen, gaizkide-irria ezpainetan zuena:

— Seberinok Berengariok utzitako zer edo zer aurkitu du, bai?

— Eta zuk zer dakizu? –iharduki nion ozarki, eta adinkide banu bezala hartu nuen, amorruz bai eta une haretantxe haren begitarteak maltzurkeria ia haurrena legezkoa zerakusalako ere bai.

— Ni ez nauzu kokolo –ihardetsi zidan Bentziok–. Seberino Gileni zerbait esatera doakio, arin bai arin, zu erne zagoz inor jarraiki ez dakiontzat…

— Eta zuk gehiegi behatzen gaituzu, gu eta Seberino –esan nion haserre.

— Nik? Behatzen zaituztet, bai egia. Herenegundanik ez dut begirik kentzen erietxetik ez garbitokietatik. Ahal izan banu, bertara sartu nintzatekeen. Begi bat emango nuke Berengariok liburutegian zer aurkitu zuen jakitearen ordain.

— Gehiegi jakin nahi duzu zuk jakiteko eskurik[3155] ez izanki!

3155Esku: eskubide

— Ikasgura[3156] naiz eta jakiteko eskubidea dut, munduko azken muturretik etorri naiz, liburutegia ezagutzearren hain zuzen, eta liburutegia itxirik dago, gauza txarrak baleduzka bezala, eta nik...

— Utz nazazu alde egiten –zakar agindu nion nik.

— Utziko zaitut, bada, nik jakin nahi nuena esan didazu eta.

— Nik?

— Isiliz ere mintza daiteke.

— Erietxera ez zaitezen aholkatzen dizut –esan nion.

— Ez naiz sartuko, egon lasai. Kanporean behatzea inork ezin debeka niri, ostera.

Ez nion gehiago aditu eta ene bideari jarraiki nintzaion. Kuskusero hura arriskugarri ez zela pentsatu nuen. Gilengana hurreratu nintzen eta gertatutakoaren berri eman nion, laburki. Ondo hartuaren imintzioa egin zidan eta isiltzekoa. Nahasmendua apaltzen hasia zen. Ordezkaritza bietako kideak elkarri bake-musua emaiten ari. Alboreak frantziskotarren fedea goraipatzen zuen, Girolamok predikarien karitatea, guztiak Elizarengan barreneko borrokengatik asaldaturik ez egoiteko itxaropena

3156Ikasgura: (H. “estudioso”)

aldarrikatzeari zekizkion. Batzuek besteen indarra ospatzen zuten, besteek batzuen neurritsutasuna[3157], eta guztiek zuzentasuna aipatzen eta zuhurtasuna goraipatzen. Inoiz ikusi bagea nintzen ni ordura arte hainbat gizaseme hain zintzoro bertute teologal eta kardinalen gurenda[3158] goratu nahiarekin.

Baina ordurako Bertrando del Paggettok Gileni inperioko teologoen erizkaiak azal zitzan gonbidatu zuen. Gilen gogo txarrez zutitu zen: alde batetik, batzarra erabat ezertarakoeza zela zekielako; beste aldetik, handik alde egiteko gogoa zuelako, gogoan liburu misteriotsua baitzuen batzarraren atarramendua baino axolagarriago. Baina, ezin inondik inora itzuri bere eginbeharretik.

Hasi zen, bada, hitz egiten, he! eta ho! ugariren artean, beharbada ohikoak eta onartuak baino gehiago, nolabait zer esan behar zuen ziur ez jakin bezala, eta aitzinsolas[3159] antzo aurrekoek esandakoa oso ongi ulertzen zuela adiarazi zuen, zeren, bestalde, zeinbaitek inperioko teologoen «dotrina» zeritzona, ez baitzen ohar bakan batzuen multzo bat baizik, fedearen egiak izaitera iritsi nahi ez zutenak.

3157Neurritsutasun: (H. “templanza”)
3158Gurenda: garaipen
3159Aitzinsolas: (H. “exordio”)

Gero honelatsu esan zuen: Jaungoikoaren ontasun guztizkoa dela eta, bere haurren herria sortu zuenean erakutsitakoa, ziren guztiak bereizketarik bage maite zituela, Genesi-ko orrialdeetan hasita ez baitzituen bereizten elizgizonak eta erregeak, eta Jaunak berak Adani eta beronen ondoreangoei munduko gauza guztien jabaria eman ziela haintzat harturik, beti ere jainko-legeak betez gero, pentsatu behar dela munduko gauzetan ere Jaunaren asmoz herria legegin eta legearen lehen helburu izan behar zela. Herri izenez, gehitu zuen, herritar guztien multzoa ulertzea egoki izango zela, baina haien artean haurrak, tentelak[3160], gaizkinak eta emakumezkoak hartu behar zirenez, agian hobea izan zitekeela herriaren esanahi horretan, arrazoizko eran, herritarren zatirik onena hautatzea, nahiz eta berak une haretantxe zati horretakoa nor izan zitekeenentz esatea egoki ez zela uste izan.

Eztul egin zuen, pittin bat, barkamena eskatu zitzaien han zegozenei, esanez, egun haretan eguratsa hagitz heze zegoela, umel. Bere hipotesia azaldu zuen, hots, herriak bere nahia adiarazteko batzar orokor bat, hautetsizkoa[3161], osatzea zegokeela. Esan zuenez, zuhurra izango zen halako

3160Tentel: (H. “idiota”)
3161Hautetsizko: (H. “electivo”)

batzarrak legea interpretatu, aldatu edo ezeztatu egin zezakeela, zeren, legea gizon bakarrak eginez gero, beronek gaizki edo txarki egitea baitzegokeen, ez jakinez edo maltzurkeriaz, eta, gehitu zuenez, ez zuen bertan gogorarazi behar zenbat aldiz eta lekutan gertatu izan zen hala garai haietantxe. Ohartu nintzen bertakoek, zirautsenagatik harritu beharrean, azken esaera hori ontzat zematela, izan ere, ageri zen hango bakoitzak pertsona bakoitz bat gogoratzen zuela, eta bakoitzaren ustez buruan zuen pertsona bakoitza gaiztakeria-eredu bat zela.

Halaxe, bada, Gilenek bere hitzari zeragoion[3162], bakar batek legeak gaizki egin ahal baditu, ez ote dute hobeki egingo gehienek? Jakina[3163], nabarmendu[3164] zuen, lege lurtarrez ari ziren, arazo zibilen ondo-egiteari[3165] buruzkoak. Jaungoikoak Adani ongiaren eta gaizkiaren zuhaitzetik ez jateko agindu ziola, eta jainko-legea zela, baina geroago baimen eman ziola, zer diot?, esan zuen, bultzatu zuela gauzei izen eman ziezaien, eta honetaz bere munduko mendekoari askatasuna eman ziola. Bai hauxe, gehitu zuen, gure garaiotan zeinbaitek *nomina sunt*

3162Eragon: continuar, proseguir /… (?)
3163Jakina: (H. “desde luego”, “en efecto”)
3164Nabarmendu: (H. “subrayar”)
3165Ondo-egite: (H. “buena marcha”)

consequentia rerum[3166] dioen arren, Genesi liburua gai honetaz nahiko argigarria dela: Jaungoikoak animalia guztiak gizonaren aurrera eraugi[3167] zituen izen eman ziezaien, eta zein nahi izen emanik ere haxe eritziko zitzaien harik aitzina. Eta, nahiz eta, zalantzarik ez, lehen gizonak gauza zein abere guztiei bakoitzari bere izaerari begiratuz zegokion izen bere paradisuko hizkuntzan zuhurkiro eman, honek ez zuen esan nahi bere eskubide gorenari uko egiten zionik bere eritziz izaera horri bakoitzari zegokiokeen izena irudikatzeko. Zeren, jakina, luzatu zen, gizonek adigaiak izentzeko ezarri ohi dituen izenak askotarikoak direla jakina baita, eta adigaiak, gauzen ezagugarriak alegia, soilik direla ororentzat berdinak. Honetaz, bada, doike, *nomen* hitza *nomos*-etik datorrela, hots lege, zergatik eta gizonek *nomina ad placitum* emaiten baitituzte, elkarren arteko[3168] itun aske baten bidez, hain zuzen[3169].

Han zegozenek ez zuten inondik inora hain eleketa jakintsua errefusatu[3170], ausartu ez. Hori dela eta[3171], Gilenek

3166«Izenak gauzen ondorioak dira.»
3167Eraugi: ekarri (acarrear, presentar ante...)
3168Elkarren arteko: (H. “colectivo”)
3169Nomen [izena] nomos-etik darator; [gerkeran, lege]; Nomina ad placitum, «Izenak nahierara»; beste etimologia aizuna, hitz bien, nomen eta nomos, itxurazko berdinatasunetik sortua.
3170Errefusatu: (H. “impugnar”)
3171Hori dela eta: (H. “en virtud de lo cual”)

bukatzeko, argiro ikusten dela munduko gauzen legeteria, eta beraz hirietako eta erresumetako, ez dagoela inola ere jainko-hitzaren zaintza eta kudeatzearekin lotua, berau Elizako buruzagiei dagokien pribilegio inorenganaezina[3172] baita. Zorigaiztokoak, bada, fedebageak, honelako buruzagitza peitu baitute, eurentzat jainko-hitza ulertaraz[3173] dezan (eta guztiak fedebageei errukitu zitzaizkien). Baina, honek guztionek, otean, zilegi egiten digu esatea, fedebagekoek legeak egiteko joerarik ez dutela eta beren gauzak kudeatzeko euren jaurlarien bidez, izan errege izan enperadore, sultan edo kalifa? Uka ote daiteke enperadore erromatarrik asko jakituria handiz, Trajano bat adibidez, oso egokiro jardundakoak izan zirela, ausiabar[3174] larrietan? Eta nork eman die jentilei eta fedebageei horrelako gaitasun berezkoa lege egiteko eta erkidego politikoetan bizitzeko? Beharbada haien jainko aizunek, egiaz izan ez direnek (edo izan behar ez direnek, ezezkoa nola ulertarazten den)? Ez, noski. Gudarosteetako Jainkoak ez bestek eman ahal izan die gaitasun hori, Israelgo Jainkoak, Jesukristo gure jaunaren aitak… Jainko-ontasunaren erakuspen miresgarria, gai politikoez erabakitzeko ahalbidea Erromako zubiginaren

3172Inorenganaezin: (H. “inalienable”)
3173Ulertarazi: (H. “interpretar”) (N) (?)
3174Ausiabar: (H. “temporal”) (Quebraderos de cabeza...)

nagusigoa aitortzen ez dutenei ere eman baitie, herri kristauaren misterio sakratu, bigun eta ikaragarriak onartzen ez dituztenei! Alabaina, ba al da erakuspen hoberik aginte lurtarrak eta jurisdizio sekularrak Elizarekin eta Jesukristoren legeekin zerikusirik ez dutela, eta Jainkoak agindu bai baina elizaren berrespenik bage eta, areago, gure erlijio santua sortu baino lehenago?

Berriro eztul egin zuen, baina orduko honetan ez zen bakarra izan. Hango entzulerik asko jarlekuetan asaldaturik eta karrakaz[3175], eztarria garbietan. Kardinalak mihiaz ezpainak bustitzen zituela ikusi nuen, eta imintzio bat, kezkatsu baina adeitsu, zegiola ere bai, Gileni, ondorioetara irits zedin aholkatuz bezala. Orduan beronek ondorioak izan zitezkeenei heldu[3176] zien, ororen eritzietan, ontzat hartzen ez zituztenenetan ere bai. Beharbada ondikozko ondorioak izango ziren, hitzaldi ukaezin[3177] hura entzunaz gero. Bere dedukzioak, esan zuen, Kristoren beraren eredutan berma zitezkeela, berau ez baitzen mundura agintzera etorri, mendeko izaitera baizik, munduan aurkitu zuen egoerara egokituz, Zesarren legeei zegokienez bederen. Ez zuen nahi ukan apostoluek jabari eta agintaritzarik zuketenik, eta

3175Karrakaz (H. “carraspear”) (Eztarria garbitu)
3176Heldu: (H. “abordar”)
3177Ukaezin: (H. “irrebatible”)

honegatik jakintsu dirudi apostoluen ondoreangoek botere mundutar eta indarrezko[3178] orotatik at egon beharra. Pontifizea, gotzainak eta bereterrak printzearen botere mundutar eta indarrezkoaren mende egon ezean, azken beronen agintaritza ezdeusa izango litzatekeela, eta honen ondorioz ordena ere ezdeustuko litzatekeela, lehenago erakutsi zuenez, Jainkoak ezarritakoa zen ordena. Enura bagerik, zeinbait kasu oso labain[3179] edo kontuz hartu beharrekoa bada –esan zuen Gilenek–, heretikoena bat, berauen heresiaz Elizak eta ez bestek, egiaren jagole delarik, ebazteko eskua baitu, honela ere ekiteko eskua sekularren besoari dagokiola. Elizak zeinbait heretiko badela aitortzean, zuzena dela, zalantza bagerik, printzeari ohartaraz diezaion, berau herritarren egoeraz jakinaren gainean egon dadin on eta egoki baita. Baina, zer egin behar du printzeak heretikoarekin? Jainkoaren egiaren izenean kondenatu, berari hori ez dagokiolarik? Printzeak heretikoa kondena dezakeela eta behar duela ororen elkarbizitzari kalte eginez gero, edo heretikoak bere asmoa onartu nahi ez dutenei indarka, hilez edo gaitz eginez hartzeko egiten badie. Baina printzearen boterea hortxe gelditzen dela, zeren, lurbira honetako inor behartua ezin izan baitaiteke,

3178Indarrezko: (H. “coactivo”)
3179Labain: (H. “delicado”)

indarkeriaz edo oinazez ebangelioaren araurik betetzera. Bestela, non gera liteke nahimen askea[3180], zeinaz beste munduan bakoitza epaitua izanen baita? Elizak heretikoari esan diezaiokeela eta behar diola, ohartaraziz, fededunen erkidegotik irteten ari dela, baina ezin dezakeela epaitu munduan ez haren nahimenaz bestela behartzera. Kristok bere apezei ahalmen edo botere indarrezko bat eman nahi izan balie, arau zehatzak ezarri zituzkeela, Moisesek antzinako legearekin egin zuen bezala. Baina ez zituela ezarri. Beraz, horrelako ahalmenik ez ziela eman nahi ukan. Edo, bai, nahi zuela pentsatu behar genuke, baina hiru urteetan, predikari ziharduelarik, adiarazteko gaitasun edo astirik ukan ez zuela? Zuzena nahi ez izaitea zela, zeren, nahi izanez gero, Aitasantuak bere nahia erregeari gainezar zekiokeela, eta kristaugoa dagoeneko ez litzatekeela askatasun legea, joputza[3181] jasanezina baizik.

Hau guztiau, Gilenek, gehitu zuen, irribarretsu, ez da Aitasantuaren boterearen murrizketa, beronen eginkizunaren goresmena baizik: Jaungoikoaren mirabeen mirabea ez dagoels lurbira honetan jaun izaiteko mirabe izaiteko baino. Eta, azkenik, guztiz harrigarri izango litzatekeela

3180Nahimen aske: libre arbitrio, libre albedrío
3181Joputza: (H. “esclavitud”)

Aitasantuak inperioko arazoez esku ukanen balu eta munduon ez beste erresumetakoez. Jakina denez, Aitasantuak jainko-gauzez esaten duena hala Frantziako erregearen menpekoentzat nola Ingalaterrako erregearenentzat baliagrria dela, baina halaber izan behar dela baliagarri Khan Handiaren menpekoentzat edo fedebageen sultanarenentzat, horregatik esaten zaiela fedebage, hots, egia eder honen sinesle ez direlako, hain zuzen. Eta, ondorioz, Aitasantuak –Aita Santua den heinean– bere aginte-barrutia inperioko gauzez eta ez inongo bestez mugatzen dela uste izan baleza, susma litekeela aginte hori arlo espiritualera bezala mundutarrera ere zabal litekeela baina biok bat eginez gero ez lukeela sarrazenoen edo tartaren gaineko aginte-indarrik, eta honen haritik ez lukeela, era berean indarrik frantsesen eta ingelesen gainean, eta hauxe birao kriminala izango litzatekeela. Honegatik, nire maisuak bukatu zuen, agian zuzena izan liteke Avignongo Elizak gizateria guztiari birao egiten ziola baieztatzea erromatarren enperadore hautatua onartzea edo ez onartzea bere esku zegoela esaten zuenean. Aitasantuak ez duela inperioaren gainean beste erreterrien gainean baino eskubide gehiago edo handiagorik, eta Frantziako erregea edo sultana Aitasantuaren onartzearen

azpian ez dagozen bezala, ez direla zertan egon alemaniarren edo italiarren enperadoreak. Azpian egoite hau ez dela jainko-eskubidea, Eskriturek ez dutela aipatzen. Eta lehenago aipatu arrazoiak direla eta, jende-eskubideak ere ez duela kontsagratzen. Txirotasunari buruzko eztabaidarekin dituen harremanei dagokienez, esan zuen azkenean Gilenek, haren eritzi apalak, iradokizun amultsu balira bezala emanak, bai harenak bai Paduako Marsiliorenak eta Jandungo Juanenak honela har litezkeela ondorioz: frantziskotarrek txiro nahi bazuten, aurrerantzean ere bai, Aitasantuak ezin aurka egin ziezaiekeen hain nahikunde bertutetsuagatik. Enura bagerik, Kristoren txirotasunazko adigaia baieztatuko balitz, frantziskotarren eritziaren alde ez ezik Jesusek munduan inolako jabetzarik nahi ukan ez zuelako eritzia ere sendoturik gertatuko litzateke. Baina goiz haretan pertsona oso jakintsu batzuei aditu ziela esanez ezin zela probatu Jesus txiro izan zenik. Beraz, baieztapen hau iraultzea egokiena zela zeritzola. Inork ez zuela baieztatu, ezin baietsi izango baitzuen inork Jesusek beretzat edo bere ondoreangoentzat munduko agintebiderik galdatu zuenik, eta berau, hain zuzen, hots, Jesusek horretaz erakutsi zuen axolarik eza, munduko gauzez zudurik ez zuela erakutsiz, beretzat txirotasuna nahiago ukan zuela erakutsi zuela

baieztatzeko nahiko zantzua zela uste zuen, bekatu egin bagerik.

Gilenek hain apal hitz egin zuenez, bere baieztapenak hain durduzakor[3182] azalduz, hango inork ez zion iharduki[3183]. Inor ez zen zutitu hari jarkiteko asmoz. Honek ez zuen esan nahi aditutako guztiarekin bat zetozenik. Avignondarrak asaldaturik higitzen ari ziren, sumina begitartean, iruzkinak ahapeka, baina haiek ez ezik Abadea ere hitz haiek aditu eta gaitziturik, itxuraz; irudi zuen, ezen, bere baldernaren eta inperioaren arteko harremank oso bestela irudikatuak zituela. Farntziskotarrak, berriz, Michele da Cesena harri eta zur zegoen; Girolamo, ikaraturik; Ubertino, pentsakor.

Del Poggetto kardinalak zuen isilaldia eten, beti irribarretsu eta nare[3184], leunkiro Gileni galdetu baitzion ea Avignonera joaiteko zenentz hantxe esandako gauza berak Aita Santu jaunaren aurrean berrizkatze aldera. Gilenek kardinalari bere eritzia galdatu eta beronek erantzunez Aitasantuak bere bizialdian hainbat eritzi eztabaidagarri aditurik ukan zituela esan zion eta bere seme guztiak oso

3182Durduzakor: dubitativo
3183Iharduki: (H. “replicar”)
3184Nare: sereno / Naro: abundante /...

maitte-maitte zituen gizona zela, alabaina, eiki, halako eritziek larriki bihotza estutzen[3185] ziotela.

Bernardo Guik, ordura arte ahoa beti itxirik, mintzo hartu zuen:

— Frai Gilen, horren trebe eta hitz-jariotsu, eritzi horien azaltzaile, Aitasantuaren epai-pera ager baledi atsegin handia izanen nuke...

— Gogatu egin nauzu, Bernardo jauna –Gilenek esana–. Ez naiz joango. –Eta, kardinalari buruz mintzatuz, aitzakia-maitzakia legez, hauxe gehitu zuen–: Badakizu, bularrean jo berri nauen erramazko[3186] honek, halako bidaldi luze bati ekitea, urtaro honetantxe, on ez litzaidakeela pentsatzera narama...

— Alta bada, zer dela eta hitz egin duzu horren luzaz? –itaun egin zion kardinalak.

— Egia erakusteko –Gilenek erantzunez apalkiro–. Egiak aske eginen gaitu.

— Ez, bada! –Jean de Baune lehertu zen–. Hemen ez da askatuko gaituen egiarik, egiaren itxura hartu nahi duen gehiegizko askatasuna baizen!

3185Bihotza estutu: (H. “afligir”)
3186Erramazko: (H. “fluxión”) (Constipado, resfriado…)

— Hori ere izan liteke –onetsi zuen Gilenek emeki.

Bat-batean, ekaitz bat lehertzeko zorian zegoela gogora zitzaidan, aurrekoa baino bihotzen eta hizkuntzen sutsuagoa ekaitza. Ez zen, hala ere, ezer jazo. Dalbena hizketan ari zeino, arkularien kapitaina sartu zen, Bernardori ahapetik zerbait jakinaraztearren edo. Berau dzanpez zutitu zen, jaiki eta imintzio eginez adi ziezaioten eskatu.

— Anaiok –esan zuen–, agian eztabaida onuragarri hau beste une batez iraunarazteko aukera izango ahal da, baina oraintxe gertaera larri-larri batek gure egitekook bertan behera uztera behartzen gaitu, Abadearen baimenarekin. Apika, nahi ez eta Abadearen beraren ustekariak[3187] gainditu ditut, hemen aurreko egunetan gertatu hainbat krimenen erruduna jarrutea[3188] nahi baitu. Gizon hori orain nire eskutan dago. Baina, ai! beste behin beranduegi harrapatua izan da… Zer edo zer jazo da han…

Keinu ttipi bat egin zuen kanpo alderantz begiraraziz, aretoa alderen alde zeharkatu arin-arin eta irten zuen, atzea bete fraide ugarirekin. Aurrena, Gilen, eta ni honekin.

3187Ustekari: (H. “expectativa”)
3188Jarrute: jarrugi aditza (Jarrugitea)

Nire maisuak so egin zidan eta esan:

— Seberinori zerbait gertatu ote zaion beldur nauk.

BOSGARREN EGUNA

SESTA

Seberino hilik aurkitu dutenekoa eta berak kausitu liburua gehiago agertzen ez denekoa.

Larri-larriturik, eta arin-arin zeharkatu genuen zabalgunea[3189]. Arkularien kapitainak erietxera joan[3190] gintuen, eta heltzean itzal batzuk begiztatu genituen gaueko lauso hitsean higika[3191]: fraideak sehiekin ziren bertaratzean, eta arkulariak ate-zaintzan, haiei bidea mozteari ekitean.

— Iskiludun gizon horiek nik bidalita dagoz hortxe, misteriorik asko argi zezakeen gizon baten bila bidali ere –esan zuen Bernardok.

— Anaia belar-biltzailea? –Abadea harri eta zur galdez.

— Ez, orain ikusiko duzu –Bernardok, etxearen barrurantz zihoala, bidea zabalduz.

Seberinoren ikertokira sartu ginen, eta gure begiek ikuskizun negargarria ikusi zuten. Zoritxarreko belar-biltzailea odol zingira batean hilik zetzan, burua hautsirik. Inguruan, ekaitz batek arasa guztiak deboilatuak[3192] zituela zirudien: flaskoak, botilak, liburuak eta orriak kaos baten barruan bezala sakabanaturik, anabasa[3193] betean porroskatuak. Gorpuaren ondoan esfera armilar bat zegoen, gizonaren burua halako bi edo hiru handiagoa. Xehe-xehe

3189Zabalgune: explanada
3190Joan: (H. “conducir”)
3191Higika: (H. “se agitaban”) (Higi, higitu...)
3192Deboilatu: devastar, destrozar (Porroskatu, triskatu...)
3193Anabasa: montón de inmundicias...

landutako metalezkoa, goialdean urrezko gurutzeduna, hiruoineko apaindu ttiki baten gainean. Lehenago ere hura ikusia nintzen: sartu eta ezker aldean zegoen mahaiaren gainean.

Gelaren beste aldean, arkulari bik sehiburua atxitua[3194] zedukaten, eta berau jaregin nahiaz, errubageko zela oihuz ari. Abadea ikus orduko are ozenago oihuka:

— Jauna, itxurak nire kalte dagoz! Sartu naizeneko, Seberino hila zen. Hilketa hau izu-lauorrian begiztatzen ari eta atzeman naute!

Arkularien burua Bernardorengana hurrera zen eta, honen baimenarekin, gertatutakoaz berri eman zuen, ororen entzungarri. Bi orduz, arkulariak, sehiburua atzemaiteko agindurik, abadia osoan hara-horra bila eta bila ibilitakoak ziren. Agindua, nik uste, Bernardok kapitulu-gelara sartu aurrez eginikoa izango ahal zen. Gudamutilak, aurki, bazterrak-eta ezagutu ez, okerreko lekuetan barrena ibili bila, oharbagean, sehiburua, bere azken hura hala izango zenik ez jakinik noski, beste guztiekin apirikuan zegoelarik. Gainera, bilaketa are zailago lainoagatik. Nola nahi zen ere, kapitanaren esana gogoan harturik, Remigio, nik utzi eta

3194Atxitu: atxilotu, atxiki, atzeman

gero, sukaldera joan zen, nork edo nork ikusi eta arkulariei jakinarazi zien, bai eta hauek Eraikinera joan eta sehiburua alde eginda zegoenean heldu ere; lipartto[3195] bat geroago, eta sukaldean Jorge aurkitu zuten, lehenttoago harekin hizketan ari izan zela ziurtatu baitzien. Orduan arkulariek zelaigunea arakatu zuten, ortuen aldean, eta bertan, lainopetik mamu baten antzo irtenda, Alinardo zaharra jarrugi, non zegoen ondo ez zekiena. Alinardok esan zien sehiburua erietxean sartzean ikusi zuela. Eta harantz orduan arkulariak. Atea zabalik zegoen. Sartutakoan, Seberino bizige[3196] ikusi zuten eta sehiburua arasetan bila eta bila ari, larri eta herio[3197], oro lurrera egotziz, zerbait, jakineko zerbait ediren nahi bezala. Ez zen zaila asmatzen zer gertatu zen, bukatu zuen kapitainak esaten. Remigio sartu zen, belar-biltzaileak eraso zion, hil zuen, eta hiltzera bultzatu zuen zera haren bilatzeari ekin zitzaion, su eta herio.

Arkulari batek lurrerean esfera armilarra jaso zuen eta Bernardori eskaini zion. Kuper[3198] eta zilarrezko oboen[3199] arkitektura dotorea, brontzezko uztai sendoez

3195Lipar: instante
3196Bizige: (H. “exanime”)
3197Larri eta herio: (H. “frenéticmente”)
3198Kuper: cobre (?)
3199Obo: círculo (?)

eginiko euskarri[3200] batek irozota[3201], hiruoinekoaren[3202] enborretik hartua zuen eta indar handiz biktimaren buruaren gainean joa zuen, eta honen ondorioz oboetarik meheenak hautsita zegozen edo gune batean zapaldurik. Horixe Seberinoren burua jotako gunea zela argi zegoen, odolatzak, odolaren aztarrenak alegia, agerian, eta gehiago ere bai, zera, garun edo burmuinezko zipriztin nazkagarriak ile-izpiekin nahas-mahas.

Gilen Seberinoren gainera makurtu zen, hilik zegoela baiesteko[3203] edo. Gizagaixoak begiak odolez lausotuak zeduzkan, burutik jario eta, zabal-zabalak bi begiak, eta ene buruari galde nik orduan, ea, batzuetan gertatzen dela esaten dutenez, irakur ote zitekeen, betsein[3204] hilean, biktimak ikusitako azken irudien zantzurik. Gilenek hildakoaren eskuak bilatzen zituela ohartu nintzen, hatzamarretan zetaka beltzik ote zedukan ikustearren, antza, nahiz eta orduko kasu haretantxe heriotzaren zioa zein zen oso argi egon: baina Seberinok larruzko eskuak jantzirik zeduzkan, zeinbait belar arriskugarri, zeinbait musker berde edo zomorro ezezagun

3200Euskarri: (H. “armazón)
3201Irozo: sosteneer, aguantar...
3202Hiruoineko: trípode
3203Baietsi: (H. “cerciorarse”)
3204Betsein: begi-nini, ninika...

ukitu behar zituenetan jantzi ohi zituen eta Gilenek ikusi izan zizkion esku-larruak.

Bitartean, Bernardo Gui sehiburuari mintzatzen ari:

— Remigio da Varagine. Zure izena hauxe da, ez da? Zu bilatzeko agindu diet nire gizonei beste salaketak zirela eta, beste susmoak baieztatzearren. Oraintxe dakusadanez, erabaki zuzena izan dut, beranduegi hala eta guztiz ere, aitor dut eta damu dut. Jauna –Abadeari mintzo–, azken krimen honen arduraduna, abantzu, neu nauzu, goizetik jakin baitut gizon hau justiziaren esku utzi beharra zegoela, aurreko gauean atxiloturiko beste gizagaixoak agerrarazi duena aditu ondorean. Baina, zerori lekuko, goizeon beste egiteko batzuk burutu behar ukan ditut eta nire gizonek ahal izan duten guztia egin dute…

Mintzatzen ari zen bitartean, ozendo ororen entzungarri, (hau esanda, desadan bidenabar, ezen, ordurako gela jendez gainezka zegoela, bazterrik bazter lagunak kuskusean, ihaurri eta hautsitako gauzak ikuska, batak besteari ahapetiko iruzkinka, sarraski lazgarriaz beti elemele), eta bitartean, esan bezala, multzo haren barruan Malakias begiztatu nuen, aurpegia ilun orori begira zegoena. Sehiburuak ere begiztatu zuen, kanpo alderantz herrestan

zeramatenean. Arkulariak bultzaka eta indarka egotzi zituen eta anaiaren gainera jauzi egin zuen, sotanatik heltzeko, eta, etsi-etsian, bekoz beko hitz guti batzuk iraitzi zizkion, arkulariek berriz ere atxitu zuten arte. Eta indarka zeramatenean, atzera Malakiasenganantz bihurtu zen eta oihuka honela esan zion:

— Zin badagizu, nik ere zin dagit!

Malakiasek ez zion erantzun sarri, hitz egokien bila bailebilan. Gerottoago, sehiburua atalasean zehar bortizki zeramatenean, erantzun:

— Ez dut ezer eginen zure kalte.

Gilenek eta biok elkarri begiratu genion, halako eszena harek zer esan nahi zuen elkarri galdeka bezala. Bernardok ere ikusi zuen arren ez zen aztoratu, antza, irri egin zuen, Malakiasi ere bai, beronen hitzak onartzeko legez eta beren artean gaizkidetasun maltzur[3205] bat lotu[3206] nahiz bezala. Gero, bazkaldu ondoan kapitulu gelan epai-mahai bat bilduko zela iragarri zuen, gertaera haien ikerketa agerikoa abiatzearren. Sehiburua aroztegira eroan zezaten agindu zuen, eta Salbatorerekin hitz egin zezan eragozteko.

3205Maltzur: (H. “siniestro”)
3206Lotu: (H. “sellar”)

Ondorean, alde egin zuen.

Une haretantxe Bentziok deika zihardukigula aditu genuen. Gure gibelean zegoen.

— Berehala sartu naiz zuen atzetik –esan zuen xuxurla batean–, gelan jenderik guti izan denean, eta Malakias ez da egon.

— Geroago sartua izango ahal zen –Gilenek.

— Ez, ni ate ondoan izan naiz eta nor sartu ikusten. Malakias, badiotzut, barruan… lehenago egon da.

— Zer baino lehenago?

— Sehiburua sartu baino lehenago. Zin ez dagiket, baina, nire ustez, hango errezel[3207] haren ostetik irten du, gela lagunez beterik egon eta gero –eta errezel handi bati begirarazi zion; haren atzean ohatze bat zegoen, Seberinok gaisotuei sendagairean bat eman ondorean bertan atseden har zezaten usatzen zuena.

— Zer pentsarazi nahi didazu, berak duela Seberino hil eta sehiburua sartzean errezel ostean ostendu dela? –galdetu zion Gilenek.

3207Errezel: burtina, erridau...

— Edo apika handik ostetik hemen gertatua ikusi. Bestela, zergatik hitz eman dio sehiburuak kalterik egingo ez diola berak kalterik egin ezean?

— Baliteke –Gilenek–. Nola nahi den ere, hemen liburu bat zegoen, eta hementxe egon behar luke oraindik, zeren, bai sehiburua bai Malakias eskuak hutsik atera baitira.

Gilenek bazekien, nik aurrretik esan eta, Bentziok bazekiena, eta une haretantxe laguntza behar zuela. Abadearengana zen, goibel Seberinoren hilotzari begira baitzegoen, eta hango guztiak handik irtenarazteko erregutu zion, lekua hobeki aztertu nahi zuela eta. Abadeak baietz, eta bera ere atera, Gileni etsipenezko zirudien behako bat egin ondoan, beti berandu heltzen zela edo adiarazi nahi legez. Malakiasek geratu nahi zuen, estakuru ilunak azalduz, baina Gilenek liburutegia ez zela eman zion aditzera eta han harentzat[3208] eskubide berezirik ez zuela. Adeitsu izan zen baina zurrun, eta honela aspertu zitzaion, hots, aurreko batean Malakiasek liburutegian Benantzioren mahaia azter zezan utzi ez ziolako mendeku.

Hirurok hirutara geratu ginenean, Gilenek apurrez eta orriez beterik zegoen mahai bat garbitu zuen, eta banan-

3208Harentzat (Malakias) // Beretzat (Gilen esaldiaren egile delako) (?)

banan Seberinoren bildumako liburuak eskurik esku eman niezazkion agindu zidan. Bilduma tikia, labirintoko handi-handiaren aldean, honela ere, neurri ezberdinetako hainbat eta hainbat alez osatua, lehenago arasetan eraz ipinita baina orduan zoruan ihaurrita zegozenak, beste gauza askorekin nahasita, aurretik sehiburuak esku urduri zikinez lorrindu eta batzu-batzuk apurturik; zirudienez, sehiburuak ez zuen liburu jakin bat bilatzen, libururean bateko orrialdeen barruan egon zitekeen zerbait baizik. Ale batzuk bortizki urratuak ziren, zeharo zirtzikaturik[3209]. Guztiak batu, zertazkoak ziren bizkor-bizkor ikusi, mahai gainean ondo pilatu eta hau guztiau azkar egitea ez zen erraza izan, eta, honela ere, azkar egin behar, Abadeak beta laburra eman baitzigun, gerottoago fraideak sartuko baitziren, Seberinoren gorpu zartatua berregitearren, ehortzi ahal izaiteko. Gainera, inguru osoan bilatu behar zen, mahaien azpietan, apalen atzeetan eta armairuetan, lehen arakatzean zerbait ikusten bazen-ezpazen. Gilenek ez zuen Bentziok niri laguntzerik nahi, eta ate ondoan zaintzaile egon zedin laga zuen. Abadearen agindua gora-behera, anitz lagun sartu nahian mordoxkatu zen: albistea jaso eta izuturiko sehiak, anaiagatik negarrez urtzen zien fraideak, zapi zuriak eta

3209Zirtzikatu: destrozar…. (H. “sin encuadernación”)

ikuztontziak[3210] bete ur gorpua ikuz eta biltzeko ekarriz heltzen ziren lekaidegaiak…

Hala, bada, arin egin behar genuen. Nik liburuak jasoten nituen eta Gileni emaiten nizkion, honek azter eta mahai gainean ipin. Gero, hala eginaz luzeegitzen ginen ohartu eta biak azterka hasi ginen, hau da, nik liburua hartu, urratuta bazegoen konpontzen nuen, izenburua irakur eta mahai gainean ipin. Gutiz gehienak orriak ziren, banaka-banaka.

— *De plantis libri tres*. Arraioa, ez duk hau! –Gilenek ziraustan, eta liburua mahaira iraizten zuen.

— *Thesaurus herbarum* –nirautsan.

Eta Gilenek:

— Utzi, gerkerazko liburu baten bila gabiltzak eta!

— Hau? –nik galde eta hizki ulertezinez[3211] beteriko liburuki bat erakuts.

Eta Gilenek:

3210Ikuztontzi: (H. “palangana”)
3211Ulertezin: (H. “abstruso”)

— Ez, ba, hori arabiera duk, kokolo! Bacon zuzen zegoan, jakintsuak egin beharreko lehena hizkuntzen ikastea zela baitzioen!

— Zeuk ere, ordea, ez dakizu arabieraz! –nik ihardukiz, pipertuxerik[3212].

Eta Gilenek, ihardetsi:

— Alta, bada, arabieraz dagoena bazakiat, jakin, behintzat!

Eta ni lotsagorri, nire gibelean zegoen Bentzio barreka ari zen eta. Liburuak heuragi, eta idatzitako oharrak ere beredin, batzuetan erroilo ortzi-gangako marrazkiekin, beste batzuetan belar bakan askoren katalogoak, ziur aski hildakoak berak orri banakoetan irarriak[3213]. Luzaroan jardun genuen, ikertokia goitik behera arakatu genuen, alderik alde, eta Gilenek, odol hotzez, gorpua lekutik alderatu ere bazuen, azpian ezer ote zegoen ikustearren, eta haren soinekoetan ere miatu[3214] zuen. Ezer ez.

— Ezinezkoa duk –Gilenek–. Seberino hemen barruan liburu batekin itxi zuan. Sehiburuak ez zedukaan...

3212Pipertu: (H. “picado”)
3213Irarri: (H. “escritos”)
3214Miatu: (“hurgar”)

— Bere soinekoan ezkutaturik edukiko ez ote? –galdetu nuen.

— Ez, lehengo goizean Benantzioren mahai azpian ikusi nuen liburua handia zuan, konturatuko ginduan.

— Nola zegoen kuadernatua? –galdetu nik.

— Ez zakiat. Zabalik zegoan eta lipar batez ikusi nian, gerkerazkoa zela jakiteko bezainbeste, besterik, aldiz, diat gogoan. Goazen aurrera: sehiburuak ez dik hartu, Malakiasek ere ez, nik uste.

— Ezinezkoa da –Bentziok baietsi–. Sehiburuak paparretik heldu dionean, eskapulario azpian ezer eduki ez duela ikusi dugu.

— Oso ongi. Hots, oso gaizki. Liburua gela honetan ez badago, argi dago beste bat ere, Malakias eta sehiburu ez ezik, hauek baino lehenago sartua zela.

— Beraz, beste hirugarren lagun bat, Seberino hil ote zuena?

— Lagun gehiegi –esan zuen Gilenek.

— Gainerakoan[3215] –nik–, nork ote zekien liburua hortxe zegoena?

3215Gainerakoan: (H. “Por lo demás”)

— Jorgek, esate baterako, guk esandakoa aditu zuen.

— Bai –esan nuen–, baina Jorgek ezin hil izango zuen Seberino bezain gizon sendoa, eta ez hain bortizki.

— Horixe, ez. Heuk ikusi duk Eraikinerantz joan denean, eta arkulariek sukaldean aurkitu ditek, sehiburua aurkitu baino lehenttoago. Honenbestez, ez dik betarik ukan honaino irits eta gero sukaldera itzultzeko. Har ezak kontutan, oinez ongi dabilen arren, hormaz horma joan behar duela, ortuak zeharkatu, beraz, ezin, eta are ezinago antxintxika…

— Uztazu nire buruaz hausnar dezadan –esan nuen, nire maisuaren irudiko[3216] izan nahian–. Horrela, bada, Jorge ezin izan da. Alinardo hor inguru-minguru ibili da, baina doi-doi zutik egon ahal da, Seberino, beraz, uzkailtzeko[3217] gauza ez da. Sehiburua hementxe izan da, baina sukaldetik irten eta arkulariak heldu, eta Seberinok atea zabaldu, eta beronixe eraso eta hil eta iskanbila hau guztiau irakori[3218], oro egiteko betarik ez. Malakias, agian, inor baino lehenago izan da. Jorgek guk apirikuan esandakoa aditu zuen, *scriptorium*era joan zen Malakiasi jakinarazteko, Seberinoren ikertokian

3216Irudiko: (H. “emular”)
3217Uzkaili: derribar… (H. “dominar”)
3218Irakori: suscitar, provocar /...

liburutegiko liburu bat zegoela; Malakias honatu da, Seberinok atea zabal diezaion, zabaldu, sartu eta hil du, Jainkoak daki zerarren. Alabaina, liburua bilatu badu, honelako anabasa ekarri bage ezagunetsiko zuen, liburuzaina da eta. Beraz, nor gehiago?

— Bentzio –Gilenek.

Bentziok burua azkarki higituz ezetz.

— Ez, frai Gilen, jakinguraz sutan nagoena badakizu. Honela eta guztiz ere, hemen izan banintz eta liburuarekin irten ahal izan banu, ez negoke orain hemen zuekin, beste nonbait baizik nire altxorra aztertuz...

— Arrazoi sinesgarria da, abantzu –Gilenek irriz esan zion–. Horrela eta guztiz ere, liburua nolakoa den zuk ere ez dakizu. Seberino hil ahal izan duzu eta orain hemen liburua bilatzen ari.

Bentzio lotsagorritu zen tint.

— Ez nauzu hiltzaile! –haserre biziz.

— Inor ez da lehenbiziko hilketa egin arte –filosofiaz Gilenek esana–. Nola-nahi ere, liburua ez dago, eta hemen utzi ez duzulako nahiko ezagugarri da. Eta arrazoizkoa deritzot esan duzun horri, hots, hartu bazenu hemendik alde

egin zenukeen horri, hemengo nahasmendua onuratuz.[3219] –Burua bihur eta hilotzari soz geratu zen. Irudi zuen une haretantxe ohartu zela, zinez, bere adiskidearen heriotzaz–. Gaixo Xeberino –esan zuen–, hitaz eta hire pozoinez susmorik banian. Eta heuk ere pozoin batez mehatxatua ikusten huen heure burua, honegatik jantzi dituk eskularruok. Lurretiko arriskuaren beldur hintzen eta ortzi-gangatik[3220] heldu zaik, ostera… –Berriz ere esfera hartu eta arretaz begira-aztertu zuen–. Nork jakin zer dela eta erabili duen iskilu hau...

— Eskumenean izan da.

— Agian. Beste gauza batzuk ere badagoz, edalontziak, baratz-lanabesak… Metalgintza eta astronomia-zientziaren erakustoki ona da hau. Abarrakitua[3221] dago eta… Zeru Santua! –egin zuen oihu.

— Zer gertatzen da?

— Eta eguzkiaren heren aldea jo du eta ilazkiaren heren aldea eta izarren herenak... –esan zuen, poliki-poliki.

Joan apostoluaren idazkia ez zen niretzat ezezaguna:

3219Onuratu: aprovechar (Onura: provecho ventaja)
3220Ortzi-ganga: (H. “cúpula celeste”)
3221Abarrakitu: destrozar

— Laugarren turuta! –ozendo nik.

— Horrela da. Lehenik txingorra, gero odola, geroago ura eta orain izarrak… Honenbestez oro berraztertu beharra dago. Hiltzaileak ez du halabeharrez egin. Xede bati jarraiki zaio… Alabaina, pentsa ote liteke hiltzaileak, hain gogo maltzurrez, Apokalipisiko liburuan agertzen diren esaerei jarraikiz hiltzen duela?

— Zer jazoko da bosgarren turutarekin? –galdetu nik ikaraturik. Gogoratzen saiatu nintzen–: Eta ortzirean lurrera erortzen zen izar bat urkusi nuen, eta lezeko putzuko[3222] giltza eman zitzaion… Inor hilko ote dea putzuan itorik?

— Bosgarren turutak beste gauza asko agintzen[3223] digu –Gilen mintzo[3224]–. Putzutik labe handiko kea jalgiko da, eta gero gizonak oinazetuko dituzten otiak, larrepoteak alegia, arrabioenak bezalako eztenekin. Eta otien itxura zaldiena bezalakoa izanen da, buruan urrezko koroa eta ahoan lehoi-hortzak… Gure gizonak liburuko hitzak ulertzeko era batzuen artean hauta dezake… Baina ez dezagun gehiago irudika. Hobe dukegu Seberinok liburua ediren zuela jakinarazteko esan ziguna gogoratzen saiatzea…

3222Lezeko zulo: (H. “pozo del abismo”)
3223Agindu: prometer / ordenar, mandar
3224Hika egiteari uko eginez, tartean Bentzio dagoelako.

— Zuk kapitulu-gelara eraman ziezazun esan zenion, baina berak ezin zuela esan zuen.

— Bai. Gero eten egin ziguten. Zergatik ezin zuen? Liburu bat eraman daiteke. Eta zergatik jantzi zituen eskularruak? Liburuaren koadernazioan badea ezer Berengario eta Benantzio hil zituen pozoinarekin loturik? Zemai[3225] misteriotsurik, kutsaturiko zi[3226] bat edo...

— Suge bat!–esan nuen.

— Zergatik ez balea bat? Ez, txorakeriak ari gara irudikatzen. Pozoinak, ikusi dugunez, ahotik irago behar luke. Gainera, Seberinok ez zuen esan luburua eraman ezin zuela. Hemetxe erakutsi nahiago zidala baizik. Eta eskularruak jantzi zituen… Badakigu, bederen, eskularruz ukitu behar den liburua dena. Eta hau zuretzat ere bada, Bentzio, nahi duzun bezala ediren badezazu. Eta horren lagunkorra[3227] zarenez gero, lagundu albaitzenegit.[3228] Igo *scriptorium*era eta zelatatu Malakias. Ez egiozu begirik kendu.

3225Zemai: mehatxu
3226Zi: punta
3227Lagunkor: (H. “servicial”) (Lagunkoi / lagun(du)kor)
3228Albaitzenegit: egin zeniezadala (aholkatzen dizut)

— Horrela egingo da! –Bentziok esan eta alai irten zuen, ene irudiz, agindutako eginkizuna zela eta.

Ezin geldiarazi izan genituen eta gela osoa fraide-jendez bete zen. Bazkalordua joana eta, ziur aski, Bernardok bere epai-mahaia osatzen ziharduen, kapitulu-gelan.

— Hemen ez dago gehiago egitekorik –esan zuen Gilenek.

Nire gogotik ideia bat irago zen:

— Hiltzaileak egotz ote zezakeen liburua leihotik eta gero erietxe ostean jasotzera joan? –galdetu nuen.

Gilenek ikertokiko leihotzarrak behatu zituen, sineskaiztasunez[3229], leihoak tankan[3230] itxiak zegozen eta, itxuraz.

— Goazen egiaztatzera –esan zuen.

Irten eta eraikinaren ostealdea arakatu genuen, ia harresiaren ondoan zegoena; iragobide mehar bat zegoen eta Gilen astiro-astiro ibili zen, aurreko egunetan hango elurra ukitu ez eta erori bezala geratu baitzen: gure oinek geruza izoztuan, leikarraldo hauskorrean, hatzak irarten[3231] zituzten,

3229Sineskaiztasun: escepticismo
3230Tankan: (H. “herméticamente”) (Tank...)
3231Irarri: imprimir

eta honela izanik, gure aurrean inor ibili balitz elurrak erakutsi zigukeen. Ez genuen deus ikusi.

Joan ginen erietxetik, eta nire hipotesi kaskarra bertan behera geratu zen, eta ortua zeharkatzen ari gineino Gileni itaundu nion ea zinez Bentziorenganik entzindu ahal zuen harean.

— Ez erabat –erantzun zidan–, baina, dena dela, berak ez zekien ezer ez zioagu esan, eta liburuaren beldur izan dadin jadetsi[3232] diagu. Azkenik, Malakias zelatatzeko esan zioagu eta honela beronek bera zelatatzea ere lortzen diagu, zeren, Malakiasek ere, eiki, liburua bilatzen baitu.

— Eta sehiburuak zer nahi zuen?

— Laster jakinen diagu. Zerbait nahi zian, nonbait, eta berehala nahi zian izutzen zuen arrisku bat saihestearren. Malakiasek dakien zerbait, antza, bestela ezin ulertu Remigiok egin zion otoi etsigarria...

— Dena dela, liburua itzaldu da.

— Hori egiantzekoa[3233] duk –esan zuen Gilenek, kapitulu gelara iristear gengozen unean–. Baldin bazegoen, eta

3232Jadetsi: erdietsi, lortu...
3233Egiantzeko: verosímil

Seberinok baietz esan zian, edo eraman ditek edo hantxe zagok oraindik.

— Eta ez dagoenez gero, norbaitek eraman du –ondorioztatu nuen.

— Arrazoimendua beste premisa tikiago batetik hasi eta bestela egin ezin dela ez dik inork esan. Inork eraman ezin zuela eta gagozenez...

— Ondorioz, oraindik hantxe behar. Baina ez dago.

— Egon, hago. Ez dagoela zioguk, guk ediren ez dugulako. Baina, agian, dagoen lekuan bilatu ez dugulako ez diagu ediren.

— Leku guztietan bilatu baitugu!

— Begiratu bai, ikusi ez. Edo ikusi badugu ez diagu ezagunetsi… Esaidak, Adso, nola deskribitu zuen Seberinok liburua? Zelako hitzak erabili zituen?

— Berea ez zen liburu bat aurkitu zuela, gerkeraz zegoela esan zuen…

— Ez! Oraintxe gogora zaidak. Liburu harrigarri bat aurkitu zuela esan zian. Seberino buruz jantzia zuan eta gizon landu batentzat gerkera ez duk harrigarria, gerkera ez jakin arren,

alfabetoa, bederik, ezagunetsi ahal dik. Lagun buruargik ez likek harrigarritzat hartuko arabierazkorik, arabiera ez jakin arren... –Lipar batez isildu zen–: Eta zer dagike arabierazko liburuak Seberinoren ikertokian?

— Alta, bada, zergatik hartuko luke harrigarritzat arabierazko liburua?

— Hortxe koxka. Harrigarria zela esan bazuen ohiz ateko[3234] itxura zuelako izan zitekean, ohiz atekoa beretzat bederen, belartzain eta ez liburuzain zuan eta. Liburutegietan sarri askotan eskuizkribu zahar batzuk batera koadernatzen dituk, liburuki bakarrean hainbat idazki ezberdin eta bitxi, bata gerkeraz, bestea arameoz...

— ...Eta bata arabieraz! –oihu egin nuen argibide harek, txismist batek antzo, jorik.

Gilenek zakarkiro apirikutik lekora bultzatu ninduen, berehala ariniketan erietxera itzul nendin:

— Teuton astakirten, kokolo, etxakin horrek lehenengo orrialdeak ikusi baitituk eta gainerakoa ez!

3234Ohiz ateko: (H. “insólto”)

— Maisua baina –ni arnas-estuka mintzo–, zerorrek behatu zenituen nik erakutsi orriak eta arabiera ez gerkera zela esan zenidan!

— Xuxen hago, Adso, astakirtena nerau nauk. Habil-hoa, zalu, azkar!

Ikertokira bihurtu ginen, eta sartzea zaila, fraidegaiek gorpua ateratzen zihardutelako. Beste kuxkuxero batzuk ere gelan. Gilen berehalakoan mahaira bizkor-bizkor eta liburuak aztertzen hasi zoritxarreko[3235] liburukiaren bila. Lurrera egozten zituen, hantxe zegozenek harriturik begira, ondorean zabaltzen eta berriro zabaltzen birritan guztiak. Baina, ai!, arabierazko eskuizkribua ez zegoen. Azala, zaharra, zelakotsua zen gogoan zuen, ez oso sendoa, higatuxea, metalezko xerrenda finez gogortua.

— Nor sartu da nik alde egin eta gero? –itaundu zion Gilenek fraide bati.

Sorbaldak jaso zituen: guztiak sartu zirela argi zegoen, eta inor ez.

Nor ote saiatu ginen asmatzen. Malakias? Izan zitekeen, zer nahi zuen zekien, beharbada zelatatu gintuen berak gu, esku hutsik irteten ikusi gintuen, eta kausituko

3235Zoritxarreko: (H. “fatídico”)

zuelakoan itzulia zen. Bentzio? Idazkia arabiera ote ez ote eztabaidan ari ginenean berak barre egin zuela gogoratu nuen. Une haretan nire etxakintasunaz barre zegiela uste nuen, baina Gilenen inozotasunaz, beharbada, zegien, zeren, berak bai baitzekien eskuizkribu zahar bat hainbat moldetan, ezberdinetan, ager daitekeena, eta, agian, une haretatantxe guk geroago pentsatu genuena pentsatu zuen, guk berehala pentsatu behar genuena, hots, Seberinok arabieraz ez zekiela, eta honegatixe harrigarri bere liburuen artean irakurri ezin zuen idazki bat. Edo beste hirugarren nordin bat ote zegokeen?

Gilen burua apalarazia[3236] zegoen. Bihotz arintzen[3237] saiatu nintzaion, esanez, hiru egun zirela gerkerazko idazki baten bila ari zela eta gerkerazko ez ziren liburu guztiak alde batera uztea bidezkoa zela. Gizalegez huts egitea bazela erantzun zidan, baina gizon batzuek beste batzuek baino huts gehiago egiten dutela, eta holakoei kokolo esaten zaiela, eta bera berauen artean zegoela, eta bere buruari galde zegion ea merezi izan ote zuen Parisen eta Oxforden ikasi izanak, ez baitzen gauza izan pentsatzeko, ezen, eskuizkribuak multzoka ere koadernatzen direla, edozein

3236Buru apalarazi: (H. “humillar”)
3237Bihotz arindu: (H. “consolar”)

fraidegaik dakiena, ni bezalako astakirtenak izan ezik, eta gurea bezalako bikote ergelak azokaz azoka irabaziko zuela, eta hauxe egin behar genuela, misterioen igarten ibili beharrean, aurrean gu baino jende-azeriago genuenean, batik bat.

— Alperrik, ordea, negar egitea –erantsi zuen gerottoago–. Malakiasek hartu badu, honez gero liburutegira itzulia izanen dik. Berreskura nahi ukanez gero, *finis Africa*era nola sar asma behar. Bentziok hartu badu, niri oraintxe otu zaidana goiz ala berandu otuko zitzaidala pentsatuko zian, eta atzera ikertokira itzuliko zuan, edo ez zuan hain iradu ibiliko. Honbestez, bada, ostenduta egongo duk, eta ziur aski ez duk bere gelan ostendu, inola ere, hortxe bilatuko bikenuen lehen-lehenik. Beraz, itzul gaitezen kapitulu gelara eta dakusagun ea, epaiketa bitartean, sehiburuak zerbait dioen guri baliagarri dakigungatik. Azken batean, Bernardok zer nahi duen ez zakiat argi: bere gizonaren bila Seberino hil baino lehenago zebilean, eta beste xede batzuekin.

Kaputulu gelara ginen. Bentzioren gelara joan bagina hobe, zeren, geroago jakin genuenez, gure adiskide gazte horrek Gilen ez zuen oso haintzakotzat[3238] hartzen, antza, ez zuen berau atzera ikertokira itzuliko zenik uste ukan, eta

3238Haintzakotzat hartu: (H. “valoraba”)

bilatuko ez zutelakoan, liburua non ezkutatu eta bere gelan bertan ezkutatu baitzuen, hain zuzen.

Baina horretaz beste batean hitz eginen dut. Bien bitartean[3239], liburu misteriotsuaz ahanzteko bezain larri eta beldurgarriko gertaerak izan ziren. Eta, ahantzi ez baina beste ataza premiazkoago eta berehalako batzuez arduratu behar, Gilenek eginkizun zuenarekin lotuak, hala ere, gertaerok.

3239Bien bitartean (H. “en el interín”)

BOSGARREN EGUNA

NONA

Oraingo honetan justizia administratzen da eta guztiak oker dagozelako irudipen[3240] ezatsegina dago.

Bernardo Gui intxaurkizko mahai handiaren erdialdean jarri zen, kapitulu gelan. Haren ondoan, notario lana egiteko domikutar bat; ezker-eskuin, epaile Aitasantuaren ordezkaritzako bi prelatu. Sehiburua mahaiaren aurrean zutik, arkulari biren artean.

Abadea Gilenenganantz biratu zen, ahapetik honela esate aldera:

— Ez dakit prozedura hori legezkoa den. Letrango kontzilioko XXXVII. kanonak, 1215ean, dioenez, ezin

3240Irudipen: (H. “sensación”)

daiteke inor epaileen aurrera agertzera behartua izan, epaiketa-egoitza salatuaren etxerean bi egun baino gehiagoko joanaldian badago. Honako kasu honetan, agian egoera ez da horrelakoa, epailea baita urrundik etorri dena, baina…

— Inkisidorea ez dago lege arruntaren pean –esan zuen Gilenek–, eta ez dago zuzenbide arrunteko araurik betetzera beharturik. Legedi berezia du bere lege, eta abokatuei ere ez die aditu beharrik.

Sehiburuari begiratu nion. Remigio oso egoera negargarira erorita zegoen. Bere inguruari so eta so, beldurrak hila dagoen piztia legez, liturgia ikaragarri bateko keinuak eta zantzuak, hara-honak ezagunetsi balitu bezala. Orain badakit bi ziogatik beldur zena: bata, itxura guztiak zirenez, *in fraganti* atzeman zutelako; bestea, aurreko egunaz gero, Bernardo ikertzen hasi zenetik, zurrumurruak eta aieruak[3241] bildurik, bere iraganaldiko okerrak eta makurrak argitara agertuko zirela lotsa zelako. Eta Salbatore atzeman zutela ikustean bere asaldura eta ezinegona larri-larriki handitu zen.

3241Aieru: (H. “insinuación”)

Remigio gizagaixoa bere okerren gatibu zen, Bernardo Guik, bere aldetik, bere biktimen beldurra sarrakio edo izu bihurtzen ondo baino hobeto zekien. Ez zen mintzatzen: hangoak oro itaunketa noiz hasiko zain zegozen bitartean, bere eskuak aurrean zeduzkan orri batzuen artean zebiltzan, txukuntzen edo antolatzen ari laso, alegia eta zerbait egiten ari zela. Bere begiradak, ordea, salatutakoa joiten zuen; begirada bikoitza zen, izan, errukibera itxura aizunaz (honela baliotso bezala: «Ez izan beldur, anaien batzar baten eskutan zagoz eta, zure ona baino nahi ez duena»), eta ironia izoztuaz (honela baliotso bezala: «Oraindik ez dakizu zein den zure ona, baina laster azalduko dizut») eta zorroztasun bihozkeaz[3242] (honela baliotso bezala: «Nola-nahi ere, hemen epailea neu nauzu eta zu neurea zaduzkat»). Sehiburuak hau guztiau bazekien, baina jokoaren isilaldia eta luzapena horretarako zen, hots, berriz ere gogorarazteko, ia-ia dastarazteko[3243], –ahantzi beharrean– are apalaraziago senti zedin, eta bere asaldura edo ezinegona etsipen bihur zekion, eta azkenean epailearen nahikeriaren mendeko gauza izan zedintzat, haren esku artean ezko biguna baino ez.

3242Bihozke: (H. “implacable”) (N)
3243Dastarazi: (H. “hacerselo saborear”)

Azkenean, Bernardok bere isilaldia eten zuen. Esamolde erritual batzuk egin zituen, eta epaileei esan salatutakoari itaunketan hasiko zela, bi krimen egotzirik, zein baino zein gorrotagarriago, bata guztiek zekitena, bestea gaitzesgarriagoa, zeren, zinez[3244], hilketa egitean harrapatu zutenean, salatutakoak, susmoz, heresiagatik bai baitzuen harrapatua izaiteko agindua bere gainean.

Esanda zegoen. Sehiburuak aurpegia eskuen artean ostendu zuen, eskuak kateaz lotu eta higitzeko zaila zuen arren. Bernardo itaunketan hasi zen.

— Nor zara? –galdetu zion..

— Remigio da Varagine. Duela berrogeita hamabi urte jaio nintzen, eta ume nintzela Varagineko frantziskotarren komentura sartu nintzen.

— Eta nolatan[3245] zagoz orain San Benitoren baldernan?

— Orain urteak direla, Aitasantuak *Sancta Romana* bulda promulgatu zuenean, *fraticelli*en heresiaz kutsatua izan beldurrez… nahiz eta inoiz haien proposizioei ni ez atxiki… nire arima bekatariarentzat hobe zela uste nuen, liluraz beteriko girotik alde egitea, eta abadia honetan fraideek

3244Zinez: (H. “en efecto”)
3245Nolatan: (H. “cómo es que”)

onartu ninduten, eta duela zortzi urte baino gehiagodanik sehien burua nauzu.

— Heresiaren liluretatik itzuri zinen –iruzkin egin zuen Bernardok iseka antzo–, beraz, heresia agerrarazi eta belar txar hori erauzi ahal izaiteko eginbideak burutu behar zituenarengandik alde egin zenuen. Eta lekaide klunitar onberek erruki-egintza bat egin zuten, ustez, zu hartzeaz, eta zu bezalako jendea hartzean. Baina soinekoa aldatzea ez da aski gaiztakeria heretikoa ariman ezabatzeko, eta honegatixe gagoz hemen, hots, zure arima damugearen[3246] xokoetan zer ezkutatzen den azertzeko eta leku sakratu honetara baino lehen zer egin zenuen jakiteko.

— Nire arima errubagea da, eta ez dakit zertaz ari zaren gaiztakeria heretikoaz mintzatzen zarenean –esan zuen sehiburuak kontuz-kontuz[3247].

— Ikus? –oihu egin zuen Bernardok beste epaileei begira bihurturik–. Horrelakoak dira guztiak! Haietariko bat atxilotua denean, auzitegiaren aurrean kontzientzia lasai eta alhadura bage bezala agertzen da. Eta ez daki horixe berorixe dela bere erruduntasunaren zantzua, epaileen aurrean zuzena beti urduri agertzen baita! Galde egiozue ea

3246Damuge: impenitente (N) (?)
3247Kontuz: (H. “cautela”)

dakien zergatik agindu nuen atxilo zezaten. Remigio, ba al dakizu?

— Jauna –sehiburuak erantzun zuen–, atsegin nuke azaldu bazenegit.

Harritu nintzen, zeren, uste nuenez, sehiburuak itaun erritualak egiten zizkionari hitz erritualez erantzuten baitzion, bazirudien, ezen, itaunketa arauak eta trikimainak ondo ezagutzen zituela, nolabait esateko esperientzia hura jasaiteko aurretiaz prestatua bailegoan.

— Badago –esan zuen ozengi bitartean Bernardok–, damurik ez duen heretikoaren erantzun betikoa! Azerien antzera ibili ohi dira eta hutsunean haien harrapatzea zaila, zergatik eta haien baldernak gezurra esan dezaten onartzen dielako, irabazi duten zigorra saihestearren. Erantzun okerrak erabiltzera joiten[3248] dute inkisidoreari ziria sartzeko asmoz, horrelako jendexkila arbuiagarria nozitu behar duen inkisidoreari. Horrela, bada, frai Remigio, zuk ez zenuen harremanik ukan *fraticelli* direlakoekin edo bizitza txiroko fraideekin edo begardoekin?

3248Erabiltzera jo: (H. “recurrir a”)

— Frantziskotarren gora-beherak bizi izan ditut, txirotasunaz hainbat eztabaida izan zenean, baina ez nintzen inoiz izan begardoen sektakoa.

— Ikus? –Bernardok–. Begardo izan zela ukatzen du, izan ere heresia berekoak diren arren, *fraticelli*ak frantziskotarren baldernako adar ihartu bat direla uste dute, eta haiek baino garbiagoak eta gurenagoak[3249] direla ere bai. Honela ere era bertsuan[3250] jokatzen dute. Ukatu ahal duzua, Remigio, elizan aurpegia hormarantz, uzkur-uzkurtua ikusi zaituztela, edo burua txapiloz estalia, ahuspeztua, beste edozein gizon bezala belaunikaturik eta eskuak bildurik jarri ordez?

— San Benitoren baldernako fraideak ere, behar denean, ahuspezten dira…

— Ez dizut galdetu zer egin duzun behar den unean, behar ez den unean zer egin duzun baino! Horrenbestez, ez duzu ukatzen hala edo horrela jarri izan zarela, begardoen jarrera tipikoetan! Baina begardo ez zarela esan duzu… Horrela bada, esaidazu: zer sinesten duzu?

— Jauna, giristino onak sinesten duen guztia sinesten dut…

3249Guren: (H. “perfecto”)
3250Bertsu: ber+tsu: casi la misma

— Oi, hori bai erantzun santua! Eta zer sinesten du giristino onak?

— Eliza santuak irakasten duena.

— Zein Eliza santuk? Sasiapostoluek, *fraticelli*ek, heretikoek, euren burua gurentzat duten sinesleek santutzat duten Elizak? Edo horiek Babiloniako emagalduarekin alderatzen duten Elizak, hots, guk guztiok, ordea, irmoki sinesten dugun Eliza honek?

— Jauna –esan zuen sehiburuak, zurturik[3251]–, esaidazu zein duzun egiazko Elizatzat...

— Erromako Eliza dela sinesten dut, bat, santu eta apostolikoa, Aitasantua gotzainekin buru duena.

— Nik ere horixe sinesten dut –sehiburuak.

— Harrigarria trikimaina! –oihuz inkisidoreak–. Mintzamenaren zorrotza! Aditu duzue: nik Eliza hau sinesten dudala sinesten duela esan nahi du, eta berak zer sinesten duen esatetik alde dagi! Baina ezagutzen baititugu ongi bai ongi lepazurien[3252] trikimailu horiek! Goazen harira. Sinesten duzu sakramentuak Gure Jaunak ezarriak izan direla, penitentzia zuzena egiteko Jaungoikoaren

3251Zurtu: (H. “desconcertado”)
3252Lepazuri: garduña

zerbitzarien aurrean aitortu beharra dagoela, Eliza erromatarrak lurbira honetan lotu eta jaregin dezakeela zeruan lotua eta jaregina izango dena?

— Ez ote nuke sinetsi behar, ala?

— Ez dizut galdetzen zer sinetsi behar duzun, zer sinesten duzun baino!

— Sinesten dut, zuk eta beste dotore onek sinesteko agintzen didazuena sinesten dut –esan zuen sehiburuak beldurrak hilik.

— Ha! Baina aipatu dotore on horiek, ez ote, beharbada, zure sektaburuak? Dotore on diozunean horiek al dituzu aipatu nahi? Apostoluen ondoreango bakarrak berak direla uste duten gaizto gezurti horiek hartzen ote dituzu haintzat zure fedearen aginduak zein diren jakitearren? Haiek sinesten dutena nik sinets baneza zuk nerau sinetsiko nindukezula, edo bestela, haiexek ez besterik sinetsiko zenituzkeela iradoki nahi duzu!

— Nik ez dut hori esan, jauna –zezeldu[3253] zuen sehiburuak–, zerorrek erasan[3254] didazu. Zerori sinesten zaitut, ondo dagoena irakatsiz gero.

3253Zezeldu: balbucear
3254Erasan: (H. “hacer decir”) (Erasan: afectar/...)

— Oi, maltzurkeria! –oihu egin zuen Bernardok mahaia ukabilka jo bitartean–. Zure sektan ikasi duzun erantzuteria[3255] berrizkatzen duzu, tematsu. Diozunez, zure sektak on deritzona predika baneza, soilik, sinetsi egingo nindukezu. Horixe beti sasiapostoluen erantzuna, eta oraintxe zurea, zu zeu ohartzen ez bazara ere, zure ezpainetatik inkisidoreei ziria sartzeko irakatsi zizkizuten esaerak jalgitzen dira eta. Eta horrela zure hitzok zeu salatzen zaituzte, eta inkisidore izanik esperientzia luzea ez banu, zure trikimainan eroriko nintzateke… Baina goazen harira, gizon donge[3256] hori. Inoiz entzun al duzu ezer Gherardo Segalelliz, Parmakoaz?

— Aditu dut zerbait horretaz –sehiburuak, zurbil-zurbil, baldin eta hain begitarte itxurabagetuan[3257] zurbiltasunaz mintza badaiteke.

— Inoiz entzun al duzu ezer frai Novarako Dultzinoz?

— Horretaz zerbait aditu dut.

— Inoiz ikusi duzu? Harekin hitz egin duzu?

3255Erantzuteria (H. “formulario”) (N)
3256Donge: (H. “perverso”)
3257Itxurabagetu: (H. “descompuesto”)

Sehiburua isilik, egiaren aitortzea komeni ote pentsatu nahi balu bezala. Ondorean, ahots-hari mehe batez mintzatuz:

— Ikusi nuen eta harekin hitz egin ere bai.

— Ozenago! Ea behingoz zure ahorean egiazko hitz bat entzun daitekeen! Noiz hitz egin?

— Jauna, ni fraide nintzen, Novarako lurraldean komentu batean, Dultzinoren jendea lurralde haretan bildu zenean. Nire komentu hurbiletik irago ziren. Hasieran ez genekien ondo nor ziren...

— Gezurra diozu! Nola egon Varagineko frantziskotarrik Novarako komentuan? Zu ez zengozen komentuan: lurralde haietan zehar zebilen *fraticelli* talde bateko kide zinen, amoinaz edo erremusinaz biziz, eta dultzindarrekin batu zinen!

— Nola baiezta dezakezu hori, jauna? –sehiburuak ikaran.

— Esango dizut nola dezakedan, eta areago, baieztatu behar dudan –esan zuen Bernardok, eta Salbatore ekar zezaten agindu zuen.

Halako gixagaixo ha ikusirik, gauean, zalantzarik ez, itaunketa jasanda zegoena, ez agerikoa eta zorrotzagoa,

gupida handia ukan nion. Lehenago esana dut Salbatoreren aurpegia izugarria zela. Goiz haretan, berriz, are ohi baino piztiaren antz handiagoko. Ez zerakusan indarkeria-zantzurik, honela ere, haren soin kateatua nola zerabilen ikusirik, soin-adarrak enardatuak[3258], ia higitu ezinean, arkulariek herrestan tximino bat sokaz lotua bezala erabilki, argi zegoen gaueko itaunketa hura oinazealdi ankerra izan zela.

— Bernardok torturatu du… –esan nion Gileni ahapetik.

— Inola ere ez –erantzun zidan Gilenek–. Inkisidorek ez dik torturatzen inoiz. Salatuaren gorputzaz beti herri-indarra arduratzen duk, beso sekularra esaten zaiona alegia.

— Berdin da, ordea!

— Inola ere ez. Ez duk inkisidorearentzat, eskuak garbi daduzkalako, eta ez galdekatua denarentzat, zeren, beronek inkisidorea ikusten duenean, ezusteko laguntza edo urgatzia dakarkiola uste baitu, bere minentzako aringarri, eta bihotza zabaltzen ziok.

Nire maisuari begiratu nion:

— Txantxetan ari zara –nahasturik nik.

3258Enardatu: dislocar

— Gaioz txantxa egin daitekeela uste ote duk? –ihardetsi zidan.

Bernardo Salbatoreri galdeka ari zen, eta nire luma honek ezin du haren hitzik, totel-motelka eginik, transkribatu, eta ezinaz gain babelikoak zirelako are ezinago. Gizon ha hautsita zegoen, babuino antzo zen, inork ia ezin ulertuzko eran zerantzuen, eta Bernardoren laguntzaz erantzun ere, beronek galderak baiezko edo ezezko erantzun beharraz egiten baitzizkion, gezurrik esateko gauza ez zela. Eta honen idazki honen irakurleak Salbatorek esan zuena ondo irudika dezake, zer esan zuen ondo dakizuke, irakurle. Jaulki egin zuen, edo gauean jaulki zuela aitortu zuen, nik berreraikia nuen historiaren zati bat: *fraticello* zelarik, artzaintto eta saasiapostolu, egin zituen hara-honak, eta nola Dultzinoren garaian beronen jarraitzaileen artean Remigio aurkitu zuen, eta nola Rebello mendiko borrokaz gero berarekin ihes egin zuen, hainbat gora-beheraren ondoan Casaleko komentuan aterpe hartze aldera. Gainera, besterik ere gehitu zuen: Dultzino heretikoak, garaitu eta atxilotua izaitear, Remigiori gutun batzuk eman zizkiola, Salbatorek ez zekien leku edo lagun bati eramaiteko. Remigiok gutunok berekin zedutzan, emaitera ausartu ez, eta abadiara zenean, gordetzeko

beldurrez, eta apurtu nahi ez, liburuzainaren eskuetan utzi zituen, Malakiasenetan alegia, bai, honek osten zitzantzat, Eraikineko leku galdurean[3259] baten.

Salbatore mintzo bitartean, sehiburuak gorrotozko so zegion, eta halako batean, ezin eutsirik, oihu egin zion:

— Suge, tximu lizunkoi hori, zure aita izan nauzu, zure adiskide, zure babes, eta horrela ordaintzen didazu!

Salbatorek bere babesleari begiratu zion, orain babes beharrean zegoen hari, eta oso nekez mintzatuz ihardetsi zion:

— Remigio jauna, ahal baneza zurekin izango nintzateke. Kuttun-kuttuna[3260] zintudan. Alabaina, ezaguna duzu barratxelaren[3261] sendia. *Qui non habet caballum vadat cum pede*...

— Zoro! –berriro oihuz Remigiok–. Gaizkatuko[3262] zarela uste duzua? Ez ote dakizu zu ere heretiko bazina bezala hilko zarena? Esaizu hitz egin duzula tortura gehiago ez jasaitearren! Esaizu dena asmatu duzula!

3259Galdu: (H. “recóndito”)
3260Kuttun-kuttun: (H. “dilectísimo”)
3261Barratxel: barrachel
3262Gaizkatu: salvar (Gaitz+ge+tu)

— Zer dakit nik, jauna, zer diren halako regiak… *Paterini*, *gazzesi*, *leoniste*, *arnaldiste*, *speroniste*, *circoncisi*... nik dakita! Ni ez naiz *homo literatus*, *peccavi sine malitia* eta Bernardo jauna bikaina, berak daki, *et ispero en la indulgentia suya in nomine patre et filio et spiritis sanctis.*…

— Barkaberak[3263] izanen gara gure egitekoak lagatzen digun neurrian –esan zuen inkisidoreak–, eta zure arima gogo onez zabaldu diguzunez, ongura[3264] aitatiarrez[3265] haintzakotzat hartuko dugu. Orain zoaz, zoaz zure gelara meditatzera, eta iguriki Jaunaren errukimenduan[3266]. Orain arazo askoz garrantzitsuagoaz eztabaida egin behar dugu… Beraz, Remigio, Dultzinoren gutun batzuk zeneduzkan eta liburutegia zaintzen duen anaiari eman zenizkion…

— Ez da egia, ez da egia! –oihuz sehiburuak, horrela egitea zerbaitetarako balitzaio bezala.

Bernardo berehala eten zion, ostera:

— Zure aitorpenak ez digu axola, Malakias Hildesheim-goarenak bai.

3263Barkabera: indulgente
3264Ongura: benevolencia
3265Aitatiar: paternal
3266Errukimendu: misericordia (urrikimendu...)

Liburuzainari deitzeko agindu zuen, baina ez zegoen hangoen artean. Nik banekien *scriptorium*ean zegoena, edo erietxe aldean, Bentzio eta liburua bilatzen. Haren bila joan ziren, eta agertu zenean, aztoratua eta besteen begietara begiratu nahi ez zuela, Gilenek ahapetik niri, haserretto: «Eta orain Bentziok nahi duena egin zezakek.» Oker zegoen, ordea, ikusi ere, nik Bentzio ikusi nuen, beste fraideen sorbalden gainetik, sarguan multzokaturik baitzegozen itaunketa aditzeko gogoarekin. Gileni begirarazi nion. Harek liburuaz zerbait jakin nahi zuen, baina itaunketaz, antza, nahiago, guk orduantxe pentsatu genuenez. Geroago, aldiz, jakin genuen, ezen, ordurakoxe Bentzio tratu kaldarra[3267] eginda zegoena.

Halako moldez, bada, Malakias epaileen aurrera agertu zen, aitzitik, bere begirada ez zuen behin ere sehiburuarenarekin trukatu.

— Malakias –Bernardok–, goizeon, Salbatorek gaueon egin aitorpenaz gero, galdetu dizut ea salatutako honek gutun batzuk eman zizkizun...

— Malakias! –sehiburuak uhurika[3268] bezala–, nire kalterako deusik ere eginen ez duzula zin egin didazu arestian!

3267Kaldar: innoble (Doilor...)
3268Uhuri(a): aullido

Malakias bihurtuxe zen, doi-doi salatuarenganantz, bizkarrez baitzegokion, eta ahots apal-apalez, ia ezin entzutekoaz, honela esan:

— Ez dut zina hautsi. Zure kalterako zerbait egin ahal izanez gero, daborduko[3269] egina izango nuen. Gutunak Bernardo jaunari emanak izan dira, goizeon, zuk Seberino erahil baino lehen...

— Zuk zeuk badakizu, jakin behar duzu nik ez dudana Seberino hil! Zu hantxe izan zarelako dakizu!

— Nik? –Malakiasek galde–. Ni zu aurkitua izan baino geroago sartu naiz.

— Eta nola nahi den ere –eten zuen Bernardok–, zer bilatzen ari izan zara Seberinoren ikertokian, Remigio?

Sehiburuak burua biratu zuen, Gileni so egite aldera begirada galdurik, ondorean Malakias behatu zuen eta berriz ere Bernardo jo zuen begiz.

— Ni baina… Goizeon frai Gileni aditu diot, hementxe dago, Seberinori zeinbait orri gordetzeko esatean… Bardanik[3270], Salbatore atxitua izan ondoan, gutun horietaz hitz egingo zela beldur nintzen...

3269Daborduko: dagoen orduko, dagoeneko...
3270Bardanik: desde ayer noche (Bart)

— Beraz, gutun horietaz zerbait badakizu! –ozengi, garaile antzo, Bernardo mintzo.

Sehiburua segadan erorita zegoen. Bi premiatan banandurik: heresiazko salakuntzatik baztertu beharra, batetik, eta bestetik, erahilketa susmoa beregandik alderarazi beharra. Ziurrenik, bigarren salakuntzari aurka egitea erabaki zuen… Senez[3271], ordurako bere jarrerak ez zuen legerik ez egokiera[3272] onik:

— Gutunez geroago mintzatuko naiz… azalduko dut… nire eskuetara nola iritsi diren… Baina utzidazue jaulkitzen goizeon gertaturikoa. Gutunoz mintzatuko nintzela Salbatore Bernardo jaunaren eskutara erori denean pentsatu dut; gutun horien oroitzapenak ene bihotza mintzen du, aspaldidanik… Oduan, Gilen Seberinorekin orri batzuez mintzatzen aditzean… ez dakit, zukurutzak[3273] hartu nau, Malakiasek Seberinori eman zizkionez desagerrarazi zituela otu[3274] zait… nik suntsitu nahi… honegatixe ikertokira, atea zabalik eta Seberino hilik… beronen gauzen artean arakatzen hasi, gutunen bila… sarrakioa sartuta...

Gilenek niri belarrira xuxurlaka:

3271Senez: (H. “por instinto”)
3272Egokiera: (H. “conveniencia”)
3273Zukurutz: (H. “terror”) (Sarrakio beldur...)
3274Otu: ocurrir, pensar / rogar

— Gaixo ergela, arrisku baten beldurragatik, beste batera buruz sartu zuan.

— Demagun egia ia, ia diot, diozula –atzera Bernardok–. Gutunak Seberinok zedutzala pentsatu duzu eta haren ikertokian bilatu dituzu. Baina, zergatik hil dituzu lehenago beste anaiak? Uste al duzu, alta, gutunak aspaldi eskuz esku zebiltzala? Ohiko al da abadia honetan sutan hildako heretikoen erlikiak eskuratzeko lehian jardutea?

Abadea asaldatu zela ohartu nintzen. Heretikoen erlikiak jasotzea baino salaketa malmutzagorik[3275] ez zegoen. Bernardo, trebe[3276], heresia hilketekin nahasten ari zen, eta oro abadiako bizitzarekin. Sehiburuaren garrasiek nire gogoetok eten zituzten, beste hilketetan zerikusirik ez zuela berresten baitzuen. Bernardo, barkabera laso, lasaitu zuen: anartean[3277] ez zen ebatzi beharreko arazoa; argitu behar zuen krimen bakarra heresia zen. Ez zuen behar (eta hau esatean berriz ere zorrotz mintzatu zitzaion) nahasi edo nahasarazi, bere iraganaldiko heresiaz ordez Seberinoz ele eginez, edo susmoak Malakiasenganantz bihurraraziz. Beraz, atzera, gutunen arazora itzuli behar zen.

3275Malmutz: (H. “insidioso”) (¿)
3276Trebe: (H. “hábilmente”)
3277Anartean: (H. “por el momento”) (?)

— Hildesheim-go Malakias –esan zuen lekukoari begira–, ez zagoz hemen salatua. Goizeon… nire galderei erantzun diezu, ezer ezkutatzeke. Esaizu beste behin hemen niri esandakoa, eta ez izan ezeren beldur.

— Goizeon esan dudana berriz ere badiot –Malakiasek–. Etorri eta laster, Remigio sukaldeaz arduratzen hasi zen, eta lana zela eta elkarren artekoa maiz… Liburuzaina naizenez, gauez Eraikina itxi behar ukaiten dut, sukaldea ere bai… Adiskidetu egin ginela ez dut zertan ezkutatu, izan ere, haren susmorik ez nik. Isilpeko agiri batzuk zeduzkala esan zidan: aitortzan[3278] jasoak zituen, ez ziren fedebagekoen eskuetara heldu behar, eta berak eduki nahi ez zituen, beldurrarren edo. Nik abadiako leku debekatu bakarra zaintzen nuenez gero, niretzat ez beste guztientzat debekatua, orri haiek gorde nitzan eskatu zitzaidan, jakingura guztien begietatik at, eta nik baietz, agiri heretikoak zirela inondik inora ere susmatzeke. Irakurri ere ez nituen egin: ipini… liburutegiko lekurik galduenean ipini nituen. Eta inoiz ez naiz harzara haietaz oroitu, goizeon inkisidoreak aipatu arte. Orduan, bila joan naiz eta eman dizkiot…

Abadeak, samurturik, hitz hartu zuen:

3278Aitortzan: (H. “en confesión”)

— Zergatik ez zenidan deusik jakinarazi sehiburuarekiko itun horretaz? Liburutegia ez da fraideen gauzak gordetzekoa

Halaxe, bada, istorio harekin guztiarekin abadiak zerikusirik ez zuela argi zegoen.

— Jauna –erantzun zion Malakiasek nahasirik–, garrantzirik ez zuela iruditu zitzaidan. Maltzur bagerik bekatu egin nuen.

— Doike, doike –Bernardok, mintzaira abegitsuaz–, garen guztiok jakin badakigu[3279] liburuzainak asmo onez jardun zuena, eta honexen froga hauxe, hots, zein zintzoro laguntzen ari zaion auzitegi honi. Erregutzen diot, anaikiro, zure bikaintasunari, iraganaldian egin zuen egitada ez zuhur haregatik erruduntzat jo ez dezazun. Gure aldetik, esan duena sinesten dugu. Gauza bat bakarra eskatuko gatzaizkio: zin egin dezan oraintxe derakuskizudan orriok goizeon emandako berak direla, aspaldi, abadiara etorri eta laster Remigio da Varaginek eman zizkion berak diren bezala.

Bi larrutx zerakuskien, mahai gainean zegozen orrien artetik jaso zituenak. Malakiasek so egin zien eta ahotsez irmo honela esan zuen:

3279Jakin badakigu: (H. “estamos persuadidos”)

— Jaungoiko aita oroahaldunaren izenean, Birjin santu-santuagatik eta deun guztien izenean horrelakoak direla eta izan direla zin dagit.

— Gaurkoz nahikoa dut horrenbestez –Bernardok–. Joan zaitezke, Hildesheim-go Malakias.

Burua makur irten zuenean, eta atera baino lehen, ahots bat entzun zen, aretoko sakonaldean multzokaturik zegozen jakingura haien artetik: « Zuk gutunak ezkutatu eta harek sukaldean fraidegaien ipurdia erakusten zizun!» Barre zantzo batzuk lehertu ziren; Malakias dzirt-dzart bultzaka, ezker-eskuin irteiten azkarrago joz saiatu zen; Aymaroren ahotsa zela esan nukeen, baina esaera *falsetto*an oihuztatua zen, hots, hotsaizunaz[3280]. Aurpegia zurbil-zurbil egina, Abadeak oihuka isiltzeko agindu zuen eta mehatxuka ororentzako zigor eskergeak agindu ere bai, eta fraideak aretotik ateratzera hertsatu[3281] zituen. Bernardo irri zurika ari zen, likixkiro[3282]. Aretoko beste aldean, Bertrando kardinalak Jean d'Anneaux-en aldera makurtu eta zerbait zirautsan, belarri ondora, eta beronek ahoa eskuz estali zuen, burua apaltzeaz batera, eztul egiteko eran. Gilenek niri:

3280Hotsaizun: falsete (N) (?)
3281Hertsau: (H. "conminar")
3282Likixkiro: (H. "lúbricamente")

— Sehiburua haragizko bekataria izaiteaz gain, besteentzat ere bekatu eragile zuan, beletxari[3283] alegia. Bernardori, horrela eta guztiz ere, bost axola, baldin eta Abboneri, inperioko bitartekariari oztoporik egin diezaiokeen heinean ez bada…

Bernardok berak zuen eten honela esateko:

— Gero, nahi nuke, frai Gilen, esango bazenit zein orriz hitz egin duzun goizeon Seberinorekin, sehiburuak aditu eta ondorio okerra atera duenean.

Gilenek begiradari eutsi zion:

— Bai, ondorio okerra. Ayyub al Ruhawiren liburu batez ari izan gara, zakurren hidrofobiazko tratatuaren kopia batez hain zuzen, liburu bikaina, zerorrek ere haren ospea ezaguna duzu noski, eta agian behin edo behin harezaz baliatu izan zara… Hidrofobia, Ayyub-ek dioenez, hogeita bost zantzu nabariz ezagunesten da…

Bernardo, *domini canes*[3284] baldernakoa zen eta ez zuen beste borroka batera sartu nahi izan.

3283Beletxari: rufián (Lar.) (?)

3284«Jaunaren orak». Domingotarrak edo “dominicanos” hitzarekin joko eginda, etimologia aldetik funtsik bagekoa..

— Beraz, guri oraintxe doazkigun arazoekin zerikusirik batere bagekoa –esan zuen bizkor. Eta auziari eutsi zion atzera–: Gatozen berriz ere zuregana, frai Remigio frantziskotar, zakur hidrofoboa baino arriskutsuago askoz. Frai Gilen, egunotan zakurren lerdeaz bagerik heretikoen lerdeaz arduratu izan balitz, agian berak ere abadian habia egindako sugegorria aurkitu zukeen. Gatozen gutun hauetara. Orain badakigu, ziur, zure eskuetan egon zirena eta ezkutatzeko ardura hartu zenuena, pozoin arrisku-arriskugarriak balira bezala, eta areago, erahiltzera ere… –uko egiteko imintzio bat keinu batez geldiarazi zuen–, eta erahilketaz geroago mintzatuko gara… Hil dituzula, diot, gutunak niregana hel ez zitezentzat. Horrela, bada, orriok zureak direla aitortuko duzu?

Sehiburuak ez zion erantzun, baina isila mintzo[3285]. Berehala Bernardok eraso:

— Eta zer dira orriok? Dultzino heresiarkak berak idatziriko bi orrialde, atxilotua izan baino egun batzuk lehenago. Bere laguntzaile bati eman zizkion, Italiako hainbat eskualdetan zituen jarraikileei eraman ziezazkien. Zer dioen irakur dezaket, eta Dultzinok, bere azkenaz beldurtua, itxaropen mezua igorten die berak anaiak esaten dienei, deabruarren!

3285Isila mintzo: (H. “silencio elocuente”) (N)

Bihotza goratu nahi die, esanez, egun zehatzak gora-behera, aurreko gutunetan esana legez apez guztiak suntsituak izango direla, berandu baino lehen, 1305. urtean Frederik enperadoreak suntsiaraziko zituela hitz eman baitzuen. Heresiarkak beste behin gezurra zioen, zeren, orduz gero hogei urte baino gehiago irago baitziren eta bere igarkizun maltzurrik batere bete ez. Alabaina, ez gagoz hemen bildurik igarkizun barregarri haien harrokeriaz ele egiteko, Remigioz baizik, haren garraiolari izan baitzen. Ukatuko ote duzu behin eta behin, fraide heretiko eta fedebageko horrek, sasiapostoluen sektarekiko harremanik eta jardunkidetzarik[3286] izan duzunik?

Sehiburuak ezin uko gehiago:

— Jauna –esan zuen–, nire gaztaroa oker eta makur biziki deitoragarriz[3287] beterik egon zen. Dultzinoren predikua ezagutu nuenean, bizitza txiroko fraideen okerrez liluratu eta, haren eleak sinetsi nituen eta haren taldearekin batu nintzen. Bai, egia da, Brescia aldean eta Bergamon, Comon eta Val del Sesia aldean ere bai, haiekin izan nintzen. Haiekin Parete Calvan eta Val de Rassan babes hartu nuen, eta azkenean Rebello mendian. Baina ez nuen ezein

3286Jardunkidetza: (H. “contubernio”) (N) (?)
3287Deitoragarri: (H. “funestos”)

gaiztakeriatan eskurik hartu, eta haiek lapur eta ohoinkeriak eta indarkeriak egiten zituzten bitartean, nire baitan Frantziskoren semeen otzantasunak bizirik zirauen. Eta Rebello mendian hain zuzen, Dultzinori borrokan jarduteko gogorik ez nuela adiarazi nion, eta alde egiteko baimena eman zidan, bere ondoan beldurtirik nahi ez zuela esanda, eta ez zidan besterik galdatu, gutun horiek Boloniara eraman nitzan baino…

— Nori emaiteko? –itaundu Bertrando kardinalak.

— Haren alderdiko zeinbaiti, zeinaren izenik gogoratzen dudala uste baitut. Eta gogoratu bezala diozkizut, jauna – berehala Remigiok aitortu. Eta izen batzuk ahoskatu zituen. Bertrandok ezagunak zituelako imintzioak egin zituen, irribarrez nahikoetsirik antzo, Bernardori keinu batez ulertuarena zegion artean.

— Oso ongi –Bernardok, eta izenak hartu[3288] zituen. Ondorean, Remigiori berriro galde–: Nolatan emaiten dizkiguzu zeure adiskideak orain?

— Ez ditut adiskide, jauna, eta froga hauxe: ez nien inoiz gutunik eman. Eta ez hau bakarrik, oraintxe dirautsut, urteetan atzendu nahian saiatu eta gero: leku haretatik irten

3288Izenak hartu: (H. “tomar nota de los nombres”)

ahal izaiteko, Vercelliko gotzainaren gudarosteak atxitua izaiteke, zabaltzan gure begira baitzegoen, hango lagun batzuekin harremanak egin nituen, eta irago-agiri[3289] baten ordain, Dultzinoren gotorlekuak nondik joz azaldu nien, harrapa zitzaketen. Honelaxe, bada, Elizaren indar-taldeen arrakastaren zati bat nire laguntzari zor zaio…

— Hori ere jakitekoa[3290] da. Heretiko ez ezik, saltzaile doilor ere izan zinela argi dago. Honek, aldiz, ez du ezertan aldatuko zure egoera. Arestian, zeure burua gaizkatzeko, Malakias salatu nahi ukan duzun bezala, zuri lagun egin zizun arren, orduan berdin egin zenuen: zeu onik ateratzearren, bekatukide zenituen lagunak justiziaren esku jarri. Honela eta guztiz ere, haien gorputzak salatu eta saldu zenituen, soilki, baina ez inoiz haien irakaspenak. Gutun hauek gorderik eduki dituzu, erlikiak laso, noizbait noribaiti arriskurik bage emaiteko ausardia eta eretia izan arte, harzara sasiapostoluekin onezkoak[3291] egiteko asmoz.

— Ez, jauna, ez –sehiburuak, izerditan, eskuak ikaran–. Ez, zin degizut, ezen…

3289Irago-agiri: salvoconducto (N)
3290Jakiteko: (H. “muy interesante”)
3291Onezkoak egin: (H. “congraciarte”)

— Zin bat!–Bernardok–. Hona hemen zure maltzurkeriaren beste froga bat! Zin egin nahi duzu dakizulako nik badakidala heretiko valdotarrek edozein trikimaina erabili ohi dutela, heriotza ere bai, zin ez egiteko! Eta beldurrak hartzen dituenean, alegia eta zin egin egiten dute eta gezurrezko zinak murduskatzen[3292] dituzte! Alabaina, ongi bai ongi dakit, jakin ere, zu Lyongo txiroen sektakoa ez zarena, azeri madarikatu hori, eta ez zarena ez zarela niri pentsarazi nahian ari zara, zarena zarela esan ez dezadantzat! Horretaz, zin? Egizu zin errugetzat hartua izan zaitezen, baina jakizu zin batekin nahikoa ez dudana! Bat, bi, hiru, ehun, zenbat nahi duzun ere eska nakizuke. Badakit zuek, sasaiapostoluek, sekta ez saltzearren, gezurretan zin egiten duenarentzat dispentsak ebazten dituzuena. Beraz, zin bakoitza zure erruduntasunaren beste froga bat izanen da!

— Baina, horrela bada, zer egin behar ote dut? –oihu egin zuen sehiburuak, belauniko erorita.

— Ez zaitez belauniko jarri, begardoen antzera! Ez duzu ezer egin behar. Orain, nik dakit, ez bestek zer egin behar datekeen –esan zuen Bernardok irribarre ikaragarriarekin–. Zuk aitortu baino ez duzu egin behar. Eta kondenatua izango zara eta zeure burua kondenatuko duzu aitortzen baduzu, eta

3292Murduskatu: (H. “barbotear”) (Farfullar...)

kondenatua eta zeure burua kondenatuko duzu aitortzen ez baduzu, zinausle izaiteagtik zigortuko zaituzte eta! Beraz, aitortu egizu, itaunketa neke-nekagarri hau laburtzearren bada ere, nahasi gure kontzientziak eta gure onberatasuna eta errukia nahasten baitizkigu itaundu behar honek!

— Baina, zer aitortu behar dut?

— Bekatu mota bi. Dultzindarren sektakoa izan zarela, haren eritziak zure egin[3293] dituzula, haren ohiturak eta haren irainak, apezpikuen eta herri-agintarien duintasunaren kaltetan.; oraindik, damuge, haren gezurrak eta haren ametsak zure egiten dituzula, heresiarka hil eta gero ere, eta sekta sakabantu arren, ez zeharo garaitu eta suntsitua baina. Eta zure bihotzaren barrenean usteldua, harako sekta zikinean ikasitakoagatik, Jaungoikoaren aurka eginiko nahasmenduen errudun zaitugu, eta abadia honetan gizonen aurkako gaiztakeriena orobat. Zer dela eta egin dituzun ez dut oraindik ulertzen, eta argitu ere osoki ez dirateke, baina argira erakutsiko da (egiten dugun bezala) txirotasuna aldarrikatu eta aldarrikatzen dutenen heresiak, Aitasantuaren irakaspenen eta bulden aurka doan heresia horrek, egitada kriminalak egitera ez bestetara daroala. Hauxe dute ikasi behar fededunek, eta honekintxe nahikoa. Aitortu egizu.

3293Zure egin: (H. “has compartido”)

Une haretan argi geratu zen Bernardok nahi zuena. Ez zuen axola, inola ere, beste fraideak nork hil zituen ikastea, besterik baizen, hots, Remigiok nolabait enperadorearen teologoek bulkatzen zituzten aburuak bere egiten zituenentz. Eta aburu horiek, Perusako kapitulukoak ere bazirenak, eta *fraticelli*enak eta dultzindarrenak lotuak edo zirela erakustea erdietsiz gero, eta, bide batez, abadian heresia haiekikoa zuen gizon bat zegoela eta krimen batzuen egile zela egiaztatuz gero, benetan ukaldi hilgarria emango zien bere etsai edo arerioei. Gileni begiratu nion eta ulertu zuela ulertu nuen, ezer egiterik ez bazuen ere, trikimaina hura aurrikusia zuen arren. Abadeari begiratu nion eta begitarte iluna sumatu nion: konturatua zen, berandu baina, bera ere segada haretan erorita zegoela, eta bere bitartekari-agintaritza bera ere erortzen hasia zela, izan ere, berandu baino lehen, mendeko zitalkeriak oro gertatu tokiko nagusi zen, itxurak zirenez. Sehiburuak, berriz, ez zekien, ordurako, zein gaiztakeriaz ager zitekeen erruge. Heldubada, ezin asma zezakeen deus: bere ahorean irten zuen oihua bere arimarena zen, eta haretaz eta haretan urte luzeetako barren-min[3294] isilpeko askotatik askatzen zen, gogo-harra jaregiten zuen. Hau da, bizitzan hainbat ausiabar[3295], egonezin, gogo-

3294Barren-min: (H.“remordimieno”) (N) (Alhadura…) (Gogo-har -N)
3295Ausiabar: (H. ”incertidumbre”) (Quebradero de cabeza...)

bizi eta gogo-hil, doilorkeria[3296] eta etoikeria[3297] irago ondorean, ezin zuen ezer egin bere hondamendia ekiditeko, eta bere gaztaroko fedeari zatxekion, hau zintzoa edo makurra zenentz bere buruari galdetzeke. Zerbait sinesteko gai zela bere buruari erakutsi nahi balio legez.

— Bai, egia –oihuka–, Dultzinorekin egon nintzen eta haren krimenak niretu nituen, haren gehiegikeria neure. Beharbada, zoro zegoen, gure jaun Jesukristoren maitasuna askatasun beharrarekin eta gotzainenganako gorrotoarekin nahasten zuen. Egia da, bekatu egin dut, hogen egin dut, baina abadian gertatutakoaz erruge nauzula zin dagit!

— Oraingoz zerbait lortu dugu –esan zuen Bernardok–. Beraz, Dultzinoren heresia praktikatu duzula aitor duzu, Margherita sorginaren eta bere gaizkideena berebat. Aitortuko duzu haiekin egon zinela, Trivero aldean Kristoren hainbat jarraikile urkatu zutenean, hamar urteko haur erruge bat, besteak beste? Eta beste gizaseme batzuk halaber urkatzean, berauen emazteak gurasoekin bertan, zakur haien nahikeriari men egiten ez ziotelako, eta, ordurako, zuen hisiak[3298] eta harrokeriak itsututa, inor ezin

3296Doilor: vil
3297Etoi(keria): (H. “traición”)
3298Hisi: odio, furia, cólera / Obsesión… (?)

gaizka zitekeela, zuen erkidegokoa izan ezik, pentsatzen zenutelako? Mintza!

— Bai, bai, hauxe azkenengo hauxe uste nuen, eta haxe beste haxe egin nuen!

— Eta egon zinen bertan apezpikuen lagunak ziren batzuk atzeman zituztenean, eta batzuk kartzelan goseak hiltzen utzi zituztenean, eta haurdun emakume bati beso bat eta esku bat ebaki zizkiotenean, eta gero ume batez erditzen utzi zutenean, hain sarri bataiatzeke hil zitzaion haurra? Eta haiekin zengozen Mosso, Trivero, Cossila eta Flecchia herrixkak birrindu eta erre zituztenean, eta Cepracorio eskualdeko beste beredin herrixka orobat, eta Mortiliano eta Quorino herrietako hainbat etxe ere bai, eta Triveroko eliza kiskali zutenean, aurretik irudi sakratuak zikindu eta aldareetako harriak erauzi, Birjinaren irudiari beso bat, kalizeak, janzkaiak eta liburuak hautsi, kanpandorrea eraitsi, anaidiaren[3299] edalontziak eta apezaren ondareak ostu[3300] zituztenean?

— Bai, bai, hantxe nengoen, eta inork ez zekien, ordurako, zertan ari nintzen! Zigorraren unea aurreratu nahi genuen,

3299Anaidi: cofradía
3300Ostu: (H. “apropiarse”)

Zeruak eta Aitasantuak igorri enperadorearen aitzinbabesa[3301] ginen, Filadelfiako aingeruaren jaitsiera aldiz aurretik iragarri behar genuen, eta halatan orok espiritu santuaren dohaina jasoko zuen eta Eliza onbideratuko zen eta gaizto guztiak suntsitu ondorean, bikainak bakarrik erregetuko ziren!

Sehiburuak Txerrenek hartua zela zirudien eta aldi berean argitua. Isiltasun eta gezurrezko hormatzarra[3302] pitzatuta zegoen, eta lehenaldia itzultzen zitzaion, hitzez ez ezik irudiz ere bai, anbiola[3303] sutu zuten emozioak berriz ere sentitzen hasia bailegoan.

— Horrela, bada –Bernardok jazarriz[3304]–. aitortuko al duzu Gherardo Segalelli martiritzat ohoratu zenutela, Erromako Elizaren nagusigoa erabat ukatu zenutela, eta esaten zenutela ez Aitasantuak ez beste ezein agintaritzak zuen bizimodua aldatzeko eskurik ez zuela, inork ez zuek eskumikatzeko eskubiderik, eta San Silbestreren garaitik honako Eliz-nagusi[3305] guztiak, Pietro da Morrone izan ezik, prebarikatzaile eta seduzitzaileak zirela, eta laikoek ez

3301Aitzinbabes: vanguardia (N) (Abangoardia)
3302Hormatzar: (H. “dique”)
3303Anbiola: antaño
3304Jazarri: (H. “acosar”)
3305Eliz-nagusi: (H. “prelado”) (N) (?) (Eliz-buruzagi)

zutela zertan hamarrenak[3306] ordaindu guztiz bikaintasunean eta txirotasunean, lehenbiziko sasiapostoluak bezala, bizi ez ziren apezentzat, eta, alderantziz, hamarrenak zuei ez besteri ordaindu behar zizkizuetela, zuek soilik egiazko apostoluak eta Kristoren txiroak zinetela, eta Jaungoikoari otoitz egiteko eliza kontsakratua ukuilua baino gehiago ez zela, aitortuko al duzu, orobat, baserriz baserri ibiltzen zinetela eta jendea liluratzen zenutela «*penitenciágite*» oihukatuz, eta *Salve Regina* kantatzen zenutela jende osteak[3307] maltzurki erakarteko asmoz, eta penitentziagile itxurak eginaz agertzen zinetela mundu guztiaren begietan biziera hobezina alegia eta eginez, baina, beste aldetik, lasaikeria[3308] eta lizunkeria[3309] guztiak zeuentzat hartzen zenituztela, ezkontza-sakramentua sinesten ez baitzenuten, ez beste ezein sakramentu, eta besteak baino aratzago[3310] zinetela uste zenutenez, edozein doilorkeria, eta edozein irain zeuen gorputzari eta inoren gorputzari egitea haizu eta sori zenutela? Mintza!

— Bai, bai! Aitor dut egiazko fedea orduan ene arima guztiaz besarkatu nuela. Aitor dut gure soinekoak bazterrean

3306Hamarren: detxema: diezmo
3307Oste: multitud, hueste….
3308Lasaikeria: (H. “licencia”)
3309Lizunkeria: (H. “lujuria”)
3310Aratz: puro

utzi genituela, gure ez-jabetzaren ezagugarri, gure ondare guztiei uko egin geniela, zuek, zakur-endakoek, bizkitartean, inoiz ere uko ez zenieten, ordea, zeuenei. Aitor dut, harez gero inoren dirurik onartzen ez genuela eta ez genuela aldean eraman dirurik inoiz, erremusinez bizi ginen eta ez genuen gerorako ezer gordetzen, eta inon hartzen gintuztenean eta guretzat mahaia prestatzen zutenean, jan egiten genuen, eta gero hondakinak mahai gainean utzirik alde egiten genuen…

— Eta su emaiten zenuten eta lapurretak egiten zenituzten giristino zintzoen ondasunez jabetzeko!

—Eta erre eta harrapaketak bai, txirotasuna ororen legetzat hartua genuelako eta inoren ondasun ez-zilegizkoez jabetzeko eskubidea genuelako, eta parrokia guztiak estaltzen zituen eduki-gosezko bilbea[3311] erditik urratu nahi genuelako, baina ez genuen geuk edukitzeko inoiz arpilatu, ez inor erahil ere arpilatzearren: zigortzeko hiltzen genuen, odolaren bitartez aratzak ez zirenak araztearren, zikinak garbitzearren. Justizia nahi edo, beharbada, nahikeria gehiegizkoa zen gurea; Jainkoa maiteegi izanez ere hogen egin daiteke, betegintzarrea[3312] handiegia denean. Benetako

3311Bilbe: trama
3312Betegintzarre: perfección (Hobezintasun...)

balderna espirituala ginen, Jaunak bidalia, eta azkenengo aldietako aintza jasoteko aukeratua. Paradisuko gure saria zuen suntsipenaren aldia aurreratuz bilatzen genuen. Geu ginen bakarrak Kristoren apostoluak, beste guztiek saldu zuten, malmuzkatu zuten eta traditu. Eta Gherardo Segalelli landare jainkozko bat izan zen, *planta Dei pullulans in radice fidei*. Gure arauteria Jaungoikoagandik artez etorria zen, ez zuekandik, zakur madarikatuok, gezurraren predikariok sufre-usaina hedatzen baituzue, ez intsentsuzkoa, zakur zikinok, sarrats[3313] ustelok, beleok, Avignongo julisaren[3314] sehiok, betiereko hondamendira kondenatuok! Orduan nik sinetsi egiten nuen, eta gure soina bera ere berrerosita[3315] zegoen, eta Jaunaren ezpatak ginen, eta zuek ahalik azkarren erahiltzeko, erruge ziren beste batzuk ere hil beharra zegoen. Mundu hobea nahi genuen, bakez eta maitez egina, zoriontasuna ororentzat; zuen eduki-gosez zenekarten gudua hilarazi nahi genuen. Zergatik aurpegiratzen[3316] diguzue justizia eta zoriontasun erresuma ezarteko isuri behar izan genuen odol guttia? Gertatzen zen… odolik asko behar ez zela, gertatzen zenez, ez zegoen

3313Sarrats: carroña
3314Julis: puta, urdanga, ematxar, emagaldu...
3315Berrerosi: redimir
3316Aurpegiratu: (H. “reprochar”) (Aurpegitaratu? -nik)

betarik huts[3317] egiterik, areago, Carnascoko ur guztia gorritzea merezi zuen, Stavelloko egun haretan, odola geurea ere bazen, ez genuen urri emaiten, gure odola eta zuen odola, berdin zen, bost axola, laster, laster, Dultzinoren profeziaren garaiak laster zetozkeen[3318], gertakizunak azkartu beharra zegoen…

Burutik oinetara ikara bat zen, eta eskuak soinekoan igurtziten zituen, gogora ekarritako[3319] odola garbitu nahi balu bezala.

— Sabelkoiak garbitasuna berreskuratu dik –Gilenek niri.

— Baina, hau al da garbitasuna edo araztasuna? –galdetu nion nik izu-lauorrian.

— Bai, noski, ez duk dagoen mota bakarra, alta bada –Gilenek–, edozein mota delarik ere beldur emaiten zidak.

— Zerk dizu beldurrik gehien emaiten araztasunean?

— Eztroxa[3320] –erantzun zidan Gilenek.

— Aski, aski –zirautsan Bernardok–, aitorpen bat galdatzen dizugu, ez sarraskirako dei bat. Hagitz ongi, heretiko zinen

3317Beta huts: perder el tiempo (N)
3318Laster etorri: (H. “urgir”)
3319Gogora ekarri: (H. “evocar”)
3320Eztroxa: lehia, presa

eta oraindik zara. Hiltzaile izan ez ezik, oraindik ere hiltzen duzu. Horrela, bada, esaidazu nola erho dituzun zeure anaiak abadia honetan, eta zergatik.

Sehiburua ikaratik gelditu zen. Bere baranoan[3321] soz hasi zen amets batetik jalgi berri bailitzan:

— Ez –esan zuen–, abadian gertatu krimenekin zerikusirik ez dut batere. Egin nuen guztia aitortu dut, ez nazazu behartu egin ez dudana aitortzera...

— Baina, egin ez duzunik ba ote dago? Orain erruge zarela aitortu nahi duzu? Oi, axuri[3322] hori, oi, otxan-otxan hori! Aditu al duzue? Aspaldi da haren eskuak odolez gorrituak egon zirela, honela ere erruge da, izan! Heldubada, okertu egin gara. Remigio da Varagine onbidearen eredu da, Elizaren seme kirmen, Kristoren etsaien etsai, beti ere Elizaren esku erneak herrietan zein hirietan ezarri nahi duen ordenaren mendeko, beti saltokietako bakea errespetatu izan du, eta artisauen lantokietako, eta elizetako altxorretakoa. Errurik bagekoa da, ez du ezer egin, hator ene besoetara, Remigio anaia hori, utz nik heure bihotza arin dezadan, zeinbait lagun gaiztok heure gainera egotzi dituen salakuntzengatik! –eta Remigiok begiak galdurik begiratzen

3321Barano: inguru
3322Axuri: corderillo recién nacido

zion artean, bat-batean azkeneko barkamena erdietsiko zuela uste izaitear balego legez. Bernardok bere aurreko jarrera bereskuratu zuen eta agintera-hizkera erabiliz arkularien kapitainari agindu–: Nazka emaiten dit herri-agintaritzak beti Elizaren baimenik bage erabili ohi dituen metodoen erabili beharrak. Baina bada lege bat nire neure sentimenduen gainean dagoena. Erregu iezaiozu Abadeari leku bat hauta dezan tortura-tresnak ipini ahal izaiteko. Baina berehala egin ez dezala. Hiru egunean bere gelan egon behar du, esku-oinak burdinaz loturik. Geroago, tresnak erakutsiko zaizkio. Besterik ez. Eta laugarren egunean gauzatuko[3323] da. Sasiapostoluek uste zutenaz bestera, justiziak ez du eztroxarik, ez da lehia, eta Jaungoikoarenak mendeak ditu aurrean. Pixkana-pixkana gauzatu behar da, mailarik maila[3324]. Eta, guztiz ere, gogoratu hainbat aldiz esandakoa: ebakitzeak[3325] eta hil-arriskua ekidin behar dira. Honela jokatze honek, hain zuzen, fede-hausleari mesede egiten diotenetako aukera bat emaiten dio, hots, heriotzaren zain egoiteaz gozatzea alegia, aitorpena bere nahiaz, osokiro eta arazgarri izan dadin baino lehenago Heriok eramana ez izaitea.

3323Gauzatu: (H. “proceder”)
3324Mailarik maila: (H. “en forma gradual”)
3325Ebakitze: (H. “mutilación”)

Arkulariak makurtu ziren sehiburua jaikarazteko, baina honek oinak zoruan josi zituen eta gogor egin zien, mintzatu nahi zuela adiaraziz. Baimen eman eta mintzatzen hasi zen, ahorean hitzak ateratzea neke zuen arren eta haren hizkera hordiaren mordoiloa lakoa zen, eta lixun xamarra ere bazen. Mintzatu ahala, berriz, halako kalipu[3326] basati bere aitorpena baino lehenago erakutsi zuena bizkortu bezala zitzaion.

— Ez, jauna. Tortura ez. Gizon doilorra naiz. Orduan traizio egin nuen. Hamaika urtean abadia honetan nire fede zahar haretaz arnegatu dut, mahastidunen eta luginen hamarrenak jasoz, ukuiluak eta itegiak[3327] ikuskatuz, Abadeari mozkin eman diezaioten eta aberats dadintzat. Antikristoren lantegi honetan gogotsu lagundu dut. Eta eroso sentitu izan naiz, matxinaldi haiek ahantzirik, sabeleko[3328] atseginetan, eta bestelakoetan ere bai, gozatuz[3329]. Gizon doilorra naiz. Egun Boloniako nire antzinako anaiak saldu ditut, orduko haretan Dultzino saldu nuena legez. Eta gizon doilorra naizenez, gurutzadako gudariz mozorrotua, Dultzino eta Margherita atxilotu zituztenean hantxe nengoen, larunbat santuan

3326Kalipu: energía, ánimo, courage...
3327Itegi: (H. “chiquero”)
3328Sabeleko: (H. “de la boca”)
3329Gozatu: (H. “regodear”)

Bugelloko gaztelura eroan zituztenean. Hiru ilean Vercelli inguruetan ibili nintzen, hara-hona, Klemente Aitasantuaren eskutitza iritsi zen arte, haien kondenatzeko aginduarekin. Eta Margherita, Dultzinoren aitzinean, nola zatikatu zuten ikusi nuen, eta nola garrasika ari zen sarraskitzen zuten artean, gorputz gaixoa gau batez neronek errukitu nuena… Eta haren hilotz zatikatua kiskaltzen zen bitartean, Dultzino nola atzeman zuten ikusi nuen, eta sudurra eta barrabilak kurrika[3330] gori batez erauzi zizkioten, eta ez da egia geroago esan izan zena, intziri[3331] bakar bat ere egin ez zuela, alegia. Dultzino luzea eta sendoa zen, deabruzko bizarra zedukan eta ile gorriak kizkur-kizkur sorbaldetaraino jaisten zirenak ere bai, ederra zen, ziratsa[3332] zen, eta gidari genuenean itzelezkoa[3333] zen, hegal zabaleko kapelarekin, luma eta guzti, eta ezpata gerrian eliz-soinekoaren gainean, itzal handikoa zen. Dultzinok gizasemeak beldurtzen zituen, eta emaztekiei hasperen eragiten zien atseginez… Alabaina, torturatu zutenean, estiratu zutenean oinazeagatik aieska egin zuen, garrasi emakume antzo, marraska zekorra laso. Zauri guztietatik odola zerion, lekuz leku zeramaten artean, eta zauri gehiago zegioten, tusuriaren mezulariak noiz arte

3330Kurrika: tenaza(s)
3331Intziri: gemido (aiene, auhen...)
3332Zirats: guapo/a de cara
3333Itzelezko: (H. “imponente”)

iraun ahal zuen erakustearren, eta bera hil nahi zen, hil zezaten galdatzen zuen, honela ere beranduegi hil zen, su-metara heltzean, eta ordurako haragi odoltsu multzo bat baino ez zen. Ni atzetik nindoan, eta halako probatik askatua izan nintzelako zoriontsu ni, nire maltzurtasunaz[3334] harro, eta Salbatore makurra[3335] nirekin zegoen, eta honela ziostan: «Zein ondo egin dugun, anaia Remigio, zentzudunak bezala jokatu baitugu. Ez dago tortura baino lazgarriagorik!» Egun haretan mila erlijioz arnegatuko nintzen. Eta duela anitz urte, anitz, ordu haretako doilorkeria eta hainbat doilorkeriaz lorturiko zoriontasun haretaz neure buruari erantzuki[3336] egiten diot. Nahiz eta noizbait hain doilor ez nintzela erakutsi ahal izaiteko itxaropena izan. Egun indar hori eman didazu, Bernardo jauna, niretzat enperadore erromatarrak martirien artean doilorrenentzat izan zirena zara zu. Arimaz sinetsi nuena aitortzeko adorea eman didazu, nire soinak, berriz, atzera egiten zuen bitartean, hari jarraiki ezinean. Baina ez eska niri adore handiegirik, karkasa hilgarri honek jasan dezakeen baino handiagorik. Tortura ez. Nahi duzun guztia esango dut. Hobe su-meta, oraintxe. Soina erre aurretik, itoz hiltzen da. Dultzinori

3334Maltzurtasun: (H. “astucia”) (?)
3335Makur: (H. “bellaco”)
3336Erantzuki egin: reprochar

eginiko estirarik ez. Gorpu bat nahi duzu eta horretarako ni beste gorpuen erantzule ager nadin behar duzu. Dena den, laster hilotz izango nauzu. Horrelatan, bada, eska zakizkidan guztia emango dizut. Adelmo da Otranto hil dut haren gaztetasuna gorrotatzen nuelako eta ni bezalako munstro zahar, lodi, ttiki eta etxakinekin jolasteko zuen gaitasuna ere gorrotagarri zitzaidalako. Benantzio da Salvemec hil dut, gehiegi zekielako, eta nik ulertu ezinezko liburuak irakurteko gauza zelako. Berengario da Arundel hil dut haren liburutegia arbuiatzen nuelako; nik, teologia apez parroko lodiegiak makilaka joz ikasi nuen honek. Sant'Emmeranoko Seberino hil dut… Zergatik hil dudan? Belarrak bildumatzen zituelako; nik, Rebello mendian egon eta belarrak, zertarako on ziren galde egiteke, jaten genituen lekuan egon nintzen honek. Egiaz, beste gainontzekoak ere hil nitzakeen, Abadea ere bai: Aitasantuarekin nahiz enperadorearekin badago-ezpadago ere, beti nire arerioen artean baitago, beti gorrotatu izan dut, jaten emaiten zidanean ere bai, nik hari jaten emaiten bainion orobat. Nahikoa duzu honenbestez? A, ez! Jende hori guztia nola hil dudan jakin nahi duzu… Bada, ondo… Hil ditut… Ea… Inpernuko ahalgoari dei eginez, mila *legio*ren laguntzaz, ni haietako buru nintzelarik, agintaritza, hain zuzen, Salbatorek

irakatsitako trikimainez eskuratu bainuen. Inor hiltzeko ez da norberak joitea beharrezkoa edo baitezpadakoa: deabruak gure ordez egiten du… guri obeditzeko nola eragin jakinez gero.

Hantxe zegozenei begira, konplizitate itxura bezala barre eginez. Baina ordurako zoroaren barrea zuen, nahiz eta, geroago Gilenek adiarazi zidanez, zoro horrek behar zuen zentzua edo sena ukan, bere erorketan Salbatore bultzatzearren, eta hala beronen salaketaz mendeku hartu zuen.

— Eta nola lortzen zenuen deabruak zuri obeditzea? – hertsatu[3337] zuen Bernardok, haren zoramena zilegizko aitorpentzat hartu baitzuen.

— Zerorrek ere badakizu! Hainba urtez deabruekin hartu eta eman jardunez gero, azkenean haren larrutan sartuta egoitea ezinbesteko baita! Zerorrek ere badakizu, apostoluen martiritzaile[3338] horrek! Katu beltza hartzen duzu, bai? Ile bakar bat ere zuri ez dadukana (badakizu), eta hankak lotzen dizkiozu, gero gau erditan bidegurutze batera eroaiten duzu, eta han oihu egiten duzu ozendo: «Oi, Luzifer handi, inpernuko enperadore, hartzen zaitut eta nire etsaiaren

3337Hertsatu: (H. “urgir”) (Presionar...)
3338Martiritu: martirizar (N) (?)

soinean sartzen zaitut, katu hau gatibu dadukana legez, eta nire etsaia hil badezazu, biharamuneko eguerdian, leku honetan bertan, katu hau sakrifikatuko dizut, eta nik agindu guztiak zuk eginen duzu, praktikatzen dudan aztikeria honen ahalmenez, Zipriano Deunaren liburuari jarraikiz, inpernuko legio nagusietako buruzagien izenean, Adramech, Alastor eta Azazel, eta nik orain berauek beren anaia guztiekin batera goraipatzen[3339] ditut…!» –haren ezpainetan dardara, begiak betzuloetarean irtenak, eta otoizka hasi zen, edo hobeki esateko, otoitza zirudien zerbait-ka, benetan zegiena erregutzea baitzen, inpernuko legio guztietako baroi guztiei erregutzea– *: Abigor, pecca pro nobis... Amon, miserere nobis... Samael, libera nos a bono... Belial aleyson... Focalor, in corruptionem meam intende... Haborym, damnamus dominum... Zaebos, anum meum aperies... Leonardo, asperge me spermate tuo et inquinabor*[3340]*...*

— Aski, aski da! –zegozenak oihuka, aitaren egiteaz batera–. Oi, Jauna, barka gaitzazu guztiok!

3339Goraipatu: (H. “invocar”)

3340 «Abigor, bekatu egizu gure alde... Amón, erruki zakizkigu… Samael, atera gaitzazu onerean... Belial, euzu gupida... Focalor, zuzen zaitez nire ustelkeriara... Haborym, jauna kondenatzen dugu... Zaebos, nire uzkia zabalduko duzu... Leonardo, busti nazazu zure gizaziaz eta lohiturik geratuko naiz.».

Sehiburua, orduan, isilik. Tusuri haien guztien izenak ahoskatu ondorean, ahuspez erori zen, eta haren aho okerretik listu[3341] zurixka eriaiten hasi zitzaion, eta hortzak karraskatzen. Kateek oinazea zegioten arren[3342], haren eskuak batzen eta banatzen ziren, dardarka[3343], haren oinak aireari ostikoka. Gilen ohartu zen ni izuaz ikaran nengoela; eskua buruaren gainean ipini zidan eta garondoan sakatu lasaitu nintzen arte:

— Ikas ezak –esan zidan–, Gizona torturatzen dutenean, edo torturatuko dutela zemaitzen dutenean, egin duena ez ezik egin nahi zukeena ere esaten dik, zer nahi zuen jakin ez arren. Orain Remigiok heriotza gura dik bere arima guztiaz.

Arkulariek sehiburua eraman zuten, artean dardar betean. Bernardok bere orriak bildu zituen. Ondorean, hangoei so egin zien, zorrotz, haiek aztoraturik, beren lekuetan geldirik.

— Itaunketa bukatu da. Salatutakoa, aitortu eta atxilotua[3344], Avignonera eramana izango da, behin-betiko epaiketa bertan egitearren, justizia eta egia zehatz eta mehatz zainduak izan daitezentzat. Eta prozesu arauturiko hau burutu ondorean, ez

3341Listu: saliva
3342Arren: (H. “ A pesar de”)
3343Dardarka: (H. “convulsivamente”)
3344Aitortu eta atxilotua: (H. “reo confeso”)

lehenago, errea izango da. Dagoeneko, ez da zurea, Abbone, ez eta nirea ere, izan ere, ni egiaren tresna apal bat baino ez naiz izan. Justiziaren tresna beste leku batean dago. Artzainek euren egitekoa burutu dute, orain zakurren txanda da: ardi usteldua artaldetik bereizi behar dute, eta suaren bitartez garbitu behar dute. Gizon hau hainbat krimen zitalen errudun agertu den kapitulu[3345] zorigaiztoko hau bukatu da. Orain abadia hau bizi albailedi baketan. Baina mundua… –eta ahotsa goratu zuen eta legatuen taldea zegoen aldera biratu zen–, mundua oraino ez dago baketan, mundua heresiak urraturik dago, jauregi inperialetako aretoetaraino ere sartu baita! Nire anaiok gogora albailezate hauxe: *cingulum diaboli*[3346] batek Dultzinoren jarraitzaile maltzurrak Perusako kapituluko maisu zuzenekin lotzen ditu. Ez ahantzi: Jaungoikoaren begien aitzinean oraintxe justiziara eman diogun gizagaixo horren eldarnioak eta Bavariako aleman eskumikatuaren mahaian esertzen diren maisuenak ez dira oso ezberdinak. Heretikoen zentzugekeriaren iturria hainbat predikuz hornitzen da… batzuk goraipatuak, eta oraindik zigorrik bagetuak. Gogorra jasanbeharra eta gurutzaldi apala Jaungoikoak deitu duenarena, ni bekatari hau bezala, heresiaren sugea, non-

3345Kapitulu: (H. “episodio”) (baina “kapitulu”: bilera da erlj. -nik)
3346«Deabruaren gerriko bat».

nahi habia dadukan ere, bila dezangatik. Baina ataza santu honetan jardun beharrak irakasten dizunez, heretikoa ez da soilkik heresia ororen aurrean praktikatzen duena. Heretikoak antzemaiteko bost zantzu frogagarri dagoz. Lehenengoa: heretikoak kartzelan dagozenean, itzalgaizka[3347] bezala, haien ikustera joaiten direnak; bigarrena: haien atxiloketa txarresten dutenak eta bizialdian haien adiskide minak izan direnak (zinez, heretikoaren jarduera hainbat urtez haren ondoan bizi izan denarentzat ustebagean gertatzea zaila da); hirugarrena: heretikoak injustuki kondenatuak izan zirela esaten dutenak, haien errua frogatutzat eman izan arren; laugarrena: heretikoei jazarten dietenei begi txarra egiten dietenak; hauek maiseoka ari, eta jazarle haien aurka prediku egiten dute, arrakastatsu; begiz, sudurrez, begitartez nabaritzen dira, alegia deus ez egiten badute ere, zeren, beraiek gorrotatzen dituztenei dieten aiher gaiztoa agertzen baitute, eta beraiek maite dituztenen zoritxarra deitoratzen[3348] baitute. Bosgarrena eta azkena, zantzu bat ere bada, zera, heretikoak kiskali eta gero, hauen hezur errauts eginak biltzen dituztena eta gurtzeko gauzatzat hartzen dituztena… Nik, baina, seigarren zantzu edo ezagugarri bati ere baliotsu deritzot,

3347Itzalgaizka: (H. “de incógnito”)
3348Deitoratu: (H. “lamentar”)

hots, eta heretikoen adiskidetzat hartzen ditut zeinbait libururen egileak, zeinen liburuetan (ortodoxiari zuzenka irainik egin ez arren) heretikoek euren eritzi gaizto-gaiztoak garatzeko premisak edo erizpideak aurkitzen baitituzte.

Eta hori zioen bitartean haren begiek Ubertino jo eta josten zuten. Frantziskotarren ordezkaritzak argiro ulertu zuen Bernardok zer iradokitzen ziharduen. Bilkurak, ordurako, porrot egina zuen. Inor ez zen ausartuko goizeko eztabaida berriz ere hastera, azkenengo gertaera zoritxarreko haiek gogoan nola ukanik zein edo zein hitz halaxe hartua izango baitzen. Aitasantuak Bernardo talde bien arteko konponbidea galarazteko igorri bazuen, haren eginkizuna arrakastatsua izan zela esan zitekeen.

BOSGARREN EGUNA

BEZPERAK

Ubertinok hanka egin, Bentzio legeak betetzen hasi eta Gilenek egun haretan aurkitutako likiskeria mota ezberdinez hausnarketa batzuk egiten dituenekoa.

Kapitulu gela astiro hustutzen ari zeino, Michele Gileni hurbildu zitzaion, eta gero Ubertino irutzi[3349] zitzaien.

3349Irutzi: juntar, agrupar

Handik batera jalgi ginen kalostrapera joaitearren eta lainoz babesturik hitz egin ahal izaiteko asmoz, saretu[3350] nahi ez, antza, eta iluntzerakoan are lodiago edo zikinago zirudien lainoa.

— Gertatu berri denaz ez dut uste ezer esatea beharrezko denik –Gilenek–. Bernardok irabazi digu. Ez niri galdetu dultzindar ergel hori benetan krimen horietaz guztietaz errudun denentz. Nire aldetik, ez delako uste osoa dut[3351]. Dena den, hasieran bezala gagoz. Joanek Avignonera zu bakarrik joan zaitezen nahi du, Michele, eta bilera honetan ez dugu nahi bezainbesteko bermerik lortu. Alderantziz, han zuk esan guztia oker litekeen erakuspide bat izan da. Honexen ondorioz, bada, joan behar ez duzula uste dut.

Michelek buruaz zirkin[3352] egi zuen:

— Baina joan egingo naiz. Ez dut zismarik nahi. Zu, Gilen argiro mintzatu zara, zer nahi duzun esan duzu. Bada, ez da hori nik nahi dudana: ohartu naiz Perusako kapituluko erabakiak teologo inperialek guk esan nahi genuen baino gehiago esateko erabili izan dituztela. Frantziskotar balderna Aitasanatuak onartua izan dadin nahi dut, txirotasun ideia

3350Saretu: (H. “disiparse” -la niebla-)
3351Uste osoa ukan: (H. “estoy convencido”)
3352Zirkin: pequeño movimiento

horiekin. Eta Aitasantuak ulertu behar du, ezen, baldernak txirotasun ideia hori beretzat hartuz gero, soilik eta ez bestez, bere adaxka heretikoak birbildu[3353] ahal izan dituzkeela. Ez dut herriaren biltzarra gogoan, ez eta jendeen eskubidea ere. Balderna *fraticelli* anitzetan sakabana[3354] dadin eragotzi behar dut. Avignonera joanen naiz, eta behar izanez gero, Joanen aitzinean men eginen[3355] dut. Orotan amor emanen diot, txirotasun hatsarre[3356] horretan izan ezik.

— Badakizu bizia galbidean ezarriko duzula? –sartu zuen hitz Ubertinok.

— Hala biz –Michelek ihardetsiz–, txarragoa da arima galtzea.

Bizia larriki arriskatu zuen eta, Joan zuzenean baldin bazegoen (honetaz oraino ez dut guztiz uste onik), arima ere galdu zuen. Orain denek dakiten bezala, astebete geroago, hemen jaulkitzen ari naizen gertakariez geroago Michele Aitasantua ikustera joan zen. Lau ilean bere ten-tenean[3357] egon zen, harik eta hurrengo urteko jorrailean Joanek kontsistorio deitu zuen arte, eta beronetan zorotzat erabili

3353Birbildu: (H. “reabsorber”)
3354Sakabanatu: (H. “disolver”)
3355Men egin: (H. “acto de sumisión”)
3356Hatsarre: (H. “principio”) (?)
3357Ten-tenean: (H. “se mantuvo firme”)

zuen, zoro, arriskukoi[3358], setati[3359], larderiatsu[3360], heretikoen gaizkide, Elizaren barruan habia egindako sugegorri eta abartzat hartu zuen. Eta haretara iritsita[3361], eta bere ikuspegitik, Joanek arrazoia zuela pentsa daiteke, zeren, lau il haietan Michele nire maisuaren adiskidearen adiskide egina baitzen, hau da, beste Gilen, Occam-goa, eta beronen aburuak beretzat hartzera heldu baitzen; aburuok ez ziren nire maisuak Marsiliorekin elkarbanatzen zituenez oso bestelakoak, are errotikoagoak ziren, goiz haretan azaldutako aburuak, hain zuzen. Avignonen disidente hauen biziera hala-holakotu[3362] zen, eta jorrailaren azkenaldian Michele, Gilen Occam-go, Bonagrazia da Bergamo, Francesco d'Ascoli eta Henri Talheim-go ihesean joan ziren. Aitasantuaren gizonek jazarri zieten, Niza, Tolon, Marsella eta Aigues Mortes-eraino, eta berton Pierre de Arrablay kardinalak atzeman zituen, itzul zitezen gogatu nahi izan zituen, alperrik ordea, haien erresistentzia, haien Aitasantuaganako gorrotoa, haien beldurra mendean hartzeko gauza izan ez baitzen. Ekainean Pisara iritsi ziren, inperialek harrera gurendazkoa[3363] eskaini zieten, eta

3358Arriskukoi: (H. "temerario")
3359Setati: testarudo
3360Larderiatsu: (H. "tirano")
3361Haretara iritsita: (H." a aquellas alturas")
3362Hala-holakotu: (H. "se volvió precaria") (?)
3363Gurendazko: (H. "triunfal") (Gurenda: victoria)

hurrengo iletan Michelek Joan jendaurrean salatu zuen. Beranduegi, ostera. Enperadorearen asturua gainbeheratzen hasia zen. Avignondik, Joanek frantziskotarren buruzagi nagusia ordezkatzeko trikimaina bat bilbatu zuen, eta azkenean lortu. Egun haretan Michelek Aitasantua ikustera joan ez bailtz hobeto egin zukeen: frantziskotarren erresitentziaz arduratu ahal izango zen, hainbat iletan bere etsaiaren mendean jarrita aldia galdu ordez, bere egoera gero eta ahulago izanki… Baina agian hala ebatzi zuen oroahaltasun[3364] jainkozkoak. Bestaldetik, orain dagoeneko ez dakit haietako nor zegoen zuzen: anitz urtez gero, grinen garrak iraungitzen dira, eta haiekin egiaren argia zela uste genuena. Nor da gure artean oraindik Hektor ala Akiles, Agamenon ala Priamo zuzen zegoela esateko gai, orain errautsen hautsa den emazteki baten edertasunagatik borrokan egiten zutenean?

Baina hitz eta pitz malenkoniatsuetan galtzen naiz, harako elkarrizketa goibel hura nola amaitu zen esan beharrean. Michele erabakita zegoen, eta amor emanarazteko[3365] modurik ez zen izan. Eta orduan beste

3364Oroahaltasun: (H. “omnipotencia”)
3365Amor emanarazi: hacer que desista

arazo bat agertzen, eta Gilenek hinki-hanka[3366] bage azaldu zuen: Ubertino bera ere ez zegoen ziur.

— Joanek Michele gortean nahi du eta Ubertino inpernuan. Bernardo ondo ezagut baldin badezat, honik biharrera, lainoa gaizkide duelarik, Ubertino erahilik izan dateke. Eta inork galde baleza nor izan den, abadiak beste krimen bat ukanen luke bere gain… Remigiok bere katu beltzekin deitutako zeinbait deabru izan dela esango da, edo dultzindarrean bat edo bat oraindik abadion dagoena…

Ubertino kezkaturik agertzen zen.

— Eta? –galde Ubertinok.

— Eta beraz, –Gilenek–, zoaz Abadearekin hitz egitera. Eska zakizkio zamari[3367] bat, horniak, eta urrutiko abadia baterako gutun bat, Alpeez beste alderako. Eta lainoarekin iluntasuna balia ezazu laster hemendik alderatzeko.

— Baina arkulariek ez ote dituztea ateak zelatatzen?

— Abadiak beste irtengu batzuk ditu; Abadeak badakizki. Sehi bat zure zain zamari batekin beheraxeago egoitea nahikoa. Zuk harresiko lekurean batetik irtengo duzu, baso bat zeharkatuko eta bidean aurrera. Egizu, bada, sarri, lehen

3366Hinki-hanka: ambage(s)
3367Zamari: (H. “cabalgadura”)

bai lehen, Bernardo bere gurenda-liluralditik bere senera itzul baino lehenago. Nik beste arazo batez arduratu behar dut. Bi eginkizun nuen: batak porrot egin du, ea, besteak, bederen, egiten ez duen. Liburu bat atzeman nahi dut, eta gizon bati “hatz eman” ere bai. Dena ondo bidean, zugatik larritu baino lehen, hemendik landa[3368] zaituzkegu. Beraz, agur, bada.

Besoak zabaldu zituen. Hunkiturik, Ubertinok bereen artean estutu zuen:

— Agur, Gilen, ingeles zoro eta harroa zara, baina bihotz handia duzu. Ikusiko ote dugu elkar?

— Zalantzarik ez –Gilenek lasaitu zuen–, Jaungoikoak nahi izanen du.

Jaungoikoak, ordea, ez zuen nahi ukan. Esan dudana legez, Ubertino erahilik zendu zen, bi urte geroago, misteriotsuki. Bizitza gogorra eta ibilkorra[3369] agure borrokakoi[3370] eta gartsu harena. Ez zen santu, apika, baina Jaungoikoak saritua izango delakoan nago, santua zela guztiz sinetsita baitzegoen bera. Zenbat eta zaharrago ni, gero eta Jaungoikoaren nahiari emanago, eta jakin gura duen

3368Landa: (H. “fuera”)
3369Ibilkor: (H. “aventurero”) (N) (?)
3370Borrokakoi: (H. “combativo”) (N)

adimena gero eta gutietsiago dut eta egin gura duen nahimena berebat: aitortzen dudan salbazio-bide bakarra fedea da, egonarriz behar baino haboro galdetzeke igurikitzen baitaki. Eta, enura begerik, Ubertinok Gure Jaun gurutziltzatuaren heriotzan eta odolean fede handia izan zuen.

Ausaz, orduan zera haretaz ere pentsatu nuen, eta mistiko zaharrak usnatu[3371], edo noizbait hala pentsatuko nuela igarri zuen. Irribarre egin zidan, xamurkiro, eta besarkatu ninduen, aurreko egunetan estutu izan ninduen bezain gartsuro ez, hala ere. Aitonak bere biloba bezalatsu besarkatu ninduen, eta ni halabertsu. Gero Michelekin Abadearen bila aldendu zen.

— Eta orain? –galdetu nion nik Gileni.

— Orain itzul gaitezen gure krimenetara.

— Maisu, egun kristaugoarentzat gertaera hagitz larriak izan ditugu, eta zure egitekoak porrot egin du. Honela ere, badirudi hemengo misterioen argitzeak axola handiago dizula, Aitasantu eta enperadorearen arteko istiluak baino.

— Zoroek eta umeek esaten ditek egia beti, Adso. Beharbada, aholkulari inperial gisa nire adiskide Marsilio ni

3371Usnatu: (H. “percibir”)

baino hobea duk, baina inkisidore ni hobea nauk. Are Bernardo baino hobea, eta Jainkoak barka diezadala. Izan ere, Bernardok ez dik nahi errudunak nor diren kausitu, salatutakoak erre nahi ditik, besterik ez. Niri, ordea, mataza korapilatsua korapilgetzeak[3372] atsegin handiagoa emaiten zidak. Edo agian izan daitekek, une honetan, filosofo naizen aldetik, munduak ordena bat ote duenentz zalantzan nagoelako, ordena bat ez bada, munduan gertatzen diren gauzen multzoa ataletan banaturik ere nolabaiteko harremanak, ttikiak baina, badagozela aurkitzeak poz emaiten didala. Gainera, balitekek beste arrazoi bat ere egoitea: honako istorio honetan Joan eta Ludovikoren arteko borroka baino gauza handiagoak eta garrantzitsuagoak zagozak jokoan…

— Baina bertute urriko fraideen arteko lapurreta eta mendekuen istorio bat baino ez baita! –oihu egin nuen zer ez nekiela[3373].

— Debekatu liburu baten inguruan, Adso, debekaturiko liburu baten inguruan –ihardetsi zidan Gilenek.

Lekaideak abaltzera zihoazen. Michele da Cesena otordua hasi eta heldu zen, gure ondoan eseri, eta Ubertinok

3372Korapilgetu: korapilo + ge+ tu (N) (Desanudar)
3373Zer ez nekiela: (H. “perplejo”)

alde egin zuela jakinarazi zigun. Gilenek lasaitasunezko hasperen bat egin zuen.

Abaria bukatutakoan, Abadea saihestu genuen, Bernardorekin hizketan ari zela, eta Bentzio aurkitu genuen, irribarreño batez agur egin ziguna, handik irteitera zihoanean. Gilen gerturatu zitzaion eta gure atzetik supazter txoko bateraino etor zedin behartu zuen.

— Bentzio –esan zion–, non dago liburua?

— Zein liburu?

— Bentzio, ez zu ez ni gara kokoloak. Gaur Seberinoren ikertokian ediren dugun liburuaz ari naiz, eta nik ezagunetsi ez nuena baina zuk bai, geroago hura hartzera joan baitzinen…

— Zergatik uste duzu nik hartu dudala?

— Horrela dela uste dut, eta zuk ere uste duzu. Non dago?

— Ez dezaket esan.

— Bentzio, ez badiostazu Abadearekin hitz egingo dut.

— Ez dezaket esan, Abadeak agindu eta –Bentziok txintxo-antxo esana–. Elkar ikusi eta gero, jakin behar duzun zerbait jazo zen. Berengario hilik, liburuzain-laguntzailearen lekua

hutsik geratu zen. Arratsaldean leku hori nik betetzeko eskatu zait Malakias. Oraintxe ordu erdi doi dela, Abadeak baiezkoa eman du, eta bihar goizaz gero, nik uste, liburutegiko gora-behera guztien jakinaren gainean izango naiz. Egia da, goizeon liburua hartu dut; nire gelan ostendua eduki dut, lastaira azpian, so batto[3374] ere egiteke, Malakias begira zegokidala bai bainekien. Noizbait, oraintxe esan dizudan hau berak iradoki zidan. Liburuzain-laguntzailek egin behar duena egin dut: liburua eman diot.

Ezin neure buruari eutsi nik eta hitz sartu nuen, oldarkor:

— Baina, Bentzio, atzo, eta herenegun, zuk… esaten zenuen jakin-minez sutan zengozela, ez zenuela nahi liburutegiak isilpekorik ezkutatzerik, ikasi nahi duenak jakin behar duela...

Bentziok ez zioen ezer, eta lotsagorritu zen, baina Gilenek geldiarazi ninduen:

— Adso, ordu batzuk dituk Bentzio beste aldera irago dela. Orain isilpeko horien jagole, zaintzaile, ikusi nahi zituen isilpekoon babesle bihurtu duk, eta hauen ikus eta ikuskatzeko nahi adina beta eta asti eta epe ukanen dik.

3374So batto: (H. “una ojeada”)

— Baina, eta besteek? –galdetu nik–. Bentzio jakitun guztien izenean mintzatzen zen!

— Hori lehen zuan –Gilenek niri, eta kanpo alderantz bultzatu ninduen, Bentzio bere nahasian nahasirik utzita.

— Bentzio –esan zidan gerottoago Gilenek– likiskeria txit larriaren biktima duk, eta ez duk Berengariorena edo sehiburuarena bezalakoa, ikas-nahi askorena baizik, jakintzaren likiskeria duk. Jakite hutsarena. Jakintzaren alderdi batetik baztertua zegoan, eta peitu zuen alderdi horren jabe nahi zuan. Orain egin dik. Malakiasek bazekian norekin ari zen, eta liburua berreskuratzeko erarik onena erabili zian, eta honela Bentzioren ezpainak, bidenabar, itxi. Galdetuko didak, eiki, zertarako den jakintzaren jabetza hori, beste ororen esku uztea debekatzen duen arauari men eginez gero. Horregatixe mintzo nauk likiskeriaz. Ez zuan likiskeria, esaterako, Roger Baconek nabari zuen jakin-egarria, zientzia Jainkoaren herria zoriontsuago eginarazteko erabili nahi baitzuen, eta, beraz, ez zian jakintza jakite hutserako bilatzen, jakiteagatik jakiteko. Alderantziz, Bentzioren jakin-nahikeria asegaitza duk, adimenaren harrokeria duk, bere haragiaren irritsa baretzeko, jabaltzeko eta bestelakatzeko edozein fraidek dituen bideetako bat

baino ez duk, edo beste zeinbait fedearen gudari bilakatzeko adorea duk, fedearen edo heresiaren. Likiskeria ez duk haragiarena soilik. Bernardo Gui-rena ere baduk: justizia egiteko likiskeria maltzurra, ahalgoaren likiskeriari datxekiona. Aberastasunaren likiskeria ere baduk gure santu baina ez, dagoeneko, erromatar aita zubiginarena. Bere gaztaroan sehiburuaren likiskeria lekukotasunarena zuan, aldakuntza, penitentzia eta heriotzarena zuan. Bentziorena, berriz, liburuen likiskeria duk. Likiskeria guztiak bezala, Onan-ena bezala, bere gizazia lurrera isurtzen baitzuen, alperriko likiskeria zuan, ezertarako eza, antzua, eta zerikusirik ez dik maitasunarekin, haragizko maitasunarekin ere ez…

— Badakit –xuxurlaka nik nahi bagerik.

Gilenek ezadituarena egin zuen, Baina, bere esapidetik aurrera joan nahi legez, honela gehitu zuen:

— Maitasun onak maitatuaren ongia nahi dik.

— Beharbada, Bentziok ez al du bere liburuen ongia nahi izango; (orain bereak ere bai baitira) eta ez al du pentsatuko haien ongia esku harrapakarietan ez egoitea dela, hain zuzen? –galdetu nuen..

— Liburu baten ona irakurri izana duk. Liburu bat gauza batzuez mintzatzen diren zeinu batzuez mintzatzen diren beste zeinu batzuek osatzen ditek. Irakurriko duen begirik bage, liburuak adigairik sortzen ez duten zeinuak ditik. Eta beraz, mintzula[3375] duk. Agian liburutegi hau daduzkan liburuak gaizkatzeko sortu zuan, baina orain liburuok ehortzirik edukitzeko bizi duk. Gupidarik bageko bizigarri[3376] bihurtu duk. Sehiburuak traditu zuela esan zian. Bentziok berdin egin dik. Traditu egin dik. Oi, Adso maite, zein ezaina[3377] eguna! Odolez eta sakailaz[3378] betea! Egungoz aski diat. Goazen gu ere konpletetara, eta gero lotara.

Sukaldetik irteitean Aymaro aurkitu genuen. Zurrumurru batez galde egin zigun ea egia zenentz, hots, Malakiasek Bentzio laguntzaile izaiteko proposatu ote zuenentz. Baietz esatea baino besterik egin ezin guk.

— Malakias horrek hainbat zera sotil[3379] egin du, gaur –esan zuen Aymarok bere ohiko irri zuriarekin, erdeinu-irri alegia, eta barkabera[3380] antzo–. Justizia balego, Txerren gaueon berton haren bila letorke.

3375Mintzul : mudo (Mintzo+ul)
3376Bizigarri: (H. “pábulo”)
3377Ezain: itsusi
3378Sakaila: (H. “destrucción”)
3379Sotil: (H. “fina”)
3380Barkabera: (H. “indulgencia”)

BOSGARREN EGUNA

KONPLETAK

Antikristoren etorrerazko sermoi bat entzuten denekoa eta Adsok izen nagusien ahalmena aurkitzen duenekoa.

Bezperetako eliz-jarduna nahasmendu handiaren barruan egin zen, sehiburuari itaunketa egin bitartean, eta fraidegai jakin-gosetiek kapitulu-gelako leihoekin

zirrikituetatik zer gertatzen ari zen ikuste aldera euren maisuari alde egin zioten. Orduan erkidego osoak Seberinoren arimaren alde otoitz egin behar zuen. Abadea guztiei mintzatuko zitzaiela zuten uste eta orok bere buruari galdeka ea zer esango zien. Alabaina, Gregori Deunaren homilia erritualaz gero, errespontsu eta preskribaturiko hiru salmoez gero, Abadeak, arratzaldera[3381] igo eta arrats haretan hitz egingo ez zuela iragarri zien. Abadiari egindako zorigaitzak hainbat izanik, esan zuen, ororen aita ere ezin mintza zekiekeen gaitzespen-hizkeraz eta ateleka[3382]. Orok, ziren guztiek kontzientzia azterketa zorrotza egiteko premia zuten, baitezpada. Alta bada, norbaitek hitz egin behar zuen eta, beraz, atele egitekotan, haietako zaharrenak eta heriotzarean horregatik hurbilenak egin zezan proposatzen zuen, lurbirako grina gaizto hainbeste kalte eginikoetan hain nahasirik eta kutsaturik egon ez zitekeenak. Adin-legeaz, hitza Alinardo da Grottaferratari zegokion arren, anaia maitagarri honen osasuna zein makala zen orok zekien. Alinardoren hurrena, aldiaren joanak ezarritako lege tinkoagatik, Jorge zen. Eta une haretantxe beroni zitzaion hitz eskaintzen ari Abadea.

3381Arratzalde: (G-azp-to). Púlpito. "Lo llaman por su forma de barril".
3382Ateleka: (H. “admonición”)

Aymaro eta beste italiarrak eseri ohi ziren jarleku aldean hitzaroa entzun genuen. Abadeak predikua Jorgeri eginarazi, Alinardori deus esateke, ziola susmatu nuen. Nire maisuak ahapetik adiarazi zidanez, hitz ez egitearena Abadeak zuhurtasunez erabaki zuen: zernahi esanik ere, Bernardok eta bertan ziren beste avignondarrek aztertua izango zen. Jorge sentonak, aldiz, bere igarkizun mistikoetarik bat azalduko zuen, ez besterik, eta avignondarrek haintzakotzat hartu ez zioketen.

— Baina nik bai –Gilenek gehitu zuen–, ez baitut uste Jorgek xede oso zehatzik bage hitz egitea onartuko zuenik, edo hitz egiterik eskatuko zenik.

Jorge pulpitura igo zen, norbaiten laguntzaz. Haren begitartea hiruoineko argiaz argiturik zegoen, habearte[3383] osoan pizturik zegoen argiontzi bakarra. Garraren argiak haren begien gainean, bi zulo beltz irudi, zuen iluntasuna nabararazten[3384] zuen.

— Anaia maite-maiteok –hasi zen–, eta zuok, arrotz maitagarriok, xahar gixagaixo honi aditu nahi badiozue… Gure abadia hau atsebageturik duten lau hilek (bizion artean zorigaitzekoenek egin dituzten bekatu eta hogen zahar eta

3383Habearte: (H. “nave”)
3384Nabararazi: (H. “poner en evidencia”)

berriez deusik ez esatearren) ez dute, esan beharrik ez, bizia galdu natura zorrotzak, bere abiada geldiezinean lurbira honetan gure joana, seaskarean hilobira artean, kudeatzen duenak hala ebatzirik. Heldubada, zuok guztiok pentsatuko ahal duzue, nahiz eta atsebagetu eta nahasirik utzi, gertaera ilun hauek ez dutela zuen arima ukituko, zeren, zuok oro errubagekoak baitzarete, bat izan ezik, eta bat hau zehatua izan dadinean, zirendu ziren guztien ausentziagatik, zalantzarik ez, negar eginen duzue. Baina Jaungoikoaren epaitegi aurrean ez duzue inolako salaketaz zeuen burua babestu beharrik izanen. Hauxe duzue gogoan. Zorook! –egin zuen oihu izugarri–. Zoroak eta arriskukoiak! Erahil duenak Jaungoikoaren aitzinean bere erruen zama irozoko du, jasanen du, zergatik eta Jaungoikoaren dekretuen bitartekari izaitea onartzeagatik, eta ez bestegatik. Jesus norbaitek saldua izan behar zen bezala, erredentzio misterioa betetzearren, eta honela ere saltzailea kondenatua eta gaitzetsia izan zen Jaunak ebatzirik, egunotan norbaitek herioa eta sakaila ekarriz bekatu egin du, baina nik diotzuet, ezen, sakailamendu hau guztiau, nahi izan ez badu ere, Jaungoikoak laga izan duela, bide eman duela bederen, gure harrokeria apaldu nahiaz!

Isildu zen, eta haren begirada hutsa batzar ilunari zuzendu zitzaion, begiek emozioak atzeman ahal balituzte bezala, baina haren belarriek zuten isiltasuna dastatzen, eta halaber habeartean gailentzen ari zen harridura.

— Erkidego honetan –aurrera hizketan–, aspaldidanik harrokeriaren sugea bihurka[3385] ibiltzen da. Alabaina, zelako harrokeria? Boterearen harrokeria, munduko basabazter batean dagoen monasterio honetan? Ez, noski. Aberastasunaren harrokeria? Ene anaiok, gure iraslearen[3386] garaiaz gero, txiro ala jabe izaitearen lipizta[3387] luzeen oihartzunek mundualde ezagun honetan durundi egin baino lehen, oro edukita ere, ez dugu ezer eduki, gure egiazko aberastasun bakarra gure arautegia betetzea izan baita, otoitz eta lan egitea. Baina gure lanaren zati bat, gure baldernaren eta zehazki gure monasterio honetako lanaren zati bat, funtsezko zatia hala ere, jakintzaren aztertzea eta zaintzea da. Zaintzea, diot, ez bilatzea, izan ere, jakintza, jainkozko gauza, berez osoa eta tinkatua dago, berez adiarazten duen hitzaren perfekzioaren hasieratik. Zaintzea, diot, ez bilatzea, izan ere, jakintza, gizakizko gauza, berez mendeetan tinkatua eta osatua izan da, profeten eta Elizako gurasoen

3385Bihurka ibili : (H. “serpentear”)
3386Irasle: fundador (Irasi)
3387Lipizta: (BN-bai), "Disputa, disensión.

interpretazioaren artean izan ziren mendeetan. Giza historia abiadura geldiezinean doa aitzina, sortu zenetik, erredentzio bidez, Kristo garaitzaile itzul dadinerantz, ninbo batez inguruturik hilak eta biziak epaitzen agertzen baita. Alabaina, jakintza gizakizkoa eta jainkozkoa ez dabil bide horretatik: harkaitz higiezina bezain tinko, haren ahotsa apaltasunez aditzeko gai garenean, aurrera egin eta bidea aurrikusi ahal izan dezagun lagatzen digu, baina bideak ez dio koskarik egiten. Ni naizena naiz, esan zuen hebertarren Jaungoikoak. Ni naiz bidea, egia eta bizia, esan zuen Gure Jaunak. Bada, jakintza' bi egia horien iruzkin txundigarria baino ez da. Esandako gainerako guztia profetek, ebangelariek, gurasoek eta doktoreek esana zen, bi esaera horiek argitze aldera. Eta batzuetan jentilen artean ere halako iruzkin egokirik aurkitu ohi da, ezagutuak izan ez bazituen ere, eta haien hitzak berriz ere kristauen ohikuntzak hartu izan ditu. Hori alde bat utzirik, ez dago esateko besterik. Bai, ordea, behin eta berriz hausnartu beharra, solastatu beharra, iruzkindu eta gorde beharra. Hau eta ez besterik zen eta izan behar zen gure abadiaren egitekoa, haren liburutegi bikainaren eginbeharra. Esaera denez, behin batean ekialdeko kalifa batek hiri ospetsu bateko liburutegia garretara egotzi omen zuen, eta milaka liburuki haiek sutan

erretzen zireino, suntsi behar zirela eta ahal zirela omen zioen: zergatik eta, edo Koranak zioena berrizkatzen zutelako, beraz ezertarako ez ziren, edo liburu horiexek, jentilek sakratutzat duten horrek zioenaz bestela ziotelako, eta, ondorioz, kaltegarriak ziren. Elizako doktoreek, eta guk haiekin, ez genuen hala arrazoitu. Idazkuntzak[3388] erizkatzen[3389] eta argitzen duen guztia gordea izan behar da, idazki jainkozkoen aintza ulertzen duelako; idazki haiek baieztatzen dutenaren aurka dioen guztia ez da suntsitu behar, zeren, gorderik edukiz gero, halaber haren aurka esan ahal baitezake honetarako gai denak eta hala egin lezan Jaunak ebatzi unean eta eran. Hortixe dator gure baldernaren erantzunkizuna, menderik mende, eta gure abadiak gaur egun jasan behar duen zama: aldarrikatzen dugun egiaz harro, haren etsai diren hitzak eta eleak zuhurkiro eta apalkiro zaintzen ditugu, haiek kutsa gaitzaten utzi bage. Honelatan bada, ene anaiok, zein da fraide ikasgurari zirika egin liezaiokeen harrokeriazko bekatua? Bere lana, zaintzea ez baina oraindik gizonen aurrean agerrarazi izan ez den zeinbait berriren bilatzea dela uste izaiteak, azken berria eskrituretako azken liburuan azkenengo aingerua mintzo zenaren hitzetan agertu zena izan ez balitz bezala: «Liburu

3388Idazkuntza: (H. “la escritura”)
3389Erizkatu: comentar (?) (eritzi+ka+tu)

honetako profeziako nire hitzok aditzen dituen orori zinez diotsot, ezen, inork hauei ezer gehituz gero, Jaungoikoak liburu honetan zehazten diren izurriteak harengan ihaurriko dituela; eta inork profezia honetako libururean hitzik kenduz gero, Jaungoikoak haren bizitza-zuhaitzerean beraren zatia eta hiri santuarena kenduko dituela, liburu honetan idatzirik baitagoz». Bada, hala… Ez al duzue uste, anaia dohabageok, hitzok horma hauen barruan ez aspaldi gertatu izan dena aipatzen dutela, hain zuzen, eta, beste aldetik, hormon artean gertatuak bizi garen mende honetako gora-behera berak, hain zuzen, aipatzen dituela, zeren, bai hitzetan bai egitadetan, hirietan bezala gazteluetan, zein unibertsitate arranditsuetan zein eliza-katedraletan, egiaren eleetan kodizilo berrien kausitzeko asmoz saiatzen baitira, eskolio guztiez joritu egia horren zentzua itxuratxartuz, gehigarri zentzugerik bage defentsa ausarta behar duen egia hori? Hauxe hormatzar hauetan barrena bihurka ibili eta dabilen sugea: eta debekatu liburuen zigilua eten nahiaz ekin eta oraindik dakionari nik diotsot harrokeria hori duela Jaungoikoak zigortu nahi ukan, eta apal eta burua makur ez dezan artean beti zigortuko duela, zeren, gure ahaltasunagatik, Jaunari ez baitzaio inoiz zail izan ez izango

bere mendekua burutzeko, aspertzeko[3390] tresnarik edo biderik edireitea.

— Aditu duk, Adso? –niri Gilenek ahapeka–. Agure horrek dioen baino haboro zakik. Istorio honetan esku hartu ala ez, jakin zakik, eta lekaide jakingurak liburutegian non-zer-ikus dabiltzan bitartean, abadiak atsedenik izanen ez duela ohartarazten ziguk.

Isilune luxe baten ondorean, Jorgek berriz ere hizketari erago[3391] zion:

— Baina, nor da, azkenik[3392], harrokeria horren ikurra bera? Norenak dira harrokeriaren irudi eta mezulariak, gaizkide eta ikurroihaldunak[3393]? Nork jardun du, zinez, eta beharbada jardungo horma hauen artean, gure aldiak amai-hurren dagozela ohartarazteko edo, eta gure bihotzak arintzeko, zeren, epeak amaitzear egon arren, eta gure oinaze jasangaitzak ez ditugu aldian amaigeak, unibertso honen ziklo handia amaitzeko zorian baitago? Oi! Hagitz ongi ulertu duzue, haren izena ahotan hartzeko beldurrak zagozte, zuena ere baita, baina zuek beldur izan arren ni ez naiz beldur, eta izen hori ozengiro aipatuko dut, zuen erraiak

3390Aspertu: vengarse /Aburrirse...
3391Erago: ekin // Eragon: segitu, “jarraiki” (e+ra+egon)
3392Azkenik: (H. “en definitiva”)
3393Ikurroihal: ikurrin (Ikurroihaldun: (H. “abanderado”)

izu-lauorrian hotzikara daitezen eta zuen hortzak hortzikaraz has eta zuen mingaina moztu arte ikara daitezen, eta zuen odola izotz bihurturik zuen begien gaineko lauso itsugarria izan dadin… Piztia satsu-satsua[3394] da, Antikristo!

Beste isilune luze-luze bat egin zuen harzara. Han zegozenak hilik zirela zirudien. Eliza osoan higitzen zen bakarra hiruoineko garrak ziren, baina garron itzalak berak ere hormaturik[3395] antzo agertzen ziren. Zarata bakarra, itoa, Jorgeren arnas-hotsa zen, bekokiko izerdia lehortzen ari zela. Ondorean, hizketan aurrera egin zuen:

— Apika, esan nahi zenidakete: «Ez, oraindik ez da etorriko, non dira haren etorreraren zantzuak?» Alotza[3396] hori dioena, ergela! Munduko anfiteatro handian, eta haren irudi ttikia den monasterio honetan, egunean-egunean gure begiak haren etorrera iragarten duten hondamendiak ikus ahal baititzakegu! Esanda dagoenez, unea gerturatzean mendebaldeon errege atzerritar bat garaituko da, iruzurrezko ondare jauna, ateoa, giza-erahilea, mausari[3397], urre-gosezto, mila azpijoko egiteko gauza, gaiztoa, fededunen arerio, etsai eta jazarlea, eta berorren erregealdian zilarrak ez duke balio,

3394Satsu-satsu: (H. “inmunda”)
3395Hormatu: (H. “congelar”) (Hormatu-- hitz-jokoa)
3396Alotz: idiota
3397Mausari: iruzurgile, gezurti (Mausa, zimarku...)

urreak duke bakarrik balio. Ongi dakit: aditzen didazuen bitartean zuen gogoak galde eta galde dihardu ea zehazten dudan hau Aitasantuaren antzekoa ote den, enperadorearen, Frantziako erregearen edo beste noren edo noren antzekoa, geroago esan ahal dezazuen: Nire etsaia da, ni alderdi onean nago! Ez naiz, baina, ni hain iñoxo izen bat aipatzeko; Antikristo datorrenean ororengan eta ororentzat heltzen da, eta oro beraren osagai da. Hiriak eta eskualdeak arpilatuko dituzten bidelapurrengan izango da; ortziko zantzu bat-batekoetan izanen da, zeinetan ortzadarrak, adarrak eta suak sortuko baitira, eta aldi berean ahots-marrumak entzunen eta itsasoak irakinen du. Gizonek eta piztiek munstroak irazanen[3398] dituztela esana dago, baina honezaz bihotzek gorrotoa eta liskarrak sorraraziko dituztela esan nahi zen. Ez ezazue zuen baranoan beha, larrutxetan atseginez ikusi miniaturetako piztiak ea jarrugiko! Esanda dagoenez, emazte gazteak ongi-ongi mintzatzen dakiten umeez erdituko dira, eta ume horiek aldiak umaturik dagozela iragarriko dutela, eta eurak hilaraziak izan daitezen eskatuko dira. Baina ez bila beheko baserrietan! Ume jakitunegiak dagoeneko hormon artean erahilak izan baitira! Eta, profezietakoak bezala, itxuraz ile urdineko gizonak ziren.

3398Irazan: (H. “engendrar”) (?) (Sortu, sorrarazi)

Eta dena idatzita dago, bai? Eta gizarte-mailetan asaldura handia jazoko dela idatzita dago, herrietan, elizetan; artzain dongeak[3399], maltzurrak, erdeinuz josiak, aberats-nahiak, atsegin-irrikatsuak[3400], diru-goseak, ele hutsalen zaleak, harroputzak, ahohandiak, lamitiak[3401], gaiztoak, lizunkoiak, furfuriatsuak[3402], ebangelioaren etsaiak, ate meharretik iragogaitzak, egiazko hitzari behin eta berriz muzin egiteko gertuak; eta errukizko bide guztiak arbuiatuko dituzte, beren bekatuez damurik ez, eta honela herrien artean sinesgaizkeria hedatuko dute, gizakien artean gorrotoa ihaurriko, eta gaiztakeria, ankerkeria, bekaitza, axolagekeria, ohoinkeria[3403], hordikeria, ozarkeria[3404], lizunkeria, haragi-irritsa, emakoikeria[3405] eta beste hogen edo galdukeria guztiak. Nahibagetasuna, apaltasuna, bake-maitasuna, txirotasuna, errukitasuna, negarraren ontasuna… aienatuko[3406] dira. Ea! Ez ote duzue hementxe zagozten guztiok, abadiako fraideok eta kanporean etorri zareten ahaltsuok zeuen burua honetaz ezagutzen eta ezagunesten?

3399Donge: (H. “inicuo”)
3400Irrikatsu: deseoso (Irrika, irritsa)
3401Lamiti: goloso, laminero
3402Furfuriatsu: (H. “jactancioso”)
3403Ohoinkeria: (H. “latrocinio”)
3404Ozarkeria: (H. “intemperancia”)
3405Emakoikeria: (H. “fornicación”)
3406Aienatu: desagertu

Hurrengo isilunean, karrakada[3407] bat entzun zen. Bertrando kardinala zen bere jarlekuan urduriturik. Sakonean, nik pentsatu, Jorge predikari handiaren antzera ari zen, eta bere anaiak larrutzen[3408] zituen artean ez zituen etorleak jorratzeke[3409] utzi. Orduantxe Bernardoren gogotik zer iragaiten zen jakiteagatik zernahi emango nuen, edo avignondar zaparrote[3410] haienetatik.

— Eta orduan izango da, hots, oraintxe hain zuzen – erauntsi[3411] zuen Jorgek– Antikristok, Gure Jauna imitatu nahi baitu, bere biraozko *parusia*[3412] egin dezanean. Garai horretan (hau da, honetan) erreterri guztiak azpikoz gora[3413] jarri izango dira, urritean[3414] itorik geratuko dira, txirotasunean, eta lazeriak ilik askotan iraunen du, eta ohiz gaineko negu gorriak eta latzak izanen dira. Eta garai horretako semeak (hau da, honetako) bere ondasunak kudeatzeko inor bagerik egongo dira, beren gauzategietan beren hazkurriak[3415] gordeko dituenik ez da izango, eta sal-erosteko zeia eta azoketan apaletsiak izanen dira. Dohatsuak

3407Karrakada: crujido
3408Larrutu: (H. “fustigar”) (?) (Jorratu…?)
3409Jorratu: (H. “amonestar”) (Larrutu…?)
3410Zaparrote: rechoncho
3411Erauntsi: (H. “tronó”) (?)
3412Parusía: (hitz grekoa, “Jeskristoren etorrera” edo esan nahi duena)
3413Azpikoz gora j.: (H. “trastocados”)
3414Urrite: escasez / Lazeria: penuria
3415Hazkurri: alimento, nourriture, comida

ordurako bizi ez daitezenak, edo, biziz gero, bizirik irautea erdiets dezatenak! Helduko da orduan galmendiaren semea, harrokeriaz puzten eta ilarraintzen[3416] den etsaia, mundu guztiari ziri sartzeko asmoz hainbat eta hainbat bertute erakusten dituena, eta zintzoen gainetik nagusitzearren, Siriak lur joko du eta bere haurrengatik negar eginen du. Ziliziak bere burua goituko du, epaitzera etorriko dena ager dakion arte. Babiloniako alaba bere ospe gorenezko[3417] tronutik jaikiko da, mingostasunaren kalizatik edateko. Kapadozia, Lizia eta Likaonia makur-makurtuko dira, zeren, giza-oste osoak suntsituak izanen baitira beren makurkerian usteldurik. Alde guztietatik barbaroen aldra-tokiak[3418] eraikiko dira eta lurraldeak okupatzeko gudu-gurdiak barreiatuko. Armenian, Ponton eta Bitinian nerabeak ezpataz hilko dira, neskatilak gatibu eroriko dira, semeek eta alabek intzestuak burutuko dituzte; Pisidia, bere aintzaz hain harro, belaunikatzera behartuko dute; ezpata Feniziaren gainean egotziko dute; Judea doluz jantziko da eta galmendiaren egunerako adelatuko[3419] da, bere lohikeriagatik[3420] irabazi bezala. Alde guztietatik izua eta hondamena[3421]. Antikristok

3416Ilarraindu: (H. “se gloria”) (Vanagloriarse, engreirse..)
3417Ospe goren: (H. “esplendor”)
3418Aldra-toki: (H. “campamento”) (N) (?)
3419Adelatu: prestatu, atondu, inguratu...
3420Lohikeria: (H. “impureza”)
3421Hondamen: desolación

mendebaldea birrinduko[3422] du eta bide guztiak suntsituko ditu, haren eskuek ezpatari eutsiko diote eta sua egotziko eta oro erreko du, kiskaliko du suminezko garraren indarkeriaz: haren indarra biraoa izanen da, haren eskua zimarkua[3423]; eskuina suntsipena, ezkerrak ilunpeak[3424] ekarriko ditu. Honako bereizgarri[3425] hauengatik ezagunetsiko dute: haren burua su gorizkoa izanen da, haren eskuineko begia odoletan egonen da, ezkerreko begia berde argitsua katuena[3426] bezalakoa, bi ninikoa, eta betileak urdinak, haren beheko ezpaina handia, izterrezurra ahula, oinak handiak, erpurua[3427] xapal eta luxea ukanen ditu!

— Bere erretratua bera zirudik –iruzkindu zidan Gilenek irri-mintzoz eta ia-ia entzungaitz.

Esaldia oso gupidagea[3428] zen, baina eskertu egin nion, ileak zut jarten hasiak bainituen, ordurako. Barreari ozta-ozta eutsi nion, masailak puztuz eta ezpainak zabaltzeke hatsa askatuz. Agurearen azkenengo hitzok entzun eta egin zen isiluneaz gero, nik ateratu nuen zarata

3422Birrindu: (H. “arrasar”)
3423Zimarku: (H. “engaño”)
3424Ilunpe: (H. “tinieblas”)
3425Bereizgarri: (H. “rasgos”)
3426Katuena: (H. “felino”)
3427Erpuru: dedo pulgar
3428Gupidage: (H. “impío”)

oxen-oxen entzun zen, baina, zorionez, guztiek norbaitek eztul egin zuela uste izan zuten, edo negar, edo ikaran zegoela, eta orok horretarako arrazoirean bana.

— Eta une honetan –Jorge mintzo– oro bidebagekerian[3429] hondoratuko da, seme-alabek eskua gurasoen aurka jasoko dute, emazteak senarraren kaltetan azpilanean[3430] jardunen du, senarrak emaztea auzitegian salatuko du, ugazabek mirabeekin bihotz-gogorki jardunen dute eta mirabeek ez diete ugazabei agindurik beteko, zaharrenganako lotsarik ez da izanen, nerabeek agindu nahi ukanen dute, denek lan egitea alperrikoa dela uste ukanen dute, leku guztietan lasaikeriari, hogenari, ekandu gaiztoetako askakeriari aintzazko kantuak goratuko zaizkie. Ondorean, estrupo, adulterio, gezurrezko zin, izaeraren aurkako bekatu olde bat etorriko da, eta gaisotasunak, aztikeriak eta sorginkeriak, eta ortzian gorputz hegalariak agertuko deira, giristinoen artean sasi-igarleak sortuko dira, sasi-apostoluak, usteltzaileak, beltzaileak[3431], sorginak, bortxatzaileak, zikoitzak[3432], zinausleak[3433] eta faltsutzaileak. Artzainak otso bihurtuko dira, apezek gezur esango, lekaideek munduko gauzen irrika

3429Bidebagekeria: (H. “arbitrariedad”)
3430Azpilan: (H. “intriga”)
3431Beltzaile: (H. “impostor”)
3432Zikoitz: (H. “avaro”)
3433Zinausle: (H. “perjuro”)

izanen dute, txiroak ez dira nagusien urgaztera helduko, ahaldunek ez dute gupidarik izanen, justuak injustiziaren lekuko bilakatuko dira. Hiri guztiak lurrikarek joko dituzte, lurralde guztietan izurriteak izanen dira, haize-ekaizte gogorrek lur-hodei handi-handiak jasoko dituzte, soroak kutsaturik geratuko dira, itsasoak eriongai[3434] beltzaxkak isuriko ditu, ilargian inoiz gertatu ezeko mirakuluak agituko[3435] dira, izarrak euren ohiko bidetik aldaratuko dira, beste izar ezezagun batzuk ortzian zehar ibiliko dira, udan elurra eginen du eta neguan bero itogarria. Azkenaren aldia eta aldiaren azkena heldua izanen da… Lehen egunean tertzia-orduan ortzian ahots ozen eta sendo bat goitituko da, hodei purpurakara goi-iparraldetik hedatuko da, ostotsak eta oinaztargiak haren atzetik, eta lurbiraren gainean odol-euria eroriko da. Bigarren egunean lurbira bere lekutik erauzia izanen da eta su handi batetiko keak zeruko ateak zeharkatuko ditu. Heren egunean, kosmosko lau bazterretatik lurbirako amildegiek burrunba eginen dute. Ortziko erpinak[3436] pitzatuko dira, eguratsa ke-zutabeez beteko da eta sufre-hatsak[3437] hamargarren orenera[3438] arte

3434Eriongai: (H. “humor”) (N) (erion: jario)
3435Agitu: gertatu, jazo / gauzatu
3436Erpin: (H. “pinácuko”)
3437Hats: (H. “hedor”)
3438Oren: ordu

iraunen du. Laugarren egunean, goizean argi hastean amildegia urtuko da eta trumoiak aurtikiko ditu, eta eraikinak eroriko dira. Bosgarren egunean izar-ilargiek ez dute beren egitekoa eginen. Seigarren egunean, laugarren orenean ortzia sortaldetik sartaldera urratuko da eta aingeruek lurbirarantz so egin ahal izanen dute, zeruetako arrakalatik, eta lurbiran dagozkeen guztiek aingeruak ikusi ahal izanen dituzte, berauek zerurean begira egonik. Orduan gizaki guztiak mendietan ostenduko dira aingeru zintzoen begiradatik ihes egitearren. Eta zazpigarren egunean bere aitaren argitan Kristo iritsiko da. Eta orduan onen epaiketa eginen da eta gorputz-arimen betiereko zoriontasunean onartuak izanen dira. Ez duzue, baina, honetaz gogoetarik eginen gaueon, anaia harroputzok! Ez dute, alta, bekatariek zortzigarren eguneko goiztiria ikusiko, ekialdetik zeru erditara jaikirik ahots leun eta melodiatsua aditzean, eta beste aingeru santu guztien buru den aingerua agertzean, eta aingeru guztiak harekin aurrera joaitean, hodei-gurdi batean eseriak, eguratsean gaindi pozez gainezka antxintxika, sinetsi duten hautatuak askatze aldera, eta guztiok batera pozez atseginetan mundu honen suntsiketa burutu eta! Ez, ez gara poz-poztuko harroki gaueon! Baina gogoeta, bai, eginen dugu Jaunak bere ondotik absoluzioa irabazi ez

dutenak aldentzeko eginen dituen hitzez: «¡Urrun zaitezte nigandik, madarikatuok, suntsi zaitezte deabruak bere ministroekin prestatu dizuen betiereko suan! Zuek zeuek horixe irabazi baituzue! Goza ezazue orain zuen saria! Urrundu ningandik, jaits kanpoaldeko ilunbeetara eta iraungiezineko sura! Izaera neuk eman dizuet, eta zuek beste baten atzetik joan zarete! Beste ugazaba baten mirabe bihurtu zarete, zoazte ea harekin ilunbeetan bizitzera, harekin, menia egiten ez duen sugearekin, hortz-haginen karraskots artean! Belarriak eman nizkizuen eskriturak adi zenitzatentzat, eta jentilen eleak entzun zenituzten! Ahoa egin nizuen Jaungoikoa lauda zenezatentzat, eta olerkarien gezurretarako erabili izan zenuten, eta bufoien igarkizunetarako[3439] halaber! Begiak eman nizkizuen nire arauen argia ikus zenezatentzat, eta ilunbeetan arakatzeko erabili izan zenituzten! Epaile gizatiarra nauzue, baina zuzena. Bakoitzari berea emanen diot. Zuekin gupida izan nahi nuke, baina zuen edalontzietan ez dut koiperik edireiten. Zuekin errukiti izaiteko gerturik nengoke, baina zuen argiontziak kez lausoturik dagoz. Urrun zaitezte nigandik....» Honela mintzatzen zen Jauna, Eta orduan

3439Igarkizun: (H. “enigma”)

haiek… eta gu, beharbada, betiereko oinazetara jaitsiko gara. Aitaren, semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

— Amen! –erantzun zuten guztiek aho batez.

Erreskadan, xuxurla bakar bat ere bagez, lekaideak nor bere gelarantz joan ziren. Iruzkinik egin gura ez eta frantziskotarrak ere itzaldu ziren, eta Aitasantuaren gizonak orobat, bakargoarekin atsedenaren bila. Ene bihotzak min zuen.

— Ohera, Adso –Gilenek niri, erromesen aterpetxeko mailetan gora zihoala–. Ez duk ibilian-mibilian[3440] ibiltzeko gaua hau. Bernardo Gui-ri munduaren azkena aurreratzea otu lekiokek, gure larrutik[3441] hasita. Bihar matutietara joanen gaituk, ahalaz, zeren, eliz-jarduna bukatutakoan, Michele eta beste frantziskotarrak hemendik joango baitira.

— Bernardok ere bere gatibuekin alde eginen ote du? –ahots-hari mehez galde egin nion.

— Bai, eiki. Hemen ez dik egitekorik. Avignonera Michele baino lehenago iritsi nahi, eta beronen helduera sehiburuaren auziarekin batera izan dadin nahiaz, hots, frantziskotar, heretiko eta hiltzaile hori sehiburu hori auzitan

3440Ibilian-mibilian: (H. “dando vueltas”) (N)
3441Larru: (H. “carcasa”)

duelarik. Sehiburuaren erreketa Michele eta Aitasantua elkartzeko lehenbiziko zuzi lagungarri eta argigarria izanen duk.

— Eta Salbatoreri zer… eta neskatxari?

— Salbatore sehiburuarekin joanen duk, honen epaiketan lekuko izan behar baitu. Agian, zerbitzu honen ordain Bernardok bizia barkatuko ziok. Agian, ihes egiten utziko ziok eta gero hilaraziko. Balitekek, agian, benetan aske uztea, zeren, Salbatore bezalako inor ez baizaio ezer Bernardo bezalakori. Egunerean baten, heldubada, bidaiariak hiltzen bukatuko dik, Languedoc-eko basorean baten...

— Eta neska?

— Esan diat, bada, sutarako haragia dela. Baina lehenago erreko ditek, bidean, itsasaldeko baserri kataroentzako eredugarri. Entzun dudanez, Bernardo bere kide Jacques Fournier-ekin buru egin beharrean duk (gogora izen hori; oraingoz albitarrak[3442] kiskaltzen ditik, baina gorago jo nahi dik), eta sorgin eder batek egur-meta baten gainean haien bien ospea eta izen ona handitzeko oso balio handia dikek.

3442Albitar: (H. “albigenses”) (Albi Frantziako hiri bat)

— Baina ezin da ezer egin salba daitezen? –oihu egin nuen–. Abadeak ezin du bitartekari egin?

— Norengatik? Sehiburuarengatik, aitortu duen erruduna izanik? Salbatore doilorrarengatik? Edo, apika, neska al duk buruan?

— Eta horrela balitz? –erantzuten ausartu nintzen–. Sakonean, hiruetarik errubage bakarra da. Ongi dakizu sorgina ez dena...

— Eta uste ote duk, gertatua gertaturik, Abadea geratzen zaion izen onetik apurra arriskuan ezarteko prest legokeela, sorgin baten gaizkatzeko?

— Ubertinoren ihesa bere arduratzat hartu zuen, ba!

— Ubertino bere fraideetako bat zuan, eta deusen salaketarik ez zian. Gainera, zelako kokolokeriak diozkistak: Ubertino garrantzi handiko laguna zuan. Bernardok bizkarretik, ez bestetik, eraso ahal izango zioan.

— Sehiburua, beraz, zuzen zegoen: inozoek beti ororen ordaintzaile, beren alde mintzatzen direnen ere bai, Ubertino edota Michele bezalako lagunen ere ordainetan, berauek euren penitentzia-predikuez matxinadara bultzatu baitituzte!

Etsirik nengoen; neska *fraticellie*tako heretikoa ez zela ere ez zen haintzat hartzen, Ubertinoren mistikaz liluratua izan baitzen. Baserritar hutsa zen, eta berari ez zihoakion zerbaitegatik ordainduko zuen.

— Hala duk –Gilenek goibel erantzun zidan–. Eta justiziaren itxaropen eske bahabil, esango diat, ezen, egunerean baten, bakeak egitearren, zakur handiak, Aitasantua eta enperadorea txakur ttikien gorputzen gainetik iragoko direla, berauek haien izenean borrokatzen izan baitira. Eta orduan Michele edo Ubertino egun heure neskatxak jasaiten duen tratu berdina pairatuko dutenak izanen dituk.

Orain badakit Gilen profezia egiten ari zena, hau da, filosofia naturalaren hatsarreen funtsetan hausnartzen. Baina une haretantxe ez beraren profeziek ez arrazoimenduek eskaini zidaten inolako atsekirik[3443]. Egia bakarra, beraz, neska erre egingo zutena. Eta ni, nolabait ere, beraren zoriaren erantzule nintzelakoan nengoen, zeren, nola edo hala, harekin neuk egin bekatua ere suz pekatuko[3444] bainuen.

3443Atseki: consuelo (?)
3444Pekatu: expiar, pagar un defecto

Ezelako lotsarik bage, negarretan hasi nintzen, eta nire gelan aterpetzera laster egin nuen. Gau osoa lastairari hozka eta ahalgez[3445] intzirika eman nuen, izan ere, ez zitzaidan haizu[3446] damu ere izaitea, nire maitearen izena aldarrikatuz –zaldun-eleberrietan irakurria nuen bezala, Melk-eko nire lagunekin irakurtearren eman eta hartu egin ohi bainituen–.

Nire maite lurtar bakarraz ez nekien, eta inoiz ere ez nuen jakinen, izena.

SEIGARREN EGUNA

3445Ahalge: (H. “Impotente”) (?) (Ahal+ge)
3446Haizu: (H. “permitido”)

SEIGARREN EGUNA

MATUTIAK

Honetan sederunt principes*, eta Malakias azpira erortzen da.*

Matutietara jaitsi ginen. Gauaren hondar aldi hura, egun berriaren lehena doi, are lainotsuago zen. Kalostrapetik gindoazela, hezetasuna hezurretaraino sartzen zitzaidan,

bukatu berri nuen gaualdi txarragatik min-min eginda nituen hezurrak. Eliza hotzik egon arren, hango gangen azpian belaunikaturik lasaitu bat hartu eta hasperen egin nuen, aterpe egonki pozarren, eta besteen soinen beroaz eta otoitzarenaz suspertuxea[3447].

Salmoen kantika hasi eta laster, Gilenek jarleku huts bat begirarazi zidan, gure aurrean ziren jarlekuen artean, Jorgeren eta Pacifico da Tivoliren artean. Malakiasen jarlekua zen. Eseri ere, berau beti itsuaren ondoan eseri ohi zen. Eta horren hutsuneaz ohartu ginen bakarrak ez ginen. Alde batetik, Abadearen begirada urduria tupustean ikusi nuen, halako hutsuneek zer-nolako berri edo albiste txarrak zekartzaten ongi bai ongi baitzekien. Eta beste aldetik, Jorge zaharrarengan halako asaldurattoa somatu nuen. Iluntasunak haren aurpegia doi-doi ikusten uzten zuen, haren begi zuri argirik bagekoek begitarteari halako irudi bakan bat emaiten zioten aurpegia, eskuak, aldiz, urduri geldigaitz. Zinez, behin eta behin bere ondoan haztamuka[3448] egin zuen, lekua hutsik zegoela egiaztatu nahi bezala, nolabait. Tarteka-tarteka behin eta berriz egiten zuen, han ez zegoena noizbait

3447Suspertu: (H. “reconfortar”)
3448Haztamuka: palpando, tanteando

agertuko zela uste balu bezala, baina, aldi berean, berriz ere agertuko ez zela beldur balitz bezala.

— Non ote dago liburuzaina? –murmur[3449] batean Gileni galde egin nion.

— Oraintxe –Gilenek erantzun–, liburua eskura ahal duen bakarra Malakias duk. Krimenen erruduna ez bada, beharbada horrako liburu horrek dituen arriskuen berrririk ez dik…

Orduantxe gehiago ezin esan. Itxaron beharra. Eta itxaron: guk; Abadeak, jarleku hutsari begira beti; eta Jorgek, itzalari esku itsuez galdeka bezala.

Otoitz-jarduna bukatutakoan, Abadeak lekaide eta gaiei gogora zien Gaboneko meza nagusirako gertutu behar zirela, eta, ohi legez, laudeak izan arte, egitaldi horretarako prestatuak ziren kantuak emaiteko taldea nola egokiturik zegoen probatzera egingo zuela adiarazi zien. Hala zen[3450], gizon jainkozale haien taldea gorputz eta ahots bat bakarra balitz bezala zegoen harmonizatua, eta urteen urtez kantuan bat eginik zegoen, arima bakarra laso.

3449Murmur: susurro
3450Hala zen: (H. “En efecto”) (Zinez /)

Abadeak *Sederunt* kantatzeko manu eta tonu eman zuen:

Sederunt principes

et adversus me

loquebantur, iniqui.

Persecuti sunt me.

Adjuva me, Domine,

Deus meus salvum me

fac propter magnam misericordiam tuam[3451].

Neure buruari galdez, ea Abadeak erabaki al zuen halako graduala[3452] gau haretantxe hain zuzen, artean printzeen ordezkariak bertan zegozelarik, gogorarazteko, duela hainbat mendedanik gure balderna hau ahaltsuen jazarpenei aur egiteko prestatua dagoela, nola eta Jaunarekiko, gudarosteetako Jainkoarekiko lokarri pribiligiatua, berezia baliatuz. Eta, zinez, kantikaren hasteak ahalmen eskergearen[3453] zirrara eragin zuen.

3451Sederunt.- Printzeak eseri ziren, eta nire aurka maltzurrak mintzatzen ziren. Lagun iezadazu, Jauna, ene Jaungoiko, gaizka nazazu, zure erruki handiagatik.

3452Gradual: mezako zera bat

3453Eskerge: inmenso (?)

Lehenengo silabaz, geldiro eta ospe handiz, hainbat eta hainbat ahotsen korua hasi zen, eta soinu baxua habearte guztietan zehar hedatu zen eta gure buruen gainetik hegan legez zebilen, nahiz eta aldi berean lurbiraren erdirean sortua zela irudi. Eta beste ahots batzuk, lerro sakon eta taibage haren gainean, solfeo eta melisma[3454] batzuk ehuntzen hasi zireino, hango soinu telurikoa ez zen isildu: gailen eta aldian iraun zuen, ahots astitsu eta kadentziatsuak Agur Maria hamabi bider berrizkatzeko adinako aldian. Eta beldur orotik aske bezala, silaba luzakor harek, betiereko iraunaldiaren alegia, otoizlariengan eragiten zuen konfiantzagatik, beste ahotsak (fraidegaienak batez ere), batzuk besteen gainetik igaiten ziren. Honela eginaz, oinarri harrizko eta kordokagaitzean irozorik[3455], neuma[3456] nahasgarri[3457] batzuetako erpinak[3458], habeak[3459] eta tiniak[3460] eraikitzen zituzten. Eta nire bihotza, *climacus* edo *porrectus*, edo *torculus* edo *salicus* baten dardaragatik, txunditzen[3461] zen bitartean, harako ahots haiek zera ziostatela zirudien:

3454Melisma: gerkeratiko hitza, “kantu” era berezi bat adiaraztekoa.
3455Irozo: (H. “sostener”)
3456Neuma: Gerkeratiko hitza, kantuarekikoa.
3457Nahasgarri: (H. “licuescente”) (?)
3458Erpin: (H. “cúspide”) (?)
3459Habe: (H. “columna”)
3460Tini: (H. “pináculo”) (?)
3461Txunditu: (H. “pasmar”)

arima (otoizlariena bezala nirea, haiei adi zegoena), sentimenduen oparotasuna[3462] jasan ezinean, haien bitartez pitzatzen zen, alaitasuna, mina, laudorioa eta maitasuna adiaraztearren, soinutasun leun-leunen xoraldi[3463] betean. Bizkitartean, ahots atonikoen seta[3464] hisitia[3465] ez zen gelditzen; bazirudien etsaien presentzia mehatxagarria, Jaunaren herriari jazarten zioten ahaltsuena desagertzen izan ez balitz bezala. Noiz arte eta, azkenik, nota bakarreko iskanbila neptuniko hura garaitua zela irudi arte, edo nolabait atzemana behintzat, aurrez aur zuen poz aleluikoaz, eta akorde majestatetsu eta hobezinaz azkendu zen, neuma supino batean.

«*Sederunt*» ahoskaturik, astiro eta ia trakeski, airean gora «*principes*» joan zen, baretasun neurtezin eta serafiko betean. Ez nuen gehiago galdetu nor ziren nire aurka (gure aurka) mintzatzen ziren ahaltsuak: mamu eseri eta mehatxagarri haren itzala itzaldua zen, haizatua[3466].

Eta beste mamu batzuk ere, orduan nik uste, une haretantxe suntsitu ziren, zeren, nire arreta, lehenttoago

3462Oparotasun: (H. “exuberancia”) (?)
3463Xoraldi: (H. “arrebato”) (?)
3464Seta: (H. “empecinamiento”)
3465Hisiti: (H. “obstinado”)
3466Haizatu: (H. “disipar”)

kantuan ezarria, berriz ere Malakiasen jarlekura joan zenean, liburuzaina bazegoela ohartu bainintzen, beste otoizlarien artean, bere lekuan beti hutsunerik bage egon bailitzan. Gileni so egin nion eta honen begietan lasaitasun izpi bat ikusi uste nuen, urrundik Abadearenetan ere ikusi uste nuena bezalakoxea. Jorgek, berriz, eskuak luzatu zituen, beste behin, eta bere jarkidearen[3467] soinarekin tupust egin zueneantxe, di-da, atzera kendu zituen. Honela ere, ez nintzen ausartuko beraren sentimenduak nolakoak ziren esatera.

Une haretan korua jaigiro antxean «*adjuva me*» kantatzen ari zen, eta *a* argia elizan barrena goxoki zebilen, *u* ere ilun ez, «*sederunt*»-ekoa ez bezala, indar eta santutasunez betea baitzen. Fraideak eta gaiak abesten ari, soina xut, kantuaren arauak agindu legez, eztarria jareginik, burua goiti, eta liburua abantzu sorbalden mailan, burua apaltzeke irakurri ahal izaitearren, eta biriketatik ateratzen den airearen indarra moteldu bagez. Baina artean gaua zen, eta pozaren turutek burrunba egin arren, loaren lainoa kantari haietako askoren gainean barreiatzen zen. Nota luze batean ahoskatzerakoan nolabait galduxerik, kantikaren uhinari jarraikiz, noiz edo noiz burua apaltzen zitzaien,

3467Jarkide: compañero de asiento (Jarri+kide)

logurak azpian hartu eta. Orduan, zaindariek, arrisku beretik galdu-bidean orobat, banan-banan fraideen eta gaien begitarteak arakatzen zituzten, loaren mendetik atzera askatu eta, bai gorputzez bai gogoz edo arimaz, otoitz-abestietara bihurrarazteko xedez.

Zaindari batek, bada, zuen ikusi lehenik Malakias era bakanean, berriz ere bat-batean loaren amildegian eroria bezala, gau osoan atzeratua edo zuen loan. Argiontzia bere aurpegira hurbildu zuen, eta argitu baikoz ni erne begira harriturik. Liburuzainak zirkinik ez. Orduan zaindariak ukitu zuen, eta haren gorputza, astun erori zen, buruz aurrera, dzanpez. Zaindariak ozta-ozta eutsi zion lurra jo aitzin.

Kantika leunagotu zen, geldoagotu, ahotsak iraungi ziren, zalaparta labur bat sortu zen. Gilen bat-batean bere jarlekutik jaiki zen, eta berehala amildu bezala Pacifico da Tivoli eta zaindaria zegozen lekura jo zuen, Malakias, arnasge[3468], zeratzaten[3469] unean.

Abadearekin batera heldu ginen, abantzu, eta giriseiluaren argiz zoritxarreko haren aurpegia ikusi genuen. Malakiasen itxura azaldu dut, baina gau haretan, argiontziaz argitua, Herioren irudia bera zen. Sudurra zorrotza, begiak

3468Arnasge: (H. “exánime”)
3469Eratzan: hacer acostar (Etzan)

zulo, lokiak[3470] unbil[3471], belarriak xuri-uxkurtuak eta gingilak[3472] kanpo alderantz bihurtuak, aurpegiko azala ihartua, zurrundua eta gogortua, masailak oriztak eta itzal ilunekikoak. Begiak, artean, zabalik, hatsa ozta-ozta ezpain idorretatik jalgiten. Gilen haren aurrean belauniko zegoen eta ni beronen gibeletik begira, eta ahoa zabaltzen zuela ohartu nintzen, eta mingain beltxaxka hortz-hesiaren barruan higitzen zela. Gilenek haren lepoa beso batez inguratu zuen, jasoteko asmoz, eta beste esku batez izerdi geruza mehe-mehea xukatu zuen, gaingiroki, bekokia xahutuz. Malakiasek ukidura sumatu zuen, norbait zegoela ohartu, eta aurrekoari adi-adi so egin zion, beharbada deus ikusteke, aurrean zegokiona ezagutzeke. Esku dardarti bat jaso zuen, Gileni paparretik heldu zion, oratu gogorki, honen aurpegia berearengana hurreratu zuen, ia-ia elkar ukitzeraino, eta ahots ahul batez, mottel-mottel, erlasturik[3473], hitz batzuk oguzi[3474] zituen:

— Esan zidan… egia zen… mila arrabiok[3475] adina indar zuela...

3470Loki: sien (Lo, Lolo...)
3471Unbil: cóncavo
3472Gingil: lóbulo de oreja
3473Erlats: ronco (zakar...)
3474Oguzi: pronunciar, emitir palabras (Larr.)
3475Arrabio: (H. “escorpión”) (Harruli...)

— Nork esan zizun? –Gilene galde egin zion–. Nork?

Malakias saiatu zen berriro mintzatzen. Gero, ikara latz batek astindu zuen eta burua gibelerantz erori zitzaion. Aurpegia marguldu[3476] zitzaion guztiz, bizi antz guztia galdu. Hilotz zetzan.

Gilen zutitu zen. Abadea bere ondoan ikusi zuen, eta ez zion ezer esan. Geroago, Abadearen ostean, Bernardo Gui begiztatu zuen.

— Bernardo jauna –Gilenek–, nork hil du hau? Zuk jakinen ahal duzu, horren ongi ediren eta zaindu baitituzu hiltzaileak.

— Ez niri galde –Bernardok–. Inoiz ez dut esan abadia honen inguruan dabiltzan gaizto guztiak justiziatara eman ditudanik. Egingo nuen, gogotik, ahal izanez gero. –Gileni begiratu zion–. Baina besteak Abadearen esku zorrotz… edo errukiberegietan[3477] utziko ditut orain –esan zuen, Abadea, isil-isila, zurbiltzen zen artean. Eta aldendu egin zen.

Une haretan txio baten antzeko zerbait entzun genuen, zinkurin[3478] erlatsa[3479] bezalakoa. Jorge zen,

3476Marguldu: perder el color
3477Errukibera: indulgente (-egi: excesivamente…)
3478Zinkurin: (H. “sollozo”)
3479Erlats: (H. “rauco”)

belaunaulkian[3480] makurturik, fraide batek zeutsola.[3481] Gertaturikoa, inola ere, lehenttoagotik azaldua zion edo.

— Ez da inoiz azkenduko… –ahots urratuaz esan zuen–. Oi, Jauna, barka iezazkiguzu guztioi!

Gilen berriro atzera hilotzaren gainera makurtu zen. Eskuturrei heldu zien eta ahurrak argitara bihurtu zizkion. Eskuineko lehenengo hiru hatz-mamiak beltzez zikinduak zeduzkan.

SEIGARREN EGUNA

LAUDEAK

Sehiburu berri bat bai baina liburuzain berri bat hautatzen ez denekoa.

3480Belaunaulki: reclinatorio
3481Zeutson: eutsi aditza (hark-hari)

Laudeen ordua bazen? Lehenago edo geroago ote zen? Une haretaz gero, noiz non[3482] ez nekien. Orduak eta orenak joan ziren, heldubada, agian ez hainbat, elizan Malakiasen gorpua katafalko baten gainean zeratzaten artean, eta beraren anaiak baranoan jarten hasi ziren. Abadeak elizkizunak laster egingo zirela eta agindu eta agindu. Bentziori eta Nicola da Morimondori deitu ziela aditu nuen. Egunbete bagerik, esan zuen, abadia liburuzain eta sehibururen peitu zen.

— Zuk –Nicolari–, Remigioren egitekoak hartuko dituzu. Monasterioan egin ohi diren atazarik gehienak ezagunak dituzu. Jar ezazu norbait zure ordez aroztegian, eta ardura zaitez egun egin beharrekoez, sukaldean eta jatokian. Otoitzetara ez etorteko baimena duzu. Zoaz. –Eta ondorean Bentziori–: Atzo arratsaldean, hain zuzen, Malakiasen laguntzaile izendatua izan zinen. Ardura zaitez *scriptorium* irekitzeaz eta erne liburutegira inor bakarrik igo ez dadin.

Bentzio, apal-apal, leku haretako zerez jakinaren gainean ez zegoela ihardetsiz adiarazi zion. Abadeak begirada zorrotz eta:

3482Noiz non: (H. “perdía la noción del tiempo”) (?)

— Inork ez du esan egongo zarenik ere. Erne eta begira lana eten ez dadintzat, eta izan bedi lana otoitz hildako anaien aldekoa… eta gaurgero hilko direnen. Lan beza nork berari egokitu zaion liburua. Nahi dezanak kontsulta beza katalogoa. Hori baino ez. Bezperetara ez etorteko baimena duzu, ordu horretan dena itxi behar duzu eta.

— Eta nola irtengo dut?–Bentziok galdetu zion.

— Bai, hori ere bada. Abariaz gero, beheko ateak nik itxiko ditut. Orain zoaz *scriptorium*era.

Abadeal haiekin batera irten zuen, Gilen saihestuz, beronek mintzatu nahi bazion ere. Kortxilan[3483] lekaide taldetto bat geratu zen: Alinardo, Pacifico da Tivoli, Aymaro d'Alessandria eta Pietro da Sant'Albano. Aymarok aurpegiera isekaria[3484] zuen.

— Demaizkiogun eskerrak Jaunari –esan zuen–. Alemaniarra hilda gero, arriskua bagenuen, hots, are barbaroago zen beste liburuzain berri bat hautatua izango zen arriskua.

— Nor uste duzue izango dela haren ordezkoa? –Gilenek galde.

3483Kortxila: koru, elizako galeria
3484Isekari: (H. "sarcástico")

Pietro da Sant'Albano-k irri ulertezina[3485] egin zuen:

— Egunotan gertatu izan den oroz gero, arazoa, dagoeneko, ez da liburuzaina, Abadea baizik...

— Isildu –Pacificok.

Eta Alinardo, beti begirada galdurik:

— Beste injustizia bat egingo dute… nire garaian bezala. Geldiarazi beharra dago.

— Nor? –galdetu zuen Gilenek.

Pacificok besotik heldu zion, era onez, eta agureagandik urrundu zuen, aterantz.

— Alinardo... badakizu, oso maite dugu, guretzat antzinako ekandua da, abadiaren garairik onena… Baina batzuetan zer dioen jakin bagerik mintzatzen da. Guztiok liburuzain berriagatik kezkaturik gagoz. Duina, heldua, jakintsua izan beharko da… Besterik ez.

— Gerkera jakin behar ukanen al du? –Gilenek harzara galde egin zuen.

3485Ulertezin: (H. "enigmático")

— Eta arabiera, honela nahi du ohikuntzak, honela behar du langintzak. Alta bada, gure artean horrelakoak ugari. Ni neu bat, apalkiro, eta Pietro, eta Aymaro...

— Bentziok gerkera daki.

— Bentzio gazteegi da. Ez dakit zerarren Malakiasek atzo bere laguntzailetzat hautatu zuen...

— Adelmok gerkera bazekien?

— Ezetz uste dut. Ez, ziur ezetz.

— Baina Benantziok bai. Eta Berengariok ere bai. Ondo dago. Eskerrik asko.

Sukaldean zerbait hartzera joan ginen.

— Zergatik nahi izan duzu jakin nork dakien gerkeraz? – galde egin nion.

— Hatzak belzturik hil diren guztiek gerkeraz zekitelako. Honelatan, bada, ausaz, hurrengo hilotza haietako batena izango ahal duk. Nerau ere bai. Hi, berriz, eskierrik[3486] hagoke.

— Eta zer deritzezu Malakiasen azkenengo hitzei?

3486Eskier: (H. “a salvo”) (?) (Eskierki: Por lo visto, al parecer; seguramente, ciertamente. "C'est un adverbe explétif, qui répond au latin scilicet ".

— Aditu dituk. Arrabioak. Bosgarren turutak otien agerpena iragarten dik, badakik, gizakiei oinaze eginen dietenak, arrabioenak bezalako eztenez, hain zuzen. Eta Malakiasek esan zigunez, norbaitek jakinarazi zioan.

— Seigarren turutak –ni mintzo– lehoi-burudun zaldiak iragarten ditu, ahotik kea, sua eta sufrea egozten dituztenak, eta, haien gainean, gizaseme batzuk su, hiazinto eta sufre-margoko korazez jantzi-estaliak.

— Gauza gehiegi. Hala ere, hurrengo krimena zalditegi inguruetan gerta litekek. Erne begiratu behar. Eta adela[3487] gaitezen zazpigarren turuta-joaldirako. Beraz, bi lagun ditiagu. Nor ote liteke hautagairik ahalezkoena? Helburua *finis Africae*ren isilpekoa bada, dazaguena. Eta, nik dakidala, Abadeak ez bestek… Abadea jakinaren gainean zagok. Nondik-norakoa beste bat ez bada. Aditu berri duk: Abadea kentzeko zeinbait azpijoko bazabilak; Alinardo, berriz, batzuka[3488] mintzatu duk.

— Abadea ohartarazi beharra dago, beraz –nik.

— Zertaz? Hilko dutenaz? Ez diat froga sinesgarririk[3489]. Hiltzaileak nik bezala pentsatuko bailuan ari nauk. Baina,

3487Adelatu: prestatu, gertutu...
3488Batzuka: (H. “en plural”) (N) (?)
3489Sinesgarri: (H. “convincente”)

eta beste xede batez eginen balu? Eta, oroz gain, beste hiltzailerik ez balego?

— Zer esan nahi duzu?

— Ez zakiat zehazki. Honela ere, esan diat: gora-behera guztiak irudikatu beharra zagok, eta behera-gora guztiak ere bai.

SEIGARREN EGUNA

PRIMA

Nicolak hainbat gauza jaulkitzen ditu, altxorraren kripta bisitatzen den artean.

Nicola da Morimondo, sehiburu berri, sukaldariei agintzen ari zitzaien, eta hauek berari sukaldeko hara-honakoen berri emaiten. Gilenek zerbait esan nahi zion, baina minutu batzuk itxaraiteko esan zigun. Ondorean altxorraren kriptara jaitsi behar zuela esan zigun, erlikarioen garbiketa-lana aztertzearren, artean haren ardura berea zela eta, bertan hitz egiteko asti luzeago izanen zuela.

Eta halaxe izan zen, harik laster jarrai gakizkion gonbidatu gintuen. Elizara sartu zen, aldare nagusiaren atzetik irago zen (lekaideak katafalko bat atontzen ari ziren, Malakiasen gorpu-hondakinak begiratzeko, gau beilan habeartean) eta eskaileratto batetik jaistera joan gintuen. Behealdean areto handi ganga sendo apal batzuen pean eta landu bageko harriez eraikitako zutabe lodiek irozoriko batean gengozen. Abadiako aberastasunak gordetzen ziren kripta zen; Abadea altxor horretaz harro zegoen oso; une jakin guti batzuetan ez bestetan zen irekitzen arrotz ezohiko eta txit garrantzitsu zeinbaitentzat baino ez.

Han-hor hainbat neurritako erlikarioak zegozen, eta haien barruetan zuzien argiek (Nicolaren ondoko laguntzaileek izekiak) gauzak ederraren ederrez inoizko

dirdaitsuen bihurtzen zituzten. Urrezko apaindurak, urrezko koroa harribitxiez josiak, metal ezberdinezko kofrettoak, irudikiez eginiko historia-orriak, damaskinatuak, boliak[3490]. Nicolak liluraturik ebangelio-liburu bat erakutsi zigun. Honen koadernazioa esmalte-xafla batzuekikoa zen, eta harribitxi batzuez iltze antzo josiak. Tabernakulu delikatu bat erakutsi zigun *lapis lazuli* eta urrezko bi habe zeduzkana, non hilobiratze azpierliebe zilarrezko irudiztaturik baitzegoen, eta urrezko gurutze bat buru, hamairu diamantez apaindua, barrenaldea sardonize tartekatuarekin, frontoi ttikia, berriz, agata eta errubi batzuk zinbria bezala ipinirik. Gero diptiko kriselefantino bat ikusi nuen, bost zatitan sailkatua, Kristoren bizitzako bost eszenarekin, eta erdian bildots mistiko bat zilar urreztatuzko eta beira-pastazko albeoloez egina, ezko zurizko barrenalde baten gainean zegoen irudi polikromatu bakarra.

Gauza haiek erakusten zizkiguino, Nicolaren hazpegiak, begitarte eta imintzioak harrotasunez argiztatzen ziren. Gilenek ikusi berri zuen hura guztia goretsi zuen, eta ondorean Nicolari galdera, ea nolako laguna zen Malakias.

— Itaun harrigarria hori –Nicolak–, zuk ere ezagutzen zenuen.

3490Boli: marfíl.

— Bai, ez nahikoa, ordea. Inoiz ez nuen ulertu zer-nolako burubideak ezkutatzen zituen… ez… –zalantzan zegoen hil berri zen batez eritzi emaiterakoan– … baldin bazituen.

Nicolak hatz bat busti zuen, beira ez erabat garbi zegoen baten gainetik irago zuen, eta irri egiteaz batera erantzun zion, Gileni begiratu bagerik:

— Badakusazu ez duzula itaundu behar… Egia da, askoren ustez, itxura hausnarkorraren ostean, Malakias gizon oso xumea zen, iñoxoa. Alinardoren gardiz, txotxoloa zen.

— Alinardok oraindik norbaitenganako gorrotoa du, aspaldi gertatu zera bategatik, liburuzain izaiteko duintasuna ukatu ziotenean.

— Horretaz nik ere zerbaitto aditu dut, istorio zaharra bada ere, berrogeita hamar bat urte guttienez atzera egin behar. Monasteriora iritsi nintzenean, liburuzaina Roberto da Bobbio zen, eta orduko zaharrek marmar egin ohi zuten, Alinardori eginiko injustizia edo okerkeria batez. Orduantxe ez nuen arazo haretan sakondu nahi ukan, beste agureenganako begirune eza eritzita, eta ez nuen zurrumurru haietaz ezer jakin nahi. Robertok bazuen geroago hil zen laguntzaile bat, eta honen ordez Malakias, artean oso gazte zena, jarrarazi zuten. Meriturik batere ez zuela esan zuenik

asko bazen, gerkerarekin arabieraz bazekiela zioen arren egia ez zela, hizkuntzotako eskuizkribuak kaligrafia politaz kopiatzen zekien berrizkatzaile[3491] hutsa zela, zer kopiatzen zuen ez jakin arren. Liburuzaina askoz landuagoa izan behar zela esaten zen. Alinardok, garai haretan indar handiko gizaseme, izendapen haretaz gogorrak erasi[3492] zituen. Eta hitz-erdika, Malakias langintza haretan bere etsaiari joko egitearren jarrarazi zutela iradoki zuen. Ez nuen ulertu, hala ere, nortaz ari zen. Hori duzu dena. Beti zurrumurruz hedatu zenez, Malakiasek liburutegia zain-zakur laso zaintzen zuen, baina zer jagoiten[3493] zuen ongi jakiteke. Beste aldetik, Berengarioren aurkako zurrmurru edo esames ugari ere ibili izan zen, Malakiasek laguntzailetzat hautatu zuenean. Maisua baino trebeagoa ez zela esan ohi zen, azpikari[3494] hutsa zela. Besterik ere esan izan zen, zera… baina zuk adituak izanen ahal dituzu halakokeriak… Malakiasen eta beraren arteko harreman bereziak edo... Zera zaharrak. Berengariorekin Adelmoz ere zurrumurruak izan ziren, eta kopiatzaile gazteek esaten zutenez, Malakiasek, isilpean, jeloskeriagatik nozitzen zuen lazki… Eta Malakiasen artean

3491Berrizkatu:copiar / repetir
3492Erasi: murmurar, hablar en mal sentido (?)
3493Jagon: zaindu, begiratu, babestu
3494Azpikari: (H. “intrigante”)

Jorgegaz[3495] izaiten ei ziren harremanez ere esanak eta mesanak aditzen ziren. Ez, ez irudika zenezakeen zeraz… Inork ez du inoiz deusik erasi Jorgeren onbideaz! Baina ohitura halakoxea eta liburuzainak Abadearekin egin behar du aitortza, beste guztiek, aldiz, Jorgerekin (edo Alinardorekin, baina senton[3496] zahar hau abantzu burutik egina dago)… Bada, hala eta guztiz ere, esaten zenez, Malakiasek beti Jorgerekin isil-misilkako bilkuretan jardun ohi zuen, bazirudien Abadeak beraren arima zuzentzen zuela, eta Jorgek, aldiz, gorputza, imintzioak, beraren egitekoa. Beste aldetik, badakizu, badaiteke zu ere konturatu izana: norbaitek antzinako liburu galdurean batez zerbait jakin nahi zuenean, ez zuen Malakiasengana joiten, Jorgerengana baizik. Malakiasek katalogoa zaintzen zuen eta liburutegira igaiten zen, Jorgek, berriz, izenburu bakoitzaren esan-nahia ezagutzen zuen…

— Zer zela eta zekien hainbat gauza Jorgek liburutegiaz?

— Zaharrena zelako, Alinardoz gero. Abadion gaztetatik dago. Laurogei urte baino gehiago ukanen ahal du. Esaera denez, itsu duela berrogei urte gutienez dago, eta behabada lehenagodanik...

3495Malakiasen artean Jorgegaz: Malakias eta Jorgeren artean...
3496Senton: anciano

— Nola egin zuen hainbeste jakituria biltzeko itsutu aurretik?

— Oi, beratazko kondairak badira, izan! Antza denez, umezarotik jainko-garaziak jota ei zegoen, eta han Gaztelan arabiarren eta doktore grekoen liburuak irakurri izan zituen, nerabezarora bagerik. Eta gainera, itsutu ondorean, eta orain ere bai, ordu luzez liburutegian esertzen da eta katalogoa berari irakur diezaioten agintzen du, liburuak ekar diezazkioten eskatzen zaie eta fraidegai batek ozengi orenetan eta orenetan irakurten dizkio. Oro oroitzen du, ez da Alinardo bezain ahanzkorra. Baina, zergatik galderok guztiok niri zuk?

— Orain Malakias eta Berengario hilik, nor bestek daki liburutegiko berri ezkutukorik?

— Abadeak, eta berak dizkio Bentziori ezagutaraziko… Beronek nahi dezan kontu eginik[3497]… –Nicolak–

— Zergatik nahi dezan kontu eginik?

— Bentzio gazte delako. Malakias, artean, bizirik zegoela izendatu zuten laguntzaile. Bata da liburuzainaren laguntzaile izaitea eta bestea liburuzain. Ekanduari jarraikiz, liburuzaina, geroago, Abade bihurtzen da…

3497Kontu egin: (H. “suponiendo que...”)

— Ha, horrela da!… Horregatixe duzu hain nahitua liburuzain-kargua. Alta bada, beraz, Abbone liburuzain izan ote da? –Gilenek aitzina galdez–

— Ez, Abbone ez. Hau ni heldu baino lehenago izendatu zuten, duela hogeita hamar bat urte edo. Lehenago Abade Paolo da Rimini zen, gizon bitxia, zeinaren istorio harrigarriak aletzen[3498] baitira. Irakurle ase-ezina omen zen, liburutegiko liburu guztiak buruz ezagutzen ei zituen, honela ere bazuen ahuleria bakan bat: idazteko gai ez zen, *Abbas agraphicus* esaten zioten... Abade izendatu zutenean oso gazte zen, esaten zenez, Algirdas de Cluny, Quadratus doktore eta abarren babesa zuen... hizkirimiri[3499] zaharrak, fraideenak. Azkenik, Paolo izendatu zuten Abade, eta Roberto da Bobbiok hartu zuen haren lekua liburutegian. Alabaina haren osasuna gaitz sendaezin batek jo zuen, monasterioaren etorkizuna eraendu[3500] ezin zukeela jakina zen, eta Paolo da Rimini desagertu zenean...

— Hil zen?

— Ez, itzaldu zen. Ez dakit nola, egun baten bidaiaz joan zen eta ez zen inoiz itzuli. Beharbada, lapurrek hil zuten,

3498Aletu: desgranar (H. “contar”)
3499Hizkirimiri: (H. “cotilleo”)
3500Eraendu: (H. “regir”)

bidaldian… Azkenik, Paolo desagertu zenean, Robertok ezin ordezkatu izan zuen, eta azpijoko ilunak agitu ziren. Abbome, diotenez, eskualde honetako jaunaren seme sasikoa da. Fossanovako abadian hazia zen. Oso gazte zela, San Tomas artatu omen zuen monasterio haretan hil zenean. Soin handia zuela eta mailaditik ezin eraitsi eta gorpua dorretik behera jaisteko ardura berak hartu omen… Hemengo mingain gaiztoek beraren meritu nagusia huraxe zela esaten zuten… Zena zela, Abade hautatu zuten, liburuzain izan ez arren, eta baterean batek, Robertok nik uste, liburutegiko isilpekoetan murgilarazi zuen.

— Eta Roberto zergatik izan zen hautatua?

— Ez dakit. Halakoetan muturra sartu nahi izan ez dut: gure abadiak leku santuak dira, honela eta guztiz ere, batzuetan bilbe[3501] izugarriak ehuntzen[3502] dira, Abade izaitearen inguruan. Niri neure beirak eta neure erlikarioak zitzaizkidan oroz gain arduragarri, eta ez nuen halako istorio-mistorioetan neure burua nahasirik ikusi nahi. Orain, berriz, ulertuko ahal duzu zer dela eta ez dakidan Abadeak Bentziori esku emanen ote dion: bere ondoreangotzat izendatzea izango litzateke… Mutil zuhurreza[3503],

3501Bilbe: trama
3502Ehundu: tejer (Ehun: tejido / Oihal: tela / Mihise: lienzo/mortaja)
3503Zuhurrez: imprudente (?)

gramatikari ia-ia barbaroa, ipar-iparraldekoa, nola ulertu ahal duke herrialde hau, abadia hau, eta hemengo jaunekiko harremanak nola…

— Malakias ere ez zen italiarra, ez eta Berengario ere. Honela eta guztiz ere, liburutegiaren zaintza haien esku utzi izan zen.

— Gertaera iluna da. Fraideen erasiak euren gardiz abadia honek mende erdi lehenagodanik bere ohikuntzak bazter utzi zituelako ziren… Honegatik, orain berrogeita hamar bat urte edo gehiago direla, Alinardok liburuzaintza beretzat nahi zuen. Liburuzaina beti italiarra izan zen herrialde honetan asmamen handikoak izan baitira. Eta, gainera, badakusazu… –eta honetan Nicola aiko-maiko[3504], esateko zuena esan nahi ez balu bezala–… badakusazu, Malakias eta Berengario hil dira, beharbada, Abade izan ez zitezengatik.

Zarrada[3505] sumatu zuen, eskua aurpegi aurretik irago zuen zeinbait asmo ez guztiz garbi uxatu edo haizatu nahi legez, eta ondorean aitaren egin zuen.

— Baina, zer diot? Adizu, herrialde honetan duela aspaldi gertakari lotsagarriak izaiten dira, monasterioetan ere bai,

3504Aiko-maiko: dubitativo, en duda/...
3505Zarrada: conmoción, impresión..

Aitasantuaren gortean halaber, elizetxeetan berebat… Boterea konkistatzeko borrokak, heresia-salaketak inoren prebenda bat edo beste harrapatzeko… Zein itsusia den hau guztiau, ezaina. Giza jendearenganako usteona galtzen ari naiz. Alde guztietan azpikeriak eta jauregiko satorkeriak ikusten ditut. Honetara jaitsi da abadia hau, orobat, suge-habia bihurtu da, aztikeria maltzurragatik, lehen gizon santuak gordetzeko erlikario zen honetan. Begira monasterio honen iraganaldiari!

Gure inguruan sakabanaturik zegozen altxorrak begirarazten zizkigun, eta gurutzeak eta beste gauza sakratu batzuk alde bat utzirik, erlikarioak ikustera joan gintuen, tokiko aintza baitziren, loria.

— Begira –zioen–, lantza-mutur honek Salbatzailearen saihetsa zulatu zuen!

Urrezko kutxa zen, baldia[3506] beirazkoa, eta purpura karako kuxintto[3507] baten gainean burdina zati bat zetzan, hiruangelukoa, lehen herdoildua[3508] baina orduan dirdaitsu, koipez eta argizagiz politua izana. Eta hura ez zen asko: beste kutxa batean, zilarrezko amatistez josia, atzeko horma

3506Baldi: tapa
3507Kuxin: cojín
3508Herdoildu: ugertu

gardena, gurutze santuaren enbor puxka gurgarri bat ikusi nuen, abadiara Elena erreginak berak, Konstantino enperadorearen amak eraman zuena, leku santuetara peregrinatu ondorean. Harako lekuetan Golgota zeritzon bizkaian hobi santua hustu baitzuen, geroago bertan katedral baten eraikitzeko.

Nicolak beste hainbat gauza eta hain bereziak erakutsi zizkigun, eta nik orain ezin ditut zehaztu. Erlikario batean, oro itsasurkiz[3509] osatua, gurutze santuko iltze bat zegoen. Flasko batean, arrosa ximel ttiki batzuk ohatze[3510], elorri-koroaren zati bat zegoen, eta beste kutxa batean, iharturiko lili geruza baten gainean, azken abariko zamauaren[3511] xerraño[3512] oriztatu bat. Mateo Deunaren ziskua[3513] ere bazegoen, zilarrezko sare[3514] batean; eta, zilindro batean, xerrenda ubel ihetzetu[3515] batez lotua eta urrez apaindua, Andere Dona Anaren besoaren hezur bat. Eta, miresgarrietan miresgarriena, beirazko kanpai baten azpian eta perlaz bordatu kuxin gorri baten gainean, Belengo askaren puska bat, eta Jaun Done Jon

3509Itsasurki: (H. “aguamarinas”) (Harribitxi batzuk) (N)
3510Ohatze: (H. “lecho”)
3511Zamau: mantel
3512Xerraño: (H. “jirón”)
3513Zisku: bolsa
3514Sare: (H. “malla”)
3515Ihetzetu: higatu (H. “roída por el tiempo”)

Ebangelariaren txabusina gorrixkaren zarpail bat, Petiri santu apostoluaren orkatilak estutzeko Erroman ipini kateetako bi, Adalberto deunaren burezurra, Done Ezteberen ezpata, Dona Margaritaren bernazaki[3516] bat, Vital deunaren hatz bat, Andere Dona Sofiaren saihetsezur bat, Jaun Done Eobanen kokotsa, Krisostomo deunaren sorbaldezurraren[3517] goiko zatia, Jaun Done Joseperen ezkon-eraztuna, Bataiatzailearen hortz bat, Moisesen makila, Andere Maria birjinaren ezkon-soinekoaren zati ttiki-urratu bat parpailazko[3518].

Eta erlikiak ez ziren beste gauza batzuk baina zeinbait mirariren lekuko eta urrutiko larralde batzuetako izaki mirariginenak, abadiara fraideek ekarriak, munduko azkenenengo bazter-bazterretatik ibili eta gero: basilisko bat eta hidra bat, baltsamatuak; adarbakarraren adar bat, parrau batek aurkituriko arrautza baten barruko arrautza bat, basamortuan hebrearrek eliku izan zuten mana pixka bat, balea-hortz bat, koko-intxaur bat, dilubioaurreko piztia baten besahezurra[3519], elefante baten bolizko letagin bat, izurde baten saihetsezurra. Eta nik ezagun ez nituen beste

3516Bernazaki: tibia
3517Sorbaldezur: omóplato
3518Parpailazko: de encaje
3519Besahezur: húmero

erlikia batzuk, agian ez euren erlikarioak bezain preziotsuak. Haietako batzuk (zeduzkaten kutxak ikusita, berauek zilarrezkoak, ordurako belzturik) antzin-antzinakoak: hezur, oihal, zur, metal eta beira kopuru zenbatezina. Eta hauts ilunez beteriko flaskoak, batek, geroago jakin nuenez, Sodoma hiriko hondar erreak zeduzkan; beste batek Jericoko harresietako karea zedukan. Gauzok guztiok, ttikienak ere izanik, izenon handi-handia erakartekoak, edozein enperadorek haien ordain bere feudo bat baino gehiago emango baitzuen. Guri ostatu gozagarri emaniko abadiaren aberastasun itzela.

Harriduraz harridura nenbilen, bira-biraka, Nicolak gauza haien nondik-norako guztiak azaltzeari uzten zion artean (haietako bakoitzak, bestalde, txartel bat zedukan zer eta nongo zen argitzekoa), hain miresgarri ziren gauzaki haien artean hara-horra nenbilela, ikus ahala miretsiz eta miretsiagoz, batean argiz bestean ilunez, eta orduan Nicolaren laguntzaileak, zuziak eskuetan beti, kriptako beste zoko baterantz alderatzen hasi ziren. Kartilago orizta, mistiko eta nazkagarri haietaz liluraturik nengoen, aldi berean garden eta misteriotsuak baitziren, hango oihal-xerrenda haietaz ere bai, zarpail, antzin-antzinako, margul eta batzuetan flasko baten barruan bribilduak zirenak,

eskuizkribu margulduaren antzo, birrindutako gauzak, apur-apur eginak ohatze zuten oihal edo ehunarekin nahasirik zegozenak, bizitza bateko hondakin santuak, abere-bizitza (eta adimendunena ere bai) izandakoenak, eta orain beirazko edo metalezko eraikintto banatan gorde eta edukiak, harrizko katedralen handitasuna ttikitasunez irudikatzen zutenak, dorretto eta orratzak eta guzti, haiek beraiek ere sustantzia mineral bihurtuak zirela ziruditen hondakinak. Beraz, halakoak ote ziren santuen gorpuak hilobietan haragiaren bezpizkundearen zain zegozeino? Halako ezkardaz[3520] berreraikiko ote ziren gorputzak, Pipernok idatzi bezala, Jainkoa ikustean leinuruz *differentias odorum*[3521]*?*

Gogoeta horietarean, berehala Gilenek itzularazi ninduen, sorbaldan eman ukaldiño batez:

— Banoak. *Scriptorim*era igoko nauk, zerbait ikusi behar diat oraindik hantxe.

— Libururik ezin eska zaitezke –nik gogoratu–. Bentziok aginduak jaso ditu...

3520Ezkarda: (H. “esquirla”) (Printza, ezpal...)
3521Differenttias odorum: usainen berezitasunak

— Lehengo egunean irakurten ari nintzen liburuak aztertu behar ditiat, ez besterik, eta oraino hantxe zagozak, ziren guztiak, Benantzioren mahaian. Nahi baduk, gera haiteke hemen. Kripta hau egunokaz aditu dituan txirotasunezko eztabaiden *epitome* ederra duk, laburpen polita. Orain badakik zergatik mozten dioten elkarri lepoa heure anaiek Abade izaitearen ohorea jokoan dagoenean.

— Baina uste al duzu egia dela Nicolak iradoki duena? Uste ote duzu hemengo hilketek zer ikusirik dutela Abade izaiteko borrokarekin?

— Esan diat, bada, oraingoz ez dudala inolako hipotesirik arriskatu nahi ozengi. Baina beste azter-bide batetik joko diat. Edo agian berberetik, baina beste mutur batetik. Eta hi ez hadi liluregi erlikario hauetaz. Gurutze santuaren ezpalik asko ikusita nagok ni beste eliza batzuetan. Guztiok egiazkoak balira Gure Jauna ez zen bi zehar-oholetan gurutziltzatua izanen, oihan oso batean baizen.

— Maisu! –oihu egin nuen txundi-txundi egina[3522].

— Egia duk, Adso. Badituk are altxor handiagoak. Aspaldi, Koloniako katedralean, Jon Bataiatzailearen burezurra ikusi nian, hamabi urteko zela.

3522Txundi: (H.“escándalo”) (N) (?)

— Benetan? –harriturik ni. Baina, aiko-maiko, gehitu nuen–. Baina, Battitta zaharrago zela hil baitzuten! Nik ez nekien noiz aritzen zen txantxetan. Nire herrialdean, txokarritan ari denean, zerbaitto esan ondoan barre-zantzoka hasten da, orok txantxaz goza dezan. Gilenek, ordea, ben-benetan ari izaiten zenean baino ez zuen barre egiten, gorgots behar zuenean, eta barre egin behar zuenetan, itxuraz, kopetilun ilun agertzen zen.

SEIGARREN EGUNA

TERTZIA

«Dies irae» *aditzen den artean, Adsok amets bat, edo nahiago bada, ikuspen bat duenekoa.*

Gilenek Nicolari agur egin zion eta *scriptorium*erantz igo zen. Nik, bestalde, nahikoa ikusi nuen eta halaber igaitea erabaki nuen eta elizan Malakiasen arimaren alde otoitz egiten geratzea. Gizon hau ez nuen inoiz maite izan, beldurgarri zitzaidan, eta, aitor dut, luzaroan gertatu krimen guztien erruduna zela uste izan nuen. Orduan ulertu nuen, ulertu, gizon gaixo baino ez zela, bere grina asegaitzek hertsatua, buztinazko ontzi burdinazko ontzien artean, nora-ezagatik aldarte txarreko, isilkoi eta aitzakiatsu[3523], esatekorik ddeusik ez izanik eta. Okertu nintzelako bihotz-zimikoa nuen eta otoitz eginaz nire erru-sentimendua baretuko nuela uste nuen.

Elizetxea distira hits[3524] eta xurpail batek argitzen zuen, zoritxarreko gizon haren hondakinak agerian, fraideen xuxurla beti-batekoaz betea, hil-otoitza errezitatzen ari baitziren.

Melk-eko monasterioan behin baino gehiagotan anaia baterean baten heriotza ikusita nengoen. Alai ez zen, inondik inora, halako egoera, baina, hala ere, naretasunez betea zela iruditzen zitzaidan, bake-aura batez inguratua,

3523Aitzakiatsu: (H. “evasivo”)
3524Hits: (H. “tenue”)

justiziaren zentzu lausotu batez zuzendua. Hilzorian zegoenaren gelan txandaka geratzen ginen, haren bihotz-mina arintzearren zera atseginak esaten genizkiola, eta gure bihotzen barruan guk bakoitzok hura zein zorioneko zen pentsatzen genuen, bizialdi onbidetsua burutzear baitzegoen, eta harik laster aingeruen batzarrera sartuko zela, betiereko atsegin-atsedenaz gozatze aldera. Eta harako naretasunaren atal bat, bekaitz santuaren urrina, hilzori zenarengana hedatzen zen, eta azkenean joanaldi lasai-lasaia zuen. Zein bestelakoak izan ziren azkenengo egun haietakoak! Azkenean, ikusi nuen nola hiltzen zen *finis africae*-ko arrabio deabruzkoen biktima, eta enura bage Benantzio eta Berengario ere halaxe ziren hilak, mina uretan arindu nahiaz, aurpegia ihartua Malakiasena bezala…

Elizaren sakonaldean eseri nintzen, neure baitan uzkurtua hotzari aur egitearren. Bero pixka bat sumatu nuen, eta anaia otoizlarien koruarekin bat egin nuen. Haiei narraien nire ezpainek zer zerasaten abantzu konturatzeke; nire burua zabuka eta nire begiak itxirik. Luzaro joan zen; loak hartu ninduela eta bizpahiru aldiz gutienez itzarri izan nintzela uste dut. Ondorean koruak *Dies irae* kantatu zuen... Salmodia loeragingarri[3525] izan zitzaidan. Loak erabat hartu

3525Loeragingarri: (H. “narcótico”)

ninduen. Edo agian, loaldi baino gehiago, hura sorraldi[3526] bezala izan zen, eroraldi urduri eta neure baitaratze bat, bere amaren sabelean bildurik dagoen umea antzo. Eta arimaren laino haretan, mundu honetako lurraldean banengo bezala, amets edo ikuspen, nolanahi esanda, bat izan nuen.

Eskailera oso mehar batetik lurpeko iragobide batera sartzen ari nintzen, altxorreko kriptara nindoala bezala, beti beherantz, eta kripta handiago batera iristen ari nintzen, Eraikineko sukaldera alegia. Zalantzarik ez, sukaldea zen, suetea zeinbaiten hitzetan, baina bertan labeak eta eltzeak ez ezik, auspoak eta mailuak ere bazebiltzan, bertantxe Nicolaren arotzak ere batu izan balira legez. Oro berogailu eta galdaren pindar-egozte[3527] gorria zen, eta lapikoak irakinean ke zeriela, eta barruetako ur-azaletan burbuila handiak zirtaka[3528], airean goiti leher egitean zarata gor eta etenbagea egiten zutenak. Sukaldariek, hara-horra, burduntziak[3529] zeramatzaten, eta fraidegaiak hantxe, harrapatu ahala harrapa nahiz, burdin-barra gori haietan jositako oilaskoak eta beste hegaztiak harrapatzeko jauzika. Baina ondoan arotzek gogorki mailuka zihartuten eta leku

3526Sorraldi: (H. “entorpecimiento”)
3527Pindar-egozte: (H. “centelleo”)
3528Zirtaka: (H. “crepitar”)
3529Burduntzi: (H. “asadores”)

osoa burrunbaz betea zen, eta ingudeetatik txinpart-hodeiak ateratzen ziren, labeek egozten zituztenekin batzen zirenak. Ez nekien inpernuan ote edo Salbatorek asma zezakeen bezalako paradisuan ote nengoen. Alabaina, ez nuen astirik izan non negoen neure buruari galdetzeko, zeren, gixontto samalda[3530] batek, lapiko antzeko buru handidun epotxak, ziztu bizian sarturik aurretik eraman baininduen, jatokiko atalaseraino bultzatu, eta sartzera behartu baininduen.

Aretoa jai baterako legez apaindurik zegoen. Tapiz handiak eta estandarteak hormetan zintzilik, irudiak, ordea, ez ohikoak, berauek fededunen errukitasuna goratzen baitute edo erregeen aintzak ospatzen dituzte. Hangoak, itxuraz, Adelmoren *marginali*an inspiratuak zirela zirudien, eta irudietan ez hain izugarriak bai barregarrienak agertzen zituzten: donibane-zuhaitzaren[3531] inguruan dantzan erbiak ari, ibaietan arrainak jauzi-jauzika sartaginetara haiek berez sartzen ari, eta sartaginon giderrak tximinoen eskuetan, eta tximinook gotzain sukaldariz jantzirik, eltze ke-jarioen baranoan sabel eskergedun munstro edo bidutziak ere ibilki.

Mahaiaren erdian Abadea, jai-jantzia, purpura bordatuzko soineko zabala, eta bere sardexka aginte-

3530Samalda: (H. “turba”)
3531Donibane-zuhaitz: (H. “cucaña”)

makilatzat eskuan zedukala. Haren ondoan, Jorgek pitxar handi bete ardotik edaten ziharduen, sehiburua, Bernardo Guiren antzera jantzita, liburu bat gogo onez irakurten ari zen bitartean, liburuon, arrabio itxuran santuen bizitzak eta ebangelioa irakurgai. Gaiok, berriz, jaulkitzen zutena Jesusen txantxa zen, apostoluari harria zela eta harri gainean eliza eraikiko zuela esaten ziotenekoa, harri lotsabagea zelaian bilin-bolaka zebilena; edo San Jeronimoren ipuina, bibliaz hitz egiten zuenean Jaungoikoak Jerusalemen ipurdia biluzi nahi zuela zioena. Eta, sehiburuak irakurri esaldi bakoitzean, Jorgek barre-algara egiten zuen, eta mahaiari ukabilka eta oihuka: «Hurrengo Abadea zeu izango zaitugu, Jainkoaren sabel!», hauxe esan ohi zuen, eta Jaungoikoak barka nazala.

Abadeak keinu jaikoi[3532] bat egin zuen eta birjinen prozesioa aretora sartu zen. Dotore jantziriko eme-erreskada distiratsua zen, eta haien artean, lehenik eta behin nire ama ikusi uste nuen, baina geroago oker nengoela konturatu nintzen, zeren, neskatxa ikaragarri bat baitzen borrokarako gerturik dagoen gudarostea bezalakoa. Buruan perla-koroa bat zeraman, bi ilaratan josiak perlak, eta aurpegiaren bi aldeetan behera erori perla-jauzi bi, paparrean behera

3532Jaikoi: (H. “festivo”) (N)

erortzen ziren beste bi kordekin katramilaturik[3533], eta perla bakoitzetik esekita okaranaren[3534] neurriko diamante bat. Gainera, belarri bietatik behera perla urdinen sorta bana, bat eginda lepoan goleta[3535] zegitenak. Lepoa zuria eta Libanoko dorrea bezain zuta. Kapa purpura margokoa, eta eskuan urrezko txola bat zedukan diamantez bete-betea, eta, ez dakit nola, jakin nuenez, txolak[3536] ukendu hilgarria edeiten[3537] zuen, noizbait Seberinori ostua. Emakume egunsentia bezain eder haren atzean, beste eme-itxura batzuk zetozen, bata kapa zuri bordatu batez jantzia, soineko ilunaren gainean, urrezko estola bikoa, basa-lorettoez apaindua; bigarrenak damasko orizko kapa zedukan, soineko arrosaztaren gainean, orri berdeez josia eta labirinto nabar itxurako bi bordatuzko karratu handi zeduzkana; hirugarrenak kapa gorria eta soinekoa esmeralda kolorekoa piztiatto gorriez betea eta eskuetan estola zuri bordatu bat zeraman; besteetaz ez nintzen ohartu, zein koloretako soinekoak ez jakin, beraz, zeren, emakume haiek guztiak nor ziren asmatu nahi nik, neskatxaren aialdekoak[3538],

3533Katramilatu: enredar...
3534Okaran: aran
3535Goleta: (H. “gorguera”)
3536Txola: copa (Akeita, txola eta txokorra)
3537Eden: contener / caber
3538Aialdeko: Compañero, socio, el que está al lado;"En la Cuenca y Montaña llaman a la mujer que acompaña a la novia en la ceremonia

itxuraz, Andere Maria zirela baitziruditen. Eta eskuetan bakoitzak bere izenarekin txartela eramanki, edo txartela ahorean ateraturik, nor ziren jakin nuen, Ruth, Sara, Susana eta beste emazteki batzuk, Eskrituretan aipatutakoak.

Une horretan Abadeak oihu: «Sar zaitezte, puta semeok!», eta orduan jatokira pertsonaia sakratuen andana bat sartu zen, prozesioan, nik guztiak ezagunetsi nituen zalantza bage, luxurik ez baina ederki asko apainduak ziren, eta taldearen erdian bat tronuan eseria, Gure Jauna eta aldi berean Adan zen, kapa purpurazkoa soinean eta errubi-perlezko brotxe zuri-gorriak kapari sorbaldan zeutson, buruan koroa, neskatxarena bezalakotsua, eskuan beronena baino handiagoa zen txola bat, zerri-odolez betea. Inguruan koroa legez beste pertsonaia oso santu batzuk, geroago aipatuko, guzti-guztiak nik ondo baino hobeto ezagutzen nituenak, eta inguruan Frantziako erregearen arkularien eskuadra bat ere bai, batzuk berdez jantziak bestetzuk gorriz, eta erredola bana eskuetan, esmeralda karakoak, Kristoren monograma nabari zutenak. Saldo haretako buruzagia Abadearengana zen omen[3539] egitearren, txola eskaini eta esan zion: «Sao ko akellas tierras para akellos

nupcial". "Novialdeco, padrinos de la boda (Llanada)".

3539Omen: (H. “homenaje”)

fines ke akí kontiene, trienta años las poseéis parte sancti Benedicti.» Eta Abadeak erantzun: «*Age primum et septimum de quatuor*», eta orok kantari: «*In finibus Africae, amen.*» Ondorean, guztiok *sederunt*[3540].

Elkarren aurkari ziren talde biak hala sakabanaturik[3541], Abadeak egindu zuen eta Salomon mahaia ipinten hasi zen, Santiagok Anderrekin sarale-bala[3542] bat ekarri zuen, eta Adan erdian jarri zen, Eba orri baten gainera makurtu zen, Kain golde bat herrestan ekarriz sartu zen, Abel pertz batekin etorri zen Brunello jezteko[3543], Noe arkan arraun eginez garaipentsu sartu zen, Abraham zuhaitz baten ondoan eseri zen, Isaak elizako urrezko aldare gainean etzan zen, Moises harri baten gainean uzkurtu zen, Danel hil-oholtza batean agertu zen Malakiasen besoari helduta, Tobias ohatzean luxe etzan zen, Josepek zaku[3544] baterean jauzi egin zuen, Benjamin zakuaren gainean etzan zen, eta gainera, Dabid mendixka baten gainean zutitu zen, baina honetan ikuspegia lausotu zen, Joan lurrean, Faraon hondarrean (jakina, neure golkorako mintzo, baina zer dela eta?), Lazaro mahaian, Jesus putzuaren ertzean, Zakeo

3540Sederunt: eseri ziren
3541Sakabanatu: (H. “disolver”)
3542Sarale: heno
3543Jetzi: ordeñar
3544Zaku: (H. “moyo”) (?)

zuhaitz-adarretan, Mateo kaxeta[3545] baten gainean, Raab amukoaren[3546] gainean, Ruth lastoaren gainean, Tekla leihoko koskaren[3547] gainean (bizkitartean[3548], kanpoaldetik Adelmoren aurpegi zurbila agertzen zen, arro barrenera amil litekeela ohartarazteko etorri eta), Susana baratzean, Judas hilobien artean, Petiri katedran, Jakue sare batean, Elias zaldi-zela baten gainean, Errakel pardel[3549] baten gainean. Eta Paul apostolua, ezpata utzita, Esauren auhena[3550] aditzen ari zen, Job-ek sats artean intziri zegien, eta hari urgaztera heldu zirenak hauxek: Errebeka, txabusina batekin, Judhit, burusi batekin, Agar hil-soineko batekin, eta fraidegai batzuek galdara ke-jario handi bat zekarten, eta beronetatik jauzi eginik Salvemec-eko Benantzio, osoa gorri, urde-odolkiak banatzen hasi zen.

Jatokia mauka-mauka jaten zuen jendeaz bete zen. Jonas-ek kuiak zekartzan; Isaias-ek, lekaleak; Ezekielek, masustak; Zaqueok, sikomoro-loreak; Adanek, limoiak, Danelek, eskuoriak[3551]; Faraonek, piperrak; Kainek, karduak; Ebak, pikuak; Errakelek, sagarrak, Ananias-ek,

3545Kaxeta: (H. “escabel”)
3546Amuko: (H. “estopa”)
3547Koska: (H. “alféizar”)
3548Bizkitartean: mientras tanto
3549Pardel: (H. “lío”) (?) (Fardo...)
3550Auhen: (H. “queja”)
3551Eskuori: altramuz / eskuzuri / lupinu

aranak diamanteak bezain handiak, Liak, tipulak; Aaronek, olibak; Josepek, arrautza bat; Noek, mahatsa, Simeonek, muxika-hezurrak, Jesusek *Dies irae* kantatzen zuen janari guztien gainean alaikiro ozpina isurtzeaz batera, lehenago Frantziako arkulari baten lantzan josita egoniko belaki ttiki batetik lauskituz[3552] zukutzen zuen ozpina.

«Ene seme-alabok, oi, ene axuriok!», esan zuen orduan Abadeak, mozkorturik ordurako, «ezin abal dezakezu horrela jantzirik, behartsuen antzera, zatozte, zatozkidate.» Eta ukaldi emaiten zien lehenengoari eta zazpigarrenari, ispilu barrenetik, mamu laso, markets, irteten zutenak, eta ispilua apur-apurtzen zen, hausten, eta labirintoko gela luzeetan zorua janzki koloreanitzez betetzen ari zen, harribitxiz josirik, oro zikin eta urraturik. Eta Zakeok janzki zuri bat hartu zuen; Abraham-ek txolarre[3553] koloreko bat; Lot-ek sufre-margokoa; Jonasek, urdinska bat; Teklak, gorriska bat; Danelek, lehoi-karako bat; Joanek, ortzadar[3554] koloreko distiratsu bat; Adanek, larruzko bat; Judak, zilarrezko diruzko bat; Raab-ek gorrimineko[3555] bat; Ebak onaren eta gaitzaren zuhaitzaren margoko bat. Eta

3552Lauskitu: exprimir, estrujar/...
3553Txolarre: gorrión
3554Ortzadar: (H. “irisado”)
3555Gorrimin: (H. “escarlata”)

batzuek jaspe margokoa, eta beste batzuek espartzu kolorekoa; zeinbaitek, ubela, beste zeinbaitek, itsas-urdina, besteek purpura karakoa, zuhaitzen margokoak bestetzuek, edo burdinaren kolorekoa, suaren, sufrearen, hiazintoaren, edo beltza, eta Jesus arranditsu zebilen uso margoko janzki batekin, eta barrez Judari egozten zion ez zekiela txantxetan egiten alaitasun santuaz.

Orduan Jorgek, *vitra ad legendum*-ak[3556] erantzirik, lahar bati su eman zion, Sarak ekarritako egurraz, Jefte-k bildua, Isaak-ek zamarindu[3557] zuena, Josepek ebakitakoa, eta, Jakob-ek putzua irekitzen zuen bitartean eta Danel aintzira ondoan esertzen zeino, mirabeek ura zekarten; Noek, ardoa; Agar-ek zahagi bat; Abrahamek txekor bat, Raabek zutabe bati lotzen ziona, Jesusek sokari zeutsola eta Eliasek hankak lotzen zizkiolarik. Ondorean, Absalon-ek iletik eseki zuen, Petirik ezpata hartu zuen, Kainek hil zuen, Herodesek haren odola isuri zuen, Sem-ek haren erraiak eta gorotzak iraitzi zituen, Jakob-ek olioa eta Molesadon-ek gatza eman zion, Antiokok sutan ipini zuen, Errebekak sukaldatu eta Ebak aurrena dastatu zuen, eta ahoa bete hortz[3558] geratu zen. Baina Adanek ez kezkatzeko zirautsen,

3556Vitra ad legendum: ikusteko beirak
3557Zamarindu: (H. “descargar”) (N) (?)
3558Ahoa bete hortz: llevarse un chasco (?)

eta Seberinori bizkarrean txaloak zemaizkion, usain-belarrak eransteak aholkatzen zuen artean. Gero Jesusek ogia zatitu zuen eta arrainak banatu zituen, eta Jakobek oihuka Esauk dilista guztiak jana zituela eta arranguraz, Isaak labetiko ahuntxumea mauka-mauka irensten ari zen, Jonas irakindako balea klaskatzen[3559], eta Jesus berrogei egunean eta berrogei gauean barau eginez geratu zen.

Bizkitartean[3560], guztiak sar-jalgi ari ziren ehizaki gozo-gozoak, itxura eta margo askotarikoak, garraiatuz eta zatirik handienak beti Benjaminentzat, onenak Mariarentzat, eta Marta kexu txalinak-eta[3561] beti berak ikuzi behar zituela eta. Ondorean, txekorra zatitu zuten, ordurakoxe handi-handitua baitzen, eta Joani burua egokitu zitzaion, Absaloni iduna[3562], mihia, Sansoni masaila, Petiriri belarria, Holofenesi bekokia[3563], Liari ipurdia, Sauli sama[3564], Jonasi zilborra[3565],Tobiasi behazuna, Ebari saihetsa, Mariari titia, Elizabeteri alua, Moisesi isatsa, Lot-i zangoak eta Ezekieli hezurrak. Bien bitartean, Jesus asto bat irensten ari zen, Jaun Done Frantzisko otso bat, Abel ardi bat, Eba itsas-suge bat,

3559Klaskatu: engullir, devorar
3560Bizkitartean: entre tanto
3561Txalin: plater
3562Idun: (H. “cerviz”)
3563Bekoki: (H. “testa”)
3564Sama: cuello
3565Zilbor: (H. “barriga”)

Bautista oti bat, Faraon olagarro bat (jakina, esan nuen ene baitan, baina, zerarren?) eta Dabid errauli[3566] bat ari zen jaten eta *nigra sed formosa* neskaren gainera amiltzen zen, Sanson lehoi baten solomoari hanginka ekiten zitzaion artean, eta Teklak oihuka ihesari eman zion, atzetik armiarma beltz-iletsu bat zihoakiola.

Ziren guztiak mozkor zegozela argi zegoen, eta batzuk ardo gainean irrist egiten ari ziren, beste batzuk eltze barruetara erortzen eta zangoak ez besterik agerian geratzen ziren, bi makila zeharretara ipinita bezala, ikoroski[3567] laso, eta Jesusek hatzamarrak belztuak zeduzkan, liburu bateko orriak banatzen zituela, hartu eta jan zirautsen bitartean, Sinfosioren enigmak dira, arrainarena ere bai, Jaungoikoaren seme eta zuen gaizkatzaile baita. Eta guztiak edaten, Jesusek ardo mindua, Jonasek marsotarra[3568], Faraonek Sorrentokoa (zergatik?), Moisesek Kadizkoa, Isaakek Kretakoa, Aaronek Adriakoa, Zakeok *arbustino*a, Teklak errea, Joanek albaniarra, Abelek *campano*a, Maria *signino*a, Errakelek florentziarra.

3566Errauli: cantárida (miosca de la carne)
3567Ikoroski: aspa
3568Marsotar: (H. “mársico”) (Marso, Italiako herri zahar bat zen)

Adan aratinik[3569] zetzan, urdaila gur-gur eta saihetsetik ardoa zerion, Noek ametsetan Kam-ez biraoka ziharduen, Holofernes zurrungaka ari ezertaz ohartzeke, Jonasek mozkor antzo lo zegien, Petiri oilarra kukurruku hasi arte zain, eta Jesus bat-batean esnatu zen, noiz eta Bernardo Gui-rekin Bertrando del Poggetto neskatxaren erreketa antolatzen ari zela aditzean; eta oihu egin zuen: « Ene aita, ahal bada, urrun ezazu nigandik edari samin hau!» Eta batzuek edaria gaizki egozten[3570] zuten, beste batzuek ongi edaten zuten, batzuk barreka hiltzen ziren, bestetzuk hiltzean barre egiten aritzen ziren, batzuek euren ontziak zeduzkaten, beste batzuek besteen ontzitik edaten zuten. Susanak oihuz bere soin eder-zuria sehiburuari ez Salbatoreri inoiz emanen ez ziela aldarrikatzen zuen, idi-bihotz kaxkar baten truke, Pilatos hara-horra zebilen, arima galduaren antzera, jatokian bere eskuetarako ur eske, eta frai Dultzinok, kapelan lumadun, zekarkion, eta ondorean txabusina zabaltzen zuen eta imintzio barregarri batekin bere lotsari odolez gorrituak zerakuskien, Kainek harengatik iseka zegieino, eta Margherita da Trento ederra besarkatzen zuen. Orduan Dultzinok negarrari eman zion eta bere burua Bernardo Guiren sorbaldan ipinten zuen, Aitasantu

3569Arat(inik) : echado de espalda
3570Egotzi:(H. “escanciar”) (N)

aingeruzko esaten zion bitartean, eta Ubertinok bihotz-mina bitzitzaren zuhaitz batez arintzen zion, Michele da Cesena zisku bete urrerekin, Maria guztiek ukenduz basitzen[3571] zuten eta Adanek aholkuz bereganatzen[3572] zuen zuhaitzetik erauzi berri zuen sagarrari kosk egin ziezaion.

Orduan Eraikineko sabai-gangak ireki ziren eta zerurean hegangailu[3573] batean Roger Bacon jaitsi zen, *unico homine regente*. Gero Dabidek zitara jo zuen, Salomek bere zazpi belorekin dantza egin zuen, eta belo bat erortzen zen bakoitzean zazpi turutetako bat joiten zuen eta zazpi zigiluetako bat erakusten zuen, *amicta sole* soilki geratu arte. Orok zioenez, inoiz ez zen hain abadia alai ikusi izan, eta Berengariok jende guztiari soinekoa goratzen zion, nahiz gizonezko nahiz emakumezko, eta ipurdian muin emaiten zien. Eta dantza bat hasi zuen: Jesus maisuz jantzia, Joan zaintzailez, Petiri *retiarius*[3574] bezala, Nemrod ehiztari itxuraz, Juda salatzaile antzo, Adan lorezainez jantzia, Eba ehulez[3575], Kain ohoinez, Abel artzainez, Jakob atezainez[3576], Zakarias apezez, Dabid erregez, Jubal zitara-jotzailez, Jakue

3571Basitu: (H. “cubrir”)
3572Bereganatu: (H. “convencer”)
3573Hegangailu: (H. “máquina voladora”) (N)
3574Retiarius: (H. “reciario”) (Sarea darabilen gladiadorea)
3575Ehule: tejedor
3576Atezain: (H. “ujier”)

arrantzariz, Antioko sukaldariz, Errebeka urketariz[3577], Molesadon tentelez[3578], Marta neskamez, Herodes zeharo[3579] zoroz, Tobias sendagilez, Josepe zurginez, Noe mozkorrez, Isaak nekazariz, Job gizon goibelez, Danel epailez, Tamar emagalduz, Maria ugazabanderez, bere mirabeei ardo gehiago ekar zezaten agintzen ziena, bere seme zentzubagekoak ez baitzuen ura ardo bihurtu nahi.

Orduan zen biziki sumindu Abadea, zeren, zioenez, hain jai polita antolatu zuen arren inork ez baitzion deusik emaiten. Eta orduantxe, zirenak opariak eskaini eta eskaini hasi zitzaizkion lehian: altxorrik maiteenak, zezen bat, ardi bat, lehoi bat, gamelu bat, orein bat, txahal bat, behor bat, eguzki-gurdi bat, San Eoban-en kokotsa, Santa Marimondaren isatsa, Santa Arundalinaren umetokia, Santa Burgosinaren garondoa[3580], hamabi urteko txola baten eta *Pentagonum Salomonis*-en kopia baten antzera zizelkatua. Baina Abadeak oihu egiteari eman zion, esanez, haretaz guztiaz bere arreta galarazi nahi zutela, altxorraren kripta arpilatzen zuteino, gu orduan hantxe, eta balio handi-handiko liburu bat desagertu zela, arrabioei buruzkoa, eta

3577Urketari: aguador
3578Tentel: (Hemen, “idiota”)
3579Zeharo zoro: (H. “loco de atar”) (N)
3580Garondo: (H. “nuca”)

zazpi turutez ere hitz egiten zuena, eta Frantziako erregeen arkulariei dei egiten zien susmagarri guztiak araka zitzatentzat. Eta ororen lotsagarri, Agar-i margo anitzeko brokatuzko gauza bat aurkitu zitzaion, Errakeli urrezko zigilu bat, Teklari zilarrezko ispilu bat golkoan, Benjamini besapean edari-sifoi bat, Judhiti soinekoen artean zetazko burusi bat, Longinori eskuan lantza bat eta Abimelek-i besartean berea ez zen emazte bat. Baina txarrena, neskatxari oilar beltz bat aurkitu ziotenean izan zen, neska margo bereko katua bezain beltz eta eder-ederra, eta sorgin eta sasiapostolu esan zioten, eta orduan guztiek euren burua haren gainera egotzi zuten zigortzeko asmoz. Bautistak burua moztu zion, Abelek lepoa moztu zion, Adanek ehizatu zuen, Nabukodonosor-ek suzko esku batez bularrean zodiako-zeinuak idatzi zizkion, Eliasek garrezko gurdi batean bahitu zuen, Noek urperatu zuen, Lotek gatz-estatua bihurtu zuen, Susanak luxuria egotzi zion, Josepek beste eme batekin traditu zuen, Ananias-ek kare-labe batera sartu zuen, Sansonek kateatu zuen, Paulek zaharokatu[3581] zuen, Petirik buruz behera gurutziltzatu zuen, Lorentzok parrilan erre zuen, Bartolomek larrutu[3582] zuen, Judak salatu zuen, sehiburuak kiskali zuen, eta Petirik oro ukatzen zuen.

3581Zaharokatu: (H. “flagelar”) (Zaharo, makila, zigor...)
3582Larrutu: desollar

Ondorean, guztiek euren burua gorputz haren gainera egotzi zuten gorotzez estaltzen zutela, aurpegira uzker zegiotela, buru gainean gernu[3583] zegiotela, bularrean oka zegiotela, ileak erauzten zizkiotela, zuzi irazekiez bizkarra joiten ziotela. Neskatxaren soina, lehenago hain eder-atsegingarria, ezkatatzen[3584] hasi zen, ezereztatzen, apurrez apur kriptan zegozen beirazko zein urrezko erlikario eta kutxetan barrena haren apurrak barreiatzen ari ziren. Hobeto esateko: ez zen neskaren gorputza kriptan barreiatuko zena, alderantziz, kriptaren apurrak zurrunbiloan bira-biraka hasten ziren neskaren gorputza osatu arte, berau, ordurako, mineral bihurtua baitzen, geroago atzera barreiatzeko, geroenean zentzubageko erruki-ezak pilaturiko gauza-zati[3585] haien hauts sakratu bilakatzeraino. Orduan gorputz neurrige bat milurtetan ezereztu izan balitz bezala zen, bere apurrik edo kizirik[3586] ñimiñoenetaraino, hauek kripta bete-bete egin legez, distiragarriago baina hildako fraideen hezurtegiaren antzeko tokia. Bazirudien… ordurako, hauts eta ezkata nazkagarriak, heriotza eta suntsipenaren irudi hutsak…

3583Gernu: orina
3584Ezkatatu: desescamar
3585Gauza-zati: (H. “segmento”)
3586Kizi: átomo, partícula muy pequeña...

Zegoeneko, ez nekusatzan oturuntzako kideak, ez haiek ekarri opariak. Orritseko[3587] arrotz guztiak orduan kriptan balegoz bezala zen, nor bere hondakin berean momiatuta, nor bere buruaren sinekdoke garden[3588]: Errakel hezur, Danel hortz, Sanson masailezur, Jesus gorrindola[3589] koloreko txabusinaren lits[3590]. Oturuntzaren azkenaldia neskatxaren triskantza bilakatu balitz legez, triskantza unibertsala bihurtzeraino, nekusan hura azkenengo emaitza bailitzan, gorputz (zer diot?, jale meheko[3591] eta egarti haien gorputz lurtar eta ilargipeko guztia) hildako gorputz bakar bilakatuak, Dultzinoren soin zorigaztoko eta torturatua bezala zipert[3592] jasan ondoan, altxor distiratsu eta higuingarri[3593] bihurturik, bere luze-zabal osoan zabaldua, larruturiko abere esekiaren antzeko, nahiz eta, artean, larruarekin eta erraiekin soin-atal guztiak, hazpegiak ere bai, harriztaturik eduki. Azala bere zimur, kizkur eta orbain guztiekin, ile-belazeekin[3594], bilo-basoekin, larrumintza, bularra, lotsariak, tapiz damaskar bikain bilakatuak, eta

3587Orrits: festín / Oturunza: banquete
3588Garden: (H. “diáfano”)
3589Gorrindola: púrpura (?)
3590Lits: (H. “jirón”)
3591Meheko: (H. “famélico”)
3592Zipert: (H. “suplicio”) (?)
3593Higuingarri: (H. “inmundo”)
3594Ile-belaze: (H. “praderas de vello”) (?)

titiak, hatzazalak, orpoetako gogorguneak, betileetako litsak, begietako ur-gaia, ezpainetako mamiak, orno[3595] hauskorrak, hezurren arkitektura, oro irin hondartsu bihurtua, baina, hala ere, bakoitza den bezalakoa ohiko loturekin, zangoak galtzak bezain hustuak eta ahulak, haragia ondoan ipinita meza-jantzi antzo, zainetako arabesko gorri guztiekin, erraietako masa zizelkatua, bihotzeko errubi tinko eta lingirdatsua, hortzetako perlateria ordenatua, bihi[3596] oroberdinezko[3597] lepokoa, eta mingaina, ezponda urdin-arrosa, hatzamarrak kandelak bezala lerrokatuak, zileko zigilua, sabeleko tapiz handiko hariak korapilatzen diren lekua… Alde guztietatik, kriptan, nitaz iseka, niri xuxurlaka, hiltzera gonbidatzen ninduen erlikario eta kofreetan banandutako makrogorputz horrek, eta, hala ere, bere osotasun zentzuge eta hedatsuan berreraikia zen eta abarian jaten eta ikoti[3598] lizunetan ari zena orduan, ostera, geldirik agertzen zitzaidan, bere suntsipen gor eta itsuan. Eta Ubertinok, niri besotik gogorki atxikia hatzazalak haragian josteraino, ahapeka zeraustan: «Badakusazu, gauza bera da, lehen bere zorotasunean garaitzen zena eta jokoan atsegin hartzen, oraintxe hementxe dago, zigortua eta saritua, grinen

3595Orno: vértebra
3596Bihi: (H. “cuentas”)
3597Oroberdin: uniforme (N) (?)
3598Ikoti: (H. “cabriola”)

liluratik askatua, betikotasunaz geldiarazia, betiereko izotzari emana beronek kontserba eta aratz dezan, ustelkeriaren garaipenaz ustelkeriatik aterarazia, zeren, ezerk ezin bihurrazi izango baitu hauts hautsa, *mors est quies viatoris, finis est omnis laboris*...»[3599]

Baina bat-batean Salbatore sartu zen, deabrutto baten antzera su-garretan, eta oihu egin zuen: « Ergel! Ez dakizua hau Joben liburuko *liotarda* handia dela? Zeren belddur zara, ugazabatto? Hemen dekozu: gaztae opiltxa!» Eta, berehalako baten kripta distira gorrixkez argitu zen eta harzara sukalde zen, baina sukaldea baino areago: sabel handiaren barru lingirdatsu, likitsa, eta erdialdean piztia beltz bat bele bezain beltza mila eskurekikoa, parrila handi bati kateatua, bere inguruan ziren guztiak atzemaitearren, eta egarri denean mahatsa lauskitzen duen nekazari gisa harako piztitzarrak harrapatutakoa estu-estutzen zuen eskuez birrintzeraino, batzuei zangoak erauziz, beste batzuei burua, eta ondorean jateketa handia eginez, eta suzko korroskada sufrea baino usain txarrekoak aurtikiz. Baina, misterio miragarria, eszena harek ez ninduen beldurtzen, eta harritu zitzaidan, zeren «deabru on» harek egiten zuena lasai behatzen bainuen (honela oldoztu nuen orduko haretan),

3599«Heriotza bidaiariaren atsdenaldia da, lan ororen amaia».

azken baten Salbatore baino ez zen. Giza-gorputz hilkorraz, haren oinazeez eta ustelkeriaz, oro banekien eta ez nintzaion ezeri beldur. Honelaxe, bada, gar haren argiaz, atsegingarri eta abegikor baitzirudien, berriz ere jale guztiak ikusi nituen haien itxura bana berreskuratuta bazegozenak eta kantari ari zirenez oro atzera hasten zen, eta haien artean neskatxa, lehen bezain onik eta ederrik, ziraustana: « Ez da harean, ezer ez, uztazu pixka batez su-metara joan nadin, erre egingo naiz eta gero berriro elkar aurkituko dugu hemen berton barruon!» Eta, Jainkoak barka, bere alua zerakustan, eta haretara sartu nintzen eta lezezulo eder-ederra zen, urrezko aroko haran sorgindua zirudiena, igaliz betea eta gazta-opilak hazten ziren zuhaitzez beteak. Eta denek Abadeari eskerrak zemaizkioten jai ederragatik eta oneritzia zerakuskioten, eta beren aldarte ona ere erakutsi bultzadak eta ostikoak emanez, janzki erauziz, zorura egotziz, haren buztana beren buztanez joaz, eta bera barreka, gili-gili gehiago egin ez ziezaioten erregutzen zielarik. Eta sufre-lainoak sudur-zuloetatik egozten zituzten zamarien gainean eserita, bizitza txiroko fraideak sartu ziren, gerrialdean zintzilik zisku bete urreak zeramatzatela, eta hauen bitartez otsoak bildots bihurrarazten zituzten eta bildotsak otso, eta ondorean enperadoretzat koroatzen zituzten herriaren

biltzarrak onespena emanik, Jaungoikoaren oroahaltasun mugabageari laudoriozko kantuak ozendatzen[3600] zituzten artean. «*Ut cachinnis dissolvatur, torqueatur rictibus*![3601]», oihu zegien Jesusek arantzazko koroa astintzen zuelarik. Joan Aitasantua sartu zen nahasmendu haren guztiaren aurka araokatu honela zioela: «Honela ez dakit nora helduko garen!» Baina ziren guztiek haren lepotik barre eta iseka zegiten eta, Abadea aurren, urdeekin basora boilur-zun[3602] atera ziren. Ni haiei jarraiki aginik nengoen zoko batean Gilen ikusi nuenean; labirintorean zetorren eta eskuan iman bat estuki atxikia zekarren, azkar asko ipar alderantz zeroana. «Maisu, ez nazazu hemen utz!», oihu nik. «Nik ere nahi dut ikusi zer dagoen *finis Africae*-n!» «Baduk ikusi!», erantzun zidan urrundik Gilenek. Orduantxe esnatu nintzen, itzarri nintzen elizan hileta-kantua amaitzen zenean:

Lacrimosa dies illa

qua resurget ex favilla

iudicando homo reus:

huic ergo parce deus!

Pie Iesu domine

3600Ozendatu: (H. “entonar”) (?)
3601Barreaz urtu, irriz torturatu
3602Zun: bila, eske, xerka, (Ur-zun...)

dona eis requiem[3603].

Beraz, nire ikuspena, ikuspenak oro bezala ziztu bizikoa, amen bat baino luzeago izan arren, *Dies irae* bat bezain luze ez zen izan, bederik.

SEIGARREN EGUNA

TERTZIAZ GERO

3603Malko eguna hura errautsetik birsortuko baita gizona gatibu epaitua izaiteko, berau sortzean barka ezazu Jainko! Jesus jaun errukibera, emaiezu atsedena. *Dies irae* Erdi Aroko ereserkiaren ahapaldiak.

Gilenek bere ametsa Adsori azaltzen dionekoa.

Nahasirik ate nagusitik irten nuen eta gizaldra tiki batean sarturik nengoen. Frantziskotarrak ziren handik alde egiterakoan, eta Gilen azken agur egitera haiengana zen, jaitsirik.

Agurretara eta anai-besarkadetara batu nintzen. Gero Gileni galdetu nion ea noiz alde eginen zuten besteek, atxilotuekin. Esan zidanez, ordu erdi lehenago joanak ziren, altxortegian gengozen bitartean, agian, niri bururatu, amesten ari nintzen artean.

Une batez abailduta[3604] sentitu nintzen, baina ondorean neure onera itzuli nintzen. Hobe. Ezin jasan izango nuen, bada, kondenatuen ikustea (sehiburu gaxo zoritxarrekoaz ari naiz, Salbatorez… eta jakina, neskaz, noski), handik urrutira eroango baitzituzten, herrestan, eta betiko. Gainera, nire ametsagatik zeharo nahas eta asaldaturik nengoen, oraindik orduan, eta sentimenduak berak ere, nolabait esatearren, izoztuak edo hormatuak nituen.

3604Abaildu: abatir, agotar

Frantziskotarren tropela[3605] irtenguko atetzarrerantz zihoala, Gilen eta biok eliza aurrean geratu ginen, biok ala biok damorriatsu[3606], nork geure arrazoi. Geroenean, nire ametsa jaulkitzea erabaki nuen. Ikuspena nabarra eta zentzugea izan zen arren, argi-argiro gogoratzen nuen irudiz irudi, keinuz keinu, hitzez hitz. Eta honelaxe jaulki nion nire maisuari, ezer baztertu bage, zeren ametsak sarritan ezkutuzko mezubideak direla bai bainekien, non pertsona jakintsuek profezia argiak ikusten baitituzte.

Gilenek isilean aditu zidan eta ondorean galde:

— Badakik zer amestu duan?

— Oraintxe jaulki dizudana.... –harrituxerik[3607] erantzun nion.

— Bai, noski, Baina, badakik, neurri handi batean, oraintxe jaulki didaana idatzita dagoena? Hik ezaguna huen aritoki batean egun hauetako pertsonaiekin gertakariak sartu dituk. Zergatik eta amets-korapilo hori nonbait irakurria dualako, edo gaztetto hintzela nonbait jaulki ziatelako, eskolan, komentuan. *Coena Cypriani*[3608] delakoa duk.

3605Tropel: (H. “caravana”)
3606Damorriatsu: melancólico
3607Harritu: (H. “desconcertar”)
3608«Ziprianoren abaria».

Lipar[3609] batez, harri eta zur geratu nintzen. Gero gogoratu. Egia zen! Beharbada, izenburua ahantzita nuen, baina zein fraide heldu edo fraidetto bihurri ez da inoiz barreka hasi halako hainbat ikuspenez, hitz lauz edo neurtuz, bazko-errituko ohiturakoa edo *ioca monachorum*-ekoa[3610] den istorioetan agertzen baita? Maisu zorrotz-hertsiek debekatua edo belztua[3611], ez dago, horrela ere, komenturik non, ahapeka, fraide edota fraidegaien artean elkarri jaulki ez diotenik, laburbildua edo eraldatua edo nolanahitua[3612], eta maiz ezkutuka, transkribitu ukan dute, zeren, haien eritzian, barrezko-oihalaren ostean istorio horrek irakaspen moralak ostentzen baitzituen. Beste batzuek, berriz, istorioa hedatzearen aldekoak ziren, zeren, esaten zutenez, hala eginez gazteek jokoaren bidez historia sakratuko gertakariak aisago gogoan hartu ahal izaiten zituzten. Bazegoen bertsozko bertsio bat, Joan VIII. Zubiginarena, honako eskaintza hau zuena: *«Ludere me libuit, ludentem, papa Johannes, accipe. Ridere, si placet, ipse potes.»*[3613] Eta esaera zenez, Karla Burusoila enperadoreak berak, isekazko misterio sakratu bezala, hitz neurtuzko bertsio bat

3609Lipar: instante/ pequeña cantidad
3610«Fraideen txisteak».
3611Belztu: (H. “infamada”)
3612Nolanahitu: de cualquier manera (N) (?)
3613«Jolastea atsegin izan zitzaidan, onar ezazu jolasten dena, aita Joan. Atsegin bazaizu zerorrek ere barre dagikezu»

errepresentarazi zuen, bere ordezkarien[3614] abariak alaitzeko asmoz:

Ridens cadit Gaudericus

Zacharias admiratur,

supinus in lectulum

docet Anastasius... [3615]

Eta zenbat aldiz gure maisuek ateleka[3616] egiten ziguten, niri eta nire ikaskideei, istorio haren zatiak aletzeagatik. Melkeko fraide zahar batez oroitzen naiz, esaten baitzuen, ezen, Zipriano gizon onbidetsuak ezin idatz zezakeen hain zantarra zen zera hura, Eskrituren ihakin[3617] hain sakrilegoa, fedebagekori edo bufoiri legokiokeena ez baina martiri santuri… Urteetan atzenduak nituen nik ordurakoxe harako ume-jolasak. Nolatan berragertu zitzaidan hain garbiro nire ametsean egun haretan *Coena*? Ametsak jainko-mezuak zirela uste izandakoa nintzen beti, edo izaitekotan loak hartutako oroimenaren txutxulu-mutxulu[3618] zentzurik bagekoak, baraualdian gertatu

3614Ordezkari: (H. “dignatario”)
3615Barre eginez Gauderico erortzen da, Zakarias liluratzen da. Ohatzean etzanik, Anastasiok irakasten du...
3616Atele: (H. “regañando”) (Atelekatu, agiraka...)
3617Ihakin: (H. “parodia”) (Izkiantxa...)
3618Txutxulu-mutxulu: (H. “balbuceos”)

zerezkoak. Baina harez gero ohartu nintzen, ohartu, liburuez ere amets dezakegula, eta ondorioz, ametsez ere amets egin ahal dugula.

— Artemidoro izan nahi nikek hire ametsa ongi ulertzearren –esan zidan Gilenek–. Honela ere, Artemidororen jakituria ere bage, zer gertatu den jakitea ez duk zaila. Egunotan, mutil gaxo, edozein zentzuzko arau deusezta dezaketen gertaerak bizi izan dituk. Eta goizeon hire gogo lokartuan halako komedia moduko zerbait erne duk eta bertan, nahiz eta beste asmo batzuekin izan, mundua erroz gora, hankaz goiti. Hik horretan heure oroitzapen egun-egungoak sartu dituk, heure larridurak, heure beldurrak. Adelmoren *marginalia* haietatik hasi haiz inauteri handi bat birbizitzeko, dena atzekoz aurrera dabilela dirudiena eta, horrela ere, *Coena*n bezala, bakoitzak hor bizitzan egin izan dena egiten dik. Eta azkenean heure buruari galde egin diok ametsean ea zein den alderantziz dagoen mundua, eta zer esan nahi duen hankaz gora ibiltze horrek. Hire ametsak ez zekian zer den goi eta zer behe, non dagoen herioa eta non bizia. Hire ametsak hiri irakatsi diatenaz zalantza egin dik

— Nire ametsak bai, neuk ez –ihardetsi nion onbidetsu antzo–. Beraz, ametsak ez dira jainko-mezuak, deabru-eldarnioak baizik, eta ez dute egiarik batere edeiten[3619]!

— Ez zakiat, Adso. Hainbat dituk dagoeneko ditugun egiak, bai, eta inoiz inor agertuko balitz gure ametsetarik egia bat erauzteko gai dela dioenik, egun horretan bai hurbil Antikristoren aldia. Alta bada, hire ametsetan zenbat eta gehiago sakondu orduan eta esanguratsuago[3620] iruditzen zaidak. Agian ez hiretzat, bai niretzat. Barka hire ametsaz jabetzen banaiz, nire hipotesiak garatze aldera. Bazakiat doilorkeria dena, eta egin behar ez nukeena… Baina hire arima lokartuak nik sei egunotan baino haboro ulertzea lortu duelakoan nagok, eta esna...

— Benetan?

— Zinez. Edo agian ez. Hire ametsa adiarazgarri iruditzen zaidak nire hipotesietako batekin bat datorrelako. Lagundu egin didak biziki. Eskerrik asko.

— Zer dago, bada, ametsean horren axolagarri? Amets guztiak bezala zentzu bagekoa izan da eta!

3619Eden: (H. “encerrar”) (Caber, contener /…/...)
3620Esanguratsu: (H. “revelador”)

— Bestelako zentzu bat izan dik, amets eta ikuspen guztiek bezala. Alegoria bezala edo anagogia bezala irakurri behar duk…

— Eskriturak bezala!

— Ametsa eskritura duk, eta eskrituraril asko amets hutsa duk.

SEIGARREN EGUNA

SESTA

Liburuzainen historia berreraikitzen den eta liburu misteriotsuaz gehixeago aztertzen denekoa.

Gilenek atzera *scriptorium*era igo nahi ukan zuen, bertatik jaitsi eta berehala. Bentziori katalogoa ikuskatzeko baimena eman ziezaion eskatu eta axkar-axkar gainetik orririk orri irakurri zuen.

— Hemen nonbait egon behar da –zioen–, orain ordubete aurkitua nuen... –Orrialde batean trikatu[3621] zen–. Hementxe zagok, irakur izenburu hau.

Erreferentzia bakar batez (*finis Africae*!) lau izenburu agertzen ziren; honek esan nahi zuenez, liburuki bakarra irakurgai batzuekikoa zen. Irakurri nuen:

I. ar. de dictis cujusdam stulti

II. syr. libellus alchemicus aegypt

III. Expositio Magistri Alcofribae de cena beati Cypriani Cartaginensis Episcopi

3621Trikatu: detenerse, pararse (Gelditu)

IV. Liber acephalus de stupris virginum et meretricum amoribus [3622]

— Zertaz dihardute? –nik galde.

— Gure liburua duk –Gilenek ahots apalez–. Horregatik hire ametsak zerbait iradoki zidak. Orain bazakiat hauxe dena. Eta, halaxe… –arin-arin orririk orri ziharduen–, halaxe duk, hementxe nik burutan nituen liburuak, denak batera. Baina ez duk hau nik egiaztatu nahi nuena. Adi: baduka hire oholtxa? Ongi, kalkulu bat egin behar diagu; saia hadi gogoratzen lehengo egunean Alinardok esan ziguna, bai eta Nicolak goizeon jaulki diguna ere. Bada, beronek duela hogeita hamar bat urte honatu zela esan ziguk, eta ordurako Abbone Abade zela. Beronen aurrekoa Paolo da Rimini izan zela, bai? Ordezkapena, demagun, 1290. urtean edo izan zela, hortxe-hantxe, honek axolarik ez. Gainera, Nicolak esan digunez, bera iristerako, Roberto da Bobbio bazuan liburuzain. Ongi? Gero berau hil zuan eta tokia Malakiasí eman zitzaioan, mende honen hatsean edo. Idatzi egik. Honela eta guztiz ere, Nicola iritsi aurreko aldia zagok, Paolo da Rimini izan zenekoa. Noizdanik izan zen toki

3622I. «Memelo baten esaerak..» II. «Alkimia egiptoarrezko liburuxka.» III. «Kartagoko gotzain Ziprianoren abariaz Alkofriba Maisuaren Erakustaldia.» IV. «Neska hutsen bortxaketei eta emagalduen maitazarreei buruzko liburu burugea».

horren arduradun? Ez zigutek esan. Abadiako erroldak araka genitzakek, baina Abadeak daduzkalakoan nagok, eta oraingoz ez niokek galdatu nahi begiratzeko baimenik. Demagun Paolo duela hirurogei urte izan zela liburuzain izendatu. Idatz. Zergatik arranguratzen da, bada, Alinardo, duela berrogeita hamar urte liburuzaintza beretzat izan behar zenaz bestera beste bati eman zitzaiolako? Paolo da Riminiz ari ote zen?

— Edo Roberto da Bobbioz! –esan nuen.

— Horixe lirudikek. Begiraiok orain katalogo honi. Badakik, heldu ginenean Malakiasek esana, liburuok hona ekar arau[3623] zerrendatuta dagozena. Eta nork zerrendatzen ditu? Liburuzainak. Beraz, orrialdeotan kaligrafia nolakoa liburuzaina harakoa edo horrakoa. Orain, begira diezaiogun katalogoari bukaeratik haste. Azkenengo kaligrafia Malakiasena, oso gotikoa, ikus. Orrialde guti batzuk baino ez. Abadiak ez bide dik anitz liburu lortu azken hogeita hamar urteotan. Ondorean, orrialde batzuetan ikarazko kaligrafia ikusten duk: Roberto da Bobbioren izenpea argi zakusaat, gaisorik baitzegoen. Orrialdeak guti bai orain ere: Beharbada, Robertok ez zian luze iraun tokian. Eta begira zer aurkitu dugun orain: beste kaligrafia bat orrialde eta

3623Ekar-arau: (H. “Por oden de adquisición”)

orrialdeetan, idazkera zuzena eta errimea, eta, zinez, ekarritako liburu andana hau harrigarria (eta hauen artean arestian ikusi dugun liburua). Bai lan handia Paolo da Riminik egin zuena! Gehiegi, Nicolak esan digunez oso gazte izendatu baitzuten Abade. Demagun, bada, irakurle ase-ezin horrek urte gutitan abadia hainbat liburuz aberastu zuela… Ez digute, bada, adiarazi Abbas Agraphicus esaten ziotela, akats edo eritasun bakan bat edo zuela eta idatzi ezin zuelako? Baina, orduan, nork idazten zuen haren ordez? Haren laguntzaileak, nik uste. Eta laguntzaile hau geroago liburuzain izendatua izan balitz, bada, katalogoan idazten segitu zukean, eta, hau honela, uler genezakek zergatik dagoen hainbat orrialde kaligrafia bera dadukana. Ondorioz, Paolo eta Robertoren artean beste liburuzain bat genikek, duela berrogeita hamar bat urte izendatua, Alinardoren lehiakide misteriotsu dena, berak, zaharrago izanik, Paoloren ordez bera izendatuko zutela uste baitzuen. Gero azken hau itzaldu zuan eta nolabait, Alinardok eta bestek uste zutenaz bestera, Malakias hautatu zitean haren ordez.

— Baina, zerarren zagoz horren ziur egiazko hurrenkera zuzena hori delakoan? Kaligrafia hau izenik ez dakigun libruzainarena dela egiatzat hartuta ere, zergatik ez izan aurreko orrialdeetako izenburuak Paolorenak?

— Ekarritako liburu horien artean bulda eta dekretu guztiak zerrendaturik dagozelako, eta hauek data zehatzak ditiztek. Esaterako, hik aurki badezak, gerta ohi bezala, Bonifazio VII.aren *Firma cautela*, 1296koa dena, badakik, jakin ere, enura bagerik, idazki hori data hori baino lehenago sartu ez zela, eta askoz geroago ere ekarri ez zutela pentsa dezakek. Honelatan bada, urteetan ipinitako milia-harriak direla esango nikek. Beraz, Paolo da Rimini liburuzain izaitera 1265ean heldu bazen, eta abade 1275ean, demagun bada, beraren kaligrafia edo beste batena, Roberto da Bobbio ez dena, 1265etik 1285era bitartekoa duk, hots, hamar urteko aldea zagok.

Nire maisua zeharo zorrotza zen, doike.

— Baina, zelako ondorioak ateratzen dituzu aurkikuntza horretatik? –itaun egin nion.

— Bat ere ez, premisak baino ez, lehenaipuak.

Berahala zutitu zen eta Bentziorekin hitz egitera joan zen. Hau bere tokian zegoen ausardiatsu, erabat ziur zegoenik ez iruditurik ere. Artean, bere lehenagoko mahaian, Malakiasenean esertzeko ausartu ez, ausaz, katalogoaren ondoan. Gilen hotz xamar gerturatu[3624]

3624Gerturatu: (H. “le abordó...”)

zitzaion. Ez genuen ahanzteko aurreko arratsaldean gertaturikoa.

— Orain horren ahaltsu bazara ere, liburuzain jaun hori, gauza bat esango didazula uste dut. Adelmo eta besteak eztabaidan aritu ziren goizean, igarkai[3625] asmotsuez, eta Berengariok lehenbiziz *finis Africae* ahotan hartu zuenean, inork aipatu al zuen *Coena Cypriani*?

— Bai –esan zuen Bentziok–, ez nizun lehenago esan? Sinfosioren igarkaiez mintza aitzin, Benantziok, hain zuzen, *Coena*z ele egin zuen; eta Malakias sumindu zen hagitz, idazlan zantarra zela esan zuen, eta gogoratu zuenez, Abadeak haren irakurtea debekatua zuen…

—Ha, beraz, Abadea? –Gilenek–. Oso zudugarria[3626]. Eskerrik anitz, Bentzio.

— Itxaron –Bentziok bat-batean–, eguriki, hitz egin nahi dizut. –Jarrai gakizkion keinu egin zigun, *scriptorium*etik lekora, sukaldera jaisten zen eskaileraraino, ez baitzuen beste inork aditzerik nahi. Ezpainak ikaran–: Beldur naiz, Gilen. Malakias ere hil dute. Orain gehiegi dakit. Gainera, italiarren taldeak ez nau begi onez ikusten… ez dute beste

3625Igarkai: (H. “enigma”)
3626Zudu: interés

liburuzain arrotz bat ikusi nahi… Nire ustez horregatik garbitu zituzten. Ez dizut inoiz aipatu Alinardok Malakiasi zion gorrotoa, haren aiher gaiztoak...

— Nork ebatsi zion aspaldi tokia?

— Hori ez dakit. Beti nahas-mahas aipatzen du. Gainera, istorio zaharra da. Honez gero ziren guztiak hilak izango ahal dira. Baina italiarren taldea, Alinardoren ingurukoa, maiz mintzatzen da… Malakiasi buruz maiz mintzatzen ziren, lastozko gizona zela esanez, beste baterean batek tokian jarria, Abadea gaizkide zelarik. Konturatu bage… bi alderdiren arteko elkarren aurkako jokoan sartu naiz. Gaurko goizeon dut ulertu… Italia azpijokoen lurralde da, Aitasantuak pozointzen badituzte, pentsa ni bezalako mutil gaxo… Atzo, artean, ulertzeke nengoen, dena harako liburu haren baranoan biraka zebilela uste nuen, orain, aldiz, ez nago ziur. Hori aitzakia zen: ikusi duzunez liburua berragertu da eta, honela eta guztiz ere, Malakias hil dute… Badut… nahi dut… ihes egin nahi nuke. Zer aholkatzen didazu?

— Lasai egon zaitezen. Orain aholkurik nahi, bai? Horrela ere, atzo arratsaldean munduaren jabea irudi zenuen. Ergel! Lagun egin bazenit, azken hilketa hori eragotzi ahal izan

genukeen. Zerorrek eman zenion Malakiasi heriotzera eraman zuen liburua. Esaidazu gauza bat, gutienez. Eduki al duzu liburu hori eskuetan, ukitu al duzu, irakurri al duzu? Horrela bada, zer dela eta ez zara hil?

— Ez dakit. Ukitu ez dudala zin degizut. Hobeto esateko, ikertokian hartu nuenean ukitu nuen. Zabaldu ez. Soinekoaren azpian ostendu nuen, nire gelara joan nintzen eta lastaira azpian sartu nuen. Malakias zelatan ibiltzen zitzaidala nekienez, berehalako baten *scriptorium*era itzuli nintzen. Gero, laguntzaile tokia eskaini zidan, nire gelara eroan[3627] nuen eta liburua eman nion. Horixe dena.

— Ez esan zabaldu ere egin ez zenuela.

— Bai, zabaldu egin nuen, ostendu aurrez, benetan bila genbiltzana zela ziur jakiteko. Arabierazko eskuizkribu batekin hasten zen, gero sirierazko bat zegoela uste dut, gero laterazko testu bat eta geroenean gerkerazko bat...

Katalogoan ikusi genituen siglak gogora etorri zitzaizkidan. Lehenengo bi izenburuek ar. eta syr. hizkiak zeduzkaten, hurrenez hurren. Liburua genuen! Baina Gilenek beti eta gehiago estutzen zuen:

3627Eroan: (H. “conduje”)

— Beraz, ukitu egin duzu baina ez zara hil. Honelatan bada, ukitzeaz ez da hiltzen. Eta zer esan diezadakezu gerkerazko idatz-atalaz? Behatu al duzu?

— Guttitto. Izenbururik ez zuela ikusteko baizik ez. Hasiera nola eta zerttobait peitu zuela, hots, ez zuela zirudien…

— *Liber acephalus*... –Gilenek xuxurlatu zuen.

—… Lehen orrialdea irakurten saiatu nintzen, baina egiaz gerkeraz guti dakit, eta beta[3628] luzeago behar nuen. Gainera, beste ñabardura batek hartu zidan arreta, gerkerazko atalarekin zer ikusia zuenak. Dena ez nuen orrialdekatu, ezinik: orriak, nola esango dut, hezeak basiturik edo bide-ziren, bata bestetik bereiztea edo banakatzea zaila. Larrutxa bakana zen… besteak baino bigunagoa. Lehenengo orria higatua zegoen eta nola zegoen higatua, ia-ia birrintzen baitzen, porroskatzen baitzen… oso harritzekoa.

— Harrigarria: Seberinok ere hitz hori berori erabili zuen –Gilenek.

— Larrutxak ez zirudien larrutx… Oihal zirudien, argal-argala, ordea… –Bentzio beti mintzo.

3628Beta: aldia, astia, denbora...

— *Charta lintea*, hots, oihalezko larrutxa –harzara Gilenek–. Ikusi zenuen lehen aldia zena?

— Haretaz zerbait entzun dut, ikusi ez inoiz nik uste. Garesti eta hauskorra omen da hagitz. Honegatik gutitan erabilia. Arabiarrek ekoizten dute, ez da?

— Arabiarrak aurrenak izan zenituen. Alabaina hemen Italian ere ekoizten da, Fabrianon. Eta honelaber… Baina, bai noski! –Haren begiak txinpart-aurtikika ari ziren–. Horixe bai agerpen axolagarria, Bentzio! Mila esker. Bai, hemen, liburuegian, eiki, *charta lintea* bakan duzu, oso eskuizkribu berririk honaxetu ez delako. Eta gainera, heuragik uste du, eta beldur da, mendez mende larrutxak bezain ongi ez duela iraunen, eta beharbada zuzen dago. Demagun hemen brontzea baino iraunkorrago ez zedin gauza nahi zutela… Oihalezko larrutxa, e? Ongi, agur. Gera zaitez lasai. Ez duzu arriskurik.

— Benetan, Gilen? Ziur ote?

— Ziur diotzut. Zure lekuan geratuz gero. Ezegitekorik asko egin duzu, dagoeneko.

*Scriptorium*etik alde egin genuen, Bentzio bertan utzirik, lasai ez baina artege[3629], behintzat, ez hain.

3629Artege: artega (impaciente…) (?) (...ez hain -N)

— Alotz! –Gilen hortz artean mintzo, irtetean–. Tartean sartu izan ez balitz, dena irargiturik[3630] genuke, honez gero.

Abadea jatokian aurkitu genuen. Gilen berarengana eta hitz egin behar ziola esan zion. Abonnek ezin amainatu[3631] izan zuen eta hitzordu bat eman zigun, harik lasterrera bere geletan.

3630Irargitu: (H. “resuelto”)
3631Amainatu: (H. “contemporizar”) (Amor eman...)

SEIGARREN EGUNA

NONA

Abadeak ez du Gilen aditu nahi, harribitxien hizkeraz mintzatzen da, eta gertaera ilun haietaz gehiago azter ez dadin bere nahia agertzen duenekoa.

Abadearen gelak kapitulu-gelaren gainean zegozen, eta areto batean hartu gintuen, zabal-apaina eta leihotik egun garbi haizetsu haretan, abadiako elizaren gainetik hara, Eraikinaren itxura ikaragarriak ikusgai.

Abadea, leiho ondoan zutik, ikuspegia miresten ari zen, eta hotsandiro[3632] begirarazi zigun, keinu batez.

— Gotorleku miresgarria –esan zuen–, horren proportzioetan arka eraiki zenean erabili zen urrezko arauteria laburbiltzen da. Hiru solairutan eratua, hirutasunaren zenbakia hirua baita, hiru ziren Abraham bisitatu zuten aingeruak, arrain handiaren sabelean Jonasek

3632Hotsandiro: (H. “con ademán solemne”)

eman zituen egunak hiru, Jesus eta Lazaro hilobian egon ziren egunak hiru, Kristok bere aitari beregandik edari samina urruntzeko hiru aldiz galdatu zion, apostoluekin hirutan otoitz egitera bazterreratu izan zen. Petirik hiru bider ukatu zuen eta Jesus hirutan berragertu izan zen bere aialdekoen artera, berpiztu ondorean. Bertute teologalak hiru dira, hizkuntza sakratuak hiru, hiru arimaren zatiak, izaki intelektualen motak ere hiru, aingeruak, gizakiak eta tusuriak, soinuaren motak hiru –*vox*, *flatus* eta *pulsus*–; giza-historiaren garaiak halaber hiru, legearen aurrekoa, artekoa eta gerokoa.

— Korrespondentzia mistikoen harmonia miresgarria – Gilenek onartuz.

— Molde karratua ere irakaspen espiritualetan joria duzu – Abadea beti mintzo–. Puntu kardinalak lau dira, urtaroak, elementuak ere lau –bero, hotz, heze, lehor– jaiozaro, hazaro, helduzaro, zahartzaro, ortziko izakiak, lurrekoak, airekoak eta uretakoak, ortzadarreko margoak orobat lau, eta bisurtea izan dadin lau urte behar dira.

— Oi, jakina! Eta hiru gehi lau zazpi, zenbaki mistikoetan mistikoena, eta hiru bider lau hamabi, apostoluak laso, eta hamabi bider hamabi ehun eta berrogeita lau, hautatuen

kopurua, alegia. –Eta ezagutza mistikoen erakustaldi hau, zenbakien mundu hiperuranio honetazko ezagutza mistikoaren erakustaldi honen gainean, Abadeak ezin deus gehiago gehitu. Egoera honetaztxe baliatu zen Gilen, nahi zuen harira[3633] joaiteko–: Azkenengo gertaerez hitz egin behar genuke. Haietaz gogoeta luzea egin dut.

Abadeak leihoari bizkar eman eta Gileni begirakune zorrotz, eta dio:

— Luzeegi, beharbada. Aitortu behar dizut, frai Gilen, zutaz gehiago uste nuela. Orain sei egun heldu zinela, lau lekaide hil izan dira, Adelmoz gain, biga inkisizioak atxilotu ditu (zuzena zen, noski, baina lotsa ekidin ahal izan genukeen inkisidoreak horrako aurreko krimenak ikertu beharra izan ez balu), eta, geroenean, bitartekari izan behar zeneko bilerak ondorio negargarriak ukan ditu, horrako hilketa horiengatixe, hain zuzen ere… Adelmoren heriotza iker zenezan erregutu nizunean oso bestelako atarramendu izango zela uste izaitea ez ahal didazu ukatuko…

Gilen isildu zen; haserre zegoen. Enura bage, Abadea zuzen zegoen. Esana dut, jaulkipen honen hastean, nire maisuari atsegin zitzaiola jendea lilurararaztea[3634], dedukzioak

3633Harira joan: (H. “entrar en materia”)
3634Lilurarazi: (H. “deslumbrar”)

azkar eta laster ateratuz, eta, beraz, bidezko zen bere burumaitazarrean zauriturik sentitzea halako salakuntza jasan eta –eta okerra ere ez baitzen– motelegi edo lar[3635] geldoki jardun zuela eta.

— Egia duzu –onartu zuen–, zure itxaropenak ez batitut bete edo ase, baina esango dizut zerarren, bikaintasun hori. Krimen horiek ez dira fraideen arteko borroka edo mendekuren ondorio, aitzitik, abadian antzina gertatu zera batzuen ondorio baizik.

Abadeak kezkaturik so egin zion:

— Zer esan nahi duzu? Ni ere ohartzen naiz gakoa ez dela sehiburuaren historia ondikozkoan, beste batekin nahasi izan baita. Horrela ere, hori beste kondaira bat duzu, agian ezezagun ez zaidana, nahiz eta horretaz ezin hitzik egin… Zeuk igarriko zenuela uste nuen eta haretaz zerbait esango zenidala ere uste.

— Aitorpen bidez ezagutu zerbaitez pentsazen du bikaintasun horrek. –Abadeak begirada beste aldera bihurtu zuen, Gilenek gehiago zirautson artean–: Bikaintasun horrek jakin nahi badu nik dakidanentz, bikaintasun horren ahotik jakiteke, Berengario eta Adelmoren artean, eta

3635Lar: gehiegi

Berengariorekin Malakiasen artean harreman lizunik izan ote denentz, bada, jakin beza bikaintasun horrek horretaz den bezainbatean abadian oro jakinaren gainean dagoela.

Abadea gorritu zen bortizki:

— Ez dut uste horrelako gaiez mintzatu beharra denik, fraidegai baten aurrean. Ez dut uste, halaber, bilera bukaturik, gehiago esku-idazle baten beharra duzunik. Zoaz, mutil –ahots aginkorrez[3636] esan zidan.

Burumakur, irten nuen. Baina nire jakin-mina halakoxea eta aretoko ate ostean ostendu nintzen, esaten zutena aditzearren erdi-irekita utzirik.

Gilenek harzara hitz egin zuen:

— Ongi, bada, halako harreman lizunak izan arren, ez dute zer ikusi handirik ukan hemen gertaturiko zera mingarri horiekin. Gakoa besterik da, eta zuk ez jakiterik ez nuen uste. Oro liburu baten lapurreta eta jabeketa inguruan sortzen da, *finis Africae*-en ezkutatua, eta orain atzera bertara Malakiasek itzuli duena, eta honela ere, zuk ikus dezakezunez, beste hilketa gehiago gertatzea ez da ekidin.

3636Aginkorrez: (H. “tono imperativo”)

Isilaldi luze egin zen. Gero, Abadea totelka-motelka mintzatzen hasi zen, ustebageko albiste edo hiralgo berriak jaso balitu bezala.

— Ezin liteke… Zu… Nolatan dakizu *finis Africae* dagoela? Nire geben-agindua[3637] urratu ote duzua? Liburutegira sartu ote zarea?

Gilenek egia esan beharko zuen, baina Abadea suminduko zen tint eta hagitz. Nire maisuak ez zuen gezurrik esan nahi, noski. Beraz, beste galdera batez erantzun zion:

— Ez ote zen Bikaintasun hori esan zidana, ezen, ni bezalako gizon bat, Brunello ezagutu ez arren hain zehazki deskribatu baitzuen, oztoporik bage, sartu ezin zuen tokiz ere mintzatzeko eta hausnartzeko gai izan zitekeela?

— Hots, horrela duzu, beraz. Baina, zerk zaramatza horrela pentsatzera?

— Ondorio horretara nola heldu naizen luze dateke jaulkitzen. Egia, bada, hauxe: hilketa batzuk gertatu izan direla zeinbait lagunek aurkitzerik nahi ez zen gauza aurki ez dezangatik. Orain liburutegiko isilpeko zerbaiten berri

3637Geben-agindu: (H. “interdicción”) (Gebendu: debekatu)

jaso zuten guztiak, dela zuzen dela oker, hilik dagoz. Bat bakarra dago bizirik: zu.

— Iradoki nahi duzu… iradoki… –Abadeak mintzatzean lepoko zainak handitzen eta puzten zitzaizkiola ziharduen.

— Ez gaizki hartu –Gilenek, eiki zerbait iradokitzen saiaturik, esan zuen–. Zera diot, alegia, badagoela norbait zerbait dakiena eta beste inork ez dakien[3638] nahi duena. Zu dakien azkena zaitut, eta hurrengo biktima izan zintezke. Debekuzko liburu horretaz dakizun guztia niri jakinarazi ezik. Eta, oroz gain, abadiako nork lekikeen, zerorrek dakizun bezainbeste edo beharbada gehiago, liburutegiaz, niri esan ezik.

— Hemen hotz dago. Irten dagigun –Abadeak.

Aldendu nintzen arin ate ostetik eta kapitulu-gelara zihoan eskailera ondoan hurbildu nintzaien. Abadeak ikusi ninduenean irri egin zidan.

— Zeeenbat gauza kezkagarri aditu ote duen fraidegaitto honek azkenaldion! Ea, bada, mottell, ez utz honek guztionek aztora[3639] zaitzan. Ez dut uste irudika adina azpikeriarik legokeenik...

3638Dakien: jakin dezan
3639Aztoratu: perturbar

Eskua goratu zuen eta hatz nagian zeraman eraztun eder-ederra, bere ahalgoaren ikur, egunaren argiak argitzea utzi zuen. Eraztunak bere harriekin dirdai[3640] egin zuen txit argitsu.

— Ezagunetsi duzu, bai? –esan zidan–. Nire agintaritzaren ikurra da eta berebat nire gainean irozo behar dudan zamarena. Ez da apaingarri, jainko-hitzaren laburpen bikaina baizik, eta ni hitz horren zaintzari nagokio. –Harria hatzez ukitu zuen, hobeto esateko, giza- eta izadi-antzearen lan miresgarria osatzen zuen harri multzo margoaniztuna–. Hau ametista da, apaltasunaren ispilu San Mateoren xalotasun eta gozotasuna gogorarazten dizkiguna; hau kaltzedonia da, karitatearen ezagugarrian, Joseren harriaren eta Jaun Done Jakue nagusiaren ikurra; hau jaspe edo harrinabarra da, fedea sustatzen duena, Done Petirirekin lotua; hau sardonizea da, martirioaren ikurra, gogora San Bartolome ekarten diguna; hau zafiroa da, itxaropenarekin begiespena[3641], Ander eta Paul deunen harria; eta hemen beriloa, San Tomasen bertutueak, hots, dotrina santua, zientzia eta tolerantzia… Zein bikaina den harribitxien hizkuntza! –aurrera eta beti mintzatuz, bere ikuspen

3640Dirdai: distira (fulgor, destello...)
3641Begiespen: kontenplazio

mistikoan sorgorturik[3642]–, ohiko harribitxi-lantzaileek Aaronengandik eta apostoluaren liburuan dagoen zeruko Jerusalemen deskripziotik atera zuten. Beste aldetik, Siongo harresiak Moisesen anaiaren paparrekoa apaintzen zuten bitxiez josita zegozen, karbunkloa, agata eta onize izan ezik, zeren, hauek, Exodoan aipatuak, Apokalipsian kaltzedoniak sardonizeak, krisopazioak eta hiazintoak ordezkatzen baitituzte.

Gilenek zerbait esatera egin zuen eta Abadeak berehala eskua jaso, isilarazteko, eta hitzari hitz:

— Hainbat harri ezberdin deskribitzen zuen letania-liburua dut gogoan, Birjinari goresmenez eskaini bertsoetan kantatuz. Honela beraz, konpromiso-eraztuna olerki sinbolikoa zen: apaingarri zeduzkan harriek, beren harribitxi-hizkuntzan, goi-goiko egien multzo distiragarri adiarazten zuten. Harrinabarra fedea, kaltzedonia karitatea, esmeralda araztasuna, sardonizea birjin-bizitzaren jabaltasuna[3643], errubia Kalbario rmendiko bihotz odol-jariokorra, krisolito bere dir-dir[3644] eraskotakoa[3645] Mariaren mirari ugarien lilura baita, hiazinto karitatea, amatista

3642Sorgortu: (H. “absorto”)
3643Jabaltasun: (H. “placidez”)
3644Dir-dir: (H. “centelleo”)
3645Eraskotako: multiforme (N)

arrosa-urdin nahasia, Jaungoikoaren maitasuna… Baina beste ekai batzuk ere bazegozen josirik, hala nola beira, arimarekin gorputzaren kastitatearen ikur, ligurioa anbarraren antzekoa, neurritasuna[3646] islatzeko, eta iman-harria burdina erakarten duena, Birjinak bere ontasunaren plektroaz bihotz damutuen hariak joiten dituen bezala. Sustantzia guztiok, dakusazukeenez, neurri apal-apal eta ttipi-ttipiz bada ere, nire bitxia apaintzen dute. –Eraztuna biribilki higitzen ari zen eta haren distiraz itsuarazten ninduen, burtzoratu nahi baininduan–. Hizkuntza miresgarria, bai? Aita guztiek ez dizkiete harriei esangura hauek emaiten. Inozentzio III.aren gardiz errubiak baretasuna eta egonarria iragarten ditu, eta granateak karitatea. Bruno deunaren eritziz, itsasurak[3647] zientzia teologikoa biltzen du, bere bristada[3648] garde-gardenetan. Turkesak alaitasuna esan nahi du, sardonizeak serafinak ekarri ohi ditu gogora, topazioak kerubinak, harrinabarrak tronuak, krisolitoak menperatasunak, zafiroak bertuteak, beriloak printzerriak, errubiak goiaingeruak eta esmeraldak aingeruak. Harribitxien hizkuntza eraskotakoa da, bakoitzak egia batzuk adiarazten ditu, zer irakurri nahi den, zein

3646Neurritasun: (H. “templanza”)
3647Itsasur: (H. “aguamarina”) (?) (N)
3648Bristada: (H. “destello”)

ingurumaritan agertzen diren. Eta nork erabaki dezake esangura maila eta zein den ingurumari egokia? Jakin dakizu, mutil, irakatsi dizute: agintaria, guztien artean erizlerik[3649] ziurrena, izenik onena duena, eta, ondorioz, santutasun handiagoa. Bestela, nola uler genitzake era askotako zeinuak munduak gure begi bekatarien aitzinean hedatzen dituenak? Nola egingo genuke deabruak erakarten gaitueneko okerretan eror ez gaitezen? Jakizu harribitxien hizkuntza bereziki tusuriari zaiola nazkagarri, Andere Dona Hildegardaren kasuak erakusten duenez. –Eraztuna muin eman niezaion eskaini zidan, eta belaunikatu nintzen. Burua laztandu zidan–. Ahantzi, bada, mottell, egunokaz aditu dituzun okerkeriak. Orotako baldernarik handien eta mazalenean[3650] sartua zaitugu. Ni balderna horretako abade bat nauzu eta nire barrutian zagoz. Beraz, adi ezazu zer agintzen dizudan: atzendu egizu, ahantzi, eta zure ezpainak betirako itxi daitezen. Egizu zin.

Kantiturik[3651], barrena beratua nengoen, eta egin egingo nuen, noski. Eta orain zuk, irakurle on horrek, ez zenuke kronika zehatz hau irakurri ahal. Baina orduan Gilenek esku hartu zuen, beharbada ez nik zin egin ez

3649Erizle: (H. “comentarista”)
3650Mazal: noble
3651Kantitu: (H. “conmovido”) (Barneberatu –barrena beratu)

nezangatik, senetik ateratako olde[3652] bategatik baizen, Abadeari hitz mozteagatik, eragozteagatik, harexek sorrarazi zuen liluramendua etetearren, aurki.

— Zer doakio horretaz mutil honi? Itaun bat egin dizut, arrisku batez ohartarazi dizut, izen bat emaiteko eskatu natzaizu… Neuk ere zure eraztunari muin eman diezaiodan nahi ote duzu ausaz, eta aztertu dudan edo susmo dudanaren ahanztea zin dagidan?

— Oi, zu! –Abadeak illunxko antxean esan zuen–. … Ez dut uste fraide eskalea gure ohituren edertasunaz jabetu ahal litekeenik, edo karitatearen misterioak, isilpekoak, zuhurtasuna errespeta litzakeenik… bai, karitatea, eta ohore-sena, eta isil-zina[3653], gure handitsunaren oinarriak baitira… Kondaira harrigarriaz ele egin didazu. Debekaturiko liburu bat, eta berau dela zio bata bestearen atzetik hiltzen dira, erahiltzen hobeto esanda; nik neronek ez bestek jakin behar nukeen zerbaitegatik beste inork… Asmakeriak, zentzurik batere ez duten inferentziak! Mintza haietaz nahi baduzu: inork ez dizkizu sinetsiko. Nahiz eta zure berregite[3654] fantasiatsuko osagairean bat edo beste agian egia izan… Ea bada, ondo: orain dena berriz ere nire begirapean eta

3652Olde: (H. “reacción” (Senetik… “reacción instintiva”)
3653Isil-zin: voto de silencio (N)
3654Berregite: (H. “reconstrucción”)

ardurapean geratuko da. Begirapetuko dut; egiteko behar beste tresna eta aginte baditut. Hatseandanik[3655] okertu nintzen niri ez besteri doazkidan arazo batzuen irargitzea arrotzari ardura emaiteaz, arrotz hau jakintsu eta usteona irabazitakoa izanagatik ere. Alabaina, ulertu duzu, bai, oraintxe jakin dut, hasieratik bertatik kastitate-zinaren hausketa zela uste nuela eta (hau bai arinkeria!) nik aitorpenaren bidez jakin nekiena beste batek jakinaraz ziezadan nahi nuen. Ondo, bada, badidazu esan. Txit eskerturik nagokizu egin duzunagatik edo egiten saiatu zarenagatik. Bi ordezkaritzen arteko bilera egina da. Hemen zenuen egitekoa amaitu duzu. Inperioko gortean, ene irudiz[3656], zure erpai[3657] dagozkizuke. Zu bezalako gizona bagerik luzaz egoitea ez da on. Abadiarean joaiteko ene baimena duzu. Beharbada, egun, honez gero berandu duzu. Ez dut nahi ilunabarraz gero ibil zaitezen. Bideak ez dituzu ziurrak. Bihar goizean abiatuko zara, goizik. Ene!, ez niri eskerrik eman, atsegin izan dut beste anaia bat bezala hemen ukaitea, eta ohore guretzat abegi ona egitea. Joan zaitezke zure fraidegaiarekin, bidekoa[3658] atontzera[3659]. Bihar goizean,

3655Hatseandanik: hasieratik
3656Irudiz: (H. “me imagino que...”)
3657Erpai: (H. “esperar con ansiedad”) (Zain: begira: aiduru, aio...)
3658Bideko: (H. “equipaje”)
3659Atondu: prestatu...

egunsentiarekin, ikusiko zaitut azken agur egitearren. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez. Jakina[3660], ez duzu gehiago eta beti aztertzeari zertan ekin. Ez itzazu areago fraideak aztora. Joan zaitezke, bada.

Azken agurra bainoago zen: iraitzi, kanporatzen ari zitzaigun. Gilenek agur egin zuen eta eskaileretan beheti jo genuen.

— Zer da hau? –Galdetu nuen. Ordurako, ez nuen zipitzik ulertzen.

— Osa ezak heure kasa hipotesi bat. Honez gero, nola egiten den ikasia behar huke.

— Horrelatan, bada, bi gutienez osatu edo formulatu behar dudala ikasi dut: bata bestearen aurkakoa, eta biak sineskaitzak. Bada, ondo, beraz…–Listua irentsi nuen: hipotesien formulatze hura ez nuen batere erraza–. Lehenengo hipotesia: Abadeak oro zekien eta zuk harean edireiteko, hots, deus ere kausitzeko gaitasunik izango ez zenuela uste zuen. Azterketa egitea eskatu zitzaizunean Adelmo zen hila, beste inor ez, baina, gutika-gutika, istorio hau askoz korapilatsuago zela ohartzen joan zen, nolabait ere bera orobat katramila honetan sartuta zegoela, eta ez du

3660Jakina: (H. “Desde luego”) (Portzierto??)

zuk argitara atera dezazun nahi. Bigarren hipotesia: Abadeak ez du ezer susmatu inoiz (zertaz, ez dakit, zeren, oraintxe zertaz pentsatzen ari zaren ez baitakit). Baina, dena dela, dena ikamika bat zela… fraide sodomiten artean… uste bide-zuen. Honela ere, zuk bat-batean begiak ireki berri dizkiozu: dzanpez zera izugarri bat ulertu du, gogora izen bat etorri zaio, krimenen egilea nor den zehatz-zehatz du gogoan. Baina arazoa berak bakarrik ebatzi nahi du, eta zu baztertu nahi zaitu, abadiaren izen ona gaitzetik askatzeko.

— Lan ona. Ongi arrazoitzen hasi haiz. Baina badakusak bietan gure Abadeak monasterio honen ospe onagatik kezka duela. Dela bera hiltzailea dela hurrengo biktima, ez dik nahi erkidego santu honetaz inolako berri txarrik mendioz beste aldera irago dadin. Haren lekaideak hil ditzakek, baina ez uki abadiaren ohorea. Ai, ene...! –Gilen sumintzen hasia zen–. Sasiko jaun feudal hori! Oilar harroa halakoa, bere ospe bakarra Akinokoaren lurperatzailea izaitea du, zahagi hanpatu hori, edalontzi-ipurdi bezain eraztun handia dadukalako da, ez bestegatik! Zuek, klunitarrak, harroputzen enda zarete! Printzeak baino sorddesago[3661], baroiak baino baroiagoak!

3661Sorddes: gaiztoago

— Maisu… –esatera ausartu nintzen, piperturik[3662], ahakartto[3663] moduan.

— Hi, isildu, heu ere etorki[3664] berekoa haiz eta. Ez zarete inozoak ez inozoen semeak. Baserritarrik agertzen bazaizue, agian hartuko duzue, baina, atzo ikusi genuen bezala, ikusi genuenez, herri-agintaritzari emaiteko zalantzarik ez duzue. Alabaina zuetariko bat baldin bada, ez; arazoa estali behar duzue. Abbone' zitala edireiteko gauza duk eta altxorraren kriptan sastakatzeko[3665] gai ere bai, eta gero haren giltzurrinak erlikarioetan banatzeko, beti ere abadiaren ohorea gaitzetik aske geratuz gero… Baina, frantziskotarra, etxe santu honetako zizare-habia, harraren tokia aurkitu jendexkila *minorita*? Ez, bada, hori Abbonek ezin dik onartu inola ere. Eskerrik asko, frai Gilen, enperadoreak behar zaitu, ikusi duzu zein eraztun ederra dadukadan, ikusi arte. Orain lehia ez duk soilki nire eta Abboneren artekoa, nire eta arazo honen guztionen artekoa baizik. Ez diat irtengo barruti honetatik egia jakin baino lehen. Bihar goizean joan nadin nahi dua? Ongi, etxajauna duk. Honela ere, oraindixe

3662Piperturik: (H. "picado")
3663Ahakartto: (H. "reproche") (Erantzuki...)
3664Etorki: (H. "pasta")
3665Sastakatu: apuñalar

bihar goizera bitartean, egia azkondu[3666] behar diat. Jakin beharra diat.

— Behar duzu? Nork galdatzen[3667] dizu orain?

— Inork ez ziguk jakiterik galdatzen, Adso. Jakin beharra zagok, ez duk besterik, okertzeko arriskurik egonagatik ere.

Oraindik orduan nahasirik nengoen, durduzaturik[3668] eta umildurik, Gilenek nire balderna eta honen abadeei buruz esandako hitzengatik. Abbone txurizkatzen saiatu nintzen, hein batez, hirugarren hipotesi bat formulatzeaz, ordurako, antze hura zeharo eta bikainki menderatzen nuela uste nuen eta:

— Hirugarren aukera bat ez duzu haintzakotzat hartu, maisu. Egunotan ikusi izan dugunez, eta goizeon argiro ikusi, Nicolaren isil-berriak[3669] jaso ondorean, eta elizan aditu ditugun txutxu-mutxuak aditurik, bada italiar fraideen talde bat liburuzainak, bata bestearen atzetik, atzerritarrak izaitea begi onez ikusten ez duena, eta Abadeari ohikuntza ez zaintzea egozten diote. Nik ulertu dudanez, Alinardo zaharraren gibelean ezkutatzen dira, ikur baten antzo

3666Azkondu: averiguar
3667Galdatu (H. “exigir”)
3668Durduzatu(a): confundido, turbado...
3669Isil-berri: confidencia (N)

baitarabilte, eta abadiako nagusitzan[3670] aldaketa nahi dute. Hau ondo ulertu dut, zeren, fraidegaiok ere monasterio guztietan ohi diren eztabaidak, ikamikak eta azpijokoak usnatzen baititugu. Orduan beharbada Abadea beldur zen zuk argitutakoa bere etsaientzat iskilu[3671] izan ote zitekeen, eta arazoa zuhurtasunik handienaz ebatzi nahi luen…

— Balitekek.. Baina hori horrela ere, zahagi hanpatua duk, eta azkenean hilko ditek.

— Baina, zer deritzezu nire aieruei[3672]?

— Geroago esanen diat.

Kalostrapean gengozen. Haizeak gero eta amorru handiagoz putz, argia ahulago, nona orenetik irago berri izan arren. Eguna amaitzear eta beta luzerik ez genuen. Bezperetan, ezbairik bage, Abadeak lekaideei jakinaraziko zien, ezen, Gilenek ordurako ez zuela galderarik egiteko ez inora sartzeko eskubiderik.

— Berandu duk –esan zidan Gilenek–, eta beta laburra duzunean okerrena lasaitasuna galtzea duk. Munduko denbora guztia bagenu bezala aritu behar duk. Arazo bat konpondu behar diat: nola sar *finis Africae*-ra, azkenengo

3670Nagusitza: (H. “gobierno”)
3671Iskilu: arma
3672Aieru: (H. “conjetura”)

erantzuna hantxe behar dik eta. Gainera norbait salbatu beharra diagu, gaizkatu alegia, nor den oraino ez jakin arren. Azkenik, ukuilu aldean-edo zerbaiten gertatzea itxaron behar genikek. Egon erne eta begira… Begira zenbat harahona!

Halaxe, Eraikinaren eta kalostrapearen artekoa oso bixi-bixi zegoen. Orduantxe lipar bat zela, fraidegai bat, Abadearen gelatik zetorren Eraikinerantz lasterka. Nicola Eraikinetik ateratzen ari zen, logeletarantz.

Zoko batean goizeko taldea zegoen: Pacifico, Aymaro eta Pietro. Alinardorekin hizketan, ekin eta ekin, zerbaitez gogatu[3673] nahi balute bezala.

Geroenean erabaki zutela irudi zuen. Aymarok Alinardori heldu zion, entzingaitz[3674] artean, eta harekin batera Abadearen egoitzarantz abiatu zen. Sartzen ari zirenean, gelatik Nicola jalgi zen, norabide berean Jorge zeroala. Sartzean ikusi zituen eta Jorgeri belarrira zerbait xuxurlatu zion: sentonak[3675] burua higitu zuen, gorgoinatuz[3676], eta kapitulu gelarantz aurrera joan ziren.

3673Gogatu: (H. “convencer”)
3674Entzingaitz: (H. “reticente”) (Fidagaitz, uzkur...)
3675Senton: anciano
3676Gorgoinatu: columpiar/ balancear la cabeza/...

— Abadeak egoerari adarretik eutsi ziok… –Gilenek niri txutxu-mutxuka, sineskogor[3677].

Eraikinetik beste lekaide batzuk ateratzen ari ziren, *scriptorium*en egondakoak, eiki; berehala Bentzio haiekin eta guregana etorri zen, are itxura kezkatsuagorekin.

— *Scriptorium*en zalaparta dago –esan zigun–, inork ez du lan egiten, oro ororekin txutxu eta mutxu… Zer ote dugu?

— Zer eta goiz honetara arte susmagarri ziruditen lagunak hil direla. Atzo arte guztiak Berengarioz susmatzen: kokolo, gezurti eta lizunkoi; gero, sehiburuaz, heretiko zela susmaturik; geroenean, Malakiasez: inork ez baitzuen begi onez ikusten... Orain ez dakite nortaz susma, eta etsai bat ediren behar dute, lehen baino lehenago, edo hogendun aker[3678] bat. Batak besteaz susmatzen. Batzuk beldur, zu bezala, beste batzuek beste norbaiti beldur eragin. Ziren guztiak larriturik. Zareten guztiok lar larriturik. Adso –niri Gilenek orduan– begiraiek txitean-pitean ukuiluei. Ni atseden hartzera noak.

Harritzekoa zen: ordu gutti baino ez zitzaion geratzen eta atseden hartzera joaiteko asmoa ez zen, antza,

3677Sineskogor: escéptico
3678Hogendun aker: (H. “chivo expiatorio”) (N)

egokiena. Baina nire maisua ezagun nuen: soina zenbat eta lasaiago, orduan gogoa irakinago zuen.

SEIGARREN EGUNA

BEZPEREN ETA KONPLETEN ARTEAN

Orrialde gutitan larrialdi[3679] *luzeetako orduak deskribatzen direnekoa.*

Bezperen eta komnpleten artean joan ziren orduetan zer gertatu zen zaila zait aletzen.

Gilen ez zegoen. Ni ukuiluen inguruetan nenbilen ibilian, ezer berezirik sumatzeke. Morroiak abereak estalpeetara sarrarazten ari ziren, haizegatik urduri. Baina hau kenduta, ez zegoen beste urduritasunik.

Elizara sartu nintzen. Ziren guztiak ordurako jarlekuetan zegozen, baina Abadeak Jorgeren hutsunea nabaritu zuen. Otoizketa ez hasteko keinu bat egin zuen. Bentziori dei egin zion haren bila joan zedin agintzeko asmoarekin. Bentzio ez zegoen. Norbaitek iradoki zuenez, agian *scriptorium*en zegokeen berau ixteko apailatzean[3680].

3679Larrialdi: (H. “zozobra”)
3680Apailatu: (H. “disponer”)

Haserre, Abadeak Bentziok ezer ere itxi behar ez izaiteko erabaki zela adiarazi zuen, arauak ez zekizkiela eta. Aymaro d'Alessandria jarlekutik zutitu eta mintzatu zen:

— Zure Aitatasunak baimenduz gero, deitzera noakio…

— Inor ez zaizu ezer eskatu –erauntsi zion Abadeak zakarto, eta Aymaro bere lekura bihurtu zen. Pacifico da Tivoli begirakune adiarazgaitza egin ondoan.

Abadeak Nicolari dei, eta hau ere ez zegoen. Abariaren prestaketan begirale zegoela gogorarazi zioten, eta haserre imintzio bat egin zuen, urduri zegoela ororen aurrean erakusteagatik gogaiturik bailegoan.

— Jorge hementxe nahi dut! –oihuz–. Bila ezazue! Zoaz zu –agindu zion fraidegaien irakasleari.

Alinardo ere ez zegoela begirarazi zion beste lekaide batek.

— Badakit –Abadeak–, gaisorik dago.

Ni Pietro da Sant'Albanoren ondoan nengoen eta bere ondokoari zerbait zirautsola entzun nuen, Gunzo da Nola-ri hain zuzen, Italia erdialdeko hizkuntza arrunt batez, nik apur bat baino gehixeago ulertzen nuena:

— Badut uste. Arratsalde honetako bileratik irtetean, senton gaxoa oso aztoraturik egon da. Abbone Avignongo julisa[3681] bezala jarduten ari da!

Fraidegaiak nahasirik zegozen: ume izan arren, korrtxilan zegoen tentsioa sentitzen zuten, nik bezala. Isil eta ezeroso, une luzeak irago ziren. Abadeak salmo batzuk errezitatzeko agindu zuen, eta zoriz[3682] hiru aukeratu zituen, bezperetan jarduteko arauak debekatzen ez zituenak. Guztiek elkarri begiratu, eta berehala ahots apalez otoizketan hasi ziren. Fraidegaien irakaslea itzuli zen, eta Bentzio atzetik, burua makur-makur bere lekurantz. Jorge ez zegoen *scriptorium*ean ez bere gelan. Abadeak jarduna[3683] hasteko agindu zuen.

Azkenean, guztiak jatokira abiatu aurrez, Gilenen bila joan nintzen. Ohatzean etzanda zegoen, jantzirik eta geldirik. Hain belu ez zela, ustez, esan zuen. Hitz gutiz gertaturikoa jaulki nion. Burua higitu zuen.

Jatokiko atean Nicola ikusi genuen, ordu guti batzuk lehenago Jorgeri lagundu ziona. Gilenek galdera egin ea

3681Julis: (H. “puta”)
3682Zoriz: (H. “al azar”)
3683Jardun: (H. “oficio”)

sentona berehalakoan Abadearen geletara sartu al zen. Nicolak erantzun zionez, ate aurrean luzaz iguriktzen[3684] egon zen, aretoan Alinardo eta Aymaro d'Alessandria baitzegozen. Gero, Jorge sartu zen eta barruan alditto batez geratu zen, eta bera haren begira. Elkarrizketa bukatu eta, bezperak baino ordubete lehenago, elizara eroan zezan eskatu zitzaion, eliza hutsik egonagatik.

Abadeak sehiburuaekin solasean ikusi gintuen.

— Frai Gilen –ahoskera zorrotzez mintzoz esana–, oraindik ikertzen ote duzu?

Gero, bere mahai ondoan esertzeko keinu egin zion, ohi bezala. Bededitarren abegikortasuna[3685] sakratua da.

Abalordua ohi baino isilagoa izan zen, eta goibela. Abadeak gogo bageturik jaten zuen, jangartxu[3686], pentsamendu ilunez gainezka[3687] eginda, nonbait. Azkenean, konpletetara joaiteko bizkor ibil zitezen esan zien fraideei.

Alinardo eta Jorge ez zegozen. Fraideek itsuaren jarleku hutsari begirarazten zioten eta ahapeka mintzatzen ziren. Otoizketa amaitzean, Abadeak Jorge de Burgosen

3684Iguriki: itxaron
3685Abegikortasun: hospitalidad (?)
3686Jangartxu: inapetente
3687Gainezka eginda: abrumado

osasunaren alde eskari-otoitz[3688] berezi bat errezitatzeko gonbitea egin zien. Ez zen argi gorputz-osasunari buruz ari zen edo sekulako osasunari ote. Orok ulertu zuen, nolabait ere, erkidegoaren gainera beste zoritxar bat zetorrela. Gero, Abadeak nor bere gelara joan zedin azkarrago ibiltzeko agindu zuen. Inork –agindu zuen hitzean indar eginaz– ibili behar ez du gelatik at. Fraidegaiak, beldurturik, irteiten lehenak izan ziren, txapiloa aurpegi gainean, burua makur, txantxarik, ukondokadarik, irririk, zangotrabarik batere egin bagerik, maltxur eta ezarian bezala ohikoak baitziren (izan ere, fraidegaia, fraidetto izan arren, ume ere bada, eta alperrikoak sarri irakaslearen erasialdiak[3689], ezin ekidin dezake ume antzo jolasterik, adin xamurra halakoxea eta).

Fraide helduak jalgi zirenean, alegia eta ezer ez, «italiarrak» neritzen taldearen atzetik joan nintzen. Pacificok Aymarori apalkiro honela zirutson:

— Uste duzua Abadeak benetan Jorge non dagoen ez dakiela?

Aymarok zerantzuion:

3688Eskari-otoitz: plegaria, rogativa
3689Erasialdi: reprimenda

— Jakitea badaiteke, eta badaiteke, halaber, dagoen lekurean itzuliko ez dena jakitea. Agian sentonak oso maite izan du, eta Abbonek dagoeneko ez du maite...

Gilenek eta biok erromesen aterpetxera gindoazelakoa egin genuen, itxuraz, eta Abadea ikusi genuen, jatokiko atetik berriz ere Eraikinera sartzean, atea zabalik eta. Gilenek apur batez itxaron behar genuela erabaki zuen; gero, zabalgunea hutsik geratu ondorean, bere gibeletik jarraiki nekion esan zidan. Leku hutsetan zehar, zalu-zalu[3690], elizaratu ginen.

3690Zalu: ágil / rápido/...

SEIGARREN EGUNA

KONPLETEZ GERO

Ia halabeharrez, Gilenek finis Africae*ra sartzeko isilpekoa aurkitzen duenekoa.*

Sarguaren[3691] ondoan kokatu ginen, sikario antzean, zutabe baten ostean, burezurren kapera ikusgai zen lekuan.

— Abbone Eraikina ixtera joan duk –Gilenek–. Atetzarra barrutik atalagaz[3692] itxita, hezurtegitik irten beharko.

— Eta?

— Ikusiko diagu zer dagien.

Ezin jakin, ordea, guk orduan zertan ari zen. Ordubete eta agertu ez. *Finis Africae*ra joan da, esan nuen. Agian, erantzun Gilenek. Ordurako, hainbat hipotesi formulatzen ohitua, hauxe gehitu nion: Edo, agian, atzera jatokitik irten du eta Jorgeren bila joan. Eta Gilenek:

3691 Sargu: entrada (sar+gu: sartzeko lekua) (Irtengu, ikasgu…/ Sargia...)

3692 Atalaga: tranca de la puerta (Ate+haga)

Balitekek. Beharbada, Jorge honez gero hila zagok. Nik iradokizun gehiago: Agian Eraikinean dago, beharbada Abadea hiltzen ari da. Heldubada, biak beste lekurean batean dagoz eta inork segada egin die. Zer nahi zuten «italiarrek»? Zer zela eta zegoen Bentzio hain beldurrak jota? Ez ote zen izango aurpegian jantzitako mozorro bat guri ziri[3693] sartzearren? Zergatik luzatu zen *scriptorium*ean bezperak izan bitartean, nola itxi eta nola irten ez bazekien? Labirintoko bidea probatu nahi ote zuena?

— Dena ahal duk. Baina gauza bat bakarra gertatzen duk, gertatu edo gertatuko duk. Gainera, jainko-errukiak ziurtasun nabari[3694] bat oparitzen ziguk.

— Zer? –nik itxaropenez beterik galde.

— Hauxe, hots, frai Baskervilleko Gilenek ez dakiela oraino nola sar *finis Africae*ra, oro ulertu duela uste badu ere. Ukuiluetara, Adso, ukuiluetara.

— Eta Abadeak aurki bagintza?

— Mamu itxurak eginen ditiagu.

Ez zitzaidan egingarri iruditu, baina isildu egin nintzen. Gilen urduritzen hasita. Iparraldeko atetik irten

3693Ziri(a) sartu: engañar
3694Nabari: (H. “patente”)

genuen, eta hilerrian zehar jo, haizeak gogor putz zegieino. Jaunari erreguka nindoan, mamuekin tupust geuk ez egiteko, gau haretan arima alderrraiak[3695] ugari eta. Ukuiluetara iritsi ginen eta zaldiak entzun genituen, gero eta urduriago aro[3696] bortitzagatik. Atetzar nagusitik ilunean zaldien siluetak ikus eta Brunello ezagunetsi nuen, ezkerraldean zegoen aurrena baitzen. Eskuinaldean hirugarren kabaleak burua jaso zuen, gu hantxe gengozela ohartu eta. Irrintzi egin zuen. Nik irri:

— *Tertius equi* –esan nuen.

— Zer? –Gilenek.

— Ezer ez, Salbatore gizagaxoaz oroitu naiz. Zaldi horrekin ez dakit zelako aztikeria edo egin nahi zuen, eta bere latinean *tertius equi* esaten zion. Hori *u* izan liteke.

— U? –Gilenek galdetu zidan, nire hitzak eta pitzak[3697] aditu bai baina adi ez egonez aditu baitzituen.

— Bai: *tertius equi* ez da hirugarren zaldia, zaldiaren hirugarrena baizen, eta zaldiaren hirugarren hizkia latinez u da, hots, *equus*. Txotxolokeria baino ez da.

3695Alderrai: errante
3696Aro: (H. “los elementos”)
3697Hitzak eta pitzak: (H. “divagación”) (N)

Gilenek so egin zidan, eta ilunbean beraren begitartea aldatzen zela ikusi uste nuen:

— Jaungoikoak bedeinka hazala, Adso! Baina, bai, *suppositio materialis*, hitzaldia *dicto*-tik hartzen duk, ez *re*-tik… Zein kokolo naizen! –Bekokian takada bat eman zuen, ahurra zabal-zabal, eta gogorttoa izan zelako ttak entzun zen eta min hartu zuela uste izan nuen–. Ene mutil maite hori, egun, bigarrenez heure ahotik jakituria mintzatu duk, lehenik ametsetan eta orain esnaturik! Habil, habil-hoa azkar heure gelara eta har ezak argiontzia. Hobeto, har itzak ostenduta daduzkagun biak. Ez hazate ikus. Elizan izango naiz hire zain! Ez egik galderarik. Habil, hoa!

Galderarik ez eta joan nintzen. Argiontziak nire ohearen azpian geneduzkan, koipeaz beteak, nik bete nituen eta. Dunda[3698] nire soinekoan. Golkoan ezkutaturik, tresna baliagarri haiekin elizarantz jo nuen, antxintxika.

Gilen hiruoineko azpian zegoen. Benantzioren oharrak zeduzkan larrutxa berrirakurten ari zen.

— Adso, *primum et septimum de quatuor* ez dituk lauetarik lehenengo eta zazpigarrena, laukoa baizik, lau hitzekoa, alegia!

3698Dunda: eslabón, mecha, mechero

Nik ez nuen ezer ulertzen. Bat-batean, argipen bat izan nuen:

— *Super thronos viginti quatuor*! Esakunea! Ispilutik gora irarritako hitzak!

— Goazen! Agian oraindik bizi bat salbatzeko zorian izan gintezkek eta!

— Norena? –galdetu nion, berak burezurrak higitzen zituela, hezurtegiko sargua irekitzeko asmoarekin.

— Merezi ez duen batena –erantzun zidan. Eta lurrazpiko iragobidean gengozen, argiontziak izekita, suete[3699] alderako aterantz gindoazela.

Lehenago esan dudan bezala, iragobidea amaitzen zen lekuan zurezko ate bat eta bultzaturik sukaldean, kezulo handiaren ostean, *scriptorium*erantz doan eskailera kiribilaren barrenean[3700]. Atea bultzatzean, gure ezkerraldean zarata motel batzuk entzun genituen, ate ondoan zegoen hormatikoak, hezur eta burezurrez beteriko hilobi-erreskada amaitzen zen lekua. Azken hilobitik atera bitartean, zirrikiturik bageko horma zatia, harri karratuzko bloke handiez eraikia; erdialdean hilarri zahar bat, eta berton

3699Suete: sukalde
3700Barren: (H. “al pie de”)

aldiak higatu monograma batzuk. Ukaldi-hotsak, antza, hilarri atzetik zetozen, edo hilarriz goitik, aldez horma atzerean eta aldez gure buruez goierean. Honelako zerbait lehenengo gauean jazo balitzaigu, berehala hildako fraideak gogora etorri zitzaizkidakeen. Baina honez gero larriagoak bizirik ziren fraideengandik jasan uste nituen, sorddesak.

— Nor ote dugu? –pregunté.

Gilenek atea zabaldu zuen eta kezulo atzetik atera zen. Eskailera ondoko horma luze osoan ere hotsak entzungai, norbait horma barruan atzitua balego legez, hots, horma (oso lodia, doike) sukaldekoa eta hegoaldeko dorretzarrekoa bide-zen, eta bien artekoa barrualdea.

— Hor barruan norbait itxia zagok –Gilenek esana–. Beti neure baitan galdeka jardun izan diat ez ote zegokeen *finis Africae*ra iristeko beste sargurik iragobidez jositako Eraikineon. Bazagok, noski. Hezurtegian, sukalderantz igo baino lehen, horma zati bat zabaltzen duk eta horma barruan ezkutaturik eskailera bat eta beronetatik gora hormaz itxitako gelara artez-artez[3701] heltzen duk.

— Baina nor ote dago hor barruan?

3701Artez: zuzenean

— Bigarren laguna. Bata *finis Africae*n zagok, bestea bertaraxe iristen ahalegindu duk, baina goian dagoenak bi sarguak irekitzen dituen makina kateatu dik, eiki. Honen ondorioz hara igo nahi izan duen hori hortxe harrapaturik geratu duk. Eta hortxe behar dik aztoratzen, hodi horretan aire askorik ez zagokek eta.

— Nor ote da? Salba dezagun!

— Laster zakiagu nor den. Salbatze horretaz, zera, makina hori goitik askatzeaz egin beharko, bestela ezin, katea kendu behar zioagu baina hemendik ez jakin nola. Beraz, igo gaitezen azkar-azkar.

Hala egin genuen. *Scriptorium*era igo ginen eta bertatik labirintora, eta laster hegoaldeko dorretzarrera iritsi. Birritan lasterra moteldu behar izan nuen, haizeagatik: gau haretan hormako arrakaletan zehar sartzen zenak haize-jarioak eragiten zituen, gelarik gela ibiliz, mahaietan barreiatutako orrien artean putz eta putz, txistukari, eta argiontzia eskuez babestera behartzen ninduen.

Laster ispiluko gelara heldu ginen, itxura-desitxura egingo zigun joko haretarako prestaturik nengoen, harez gero. Jaso genituen argiak, argiztatu genituen ispilu-markoaren gaineko bertsikuluak: *super thronos viginti*

quatuor... Isilpekoa argituta zegoen: *quatuor* hitzak zazpi hizki daduzka, q eta r-ren gainean eragin behar zen. Suturik nengoen eta neronek egitea otu zitzaidan: di-da batean, gela erdiko mahaiaren gainean argiontzia utzi nuen, baina hain urduri, su-garttoak mahaiko liburuetako bat milikatu zuen.

— Kontuz, gero, kokolo! –oihuz Gilenek erauntsi zidan, eta putz batez garra iraungi zuen–. Liburutegia erre nahi ote duka?

Barkamena eskatu nintzaion eta berriro pizten saiatu.

— Ez dik axola –Gilenek–, nirea nahikoa. Har ezak eta argitu, esakunea goregi zagok eta hi ez hintzen helduko. Azkar.

— Eta barruan inor iskilu eta guzti balego? –galdetu nion, Gilenek ia haztamuka hizki ondikozkoak[3702] bilatzen zitueino, oin-puntetan jarrita, luzea bazen ere luze, bertsikulu apokaliptikoa ukitzearren.

— Argizta ezak, deabruarren, eta ez izan beldur, Jaungoikoa gurekin zagok eta! –erasiaz erantzun zidan, ez koherentzia handiz, ostera.

3702Ondikozko: (H. “fatídico”)

Haren hatzak *quator*-eko q-a ukitzen ari ziren, eta ni, urrats batzuk gibelean, berak baino hobeki nekusan zer zegien. Esan dudan bezala, bertsikuluetako hizkiak horman landuak edo zizelkatuak zirela zirudien: *quator* hitzaren hizkiak, nabari zen, metalezko ziriz eginak ziren, eta zirien ostean sarturik eta zuloan ahokaturik[3703] makineria miresgarri bat. Zeren, q-tik tenk egin zuenean, takada lehor bat entzun baitzen, r-tik egin zuenean ere berdin. Ispilu-marko osoa astindu zen eta beirazko xafla barrurantz alderatu zen. Ispilua ate genuen, orpoak ezkerraldean. Gilenek eskua sartu zuen, eskuinaldeko ertz eta hormaren artean egin zen irekigunetik eta bere alderantz tenk. Kirrinkaz, atea gureganantz zabaldu zen. Sartu zen Gilen irekigunetik, eta ni atzetik irrist, argiontzia nire buruaren gainetik jasoki.

Konpletak bukatu eta ordu bitara, seigarren egunaren hondarraldian, zazpigarrena hasten zeneko gauaren erditan, *finis Africae*ra sartu ginen.

3703Ahokatu: encajar

ZAZPIGARREN EGUNA

ZAZPIGARREN EGUNA

GAUA

Hemen gertatzen diren agerpen[3704] miresgarriak laburbildu behar banitu, izenburua atal osoa bezain luzea izango litzateke, eta hau ohi denaz bestelakoa da.

Atalasean gengozen, gela batean, beste hiru gela zortzialbokoen antzeko gela zen, eta lizun-sunda[3705] nagusi, eta, orobat, hezetasunak beraturiko[3706] liburuen usaina nabarmen. Argiontziak, nire besoak goraturik, sabai-ganga argiztatu zuen, aurrenik. Beheratu egin nuen eta, ezker-eskuin, garrak erlantz[3707] motelak egotzi zituen, urrunttoko arasa[3708] batzuetarantz, hormetan luze zegozenak. Erdialdean, mahai bat, larrutxez estalia, eta haren ostean eseritako itxura bat ikusi genuen, geldirik ilunbean gure

3704Agerpen: (H. “revelación”)
3705Lizun-sunda: olor a cerrado
3706Beratu: (H. “macerar”)
3707Erlantz: (H. “resplandor”)
3708Arasa: anaquel

begira zegoela irudi zuena, baldin eta harez gero bizirik bazegoen. Haren aurpegia argiztatu aitzin, hala, Gilen mintzo:

— Gau on, Jorge agurgarri hori. Gure zain?

Urrats batzuk aurrera gu eta argiontziak sentonaren begitartea argiztatu zuen, gu ikus gintzakeen bezala guri begira baitzegoen.

— Zu zaitut, Baskervilleko Gilen? Arratsalde honez geroztik, bezperak baino lehenagodanik, zure aiduru nago, hemen barruixtera[3709] etorri naizenetik. Banekien jinen zinena.

— Eta Abadea? –Gilenek atzera galdeka–. Bera al da ezkutuko eskaileran zorabilatzen[3710], iharraustatzen[3711] ari dena?

Jorge lipar batez zalantzan, eta berehala galdez:

— Oraindik bizirik ote dagoa? Uste ukan dut, bada, honez gero airea agortua izanen dela.

3709Barruitxi: encerrar (N)
3710Zorabilatu: ponerse de los nervios, agitarse...
3711Iharraustatu: (H. “agitarse”(?) (Inarrosi...)

— Hitz egiten hasi baino lehen, gaizkatu nahi nuke, salbatu alegia –Gilenek–, hots, gaitz bageturik hortik idoki. Hemendik ireki ahal duzu.

— Ez –ihardetsi zion Jorgek hizkera neketsuaz–, dagoeneko ezin dut. Makineria behetik kudeatzen da hilarria sakatzeaz, eta hemen satai[3712] bat higituz han sakonean, armairu ostean dagoen ate bat ireki ahal da. –Eta gibelera begirarazi zigun–. Armairu ondoan gurpil bat eta kontrapisuak ikus ditzakezu, makineria hemendixe kudeatzen dutenak. Baina gurpila biratzean kurrinka entzun nuenean, Abbone behe aldetik sartu zelako seinale, kontrapisuak lotzen dituen sokari tira egin nion, tenk eta eten zen. Orain iragazgua alde bietan itxirik dago, eta tramakulu honetako hariak ezin konpondu. Abadea hil da.

— Zergatik hil duzu?

— Egun, deitu didanean, zuri esker oro argitua zuela esan dit. Ez du jakin, ordea, zer nahi dudan nik jagon. Inoiz ez du ulertu zehazki zein diren altxorrak eta liburutegiaren helburuak. Ez zekiena azal diezadan eskatu zait. *Finis Africae* irekitzea nahi ukan du. Italiarren taldeak galdatu ei zion beraien eritziz nik eta nire aurrekoek gordetako

3712Satai: palanca (Altxaprima...)

isilpekoa amaitzeko. Berritasunen jakin-gosez guztiz gainez eginak dagoz…

— Eta zuk, antza, hitz eman diozu hona etorriko zinela eta zeure buruaz beste egingo zenuela, beste zeinbaiti bizia kendu diozun bezalaxe, eta horrela eginaz abadiaren izen ona onik geratuko zen eta inork ez zuen ezer jakingo. Eta honaxe nola sar irakatsi zenion, gerora oro begirapetzera etor zintezentzat. Ez al zenuen pentsatu ispilutik sar zitekeen?

— Ez. Abbone soinez ttipia da, eta bertsikuluraino heldu ezin. Iragazgu hori nik ez bestek ezagutu eta jakitera eman nion. Urte askoan ni ibilitakoa naiz hor ilunpetan ibiltzeko errazena baita. Kaperara heldu eta hildakoen hezurrei jarraikiz azkeneraino.

— Beraz, horrela, hilko zenuela jakinki etorrarazi duzu...

— Ezin nuen entzindu beragandik ere ezer. Beldurturik nengoen. Ospe zuenez, ospea baitzuen, Fossanovan gorputz bat eskailera kiribiletik behera eraman zuen. Irabazitako ospea, noski. Orain hila da, zergatik eta bere gorputza eskaileratik gora ekarri ezin izan duelako.

— Berrogei urtean berataz baliatu zara. Itsutzen ari zinela ohartu zinenean, eta liburutegia gehiago begirapetu ezin izango zenuela, oso trikimaina fina egin zenuen. Zure uste oneko abade izendatzea lortu zenuen, eta liburuzain, aurrena Roberto da Bobbio, zuk nahi bezala zuzendu ahal izango zenuena, eta gero Malakias, zure laguntza behar eta zuri galdetzeke urratsik bat ere egiten ez zuena. Berrogei urtez abadia honetako jaun eta jabe izan zara. Hauxe zuten italiarrek ulertu, eta Alinardok behin eta berriz esaten zuena, inorttok ere jaramonik ez eginagatik, zoratuta zegoelakoan eta, ez da? Hala ere, nire zain egon zara, eta ezin kateatu izan duzu ispiluko makina, barrusarturik[3713] dagoelako. Zerarren itxaron didazu? Nola jakin duzu horren ziur, horren eskierrik etorriko nintzela?

Gilenek itaunketan, baina tonuagatik erantzuna igarrita zuela zirudien, eta bere ernetasunaren saritzat hartuko zuela.

— Lehenbiziko egunetik ulertuko zenidala ulertu nuen. Zure ahotsagatik, nik mintzatzerik nahi ez nuen zerbaitez eztabaida egitea erdietsi zenuen eragatik. Besteak baino hobea zinen. Nola edo nola ere helduko zinen. Badakizu: bestearen burubideak norberaren buruan berreraikitzea

3713Barrusartu: (H. “empotrar”) (N)

nahikoa da, bestearen buruaz bezala pentsatzea, alegia. Eta gero beste fraideei galdeka eta itaunka egin ukan diezu. Galdera zuzenak guztiak. Baina inoiz ez liburutegiaz, honetaz isilpeko guztiak jakin bazenitu bezala. Gau batez zure gelako atea jo nuen, eta ez zeunden. Jakina, hementxe zeunden. Sukaldeko bi argiontzi itzaldu ziren, zerbitzari bati aditu nionez. Eta, azkenik, lehengo egunean *nartex*-en Seberino hurbildu zitzaizunean, liburu batez hitz egiteko, ziur nengoen nire azterbide[3714] beretik zindoazela.

— Lortu zenuen, baina, liburua niri kentzea –Gilenek aitzina– Malakias ikustera joan zinen, ordura arte ezer ere ulertu ez baitzuen. Bere jeloskeriagatik zeharo atsebageak jota, ergel horrek gogoan sar-sartua zuen Adelmok bere maite-maite Berengario kendu ziolako ustea, berea baino haragi gazteagoa maite baitzuen harek. Ez zuen ulertzen Benantziok zelako zerikusia zuen istorio honetan, eta zerorrek are nahasaraziago zenuen. Berengariok Seberinorekin zeinbait hartu-eman izan zuela adiarazi zenion, eta ordainetan *finis Africae*ko liburu bat eman ziola. Ez dakit zehazki zer esan zenion. Baina, jeloskeriagatik zoratu eta Malakiasek Seberinoren ikertokira eta bertan hil

3714Azterbide: (H. “pista”) (N)

zuen. Gero zuk zehaztutako liburua bilatzeko astirik ez, sehiburua agertu zelako. Honela gertatu zen ala ez?

— Guti goiti-beheti.

— Alabaina, ez zenuen Malakias hil zedin nahi. Beharbada, ez zuen inoiz *finis Africae*ko libururik irakurri. Zurekin fida. Zure debekuak betetzen zituen. Ilunabarrez, jakin-mindunak uxatzeko belarrak ipini besterik ez zuen egiten. Seberinok ekarten zizkion. Honegatik egun haretan Seberinok erietxera sartzen utzi zion: egunoroko haraldia[3715] zuen, belar bigunak jasotzekoa, Abadearen aginduz egunean-egunean prestatzen zizkion belarrak. Ez ote egia?

— Bai. Nik ez nuen Malakias hil zedin nahi. Liburua ediren zezan esan nion, nola edo hala[3716], eta berriz ere hona ekar zezan, irakurteke. Mila arrabioren indarra zuela. Honela ere, zentzubageko horrek, lehenbiziko aldiz, berainez[3717], hots, bere kasa aritu nahi ukan zuen. Nik ez nuen hiltzerik nahi, egile[3718] zintzoa nuen eta. Baina ez errepika niri zuk badakizuna. Ez dut zure harrokeria elikatu nahi. Honetarako zu zeu nahikoa. Goiz honetan Bentziori itaunketan aditu dizut *scriptorium*ean *Coena Cipriani*-ri buruz. Egiatik biziki

3715Haraldia: hara aldia (tiempo de ir a allá) (Zer, adiskide, honaldi?)
3716Nola edo hala:(H. “cueste lo que cueste”)
3717Berainez: (H. “por su cuenta”) (De por si, de suyo...)
3718Egile: (H. “ejecutor”)

hurbil izan zara. Ez dakit nola kausitu duzun ispiluko isilpekoa, baina Abadeak zuk *finis Africae* aipatu zeniola adiarazi zidanean, banekien, jakin, laster jinen zinela. Honegatixe egon nauzu aiduru. Eta orain, zer nahi duzu?

— Bada, zera ikusi nahi dut –Gilenek– koadernatua dagoen liburukiko azken eskuizkribua, arabieraz eta sirierazko idazki bana eta *Coena Cypriani*-ren transkripzio bat daduzkan liburukia, hain zuzen. Kopia hori gerkeraz ikusi nahi dut, arabiar edo espainiar batek egina, eskuarki[3719], zerorrek aurkitu zenuena, Paolo da Rimini-ren laguntzaile zinela, zure herrialdera bidal zintzaten lortu baitzenuen, Apokalipsiko eskuizkriburik politenak eskuratzera Leon eta Gaztela aldera joan zinenean. Harrapakin[3720] horrek ospe handia eman zizun eta abadian oneritzia, eta horren ondorioz liburuzaintza erdietsi zenuen, Alinardori zegokiokeena, zu baino hamar urte zaharragoa baitzen. Gerkerazko kopia hori ikusi nahi dizut, oihalezko larrutx gainean idatzia, orduan gauza bakana halako larrutxa Silos-en, hain zuzen, ekoizten zutena, hots, zure aberritik hur, Burgostik alegia. Han ostu zenuen liburua ikusi nahi dut, irakurri eta gero, bestek irakur zezan nahi ez zenuelako,

3719Eskuarki:(H. “probablemente”) / Generalmente
3720Harrapakin: (H. “botín”) (N)

hemen ostenduta dadukazuna artezia[3721] handiz babesturik, suntsitu ez duzu, ordea, zu bezalako inork ez baitu libururik suntsitzen: gorde egiten du, soilki, inork uki ez dezangatik. Aristoteles-en *Poética*-ren bigarren liburua ikusi nahi dut, orok galdutzat emana, edo inoiz idatzi ez zena. Zuk, agian, dagoen aldaki[3722] bakarra dadukazu.

— Zein liburuzain bikaina izanen zinen, Gilen! –Jorgek esana, miresmen tonuz eta aldi berean nahibageturik antzo–. Horretaz, bada, oro badakizu, dagoeneko. Hurbil zakizkit. Mahaiaren beste aldean oinaulki[3723] bat dagoela uste dut. Eser zaitez. Hementxe zure saria.

Gilen eseri zen eta argiontzia, nik emana, mahai gainean ipini zuen; Jorgeren aurpegia behe aldetik argiztatzen zuen. Sentonak liburuki bat hartu zuen eta Gileni eman zion. Koadernazioa ezagunetsi nuen: nik erietxean arabierazko eskuizkributzat hartu nuena.

— Irakurri egizu, bada, ikuska ezazu orriz orri, Gilen –Jorgek agindu–. Irabazi egin duzu.

Gilenek liburua behatu zuen, ukitu ez, ordea. Sotana barrurean eskularru bi idoki zituen; ez bereak, hatz-

3721Artezia: (H. “habilidad”)
3722Aldaki: copia
3723Oinaulki: escabel

muturretan irekiak zirenak, Seberino hilik aurkitu genuenean jantzirik zeduzkanak baino. Astiro, liburua zabaldu zuen, higatua eta hauskorra. Gerturatu nintzaion eta haren sorbalden gainetik makurtu nintzen. Entzumen mehea zuelako, nik egin zaratattoa entzun zuen, entzun zuenez.

— Hi ere hementxe haut, mutil? Hiri ere erakutsiko diat, gero...

Gilenek bizkor-bizkor lehenengo orrialdeak ikuskatu zituen.

— Katalogoaren arauera, arabierazko eskuizkribua da zoro baten esaerak dituena. Nor da?

— Oi ene, fedebagekoen kondaira ergelak. Haien gardiz zoroak gauza asmotsuak esateko gai dira, eta haien apezen txundidura eta kalifen gogoberotasuna[3724] eragin ditzakete…

— Bigarren eskuizkribua sirieraz idatzirik dago, baina katalogoak dioenez, alkimiazko liburuxkila[3725] egiptoarraren itzulpena da. Zer dela eta dago liburuki honetan?

— Gure aroko[3726] hirugarren mendeko idazlan egiptoarra da. Hurrengo lanaren tankerakoa da, hain arriskutsua ez izan

3724Gogoberotasun: entusiasmo
3725Liburuxkila: libelo (N)
3726Aro: era (Aldia…) / Eguraldi /

arren. Nork adituko ote ditu alkimikari afrikar baten eldarnioak? Munduaren sorrera Jainkoaren barreari egozten dio...–Begitartea jaso zuen. Oso irakurle oroimen handi-handikoa zenez, berrogei urte lehenagodanik, ikusmenaz gozatzeko aukera galdu aurretik, irakurritako guztia berrizkatzen zuen, eta honela errezitatzeari ekin zitzaiona–. «Jainkoak barre egin zuen bezain laster, mundua jaurriko[3727] zuten zazpi jainko jaio ziren; barreari emandakoan, argia agertu zen; bigarren algararekin batera ura agertu zen; eta haren barrearen zazpigarren egunean arima sortu zen...» Zorokeriak. Ondorean datorren idazkaia bezala, *Coena* glosatzen jardun izan zuten hainbat alotzetariko batek idatzia… Baina ez dituzu idazkai hauek zuretzat axolagarri.

Egia, Gilenek orrialdeak axkar-axkar irago zituen gerkerazkoa arteraino. Orriak, berehala ohartu ni, beste ekai[3728] batezkoak ziren, bigunagoa, eta lehenengoa abantzu urraturik zegoen, alboko zerrenda zati bat koskatua bezala, orban edo zetaka hitsez[3729] josia, liburuetan aldiak eta hezeak egin ohi dituzten bezalakoxeak. Gilenek lehen lerroak irakurri zituen, aurrenik gerkeraz eta gero latinera

3727Jaurri: gobernar (?)
3728Ekai: materia, material
3729Hits: pálido

itzuliz, eta azken hizkuntza honetan aurrera egin zuen, nik ere ondikozko liburua zela[3730] hasten zen jakin nezan.

Lehen liburuan tragediaz ari izan gara, eta nola, gupidarekin beldurra sentiarazteaz, beronek sentimenduen arazpena dakarren. Hitz eman genuen bezala, orain komediaz jardunen dugu (aldi berean, satiraz eta mimoaz) eta nola, barregarri denaren atsegina sentiarazteaz, beronek grina edo aiher gaiztoaren arazpena[3731] erdiesten den. Grina hau zein duina den, arimari buruzko liburuan jardun dugu, zeren, gizakia –animalia guztien artean– barre egiteko gauza den bakarra baita. Honelatan bada, komediak antzeratzen[3732] dituen egintzak zehaztuko ditugu, eta ondorean komediak barre eragiten duen era aztertuko dugu, moduak alegia, egiera eta mintzaera. Egitaden barregarrikeria, erakutsiko dugunez, onena eta txarrena antzekotzetik sortzen da, eta alderantziz, zimarku[3733] eginez harritzetik, ezinezkotik, eta izadiaren legeak haustetik, ezegokitik eta inkontsekuentetik, pertsonaien baliogetzetik[3734], pantomina irrigarri[3735] eta baldarren erabiltzetik, inarmonikotik, gauza ezduinak hutatzetik[3736]. Gero mintzairaren barregarrikeria antzeko hitzen oker ulertzetik, zimardikatik[3737] sortzen dela ere erakutsiko dugu., hots, gauza ezberdinetarako berdinak, eta berdinetarako ezberdinak erabiltzetik, hitz-jariotik eta behin-

3730Zela: mola
3731Arazpen: purificación
3732Antzeratu: imitar-representar
3733Zimarku: (H. “engaño”)
3734Baliogetze: (H. “desvalorización”)
3735Irrigarri: (H. “grotesco”)
3736Hautatu: (H. “seleccionar”)
3737Zimardika: (H. “equívoco”)

berrizkatzetik[3738]*, hitz-jokoetatik, tikigarrietatik, totel edo oker ahoskatzetik eta mordoilokeriatik…*

Gilenek zailtasunez itzultzen zuen, hitz zehatzen bila, txatan-txatan gelditzen zelarik. Eta trikatzean irri egiten zuen, itxaron edo igurikitzen zituen gauzak agertzen zitzaizkiola eta, irudiz. Lehenengo orrialdea goraki irakurri zuen eta berehala gelditu zen, gehiago jakin-gura ez balitz bezala. Orriz orri arin-arin beste orrialde batzuk gainetik ikuskatu zituen, bat-batean orria zabaldu ezinik gertatu zen arte. Alboko zerrendaren goialdean, eta ertz luzean, orriak bata bestearekin itsatsita zegozen, lekeda likatsua[3739] gisa, hezetu edo umelduz gero ekaia ihetzeturik izan ohi den bezala. Jorge orrien kirrika[3740] gelditu zela konturatu zen, eta Gileni aitzina egiteko kitzika[3741] egin zion:

— Ea, bada, irakurri egizu, ikuska orriz orri. Irabazi egin duzu eta.

Gilenek barre; barregura zirudien:

3738Behin-berrizkatu: reiterar (N)
3739Likatsu: viscoso
3740Kirrka: crujido (Karraska...)
3741Kitzika: (H. “incitar”)

— Beraz, ez da egia ni hain gizon erne eta zolitzat nauzula, Jorge! Zuk ez dakusazu, baina eskularruak jantzirik daduzkat. Oztopo hau erietan[3742], ezin dut banandu orri bat bestetik. Erantzi egin behar nituzke, busti eriok mingainean, goizeon irakurtean *scriptorium*ean egin dudan bezalaxe, bat-batean isilpeko hau ere ulerturik. Liburua orrikatzeari ekin behar nioke, orririk orri nire ahoak behar bezainbesteko pozoin irensteraino. Zerari nagokio, hots, egun batean, aspaldi, zuk zeuk Seberinoren ikertokian ebatsi, ostu zenuen pozoinari nagokio, edenari. Ordurako, eiki, zu kezkatuta zengozen, *scriptorium*ean inori *finis Africae*z hizketan, axolati, aditu baitzenion, edo Aristotelesen liburu galduaz ari baitzen, edo biez ala biez jakin-mina baitzuen. Ontzia luzaroan gorderik eduki duzula uste dut, arriskurean bat edo bat ikusiz gero erabiltzeko asmoarekin, noski. Eta ikusi zenuen, orain direla egun batzuk, Benantzio liburu honetako gaiari hurbilegi zenean, eta Berengario zuk uste baino zuhurrezago izan zenean, arinkeria[3743], handiustekeria[3744], edo Adelmoren bihotza hunkitzeagatik[3745]. Orduan hona etorri zinen eta segada-makina prestatu zenuen. Garaiz, doi-doi, gau batzuk geroago Benantzio honatu baitzen. Hartu

3742Er(h)i: hatz
3743Arinkeria: (H. “frivolidad”)
3744Handiustekeria: (H. “jactancia”)
3745Bihotz hunkitu: (H. “impresionar”)

zuen liburua, ikuskatu zuen lehiaz, ia irentsiz bezala. Berehalako baten, ondoezik sentitzen hasi zen, eta lagunzun egin zuen lasterka sukalderantz. Hantxe hil zen. Oker al nago?

— Ez. Aitzina.

— Bestea erraza da. Berengariok Benantzioren gorpua aurkitu zuen, sukaldean; beldur zen horrek ikerketa edo arakaketa ekarriko zuela; izan ere, Benantzio gau haretan Eraikinean zegoen, zer zela eta, bada, Berengariok Adelmori jaulki zion hura zela eta. Ez zekien zer egin. Jaso zuen gorpua bere lepora, eta odola zegoen upelera bota zuen, guztiek ito zela sinetsiko zutela uste izanki.

— Eta zuk nola dakizu horrela agitu zela?

— Zuk ere badakizu: Berengarioren gelan odolez zikindu zapi bat aurkitu zutenean nola durduzatu[3746] zinen ikusi nuen. Benantzio odoletan sartu ondoan eskuak garbitzeko erabili zuen zapia zen. Baina handik alde egina zelako, Berengariok zuen liburu hura eraman, ordurako beronetaz jakin-mindua, nonbait. Eta nonbait aurkituko zutela bazenekien, ez odoleztatua bai pozoindua. Gainerakoa argi dago. Seberinok liburua aurkitu, lehenago Berengario

3746Durduzatu: (H. “reaccionar”)

erietxera joanda baitzegoen, inoren begietatik urrun lasai irakurteko asmoarekin. Ondorean, zuk bultzatu eta, Malakiasek Seberino hil, eta bera hona itzuli, hain debeku zorrotza zer zela-eta zen jakin nahi, izan ere, bera hiltzaile bihurtu zuen gauza hura zer zen jakin-min minez zen. Heriotza horiek guztiak honela argitzen dira, azaltzen… Bai alotza!

— Nor?

— Ni. Alinardok esandako bategatik sinetsi nuen, ezen, hilketa bakoitza turuta-joite batekin lotuta zegoela, Apokalipsiak aipatzen dituen zazpietarik banarekin. Txingorra, Adelmoren kasuan, buruhilketa zen. Odola, Benantziorenean, eta Berengarioren burutaldia izan zen. Beronen kasuan ura, eta halabeharrez izan zen. Zeruaren heren zatia, Seberinorenean, eta Malakiasek uztaidun esferaz jo zuen, esku-eskura eduki zuelako. Azkenik, arrabioak, Malakiasen kasuan… Zer zela-eta esan zenion liburuak mila arrabioren indarra zuela?

— Zugatik. Alinardok bere asmoa jakinarazi zidan, eta gerora norbaitek esan zidanez, zuk sinesgarri zeneritzon… Orduan heriotza horiek guztiak Jainkoaren xede batez eginak zirela pentsatu nuen, ni beraz errubage. Eta

Malakiasi iragarri nion, ezen, kuxkuxean ibiliz gero, jainkoxede horren arauera hilko zela, eta honelaxe agitu zen.

— Horrela da, bada… Eskema oker bat eraiki nuen, errudunaren egitadak ulertzeko, eta erruduna eskema horretaraxe moldatu izan azkenean. Eta okerreko eskema horrexek erakutsi dit, hain zuzen, zure aztarrena. Gure garai honetan oro Joanen liburua burutik ezin kenduta dabil, zuk, aldiz, meditazio mota horretara emanago zenirudien, alde batetik Antikristoz ibilarazi izan dituzun ustekeriengatik, baina, batez ere, Apokalipsirik bikainenak ekoitzitako herrialdekoa zarelako. Behin norbaitek esan zidanez, liburutegira kodizerik ederrenak ekarritakoa zerori zaitugu. Beste behin, Alinardok amets gaiztotan edo zentzu galdurik etsai misteriotsu batez jardun zuen, Silos-era liburu eske joan zen batez (harritu zitzaidan azken hau garaia baino lehenago ilunbeen erresumara itzulia zela esan izana: lehen unean hilik zegoela esan nahi zuela pentsa zitekeen, baina, egiaz, zure itsutasunaz ari zen). Silos Burgostik hur dago, eta goiz honetan katalogoan handik ekarritako zeinbait gauzaren aipamena aurkitu dut: apokalipsi hispaniar guztiak, zu Paolo da Raminiren ordezko edo ordezkakizun egon zinen garaikoak. Eta ekarritako haien artean honako liburu hau. Honela ere ez nengoen ziur, ez nik eraikitako guztiaz,

harik eta, ostutako liburua oihalezko orriez egina zela jakin nuen arte. Orduan Silos etorri zitzaidan burutara, eta beronez gero zalantzarik ez. Jakina[3747], liburu honetaz eta bere pozoinezko indarraz burubidea egin ondorean, eskema apokaliptikoaren bidea galtzen hasi zen, eta honelarik ere ez nuen ulertzen nolatan izan zitekeen: liburu honek eta turutajoite haiek zuregana ninderamaten. Liburuaren historia zutaz pentsatzean hobeto ulertu nuen, apokalipsiko sekuentziak behartuta, eta zuk barreari buruz zenituen eztabaidez pentsatzean. Begira noraino: gau honetantxe, eskema apokaliptikoa dagoeneko sinetsi ez, zalditegiak begiratu beharraz tematu naiz, bertan seigarren turuta joko zutelakoan, eta ukuiluetan bertan eman zidan burutara gakoa Adsok *finis Africae*ra sartzeko.

— Ez dizut ulertzen –Jorge mintzo–. Harro zagoz nireganaino zure arrazoimenduz heldu zarela erakusten, eta horrela ere, okerreko arrazoiari jarraikiz iritsi zarela derakustazu. Zer esan nahi didazu?

— Zuri, ezer ez. Beste bagerik[3748], harrituta nago. Baina ez du axolarik. Hementxe nago, nagoenez[3749].

3747Jakina: (H. “desde luego”)
3748Beste bagerik: (H. “sencillamente”)
3749Nagoenez: (H. “el hecho es que...”)

— Jaunak zazpi turutak joiten zituen. Eta, zure okerra gora-behera, soinu horren oihartzun nahasgarri bat entzun duzu.

— Hori esanda baduzu dagoeneko, barteko zure predikuan. Hau istorio hau guztiau, Jainkoaren xede bati dagokiola nahi didazu burutara sartu, zuk zeure burua hiltzailetzat ez emaitearren.

— Nik ez dut inor hil. Bakoitza bere bekatari-patuak erorarazi du. Ni tresna hutsa baino ez naiz izan.

— Atzo esan zenuenez, Judas ere tresna bat izan zen. Hala ere, kondenatua izan zen.

— Kondenaren arriskua ontzat emaiten dut. Jaungoikoak asketsiko[3750] nau, bere aintzagatik jokatu dudala dakielako. Nire betebeharra liburutegia zaintzea zen.

— Arestian, oraintxe ia, ni ere erahiltzeko gerturik izan zaitut, areago, mutil hau ere bai...

— Zorrotza zara, bai, besteak baino hobea, ez, ostera.

— Eta orain zer gertatuko da? Zure trikimaina hautsi dut eta.

3750Asketsi: (H. “absolver”)

— Ikusiko dugu. Ez dut hil zaitezen nahi, baitezpada[3751]. Agian neure aburutara bilduko[3752] zaitut. Baina, aurrenik, esaidazu nola igarri zenuen Aristoteles-en bigarren liburua zela.

— Enura bage, zure anatemak, barrearen aurka, ez ziren niretzat aski izanen, ez eta besteekin egin zenuen eztabaidaz jakin ahal izan nuen gutiak ere. Benantziok utzitako zeinbait ohar' baliagarri izan zait. Hasieran, ez nuen ulertu zer esan nahi zuen. Baina zelaian bira-biraka dabilen harri lotsabage bati egiten zion zeinbait aipu, lurpean kantuan ari izanen diren otiei halaber, pikuondo gurgarriei berebat. Nik halako zerbait irakurria banuen, lehendanik: egunotan egiaztatu egin dut. Aristotelesek bere lehen liburuan, *Poetica* delakoetako bat, halako adibideak bazituen emaiten, *Retorica* delakoan ere bai. Gerora, oroitu nintzen Sibiliako Isidororen eritziz komediak *stupra virginum et amores meretricum*[3753] kostatzen dituela... Apurka-apurka nire gogoan bigarren liburu hau marraztuz joan zen, izan zatekeen bezalakoxea. Abantzu dena aletu ahal niezazuke, pozoindutako orrialdeak irakurri bage. Komedia *komai*

3751Baitezpada: (H. "necesariamente")
3752Aburutara bildu: (H. "convencer") (Eritzitara batu) (N)
3753«neska hutsen bortxaketak eta emagalduen maitazarreak».

direlakoetan sortu zen, nekazarien baserrietan hala egia[3754]: jai edo orrits[3755] baten bukaeran barregarrizko ospakizuna zen. Ez du ele egiten gizon ospetsuez ez boteredun jendeaz, gizaki txatxarrez, barregarriez bai, ez, ordea, gaiztoez. Protagonistak edo sujetak ez dira hiltzen. Gizon arrunten akatsak eta makurkeriak erakutsiz barregarritasuna lortzen du. Hemen Aristotelesek barre egin nahia indar ona dela dakus, balio kognoszitiboa ere ukan baitezake, hots, ezagutzabide izan daitekeela. Enigma asmotsu eta metafora harrigarrien bidez, gauzak diren ez bezala agerrarazten baditu ere, gezurrez laso, zinez gauzon hobeto ikustera behartzen gaitu, eta honela esanarazten digu: Begira, bada, gauzak honelako ziren eta ni lehenago ohartu ez. Egia, hala, lortuta, gizonen eta munduaren irudikapenen[3756] bitartez, diren edo direla uste dugun baino sorddesago, dena dela, olerki heroikoek, tragediek eta santuen bizitzek erakusten dizkiguten baino txarragoak. Egia?

— Ia-ia. Beste liburu batzuk irakurteaz berreraiki al duzu?

— Haietarik gutiz gehienez lan egiten zuen Benantziok. Aspaldi zela liburu honen atzetik zebiltzala uste dut. Katalogoan irakurriko ahal zuen, eiki, nik geroago

3754Hala egia: por cierto, ciertamente
3755Orrits: comilona, festín...
3756Irudikapen: (H. “representación”)

irakurritako erreferentzia bera. Eta bilatzen zuen liburua huraxe zela jakin zuen, nonbait. Alabaina, ez zekien *finis Africae*ra nola sar. Berengariok Adelmori aipatu ziola aditu zuenean, zakurra erbiaren atzetik laso abiatu zen.

— Bai, horrelaxe. Berehala konturatu nintzen. Liburutegia defendatu, hortz eta bihotz[3757], beharra zegoela ulertu nuen...

— Eta ukendua ipini zenuen. Lan neketsua izanen ahal zenuen… ilunpean.

— Nire eskuek, honez gero, zure begiek baino hobeki ikusten dute. Pintzel bat ere ostu nuen, Seberinoren ikertokian. Eta neuk ere eskularruak jantzi nituen. Ideia ona izan zen, ez da? Berandutu zinen oso, aurkitzen...

— Bai. Gailua[3758] korapilatsuago zelakoan nengoen, hortz pozoindun bat edo anzeko zerbait izanen zelakoan. Zure asmabidea[3759] eredugarria zela aitortu behar dizut: biktima berez pozointzen zen, eta irakurri nahi ahala pozoindu, hala ere…

Larritu nintzen une haretan bi gizon horiek aurrez aur borroka hilgarrian ari zirela sumatzean, elkar miresten zuten, bakoitzak bestearen oneritzia irabazi nahi izan balu

3757Hortz eta bihotz: con uñas y dientes
3758Gailu: (H. “dospositivo”)
3759Asmabide: (H. “solución”) (?)

bezala. Bat-batean, zera, Berengariok Adelmo liluratzeko edo limurtzeko hedatu zituen amarruez[3760] egin nuen gogoeta. Neskatxa harek ni limurtzearren, niregan grina edo irritsa piztuz, erabili zituen zerak –amarrukeriaz eta trebekeriaz ari garela, bestearen liluratze aldera erabilitakoak– eta nire begiek hantxe zekusaten liluratze-ekintza hura, eta zazpi egun haietan ikusitakoak ez ziren alderatzekoak. Haiek, elkarren arteko lehian bezalako gizonek, batak besteari, nolabait esateko, hitzordu misteriotsuak eman izan zizkion, bakoitzak bestea mendean hartzeko gogo sutsu bezain isilaz, batak besteari beldurrarekin gorroto zion arren, elkarrengandik onespen[3761] jasotzeko asmo ezkutuarekin.

— Baina, orain esaidazu –Gilen ari zitzaion–, zergatik? Zergatik babestu nahi zenuen liburu hau beste batzuk bainoago? Zergatik hau eta nigromantziazko liburuak ezkutatzen zenituen, berauetan, beharbada, Jaungoikoaren izena belzten ziren bitartean? Liburu honen orriengatik ez besterengatik krimen egiteraino heldu zinen, zure anaiak heriopetuz eta zeure burua bera ere kondenatuz? Komediaz ele egiten duten beste liburu batzuk ere badagoz, eta beste

3760Amarru: (H. “artes”)
3761Onespen: (H. “aprobación”)

batzuek, halaber, barreaz ongi hitz egiten dute. Zergatik honako honen beldur, horrenbesteko beldur?

— Filosofoarena zelako. Gizon honek idatzi duen liburu bakoitzak kristaugoak mendeetan bildutako jakintzaren zati bat suntsitu du. Aitek Berbaren ahaltasunaz jakin behar zen guztia esan zuten eta Boeciok Filosofoari zerbait esatea nahikoa izan zen Berbaren jainko-misterioa silogismoaren eta kategorien giza-parodia bihur zedin. Genesis liburuak kosmosa nola osatu eta honetaz jakin behar den guztia dio, eta Filosofoaren liburuak berraurkitzea nahikoa unibertsoa beste era batez berrikusia izan zedin, ekai gor eta likatsuz egina bezala, eta Averroes arabiarrak munduaren betierekotasunaz jende guztia, ia-ia bere eritzitara batu zuen. Jainkoaren izen guztiez dena genekien, eta Abbonek ehortzitako dominikoak, Filosofoak limurturik edo ttittulikaturik[3762], berriz ere enuntziatu ditu, izadiaren arrazoiaren bide harroxkoei jarraikiz. Era honetara, kosmosa, Areopagitaren eritziz begirada goratzen dakienari agertzen zaiona, lehenbiziko kausa eredugarriko ur-jauzi argitsurantz begira, lurreko aztarrenen gordeleku bihurtu da, eta beronetatik abiatzen da goiti kausa eginkor abstrakto baterantz. Lehen zeruari begiratzen genion, eta ekaiaren

3762Titulikatu: seducir, lisonjera, alagar...

lokatzari higuinezko begirada soilki egiten genion, orain lurrari begiratzen diogu, eta zerua sinesten dugu baina lurraren lekukotasunagatik soilik. Filosofoaren hitz bakoitzak, zeinagatik santuek eta Aitasantuek zin egiten baitute, munduaren irudia eraldatu[3763] du. Honela eta guztiz ere, oraindik ez du eraldatu Jaungoikoaren irudia. Liburu hau hel baledi… heldua izan baledi herritarren arteko ulergai izaitera, azken urrats hori egin genukeen.

— Baina, zerarren horrenbesteko beldur barreari buruzko hitzaldi horri? Liburua suntsitzeaz ez duzu barrea suntsituko.

— Ez, jakina. Barrea ahultasuna da, ustelkeria, gure haragiaren moteltasuna[3764]. Landatarren[3765] jolasa da, hordien lizentzia da. Elizak ere, bere jakituriaz, jaiaren unea zilegitu du, inauteria, azoka, egunezko poluzio hori umoreen isurtzea ahalbidetzen duena, beste irrits edo grina batzuei amor emaitea ekiditen baitu… Honela, baina, barrea oraino behe mailako zera da, inozoen babesa, jende arrunt xehearentzat sakralitaterik ez duen misterioa da. Apostoluak zioena: sutan egon beharrean, ezkon zaitez. Matxina zaitez Jaungoikoak nahi duen ordenaren aurka, egizu barre eta

3763Eraldatu: (H. “trastocar”)
3764Moteltasun: (H. “insipidez”)
3765Landatar: campesino (N)

jolas zaitez ordenaren parodia zantarrez… otorduaren azkenaldian murkoak eta pitxerrak hustu ondorean. Hautets ezazu kokoloen erregea, gal zaitez asto eta urdearen liturgian, jolas zaitez zure *saturnal*ak buruz behera irudikatuz… Baina hemen, hementxe… –eta Jorgek mahaia hatz batez joiten zuen, Gilen ikuskatu liburuaren ondoan–, hementxe barrearen eginbeharra alderantziz emaiten da, antze mailara gorarazten da, jakitunen munduko ateak irekitzen zaizkio, filosofiarako eta teologia maltzurrerako gai bilakarazten da… Atzo ikusi zenuenez, inoxoek heresiarik zikinenak burutaratu eta burutu ahal dituzte, nola Jaungoikoarn legeei hala izadi-legeei jaramonik[3766] ez eginez. Baina Elizak xaloen heresia jasan dezake, eurek berek kondenatzen baitute euren burua, euren etxakinkeriak porroskatu eta. Dultzinoren eta ingurukoen zorokeria baldarrak ez du inoiz jainko-ordena kolokaraziko. Indarkeria predikatuko du eta indarkeriak hilko du, ez du zantzurik bat ere utziko, inauteria ahitzen den bezala ahitu[3767] egingo da, eta ez duke axolarik jaia egin bitartean lurrean, epe laburrean bada ere, munduaren alderantzizko epifania gertatzeak. Nahikoa izanen da keinua xede[3768] ez bihurtzea,

3766Jaramonik ez: (H. “caso omiso”)
3767Ahitu: (H. “consumirse”)
3768Xede: (H. “designio”)

herri hizkuntza arrunt horretatik laterara ez iragaitea. Barreak baserritarrari deabruarenganako beldurra kentzen dio, zeren, kokoloen jaiean deabruak ere kokolo eta txiro baitirudi, beraz, kontrolatua. Baina liburu honek deabruarenganako beldurretik askatzea jakituria-ekintza dela erakuts liezaioke. Barre egiten duenean, ardoak eztarrian gor-gor egiten duela, landatarra nagusi sentitzen da, mendekotasun-harremanak behekoz gora ezarri dituelako: baina liburu honek jakitunei trebezia asmotsuak irakats liezazkieke, eta ondorioz ilustreak izan litezke, argidotarrak, behekoz goratze hori zilegi bihurtzeko. Orduan intelektoaren egitada bilakatuko litzateke, anartean[3769] baserritarrraren keinu pentsatu bagea eta, zorionez, sabeleko egitada zena. Barrea gizakiarena izaitea guk bekatari garen aldetik dugun mugaren zantzua da. Alabaina, zenbat gogo ustel zurea bezalakok aterako lukeen liburu horretatik ondorio mutur-muturreko hau, hots, barrea gizakiaren helburua litzatekeela! Barreak, une batzuetan, baserritarra beldurretik alderatzen du. Legea, baina, beldurraren bidez ezarri ohi da, hau da, Jaungoikoaganako beldurra edo lotsa. Eta liburu honetatik Luziferren txinparta aurtikia izan liteke, mundu osoan beste sute bat izekiko lukeena; eta barrea

3769Anartean: entre tanto, hasta entonces...

antze berria izanen litzateke, Prometeok berak ere ezagutzen ez zuena, beldurra deuseztatzeko gai. Barre egiten duen landatarrak, barre egitean, ez du hiltzeagatik ardura handirik, honelarik ere, bere lasaikeria amaituta, liturgiak harzara, Jainkoaren nahiaz, heriotzaganako beldurra ekarten dio. Liburu honetatik heriotza suntsitzeko nahikeria berri eta porroskatzailea sor liteke, beldurrarengandik jaregite horren bidez. Eta zer ginateke gu, izaki bekatariok, beldurra bagerik, agian jainko-dohainetan amultsuenak eta egokienak? Mendeetan, jakitunek eta aitek jakintza santuaren esentzia urrintsuak isuri izan dituzte, gorantz zuzendutako pentsamenduaren bitartez, behe aldeko guztiaren lazeria eta tentazioa berrerostearren[3770]. Liburu honek, komedia, satira eta mimoa sendagai mirarigin balira bezala aurkezten dituen honek, haiek grinen arazteko onak direla dio, akats, hogen eta ahultasunak arazteko alegia, eta baieztapen horrek sasi-jakintsuei eragingo lieke goikoa berrerostera (goi-beheratze deabruzkoa) behekoa onetsiz. Liburu honetatik ondorioz atera daitekeen ideia da gizonak lurbiran nahi lukeela Jauja herrialdeko oparotasuna (Bacon-ek bere liburuan, magia naturalaz ari zela, iradoki zuen bezala). Hori, ordea, ezin eta ez dukegu ukan behar. Begira

3770Berrerosi: (H. “redimir”)

fraidettoek nola galtzen duten lotsa guztia *Coena Cypriani* delako parodia isekagarri horretan. Zein deabruzkoa eskritura sakratuaren itxuraldatzea[3771]! Honela ere, gaizki dagoela jakinki egiten dute. Baina inoiz Filosofoaren hitzak irudimen nahasiaren jolas bazterkoiak[3772] txurizkatuko[3773] balitu, oi ene, orduan bai bazterrean dagoena erdialderatuko litzateke, eta erdialdea zeharo suntsituko litzateke! Jaungoikoaren herria mamu-biltzar bihurtuko litzateke, lurralde ezezagunaren lezeetarean korroskadaz aurtikitako mamuak edo munstroak, eta orduan lurralde ezagunaren aldamena[3774] inperio kristauaren bihotz bilakatuko litzateke, *arimaspo*-ak Petiriren tronuan jarriko lirateke, *blemo*-ak monasterioetan, epotx sabelandi eta buruhandiak liburutegian, zaintzen dutelarik! Legeak zerbitzariek diktatuko lituzkete eta guk (beraz, zuk ere bai) ezein lege bagez odeditu beharko genuke. Filosofo greziar batek esan zuenez (zure Aristotelesek hementxe aipatzen du, *auctoritas* gaizkide eta zantarra) aurkarien bentasuna desarmatzeko barrea erabili behar da, eta barreari, aldiz, aurka egiteko bentasuna ezarri behar zaio. Gure aiten zuhurtasunak honela erabaki du: barrea jende arruntaren jolasbidea bada, jende

3771Itxuraldatze: (H. “transfiguración”)
3772Bazterkoi: (H. “marginales”) (N) (?)
3773Txurizkatu: justificar (N)
3774Aldamen: (H. “periferia”)

arruntaren lizentzia geldiarazi eta umildu eta beldurtua izan behar da, larderiaz. Eta jende arruntak ez du tresnarik bere barrea fintzeko, elizazainen[3775] bentasunaren aurkako langaia izaiteraino. Elizazainok, berriz, betiereko bizitzara eramanki, barrea sabelkokeriatik, alukeriatik, jatunkeriatik, eta grina lizunkoietatik[3776] erauzi behar dute. Edonola ere, egunerean baten inork, Filosofoaren hitzak erabiliz eta beraz filosofo legez mintzatuz, barrearen antzea iskilu sotilaren mailara igoaraz baleza, gogatzearen erretorika irrikoitzearen erretorikak ordezka baleza… Oi, egun horretan zu ere, Gilen, eta zure jakituria guztia suntsiturik geratuko zarete!

— Zergatik? Borrroka eginen nuke. Nire asmamena besteren asmamenaren aurka. Hau baino mundu hobea izango litzateke, izan ere, mundu honetan, Bernardo Guiren suak eta burdina goriak Dultzinoren sua eta burdina goria gutiesten dituzte.

— Zeu ere deabruaren katramilan harrapatuta geratuko zinateke. Armagedon-go zelaian azkenengo borroka eta zuk beste aldean eginen zenuke borroka. Baina egun horretara baino lehen Elizak lazka-matazako[3777] legea ezarten jakin behar du. Biraoak ez gaitu izutzen, zeren, Jaungoikoaren

3775Elizazain: (H. “pastores”)
3776Lizunkoi: (H. “sórdido”)
3777Lazka(-mataza) : (H. “conflicto”) (Lazka: conflicto, enredo)

madarikazioan ere Jehovaren herraren irudi galdua ezagunesten baitugu, aingeru matxinoak madarikatzen dituen Jehova. Ez gaitu izutzen berrikuntzako fantasia baten izenean elizazainak, elizako artzainak, hiltzen dituen indarkeriak, Israelgo herria suntsitu nahi zuten printzeen indarkeria berdina baita. Ez gaitu izutzen donatozalearen[3778] zorroztasunak, zirkuntzelionen[3779] zorotasun buruhilgarriak, bogomiloen lohikeriak[3780], albitarren araztasun harroak, zigorkarien[3781] odol-beharrak, espiritu askearen anaien zorabio galgarriak[3782]: guztiok ezagutzen ditugu eta beraien bekatuen sustraia ere ezagutzen, gure santutasunaren sustrai bera da eta. Ez gaituzte izutzen, eta, guztiz ere, badakigu nola suntsiarazi, hobeki esateko, nola utzi haiek berez suntsi daitezen, beren *nadir*reko[3783] lezeetan beretan sortzen den heriotza-nahia gingaraino[3784] maltzurki daramatelarik. Alderantziz, haien presentzia baitezpadakoa zaigula esanen nuke, jainko-xedearen barruan dago, haien bekatuek gure onbidea bultzatzen baitute, haien biraoak gure goresmena puzten du, haien penitentzia desordenatuak gure

3778Donatozale: donatista (Donatoren jarraitzailea)
3779Zirkuntzelionak: ciercunciliones (Sekta moduko bat)
3780Lohikeria: (H. “lujuria”)
3781Zigorkari: (H. “flagelante”)
3782Galgarri: (H. “maléfico”)
3783Nadir: nadir (Astronomiako hitz arabiarra)
3784Ginga: cénit

sakrifiziorako joera jabaltzen[3785] du, haien gupida-ezak gure gupida distirarazten du, ilunbeetako printzea beharrezko izan zen bezala, bere asaldura eta itxaropen-ezarekin, Jaungoikoaren aintza hobeki gailen[3786] dadintzat, berau baita itxaropen ororen hatsea eta azkena. Baina, inoiz barrearen antzea onargarri izanen baledi, ona irudituko balekigu, eta baterean batek esan ahal baleza (eta entzuna izanen): Jainko semearen Gizonkundeaz[3787], haragizko bihurtzeaz barre egiten dut… Orduan ez genuke iskilurik biraoa geldiarazteko. Soin-indarra nagusituko balitzateke, puzkerra eta korroka laso, eta ondorioz puzkerrak eta korrokak non-nahi putz egiteko eskubidea aldarrikatuko lukete!

— Likurgok barreari estatua bat eraikitzeko agindu zuen.

— Hori Klorizioren liburuxkilan irakurri zenuen. Mimoegileak asketsi nahi izan zituen, gupida-ezagatik salatuta zegozen, eta sendagile batek gaiso bat barrearen laguntzaz sendatu zuela aipatu zuen. Zergatik behar zuen sendatu, Jaungoikoak erabakita zuenez, haren bizialdi honetako epea beterik bazuen?

3785Jabaldu: baretu, lasaitu
3786Gailendu: (H. “resplandecer”)
3787Gizonkunde (H. “Encarnación”)

— Ez dut uste gaitza sendatu zionik. Beretaz barre egiten irakatsi zion, nonbait.

— Gaitza ez da araoka[3788] sendatzen. Deboilatu[3789] egin behar da.

— Eri denaren gorputzarekin batera.

— Beharrezkoa bada, bai.

— Txerren zara zu –esan zion orduan Gilenek.

Jorgek ulertu ez zuela zirudien. Itsu izan ez balitz, bere hizkideari begirada harri eta zurtua josi ziola esango nuke.

— Ni? –galdetu zuen.

— Bai, gezurra esan dizute. Deabrua ez da materiako printzea, deabrua espirituaren harrokeria da, irririk bageko fedea, enurak inoiz jo ez duen egia. Deabrua iluna da, nora doan ez dakielako, eta beti etorri zenetiko[3790] lekura doa. Deabrua zara, eta deabrua bezala ilunbeetan bizi zara. Konbentzitu nahi baninduzun, ez duzu lortu. Gorroto dizut, Jorge, eta ahal baneza kanpora aterako zintuzket eta biluzik

3788Araoka sendatu: (H. “exorcizar”) (N) (?)
3789Deboilatu: (H. “destruir”)
3790Etorri zenetiko lekura: al sitio del que vino / etorri zen lekura: al sitio que vino

ibilaraziko. Uzkitik oilo-hegatsak sartuko nizkizuke eta aurpegia koblakari edo bufoi antzera margotuko nizuke, monasterioan oro zure lepotik barre egiten has dadin, eta gaurgero zure beldur inor ez dagoentzat. Eztiz basituko nizuke soina guztiz eta gero hegatsetan iraulkaraziko, eta ahoko hedeak lotuko nizkizuke, zeiaz zeia, azokarik azoka eramango zintuzket, eta ikusle guztiei honela esanen nieke: Honek egia aldarrikatzen zizuen eta egiak herioren usaina zuela esaten zuen, eta hitzez baino bere itxura goibelagatik bereganatzenago zintuzten. Eta orain diotzuet, Jaungoikoak, milaka aukeren zurrunbiloan, beste mundu bat irudika dezazuen uzten dizuela, berorretan egiaren ustezko ulertzaile hau txoritzar kokoloa baizik ez da, aspaldi handian ikasi zuena behin eta berriz esaka dabilena.

— Zu deabrua baino gaiztoagoa zaitut, sordeia, frantziskotar hori –Jorgek erauntsi zion–. Koblakaria zara, juglarea, zutaz erditu den jaun donea bezala. Zure Frantzisko lakoa zara: *toto corpore fecerat linguam*[3791], predikuak egin bitartean zilipurdikari[3792] antzo aritzen zen, zekenari urrezko txanponak emaiten zizkion, okerturik, eta seroren fedeari iseka egiten zion prediku egin beharrean Miserere

3791«gorputz osoa mingain bihurtua zuen».
3792Zilipurdikari: (H. “saltimbanqui”)

errezitatzen baitzien, eta diru-eskea frantsesez egiten zuen, eta zur zati batez alegia eta xirribikari[3793] egiten zuen, fraide tripontziei ziri sartzearren[3794] eskalez janzten zen, elurretan biluzik etzaten zen, abere eta landareekin ele egiten zuen, Eguberriaren misterioa bera antzaldatzen zuen, baserriko ikuskizun huts bilakatuz, Belengo bildotsari deitzeko ardien antzera beeka egiten zuen… Bai eskola ona!… Ez ote zen frantziskotarra Florentziako Diostesalve fraide hura?

— Bai –Gilen irribarretsu–. Predikarien komentura joana, jaten eman ziezaioten baino lehenago frai Jonen txabusinaren[3795] txatal bat eman behar ziotela esan zuena, bestenaz janen ez zuela, erlikiatzat gordetzearren. Baina eman ziotenean, ipurdia garbitzeko erabili zuen eta gero atzulara[3796] egotzi zuen eta satsean[3797] makila batez nahasi zuen, eta oihuka: «Ai, lagundu, anaiok, urgatzi niri, santuaren erlikia kakatokian galdu dut eta!»

— Historiak, antza, gozarazten[3798] zaitu. Agian beste frantziskotar batena aletu nahi didazu, hots, frai Paolo Millemoscherena. Behin, izotzean irrist egin eta bertan

3793Xirribika: violín / Arrabita: rabel
3794Ziri sartu: (H. “confundir”) (Engañar...)
3795Txabusina: (H. “túnica”)
3796Atzula: (H. “retrete”)
3797Sats: (H. “mierda”)
3798Gozarazi: (H. “divertir”)

“zenbestean”[3799] geratu zen, hedailo[3800], eta herrikideek iseka egiten, eta batek galde, ea ez ote nahiago beste zerbait hoberen gainean etzan, eta berak erantzun: «Bai, zure emaztearen...» Halaxe bilatzen zenuten zuek egia.

— Frantziskok jendeari halaxe irakasten zion zerak beste era batera nola ikusi –Gilenek.

— Baina diziplinatu zaituztegu. Ikusi zenituen atzo zeure anaiak. Atzera gure lerroetara sartu dira. Dagoeneko ez dira xaloen antzera mintzatzen. Inozoek ez dute mintzatu behar. Liburu honek xaloen hizkuntzak jakintza zerbait daramalako aburua baietsiko zuen. Eragotzi beharra zegoen. Hauxe dut nik egin. Txerren naizela diozu: ez duzu egia. Jaungoikoaren eskua izan da.

— Jaungoikoaren eskuak sortzen du, ez ostentzen, ez ezkutatzen.

— Badira muga batzuk, zaindu beharrekoak. Jaungoikoaren nahiaz, zeinbait larrutxetan *hic sunt leones* idatzi izan zen.

— Bidutziak ere Jaungoikoak eginak dituzu. Zu ere sortu zaitu. Eta orotaz hitz egin dadin nahi du.

3799Zenbestean: denbestean, danbestean… (luzera osoan erorita) (?)
3800Hedailo: tendido de bruces, ahuspez etzanda

Jorgek bere esku dardartiak luzatu zituen eta liburua jaso zuen. Zabalik zedukan baina atzekoz aurrera Gilenek alde onetik ikus zezan eran:

— Horrela bada –hasi zen– zer dela eta utzi du idazki hau hainbat mendetan galdurik, eta ale bakarrak iraunik, eta aldaki honen aldakia, non dagoen batek dakiena, urteetan lurperatuta egonik, gerkera zekien fedebageko baten eskutan, eta gerora liburutegi batean bertan behera utzita, eta hemen, ni, ez zu, Jaungoikoak deiturik izan nintzen honek aurki nezan, eta eroan nezan, eta berriro urterik askotan ezkuta nezan? Badakit, diamantezko hizkiz idatzi balu bezala ikusten baitut, nire begiek zuk ikusten ez duzun gauza ugari ikusten dute, badakit Jaunaren nahia hori zena, eta nahi hori interpretatuz jardun izan dut. Aitaren, Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

ZAZPIGARREN EGUNA

GAUA

Bat-batean ekpirosis[3801] hasten da eta bertute gehiegiagatik inpernuko indarrak gailentzen[3802] direnekoa.

Agurea isildu zen. Esku biak zabalik liburuaren gainean, orrialdeak laztandu nahi bezala edo hobeki irakurtearren orriak hedatu nahi balitu bezala, edo arrauberiatik[3803] begiratu nahi legez.

— Horrelarik ere, hori guztia ezertarako izan ez da –Gilenek esana–. Orain dena amaitu da, ediren zaitut, liburua ediren dut, eta besteak alperrik hilak izan dira.

3801Ekpirosis: estoikoen sinesmen bat, unibertsoa suntsitzen delakoa...
3802Gailendu: (H. “prevalecer”)
3803Arrauberia: rapiña

— Alperrik ez. Beharbada gehiegi. Eta liburu hau madarikatua delako zantzu bat behar bazenuen, hortxe duzu. Haien heriotzak, aldiz, ez ahal dira alperrikoak izanen. Eta alperrikoak izan ez daitezen, beste heriotza bat gehiago ez da gehiegi izanen.

Hori esan eta eskuizkribuko orrialde bigunak, xatika eta xerrendaka, baratz-baratz, bere esku ihar[3804] eta argalez[3805] urratzen hasi zen, zarratatzen, eta xatiak ahoratzen, eta astiro mamurtzen[3806] hasi zen, murtxikatzen hasi zen ostia jaten ari bezalaxe, eta bere haragiaren haragi egin nahi bailituan.

Gilenek liluraturik begiratzen zion eta zer gertatzen ari zen konturatzen ez zela zirudien. Gero durduzatu zen eta aurrerantz egin zuen oihu egiteaz batera: «Zer ote dagizu?» Jorgek irri egin zuen, ahoko oi[3807] ikolduak[3808] agerian, eta berehalakoan bere ezpain zurbiletatik listu orizta eriaiten[3809] hasi zitzaion, kokotseko ile urdin mehats bakanetan zehar irrist zegiona.

3804Ihar: (H. “descarnadas”)
3805Argal: (H. “traslúcido”)
3806Mamurtu: masticar (Murtxikatu...)
3807Oi: encía
3808Ikoldu: (H. “exangüe”) (Desgastar / disminuir / ajar)
3809Erion: jario (Erion-eriaiten-eriongo)

— Zuk itxaroten zenion zazpigarren turuta-joiteari, ez da? Adi ezazu orain mintzoak dioena: «Zigila[3810] itzazu zazpi trumoiek esan dituzten gauzak eta ez idatz, har eta jan, eta zure urdaila mingostuko du baina zure ahoan eztia bezain eztitsu izanen duzu.» Ikus? Esan behar ez zena oraintxe zigilatzen ari naiz, eta haren hilobi bihurtu naizelarik zigilatzen dut.

Eta barreari eman zion, nork eta berak, Jorgek. Barre egitean aditu nuen lehen aldia zen... Zintzurraz barre, ezpainek ez baitzuten alaitasun zipitzik erakusten, negarretan ari zela zirudien, abantzu:

— Ez zenuen, bada, honelako amaiera igurikitzen, ez al da, Gilen? Jaunari esker, honek agure honek beste behin irabazten du, bai?

Eta Gilenek liburua kentzera egin zionez, Jorgek, ikusi ez baina aire-dardaragatik higiduraz ohartu zelako, atzera egin zuen eta ezkerreko eskuaz liburua bere paparrean estutu zuen, eskuinaz orriak urratzeari ekin eta ekin eta ahora sartzeari zeragoion artean.

3810Zigilatu: sellar

Mahaiaren beste aldean zegoen eta Gilenek, ukitu ezinean, zapart[3811] egin zuen oztopoa saihesteko. Baina haren soina aulkiaz katigatu zen eta erori, eta Jorgek zalaparta entzun zuen. Sentonak berriro barre-zantzoka, are ozenago, egin zuen, eta bizkor bai bizkor eskuina luzatu zuen, eta beroari jarraikiz garra non zegoen sumatu zuen eta, minari beldurrik bage, ahurra gainean ipini eta garra itzali zen. Gela ilunpe geratu zen eta azken aldikoz Jorgeren karkaila, algara entzun genuen, oihuz: «Bila nazazu orain, orain neronek dut hobeki ikusten!» Behingoan isildu zen eta harez gero ezin entzun guk hari, urrats isilez higitzen baitzen, hain ustebagez agertzen zenetan ohi zuen isiltasunez. Txitean-pitean, han eta hor gelan barrena orrien urraketa-hotsak aditzen genituen arren.

— Adso! –Gilenek oihu egin zuen–, jarri atean, ez utzi irteiten.

Berandu, baina, zeren, ni lehentxeagotik, agurea atzemaiteko gogo amorrutsuz bainengoen eta ilunpe geratu eta bertan, mahaiaren beste aldera jauzita, nire maisuak harenganantz egin zuen beste aldera ni. Beranduegi, ordea, konturatu nintzen, ezen, hala eginez Jorgeri irteera bideratu niola, zaharrak ilunbeetan nondik-nora ondo bai ondo

3811Zapart: movimiento brusco

baitzekien. Halaxe, bada, eta gure gibelaldean orri-urraketaren hotsa aditu genuen; motel xamartua, hala ere, ondoko gelatik zetorkigun eta. Aldi berean beste zarata bat entzun genuen, kirrinka luxatua bezala, nekez egina bezala, orpoen intziri antzo.

— Ispilua! –Gilenek ozendo–. Barruan itxiko gaitik!

Zaratari jarraikiz, biok irteerara jo genuen, behingo baten. Kaxeta batekin tupust eta behaztopa eta hankan min hartu nuen, baina ez nintzen gelditu, bat-batean, bertan itxiz gero, inoiz ere irten ez genukeela gogoratu nuen eta: ilunetan ez genukeen asmatu nola ireki, jakin ere, ispiluaren alde haretatik zer-nola higiarazi behar zen ez genekien.

Gilen ere ni bezain etsi-etsian ari zela uste dut, nire ondoan sumatu nuen, atalasean, eta biok ispiluaren atzealdeari bultzaka genkizkion[3812], gureganantz ixten ari zen aldea, hain zuzen. Garaiz heldu ginen, atea gelditu zen, trikatu, eta gerottoago amor eman zuen eta atzera zabaltzen hasi zen. Argi zegoen, zegoenez, bi aldeen arteko tira-bira haretan galtzaile Jorgek alde egin zuela. Gela madarikatu haretarean irten genuen, baina ez genekien zaharra nora joa zen, eta iluntasuna bete-betea. Bat-batean oroitu nintzen:

3812Genkizkion: ekin (Nekion… zekion, genkizkion… (Nor-nori)

— Maisu, hementxe dunda baitadukat!

— Eta, hala, beraz, zeren begira hago, bada? Bila argiontzia eta pitz[3813]!

Ilun bazen ilun, *finis Africae*-ra jo nuen eta haztamuka biltzen hasi nintzen. Jainkoaren mirariz, berehala kausitu nuen; nire eskapularioan arakatu eta dunda bertan; eskuak ikaran eta behin baino gehiagotan saiatu behar, txinparta egin arte; Gilen bizkitartean ate ondoan arnasestuka: «Arin, arin!» Azkenean, argiontzia irazeki nuen.

— Azkar! –berriro Gilenek niri–, bestela Aristoteles osoa irentsiko dik eta!

— Eta hilko da! –oihu egin nuen larri-larri, berarengana eta elkarrekin bila hasi ginen.

— Ez zidak axola hiltzeak, madarikatua halakoa! –Gilenek oihuz bere begiak ilunetan josirik eta alde batetik bestera higituz–. Azken beltzean, irentsi duena irentsita harenak egin dik. Nik liburua nahi, ostera! –berehala geldi zen, eta lasaittoago, erantsi: Itxaron. Honela ez diagu inoiz jarrugiko. Isil gaitezen une batez, eta geldi.

3813Pitz: – piztu

Isilik gelditu ginen. Isilaldian zarata aditu genuen, ez asago, ez urrun, armairu batekin talka egindako gorputz baten azantz[3814] antzekoa zen, eta liburu batzuk erortzeango[3815] harrabotsa[3816].

— Hantxe! –biok batera ozendo.

Zaratarantz lasterka gu, baina, berehala, astiroago joan behar genuela ulertu genuen. Halaxe, *finis Africae* ez baina liburutegia haize-bolada txistukari batzuek zeharkatzen zuten, intzirika, landan zebilen haizea bezain indartsua barrura sartzen zena. Bolada haiekin gure oldarra halakoxea eta argiontzia iraungitzeko arriskua zegoen, hain beharrezko eta berrirazekiteko zaila genuen argia. Azkarrago ibili ezin eta egokiena Jorge geldiaraztea izango zen. Baina Gilenek alderantziz pentsatu zuen, doi, eta oihu egin zuen:

— Atzeman zaitugu, zahar, orain argia dadukagu!

Erabaki jakintsua, izan ere, agian harek Jorge kezkatuko zuen, eta urratsa azkartuko zuen, eiki, eta ondorioz ilunbeetan ikusteko zuen gaitasun miraritsua nolabait hala-holakatuko. Entzun ere, harik laster zarata bat entzun genuen, eta honi jarraikiz gelara sartu ginen,

3814Azantz: zarata
3815Erortzeango: erortzean+ko / zenean+ko: zeneko
3816Harrabots: (H. “estrépito”)

YSPANIAko Y gelara hain zuzen, bertan zoruan ikusi genuen, liburua eskuen artean zedukala, zutitu nahiz, ihesean aurretik eraman eta egotzi zuen mahaitik eroritako hainbat libururen artean. Zutitu nahi eta orriak erauzi eta erauzi ari zen, lehen bai lehen, ahalik lasterren, bere harrapakina irentsi nahian bezala.

Haren ondora iritsi ginenean, zutik zegoen, zegoeneko, eta gu hantxe sumatu gintuenez, aurka egin zigun, atzerantz egiteaz batera. Argiontziko argi gorriak haren aurpegi izugarria argitzen zuen: Hazpegiak kaskailduak[3817], bekoki-belarrondoak izerdi likitsez basituak, begiak ohiz herio-xurbilak odolez estalixeak, ahotik larrutx-txatalak ateratzen zitzaizkion, basa-piztia janariz okatua[3818] laso. Larritasunak itxuratxartuta, bere zainetan zehar suge antzera zihoakion pozoinak erasana, behiala gurgarri zen agure haren begitartea nazkagarri eta negargarri agertzen zen, deabruzko erabaki etsiagatik: beste halako egoera batean, barregarri izan zitekeen, baina gu ere haraz gero nolabaiteko piztia bezalakaturik gengozen, zakurrak harrapakinaren atzetik amorratuak bezalakoak.

3817Kaskaildu: (H. “deformadas”
3818Okatu: (H. “atragantada”)

Patxadarekin harrapatuko genuen, baina suhartasunez[3819] arinegitu[3820] ginen harengana. Tris[3821] egin zigun eta liburua paparrean estutu zuen, babestearren. Nik ezkerraz heldu nion, eskuinaz argiontzia goian atxiki eta. Baina garraz haren aurpegia igurtzi nuen, eta beroa sumaturik intziri ito bat egin zuen, orro antzo, eta ahotik orri-txatalak erortzen utzi zituen. Haren eskuinak liburua askatu zuen, argiontzia bilatu eta ukaldi batez erauzi zidan eta aurrerantz aurtiki zuen…

Mahaitik eroritako liburu multzo bat zegoen, batzuk besteen gainean orriak zabalik, eta argiontzia, doi-doi, nahaspila haretara joan zen. Koipea isuri zen eta berehala suak hartu zuen, eta hantxe larrutx bigun bat txaria[3822] edo zotz lehorra bezala erretzen hasi zena. Gertatu guztia di-da baten: liburuetatik goiti garra, milaka urteko orri haiek mendeetan noiz kiskaliko igurikitzen egon balira bezala, sekulako ekpirosis baten egarria asez gozatzen. Gilen gertatzen ari zenaz ohartu zen eta sentona askatu zuen –honek aske atzera urrats batzuk egin zituen–; zalantzan lipar batez, luzeegi hala ere, Jorge berriro atzeman ala su meta

3819Suhartasun: vehemencia
3820Arinegitu: precipitarse (?)
3821Tris egin: (H. “zafarse”) (Trink e. Treil eg. : encontrarse) (?)
3822Txaria: (H. “hornija”) (Egur mehea, abar, gailli, zotz...)

tiki hura itzali behar ote zuen zalantzan. Besteak baino zaharragoa zen liburu bat ia berehalako batean erre zen, eta su-garra gora iraitzi zuen.

Haize-pirrinta meheak, gartto ahul bat itzaltzeko gai, alderantziz gar handi-bizkorrak biziagotzen zituztenak ziren, eta suaren hedatzen zutenak.

— Azkar, itzali su hori! –Gilenek niri oihu ozenez–. Oro erreko duk eta!

Su metara jo nuen, dzapart[3823], eta bat-batean trika[3824], zer egin ez nekielako. Gilen niri urgaztera. Besoak zabal-zabal, su alderantz, begiak bila eta bila zerez itzal edo iraungi; bertatik bertara niri burutaratu: soingainekoa erantzi, eta burutik sutara egotzi. Garrak garaiegi, ordea: nire soinekoa miaztu eta irentsi zuten. Eskuak erre eta, edeki[3825] nituen, Gilenganantz bihurtu eta honen gibelean Jorge ikusi nuen. Beroa handia eta ongi sumatu zuen, eta hurreratu, hantxe sua eta Aristotelesena garretara egotzi zuen.

Gilen herraz oldartu zitzaion eta zaharrari bultzada gogor bat eman zion, armairu batekin talka, buruak ertza jo,

3823Dzapart: (H. “me lancé”) (De golpe, bruscamente...)
3824Trika: trikatu, gelditu
3825Edeki: kendu

zorura erori… Gilenek, hala ere, birao lazgarri bat entzun niola uste dut, ez zion hari jaramonik egin. Liburuetara itzuli zen. Beranduegi. Aristotelesena, hots, agureak jan eta gero harenik geratu zen hondarra, kiskaltzen ari zen, zizpiltzen eta suntsitzen ari zen.

Bien bitartean, txinpart batzuk ez baziren pindar batzuk ziren, hormetarantz eta armairuko liburuetarantz barreiatu, eta suak hartu zituen, orriak zimur-zimur[3826] eginki. Orain sute bat ez, bi.

Gilen ohartu zenez, gure eskuez ezin itzali izango genuen, eta liburuak liburuez gaizkatzea erabaki zuen, liburuak itzalgailu, beraz. Liburu bat hartu zuen, besteak baino itxuraz hobeto koadernatua edo, trinkoagoa nonbait, eta sua iraungitzeko iskilu legez erabiltzen ahalegindu zen, ahalak egin eta egin etsaiari erasoka. Baina, liburuaren azal iltzez josia ukaldika erabiliz sutatik pindar gehiago barreiatzea besterik ez zuen lortzen. Zanpaka oinez itzaltzen saiatu zen, ekin eta ekin baina alperrik, aitzitik, bestelako ondorioa erdietsi zuen, zeren, larrutx-txatalak airean goiti baitzihoazen, ia txingar bihurturik, eta airean saguzarren

3826Zimur: (H. “abarquillando”)

antzera hegan sakabanatzen ziren, eta beste orri batzuen gainetara eroriz sua ihaurriagotzen[3827] zuten, hedatzenago.

Halabehar gaiztoak nahita, gela hura labirintoko nahaspilatuenetako bat zen. Arasetatik zintzilik biribildu eskuizkribuak; beste liburu batzuk desenkoadernatuak, urteen urtez azalak iharturik zegozen, ezpainen artean mingainak agerian bezala; mahaia lehenago, antza, hainbat liburukiz mukuru egon zen, Malakiasek beste leku batzuetatik bertara eraman eta utziak izan zirenak (azken egunetakoak soilki) zegozkien lekuetan ipinkizun. Gela, beraz, Jorgek eragindako anabasaz[3828] gero, larrutxez lepo zegoen, beste gauza bat bihurtzeko itxaraiten zegozen larrutxak.

Gerottoago, toki ha sutoki izango zen, laharra garretan. Armairuak ere kiskaltzen, karraka[3829] hasi ziren. Labirinto hura, orduantxe konturatu nintzenez, sakrifiziorako su-meta handi bat zen, lehenbiziko su-inarraz[3830] erretzen has zedin eratua…

3827Ihaurri: esparcir
3828Anabasa: revoltijo (H. “desorden”)
3829Karraka: ruido de chispas, etc. (H. “crepitar”)
3830Inar: txinpart, pindar...

— Ura, ura behar!– Gilenek larri-larri, baina honela gehituz–: Eta non dago urik suleze[3831] honetan?

— Sukaldean, sukaldean! –oihuz nik.

Gilenek harri eta zur so egin zidan, begitartea amorruagatik gorrituta:

— Bai, baina jaitsi eta gero atzera igo… Pikutara! Edonola ere gela hau galdua zagok, ondokoa ere bai, aurki. Jaitsi arin, ni ur-zun noak, hik abijeik[3832], betor jendea, ugari!

Eskailerako bidea laster ediren genuen, suzko argiak ondoko gelak ere argiztatzen zituelako, aurrera ahala gero eta motelago, eta azken geletatik ia itsuka irago ginen. Behean, gaueko argi hitsak *scriptorium*a mottel-mottel argitzen zuen, eta bertatik jatokira ginen. Gilen lasterka sukaldera; ni jatokiko atera eta nekez ireki ahal izan nuen, barrutik, asalduragatik erabat leloturik eta baldarturik bainengoen. Azkenean, zabaltzara irten nuen, etzanguetara ziztu bizian, baina berehala otu zitzaidan: fraideak banan-banan iratzartea luze, eta elizara jo, kanpandorrera asmoaz. Heldu eta bertan, soka guztiei tenk egin, ordara[3833] joz. Gogor tenk eta kanpai nagusiak, igoaldian, neu igaiten

3831Suleze: inpernu
3832Abijeik: da la alarma (?) (Abijein, abijeizu)
3833Ordara jo: tocar a rebato

ninduen. Liburutegian esku-gainak erre zitzaizkidan; ahurrak onik baina sokak gora eta behera azkenean erre, odolez bete eta egite hari utzi behar.

Ordurako zarata nahikoa egina nintzen. Lasterka zabaltzara jaitsi eta une haretantxe lehenengo fraideak euren logeletarean irteiten ikusi nituen, eta urrunago morroien hitzotsak entzungai, beren bizitokietako atalaseetan agertzean. Nik hitzak ondo ahoskatu ezin eta zer gertatzen ari zen azaldu ezinean; ezpainetara etorri lehen hitzak nire ama-hizkuntzan. Odoldutako eskuaz Eraikinaren hegoaldeko leihoetara begirarazten nien. Alabastrozko lauzak ezohiko argitasunez estalita. Hau ikusirik ohartu nintzen, ohartu ere, ni handik joan ondorean, kanpaien joiten ari bitartean, suak beste gela batzuk hartu zituela. AFRIKAko leiho guztiak, eta ekialdeko dorretzarrarekin lotzen zuen hormako guztiak, hala-holako su-distiraz argituak ziren.

— Ura, ekarri ura! –oihu negien

Hasieran, inork ez zuen ulertu. Lekaideen ustetan, liburutegia toki sakratua zen, iristezina ere bai, eta ezin uler zazaketen une haretantxe su arrunt batek mehatxu edo zemai zegiokeela, edozein ikazkinen txosna bailitzan. Leihoetara

begira jarri ahala aitaren egiten hasten ziren, izuzko eleak marmarka: agerpen berriak zirela uste zutela konturatu nintzen. Haien soinei atxiki nik, erreguka uler zezaten, harik eta baterean batek nire auhenak haien giza-hizkerera itzuli zituen arte…

Nicola da Morimondo zen, eta honela esan zuen:

— Liburutegia sutan dago!

— Azkenean! –esan nuen ene baitarako, eta ahiturik erori nintzen nahita, neke-neke egin eta.

Nicolak kalipu[3834] handia erakutsi zuen. Zerbitzariei agindu zien, inguruko fraideei aholku, batzuk Eraikinera igorri zituen, ateak ireki zitzaten, beste batzuk pertz eta ontzi guztiak bil eta ekar zitzaten, eta gainerakoei iturrietara eta zegozen ur-biltokietara joan zitezen agindu zien. Behizainei mando-astoak erabiltzeko esan zien upelak garraiatzeko… Agindu hauek guztiok agintari edo nagusi batengandik jasoak izan balira, berehala beteak izan ziratekeen. Zerbitzariak, ordea, Remigioren aginduetara ohituak ziren; kopialariak Malakiasen aginduetara; guztiak Abadearen aginduak betetzen ohituak eta gertuak. Ai ene, baina hiruotarik bat ere ez zegoen han. Fraideek begiez

3834Kalipu: kemen, adore…

Abadea bilatzen zuten, zer zen eta azal ziezaiengatik eta lasaitzearren, baina ez zuten edireiten, eta neronek ez bestek zekien orduan hantxe Abadea hilik zegoena, edo hil zorian zegoena, horma bien arteko igazleku itogarri, ordurako labe bihurtu haretan harrapatua, labe edo Falarisen[3835] zezen bihurtutakoan.

Nicolak behizainak alde batera igorten zituen arren, beste fraide batek, asmo onez, beste aldera agintzen zien. Lekaide batzuk, nabari zen, urduri baino urduriago; beste batzuk, ostera, oraindik orduan loak hartuxeak. Ni azaltzen saiatu eta saiatu, berriz ere hizketan behar bezalakaturik, baina erdi-biluzik nengoen, soinekoa garretara egotzi eta, eta odoletan ere bai, bestalde, aurpegia kedarrez[3836] belztua, gorputza xurbil-argaldua, hotzak uzkurtuxea, beraz: sinestekoa ez nintzen, doike, enegandik harean entzindu ezin.

Azkenean, Nicolak anaia eta beste lagun batzuk sukalderantz joan zituen; ateak zabalik, ordurako. Norbaitek, ordu onean, zuziak ekarri zituen. Tokia guztiz nahaspilaturik aurkitu genuen, oro anabasa, eta Gilenek egina zela pentsatu nuen, ur eta ontzien bila ibilita.

3835Falarisen zezen: torturatzeko tresna bat
3836Kedar: hollín

Orduantxe Gilen ikusi nuen, jatokiko atetik sartzean, aurpegia kizkurtua, soingainekoari kea zeriola, eskuetan pertz handi bat zedukala, eta tamal eman zidan, ezintasunaren alegia kaxkarra baitzuen irudi. Pertz hura bete ur bigarren solairuraino, tantarik isuri bagez, igo izan balu ere, eta behin baino gehiagotan egin ukan balu ere, guti izan zatekeen lortu ahal izango zuena, oso guti. San Agustinen historia etorri zitzaidan gogora, ume bat itsasoko ura zali batez ontzi batera biltzen ari zela ikusirik: umea aingeru bat zen, eta hala eginaz santuari iseka zegion, beronek jainko-izaeraren barruko misterioetan barrena sartu nahi zuela eta. Eta aingeru harek bezala mintzo zitzaidan Gilen, ate ondoan bermaturik unatua eta ahitua[3837]:

— Ezin da. Ez dugu inoiz erdietsiko. Ez eta abadiako fraide guztiakaz ere. Liburutegia galduta dago[3838].

Aingeru harek ez bezala, ordea, Gilenek negar zegien.

Haren ondora nintzen; erauzi zuen mahaitik oihal bat ni estaltzeko asmoz. Azpiratuta[3839] gengozen; gure inguruan zer gertatzen zen behatzen[3840] geratu ginen.

3837Ahitu: (H. “exhausto”) (Unatu, akitu...)
3838Larriaren larriz hika egiteari uzten dio.
3839Azpiratu: (H. “derrotar”)
3840Behatu: (H. “observar”)

Jende guztia hara-horra zebilen karran, arinik arin batera eta bestera. Batzuk gorantz, esku hutsik eta eskaileretan jaisten ziren beste batzuekin tupust eta tril[3841], lehenttoago igoak ziren, jakin-minez, eta ontzi eske beherantz. Beste batzuk, ernaienak[3842], berehala lapikoak eta palanganak bilatzeari ekiten zitzaizkion, eta gerora ohartzen zirenez sukaldean ez zegoen behar beste urik. Bat-batean, sukalde handia upelak edo treskak[3843] zekartzaten mandoez bete zen; behizainek upelak harturik ura goiko estaira eraman nahi zuten. Baina ez zekiten *scriptorium*era nondik igaiten zen, eta luxe joan zen kopialari batzuek nondik behar zuten irakatsi zieten arte; eta igoaldian izu-ikaraturik jaisten zirenekin tupust egiten zuten. Treska batzuk puskatu ziren eta ura isuri zen, eta beste lagun bizkor batzuek eskailera kiribiletik beste ontzi batzuk bete ur eramaiten zituzten. Talde honi jarraiki nintzaion eta laster *scriptorim*era: liburutegirako sarbidetik ke lodia ateratzen zen, ekialdeko dorretzarretik igaiten saiatu ziren azkenak eztulka itzultzen ziren, begiak gorriturik, eta suleze haretara sartu ezin zela zioten.

3841Tupust egin: tril egin, topo egin...
3842Ernai: (H. “despabilado”)
3843Treska: tina

Orduan Bentzio ikusi nuen. Aurpegia zeharo zurbildua, behetik gora zetorren ontzi eskerge bat zekarrela. Liburuegitik itzultzen zirenek zer zioten aditurik, honela erauntsi[3844] zien:

— Inpernuak irentsiko zaituzte, koldarrok! –Bihurtu zen, laguntza eske bezala eta ikusi ninduen–: Adso –oihuz–, liburutegia… liburutegia...

Ez zuen itxaron nik erantzun arte. Azkarki eskailera barrenera jo zuen eta ketara sartu zen, barruratu kemen handiz. Ikusi nuen azken aldia izan zen.

Goitik zetorren karrakada[3845] bat entzun nuen. *Scriptorium*eko sabaitik harri puxka batzuekin nahas-mahas kare zatiak erortzen ziren. Ganga-giltzarri lore antzo landua jaregin[3846] zen eta nire buru gainera erori. Labirintoko zorua eteten hasia zen.

Ziztu bizian beheko solairura nintzen eta kanpora irten nuen. Morroi ernai batzuek zurubiak ekarri zituzten eta leihoetara iristen ahalegintzen ari ziren, goiko estaietara ura beraietatik sartzearren. Baina zurubirik luzeenak ozta-ozta *scriptorium*era heltzen ziren, eta bertaraino igo zirenek ezin

3844Erauntsi: (H. “apostrofó”) (?)
3845Karrakada: crujido (karraska, kirrizka...)
3846Jaregin: (H. “desprender”)

leihoak kanpoaldetik ireki. Barrutik ireki zitzaten agindu zuten arren, inor ez zen, ordurako, sartzera ausartzen.

Nik hirugarren estaiko leihoei begira. Liburutegi osoa, harez gero, txingarrontzi kejario bihurtuta zegokeen, eta sua gelaz gela zebilkeen, milaka orri ihartu lehorretatik barreiatuz, geldiezin. Leiho guztiak argiztaturik, goiko aldetik ke-mordo beltz bat jalgiten zen: suak sabaiko hagak eta gapirioak hartuak zituen, antza zenez, lataz lata[3847] hedatzen zihoan. Eraikina, hain gotor eta hain higiezin zirudiena, egoera haretan bere ahultasuna erakusten hasi zen, bere arrakalak: barrutik jandako hormak, kareorerik bageko harriak, zurezko egitura ezkuturaino garrak sartzeko zirrikituak, beraz, agerian.

Banpez, leiho batzuk lehertu ziren, barruko indar batek bultzaturik bezala; txinpartak lekora erori ziren eta gaua argi-inar hegalariez josi zen. Haizea baretua zegoen, eta zoritxarrez, zeren, indartsu putz eginez gero, agian txinpartak iraungi baitzituzkeen, baina, ahula izanik, txinpartok hara-horra eraman eta bizkortzen zituen, airean larrutx-txatalekin batera, barruko sua gero eta gero bizkortzenago zelarik. Une haretan danbada[3848] bat entzun

3847Lata: sabaiko (teilatu) oholak)
3848Danbada: estruendo

zen: labirintoko zoruaren zati bat hautsi zen eta haga erreak *scriptorium*era erori ziren. Garrak hantxe ikusgai, hainbat liburu eta hainbat armairuren artean, eta mahaien gainetan orriak suak noiz harrapatuko. Atsebageko garrasiak entzun nituen, kopialarienak ziren, buruak eskuen artean zoro moduan gora nahi eta hain maite-maite zituzten larrutxak suaren garretatik askatu beharra zutelakoan, eta ezinean. Alperrik, izan ere, sukalde-jatokietan arima galduen antzera, noraezean joanean joanez, elkarri oztopo eginez, hor tupust han tril zebiltzan, ibili, alperrik. Jendeak talka egiten zuen, erortzen zen, ontzitik ur iraungigarria isurtzen zitzaien eramaileei, sukaldera sarturiko mandoak, suaren beldur, ostikoka hasten ziren eta kanpoalderantz joiten, lagunak eta beren mandazainak berak ere aurretik eroanez, oro izu. Hango giza-saldo zalapartatsu baserritarrez eta fededun jakintsuez osatua, argi zegoen, urgazpen guztiak ezinezko ziratekeela, erabat ezertarako ezak haien ahaleginak.

Nahaspilak gaina jo zuen. Tragedia edo sarraskiaren hatsarrea zen. Haizeak bultzatu eta txinpart-hodeiak leihoetatik gailen ateratzen ziren, sabaitik goiti eta gainaldetik orobat, eta alde guztietara sakabanatzen ziren, elizako hegatsa ukitzeraino. Ziren guztiak jakinaren gainean ziren, ezen, hainbat katedral bikain suak irentsi eta suntsitu

izan zela: Jaungoikoaren etxea, harri landuengatik, Jerusalem zerutar baten irudiko agertzen da, eder eta gaindiezin, baina hormak eta gangak zurezko egitura ahul, nahiz arkitektura miresgarria izan, baten gainean bermatzen dira. Harrizko eliza bada ere, bere zutabeengatik eta hagengatik basoa irudikatzen du, gangetaraino igo adarrak haritz adarren irudiko dira, eta soina ere haritzaren, eta zurezkoak halaber altzariak, aldareak, erretaulak, jarlekuan, argimutilak, koroak… Halakoa zen abadiako eliza, lehen egunean hain ederretsi nuen aitzinaldearekin. Berehala erre zen. Orduan fraideek eta ordekako bizilagun guztiek ulertu zuten abadiaren bizitza zela jokoan zegoena, eta guztiek ihesari eman zioten, lasterka, hondamendia ekidin nahiz era ausartiaz bezain nahaspilatuaz.

Zalantzarik bage, elizara iristea errazagoa eta, ondorioz, liburutegia baino babesgarriago. Beroni sartzeko zuen zailtasunak berak kalte egin zion, sargaitza zen eta honegatik babesturik zegoen, baina ordu gaitz haietan ona gaitz bilakatu zitzaion. Elizetxea, aldiz, ama baten antzo, otoitz-orenean orori zabalik zegoen, eta beharrizanean ororen laguntza jasotzeko ere zabalik. Baina ez zegoen urik edo guti zegoen, eta iturri andurrek ohiz bezain astiro emaiten zuten, eta ez unean uneko premia lazgarri harek

behar zuen bezainbeste ur. Guztiek, noski, elizako sutea itzali nahi izango zuten, baina inork ez zekien, ordurako, nola egin. Gainera, sua goian hasi zen, eta igo ezina izan zen, garrak lurrez edo zapiez ito edo iraungitzea nahi izan balitz ere.

Eta garrak behera iritsita, lurra edo harea edo zernahi egoztea alperrikoa zen, ezertarako eza, zergatik eta suaren aurka borrokan ari eta ari zirenen gainera sabaia zatika erortzen zelako, eta su-hiltzaile amorruz eta suminez gainez eginda zihartuten haietako asko bertan lur jota geratu zen.

Halako moldez, ezen, hainbat aberastasunen galeragatik garrasi egiten zutenen ondoan aurpegia kiskalita, hanka-besoak zanpatuta, gangetatik eroritako sabai-zatiek azpiratuta zegozenen marraskak[3849], aliaitzak eta aieskak entzungai baitziren.

Haizeak atzera indarka egiten zuen putz, eta indar handiagoz laguntzen zion suari zabalpenean. Elizetxetik garrak laster ukuiluetara eta itegietara irago ziren. Izu-lauorrian, abereak, indarka berebat, lokarriak eteten, ateak apurtzen, kanpora irteiten, ordekan zehar ihesean, orroka,

3849Marraska: berrido / Aliaitza: gemido de dolor / Aieska: grito espanto

irrintzika, marrakaka alde egiten hasi ziren. Pindar batzuk zaldien zurdetara iritsi ziren eta zabaltza osoa inpernuko abere zoroez bete zen, noraezean apatx-aurtikika[3850] zihoazen suzko zamari erotuez bete zen, gau beltzean han-hor-hemen argittoak ihaurriz. Brunello bikaina ikusi nuen, suz inguraturik, Alinardo lurrera egozten zuenean, hantxe alderrai zer gertatzen zen ulertu ezinik zebilena, eta lurrera erori ondorean tarraz aurretik eraman zuen, bertan behera gauza hutsa bailitzan utzi zueneraino. Baina ezin nion sorotsi ez urgatzi, ez haren zoritxarreko heriotzagatik negar egiten geratu ere. Triskantza orotan eta ezin gelditu inon.

Suzko zaldiek sua zabaltzenago zuten, haizeak berak ordura arte eraman ez zuen lekuetaraino: lantokiak eta fraidegaien etxea ere sutan. Lagun-saldoak zabaltzan hara-horra, alderik alde zihoazen eta zetozen, nora jo ez jakinki, harean batera eta inora ezean, antxintxika, karran, arinik arin. Nicola urkusi[3851] nuen, burua zauriturik eta soinekoa xerraka[3852] urraturik, amor emanda, bide erdian belaunikaturik, jainko-madarikazioa madarikatzen ari zela. Pacifico da Tivoli ere begiztatu nuen, ezein laguntzari uko eginki, erotutako mando bat atzeman nahi zuela, eta lortu

3850Apatx-aurtikika: ziztu bizian (‘echando pezuñas”)
3851Urkusi: urrundik ikusi
3852Xerraka: (H. “en jirones”)

zuenean oihu egin zidan berdin egin nezan, ihes egitearren, hango Armagedon-en simulazio hilgarri haretarean ihes.

Gilen non ote zegoen galdetu nion ene buruari, hondamendiaren azpian ehortzita gelditu ote zen beldurrak jota nengoen. Luzaz belutu nintzen haren edireitean, kalostrape ondoan. Aldean bere bide-zorroa zedukan: sua fraidegaien etxera hurbiltzen hasi zenean, bere gelara igo zen, bere gauza preziotsuak, bederen, gaitzetik jasotzeko asmoarekin. Nire zorroa ere jaso zuen, eta barruan janzteko zerbait. Arnasestuka, gure inguruan zer gertatzen zen ikusten geratu ginen.

Abadiarenak egina zuen. Eraikin guztiak, hola edo hala, garren alhagune[3853]. Suak ukitzeke zegozen tokiak laster hartuko zituen, zeren, oro sutea zabaltzearen alde baitzegoen, hasi izadiaren egieratik eta sua hil nahi zutenen egiera zentzubage edo kaotikora. Eraikinik ez zegozen guneak ziren gaizke bakarrak, hala ortua nola kalostrape aurreko loretegia… Ezin ezer egin eraikinen alde eta zabaltzarean arriskurik bage ikustea baizik ez.

Elizari begira gengozen, astiro erretzen ari zena; izan ere, halako eraikin handiak suak hartu eta bixkor-bixkor

3853Alhagune: (H. “pasto”)

zurezko zatietatik zizpiltzen diren arren, gerora beste zati ez erregarriak orduetan eta maiz egunetan su motelez, ke dariela, luzaro hil zorian egoiten dira. Eraikin nagusiko sua bestelakoa zen. Bertan erregaiak ugariagoak, eta sua, ordurako *scriptorium* osora hedatua, sukaldea zegoen solairuraino ere heldua zen. Hirugarren solairua, berriz, lehenago ehunka urtez labirintoa zegoen lekua, erabat suntsitua, erraustua zegoen.

— Kristau-herriko liburutegirik handiena zuan –Gilenek niri–. Orain –gehitu zuen–, Antikristo gertu dagoela egia duk, ezein jakintzak beraren etortea galaraziko ez dik eta. Beste aldetik, gau honetan beraren aurpegia ikusi diagu.

— Noren aurpegia? –nik, harri eta zur eginik.

— Jorgez ari nauk. Aurpegi horretan, filosofiari dioen gorrotoak itsustu horretan, lehenbiziz Antikristoren irudia ikusi diat, Judaren leinutik ez datorrena, haren etorrera iragarten dutenek dioten bezala, ez eta inongo lurralde urrunekotik ere. Antikristo errukitasunean berean sor daitekek, Jaungoikoari gehiegizko maitasunetik etor daitekek edo egiatik beretik hel daitekek, heretikoa santuagandik sortzen den bezala, eta deabrutua iragarleagandik bezala. Ihes egik, Adso, profetengandik eta

egiaren alde hiltzeko prest dagozenengandik, beste hainbaten heriotza eragiten baitute, sarritan eurena baino lehenago, maiz eurenaren ordez. Jorgek deabruzko lana egin dik, bere egia luxuriaz maite zuelako, gezurra suntsitzearren orotara ausartu baitzen. Aristotelesen bigarren liburuari beldur zioan, agian beronek egiaz egia ororen aurpegia nola itsustu irakats zezakeelako, gure mamuen jopu bihur ez gintezen. Agian gizakiak maite dituenaren ataza[3854] gizakiei egiaz barre eragitean zatzak, egiak berak barre egitean, zeren, egia bakarra egia bilatzeko grina kaltegarritik[3855] aska gaitezen ikastean baitatza.

— Baina maisu –nahibageturik esatera ausartu nintzaion–, orain sakon-sakonean zauriturik zagozelako mintzatzen zara horrela. Honela eta guztiz ere, egia bat dago, gaueon aurkitu duzuna, aurreko egunetan irakurri izan zenituen zantzuak ulertaraziz aurkitu zenuena. Jorgek irabazi du, baina zuk Jorge garaitu duzu, beraren bilbea agerian utzi baituzu...

— Ez zegoan inolako bilberik, eta okertuta aurkitu diat, huts egiteaz.

Kontraesana zen haren baieztapena, eta ez nuen jakin Gilenek hala izan zedin nahi ote zuen benetan.

3854Ataza: tarea
3855Kaltegarri: insano

— Baina elurretako oinatzak Brunellori zegozkiokeela egia zen –esan nuen–, Adelmo bere buruaz beste egin zuela egia zen, Benantzio upelean ito ez zela egia zen, labirintoa zuk asmatu bezala eratua zegoela egia zen, *finis Africae*ra sartzeko *quatuor* hitza sakatu behar zela egia zen, liburu misteriotsua Aristotelesena zela egia zen… Aurrera egin nezake zure jakintza baliatuz aurkitu dituzun egiak aletuz…

— Inoiz ez diat zalantzarik egin zeinuen egiaz, Adso, munduan atanda hartzeko[3856] gizakiak duen bide bakarra duk. Ulertu ez nian, ordea, zeinuen arteko harremana. Jorgerengana iristeko krimen guztien eratzailea zelakoan xede apokaliptiko bati jarraiki natzaiok, alta bada, dena halabeharrez gertatu izan zuan. Krimen guztien egilea bakarra zelakoan Jorgerengana iritsi nauk, alabaina krimen bakoitzaren gibelean egile bat zegoan, edo bat ere ez. Jorgerengana gogamen zital eta hausnartzaile baten xede bati jarraikiz heldu nauk, eta ez zegoan inolako xederik, edo hobeto esatearren, Jorgeri berari aurreneko xedea eskutatik joan zitzaioan, eta gerora zergatikoak bata bestearen atzetik joan zituan, batzuk konkomitanteak, hots baterakideak, eta beste batzuk beren artean kontraesanekoak edo

3856Atanda: "(Sc), situación, posición, dirección" (H. “orientarse”) (?)

bateraezinak, zein bere aldetik gertaturik, xederik bageko loturak sorraraziz. Non dago bada, nire jakintza? Kaskagogorra izan nauk, eratasun-simulazio[3857] baten atzetik joan nauk, unibertso honetan eratasunik ez dagoela jakin behar nukeen arren.

— Horrela eta guztiz ere, eratasun faltsuak irudikatzeaz zerbait aurkitu duzu…

— Eskerrik asko, Adso, gauza eder-ederra esan duk. Gure gogamenak irudikatzen duen eratasuna sare antzeko duk, edo eskailera antzeko, zerbaiteraino heltzeko asmoz eraikitzen baita. Baina gero eskailera bota behar duk, zerbaitetarako izan bazen ere, ezertarako ez zela ohartu eta. *Er muoz gelîchesame die Leiter abewerfen, sô Er an ir ufgestigen ist*...[3858] Honela esaten da?

— Horrela da ene mintzairan. Nork esan du?

— Hire herrialdeko mistiko batek. Nonbait idatzi zian, ez diat gogoan non. Eta ez duk beharrezko inork inoiz haren eskuizkribua edireiterik. Egia bakarrak tresnak dituk geroago egotzi beharrekoak.

3857Eratasun: (H. “orden”)
3858Igo bezain laster eskailera bota behar du

— Ezin diezaiokezu zeure buruari deusen erantzuki egin[3859], ahal izan duzun guztia egin duzu eta.

— Gizonak egin ahal duen guztia, anitz ez baita. Unibertsoan inolako eratasunik ez dagoelako aburua zaila duk, Jaungoikoaren nahimen askeari irain eginen bailioke, eta halaber beraren oroahaltasunari. Honelatan bada, Jaungoikoaren askatasuna gure zigorra duk, edo gure harrokeriaren zigorra, behintzat.

Lehen eta azken aldikoz nire bizitzan ondorio teologiko bat ateratzera ausartu nintzen:

— Baina nola izan daiteke izaki beharrezkorik, guztiz ahalbidetasunez kutsatua? Nolako aldea dagoke, horrela izanik, Jaungoikoaren eta hatsarreko kaosaren artean? Jaungoikoaren oroahaltasun guzti-guztizkoa baieztatu eta era berean bere aukeren artean hautatzeko ahaltasuna berrestea, ez ote da Jaungoikorik ez dagoela egiaztatzea?

Gilenek begiratu zidan, bere hazpegiek inolako sentimendu-zantzurik erakusteke, eta esan:

— Nola irakatsiko luke jakintsuk bere jakituria hire galderari baietz erantzunez gero?

3859Erantzuki egin: reprochar

Ez nuen ulertu haren hitzen zentzua:

— Adiarazi nahi ote duzu ez zegokeela jakituriarik irakastekorik egiaren erizpidea bera ez balego, edo ezin zenukeela dakizuna irakatsi besteek utziko ez lizuketelako?

Une haretantxe logeletako sabai zati bat erori zen, burrunba ikaragarria eraginez eta txinpart-hodei bat ortzirantz aurtikiz. Zabaltzan alderrai zebiltzan ardi-ahuntz andana bat gure ondotik irago zen marraka izugarriak eginez. Gure ondotik halaber, otsein talde bat garrasika, eta doi-doi ez gintuzten zanpatu.

— Nahasmendu handia zagok hemen –Gilenek esan zuen–. *Non in commotione, non in commotione Dominus*[3860].

AZKENENGO ORRIA

Abadia hiru egunean eta hiru gauean sutan egon zen, eta hondar ahaleginak ezertarako izan ez ziren. Gu han egondako zazpigarren eguneko goizean, bizirik geratu zirenak eraikinik bat ere gaizkatu ezin zutela ohartu zirenean, eraikinik ederrenak elizarekin eraitsi eta lur jota

3860«Jauna [ez dago] hunkiduran, ez hunkiduran»

geratu zirenean, kanpoaldeko hormak erori ondorean, dorrea bera irentsi bezala egin zen eta orduantxe jende guztia Jainkoaren zigorrari aitzi egiteko ahul eta enpoil[3861], gogobageturik gelditu zen. Ontzi ur-zun zihoazenak gero eta gutiago, lasterketak mehatsago[3862], ontziak ere urriago, eta sua beti bere ten-tenean[3863] kapitulu-gelarekin batera Abadearen gela bikainak erre eta erre ari zen. Lantokietara iritsi zeneko, morroiek ahalik eta balio handiko gauzetarik gehienak bertarean idokiak zituzten, eta ordekan zehar bila eta bila zebiltzan, abere batzuk biltzeko asmoz, gaueko nahasmenduan barrutitik ihes egin baitzuten.

Otsein batzuk eliza-hondarretara[3864] sartzera ausartzen zirela ikusi nuen: altxorraren kriptara sartzera zihoazela bururatu zitzaidan, bitxi-gauzarik edo zerbait baliotsu eskuratzeko asmoarekin, eiki, ihes egin aurrez. Ez dakit lortu ote zuten, kripta eraitsita ote zegoen, harrapakariak[3865] bertara sartzerakoan lurperaturik gelditu ote ziren.

3861Enpoil: ahul, ezadeus
3862Mehats: ralo, raro, escaso
3863Ten-tenean: ‘en sus trece’
3864Hondar: (H. “lo que qedaba de la iglesia”)
3865Harrapakari: (H. “pillo”)

Bizkitartean, baserritik gizonak jiten ziren, urgatzi asmoz, edo, bestenaz, beraiek ere balioko zerbaiten harrapatze aldera. Hildakorik gehienak artean txingarretan zegozen aurrien artean gelditu ziren. Heren egunean, zauriak sendatuxerik, hilak ehortzirik, fraideek eta abadiako beste bizilagunek beren gauzak jaso zituzten eta ordekatik joan ziren, artean ke zerion leku madarikatua bailitzan. Ez dakit nora buruz sakabanatu ziren.

Gilen eta biok leku haretatik zamari[3866] banatan urrundu ginen, zamariok basoan galdurik aurkitu genituen eta orduan *res nullius*-tzat[3867] hartu genituen. Ekialderantz jo genuen. Bobbiora sartu eta gero, enperadoreaz albiste txarra jaso genuen. Erroman zegoela, herriak koroatu baitzuen, Joanekin inolako itunik egiteari urtzirik, antipapa bat hautatu zuen, Nikola V.a Marsilio zen Erromako bikario espirituala, baina beronen erruagatik, edo ahultasunagatik, hirian jaulkitzeko oso goibel edo hitsak ziren gertakariak izaiten ziren. Meza eman nahi ez zuten apez Aitasantuarekin zintzoak zirenak torturatuak izaiten ziren, agustindarretako priore bat Kapitolion lehoien hobira egotzi zuten. Marsiliok eta Jean de Jandun-ek Joan heretikotzat aldarrikatu zuten,

3866Zamari: kabale
3867«inorenak ez ziren gauzak». Erromatar legediko esamoldea.

eta Ludovikok heriotzera kondenatu zuen. Enperadoreak, berriz, txarto jaurten[3868] zuen, bertako jaunen etsaitasuna bereganatzen zuen, herri-altxorretik dirua ebasten[3869] zuen. Albisteok aditu ahala, Erromara bidean gure jaitsiera moteltzen edo belutzen genuen, eta horrelako gertakariak Gilenek ikusi nahi ez zituela ulertu nuen, bere itxaropenak lurpera egozten[3870] zituzten gertakariak.

Pomposara iritsitakoan, Erroma Ludovikoren aurka matxinatu zena jakin genuen, berori atzera Pisarantz igo zena, eta bitartean Joanen ordezkaritza Avignonera sartu zena jakin genuen, hotsandiro sartu ere.

Honenbestez[3871], Michele da Cesenak hiri haretan egoitea ezertarako-eza zela ulertu zuen, eta bere biziaz beraz ere beldur zen. Honen ondorioz, hanka egin zuen eta Pisan Ludovikorekin batzartzera joana zen. Enperadoreak, ostera, zegoeneko, ez zuen Castruccioren laguntza, Luca eta Pistoiako jauna zen hau hila baitzen.

Hitz gutitan: jazokizunei aurrea harturik, eta Bavariarra Munitx-erantz zihoana jakinik, gure bidea aldatu genuen eta hura baino lehenago iristea erabaki genuen.

3868Jaurri: gobernar
3869Ebatsi: (H. “sustraer”)
3870Lurpera egotzi: (H. “echar por tierra”) (N) (Suntsitu...)
3871Honenbestez : (H. “a todo esto”)

Besteak beste, Gilen konturatzen hasia baitzen, ezen, ordurako Italia herrialde segurua ez zela. Hurrengo il eta urteetan Ludovikok jaun *gibelin*en elkartea nola deuseztu zen ikusi zuen, eta hurrengo urtean Nikola antipapak Joanen aitzinean erauki esan[3872] zuen, garaitia eman zion, beragana lepo inguruan soka zedukala agerturik.

Munitxera heldu ginenean, nire maisu onarengandik bereizi beharra izan nuen, ez, haregatik, negar malko ugari isurtzeke. Haren etorkizuna ezbaikoa[3873] zen, eta nire gurasoek ni Melk-era itzul nendin nahiago ukan zuten. Isileko[3874] hitzarmen bat bailitzan, abadiaren hondarren aurrean, gau lazgarri haretan, Gilenek bere etsipena erakutsi zidanaz gero, gertatu hura guztia ez genuen harzara beste behin ere ahotan hartu. Eta azkenengo agur mingarri egitean ere ez genuen aipatu.

Nire maisuak aholku on asko eman zidan, nire ikaskizunetarako, eta Nicolak egin zizkion betaurrekoak oparitu zizkidan, bereak berreskuratu eta. Gazte nintzela, esan zidan, baina egunerean baten baliagarri izango (izan ere, honako hauxe idazten ari naizeino sudurraren gainean

3872Erauki esan (H. “rendirse”) (Garaitia eman, amor eman...)
3873Ezbaiko: (H. “incierta”) (N)
3874Isileko: (H. “tácito”)

daduzkat eta erabilgarri zaizkit). Gero besarkatu ninduen, aita baten xamurtasunaz, eta agur esan zidan.

Ez nuen inoiz gehiago ikusi. Askoz geroago jakin nuenez, mende honen erdialdean Europa guztian hedatu zen izurrite handian hil zen. Jaungoikoak haren arima jaso lezantzat otoitz egiten dut beti, harrokeriagatik egin izan zituen makurrak barkatu eta gero, hantuste intelektualak bultzatuta eginak.

Urte batzuk geroago, gizon heldu xamarturik nintzela, nire abadeak agindu eta Italiara bidaia bat egiteko aukera ukan nuen. Tentaldian erori nintzen, eta, itzulaldian, inguru luze bat egin nuen, abadiaren herexak[3875] ikustearren.

Mendi hegaletan egondako bi baserriak hutsik zegozen, inoreztuak; aldameneko lur sailak lantzeke. Ordekaraino igo nintzen eta nire begien aurrean, malkoez bustita, heriotza eta hondamendi ikuskizuna.

Leku hura edertzen zuten eraikin handi bikain haien hondarrak baino ez, aurriak non-nahi, antzinateko Erroma hirian fedebagekoen oroitarriak antzo. Huntzak hormetako zirrikituak estaliak zituen, erori ez ziren zutabeak, arkitrabe

3875Herexa: vestigio, marca, resto...

bitxiak ere bai. Lur sailak basa-landareez mukuru, ortua eta baratzea eta loretegia non egon ziren igarri ezin. Hilerria zen nolabait ezagunesten, oraindik orduan lurrean zegozen hilobi batzuengatik. Bizi zantzu bakarra hegazti harrapakari handiak sugandilak eta sugeak atzemaiten ari, hormen arteetan basiliskoen antzera ezkutatzen edo irristatzen baitziren. Elizako ataurrea hondar batzuk baino ez, mutxiak[3876] estalita. Tinpanoaren erdia hantxe eta tronuan Kristoren ezkerreko begia begiztatu nuen, liken zikinen geruza hitsarekin, egurats gorrian[3877] egoiteagatik higatua, lehoiaren aurpegiaren zati bat ere agerian.

Ekialdeko horma izan ezik, hautsia eta erraustua, Eraikinak zut zirudien, aldiari erronka eginez laso. Kanpoaldeko dorretzar biak, amildegi alderanzkoak, ia ukitu bageak itxuraz, baina alde guztietan leihoak betzulo hustuak zirela zirudien eta haietatik beheti luzatzen ziren landare igokariak begi haietako negar malko likitsak. Barrualdean, sukaldetik ikusirik izadiak lehengo esku-lan bikainak itsutuak zituen, nahas-mahasean, sabaiak eta goiko solairuak erori eta behea jota. Hainbat hamarraldiz gero, goroldioz estalirik ez zegoen guztia, suteko keak belztua.

3876Mutxi: moho (Lizun, urdin)
3877Egurats gorri: intemperie (Egurats zabal)

Zaborren artean zokomiran[3878] ibilirik, larrutx-txatalak aurkitu nituen, han-hor-hemen, *scriptorium* eta liburutegirean eroritakoak, lurrean ehortziriko altxorren antzera bizirik zirautenak. Biltzen hasi nintzen, liburu bateko orriak banan-banan berrosatu behar banitu bezala. Gerottoago ohartu nintzenez, dorretzar bateko eskailera biribila zutik zegoen, ozta-ozta, ia ukitua izan ez bailitzan, *scriptorium*era zihoana, eta bertotik, zabor mendi baten gainean gaindi, liburutegiaren mailara igo zitekeen… nahiz eta tegi hutsa kanpoaldeko hormei itsatsi eta alde guztietatik hutsune eginda egon.

Horma zati baten ondoan armairu bat, zutik nola nik ez jakin arren, eta suteaz gero urak eta zomorroen eraginagatik ustelduxea. Barruan oraindik orduan orri batzuk. Behealdeko zaborren artean beste txatal batzuk aurkitu nituen. Uzta kaxkarra nire ha, baina egun osoa hantxe eman nuen, bil eta bil, hango *disiecta membra*[3879] haietan mezurean bat edo ediren uste bezala. Larrutx-xerra batzuk margul, beste batzuetan lehengo irudiren itzal antzeko zerttobait igar zitekeen, tartean-tartean hizki edo hitz baten mamua. Orri batzuetan otoitz osoak irakurteko

3878Zokomiran: (H. “hurgando”)

3879«soin-adar sakabanatuak» [edo barreiatuak aditutako hizkuntza guztietakoak].

aukera zegoen; koadernazio hautsi bageak ere bai, metalezko tatxoiek babesturik egon bezala… Liburu-kume izan zirenak orobat han, itxuraz kanpo zindo baina barru ustel; baina orri erdiak era onik, eta izenburu, *incipit*, bat igar zitekeen…

Aurkitu ahal izan nituen erlikia guztiak hartu nituen eta bi bide-zorrotan sartu, eta altxor ziztrin hura salbatzearren, niretzat baliagarri ziren beste gauza batzuk han bertan utzi nituen.

Melk-era itzultzeko bidean, hondar haiek zer ziren asmatu nahian orduak eta orduak eman nituen. Maiz, jasotako hitz batek edo irudi batek zein idazlan zen igarteko aukera eskaintzen zidan. Geroago, urteak joanda, liburu haien aldakiak aurkitzean, maitasunez aztertu izan nituen, patuak hura guztia jarauntsigai[3880] utzi balit bezala, suntsituriko alea aurkitu izanak zerutiko zeinu garbi bat balitz bezala, esan-nahia *tolle et lege*[3881] zelarik... Berrosatuz joan nintzen astiro-astiro eta bukaeran liburutegi tiki bat edo eratu nuen, suntsitu handi haren irudiko… txatalez, zatiez,

3880Jarauntsigai: materia de herencia

3881«har eta irakur». San Agustinek entzun uste izan zituen hitzak, bere kobertsioa erabaki zutenak.

aipamenez, aldi ezosatuez, liburu-erroez[3882] egindako liburutegi.

Zerrenda hori zenbat eta irakurriago gero eta uste handiagoa dut asturu edo halabeharraren emaitza dela eta ez duela ezelako mezurik. Baina orrialde osatu bageko horiek bizitza osoan lagun egin didate, ordudanik orain arte bizi izandako guztian, usu berrikusi izan ditut orakulu legez aztertzearren, eta badut uste honako orrialdeotan idatzi dudan hau, oraintxe zuk, irakurle ezezagun horrek, irakurten diharduzun hau zentoi bat baizik ez dela, hots, beste idazlan batzuetako txatalez edo adabakiz osaturiko irakurgai, irudizko ereserki bat, hots eresi ederren zatiz osaturiko doinu, akrostiko erraldoi bat, txatal haiek iradoki didatena baizik ez diona ez errepikatzen; ez dakit, halaber, orain artean mintzatu dena ni izan ote naizen edo, aitzitik, haiek nire ahoz mintzatu ote diren. Edonola ere, osatu den historia hau irakurri eta irakurri eta ez dakit gertaera berez, sorturiko batzuen bilbe edo hurrenkera hutsa ote den, haien artean loturik gertatu ote ala ez. Eta fraide zahar honentzat, Herioren atarian, gogor da idatzi duen hitzak isilpeko mezurik ba ote duen ez ote duen ez jakitea, bat ote duen, edo asko, edo bat ere ez duen.

3882Erro: (H. “muñones”)

Beharbada, ikusteko ezintasun hau itzal batek sorrarazia da, mundu dagoeneko zahar honen gainera ilunbe handia egozten duen itzalak.

Est ubi gloria nunc Babylonia[3883]? Non dagoz beste garai bateko elurrak? Lurrak Macabre-ren dantza egiten du; sarritan, Danubiotik zoroez zamaturiko txalupak ibiltzen direla iruditzen zait, leku ospel[3884] batera doazelarik

Isiltzea baino ez dut. *O quam salubre, quam iucundum et suave est sedere in solitudine et tacere et loqui cum Deo!* Luzaro bage, nire hatsarrearekin elkartuko naiz, eta dagoeneko ez dut uste hori nire baldernako abadeek esaten zidaten aintzazko Jaungoikoa denik, ez pozezko ere, garai haietako frantziskotarrek uste zutena legezkoa, eta, heldubada, ez da errukizko Jaungoikoa ere izanen. *Gott ist ein lautes Nichts, ihn rührt kein Nun noch Hier…* Arinik arin basamortu handi baino handiago horretan barrena, laulaua eta amaiezina den horretara sartuko naiz, bihotz jainkotiarrak dohatsutasunez mukuru amor emaiten duen horretara. Jainkozko ilunbetan murgilduko naiz, isilaldi mintzuletan, batasun adiarazezinetan[3885], eta murgiltze horretan berdintasun oro eta ezberdintasun oro galduko da,

3883«Non dago orain Babiloniaren loria?»
3884Ospel: sombrío
3885Adiarazezin: (H. “inefable”)

eta leze horretan nire espiritua bera galduko da eta ez du bereiziko berdina dena eta berdina ez dena, eta ez besterik ere: eta ezberdinasunak oro ahantziko dira, hasierako funtsean izanen naiz, anizkoitasuna inoiz izan ez den basamortu isilean egonen naiz, inor ere bere lekuan ez dagoen intimitatean. Jainkotasun isilera eroriko naiz, bizidunik ez dagoenera, irudirik ez dagoenera.

*Scriptorium*en hotz dago, erpuruak min demait. Ez dakit norentzat, bego idazki hau, zertaz ari den dagoeneko ez dakidan idazki hau: *stat rosa pristina nomine*, *nomina nuda tenemus*[3886].

3886Arrosarenik ez zaigu izena baino geratu. (?)